



EUSKERAZKO IDATZ-LANAK



EUSKERAZKO

IDAZ - LANAK

*** * ***



OSKAR eta
OLAZAR eta URIBĒ`tar MARTI - ABADEA 1.927`an`ZEMENDIA`ren 17`tik

ONEIK DIRA NIRE EUSKERAZKO LAUGARREN TXANDAN EGINDAKO IDAZ-LANAK; OLAZAR eta URIBE´tar MARTIN´eri EZKER.

IDAZ-LAN GUZTIAK, “ZER” eta “EUSKERAZAINTZA”ren ALDIZKARIETAN ARGITARATZEKO EGINDA DAGOZ, GURE EUSKAL-SENDIAREN ARAZOAREN GORA-BERAGOKO MAMIAN.

BERAK, ZUZENDU EBAZAN LAN GUZTI AUEK, ETEN-BAKO ALEGIN BATEN, EUSKAL-IDAIZLE ITXURA ON-BATEN AGERTU NAITEN, ESATEN EBAN LEZ.

BAIÑA, JAUNGOIKUA´k EMOTEN DAUSKUN BIZITZEKO EPE-BIDEZ DEITU EUTSON eta 2.008´ko IRAILLA´ren 20´an ARREZKEROZTIK BAKARRIK GERATU NINTZAN.

GAUR, EUSKERAZAINTZA ta EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN LENDAKARIA, BARROETA eta AMORRORTU´tar KLAUDIO ARDURATU DA NIRE IDAZ-LANAREN ZUZENKETAKAZ. ETA USTE DOT, BESTE ALDI-EDER BAT DAUKATELA AURRETIK.

ONAINDIA ta BAZETA´tar SANTI, OLAZAR ta URIBE´tar MARTIN eta SAN SEBASTIAN ta ZUBILLAGA´tar JOSE MARI (LATXAGA), IZAN DIRA NIRE BIZITZAREN OREKARAKO IPARREZKO-IZAR EDERRENAK eta ZOR ANDIAGAZ GERATU NAZ EUREKIN.

ZELAN ORDAINDU ?. EURAK ALEGINDU NABEN ELBURUA-GAITIK ETEN-BAKO LAN EGINDA: “JAUNGOIKUA, SENDIA eta GURE EUSKALERRI EDER MAITE AU” DIRA ELBURU ORREIK”.

BIDE ORTATIK GURE IPARRAGIRRE LEZ, MUNDUARI, ESKEINTZA EDERRENA EGITEN DAUTSAGULAKO.

“NORTASUNA, BEREZTASUNAREN LEGEZKO ZIURTASUNEAN ORDEZKATUTA LORTZEN DA”.

“ETA NIK BADAKIT, EUSKALDUNAK NORTASUN ANDIKOAK GARELA”.

- AURKI - BIDEA -

IZEN-BURUA

ORRIA

I.....-	BEREZ SORTUA, JAIOTZA, ABERRIA.....	6
II.....-	LEGEDIA´ren eta DEMOKRAZIA´ren ARTEKO EGOKITASUNA ta ASKATASUNA.....	9
III.....-	GIZARTEA´ren ESKUBIDEA´k.....	12
IV.....-	NOR-BERE ERABAKIA´ren JABETASUNA.....	15
V.....-	BERRIKETALDIAK DIRALA-TA.....	18
VI.....-	III JUANA ALBRIT eta NAFARROA´ko ERREGETZA.....	23
VII.....-	EUSKALERRIA (I).....	83
VIII.....-	EUSKALERRIA (II).....	86
IX.....-	EUSKALERRIA (III).....	89
X.....-	OPARIZKO EGUNAK.....	93
XI.....-	EUSKALERRIA´ren ARAZOA, GOI-MAILAKO LISKARBIDEAN.....	96
XII.....-	EUSKALERRIAN LAN EGITEKO, ZAR-SARIA´ren SASOIA ONENA.....	100
XIII.....-	EIBIZA´n 15 EGUN.....	102
XIV.....-	NORTASUNEZKO IZAERA´ren ZENTZUA (I).....	120
XV.....-	NORTASUNEZ´ko IZAEA´ren ZENTZUA (II).....	123
XVI.....-	NORTASUNEZ´ko IZAERA´ren ZENTZUA (III).....	126
XVII...-	ESKOZIA´tik ZEAR ADIÑEKOA´kin.....	134
XVIII...-	EUSKALERRIAREN ASKATASUNAREN EDESTIA.....	142
XIX.....-	EUSKALERRIA´ren ASKATASUNA´ren EDESTIA Zemendia´ren 21´ean LENENGO ITZALDIA.....	194
XX.....-	EUSKALERRIA´ren ASKATASUNA´ren EDESTIA Zemendia´ren 23´an BIGARREN ITZALDIA.....	201
XXI.....-	EUSKAREA.....	214
XXII.....-	EUSKALERRIA´ren EGIA (I), ABERRI LEZ SORTZEN....	217
XXIII...-	EUSKALERRIA´ren EGIA (II) ASIERA eta ERROMATARRAK.....	219
XXIV...-	EUSKALERRIA´ren EGIA (III), MENENDEZ PIDAL´ek EZ DIÑOANA.....	221
XXV.....-	EUSKALERRIA´ren EGIA (IV).....	224
XXVI...-	EUSKALERRIA´ren EGIA (V), JAKINTZAREN EDESTIA.....	227
XXVII...-	EUSKALERRIA´ren EGIA (VI), JAKINTZA eta IZKUNTZAK.....	229

XXVIII...-	EUSKALERRIA´ren EGIA (VII), ZERGAILIL LATIN-KUMEAI LEENTASUNA.....	233
XXIX.....-	EUSKALERRIA´ren EGIA (VIII).....	237
XXX.....-	SALOU´ra INSERSO´rekin.....	240
XXXI.....-	TREBIÑO´tik TXANGOLARI.....	245
XXXII.....-	ARABA ARAKATZEN.....	250
XXXIII...-	“AGUR MARTIN !!”.....	256
XXXIV...-	ONAINDIA´tar AITA SANTI eta OLAZAR`tar MARTIN GOGORATZEN.....	269
XXXV.....-	“IZADIA ZAINDU” EUSKAL TOKI-IZEN MUNDUAN eta “EUSKAL EDESTIA”.....	278
XXXVI...-	EUSKEREIA eta EUSKALDUNAK.....	331
XXXVII...-	IZADIA ZAINDU (LENENGO-ITSALDIA).....	335
XXXVIII..-	IZADIA ZAINDU (BIGARREN-ITSALDIA).....	348
XXXIX...-	“AGUR” ETXENAGUSIA ta URIBE´tar ON-KARMELO.....	365

- BEREZ-SORTUA = JAIOTZA = ABERRIA -

SARRERA:

Gaur egunean arritzekoa da, politikuen artean erabilten dabean jaiotzaren iru zentzu oneik ikustea.

Esan leike, bakoitzaren alderdi aldera jokatu ez gero, dan guztiak balio dauela.

Mundu onetan, sekula ez dot uste ainbeste maltzur-saldukerizko adierazpenean ibiliko ziranik, berez jaiotasunezkoa danari.

Nik, iru itaun galdetuko neuskiez politiko onei: a).- "Gure antolamenduaren ardurak... berez jaiotasunezko eskubideen gaiñetik dagoz ?. b).- "Gure ardurazko ekintzan, zer ulertzen dogu...Jaurri, Jaurkintza eta zuzenduaren, izen argigarriakaz ?. d).- "JAUNGOIKOA` gan sinisten dogu ?.

BEREZ SORTUA:

Berezitasunezko Mundu onetan dan guztia, sortarazteko antolamenduan egokituta dago, eta ez dago gure almenean ezer aldatzerik.

Bere emonkortasunak ez dauka amaierarik, eta gogamen guztiak sorraildirako bideratuta dagoz, ez dagoelako beste biderik. Nai gaian, nai gure oldozmen edo gogamenean, guretzat dana eginda dagoelako beste aukerarik gabe. Sorraldian era barriak sortu daitezcan gizartearen onerako, gure gogamen-onagaz danon artean bakotzari bere zor-eskubidean banatzeko ardurean.

Banatzeko arlo onetan baiña, sortzen dira negar-barregarrizko gauzak orreik, batzuk, geiagoren gosean dabizelako.

Ez dira oartzan edo konturatzen, Mundu edo Ludi au fisikoa dala, eta leku batetik neurritz kanpo artzen danean, besteak neurri bardiñako gabetasunean geratzen dirala.

JAIOTZA:

Mundu onetan, JAIOTZA ikusten dogun lez berezkoa da, eta iñork ez dauko eskubiderik, bestien eskubidetik ezer artzeko, danok bardin jaioten garalako.

ZERGAITIK?: Amen JAINKOA`ren miresgarria.

JAINKOA`k, aberetasunezko gorputz oneitan, gure arimak bialtzen dauzalako, arrazoitasunezko almenagaz.

Eta..... zer esan gura dau orrek?: ARIMA bakotza, ikertzailletasunezko Mundu onetako LEGE-artera bear dauan tresneriekin bialtzen dauala, LEGE orreik ulertuta, garailletasunean agertu gaitzan.

Tresneri orreik zeintzuk dira?: Ikertasunezko Mundu onetan, Arrazoitasu- nezko ARIMA`k izatea, bakotzari ardurapean sartzen gaitu. Eta orren esan-gura, eginkizun guztiak nor-bereren ardurapean sartzen daukuzala da.

Or! non agertzen jakun tresneri aundi ta ederrenetariko bat "NORTASUNA". Besteak, berezkotasunaren legeak dira. Eurokaz batera erperatuta gagozenakaz.

Orregaitik eta beste aukerarik gabe, gure ziurtasunezko antolamenduetan agintzen doguzan legeak, berezkotasunaren legean oiñarrituta egon bear dira, gure arrazoi bidean, beren bereiztasunetik artuta izan bear diralako. Mundu onetan, Iñork! ez daukalako eskubiderik beren legerik atarateko, bereztasunetik kanpo NORKERIEN - LEGEAK - DIRALAKO.

ABERRIA:

Iker-Gai-Mundu onetako babesaren billa, gure berezitasunaren lojikazko antolamenduan, senituta leiñutu gintzazan, leiñu-arteon auzondu ta lurralde aundi baten aberritu, mailla bakotzak, NORTASUNEZKO NEURRI BARDIÑAK EUKIN DA.

Izkuntzan, oituran eta erlijiñoan, sendimendu batean sartu giñelako. Bakotzaren NORTASUNA, berezko lege-bereizketaren ekintzazko goraldian ERKIDETASUNEZKO-NORTASUNERA berez eltzen dira gauza guztiak. Eta ABERRIA`k or! berez agertzen dira.

"GURE ABERRIA, EUSKADI DA".

NORKERIEN bidez, iñork! ez dauka eskubiderik iñoren NORTASUNIK menperatzeko. ESKUBIDE BARDIÑEKOAK GARALAKO.

Eta gaur, makiña bat norkerietan gabiltz, bestien eskubidetik lapurketan eginda, gai onetan batzuk, sasi-jainkotasunean bizitzeko.

Emen itzi bear doguz gai-guztiak, era barriak sortu daitezcan. Eta ez dago egia aundiagorik.

EUSKADIN:

Gaur, Euskadin ikusten doguna, menperatzailearen norkerizko guzurrak berezko legearen aurka, guda-indar nagusiak daukiezelako, euren ustez nasai dabizela.

Ez dira konturatzen, Mundu onen berezko legearen aurka, guzurrak okerrezko gauzak dirala, eta iñork bere zentzunezko barnean ez dauzala on-artzen, nai-ta bestien aurrean, guzur orreik aldarrikatu.

Orregaitik, **ARRAZOI GUZTIA** gure alde egonda, ulertu eta jakin bear dogu, zelako jokoan sartuta gagozan. Izkillu barik ! arrazoizko jokogauzak diralako.

Len izkilluaren guda-indarrez menperatu ba-genuen, gaur ez daukie orren aukerarik, gudaren keiñuakaz ibilita be. Munduan artuta dagozan erabagiak, demokraziruntz`eko arrazoizko erabagiak diralako.

Goian esan doten lez, negar-barregarrizko guzur orreik, eurak be ez dakie zelan goxokiztu, eurei-be lotsa emoten dautselako berba orreik esaterakoan.

SORTERRIZKO NAZIO edo LATERRIA, BEREZKO NORTASUNEAN EZARTZEN DANA DA. ETA IÑORK EZ DAUKA ESKUBIDERIK NORKERIEN BIDEZ MENPERATZEKO. OR ! "EUSKALDUNEN ARDURAZKO EGINKIZUNA".

ATUTXA`tar PAUL

Zornotza`n 2.006`an Urtarrilla`ren 17`an

LEGEDIA`ren eta DEMOKRAZIA`ren ARTEKO EGOKITASUNA ta ASKATASUNA

SARRERA:

Gure eginkizunetan, Legedia`ren arauak eta Demokraziz`ko itz-bi oneik, Mundu onek berezko legean oiñarrituta daukazanakaz, uste berean betetan ba-dira, gizartean, ASKATASUNAREN itza, berez agertzen da.

Euskalerrian eta beste berezko errietan zoritxarrez baiña, beste gauza batzuk sortzen dira, XIX`n gizalditik ona, menperatuta gagozelako.

Menperatzaillak, demokratak dirala esaten dabe. Eta ortik asi-ta, ez dago guzur aundiagorik.

Demokrazia, bakotzari bere eskubidean zor-jakona emotea esan gura dau, eta Euskalerria`ri, bere jaiotasunaren aberriko laterritasuna.

Zelan baiña..... itz-bi orreik, aditz-joko onenean ezarri, bitxikeri oneik entzuten ba-doguz?: (Rojo`tar Jabier, senatore-batzarreko lendakaria`k, DEIA`n 2.005`ko Urtarrilla`ren 13`an) "PSOE ez da izketatuko Espaiña`ko lege nausi edo konstituzioa autsi edo zapaldu egiten dabenakaz, Euskadirentzako euren asmo-montio, eredu edo eskemak daukiezelako". Eta Rajoi`tar Mariano`k (DEIA`ko zerrenda berean): "Ate guztiak ertsi edo itxi bear jakiez, nor-beren erabakian edo auto-determinaziñoaren ameskerian dabizenai".

Itz orrei.... Demokrazia`ren zentzua, non atzeman edo onartu?.

Gaur egun, Demokrazia`ren itza, argi dago itz-bat baiño besterik ez dala. Orregaitik sakondu bear doguz gure eginkizunak Demokrazi`runtz, gure Nortasunaren eskubideak lortzea gura ba-dogu.

Menperatzaillak or ! ez daukie zeregiñik.

LEGEA:

Legearen zentzuzko arauak, erkidetasuneko gizarte guztia beartzen dau, ekandu edo oitura baten lan egitera, elburuak lortu gura ba-dira.

Erkidetasunaren zentzuzko elburuak lortzeko, beste gauzarik ezin dala egin, esan nai dau orrek.

Lege`aren ezarpena, JAINKOA`k Ludi oneri sartuta daukazan bezala, danon artean, orren arduragaz aukeratuta, kargutan edo jaurbidean ezartzen doguzanak bakarrik egin leikez. Erritarren borondatea dalako.

Legea`ren nai aundiena, IZATEA da. Erkidegoko gizarte guztiaren naikundea gogaldu eta egian atseginduten danean. Ori dalako jaiotzaren elburua.

Gaur egun, elburu ori zelan lortu ?. Erreza da: JAINKOA`k, Mundu oneri ipinitako legeak beteta.

Ez daukagu beste biderik JAINKOA`ren askatasuna lortu gura badogu, gu-be, ardurazko lege orregaz erperatuta gagozelako.

Mundu onetan orregaitik, ezin da egizko legerik egin, JAUNGOIKOA`k ipinitako legetik kanpo, edo, BEREN zentzuzko legetik ez ba-dira gogoz bakandu edo bereizten. Gure eginkizunak, gizartearen eskubideekin adostasunean egon daitezana.

EUROPA GAUR, ORAINDIÑO ERROMATARRAK ASMATUTAKO LEGEEKIN DABIL ZORITXARREZ.

DEMOKRAZIA:

Erriaren agintza, bere erritarren autarki bidez, esan gura dau itz orrek.

K.a. VII`n gizaldian, Grezia`k Ekialdeko Asia-txikerretik euki ebazan sortutako erri edo kolonitik agertu ziran egarri orreik, erriko gizartearen aztura- gaitik. Gero, K.a. V`n gizaldian Perikles`ek antolatu ebana, erritar guztien eskubideak babesteko naian.

Demokrazia`k, gora-beera asko euki dauz edestitik zear, norkerietan ibili diranak, asko izan diralako. Gaur be, begitzea baiño ez dago, zelako arazoak daukaguzan XIX`n gizaldian, espatakaz ipinitako Laterri oneikin.

Laterri orrei ezker, Demokraziaren itza entzun, entzuten dogu. Ikusi, igarri, oartu, nabaitu edo usaindu baiña, iñundik iñora be ez.

Berez jaiotako erri asko dira oraindiño, milla-urte askotan bizitzako ikaskizunak ondo oituratuta, euren jakintasunezko-barruan, daukiezan indar guztiekin Euskalerra-lez zaindu egiten dagozenak. Eta ori da azken baten borroka bakarra, gizartearen zor-eskubideak ekandu onean banandu egin daitezana. BATZUEN-GANDIK, NORKERIEN BIDEZ erabilten diralako, daukien sasi-jainkotasunaren asmakizunak beteteko..

ASKATASUNA:

Askatasuna, ez da beste gauzarik, gizartearen zor-eskubideak, ardurazko lotsa aundian banatzen diran` en ondorioa baiño.

Nortasunaren ardurazko lotsai, bakea ta lasaitasuna emoten dautsezelako.

Gaurko egunetan, nai irugarren gizaldian egonda be, bakea lortzea ez da gauza erreza, sasi-jainkotasunezko NAIKERIAN dabizenak gitxi izanda-be, esku-artearen indar asko daukielako, Mundu onen gizarte guztia, lotsaren arduratik atarata eta zoraldira bideratuta, daukien asmakizunetan menperatzeko.

Euskadiren gizartea konturatu bear da, menperatzailearen guzurrak argi ta agiri-agirian itzi bear dirala eta Mundu ta Europako atzerrietan erakutsi, euren laguntzagaz askatasuna lortzeko. ETA ORI, DEMOKRAZIAN ETENBAKO-LAN SAKONA EGINDA LORTZEN DA.

ATUTXA` tar PAUL
ZORNOTZA` n 2.006` an URTARRILLA` ren 19` an

- GIZARTEA'ren ESKUBIDEA'k -

SARRERA:

JAINKOA'k, gure ARIMA'k, ikertzailletasunezko gai mundu onetara, BERA'k ipinitako lege-artera bialtzen gaitu, bear dogun tresneriekin.

Tresneri andiena, gure arrazoizko ARIMA'k dira, danok eskubide ta zor bardiñakaz gaituta. Eta ARIMA da NORTASUNA'ren giza-mailla emoten dauskuna.

Eskubidea orregaitik, Nortasunarena da. Ardura be bai !. Errez da orduan ulertzea, Gai-Mundu onetan, ez dagoela eskubiderik zorrik gabe.

O.N.U.:

Mundu'ko bigarren atsekabezko-gudatik urten gendunean, eta zelako astokeriak egin ziran ikusita, Mundu'ko nagusien artean, oartzen asi ziran, erri ta gizartearen eskubide guztiak zaindu bear zirala. Edozein arazo konpontzeko, beti borrokan ibili bear ezkerro, Mundu'ko gizarte guztiaren itxaropena oso negargarria izango zalako.

1.944'an, Txina, Estatu-Batuak, Frantzia, Ingalterra eta Sobiet-Batasuna, Dunbarton'eko buruz-buruko alkar-izketan batzartuta, bidea emon eutsoen, Kalifornia'n berrogeita-amaika Nazio'en arteko San Franziz'ko Urian egin zan batzarrari, 1.945'ean Jorrailla'ko 25'etik, Bagilla'ren 26'raiño.

Batzar orren elburu nagusi lez: Erri guztien arteko bakearen ziurtasunezko babesa izan zan. Nazioen artean, adiskidetasunaren berogarritasuna sortzea. Eta errien arteko lankidetasunean, Munduan ekonomiaren arloetan sortzen ziran arazoai, gizartean, jakintzan edo giza-aldezkoetan (humanitarismo) konpondu daiten. Eta gizon-emakumearen oiñarrizko eskubideak berotu, aurrerantzean benetan lortu daiten, danok demokrazi on-baten ezartzea.

O.N.U.'ren erakundeko eskutitz ori 1.945'ean Urrilla'ren 24'an agintari guztiagaitik sinatu zanean, eraikita geratu zan erakundea.

Gero, 1.948'an, Nazio Batuetako erakunde'en giza Eskubidearen Batzordeak antolatu eta Paris'en batzartuta, Mundu onetako guztientzat, Giza-Eskubidearen-Adierazpena, ogeita-amar lege'gaietan argitaratuta aldarrikatu eben, Abendua'ren 10'ean, Espaina'ren ordezkariak artean zirala.

ESKUBIDEA 'k eta LEGEA 'k:

O.N.U.'ren Giza-Eskubideen aldarriketa ori, Ludi onek daukazan berezko legeetan oiñarrituta dago. Eta oso pozgarria da ori.

Adibidez. Bere zerrendako 28'n lege.gaiak diño: "Gizon/emakume guztiak, eskubidea daukiela, gizarte eta erri-arteantolamendu on bat ezarri daitela eskatzeko, eskubidearen askatasunak bete daitezcan, aldarrikapen oneitan esaten diran lez".

Zer gertatzen da baiña...., gaur egun eskubide guzti orreik ankazgora agertu daitezcan ?.

Ikustea baiño besterik ez dago, Erroma ta Godo'tarren menperatzaille asmakizunezko legeak, XVIII'n gizaldiritik batzuegangandik eten-bako alegiñean, oraindiño bertan daukaguzela. Berezko legeen aurkako-menperatzailleak zuzentasunera ekarri ezinik. Nai-ta eurak "Erri ta Gizartearen Eskubideak sinatu arren.

Bai ! Zesar'ek, erri ta gizarteak banandu daitezcan, maltzurtasunezko bidetik ibili eban norkerizko "VENI, VIDI, VICI" esan orreik, gaurko menperatzailletasunaren Erdira-Zaleko Laterritarrai argi ikuste jakena.

Gaurko egunetan ori ikusteko, ez da iñora joan bear.

Euskaldunak, eskubide guztiakaz "ERRI" bat garala aldarrikatzen dogunean, Espaina'ko menperatzaille erdira-zaleak: "NAZIOA'ren NAZIOA" dirala esaten dabe.

Zer esan gura dabe norkerizko neurri-gabekeri (lujuria) orregaz ?. Eurak, JAINKOA'ren parekoak dirala ?. Aita Santi gogoraturuz, onek: "Geiegizko Neurri-Gabekeria" dala, burua altzau barik esango eban.

Euskaldunaren bizitzazko iker-lan bidetik, Mundu'ko leifiuen antzera, atzeman (resolver) emon geuntson NAZIOA'ren itz-zentzuari. Mundu onen jaio-ekintzan, lora, zuaitz, arrain eta egazkiaren bizitzazko lege bardiñean, berezkotasunaren adierazpenak izan-da, gube berezko lege orreitan, berezizko jaiotzaren mailla bat garela ikasi gendun.

Ez dago zer ezan-be, daukaguzan ARIMA'ren arrazoi-bidetik, Ludi oneri Euskaldunak, zoragarrizko adierazpen berezi-demokratiko bat emon dautzagulako.

Gaur, zer esango leuke Estatu-Batuetako lendakari izan zan Harri S. Truman'ek eta bere denborako gizarteak, nai-ta berak 1.945'eant Dagonilla'ren 6'an Japon'eko Irosima ta Nagasaki'n atomozko leergailluak bota, gaur, giza-eskunbideekin sortzen jakunakaz ?. Bera eta bere denborako gizartea, ez ziran izan, gizartearen eskubideak sortu eban andienetarikoak ?. Zer gertatu da Ameriketant ?.

Dana dala, gaur Munduan ikusten doguna eta Espaina'n batez be, sasi-jainkotasunezko menperatzaille zaleak, gero-ta geiagoko

urduritasunean sartuta dagozela, aldarrikatu egiten dabezan sasi-arrazoi orreik, ezin dabezela egiaren arrazoizko maillan eutsi.

Euren esanetan, trikimailluzko arrazoi asko ibiliko dabez, guzurak, guzurrezko sasi-arrazoiekaz izan ezik, ezin diralako itxura baten ulertu.

Orregaitik gagoz belaunetaraiño sartuta, sasi-arrazoizko lokatz artean.

Laterrien egokitasunak, arrazoizko itzarmen edo elkargo bidetik lortu bear dira (Nortasunaren arloetan ez dagoelako beste biderik). Eta azkera orreitan, goragoko elburu nagusiak lortu.

Sekula indarkeriz edo larderialdetik (imposiciòn), unetxo orreitan, jaioten garan erri ta gizartearen eskubideko ardurak, ezereztuta geratzen diralako.

Ekintza orregaitik, or ! gaurko gizartea arduragabekeria egokituta.

Gaurko Laterriak, zentzungabekoak izanez gain, menperatzailleak dira.

ATUTXA´tar PAUL

Zornotza´n 2.006´an Urtarrilla´ren 26´an

- NOR-BERE ERABAKIA`ren JABETASUNA -

(Autodeterminación)

Arrituta geratzen da bat, gaurko lez 2.006`an Epailla`ren 2`an, DEIA egunkaria irakurterakoan, "ZAPATERO REITERA QUE EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN NO EXISTE" ikusi ezkeror.

Argi erakusten dabe esan orreik, espatakaz eta beti gudaren keiñu dariola buru gaiñetan daukagun Laterri au ez dala eskubidekoa.

Eta argiago, Laterriak eskubide orreik eukiteko besteari edo aurrekoari, kendu egin bear dautsozelako. Mundu onen Lege-Fisikoa dalako ori. Besteari kentzen ez badautzasuz, zuk ezin-dozulako euki.

Noren eskubideak dira orreik ?

Mundu onetara jaioten garanean, "NOR-BERE ERABAKIA`ren JABETASU- NEZKO ESKUBIDEAKAZ JAIOTEN GARA". JAINKOA`k, ARDURADUN IZATEKO BIALTZEN GAITULAKO MUNDU ONETARA.

ARDURA ORREITAN DATOZ OIÑARRITUTA ESKUBIDEAK.

Ez dago iñungo esku-bidean, Laterriak erabiltzen dabezan legeak, euren egokitasunera erabiltzen dabezan eratara erabiltzerik.

Eta gogapen orreik dira, Mundu au ankaaz gora ipinten dabena. Berezko arrazoiaren ardurak, euki bear dabena lekutik ataraten diranean.

Gaur, Laterri onen gizarte geiena eta gazteak batez-be, arduragabean agertzen dirala esaten dabe (ez da izango jazarraldia ?). Eta orregaz konturatze-ko, ikusi baiño ez da besterik egin bear, legeak zelango naiaren eratara erabiltzen diran.

Zergaitik bestela....., lege geienak berezkotasunezkoak izanda eta gure ezagurean dagonezkero gure berezko-arduragaz betetako, laterriak euren lege-bidez agindu bear dausku bete daiguzan ?

Or ! zeozer, bere lekutik kanpoz dago !. Eta ez da urrin joan bear, zergaitik dan jakiteko.

Gizakia beren babeserako, Munduaren berezkotasunean: senitu, auzotu ta erritu egiten da. Bakoitzaren Nortasuna, mailla guzti orreitan Nortasunduta. Bizitzaren irakatsiak oituratu egiten diralako gizarte arlo orreitan, sendi baten maitasunezko sendimendua artuz.

Ori da Euskal-Aberria ta Mundu onen Erri guztiena be bai. Eta elburu orreik lortzeko, gauzak lotsagizun aundiz, itzarmeneko ekintzan egin bear dira, bizitzaren legeak ardura orreitan alegintzen dauskulako.

Zer da..... lekutik kanpo dauana ?.

Laterri oneik, zalantzarik gabe. Daukien izaera, merkataritzazko batzangota- sunean, menperatzaillaren agindu gurean eta sasi-jainkotasunean bizi gura daben norkerian eginda dagozelako.

Eta orren esan naia: "Berezko legearen eskubidetik kanpo dabizela" eta "oldozmen edo gogapen ori aurrera eroateko, guzur utsean ibili bear dirala" da.

Orregaitik dira ain barregarriak alde-batetik. Bestetik baiña, ain zori-txar ta neketsuak gure elkar-bizitzarako.

Sozialistak, esan leike, menperatzaillaren aurka, berezkotasuna babesteko jaio zirala.

Eta eurek....., berezkotasunean sortzen diran Nortasunaren ardurak: Nortasunak kontuan euki gabe (ciudadanos de Europa); Nor-beren eskubideko erabakian (autodeterminación inexistente), Euskal-izaeraren gain...., beste gauza bat izan (español), eta abar ?.

Iparra galdua, eurak be ez dakie nundik-nora dabizen.

Eta nora-ezeko bide orreitan eskomatarrakaz alkartuta, ez ete dabe egingo Espartarrak egite eben antzera....., jaioten ziran umeetan, akatsen bat ikusita amiltegitik bota..... . Au, Euskaldun jaio dalako amiltegitira ?.

Premiñaz beterik dabiz bizi onetan. Eta ez da egoera egokiena edo ez dator adostasunean, gauzak egiteko lege-bizi onen zentzuak eskatzen dauan lasaitasuna- gaz.

Ariñeketazko ekintza orreik berez ekarten dabena, asetugabeko egoerak dira, noraezean eta Iparra galdua, ez diralako lortzen ELBURUA`k.

EUSKALERRIA:

Euskalerria, gaur iñoz baiño geiago, egian bizi bearrean dago, Euskaldunak eta bertan bizi garenok, Mundu onek oiñarrituta daukazan askatasun eta zentzunezko lege inguruan sendotu gaitzean. Or ! oiñarritzen diralako maitasunezko indarrak, askatasunaren gorapenak lortzeko.

Bakarrik ez, beste berezko erritarrai zor dautsaguzan lotsagizunezko lagun- tza euren askatasunak lortu dagiazan. Gero ta geiago izaten ba-gara NOR-BERE ERABAKIA`ren JABETASUNEZKO ASKATASUNERA igoten

garenok, ariñago lortuko dalako Mundu onen gai ta gizartea orekan ezartzea.

Eta danon indarrak alkartu daitezcan, gauza guzti orreik, premiñazko estutasun barik eta zuurtasun aundiz, jakinda zelako jokoan gabiltzan.

"EUSKADI`k, MEREZI DAU, BERE SEME-ALABAK ZUURTASUN AUNDIZ ALEGINDU DAITEZAN, BERAK BEAR DAUAN ASKATASUNA LORTZEKO".

ATUTXA`tar PAUL
Zornotza`n 2.006`an Epaila`ren 2`an

BERRIKETALDIAK DIRALA-TA -

SARRERA:

Nor-bera arrituta geratzen da, TVE-2`an 2.006`an Jorrailla`ren 15`ean, entzun eta ikusten diranean alako gauzak izketaldi baten.

Neure lagun-zar batek, antziñean esaten eustan egiaren gai-arloetan sakontzen asten giñanean, len: "TXARTO GOGORATU EGIZUZ eta ASMATUKO DOZU" esaten ba-gendun. Gaur "TXARTO EGIZUZ eta LABUR GERATUKO ZARA" esaten eban.

Ez da gitxiagorako, eta geiago Eleiza-Katolikuaren Kardinal barria dan Kañizarez`tar Antonio`ren agotik entzuten ba-dira.

Bera, 325`an Nizea`n egindako Eleiz-Batzar nagusiagaz eta 589`an Toledo`n egin zan Eleiz-Batzar Nagusiaz bat datorrela esan eban eta indarkeriaren batzangotasunezko menperazale eritzi orreitan oiñarrituta ikusi neban nik, bere erantzunetan alan agertu zalako.

Argitu daiguzan ba, Erromatar jaiotasunaren asmakuntzatik asi-ta: Zesar`en gogamenak; Konstantino`gaz Nizea`an artu ziran erabagiak eta Godo`ak Rearedo`gaz Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusian artu ziran erabagiak zeintzuk ziran.

ERROMATARRAK:

Erromatarren izaera Etrusko`aren asmakuntzatik sortu zan, oneik Sabino`ak eta Iszeres`ak alkartuta, Palatino, Kapitolino, Zelio, Biminal, Kirinal eta Abentino mendietan, aurreko-talde gudalariak ezarrita. Gero Tiber-ibaiaren beste aldeko auzotegi ta Janikulo, Batikano, Mario, Sakro, Pinzio, Kanpidoglio eta abar mendietakoakaz alkartuta K.a. 753`an sortu zan Erromatarren aundikotasunezko naikeriak, K.a. 510`ean Erromatarren jaitunak ziran eta Griego`rekin batera, onen iztegitik Latiña sortu eben. Erromatarrak, Godoak eta Eleiza-Katolikuak mundu guztian ezarri daiten ointzurarte indarrezko-alegin aundietan ibiliko ziran.

ZEZAR:

Zezar, K.a. 45`ean agintari nagusia egin ondoren, Mundu guztiaren jaurkintza- rako: "Kaizartza, Erlijioa eta Izkuntz bakarraren" asmakizunean ibili zan eta orregaitik il eben.

Beragandik baiña, gauza bi oneik geratu ziran etorkizunerako: "Goian aipatutako iru tresnerizko ardatz orreik, menpetasunezko batzangotasunean eta maltzurkerizko iru itz oneik VENI, VIDI, VICI, leenengo asmakuntza lortzeko.

NIZEA`ko ELEIZ-BATZAR NAGUSIA:

Erromatarren berakadan, 325`ean Nizea`ko III`n Eleiz-Batzar Nagusian, Konstantino`k Arriano`ren irakaspidea baztartu ta ziñauskerian gaitz-etsiratuta Katolikotasuna aukeratu eben danontzat.

"Katholiko" Greko izkuntzaren bidez datorren itza da, eta "OROKOR" edo "GUZTIEN- TZAKO DANA" esan gura dau. Jatorriz, Grekoera`ren KATA= "NORANTZA" eta HOLOS= "DANA edo DAN GUZTI`entzat" esan gura dauana.

Erromatarrak erabagi au artu ebenean, Zezar`en asmakuntzan Mundu guztia- rentzat "Kaizartza, Erlijioa eta Izkuntz Bakarrak" egon daitezcan, Eleizari eskubide aundiak emonda, indartzeko zan.

Orregaitik, urrengo oinkadan artu zan erabagia: "Ludi onetan, kaizartza ta Eleiza JAINKOA`ren ordezkari bakarrak zirala" esatea zan. Eta ortik aurrera, or ibili dira sinis-egi gogorraz ta indarkeri aundian, gurutzada ta inkisizioaren sinistu ezineko azterketakaz, dana naastuten gaur arte.

GODO`ak:

Erromatarrak porrot egiterakoan, Justiniano`k lortu eban "erromatarren lege guztiak bildumatzea" eta Atanajildo (551-567) sinist-arazita, lagundu eutson orduan Godo`en errege Ajila zanari bere kaizarren ezar-lekutik bota eta bera Toledo`n ezartzea bere katolikotasunezko kaizar-jaurkintzan, erromatarren eskubideko lege guztiak erakoz bitxi bat: Atanajildo`en ostetik Leobijildo izan zan urrengo errege 586`erarte.

Leobijildo, Ermenejildo Santua eta I Rearedo`ren aita zan. Leobijildo`k bere seme Ermenejildo il eban Arrianismoa ez ebalako

besarkatzen. Konturatzen da baiña, Konstantino`ren katolikotasuna dala bidea kaizartzaren ametsak garaitzeko.

Orregaitik, I Rekaredo`ri aolkua emoten dautso, katolikotasuna besarkatzeko, kaizartzak iraun dagian.

Onak, 587`an Arrianismoa baztartuz eta katolikotasuna besarkatuta, 589`an Toledo`ko III`n Eleiz-Batzar-Naguziak batu ebazan bere agindupean, eta ortxe emoten jako indarra oster a be, erromatarrek euki eben asmakuntzazko menperatasunaren batzangotasunari, iru baldintza oneikaz: "Grezia`ko jakituria; Erromatarren legea; Eleizaren katolikotasuna". Eta orren ondorioan, Merkataritza- rako bear diran gai-aberasgarri ta mozkin guztiaren kontrola. Europa guztia, eritzi bardiñean ezarrita.

ONDORIOA:

Erromatarren asmakizun ori aurrera eroateko, JAINKOA`k Mundu oneri ipinita daukazan berezko legeen aurka, argi dago erabagi politikoa zala eta gaur egun dala, naastuta diranen artean sasi-jainkotasunean bizi-gura dabenentzat. Erabagi ori, ez dalako bakearen eta pozgarritasunaren bidean, zelan banandu bear dogu ? Kristo`ren irakatsian ikasitakoak alderdi baten eta... katolikuak beste alderdian ?. Orduan.... zer dira katolikotasunezko eritziak ?. Argi dago, eleiz`tar batzuk, Kristo menperatasunaren lokartzarteko zinkikerian sartu gure dabela eurok kaizar`tzangotasunean bizitzeko.

Iruditzen zarie baiña.... zelangoa izango zan lokartzarteko jaurkin ori ? Erdi-mendearen negargarrizko denborak aaztu barik, "gaurkoa". Nortasunaren lotsagizunezko ardurak esku batzuetan menperatuta agertzen ba-dira, erritarrak, lotsagizunaren arduragabea agertzen diralako, noraezko bide galdu baten.

Orreik dira gaurko egoereak eta olangokoak dira Kañizares`tar Antonio onen sinismenak. Kardinala gaiñera ?. Ondo goazak !!.

EUSKALERRIA:

Euskalduna beti izan da Nortasun aundikoa, eta orren neurrian fededuna. Iñoz ez da joan iñoren lurak ez giza`rik bere mezederako menperatzen. Ez eta ondasunik be, bereagaz konpontzen zalako.

Menperatzaille zaleak, Euskalduna lapurra zala esaten eben, bere bizi guztian aurka egin dautsielako, Euskal-izaerazko nortasunaren babesle.

Urriñetik begituta be ez da egia ori. Bakarrik goian esan dotezan lau baldintza orrein bidez, Europa osoa morroien morroitasunezko giza-bide baten ezarri ebelako, Euskalduna bere lanakin al eben egi-bideko era- ezberdiñetan konpontzen zalako eta dalako bizirik irauteko.

Mundu zabalean be asko ibili da, eta atzerriko erritarrak beti esan dabe: Euskalduna ez dala izan Gaztela`tar edo Espaiñol-menperatzaille antzekoa, sinismenduaren berba aundikoa dalako.

Euskalerrian Kristautasuna sartu zanetik, sinismen aundiko gizartea izanda beti. Eta Eleizak gaur utzik agertzen ba-dira, ez da berak JAINKOA`gan sinistea itzi daualako, eleiz`tar batzuk eta Laterriaren menperatzaille zaletasunezko kide batzuk esan eta egiten dabezan maltzurkerizko guzurrakin gogaituta gagozelako baizik.

ELEIZA ta POLITIKA:

Esaten dabe, Eleiz`tar katolikuak politikan ez dirala sartzen eta ez dago guzur aundiagorik.

Ez da sartuko Laterriak egin bear daben jaurkinezko politika-ekonomikotan, baiña bai Europa ta Mundu`ko lurraldeen banaketan, eta ekintza ori politika txikerra izan barik, goiko politika da, oraindiño bere eskuetan dagoelako, erromatarren sakratuzko kaizartza ori. Mundu au, nagusi orrein eritzitara bideratzen dauana.

Ez dotena aituko sekula, JAINKOA`k gai`ezko zeru-lur oneik, BERA`k ipinitako legeakaz Ludi onen gai guztia berezkotasunean oiñarritu ba-dau, batzuk edo askok, zergaitik agertzen diran berezko lege orren aurka. Sasijainkotasunean bizitzeko ?.

BERA`k, berezkotasunezko lege orren bidez, bakoitzari lotsaren ardurapean NOR IZAN-DA bialtzen gaitu lur ontara, eta gure babeserako berez senitu, auzotu ta erritu egiten gara bakotzak bere Nortasunarekin eta mailla orreitako nortasunean, bear dogun lurralde bat Mundu onetan NOR da NOR.... Nortasun orreik ezereztuteko ?.

Zeren atzean dabilz..... menperatzaille ekintza orreik egiteko ?.

Nik eta nire errian beti babestuko dira JAINKOA`k gure izaeraren biderako Nortasunean oiñarritu gaitun lotsagizunezko ardurak betetea, nire ta nire erriaren bizi-izaeran bear-bearrezko ordezekoak diralako.

Zergaitik eukiko dabe ainbesteko premiña Mundu onen gizartea batzangotze-ko ?.

Ezin itxi berezkotasunaren gizon/emakume ta errien garaipena izen daiten ?.

Ariketa orreik, ez dabe ekarten besterik, Nortasunak daukan izaeraren erak aldatzeko amaibako aukeratan, aldatzen ibiltea etenbako eriotz-odoltsu baten baiño besterik ez. Azken baten berezkotasunean izan bear dauana, JAINKOA`k bakoitza Nortasun orren ordezeko ardurapean sartu gaitulako.

Aita Santuak bere Mundu`ko erri guztien aipamenean...aipatu ez !! Europa`n Euskalerrria erri zaarrena dana ?. Euskaldunai, San Inazio, San Fratzisko, Aita Bitoria eta ainbat abar... ainbeste zor dautsonai ?. Zerbait esan eban, eta ondo, gaurko baketze-bideari buruz.

Ori politika utsa da, eta politikako zaku ortan dagoz sartuta Rouko Barela, Kañizares`tar Antonio, Aznar, Fraga eta ainbat abar. Sozialistak aztu gabe.

Ni arrigarrituta geratzen naz, guzti oneik edo geienak beintzat, maritxuak edo andre-gixon`ak berezetasunetik kanpo dabizelako madarikatu eta eurak berezko errien iltzalleak izan !!.

Aita Santi`k, antziñetik esaten eustan, berezkoa dan gure EUSKALERRI maite onek, "etsai asko daukazela !!".

"EUSKALDUNAK, BADA KIGU BAI !! ZER DAUKAGUN AURREAN;
NORKERIZKO TXANTXETAN IBILTEKO".

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.006`an JORRAILLA`ren 18`an

**- III JUANA ALBRIT eta NAFARROA`ko
ERREGETZA**

- AURKI - BIDEA -

- Orrialdea -

<u>ITZ-AURREA</u>	4
<u>SARRERA</u>	5
<u>1 .- ERREGE-ETXEAK eta JUANA</u>	5
1.1 .- ARITZATARRAK.....	6
1.2 .- JIMENOTARRAK.....	6
1.3 .- ARITZA.....	6
1.4 .- JIMENOTARRAK.....	6
1.5 .- ARAGOIKO ERREGETZA.....	6
1.6 .- NAFARROAKO ERREGETZA.....	7
1.7 .- TXANPAÑATARRAK.....	7
1.8 .- NAFAR FRANTZETARRAK.....	7
1.9 .- KAPETO` tarrak.....	7
1.10 .- NAFARRAK.....	7
1.11 .- EBROX.....	8
1.12 .- FOIX.....	8
1.13 .- ALBRET.....	8
1.14 .- BORBON.....	9
2. .- ARIZTA` tarrak NORTZUK DIRAN eta ZER EGIN EBAN.....	9
3. .- TXANPAÑATARREN EKINTZAK.....	11
4. .- EBREUX` tarren EKINTZAK.....	13
5. .- GAZTELARREN (Trastamara) EKINTZAK.....	15
5.1 .- BEAUMONT eta AGRAMONT` tarrak.....	16
5.2 .- I D ^a BLANKA.....	17

5.3 .-	II JUAN.....	17
5.4 .-	IV KARLOS.....	18
5.5 .-	GAZTELUAK BOTATEN; ASKATASUNA.....	19

6. - FOIX` tarren EKINTZAK:

6.1 .-	FEBO` tarrak.....	21
6.2 .-	I KATALINA.....	21
6.3 .-	VIII KARLOS.....	23
6.4 .-	ANAI - ARTEKO GUDAK BARRIRO.....	24
6.5 .-	GAZTELATARREN BABESA.....	25
6.6 .-	ERREGEA KOROATZEN; FRANTZE` tarrak ASARRE.....	25
6.7 .-	ERREGE KATOLIKOAREN JOKOAK.....	26
6.8 .-	AITA SANTUA NAFARROAREN AURKA ESKOMUNIKAPENA. II JULIO.....	28
6.9 .-	ALEMANAKAZ ALKARGOA ; MAXIMILIANO.....	29
6.10 .-	LETRAN` go V KONTZILIOA. INGLATERRA ELEIZATIK KANPO.....	30
6.11 .-	KATALINA eta JUAN ERREGEAK BETI AITA- SANTUAGAZ.....	30
6.12 .-	FERNANDO KATOLIKOA eta BIANA` ko PRINTEZA. MALTZURKERIAK.....	31
6.13 .-	FERNANDO KATOLIKUAK GUDA, NAFARROA ESKURATZEKO.....	32
6.14 .-	II JULIO AITA-SANTUA, XII LUIS, FERNANDO KATOLIKUA eta I JUAN` en ERIOTZEA.....	33
6.15 .-	FERNANDO BIDEK, ZIZNEROS KARDINALA.....	34
6.16 .-	NAFARROA` ko II ENRRIKE eta ESPAINA` ko I KARLOS.....	34
6.17 .-	EGO-NAFARROA ASKATZEKO GUDA; II ENRRIKE eta I FRANTZISKO BAITUAK.....	36
6.18 .-	INGLATERRA` ko ARAZOA; VIII ENRRIKE ta KALVINO.....	37

6.19 .-	ARAZOAK, EZKONTZAKAZ KONPONTZEKO ALEGIÑAK.....	38
6.20 .-	II ENRRIKE` ren ERIOTZA; III JUANA ALBRIT ERREGIÑA.....	39
6.21 .-	JUANA, MAISU AUNDIAKAZ ALKARTUTA eta ERLEJIÑO ASILATASUNAREN ALDE.....	40
6.22 .-	LEIZARRAGA` tar JOANNES.....	42
6.23 .-	III ENRRIKE.....	44
6.24 .-	IV ENRRIKE.....	46

7.-ONDORIOA:

7.1 .-	SARRERA.....	47
7.2 .-	ETORKIZUNA.....	48
7.3 .-	EUSKALERRIA.....	48
7.4 .-	EUSKALDUNEN IZKUNTZA.....	49
7.5 .-	EUSKAL-NAFAR ERREGEZKO EDESTIAREN ONDORIOA.....	49
7.6 .-	NAFARROAN BILDURRA.....	53
7.7 .-	NAFARROA GAUR NORA ?.....	54

ITZ-AURREA:

Arrasti on, itzaldi onetara etorri zareen guztioi eta on-egin daigula danoi bere mamitik ulertzen dogunak.

ZERGAITIK ALBRIT`eko III`n JUANA NAFAR-ERREGIÑAREN GAIA ?.

a) Berezko Euskal errege-leiñutatik, Nafar-erregetzaren Euskal-Nortasuna zelan joan zan galtzen ikusteko, 1.512`an Aragoi`ko errege II Fernando ta Gaztela`ko tronu-kide V zana`k menperatuarte. Eta atzerritarren leiñu-eskuetan egonda, bere seme II`n Enrrike`gaz, Iparraldeko Nafartarren Jabetasuna Frantzia`ko erreñuan ezereztu arte. Errege-leiñu bakoitzaren egikera, azalpen labur bategaz argituta.

b) Aragoi`ko II`n Fernando`k zelako asmakizuna euki eban Nafarroa menperatu ebanean eta bere egikeraren orde, zelako ondorioak agertu ziran jakiteko.

d) Espaiña`ko I Karlos eta Frantzia`ko I Franzisko`ren denboran, Auñamendi`ko mendi-kateak zergaitik geratu ziran Frantzia eta Espaiña bitartean berezko muga baten antzera.

e) Beragaz, Euskalerrarentzat, zer esan gura eben Berrikuntzaren denborak. Eta Iparralde ta Ego-aldeko Nafartarren erreñua zelan, zuzentzen zan denbora orreitan.

f) Bera ta bere inguruko errege ta denborak izango dira itzaldi onen mamia. Eta bere eskontzagaz, zelan emoten jakon asiera Borboi leiñuari ikusteko. Bai, bere semearen erregetzagaz zelan amaitzen dan Nafarroa`ko erregetza, Frantzia`ren erregetza`k iruntsita. Eta Euskaldunak Iparraldean Frantzia`k eta Ego-aldean Espaina`k menperatuta, Euskalerrian, zelan geratu gintzazan erdibituta ikusteko.

g) Azken baten, ondorio baten bidez ikertuta agirian azaltzeko, argitu daiguzan Euskalerraren arazoak zeintzuk diran eta bizirik irauteko bear dauan jabetasuna berrezkuratu dagian.

i) Eta Martin`ek, niri agindu eustelako lan au betetea.

Asi gaitzezan ba, Euskal-Nafar erregearen ibil-bideak marrazten, III`n Juana erregiñaren denborara elduta, ikusi daiguzan zelan, Euskalerraren etsaiak arrazoiaren arloan, indarkerizko maltzur ta guzur aundiko jokoan egiten eben (eta gaur be egiten daben) estukuntzagaz,

arrazoizko eraren aukerak, zelango ezberdintasunak artzen ebezan, Euskalerrria bere jabetasun-gabe izteko.

Mundu fisiko onetan beti baiña, maltzurrezko guzurak, guzurrean geratzen dira, berezko legearen bidez ez daukielako beste aukerarik. Eta ori da betiko borroka latza.

SARRERA:

Erromatarrak euki eben asmakuntzaren eritzitik, Mundua`ren gizartea bereztasunetik kanpo: "Aberri, Izkuntza ta Erljio bakarra euki dagian kaizar baten menpean" erruak daukez. Gaur-egun be berezkoak ez diran erriak, edo, bereztasunetik kanpo eginda dagozan aberri-menperatzailleak iraun dagien.

Bere indarkeriaren estutasunagaitik eztanda egin ebelako, guzurrezko asmakuntz milla zati orreik aidean geratu ziran, nork ebatuko itxaropenean, ekiñaldera eroateko. Eta agertu ziran bai ! gizartearen eskubideak berezko lekutik atarata, menperatzailletasunezko kaizargotzatan jokatu gura ebenak. (Adibidez: Gaurko laterriak. Berezko aberriak daukiezan eskubidearen naikerian).

Baiña gauzak lez, gogamenaren eritzia ez diralako bakarrik ibiltzen, guzurrezko asmakizun orreik euki dabez laguntzailleak, argi ikusiko doguz, gure Nafar-erregetzaren zeazkuntzazko edesti-laburrean.

III`n Juana da, gure aitzindari edo antzezleri nagusia eta gure Nafar-erregetzaren zeaztasun oneik, bakarrik izango dira, orduko giroaren ulermenagaz argitzeko. Jakin daigun zelan sortu zan gure Nafar-erregetzaren amaiera, bai Euskalerrria`ren Ego-aldean eta bai Iparraldean. Azken baten, gure Euskalerrri maite au, XIX`n gizalditik aurrera, zergaitik geratu zan Frantzezak eta Espaiñolak menperatuta.

Eta orretarako leenengo egingo doguna, Nafar-erregetzaren leiñuak eta euren zerrenda azaldu, egin bear dodan zeazkuntzaren ulermena argi ikusi dagigun. Eta batera, konturatu gaitzan, Euskalerrriak eta Euskaldunak ez doguzela itzi edo gure eskubideakaz iñungo uzkundetasunik egin, Frantzezak eta Espaiñolak gure eskubidearen ardurakaz jabetu daitezana.

Euskalerrria adiñean, eurak baiño askoz ariñago "NAGUSI edo AITA da JAINKOA`ren LOTSAN". Umekerietan etorri daitezana ganorabako-ardurakaz jolasten.

1.- NAFAR ERREGE-ETXEAK ETA III`n JUANA:

Iruña`ko erregetza, Orreaga`n Karlo Magno`ren 778-824`an euki eben borroka bien artean, Banu Kasi sendiaren laguntzagaz sortu zan.

1.1 .- ARITZA`tarren ERREGE-LEIÑUA:

1ª.-Jimenez ta Aritza`tar Iñigo 824-852 gora-berako urte bitartean.

2ª.-I Garzia`tar Jimenez 852-870 urte bitartean.

1.2 .- JIMENO`tarren ERREGE LEIÑUA:

3ª.-II Garzia Iñigez 870-882 urte bitartean.

Garzez`tar Iñigo 882.

1.3 .- ARITZA`ren ERREGE-LEIÑUA:

4ª.-Fortuño lekaidea 882-905 urte bitartean.

1.4 .- JIMENO`tarren ERREGE-LEIÑUA:

5ª.-I Santxo Garzez 905-926 urte bitartean.

6ª.-II Garzia Santxez 926-970 urte bitartean.

Garzez`tar Jimeno`ren ordezeko erregetza 925-931 urte bitartean.

Eta Toda`ren ordezeko erregetza 931-934`era.

7ª.-II Santxo Garzez "Abarka" 970-994 urte bitartean.

8ª.-IV Garzia Santzez "Ikaratia" 994-999 urte bitartean.

1000 eta 1.004`ko urteen bitartean balekitez erregetza aukeratu barik egotea.

Ramiro`tar Santxo`gaz edo ordezeko erregetzaren aolkularitz bategaz

9ª.-III Santxo Garzez "Aundia" (El Mayor) 999-1.035 urte bitartean.

10.-V Garzia Santzez "Najera`koa" 1.035-1.054 urte bitartean.

11ª.-IV Santxo Garzez "Peñalen`goa" 1.054-1.076 urte bitartean.

1.5. - 1.076 - 1.134`erarte NAFARROA ta ARAGOI`ko ERREGETZA

12^a.-V Santxo Ramirez 1.076-1.094 urte bitartean.

13^a.-Santxez`tar Pedro 1.094-1.104 urte bitartean.

14^a.-I Santxez`tar Alfonso "Gudaria" 1.104-1.134 urte bitartean.

1.6. - NAFARROA`ko EREGETZA:

15^a.-V Garzia Ramirez "Berritzaillea" 1.134-1.150 urte bitartean.

16^a.-VI Santxo Garzez "Jakintsua" 1.150-1.194 urte bitartean.

17^a.-VII Santxo Santzez "Indartsua" 1.194-1.234 urte bitartean.

VII`n Santxo Santzez "Indartsu" errege onegaz, berezko Nafartarren erregetza amaitzen da, ortik aurrera, Txanpaña`ko errege etxera aldatuta.

1.7. - TXANPAÑA`ko ERREGE-LEIÑUA:

18^a.-Nafarroa`ko I Teobaldo eta Txanpaña`ko IV`na "Bertsolaria"
1.234-1.253.

19^a.-Nafarroa`ko II Teobaldo eta Txanpaña`ko V`na "Gaztea"
1.253-1.270 urte bitartean.

14 urte euki ebazan erregetzaren antolarazia emon eutsoenean,
ta Borbon´tar Margarita, bere amaren ordezkoko erregetzan asi
zan 18 urte bete arte.

20^a.-Nafarroa`ko I Enrike eta Txanpaña`ko III`na "Lodia" 1.270-
1.274.

21^a.-Nafarroa`ko I Juana 1.274-1.305`eko urte bitartean.

1.8. - NAFAR-FRANKO ERREGETZA:

1.284`an, I Juana Felipe "Ederra" Frantzia`ko erregearen semeagaz ezkondu zanean, Nafarroa`ko erregetza, Frantzia`ko erregetzagaz bat eginda geratu zan Frantzia`ko IV Felipe`ren izenagaz. Orduko politikaren legean, Laterri artean askatasun guztikoak izan da, errege baten antolamendu edo epaiketan.

1.9. - KAPETO`en ERREGE-LEIÑUA:

- 22^a.- I Felipe "Ederra" eta IV` n Frantzia`koa 1.285-1.304 urte bitartean.
- 23^a.- I Luis "Buru-gogorra" (el obstinado) eta X Frantzikoa 1.304-1.316 urte bitartean.
- 24^a.- I Juan "Il-ostekoa" Jaio ta bostgarren egunean il zana 1.316 urtean.
- 25^a.- II Felipe "Luzea" eta Frantzia`ko V`na 1.316-1.322 urte bitartean.
- 26^a.- I Karlos "Ikusgarria" eta Frantzia`ko IV`na 1.322-1.328 urte bitartean.

1.10. - NAFARROA`ko ERREGETZA:

Frantzia`ko IV`n Karlos eta I`go Nafarroa`koa seme barik il zanean erregetzaren koroia artu dagian. Nafartarren jaurkintza Gares eta Iruña`ko gorteetan 1.328`an batzartuta, Juana ta Felipe onartu ebezan Nafarroa`ko errege lez. Gero ta 1.328 urte berean, biak Frantzia`ko erregetzari yaregin`da (renunciar) Angulema , Mortain eta Longebille`ko Dukat-erriaren truke, Felipe`k Txampanña ta Brie`ko Kondaduak emonda. Iruña`n 1.329`an ziñezpena emon eben.

Aipagarriak dira 1321-1328-1.349 arteko urte oneik, urduritasun aundikoak ziralako.

1.11. - EBREUX`ko ETXEA:

- 27^a .- Evreaux`ko III Felipe "Biotz-Zabalekua" eta II Juana (Kapeto leñukoak) 1.328-1.343 Felipe il arte.
- 28^a .- II Juana (Kapetoaren Leinukoa) Felipe il da gero 1.343-1.349 urte bitartean.
- 29^a .- II Karlos "Txarra" 1.349-1.387 urte bitartean.
1.356-1.357`rarte Ebreux`eko Luis`ek egin eban ordezeko erregetza.
- 30^a .- III Karlos "Biotz-Onekua" 1.387-1.425 urtetan.
- 31^a .- Nafarroa`ko I Blanka eta Nafarroa`ko II Juan (Trastàmara) 1.425-1.441`ko Loraila`n Blanka il arte. Gero, Biana`ko IV Karlos izan zan andikia edo eskubideko erregea 1.442-1.461`rarte, eta II Blanka 1.461-1.464`ko Abendua`ren 2`rarte.
- 32^a.- Nafarroa`ko II Juan eta Aragoi`ko II Juan 1.458`tik aurrera,

1.441-1.479 urterarte (egitez errege (rey de hecho)).

33^a.- Aragoi`ko Leonor, 1.479`an Urtarrilla`ren 28an Tudela`ko errege-
giña egin eben, baiña ogei egun gutxi gora-beran il egin zan.

1.12. - FOIX`eko ETXEA:

34^a.- I Febo`tar Franzisko 1.479-1.483, bere ama, Frantzia`ko Magdalena Balois`en errege-ordetzan. Urtarrilla`ren 29`an bazkal ostean il zan.

35^a.- Nafarroa`ko Katalina 1.483-1.484 urte bitartean, bere ama Magdalena Balois`en errege ordetzan.

36^a.- Nafarroa`ko Katalina eta Albret`eko III Juan`ek 1.484-1.516`an Juan il zan arte. Eskontza onegaz, Nafarroa`ko erregetza sei`garen biderrez sartzen da atzerritar`en eskuetara, Nafarroa jaurritzeko.

37^a.-Nafarroa`ko Katalina 1.516-1.518`an, bera il zan arte.

1.13. - ALBRET`eko ETXEA:

38^a.- II Enrike 1.518-1.555 urte bitartean.

38^a.- III Juana Albret-etxekoa eta Borbon`tar Antonio 1.555-1.562 urte bitartean.

39^a.- III Juana Albret`ekoa 1.562-1.572 urtetan, il arte.

1.14. - BORBON`en ETXEA:

40^a.- Nafarroa`ko III Enrike eta Frantzi`ko IV`na 1.572-1.610. Emendik aurrera Nafarraldeko Iparra Frantzia`ko erregetzara aldatuta eta Nafarroa`ko bealdea Gaztela`tarren menpean. Emendik aurrera gure Nafar-erregetza guztiz ezereztuta.

2. - ARISTA`tarren ERREGE-LEIÑUA: NORTZUK DIRA eta ZER EGIN EBEN ?:

Euskal-Nafartarraren errege-leiñua oso abertzalea zan. Bereztasunerako baiña, uko ezin eginezko beste bide bakartitik joan bearra zan eta bide-erdi orretan egon zan txeberaren sare-artean, nai-ta nai-ez jausi bearra.

Txeberazko sare-orretan gal-bidea aurkitzeko, zelako bereizgarriak euki ebazan ?.

a) Munduko gizon aundien artean, Erromatarrak gizarte guztientzat gogamen bakarra (pensamiento único) egon daiten (nai eurak antziñatik ezereztuta egon) euki eben asmakuntzan, oraindiño irauten ebalako. Eta "Erromatar Kaizar Sakratu" ori, eleiz-katoliko agintarien eskuetan artuta, erlijio ta jaurkintz bakarra egon daiten (bide onena izango zalakoan ?), Europa`ko errege guztien artean leia sortu eban, indartsuenak Kaizar`en izen-buru aundi ori eroan dagaian, batzangotasunezko gogamena, berezko erritarren gaiñetik, norkerizko indarrarekin lortzeko.

b) "Latiña" izan zan tresnarik garrantzitsuena, norkeriz ta antzezko (artificial) lanean eginda, jakintzaren ibil-gaillua egin ebana, berezko eta bidezko izkuntzaren aurka.

d) Eta erritarren bear-bearrezko antolamendu ta eginkizun guztiak apur-apurka galazoteko bidetik eroan ebelako eta jaiota egon ziran sasi-izkuntz barriari, berezko izkuntzari baiño ardura geiago emon eutsielako, berezko Nortasunak desagertu daitezkan. (Gaur, Mundu`ko Irugarren borroka aundi orretan gabiltz, asmakuntz orreik egin dabezan kalteak zuzendu ezinik. Ori dalako "Europa`ren betiko arazoa").

Europa ta Euskaldunentzat badagoz, gure Euskal-erregetzazko leiñuan, eritzi ta asmo-naspil ortatik artu ziran erabagiaren bidez oker galantak egin ebezanak. Adibidez:

III`n Santxo Garzez "Aundia"k, lurraldeko erregetzaren nagusitasuna edo antolarazia, bere lau semen artean banandu ebanean. Nai-ta, gaur Euskaldunak osotzen doguzan lurraldeak, beren seme V`n Garzia Santxez Najera`koari emon ba-eutson be.

Kontuan euki bear da III`n Santxo onen buru gaiñean, eleiztarrak emoneko "Kaizar" izen-buru ori euki ebala eta dirua ataraten ebala, idazpuru orregaz.

Banaketa orrein bidetik, bakoitzaren aundi-nai`keriak eta kain`keri bildurgarriak sortu ziran.

V`n Garzia Santxez "Najera"ko onek, 1.043`an bere anai eta Aragoi`ko errege I Ramiro`gaz borrokan egin bear eben, onek Tafalla artu ebalako. (Ramiro, nagusiena izan arren, sasiko-semea zan eta geroago, ugari izango ziran sasi-seme eta berezko`en arteko leiak Europako ta Nafar-erreñuan, bai Jauntasun Laterrizko lurraldeetan be, Beamontez ta Agramontez, Oiñaz ta Ganboa`tar eta abar askoko alderdikerien (banderizos) bekaizkeriak eraginda).

1.045`an Kalaorra berrezkuratu eben eta bertan ipini eban erregetzaren jaurkintza.

1.054`an Irailla`ren 1`ean baiña, bere anai I Fernando Gaztelako errege zanagaz borrokatu bear eban, eta bertan il zan.

Ortik aurrera, nai-ta Nafarroa`ko erregetza, beti Ego-aldearen antolakuntzazko arremanetara begira egon, bere Euskal-lurraren babeserako bakarrik bizi, eta eleiztarren aolkularitzazko bidez beste erregeari (Gaztelatarrai batez be) asko lagundu, Gaztelarrak eta Aragoi`tarrak, beti alegindu ziran goian esan doten kaizartzaren aundikeri naian, eta Nafarroa`ko erregetzaren ama zatituten euren artean banatzeko.

Ekintza orreik ekanduzko arloan aurrera eroateko, ez eben eukiten ezeren zalantzarik. (Kontuan euki bear da, denbora orreitan ez zala egon Espaiñol asmakuntzarik, oraindiño Euskal lurak izan ziralako alde batetik, eta gogo geienez, kaizar-jaurkintza ta erlijioaren zaldun-eusle edo zaindari-nagusi izateko ametsetan ibili zirala bestetik. Aztu-barik baiña, menperatzailetasunezko ari ori, gaur daukaguzan Laterrietan oraindiño bizi-bizi geratzen dala, goian esan dotezan norkerizko asmakuntz guzti orrekaz).

Eta Euskal-Nortasunaren aldekoak abertzale sutsuak izan arren, VI`n Santxo jakintsuak, Euskal-errege artean lenengo izango zana, Euskal izkuntzari "Lingua Nabarrorun" izen aundia ezarri eutsona. Goian esan doten txeberazko arrazoiaren bidez: "Latiñez eta sasi izkuntzan idazten ziran jaurkintzaren agiri guztiak".

Nafar erreñuak, ba-eukan beste etsai aundi bat (edo ez ziran konpontzen ondo beintzat) III`n Zelestino Aita-Santua. 1.194`an Jorrailla`ren 13`ko bere berun idazki edo bulda`n VI`n Santxo Jakintsua (1.128 inguruan jaio zan, 1.150-1.194`ko urtetan errege eta il) errege zala, Nafartarren Dukea izenagaz idazten dauelako, eta bere seme VII`n Santxo Azkarra edo Indartsuari be 1.196`an Martia`ren 27`an bardin. Nafartarren erregetza iru gizaldi ta erdi sortu zanetik irauten ebana eta erdi-ugarte onen erregetzaren sortzaillea zanari, orduko Aita-Santu guztiak benetako errege zanari "REX" izenagaz idazten eutselako.

VII`n Santxo "Azkarra edo Indartsu" (1.254`an jaio, 1.194-1.234`ko urtetan errege eta Tuteran il) onen denboran, Fuegoen aurka okerkeri aundiak egiten ziralako, Euskalerra banandu zan eta Nafar-erreñuaren indarra gutxitu.

Gipuzkoa, Gaztela`rraren errege VIII`n Alfonso`gaz (1.155`an jaio eta 1.157-1.214`ko urterarte errege), Giputzak iñungo jabetasunik galdu

gabe, elkargo baten bitartez itzarmendu zan, onek antolatzaillaren lanak egin dagiazan, Gaztelatarrak ariñago Gipuzkoa`ko alderdikidetar nagusiari emon eutson laguntzagaitik beartuta.

Gipuzkoa`ra bideak zabaltzeko, 1.200`an Gaztela`ko VIII`n Afonso`k Araba inguratu ta menderatuta kendu eutson. Eta 132 urte Geroago 1.332`an Jorrailla`ren 2`an Araba, Gaztela`ko XI`n Alfonso`gaz (1.311-1.350) elkargo baten bidez itzarmendu zan, artekariaren lanak egin dagiazan, Arabarrak jabetasunik galdu gabe. Or baiña !! Araba`n amaitu ziran berak "Arriaga`ko Elkargo edo Anaitegiaren" bidez, berezkotasunean banatzen ebazan jabetzaren lege guztiak.

Gero, eta 1.224`an Bizkaitarrak Nafarroa`ko antolarazitik alde eben, beren Jauntzaren antolarazira itzultzeko.

Eta aldakuntza orreik, orduko denboran ez ba-euken ardura aundirik Euskeldunen arteko aldakuntzak izan zirelako, Euskal-errege leiñuagaz-ba, emon ziran leenengo urrats edo oinkadak, gure izkuntzaren Nortasuna makurtzeko.

Jaurkintzazko errege-gorteetan, Euskeraren Nortasuna lotsagizunaren-ardurazko garrantzi-maillan, Latiña eta sasi-izkuntzak baiño berago ipinita, geroago Gaztelera eta Nafar-Aragoi`ko sasi izkuntzak garaitzen joango zirelako.

Euskal-Nortasunaren begirunean leenengoa izan bear zana, Euskara`ren zentzuzko izaerak sendotuta iraun dagian.

A-ta guzti, Latiegi`tar Bizente`k badauka Ueska`ko agiritegitan agerkai bat aurkituta eta "Euskalerrriaren adiskideen Elkartean" argitaratuta: "XVII`n gizaldian Ueskan Euskeraz egiten zala".

3. - TXANPAÑA`ko ERREGE-LEIÑUA - EKINTZAK:

Nafarroa`ko I Teobaldo "Bertsolaria"gaz (1.234-1.353) asten da Txanpaiña`ko errege leiñua. VII`n Santxo "Indartsua"ren loba izan zan. Nafarroa`ko Blanka eta III`n Teobaldo kondearen semea, Brie ta Txanpaiña`ko kondearen izenagaz.

VII`n Santxo Indartsuaren azken borondatea, Teobaldo ez ebalako begi-onean artzen, Nafarroa`ko erregetza, Aragoi`ko I Jaime`en eskuetan iztea zan.

Nafartarrak baiña, gogo orreik kontuan euki-gabe, Santxo il zanean illabete geroago Teobaldo deitu eben eta Iruña`ko Gotzain-Eleizan Foruak zinduz-gain Frantzia`ren gorteko oituran igortzi (ungir) eben.

Gaztela`ko III`n Fernando`gaz itzarmendu eben bere alaba eta beren semearen eskontza (gero X`n Alfonso jakintsua izango zana). Fernando`k Gipuzkoa`ko lurraldeak berari bizi zan artean eskeiñi`ta, Nafarroa`k itsas-Kantauriko`ra urten-bidea euki dagian. Baiña, Teobaldo`k baleiteke Bretaña`ko kondea`gaz berriz itzarmentzea bere alabaren eskontza.

1.238`an Lur-Santua`ren gurutzeko-gudaldia bideratu eben, 1.240`an itzulita.

1.246`an Foruen gora-beran, Ximenez ta Gazolaz`tar Pedro gotzaiña`rekin euki ebezan estabaidetan, onek zalantzan ipini eban Nafar-erregetza. Baiña Aita-Santua`k lege berezi bat agertu eban: "Bere baimenik gabe, iñork ezin ebalá Teobaldo eleizatik kanporatu".

Sarri ibili zan Txanpaina ta Nafarroa`ren arteko bidaiak egiten, eta 1.253`an Garagarrilla`ren 8`an Txanpaina`tik itzulkera baten il zan.

Teobaldo`tarrak, Txanpaina`ren zelaikadakoak ziran eta beti begituten eben Franko`en politika, goitik berakoa guztiz al-osokerizko erdira-nai baten zana.

VII`n Santxo Indartsua`k, Teobaldo erregea ez eban on-artzen, guztiz aurkaldekoa zalako. Teobaldo`tarrak zelaikada`ko erdirazaleak eta Santxo mendi ta basoak berez emoten dauan askatasunekoa. Argi dago Nortasunean egon zala desberdintza. Mendian nor-bera izan bear dalako eta zelaikadan errezagoa dalako bestien alegiñean joatea. Txanpaina errege-leiñua, ez zan Nafar-erritarren ta buruzagien atsegintasuneko.

Len, erdi-ugarte onetan Nafar-erregetza: Aragoi, Gaztela-Leon`go errege`en artean eskontzen ziralako; ekonomia`ren aldetik artu-emon estuak eukiten ebezalako; Mauritarren aurkako gurutzearen-gudaldia berezkoa zalako eta oraindiño Euskaltasunak alkar lotuta joaten zirelako, Ego-aldera begitzen ba-eben. Txanpaina`tar oneik, Aita Santuak Europa`tik batuten ebazan gudaldiak Afrika`ren Ekialdeko lur Santuetan borrokatzeko (Tauro mendian, betiko ospagarritasuna lortuta), goian ikusi dogun lez, eta jakintzaren arloan Gaztela`tarrak baiño geiago goi maillakuak izan ziralako, Iparraldera aldatu eben bitartekotasun eragipen ori. Eta geiago, I Juana Frantzia`ko errege IV`n Felipe "Ikusgarria" izango zanagaz ezkondu zanean.

Nafarroa`ko erritarrentzat, zoralditasuneko denborak ziran oneik, Gaztela eta Aragoi`tarrak alde batetik, Frantzia eta alde bietako gurutz-gudaldiko ekintzaren bidez, Nafartarra alde guztietatik tiraka ibili ziran, bakoitzak euki eben asmakuntza indartu naian. Nafarroa`ko zaldun eta

erritarren artean zatiketak edo etsaigotasunezko egoera larriak asi ziran sortzen.

Eta Nafartarren Nortasunarentzat oso denbora latzak, berezko izatasuna lotsagizunaren garbitasunezko arduran zaintzeko.

Maldaberako oinkadak ziran oneik, 1.512`an Aragoi`ko errege II Fernando`k (Katolikua), Nafartarren Nortasuna ain egoera larrian ikusita, bere maltzuratasunezko aitzokada sartzeko. Gero, III`n Juana`ren denboran ikusiko doguna.

4. - EBREUX`tarren ERREGE-LEIÑUA - EKINTZAK:

II`n Karlos deritson "TXAR" onen erregetza (1.349-1.387) zeaztuta idatzi ba gendun oso luzea izango zan, mugimendu aundiko denborak ziralako inguruko errege`ak jauntxutasunezko aundikeriaren billa ibili ziralako.

II`n Juana eta III`n Ebreux`ko Felipe`ren semea zan.

Txarrezko izen gaizto-orren etorkizuna, baleiteke 1.348`ko Iraila`n Izurri (peste) baltza edo ertzaian gaixotasunaren ostetik izatea. Nafarroa`ren gizartea eunetik irurogeta amarrean murriztu egin ebana, eta lurgintzaren lanerako besoaren ezean agertu ziralako, Nafartarrak gose aundian sartuta, askori lapurketara emon eutsolako.

Neurri gogorrak artu bear izan ebazan ekintza orreik bakezteko, batzuri lepoak-moztuta eta beste batzuk mii-luze`ko zubitik urkatuz. Batera, baserritarrak zirikituta aundiki batzuen aurka, bere seme III`n Karlos`ek bakeztu ebana ostera aundikiak goralduta.

"Txar" orren izena baiña, Frantzia`ko erregetzatik eta batez be Frantzia`ko edestilarien bidetik dator, amurru aundian euki ebelako. Nafarroan orko bidetik zabaldua ?. Karlos, Nafartarrak maitasunean euki eban, bai erritarrak eta bai beren inguruko aundikiak zintzotasun aundian, nai-ta biurkeriak egiteko izan.

Badagoz beste gauza batzuk, Nafartarren bizitza geiago larritu ebenak, legezko eta sasiko semeen artean bekaitz (envidia) aundiaren bitartez beti borrokan ibiltzen ziralako. Ondorio lez, Agramontesak ta Beaumontesen alderdikeriak sortu ebazalako. Euskalerrarentzat eta Nafartarrentzat batez-be oso gaiztoak izan zirenak.

Berak Frantzian euki ebazan oiñordearen (heredades) bitartez, Txanpaña ta Brie`ko konderrriak, Angulema eta Ebreux`eko etxetik laterri batzuk Normandian eta Frantzia`ko beste lurralde batzuk, beren ama II`n Juana eta III`n Felipe aitak (V`n Felipe`k Frantzia`ko

erregetzatik kendu ebazanak Salika`ren legeen bidetik, gure artean arrotza dana), konderri orreik Frantzia`ko VI Felipe`ri emon bear eutsozan Angulema`ko dukadoa`ren truke, Nafarroa`ko erregeak izateko.

VI`n Felipe`ren semea II`n Juan`ek ("Ona" deritsona) 1.350 eta 1.364 urte arteko Frantzia`ko errege eta bere aitagiñarreba zanak, Angulema`ko dukaterria bere begipekoa zanai, Espaiña`ko Alfonso de la Zerda`ren Karlos semeari emon eutson (II`n Karlos`en ingurukoak il ebena, berea zana eukitearren eta bera 1.351`an Urtarrilla`ren 8`ko epaiketaren ostean Loubre`ko dorrean II`n Juan`ek giltzapetu), VI`n Felipe eta II`n Juana`ren arteko ebazpena (acuerdo) ezereztuta.

II`n Karlos, II`n Juan bere aitagiñarrebagoz eriotzeraiño etsaituta egon zana, 1.354`an Nafarroa`ra itzuli zan, eta orreik oiñordearen bitartez, Nor izan zala uste eban Frantzia`ren erregetza eskuratzeko eta orko bidetik Nafarroa`ko erreñua sendotzeko etsaien aurka. Ingalaterra`ko III`n Eduardo`gaz (1.312-1.377) alkartu zan, 1.358`an Frantzia`ko Marzel`en iraultzari lagunduta.

Emen konturatu egin bear gara, Europa`ko erregetza guztia, euren artean senituta egon zala, eta nai-gabeko borrokak edo asarre guztiak, geienak beintzat, bakoitzak gogoratzen ebazan erregetzaren eskubidetatik agertzen ziralako, erritarrak morroi bezela ara ta ona Foruen aipamenakaz ibilita, kontuan euki gabe.

Beartuta, Gaztela`ko I Pedro odol-zaleagaz (1.334-1.369 eta errege 1.350-1.369) eta Aragoi`ko IV`n Pedro zeremoni-zalea 1.336-1.387`en artean, artekari lez agertu bear izan eben, gero denborak zelan etorten ziran, bategaz eta besteagaz beinbanan alkartuta.

Jarrera orretan lotuta eta Frantzia, Aragoi ta Gaztela`ko erregetza`k gero ta indar geiago artzen joan zirelako, bai irurak Nafar-erregetzazko jabetasunaren billa ibili ziralako. Nafarroa txikerra izanda Euskalerrria bananduta egon zalako, denboraren etorkizuna izango zan bakarrik, baten edo bestien eskuetan jaustea. Azken baten (1.512`an) eta legez kanpoko trikimaillu baten Aragoi`ko II`n Fernando`k menperatu eban.

1.378`an Gaztelarrak, 1.263`an II Teobaldo`k Tiebas`en eraikitako Gaztelua, erraustu ta suntsitu eben, bertan gordeta egon ziran antziña`ko eta garrantzi aundiko agiriak ezereztuta.

II`n Karlos "Txarra" deritxon au: Izakera gogorrekoa; zori-zale; odol bizikoa eta mendekaria zan. Gaztela`ko I Pedro "Odol-zale" eta Aragoi`ko IV`n Pedro "Zeremoni-Zale" bere denborakoak izan ziranen

antzera. Orduko denboraren ekandua eta lojistikazko bidezki-giroak alan eskatzen ebalako.

Bera, 1.387`an Urtarrilla`ren 1`ean il zan, eta bere erregetzaren osteko surrumurruak, askoz txarragoak izan ziran etsai ta saltzailleari esker, berak egin ebazanak baiño. Berari geienez, egia ta zuzentasunak lagundu eutsoelako.

III`n Karlos "Biotz-Andikoa" (noble) 1.361`an jaio-1.425`an il zana, 1.387`tik 1.425`ko urte bitartean bete eban bere erregetza.

II`n Enrike Gaztela`ko erregearen Eleonor alabeagaz eskondu zan, Gaztelatarrakin bakeak eginda.

1.404`an Paris`eko alkargoaren bitartez, Frantzia`ko IV`n Karlos`egaz argitu ta garbitu egin ziran Nafartarren jabetasunak Frantzia`ko lurraldeetan.

1.423`an Urtarrilla`ren 20`an erregearen ondorengoarentzat Biana`ko Printzerria sortu eban, beren billoba IV`n Karlos izan da leenengo printze edo errege-gaia.

II`n Karlos "Txarra"ren ta Frantzia`ko Juana`ren semea zan, eta bere aita aundikien aurka, aunditasunaren asmoak gutzitzen ibili bazan, berak erregeen arteko odol tanta-bat eroaten ebanai, adibidez: sasiko seme ta semeen-semeak, goraldtu egin ebazan ezin besterarte.

Errege on-onek, ustekabeko ekintza orregaz, sasi-seme`en artean bekaiz-kerizko atek zabaldu ebazan ezin besterarte, Nafar-erreñuarentzako eta Euskalerrarentzat oso negargarriak izango zirenak, Nafartarrak guztiz bananduta, Nafar-Erreñuaren giltzak eskura emon eutsoezelako 1.512`an Aragoi`ko II`n Fernando`ri.

Nafarroa`ko I Blanka, III`n Karlos "Biotz-Aundikoaren" eta Gaztela`ko Leonor`en alaba izan zan. 1.365`an jaio eta 1.441`ean il zan. Eta beren erregiñaren ardurak 1.425`etik 1.441`era bete ebazan.

1.402`an Sizilia`ko II`na eta Aragoi`ko I`goa Martin "gizabidekoa" (el humano) deritxon erregeagaz eskondu zan, 1.409`an il zana. Eta bigarrenenez 1.420`an Aragoi`ko II`n Juan`egaz 1.458`ko urteik aurrera 1.479`rarte Aragoi`ko errege izango zana. Gaztela`ko Trastamara`ren sendikoa zan eta Nafarroa`n errege 1.441`etik 1.479`an Urtarrilla`ko 19`rarte.

5. - NAFARROA`ko ERREIÑUAN - GAZTELATAR LEIÑUKO ERRE- GEEN (Trastamara) EKINTZAK:

1.441` ean Nafarroa`ko I Blanka il zanean, bere seme IV Karlos ogeitabat urtegaz izan zan erregetzaren jabea. Beren aitite`k III`n Karlos "Biotz-Aundikoa" k bere amaren ostean bera itzi ebalako leiñuaren tronkalekoa, Biana`ko Printze izendatu ebanean.

Bere aita II`n Juan`ek baiña, Aragoi`ko errege zanak, beren zintzotasunezko biguntasunagaitik, ostu eutson Nafartarren ezar-leku ori.

II`n Juan`ek arrazoi gutxiago euki eban Nafartarren erregetza aurrera eroateko, bigarrenez Juana Enrikez`egaz (Fernando`ren aita-ama`k, gero Aragoi`ko errege izango zana "Katoliko"aren izenarekin) ezkondu zanean (biak, goi-zale ta on-gose aundikoak ziranak), berez Nafar-erregetzarekin ari guztiak ebagi ebazalako.

Ostutako jabetasun orren bidetik, II`n Juan`ek bere emaztea Juana Enrikez erregetzara baltzuratu (asociar) eban, eta Juana Nafarroa`ra joan zan erregetzaren ordezkook beteteko.

IV`n Karlos asarratuta, aitaren aurka egiteko eta Nafarroa`ko erregetzaren jabetasuna berrezkuratzeko, Gaztela`ra joan zan, Asturias`eko Printzea`ren ta Albaro de Luna Kondestablearen laguntza eskatzera.

Oneik IV`n Karlos`eri ikusiaz egiten dautsoe: "Eurak ez dirala borrokatzen Nafarroa`ren aurka, II`n Juan`en aurka baizik eta Karlos alegintzen dabe, banandu dagiezala beren ekanduzko-egilletasun edo sorburutik, II`n Juan`en lapurtzazko asmakizunetik.

Goratu egiten dautsoe, aita emoten dautson maitasun otza eta zelako irabaziak eukingo ebazan Gaztelarrarekin alkargotu balitz. Bai bere ama-ordea zelan dago aurdun.

IV`n Karlos, euren berbagaitik gogarazi egiten da eta 1.451`n Irailla`ren 8`an eurokaz alkarren-arteko alkartasunezko-itun bat egokitzen dau eta Gaztelarrak inguratuta euki eben Buradon`eko gaztelua itzultzen dautsoe.

Ondoren, Asturias`eko printzeak Albaro de Luna kondestableari itanduten dautso: "Baiña guk.... zer lortu dogu Nafarroan?" eta Albaro de Luna`k erantzun: "Jauna, 40 urteko anai-guda izten dautsagu".

Orko bidetik anai-guda sortu zan, Beaumontetarrak IV`n Karlos`en aldetik eta Agramontetarrak Aragoi`ko II`n Juan`en aldetik kokatu ziralako.

Guda au ez zan amaituko 1.522` an Maya`n eta 1.523` an Ondarribian, Nafarroa`ren askatasunezko Ikurriñak beratu arte.

Ez IV`n Karlos, ez-ta II`n Juan be, izan ziran talde-bi onen nagusiak, alderdikide orreik izan ziralako Nafarroa`ko agintarien gidari ta danak mugi-aldian ipinten ebazanak.

5.1.- BEAUMONT eta AGRAMONT` tarrak:

Beaumont taldea, II`n Luis Beaumont Lerin`go Kondea`k bideratua izan zana (Biana-Lerin) 1.456`tik-1.507`rarte. Oneik Nafarroa`ko Iparraldean eta Mendebal erdian agintzen eben.

Eta Agramontetarren taldea, nagusitasunezko maillan (mosèn) bigarrenekoa zana Peralta`ko Pierre`k (Pedro) Lerin`en Santesteban`eko Kondeak (Peralta-Tudela) 1.451`tik-1.488`ko urterarte bideratuta. Egoaldean, Ebro ibaiaren ur-bazterrean eta Ekialde erdian agintzen ebenak. Biak okerrak edo eriogilleak ziran.

Gero ikusiko dan lez, talde biak alderdikidetatik aldatuko ziran, gizarte ta lege bideetan naastetasun aundiagoa sortuta, Fernando`k Nafar erregetza berekotu dagian.

IV`n Karlos, edestilari ta elerti-zalea zan eta Aristoteles`en etika gazteleratu eban. 1.461`ean Iraila`ren 23`an il zan. Eta berak bularreko gaixoa euki ba eban, pozoituta il eben.

5.2.- II D^a BLANKA:

Onen ondorengoa, 1.424`an Oliten jaio zana bere arreba II`n Blanka izan zan Nafarroa`ko erregetzaren jabea 1.461`tik-1.464`an Otsaila`ren 12`ko bitartean. II`n Juan (Leonor`ek ?) bere aitak Abendua`ren 2`an aginduta eta Foix`eko konde-andrearen andere-lagun batek emon-da, Pozoituta il zan arte.

Ama, I`go Blanka il zanean, bere aita II`n Juan`eri IV Karlos anaiagaz batera, Nafarroa`ko erregetzaren eskubideak eskatu eutsoezan eta onek 1.455`ean biak ondoregabe itzi ebazan euren arreba Leonor`en mesede, anai-guda biztuta.

Nafarroa`ko erregetza I`go Blanka 1.441`ean il zanetik, Aragoi`ko II`n Juan`ek eroan eban 1.479`ko Urtarrilla`ren 19`raiño il zan arte.

Onen gogamenean, erregetzaren oiñordezko zentzua, Nafar-erregetzaren berezko oiñordetzarena baiño guztiz aurkakoa izan zan, berea, "gurasoen-gandiko" edo "etorkizuneko-eskubidekoa" zalako. Eta

bera zalakoan, seme-alabari errege-erregiñaren izateko bideak ebagi eutsezan, ondoregabean itzita.

5.3. - II`n JUAN:

Gogamen onek, badauka bai zer ikusia (gero agertuko dan lez), bere seme Fernando`ren (katolikoa) gogamenean, maltzur ta guzurrezko aurre-artzeak biztu daitezcan Nafarroa menperatzeko. Leenengo eskontzako seme-alaben artean Leonor izan ezik (azkenean, bera be bai), gorago ikusi dogun lez, gaitzestasunean euki ebazalako eta bigarren eskontzako Fernando, bere biotzeko kutuna izan zalako.

II`n Blanka 1.462`an Jorrailla`ren 23`an Mosen Pierres Peralta`koak, portu-ostera (ultrapuertos) atzilotuta eroan ebenean, Orreaga`ko lekaidetxean esan eban: "bere borondatearen aurka eroaten ebala, eta alegintzen zirala berak Nafar-erregiñaren eskubideak ukatzeko" bere aizpa Leonor, onen seme-alaben edo Fernando II`n Juan Aragoi`ko errege-semearen mesedetan iztea eskatzen eutsoelako.

"Olan izan balitz, arduradunak balio-gabe itzi dagiezala beren ukatu orreik, beren borondatea, olango zeozer egiterakoan, Gaztela`ko errege`en edo Armeñak kondea`ren babespe edo zainpean iztea zalako".

5.4. - IV`n KARLOS`ek eta BERE ARREBA II BLANKA:

IV`n Karlos eta bere arreba II Blanka`k, ainbat oiñaze, eramankizun ta nekagirotan eroan izan bear eben.

Dana dala, erdi-ugarte onentzat eta Nafarroa`rentzat batez-be, ekandu-bako goibeltasunezko ta ekaiztsu denborak ziran oneik, Nafar-erregetza amaierara bideratzen ebenak. Erregetasunezko legeari lotsa galduta, etorkizunerako iru gauza argitzen ziralako: Nafarroa, Aragoi edo Gaztelarpean menderatuta geratu; Gaztela ta Aragoi`tarrak bat eginda, Ego-aldeko Nafarroa mendean artu eta Auñamendiak berezko muga baten antzera geratuta, Frantzia Nafar-Iparragaz jabetu. Geroago sortuko zana.

Leonor, I Blanka ta II Juan`en alaba gazteena zan, 1.425`ean Iruñean jaio eta errege-aulkian bere aita 1.479`an Urtarrilla`ren 19`an il zanean, illa-orren 28`an ezarri eben, Aragoi`an II`n eta V`n Gaztela`koa Fernando`ren (1.452-1.516 Katolikoa) laguntzagaz.

1.441`eko urtean eskondu zan, Foix ta Bigorra`ko kondea eta Biarno`ko jaun Gaston`ekin. Biarno`n bizitzen geratu zan. Frantzisko ta Katalin seme-alabak euki ebazan.

Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan, bere anai IV`n Karlos eta II Blanka aitzaren aurka egiteko. Eta bere neba-aizta`k il ziranetik, barriro biztuten dira Beaumontetarren ta Agramontetarren arteko anai-gudak, berezko Nafar-erregetzaren oiñordezkoak legean ezartzeko.

Erregiña egin ta ogei egun gitxi gora-beran Tuteran`n il zan. Eta beren azken naian: "Bere anai IV Karlos Biana`ko Printzearen jabe-bideak eskatu ebazan bere ondorekoentzat, Nafarroa`ko erregetza bere seme Frantzisko Febo`ren ardurapean itzita. Eta laguntzaren billa joan bear ba-eben, Frantzia`ko erregetzara joan daiten", aolkua emon da.

Emen aipatu bear doguna, zergaitik, bere il zan`en aita II`n Juan Aragoi`ko gogamenaren eritzitik aldatu eta bere anai IV`n Karlos`en Nafar-tronkaleko eritzia besarkatu eban. Aolkuaren billa Frantzia`ra joan daitezcan aginduta. Bai, zer gertatzen zan, Beaumontetar ta Agramonteterrekin.

Beaumontetarrak eta Agramontetarrak, eriotzaraiñoko etsaiak izan ziran. Eta Aragoi`ko II`n Juan`ek, Agramontetarrak oparitu ta abegi onean erabilten ebazan bere alboan eukiteko.

Beaumontetarrak baiña, IV`n Karlos eta II`n Blanka il ziranetik, Leonor`ek aitaren alde egiten eban lez il zan arte (eriotzearen ostetik aldatuta), ia ezer babesteko argibide edo arrazoi barik geratu ziran, apurka apurka II`n Juan`en zerbitzura aldatuta. 1.467`an Tafalla`n Leonor eta Beaumont`tar kondestableen alegiñaren bidez geldi-une edo bake-une eginda.

5.5. - GAZTELUAK BOTATEN; ASKATASUNA:

Baiña saldukeri ta judaskeriak geiegian egon ziran lez. Beaumontesen Kondestablea, Trebiño`ko Lara`tar Manrrike Pedro kondea eta Gipuzkoa`ko oñaz`ekoak alkartuta, Nafarroa`ko mugak eta Lekunberri, Leiza ta Gorriti`ko gazteluak ezereztu ebezan. Leonor`ek, eskubideko erregiña eta Nafar-erreiñu osoa ordezkotzako jaurkintzan (lugarteniente general del Reino) agintzen ebanak, 1.472`an Abuztua`ren 2`an agiri gogor bat atarata, Lerin`go kondea, San Juan`eko lekaide-etxea eta Luxa`ko Jaun Beaumontetarrak eriotzara ta ondasunaren baitura zigortzen ebanak. Aurrerantzean eta azkenerarte, Beaumontetarrak Fernando katolikoa`ren aldera aldatu ziran.

Ortik aurrera, Nafarroa`ko erregeak askatasunekoak ba-ziran, saman Beaumontetarren lepokoa eroaten eben, Fernando katolikoak ondo erabilten ebana.

Beste aldetik, Frantzian Laterrizko jabetasunak euki ebezelako, Frantzia`ko erregearen agindutara egon bear ziran. Eta geiago, oneik etenbako auzian ibili ziralako Foix`eko leiñuaren ondorengoagaitik.

Nafarroa`ko erregetza, egoera guzti orregaitik, Frantzia, Gaztela ta Aragoi`en arteko oreka-larrian bizi bear eben beti. Beren eriotzea, oreka orreik apurtzen ziranean sortuta.

Euren jarduera une orretan, iru errege-etxe orrein lurralde-jeografikoak beartuta, Nafartarren bakea beti, Frantzia ta Gaztela-Aragoi`ko bakearen mendepan egon zan. Arin apurtzen zana, iru errege-etxe orreik Napoles`en erregetzazko jabetzaren atzean ibili ziralako.

Emen ikusten doguna, II`n Juan`ek, Juana Enrikez bere bigarren emazteagaz batera, Nafarroa`ko anai-guda aukeratu ebala, euren seme-alabai tronkalezko erregetzaren jabetasunak moztu eutsezelako. Eta Kanpionek esaten dauan lez: 1.462`rako II`n Juan`ek bere emazteagaz batera, Fernando (katolikoa) euren seme txikerrena euki ebala gogoan, Nafarroa`ko errege izendatzeko.

Goian esan doten lez, biak goi-zale ta bete ezinezko on-gosekoak ziran. Bai euren seme-alaben pozoitasunak Juan`ek aginduta eta ainbat maltzur ta guzurrezko gauza eginda Nafar-erregetzaren lapurketa egin eta Aragoi`ren mendean geratu daiten, koroia euren seme Fernando kutunaren buruan ezartzeko.

Fernando`k ez eban 1.512`ko une aretan Nafarroa menperatzea aukeratu. Goian esan doten lez, Aragoi`tarrak eta Gaztela`tarrak, III`n Santxo Garzez Aundiak, Gaztela ta Aragoi`ko kondetzak bere semeen artean bananduta errege maillara igon ebazenetik, beti ibili ziralako "nor, Nafarroa`gaz geratu".

6. - FOIX`tarren ERREGE-LEIÑUA; EKINTZAK:

Nafarroa`ko I Gaston ta Febo`tar Frantzisko izan zan erregetzaren ondorengoa, 1.467`an jaio eta 1.483`an Urtarrilla`ren 29`an Pabe`n pozoituta il eben.

Biana`ko Printzea, Gaston Foix`eko kondea eta Frantzia`ko Madalena`ren (Frantzia`ko XI`n Luis erregearen arreba) semea zan.

Biarno`ko bizkondea eta Bigorra ta Foix`eko kondea 1.472-1.483 urte bitarteetan.

Nafarroa`ko Leonor erregiñaren billoba zan eta au 1.479`an il zan orduan, errege egin eben.

Onen errege denboran, Beaumontetarren ta Agramontetarren arteko gudak gogortu egin ziran ezin geiagoan. Eta berak 12 urte bakarrik euki ebazalako, bere ama Frantzia`ko Madalena`k artu bear izan eban agintaritza. Eta erregearen-ordezkoza, 1.479`tik 1.481`en arteko urtetan, ondo eroan eban.

Zalduba`n (Zaragoza), Madalena Fernando`gaz berba egin eban, onek itxura baten laguntzeko prest egoala emoten ebalako. Egia baiña, azpiko jokoan ibilten zala zan.

Alkarrizketa orren ondorioa, Aoiz`ko bake-une edo gudu-arteko alkargoa izan zan. Eta arazo guztiak konpondu egin ziralakoan, Madalena poztasun aundiz 1.479`an Irailla`ren 17`an Nafartarrai alan esan eutsen.

Emen aitatu bear da, garai onetan, Espaiña`ren erregetza bakarraren gogaera edo pentsabidea Laterrria`ren babeserako, gorputza artzen asi zala. Ez, Espaiña`ko aberriaren sendimentuagaitik, olangorik denbora aietan ez zalako urriñetik be egon (Nai-ta denbora askoz geroago bide ortatik agertu ondorio lez). Olan erakusten daualako 1.480`an Urrilla`ren 18`an Rodrigez de Almella Kartajena`ko Kalonjea`k (canonigo), bere idazlanetan erakutsi ta ezarri gura daualako, agertzen dauanean: "Gaztela`ko erregeak eskubidea daukela Nafar-erregetza beraganatzeko, Gipuzkoa ta Gaskuñã`ko Lurraldeak artean dirala".

Beartsuaren poztasunak gitxi irauten dabe baiña, eta laster asi ziran eztabaidak ostera be.

Eta Fernando`k konponketa orreitan itxura ona emon ba-eban be, ez eban emon geiegizko ordezkoa artu barik, eta Nafartar-erregetzari kalte aundiak egin eutsozan.

Bere osaba Foix`eko D. Pedro Kardinala`k, Tafalla`n gorteak batu ebazan, ordua zala erregea koroatzeko esanda. Nafartarrak on-artuta, I Gaston ta Febo`tar Franzisko Iruña`ra joan zan eta 1.482`an Zemendia`ren 6`an, Fueroak agintzen eben eran koroatu eben.

Ortik aurrera, Anai-gudaren sorburuak bakezten asi zan eta eriotzako zigorra agindu eban Beaumontetar edo Agramontetar izendatzen ziranai.

Kanpion`ek diño, Madalena bere amak, uts-bi egin ebazala, lenengoa: Fernando`k (katolikoa) eskatu edo adierazita, errege Katolikoan Juana alabagaz ez eskontzea. Eta bigarrena: Frantzia`ra eroatea. Bidai orretan, Lerin`go kondestableak Iruña artu eban.

6.1. - FEBO`tarrak:

I Franzisko Febo`ren bizitza, Pabe`ko (Pau) gazteluan iraun eban, bere arbasoak III`n Karlos Biotz-Aundikoa eta IV`n Karlos Biana`ko printzearen antzera, musika, apainkeria eta antzez-lanai zaletasuna erakusten.

1.483`an Urtarrilla`ren 29`an bazkal ostean, txilibitua jotzen egoala gaixorik sendituta, andik ordu bitara pozoituta il zan.

I Febo`ren ondorengoa Nafarroa`ko erregetzan, beren arreba Foix`eko I Katalina izan zan. 1.468`tik 1.517` raiño bizi zana. 1.483-1.484 urte bitartean bere ama Madalena`ren errege ordezkotzan.

Nafarroa`ko erregiña 1.483-1.513`ko urte bitertean izan zan. Erregetzaren jabetasunagaitik, bere osaba Juan`en laguntzagaz 1.483-1.492`ko urte bitartean borrokatu zan.

Katolikuak, alegin asko egin eben Asturias`eko Printzea Nafar-errege aulkian ezartzeko (meatxu ta guzti), Madalena`k baiña, gogor eutsi eban guzti ori, Lerin`go kondea eta errege-ordeak Asturias`eko printzea Nafarroa`ko erregetzan ezartzea lar zalakoan, atzeratu egin zirala ezkerak.

Madalena`k, emen aipatu bear eban, 1.503`an Juan`ek eta Katalina`k gorteetan esan ebena: "Su aundi-biren bitartean kokatuta gagoz, ez dakigula ortik zerk jarraitu leikenik". Madalena`k azken baten, bere anaia Frantzia`ko errege XI`n Luis`eri aolkua eskatu bear eutsola esanda askatu egin zan.

6.2. - I KATALINA:

I Katalina, Foix, Bigorra, Ribagorza eta Biarno`ko kondesa izan zan.

Nafarroa, atsekabetzen eben gaxotasunak eldu ziran larritasunezko maillara, ezinezkoak biurtu ziran ondamenari eusteko, eta ez zan izango txikerrena erregetzaren aulkira eme-bat igotea, indar aundiko al-izate edo eskumena bear zanean, alderdikideak igon eben lekutik beratzeke.

Oneik, erregetzaren izatasuna beeratu egin ebelako, andinai, dirugose edo on-gose eta euren artean gorrotoaren ta alkar ikusi-eziñeko tresneri biurtu ebelako.

Orain, Beaumontetarrak eskubidearen zaindaria izan ziranak, lapurraren alderdian kokatuko dira. Eta Agramontetarrak, Nafarroa`ko eskubidearen zaindaria.

Gauza orreik, beti sortzen dira arroxkeriak eraginda, Aberriaren giza-barnea galtzen danean.

Emendik aurrera errege-katolikuak, Nafarroa`ko erregetzan, eskontzan ta zeregiñeko antolabidearen atzean ibili ziran Katalina ta Juan gazteak izan ziralako. Baiña Madalena amak, geiegi zirala orrein atzean ibili ziranak ikusita eta katolikuak euki eben galbidearen arriskua, Frantzia`ko erregearen laguntza eskatu eban.

Frantzia, Gaztela, Aragoi eta alderdikideen artean, eskubideko arloan, naaste aundi bat sortu eben.

1.483`an Beaumontetarrak Fernando`ri eskatu eutsien, Nafarroa`ko erregetza Aragoi`ko erregetzagaz bat egin dagiala, baiña Fernando`k bere emazte Isabel`egaz, euren seme Asturias`eko printzea, Katalina`gaz eskondu gurean, beste ezkututako bidetatik egin gura eban.

Katalina`ren ama Madalena`k baiña, atzeratu ebazan katolikuaren asmoak, printzearen gazteasuna aitatuta.

Joko orretan, XI`n Luis (Onek 1.423-1.483 urte bitartean, Agustua`n il zan arte, bere agintaritzako bizitzan, Frantzia`n, muga-gabeko erregetza sortu eban) Frantzia`ko erregea be sartzen zan, Gaztela`ko errege Espaina`ko errege izango zan batek, Foix`eko laterriakaz jabetuta beren aurka, Burdeos eta Tolosa`ko ateetan kokatzen zalako. Orregaitik bera be sartu zan beste eskontza batzuk eskaiñita, eskontza ori ezereztuteko.

Isabel, Asturias`eko Printzea Katalina`gaz eskontzeko alegiñean eta artu-emon orrein ondoan egoteko, Burgos`era joan zan, 1.483`ko Loraila`n eta 1.483`an Bagilla`ren 25`ean, Kaltzada`ko Txomin Deuna erria, izketaldirako aukeratuta.

Izketaldi oneik, azken-gaiztoa euki eben Isabel`entzat, Gaztela`ko printzea Nafarroa`ko errege izendatzeko asmoa euki ebalako, eta Katalina printze onegaz eskonduta, orduan erregiña izendatu. Eta ez alderantziz.

Zuurtasun edo Diplomazizko alkar-izketa oneik, Frantzia`ko XI`n Luis`ek eta Madalena`k urbilletik jarraituta, errege katolikuen aldetik ez eben lortu garaipenik, Lerin`go errege-ordea eta kondeak atzerantza egin ebalako, lar arriskatu edo beartu egin ziralakoan, Asturias`eko Printzea Nafarroa`ko errege izendatzekoan.

Errege Katolikoak, XI`n Luis`ek zelango joko ona egin eutsien ikusita (len esandako eskontza ugariekin, ainbeste errege-nai aurkeztuta) osterabe bialdu ebazan ordezkook Pabe`ra 1.483`ko Uztailla`n.

Madalena, guzti au ikusita, zalantza aundi baten geratu zan, alde batera egin ezkerro, gal-bide edo arrisku bardiñean agertzen zalako, beste aldekoakaz jokatuta bezela.

Nafarroa`n Iruña`ko gorteak, bai Bearn eta Bigorre`ko laterriak 1.483`an I Katalina artu eben euren erregeiña ta berezko Andre-Jabe bezala. Emen aipatu bear da Beaumontesak Fernando`ri, Nafarroa Aragoia`gaz alkartzeko eskatu eutsoela.

Madalena`ren neba XI`n Luis, 1.483`ko Garagarrilla`n il zan eta beren ondorengoa VIII Karlos`ek aolkularien esanak on-artuta, XI`n Luis`ek antolatuta euki eban erara bete egin ziran zeregin orreik.

6.3. -VIII`n KARLOS:

Onek beren izeko Madalena`ri, arrazoi-aundiko eskutitz-bat bialdu eutson, Albret`tar Juan Tartax`eko bizkondea suin lez artu dagian.

Albret`eko III`n Juan Tartax`eko bizkondea`gaz eskontzeko itzarmenak 1.484`an Bagilla`ren 14`an idatzi ziran. Eta Ordez`en ezkonitzak emonda, Leskar`eko Eleiz-Nagusian amasei urte eukazala eskondu zan. Eskontza onegaz, seigarrenez sartuko ziran atzerritarrak Nafarroa`ko jaurkintzara.

I Kataliña`k amalau seme-alaba euki ebezan. Eta bera 1.517`ko Otsailla`n Mont-de-Marsan`go irian il zanean, sei bizirik egon ziran.

Erregeak, gazteak ziran lez, Madalena erregeen-ordekoa zan, baiña jaurkintzagaz erregearen aita Albret`eko Alano jabetu zan. Ez zan gizon ona, diru-zale, andi-nai, arroputz eta aldakorra izan zalako.

Foix`eko ondorengo arazoak, 1.484`ko Uztailla`ren 9`an eta Urrilla`ren 2`ko egiunetan asi ziran argitzen, Katalina`ren aldera. Eta ez beren aitagiñarrebaren naiera.

Batez be, arrisku aundiko txatal berezi bat euki eban: "Auziketa orren erabagia, Paris`eko Lege-biltzarrean artu bear zala". Lege-nai orren bidetik, Nafarroa`ko erregea, Frantzia`ko erregeari ondo-esan bearrean geratuta.

Albret`eko Alano`k, menpekotzaren edo feudo`ko (contrato-vasallaje) alkartasunetan sartu zan, Madalena be beragaz eroanda. Ausardi aundiko borroka 1.485`eko urtean asi-ta.

Beaumontetarrak, Nafartarren ordezeko-erregearen agindupari ezetza emon eutsoen orduan, Nafarroa`ko erregeiñuaren bakea, ezinezkoa biurtu jakien erregeari, Madalena`k 1.485`an Otsailla`ren 8`an Lerin`go

kondeagaz, adiskidego elkargoa sinatu eban eta Lerin`go konde eta beren alderdikideentzat ongille edo ekartsuak izan zan.

6.4. - ANAI-ARTEKO GUDAK BARRIRO:

1.486`an Abendu`aren 4`an feudo`ko biltzarretan, Nafarroa`ko errege-ordea Albret`eko Alano izan zala, errege gazteen izenak entzuten asi ziran. Eta I Kataliñ erregeña Nafarroa`ra etorri daiten koroatzeko, Lerin`go kondea geratu zan bideko arazoak garbitzeko arduradun.

Agramontetarrak Kardinalari (Beaumontetarren kidea zalako), Olite`ko ateak itxi eutsoezan eta erregeak ez ziran ausartu Auñamendiak aldatzen.

Gortearen aginduz Albret`eko Alain izendatu eben errege-orde, erabagi orrek txatal berezi au eukala: "Errege-ordea urrunetik dala, egon ezinean, bere anai Abesnes`eko Jauna izan dagiala". 1.486`ko Irailla`n orokorrezko tenientea izendatuta.

1.486`ko urte berean, Beaumont taldeko Grazian`ek, Agramontetarrai eraso eutsen eta barriro biztu zan anai-arteko guda.

1.488`an gauzak baketzeko Tudela`k eskatuta, Agramontetarren anaiarteko taldea sortu zan. Eta Iruña`n Beaumontetarrak, bereala sortu eben bardiña.

1.488`an Urtarrilla`ren 3`an Madalena eta bere alaba I Katalina Frantzia`ko Lege-Biltzarra`k deituak izan ziran.

Beaujeu`ko Ana Frantzia`ko erregeñ-ordeak baiña, eurengaitik lau urte ariñago, gomendiozko alegiñ eta trebetasunezko laguntzak pozik egingo ebazanak. Albret`eko Alano jaunak Nafarroa`ko errege-ordea zana, beren gudarako zaletasunagaitik asarratuta, orain atsegiñez itzi ebazan sasiarteko eginkizunetan korapillatu daitezana.

Albret`eko Alano`k, Bretaina`ko dukearen alabeagaz ezkondu gura eban, lurralde arein gaiñean begia ipini ebalako eta lurralde orreitan eskubide batzuk eukezala-ta.

Orren zeregiñaren garaipena eta Beaumontetarren menpea lortzeko, 1.488`an Epailla`ren 21`ean Balentzia`n Fernando katolikoa`gaz barneko adiskidetasunaren alkargo bi antolatu ebazan. Fernando`k, oraindiño gaztel-uri batzuk eroaten ebazalako nagusi-lez.

Gazteluri orreik Nafar Kapitain edo gud-agintaripean geratu ziran.

Utziera orreik itxurazkoak ziran baiña, Nafarroan, errege katolikuak aginpide nagusiena euki ebelako eta berezko erregeak baiño, erantzun obeagoak eukiten ebazalako.

Fernando urriñ egon zan Labret`eko Alano`ren naikundetik, beren naiak bete daitezcan, Juan printzearen alde jokatzcan ebalako eta azken baten Bretaina`tik zeozar ataratekoan, Nafarroa`ko errege-ordeak aginduta, Rosellon`eko (Frantzi`ko oroigarri-lurraldeana. Langedok, Auñamendi ta Lurrarteko itsaso`en artean kokatuta dagoena. Bere Uri nagusia Perpiñan izan da) lurraldeana eskuratzeko zan.

Alano`k, Fernandoren jokoa zelakoa zan jakinda, 1.491`n Urtarrilla`ren 2`an Frantzesaren kin alkartu zan, ain-bat gauza berentzat, beren seme eta beren anaiarentzat, diru ta lurraldeetan lortuta. Gaiñera, Narbona`ko Juan bizkondearen naiak babes-gabe uztea eta Frantzesaren laguntza eukitea, Nafarroa`ren aurka Espaina`ko erregeak erasoan etortzen ba-ziran, asko zalako.

6.5. - GAZTELATARREN BABESA:

1.492`ko Urtarrilla`n Granada`n eta Abustua`n Zalduba`n (Zaragoza) be, arremanak egon ziran, Nafarroa, Gaztela`tarren babesgoan izteko. Fernando baiña, asarre aundian sartu zan, Juan Frantzia`ko erregeagaz batera ibiltzen zalako eta zalantza askoren ostean, Kondestablea eta beren lagunak, Iruñean ziñez, itz emon ebalako andik aurrera Nafarroa`ko erregearen agindutara geratzen zirala.

1.493`an Jorrailla`ren 13`an Paris`eko Lege-Biltzarrak, Foix`eko laterrien jabetasuna oraingoz I Katalina erregiñaren ardurapean iztea erabaki eban.

Elkargo oneri, Kondestablea eta beren sei alderdikideak, 1.493`an Zemendia`-ren 7`an Iruña`n ziñ eutsoen. Eta erregeak Orthez`en Abendua`ren 4`an

Nafarroa`ko erregeak baiña, beti lez osterana be ankak, infernuko lekuan sartu ebazan (baleiteke beartuta izatea), errege Katolikuari eskatu eutsoelako, euren baikuntzapean (garantia) bete daitezcala ongune (ajuste) orreik. Bide orretatik, Fernando geratu zalako elkargo orren erantzugille.

6.6. - ERREGEA KOROATZEN; FRANTZE`tarrak ASARRE:

Nafarroa`ko erregearen koroatzea, amar urte beranduago, 1.494`an Urtarrilla`ren 12`an egin zan. Eta ez eragozpen barik, kondestableak Uria`ren atear itzi eutsezalako, Agramontetar geiegi etorri ziralaren

aitzakiagaz. Gabonak Egues`eko basa-bazter edo baserritxoan ospatu bear izanda.

1.494`an Urtarrilla`ren 19`an Iruña`n eta Jorrailla`ren 30`an Medina del kanpo`n isilleko alkargoaren bidez, Fernando katolikuak beren itxurazko lanagaitik, laster eskatuko eban beren artekaritzaren ordaiña eta Nafarroa`ko erregeak beartuta geratuko ziran, Ana euren alaba nagusiena katolikuen seme Juan`egaz ezkontzeko. Eta mutilla eukiten ba-eben, katolikuen senitarteko neskatiakaz ezkondu dagian.

Frantzia`ko VIII`n Karlos asko asarratu zan erabagi orreikaz, Nafarroa`ko erdikotasun orrek, beren sarraldi asmoaren bideak ezerezean izten ebazalako eta Gaztelatarrai nausitasunaren ziurtasuna emoten eutselako.

1.494`an Epaila`ren 20`an Lion`en, Frantzia`ko VIII`n Karlos eta errege Katolikuak, beti Nafarroa`ko zeregiñaren gaiñean egon ziranak, antolakuntzazko erabakia epaitu eben: "Ortik aurrera, Narbona`ko Juan`en asmoak Nafarroa`ko erreñuarentzat, eurak eroango dabezala". "Frantzia`an egon ziran laterrien erabakigabeko auziketak, Frantzia`ko Lege-Biltzarraren burubipean geratu daitezala". Eta "onen erabagiak eldu arte, Nafar-erregeakaz Narbona`ko bizkonde`ak euki eban guda gelditu daitela eta auzibideko Laterri orreik Nafarroa`ko erregeen ardurapean geratu daitezala".

VIII`n Karlos`ek Juan bizkondearen laguntzagaz Italia`ko gudaldia asi eban eta Nafarroa babes barik geratu zalako, errege Katolikuak agertu ziran jaun ta jabe, Juan eta I Katalina Nafarroa`ko erregeak, eurengana nai-ta nai-ez joan bear izan-da, Beaumontetarrak gero ta okerrago joan ziranak geratzeko.

6.7. - ERREGE-KATOLIKUAREN JOKOAK:

1.495`ko Epaillea`n Nafarroa`ko erregeak, errege katolikoakaz alkargo arrotz eta gogaikarri bat sinatu bear izan eban. "Gaztela-Aragoi`ko erregetzagaz bakeak iraungo ebala; Lerin`go kondearen erbesteratzea; Eta beren jabetzaren lur-baituak, bien aldetik ipinitako lau kontularien artean zaindu dagiezala".

Nafarroa`ko erregeak, oso garesti erosi bear izan eben kondestablearen erbesteratasuna, 1.495`eko urte berean, Nafarroa`ko Gorteak gorroto aundiz ontzat emon bear izan ebelako.

1.497`an Comyn`eko Felipe`k esaten eban: "Nafarroa`n Errege katolikuak, eurak gura ebena egiten ebela".

1.497 eta 1.498`ko urteetan, Frantzia`ko erregeak Fernando katolikuari eskeiñi eutson: "Albret`eko jabetasuna ezereztu eta Nafarroa`ko jabetasunagaz batera berak artu dagiela, Italia`ko lurralde batzuen truke". Fernando`k emon eban ezetzagaz, lagun zintzoaren ospean agertuta zan, Frantzia`ko errege-ergelaren lepotik.

1.498`an juduak kanporatu ebazan errege katolikuen indarrak eraginda. (Sei urte ariñago errege katolikuak egin eban bezela).

1.500`ean parkamena emon eutson Lerin`go kondea`ri. A-ta guzti onek, aurrera egin eban Nafarroa`ren aurka eta Fernando`ren (katolikoa) serbitzura.

1.503`an Jorrailla`ren 25`ean Zangotzan, Nafarroa`ko erregeen Juan eta I Katalina`ren semea, Nafarroako II`n Enrike izango zana, Nafarroa`ren zoraldiko denboratan jaio zan.

1.503`an Abuztua`ren 18`an, VI`n Alejandro Aita-Santua il zan, eta beragaz Nafartarren laguntzaille aundi bat.

1.504`an Epaila`ren 17`an, Nafarroa`ko erregea Juan`ek, Fernando`k nai-gabearen aitzakiagaz, zelako jokoa egiten eban ikusita, Zangotza`koak borrokan ibiltzen ziralako Aragoi`ko mugaldekoakaz, Najera`ko kondea eta Lerin`go kondearen antziñako adiskidetasunari baimena emonda, Gaztelar gudariak sartu daitezana Soria eta Gipuzkoa`ko mugatan. Beldurkor, Medina`ko bigarren ituna antolatu eban.

Itun onen idazkun berezienak, Fernando`ren aldekoak izan ziran: "Biana`ko Enrike, katolikuen bir-alaba Isabel`egaz eskonduta; Foix eta Albret`eko jabetzak Gaztelatarren eskuetan geratuta; Nafartarren alderdi-gabetasunagaz Frantzia`ren aurka, Fernando nausitasunean kokatzen zalako; Eta Azken baten, Albret`eko laterrietan, Espaiñol leiñu bat kokatzen ebalako".

Frantzia`ko errege XII`n Luis`ek asarratuta, itun ori antolatzen asi orduko, beren gudariak Foix`eko mugan kokatuta euki ebazan

1.504`an Zemendia`ren 26`an Isabel katolikea il zan eta Fernando`k ikusten asi zan, Gaztela`ko erregetza, bere alaba Juana eta bere suin Felipe-Ederraren eskuetan itzi bear ebala. Fernando laster asiko zan beren gogoaz alegintzen, oneik zelan bastartu.

1.505`an Urtarrilla`ren 23`an Fernando`k, Toro`ko Gorteetan Juana`ren zortasuna azalkeatu eban eta Isabel`en azkenaiaren agindutik, Gaztela`ko erregetza berak zuzendu bear ebala, esan eban.

1.505`an Urrilla`ren 12`an, Fernando`k, bere suin Felipe artxidukea ikus-eziñ eban aldebatetik eta bestetik, Frantzia`ko errege XII`n Luis`ek, Felipe artxidukearen al-izan edo gauza izanagaitik, bekaizkerian

euki eban. Biak alkartuta Blois`eko alkargoa ospatu eben, eta bertan Fernando ta Foix`eko Germana`ren eskontza izketatu eben (Germana, Foix`eko Gazton Nafarroa`ko errege izan gura ebanaren arreba zan). Ezkon-gai onen azalpenean: "Arima bi gorputz baten izateko" eskontzen zirala esanda.

Denbora oneitan, Frantzia`ko errege XII`n Luis`ek, beren lengusu Beaumont`eko Loys Lerin`go kondea eta Nafarroa`ko kondestableagaitik ondo berba egiten eban. Egia baiña, au beren obekuntzagaitik, bardiñ ibiltzen zala Frantzia`ko erregeagaz naiz Espaiña`koagaz zan, itz-ustelekoa zalako.

1.506`an Bagilla`ren 27`an, Fernando`k ikusten eban, Gaztela`ko erreiñua eziñezkoa zala beren eskuetan bideratzea eta Billafafila`n bere suin Felipe-Ederra artxidukeagaz batzartuta, alkargo bat sinatu eben, Juana erregiña, beren zorotasunagaitik alboratzeko.

Fernando`ren maltzurrezko-gogamenean baiña, Juana alboratuta, denborea agertuko zala Felipe be ezereztuteko zan.

Fernando katolikuaren izarra ta indarrak itxura baten berantza joan ziralako, Nafarroa`ko erregeak, Frantzia`ko errege XII`n Luis`en gaitik gero ta jokabide txarragoan artzen ebazalako, 1.506`an Abuztu`ko 27`an Gaztela`ko Juana eta Felipe-Ederragaz Balladoliz`en Duero`ko Tudela`n, barneko adiskidetasuna ta bakearen ituna sinatu eben, Nafarroa`ko erregeentzat ain ongarrri izan zana, Gaztela, Erroma ta Ingalaterra`ko erregeen ta Aita Santua`ren adiskidetasunera urbiltzen ebazalako.

Nork gogoratu edo susmatuko eban, denbora gitxi barru I Felipe-Ederra ilgo zala, Juana zoratu eta Fernando katolikua Gaztelako antzokian antzezleri nagusi-lez ikustea ?. Fernando`ri, orduan zabaldutako zauriak zekula ez jakozan osatuko.

Fernando`k Nafar-erregeai, sekula ez eutsen parkatuko beren lepotik Gaztelar erregeakaz egindako alkargo ori. Eta Fernando buru-makur edo beren maltzurtasunezko asmoak izkutatzeko, Napoles`era joan zan.

1.506`an Irailla`ren 25`an I Felipe-Ederra, pozoituta ? il zan.

1.506`an, Fernando katolikuen indarrak barriztuta eta bere alegiñaren bidez, Nafarroa`n anai-arteko guda biztu eban.

1.507`an Urtarrilla`ren 2`an, Tolosa`ko Lege-Biltzarrak, Nafarroa`ko erregeak zigortu ebazan, XII`n Luis`eri 5.000 libra ordaintzera eta 1.000 libra Bearne`ko Koarraze jaunari, iltzaille onen gaztelua ezereztu ebalako.

1.507`an Abuztua`ren 21`an, Fernando Gaztela`n sartu zan. Eta berari bertan egineko irainak, bai Duero`ko-Tudela`ren alkargoaz

gogoratuta, Nafarroa`ko erregearen aurkako alegiñetan asi zan, Nafartarrak Gaztela`ko zaindaritzan sartzeko. Oneik, Fernando`ren adierazpenai, ezetza emon eutsen.

6.8. - AITA-SANTUA NAPARTARREN AURKA; ESKOMUNIKAPENA; II JULIO:

1.508`an II`n Julio Aita-Santua`k Nafarroa`ko erregeak eskomunikatu edo Eleiza`tik kanpora atara ebazan, Iruña`ko Gotzaintasun eta Tudela`ko Dekangoa`ren gora-berakaitik.

1.508`ko Bagilla`n, II`n Beaumont`tar Luis Lerin`go kondea`k 1.506`an Fernando`ren alegiñagaz, Nafarroa`ko erregearen aurka asi eben guda, beren aurka asi zan itzultzen. Fernando`ren babesbarik geratu zalako, Lerin`etik asi-ta, leialtasunean euki ebazan gazteluak jausten asi ziran.

Aragoi`ra erbestaratuta, Beaumontetarrak esaten eben, II`n Luis`ek negar egin ebala: "Nafarroa, arrotzaren eskuetan jausi eta euren aginpean geratuko zalako". Negar orreik baiña, bere leiñuaren saldukerizko judaskeri ta beren billakerizko erruaren gaiñean, negar egitea bezala zan.

1.508`an Zemendia`ren 16`an Beaumont`tar II`n Luis Lerin`go kondea il zan (beren illobiko obi-itz`etan auxe ipinten eban: "Gorputz txiki baten, sekula ez da ikusi ainbeste indar") eta bere seme Beaumont`tar III`n Luis izan zan ondorengoa, Nafarroa`ren aurka, Alba`ko dukearen gudaldia bideratu ebana.

6.9. - ALEMANAKAZ ALKARGOA; MAXIMILIANO:

1.508`an Abendua`ren 10`an, Alemania`ko I Maximiliano, Frantzia`ko XII`n Luis, II`n Julio Aita-Santua eta Fernando katolikuak, Kambrai`en, Benezia`ren aurka, alkartasuna sinatzen egon zirala, XII`n Luis`eta I Maximiliano`k, beste kidegotasunezko itun bat sinatu eben.

Maximiliano`k, Nafar erregeentzako estu-aldi guztien gaiñetik, bakearen zabaltasunezko obari edo ongarrri guztiak gura ebazan. Eta naita Frantzia`ko XII`n Luis erregea aurkakoa izan, alkargo`ari idazkun berezi bat sartu jakon: "Sinaduraren ostetik urte bete baten epean, ez Frantzia`ko erregea eta ez Foix`eko Gazton Numers`eko dukearen aldetik, ezelako kalterik eziñ jakiola Nafarroa`ko erregeari egin".

Eta Alemania`ko kaizar`en arreba Margarita`ri esker, Nafar-erregeen Katalina eta Juan`en izenak, sartuta geratu ziran Alkartasun orreitan.

1.509`an Juan`ek Nafarroa`tik kanpo euki ebazan jabetzak batu ebazan Bordele`ko parlamentuan.

1.509`an Fernando, Nafarroa`ko zeregiñetan sartzen asi zan, eta esan leike, erabagita euki ebala, beren erara Nafarroa`gaz geratzea.

Fernando`k, Nafarroa`ren alde euki ebazan domubideak guzurrezkoak ziran. Alegin orreik, unetxo edo txakadaren goraberan egindakoak ziralako.

1.509`an Uztailla`ren 28`an, Fernando`k Balladoliz`etik, Baumont`tar III`n Luis Kondestableari (au muga aldetik naastekari gudan asi zalako) idazten dautson eskutitzan: "Nafarroa gudaren bidetik menperatzea, berak esango dauela noz da zelan egin", esaten eutson.

1.509`an Abendua`ren 20`an eta 1.510`eko Epailla`ren 10`an, Blois`eko alkargoa`ren bidez, Austria`tar Maximiliano`k, Nafar erregeak Juan eta Katalina babesten irauten ebanak, lortu eban Nafar-erregeak izendatuak izatea Fernando katolikua`gaz egindako biltzarrean, Gaztela`ko jaurkintzaren arduratarako. Gaztela`n erregeakaz sortu zanagaitik, Eleiza ta Europa`ko erregeak biltzartzen ziralako arazo orreik erabakitzeke eta danez gain: "Erregetzaren iraspenak indartsu iraun dagian".

1.510`ean Urtarrilla`ren 7`an, Nafarroa`ko erregeari XII`n Luis`en aldetik, ostera agertu jakiezan zori txarrak, Tolosa`ko Lege-Biltzarraren aginduz, Bearn`eko Bizkonderriaren jauntza Luis`eri emon bear eutsoelako.

XII`n Luis, Nafar-erregearen aurkako jokuan, Lege-Biltzarraren erabagien atzean ibili-ta, Juan`en zerbitzari batzuen ondasunakaz geratu zan eta Foix`eko Gazton`eri (bere kabuz, Nafarroa`ko errege izendatu zana Frantzia`ko lege-salikaren bidez, berak ondorengoa zala uste ebalako) bost gazteluen ardura emon eutson, baiña ez zan aurrera joan, Fernando katolikoa eta Aita-Santu II Julio asarratuta egon ziralako.

1.510`ean Urtarrilla`ren 21`ean Nafarroa`ko erregeari Iruña`ko Gorteak eta illabete beranduago bost ordezkokoak bialduta, Bearn`ekoak, euren leialtasuna emon eutsoen. Zeozer gertatzen bazan "Abizen orokorrezko Dei-Adar`era deituta" (el apellido general) Nafartarren erreinua babesteko, urte-biko alkartasunaren eskeintzagaz. Eta 1.511`rarte olan joan ziran gauzak emengo aldetik.

1.510`ean II`n Julio Aita-Santua`k XII`n Luis`egaz guztiz asarratuta, Nafar erregeari, Eleiza`tik kanpoko zigorra kendu eutson, Iruña`ko Gotzai zeregiñetan, Juan`en anaia, Albret`eko Amanuel Kardinala ezarrita.

Denbora oso korapillotsuak ziran oneik, Europa`ko errege ta Eleiza`ko nagusi batzuk naaztuta ibili ziralako, Aita Santuaren agintaritzaren gora-beran.

Konstanza (1.414-1.418) eta Basilea`ko (1.431-1.445) Eleiz-Batzarretatik, asko zabaldu ta indarra artzen asi zan, Aita-Santua`en agintaritzaren gaiñetik Eleiz-Batzarra zala nagusi. Erregeak ondo ikusten eban Eleiza`ren berrizkuntza ori, euren naikeri politikoen bidetik, sarri aurkezten ziralako Aita-Santua`ren zeaztasunakaz.

6.10. - LETRAN`go V KONTZILIOA. IGLATERRA ELEIZTIK KANPO:

II`n Julio Aita-Santua`k, 1.512`an Letran`eko V`n Eleiz-Batzarra asi eban, eta 1.517`an X`n Leon`ek amaitu. Guda-indar bidetik, Pisa`ko sasi-batzar eta gogamen ori, menpetu eban.

Erregeak baiña eta batez be Fernando katolikuak, bere maltzur ta guzurrezko ekintzagaz (bera izan zan sort-arazi ebana Eleiza`ren bereizkeri edo alderdikeri ori. Eta ez eban ezeren lotsarik edo laburkeririk (empacho) euki, Aita-Santua`ren Bulda`k Nafar-erregearen aurka, eskerniatu edo okertu "falsificar" egiten ebazanean) izan zan, Nafartar-erregeak egiaren aurrean zalantzan ipinten ebazana. Ez Nafarroa bakarrik bere aginpean ezartzeko, beren ametsaren asmo-gogoak, Lurrarteko itsasoaren inguru guztien Konstatinopla`raiñoko jabetasuna gura ebalako.

Begitu non geratzen ziran, gaurko Espaiña`tar aberkidearen ametsak. Fernando`ren guzurrezko irakatsiak, egi-lez ezarri gura ba-dabe.

6.11. - KATALINA eta JUAN ERREGEAK BETI AITA SANTUAGAZ:

1.511`ko Bagilla`n. Katalina eta Juan nafarroa`ko erregeak, uste eben erdikotasun edo alderdi-gabeen kokatuta egon zirala, nai-ta euren babesle edo laguntzaille Maximiliano Alemania`ko erregea, 1.508`an Trenton II`n Julio Aita-Santua`gaitik Kaizarra aukeratua izan zanak, alegiñ asko egin Aita-Santua`ren aurkako alderdian kokatu daitezkan. Eurak, beti baieztu edo ziñeztatu eben, sekula ez zirala alboratu II`n Julio Aita-Santua`ren aginpetik.

1.512`ko Epailla`n Fernando katolikoak, Frantzia`ko errege XII`n Luis`eri guda agertu (declaraciòn de guerra) eutson, eta Nafar-erregearentzat alderdi-gabetasun ori, ia ezinezkoa biurtu zan. Alde batetik, Nafarroa`ren zaintza, Gaztelatarrakin alkartasuna aolkatzen ebalako. Bestetik Foix eta Bearn`eko laterriaren zaintzak Frantzia`ren adiskidetasuna. Eziñ eben ezelango mugi-aldirik egin, Fernando adi egon zalako, XII`n Luis`egaz alkargoen bat egite ba-eben, berak bereizkerizale ta Eleiza`tik eskomikatu`aren marra edo ezaugarria eurei ezartzeko. Berak bitartean, Erroma`ko Gotzain-Auzitegi inguruetan beren katolikotasunezko guda-gizon izaera erakusten eta Burgos`en Nafar-ordezkoari eziñ egin ziran adierazpenak egiten, egon zala.

6.12. - FERNANDO KATOLIKUA eta BIANA`ko PRINTZEA; MAL-TZURKERIAK.

Fernando`ren jokoa Nafar-erregeakaz, onen seme Biana`ko printzea beren baituran (rehen) iztea zan, bere bir-alabeagaz eskondu daiten, Frantzia`ko gudalozteari, Auñamendi ta Bearn`eko bideak ebagiteko. Maltzurkeri utsa zan baiña, berak Frantzia`ra aldatzeko aske euki ebalako Gipuzkoa`ren bidea.

Nafarroa`ren ezarpena, Frantzia ta Gaztela-Aragoi zein-geiagoen borrokalaria bitartean, gero ta geiago erakusten eban, eurentzat euki eban garrantzia.

Fernando`k, Gudalozte-Santuak Nafarroa`tik ibiltzeko askatasun aundia eta gudu-antzezko (estrategikos) gazteluak bere baiturako agindupean eskatzen eban, Nafartarren aldetik, berak Frantzi`rako bidearen ziurtasuna eukiteko.

1.512`an Uztailla`ren 3`an, Fernando`k, Nafarroa`ko erregeak aulkitik botateko, berak, Zalduba`ko Uria`ri idatzitako eskutitzan agertzen dauz euki ebazan egin-naiak, esan oneikaz: "Frantzia`ko erregeak, zatitu egin dauela Eleiza`ren batasuna bereizkeriaren (cisma) bidez, kristau-bizia arteg-arazita (turbar, impacientar); Aita-Santuak laguntza eskatzen dauskula, bere ingurutik etsaien indarrak aldentzeko; Erroma`ko Aulkiak Gurutzada eta Barkamen osoa agindu dauskula; Mezularien bidetik oartuta geratu garela, Nafar-erregeak gure aurka, zelan alkargotu egin diran, Frantzes`ari gure lurraldeetan sartzen izteko eta gure erreñu ta Jauntzazko lurraldeetatik eurak gura dauana artzeko". Eta ainbat guzurrezko abar.

Baiña, eraso-aldi ori zuzen-gabekoa izan zalako eta oraindiño ez ziralako egertu eskerniatuko (falsificadas) Buldak, Fernando otsoa`ren basakerizko itxuratik azeri-emeen maltzurtasunezkora aldatu zan, zentzunezko gizon/emakumearen giza-barrenak iruzurtu edo atzipetzeko.

Orretarako, Blois`eko itun edo alkargo baten agiria beren erara aldatuta agertu eban. Bertan, Frantzia ta Nafar-erregeen artean alkargotuta egon ziralako, esaten ebana, Gaztela ta Aragoi`ko menpetasuna lortzeko Nafarroa`ren alde.

Gaur-lez, betiko maltzurtasunezko jokoa izan zan ori, erruak, arrazoidunaren lepoan ezartzeko. Giza/emakume artes batek, alango azpikerizko jokorik sekula ez daualako egingo. Berezkotasunaren sinismeneko gizon/emakumeen alegiñak, bikoiztu egin bearrean geratuta, guzuraren esanak ta alegiñak askoz errezagoak diralako.

Maltzurra, beti egongo da jateko prest eta adi, berezkotasuna ta berezkotasunezkoak egiten dauanari. Ori dalako Mundu onen betiko arazoa. Or apurtzen diralako, Mundu onetan gizon/emakumearen eskubideko-zeregiñaren orekak.

Nafar-Mariskala`k Burgos`etik urdurituta, erregeari esaten eutson: "Fernando`k lar eskatzen ebala". Nafarroa`ko gorteak gaitzondo edo arrenkurazko (rencor) berba orreik artuta, 1.512`an Uztailla`ren 17`an gudalozteak prest eukiteko eta "Abizen-orokorreko dei-adar"era deitzeko erabakita geratu ziran.

Artu-emon orreik, Fernando`k Mariskal`ai egindako erantzunagaz amaitu ziran: "Berak, indarrez artuko ebala, zuen borondatez emoten ez dozuena".

Denbora onein bidaune, oker-zautzeko (malversaciòn) denborak izan ba-ziran, 1.512`ko urte inguruetan, Frantzia`ko XII`n Luis, Aita-Santu eta Fernando katolikuaren aldetik geien eginekoak izan ziran: Okerkeri; Edozein batzar-agiri ta bulda`ren Eskernialdi (falsificar); Guzur eta lege-gabekeri aundi ta ugarian egiten ziran denborak ziralako.

Nabari izan zan, Nafarroa elduta egon zala, berari talka egin edo bera inguratuta iruntsteko.

6.13. - FERNANDO KATOLIKUAK GUDA NAFARROA ESKURATZEKO:

1.512`an Uztailla`ren 21`ean, Alba`ko dukearen gudaloztea, 1.000 gizon-gudari, 2.500 zaldi, 6.000 oinkari eta 20 kañoi euki ebazanak, Burunda`ko ibarretik apurtu ebazan mugak. Aurreko taldean Giputzak,

Arabarrak, artean Nafartar-saltzaille dirala, III`n Luis Lerin`go kondeak bideratuta, Etxarri-Aranaz`en gau egin eben.

1.512`an Uztailla`ren 22`an Uarte-Arakil`en egin eben gaua. Eta Uarte-Arakil babesteko egon ziran Erronkal-gudari apurrak Ozkiate`ko aizpitartera aldatu ziran. Sartzailleak, Aizkorbe`ko lepotik inguratuta alderatu eben arrisku ori. Gau orretan Iruña`ren aurrean, karpapean lo eginda.

I Juan Nafarroa`ko erregeak, Katalina erregiñari agindu eutson, Biana`ko printzea eta beste seme-alabakaz batera Bearn`era aldatu daitezcan. Tuteran`ri 500 gudari eskatuta.

Iges-egite ori, ain bizkorra izan zalako, Frantzizko semea, bero ta nekearen larritasunagaz il jakien.

1.512`an Uztailla`ren 23`an Iruña`tik, Nafar-erregeak exkomiku`aren pekatua egin ebela, azpiko jokoaren zurmurrak zabaltzen asi ziralako, gau orreitan I Juan`ek Uri`tik alde-eragin eban.

1.512`an Uztailla`ren 24`ko gauan, Muskaria`n (Tudela) egon zan gudaloztea Tafalla`ra aldatu zan, Gonzalo`tar Mirafuentes`en agindutara, eta oartuta erregeak Iruña`tik alde egin ebela, Lumbier`era aldatu zan, aginduen itxaropidean.

1.512`an Uztailla`ren 25`ean, Gaztelar gudal-nagusi Toledo`ko Fradike Alba`ko dukeak, Arga-ibaia aldatuta eta gudaloztea zabalduta eraso egiteko prest dagoala, Uria`ren ziñezko gizonak aurreratuta Iruña`ko giltzak emon eutsoezan. Berak, Gaztela ta Aragoi`tar erregeen izenean, euren Foruak, oiturak eta oi-arauak lotsean gordeko ebazala ziñ eginda.

1.512`an Uztailla`ren 31`n, Fernando`k, beren Lotsa-bako eta guzurrez betetako agiria zabaldu eban.

1.512`an Irailla`ren 21`ean, Ego-aldeko Nafar osoa menperatuta geratu zan.

I Juan eta I Katalina Nafarroa`ko erregeak, bereizkeri edo Alderdikeri-zale eta fede-ausle edo sinist-ausleak sekula-be ez ziran izan. Eta izan ba-ziran lez ordaindu bear eben.

Nafarroa menperatzea, erri-artekoen bide-zuzeneko edo zuzengabeko, egiazko edo guzurrezko idazpuru edo izenburu-bako itsas-lapurkeri aundi bat izan zan.

Fernando`ri..... LAPURRA !! zelan ez jakon esango ?.

6.14. - JULIO AITA-SANTUA, XII LUIS, FERNANDO KATOLIKUA,
eta I JUAN`en ERIOTZEA:

Dana dala, azkenean, guzur utsez eta Aita-Santua`ren laguntzagaz, nor geiago dala, Nafarroa`ren Auñamendiko Egoaldeagaz geratu zan, 1.513`an Nafarroa`ko gorteak II`n Fernando "katolikoa" errege izendatuta.

Ortik aurrera, Nafarroa`ko errege I Juan`ek 1.517`an il zan arte, Auñamendiren Iparraldean bakarrik agindu eban.

Laster ilgo ziran antzerki onen antzezleri nagusiak.

II`n Julio Aita-Santua: 1.513`an Urtarrilla`ren 20`an.

Frantzia`ko erregea XII`n Luis: 1.515`eko Urtarrilla`n.

Fernando katolikua: 1.516`an Urtarrilla`ren 23`an, zori-gaiztoko eta akurazko (alquiler) ostatu baten.

Nafarroa`ko erregea I Juan: 1.516`an Bagilla`ren 17`an, Esgoarraba-Ke`ko gazteluan.

Nafarroa`ko I Katalina eta Nafartar-zintzoak alegindu ziran Nafarroa`ko erregetza berrezkuratzen, baiña leenengo astikor ibili ziralako eta Frantzia`ko erregea bigarren, beste zeregin aundiagotan sartuta egon zalako, ez eben, bear dan moduko laguntzarik euki eta Auñamendi`ko Iparraldean bakarrik agindu eben.

6.15. - FERNANDO`ren BIDEK ZISNEROS KARDINALA:

1.516`an Urtarrilla`ren 23`an Fernando katolikua il zanetik, Espaina`ko erregetza Zizneros kardinalak zuzentzen eban eta Espaina`k berari zor dautso Nafarroa`ren menpekotasuna.

Kanpion`ek emen, garrantzi aundiko gauza bat esaten dau: " Nafarroa, Fernando katolikuak menperatu ebala, aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz azaleratuta". Eta Nafarroa`ren egizko menperatzaillea ez zala Alba`ko dukea, II`n Julio Aita-Santua baizik.

Ortik aurrera, Espaiña`ko erregeak ondo zaindu eben Iruña`ko gotzaiñ eta Eleiza`ren agintaritzazko lekeide/me etxeetan ez daitezcan sartu edo aulkietan Nafar-semeak ezarri. Nafar-erregetzaren irudia galtzen joan daiten eta Gaztelatarrena biztu, Euskal-izkuntza ezereztuta ABERRITASUNAREN NORTASUNA Espainol biurtu daiten.

Alan egin eben Zizter`eko lekaideak XVI`n gizaldiko amaieran, Nafarroa`ko erregearen il-obiak ikus ez egiteko lekuetan ipinita, erria aaztu egin daiten beren arbasoakaz.

1.516`an Epaila`ren 7`an, I Karlos`en aolkulariak, berari esaten eutsoen, Nafarroa`ko erregetza ostera emon edo itzuli dagiola berezko erregeari.

Aragoi`ko Alfonso (Fernando katolikuaren sasi semea zana) Zalduba`ko gongotzain edo artx-apezpikuak baiña, I Karlos`eri eskatu eutson: "Nafarroa`ko jabetzari eutsi dagiola euren laterriaren babeserako. Bere zainpean, Auñamendiaren igarobide guztien giltzak eukazalako".

6.16. - NAFARROA`ko II ENRRIKE eta ESPAIÑA`ko I KARLOS:

1.516`an II`Enrrike`k beren amagandik ondorengoa artuta, Noyon`en saiatu zan Espaiña`ko I Karlos`en aurka, Nafarroa`ren Ego-aldea berrezkuratzen. Baiña, alperrik izan zan.

1.517`an Otsaila`ren 12`an I Katalina il zan eta euki ebazan amalau seme/alabetatik sei geratzen jakozan bizirik. Oneitatik II`n Enrrike semea izan zan beren ondorengoa.

Bere aita I Juan eta ama I Katalina 1.515`eko urtetik aurrera Frantzia`ko gortera joan ziralako bizitzen, bertan ezagutu eban Angulema`ko Margarita (1.492-1.549), Frantzes idazle ospetsua eta "Eptameron" liburuaen egillea. I Frantzisko Frantzia`ko erregearen arreba zana eta 1.509`tik aurrera IV`n Karlos Alezon`go dukeagaz ezkondata alargundu egin zanean, 1.527`an beragaz ezkondu zan.

Albret`eko II`n Enrrike`k Nafarroa`ko erregetzaz gain, Biarno, Foix, Bigorra, Ribagorza, Armagnak, Perigord, Tursan, Gabardan, Tartas eta Limojes`ko lurraldearen jabetza euki eban. Beraz, Nafarroa, Gaskoinia ta Auñamedia`ren Ipar-erdialdeko errege ta jaun nagusia izan zan.

Beren elburu nagusi, Nafarroa`ren Ego-aldea berrezkuratzea zan.

1.517`an Urrilla`ren 7`an, Paris`eko Lege-Biltzarrak Foix`eko auziketari, Nafarroako erregearen alde erabaki eban.

1.517`an Urrilla`ren 31`n Europa`ko jarkera orreik, etsitasunezko (desesperaciòn) aldaketak bereala egitea eskatzen eban, eta Lutero`k Wittenberg`en 95 maixu-idazkiak (tesis) aurkeztu ebazanean, Eleiza`k barkamenaren arloan ibiltzen ebazan ipotesi ta egikizunak arrazoiaren aurka, agertu ziran. Ortik aurrera Erreforma edo berrikuntzaren denborak deituko jakezan.

Jazargo, aurkariko edo protesta denbora orreik, berrikuntza-bat baiño, erlijio, gizarteko eta gizartearen jakintzazko iraulketa aundi bat baiño ez zan izan. Ekanduan, irakaskintzan, ekonomian, abendan eta politikarako, sorburu guztiko alegiñetan, okerrezko gauzaren-ondorengoak eraginda.

1.518`ko urtean, Balladolid`eko gorteak I Karlos`eri esan eutsoen: Nafarroa`ko erregetza menpean eukiteko, gure gizaki edo pertsonak eta etxaldeak zaintzeko bear ba-dira, ipiniko doguzela. Erregetza-ori gure erregetzaren giltz-nagusia dalako`en aitzakiagaz. Ortik agertzen zalako, I Isabel`en ta Zizneroz`en Godo-asmoak Espaiña`ren ametskerian.

Bardin esan eutson Zizneros`ek: "Erreiñu ura, berak balio baiño geiago kosta izan jaku, eta gutxi gaitik ezin da galtzorian jarri, ain sariko (estimaciòn) gauza ori. Zure Espaina`ren erreñuentzako, atea izan balitz bezala, bideak zabaldu ta zarratu egiten dauana da-ta".

6.17. - EGO-NAPARROA ASKATZEKO GUDA; II ENRRIKE eta I FRANTZISKO BAITU`ak:

1.518`an II`n Enrrike`k Montpelier`en, Espaiña`ko I Karlos`ekin ostera saiatu zan Nafarroa`ren Ego-aldea askatzeko eta alperrik zala ikusita, gudarako asi zan antolatzen.

1.521`an Bagilla`ren 10`an, II`n Enrrike`k, Nafartarrak, Gaskoiak eta Frantzesakaz osotutako gudaloztea, Foix`eko Andres`ek bideratu ebanagaz, Donibane Garazitik sartuta, Egoaldeko Nafarroa asi ziran berrezkuratzen eta Iruña artu ondoren, Lizarra, Tafalla eta ia Nafar osoa berreskuratuta euki eben.

1.521`an Bagilla`ren 30`eko Domekan baiña, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia ta Errioxa`tarrakaz antolatu zan gudaloztea Lerin`go kondeak bideratuta, asko lagundu eutsoen Espaina`ko I`goa ta Alemania`ko V`n (1.519) Karlos`eri eta Noain`en, Ezkirotz ta Barbatrain zelaietan, 5.000 gudarien gorputzakaz odolezko oiñ-azpiko lez beteta itzi ondoren, ostera be II`n Enrrike`k borroka galdu eban.

Nafarroak emendik aurrera, beren errien-arteko Nortasuna galdu eban eta menpeko maillara beratu zan. Bere mugi-aldiak, Errien-artean ixilleko eskubidean bakarrik egin leikezan lekura.

Nafarroa`ko erregetzaren edo erri-lez, ezin leike, beren jabetasuna legebidean ezarri....., bere Nortasunaren eskubideari egin eutsoen guzurraren bidez lapurketa aundi ori ?.

Dana dala, or doa gero ta berago Euskal ta Nafartar lez, leenengo Espaina`ko erregetzaren probintzi edo erri-alde lez, nai-ta euren legera guztiz lotuta egon gabe. Azken baten, geroago edo ariñago, euri guztiz menperatuta geratzeko bidean. Euskaldunen artean, ez badago Euskal-Nortasunarentzako berrezkuntzaren alegin bizkor ta eragille indartsu bat.

Bizitz oneitan, erreztasun aundiz galtzen dira Nortasunezko izaeraren egon-lekuak. Ordezkaritzaren arduradunak jaiotzen garan ezkerro, gure antolakuntzazko egipidetik geien.

Erri batek, sekula ez dau galtzen bere ABERRIA`ren NORTASUNA errurik-gabe.

1.522`an Uztailla`ren 19`an, Noain`etik 200 gudari Maia`ko Gaztelura joanda, artean Frantzisko Jabier`en anaiak zirala, ia urte betean eutsi eutsoen, baiña menperatu ebazan. Bertan dago oroitarri aundi bat, guk, euren eskeintza gogoan eukiteko.

1.524`an Otsailla`ren 29`an Ondarribi, ia iru urtean inguratuta egon da, Alba`ko dukeak menperatu eban.

1.525`eko Otsailla`ren 24`an, II`n Errike`k Frantzia`ko errege I Frantzisko`ri, Espaiña`ko I Karlos`en aurka, Pabia`ko gudan lagundu eutson. Biak baituta geratu ziran, I Frantzisko erregea, Bizkaia`ko gudaria zan Urbieta`tar Juan`en bidez oratuta eta bera gudaloztea azpiratuta geratu zanean. Andik urte bira (1.527) iges egin eban.

1.527`an Nafarroa`ko II`n Enrrike, Angulema`ko Margarita`gaz 1.527-1.549`ko urteetan erregiña izango zanagaz (Frantzia`ko I Frantzisko`ren arreba zana) ezkondu zan.

Nafarroa`ko Margarita onen agintzapean, Nafartarren erregetza erreformaren babes-leku ta kabi biurtu zan. Ugonote`en babesle izanez gain, Frantzez elerti-zale eta jakitun idazleen babesle be izan zan: Lefèbre d`Étaples biblia`ren jakituna, François Rabelais gizon isekari edo pikokari (satirico) idazlea eta Klément Marot olerkariena.

Angulema`ko Margarita`k, argi agertu eban Frantzia`ko birloraketaren (renacimiento) izaera edo astura: "Eleizaren berrikuntzak on-artu ebazanean, erlijioaren askatasunari baimena emon eutsonean, eta bai beren idaz-lanaren bidetik be".

1.528`an Zemendia`ren 16`an, Pabe`n euren alaba III`n Juana jaio zan.

Beren aurtzaro ta gaztetasunaren denborak, I Frantzisko Frantzia`ko erregearen gurasordetasunean, Alenzon`go jauretxean eta Plessis-les-tours`eko gazteluan iraun ebazan.

1.530`an II`n Enrike`k Be-Nafarroa berrezkuratu eban eta Donibane-Garazi`n, Donapalau ta Bastida`n ezarriko ebazan Nafarroa`ko korte edo Errege-Batzarrak, 1.789`an Frantzia`ko iraultzararte iraungo ebena. Urte oneitan Espaina`ko I Karlos`ek Auñamendiak, itzi ebazalako berezko muga baten antzera.

Eztaibada aundiko andregaiia izan zan, Frantzia`ko I Frantzisko eta Espaina`ko I Karlos`ek, Europa`ren nagusitasuna lortzeko euki eban borrokan, euren erregiña (ajedrez) izan zalako.

Leenengoak, Klebes`eko dukearekin ezkondu gura eban eta bigarrenak, beren seme II`n Felipe`rekin.

6.18. - INGLATERRA`ko ARAZOA; VIII ENRRIKE ta KALBINO:

1.534`an Ingalterra`ko VIII`n Enrike, Erroma`ko Eleizatik banatzen asi zan, III`n Paulo Aita-Santua`k bere emazte Aragoi`ko Katalina`gazko ezkontza, ez ebalako ezereztuten.

1.536`an Kalbino, berrikuntzaren (reforma) aldekoa zanak, Basilean babespetuta egonda, beren ospe aundiko liburua argitaratu eban: "Institutio Religionis Christianae" argitaldi ugarietan zabaldu zana.

1.538`an, Kalbino Jinebran, berrikuntza agintez eta aburu-lez onartuta egon zan lekuan egonda, erlijioaren arloan jasan-eziñezko yaurpide edo gobernu bat ezarri gura eban, erriko gizartea asarratu ebana.

1.540`an Kalbino, Estrasburgo`n egonda, De-Buro`ko Idelette`gaz ezkondu zan. Jinebra`ko erritarrak deituta, osteria itzuli zan eta Kardinalen-Batzarra (consistorio) sortu eban. Ondoren, Uria`ren jaurkintzagaz jabetu zan eta erruki-gabeko araupean oinperatu ebazan, kirkilleri (lujo) guztiak debekatzen ebazana. Barkagaitzeko lege orreitan, Jakituri aundiko gizonak jausi ziran eta orrein artean Serbet`tar Migel Aragoitarra, 1.553`an, sutan erreta il ebena.

1.540`an I Frantzisko`k, Juana, Klebes`eko dukearekin ezkonduko zala itz emon ondoren, beren gurasoen gana joaten itzi eutson.

II`n Enrike eta Margarita aita-amak, Espaina`ko II`n Felipe`gaz ezkontzea gura eben, eskontza orregaz Nafarroa, menpetasunetik atarateko alegiñean.

1.541`ean Juana 12 urte euki ebazala, bere aita-amen ta bere borondatearen aurka, Gillermo Klebes`eko dukearekin ezkondu zan.

1.545`an Urrilla`ren 12`an baiña, Aita-Santuaren laguntzagaz, lortu eben eskontza ori ezereztutea.

6.19. - ARAZO EZKONTZAKAZ, KONPONTZEKO ALEGIÑAK:

1.547`an Frantzia`ko I Frantzisko il zanean, beren ama-aitak II`n Felipe`gaz ezkontzeko egin ebezan diplomazizko alegin guztiak ez eben balio ezertarako-be Frantzisko`ren ondorengoa zan II`n Enrrike`k galazo egiten dautsolako Borbon`go Antonio`rekin ezkontzea.

1.548`an Espaina`ko I`goa eta Alemania`ko V`n Karlos`ek II`n Felipe beren semeari eskutitz baten bidez, au esaten eutson: "Erregin-gai ura, ganora ta trebetasun aundikoa, onbidetsu (virtuosa), zentzuzko eta ondo azikoa" dala.

1.548`an Urrilla`ren 20`an Nafarroa`ko III`n Juana, Borbon`go Antonio`rekin ezkontzen da. (Emen asten da Borboi`tarren errege leiñua).

I Karlos`eri eskontza orregaz, euki ebazan Nafar osoko jabetzaren asmoak, Frantzia`ko erregearen aurka ezarpen obiagoa eukiteko, ezereztu jakozan.

Ezkontza onen bitartez, Nafarroa`ren armarrarian sartuko ziran "Lis" loreak eta bide orretatik Frantzia eta Espaina`ko armarrira.

III Juana`ren gaztetasuna, beren zentzudunezko izaeraren guztiz aurkako izan zanaren gazte bategaz, derrigorrean ezkondu asten da.

1.549`an beren senarragaz batera, Bearn`eko euren jabetasunezko lurraldeak ikustera joan ziran eta euren azpiko edo esanekoakaitik pozez eta on-artuak izan ziran.

1.549`an II`n Errike`ren emaztea, Angulema`ko Margarita il zan.

1.551`n III`n Juana`k seme bat euki eban, baiña andik urte bira il zan.

1.553`an, Bigarrenez ernaritura, II`n Enrrike bere aitak umea eukiteko, Pabe`ra joateko esan eutson. Eta bertan jaio zan, gero, Nafarroa`ko III`n Enrrike eta Frantzia`ko IV`na izango zana. Bost seme/alaba euki ebazan eta danetatik Enrrike, Nafarroa`ko errege izatez gain Frantzia`ko errege izango zanak ta Katalina Lorena`ko dukesa`k bakarrik bizirik iraun eben.

6.20. - II ENRRIKE`ren ERIOTZA, III JUANA (ALBRIT) ERREGIÑA

1.555`an Loraila`ren 25`ean Nafarroa`ko II`n Enrrike il zan eta beren ondorengoa, bere alaba III`n Juana erregeiña izan zan.

Albrit`eko III`n Juana Nafarroa`ko erregeiña izateagaitik, Albret`eko dukerriagaz lotutako lurralde asko euki ebazan bere jaurtzapean eta beste aldetik Tartas eta Maremne`ko bizkonderria, Kasteljalous eta Aillas`eko bizkonderria, Kondomois`en Nerak eta beste lur batzuen tituludun izango zana. Bide ortatik Frantzia`ko erregearen feudopeko edo jaunpekoa izan zan.

III Juana`ren ardurapean, Nafarro-osoko erregeiñaren izena eukinez, Auñamendiren Iparraldeko Nafarroa`ren jabetasuna bakarrik artu eben: Zuberoa, Biarno, Bigorra, Albret, Foix, Armañak eta beste lurralde batzuk osotzen ebena.

Bere senarrak, II Enrrike Frantzia`ko erregearen aldeko politika egiten eban, Biarno`ko konderrria bere eskuetan itzi gura ebalako, erdi aldeko lurraldearen truke. Baiña bertan itzi bear ebazan asmo orreik, bere emazte Juana eta Biarno`tarrak aurka egin ebelako.

III`n Juana`k, Nafarroa`ko erregetzaren babesa ardura aundian eta gitxitan ikusten dan eten-bako indar-kementsuagaz, Espaina`ko II`n Felipe ta Frantzia`ko I Frantzisko erregeen aurka eta erlijiozko ikurriñagaz mozorrotuta ("fede-zaindi edo inkizizioa" eta "Jesu-Lagunak") etorten ziranai, aurre egin eutsen, Nafarroa euren artean geratzeko euki ebazan asmoak ezereztuteko.

1.559`an II`n Enrrike Frantzia`ko erregea S. Klement dominiko lekaideak il ebanean, katoliku ta Kalbin`dar berrikuntza-zaleen (reforma) artean, erlijioaren anaien arteko gudak biztu ta ugaritu ziran.

III`n Juana, esaten ebanez, adimen edo ulerpide aundikoa zan eta jakintzan oi-gabekoa (extraordinaria), izakeran sendoa, asmatzaille aundia eta atsegiñezko sendimendukoa.

1.560`an III`n Juana`k Kalbinismoa on-artu eban eta beren oroimenezko idazkietan esaten dau: "JAUNGOIKOA`k beren mesedean, odol-gurkeritik alderatu nau, eta oso pozik nago, bere Eleizan artu naualako".

Emen, garrantzi aundiko gauza-bat gogoan artu bear dogu: "Europa`ko edozein laterrizko erregeak Eskomikatu edo Eleizatik-kanporatu egiten ebezanean, erregetza ori Eleiz-debekuan geratuta, edozein printze edo errege katolikori zabaltzen eutsozela bideak, erregetza ori bere jabetzan geratzeko.

"Konturatzen gara orain..... Fernando katolikuaren jokoagaz ?".

Gaur, guzurrezko kasketa bardiñakaz dabiz !!.

1.561`ean Uztailla`ren 19`an III`n Juana`k agindu baten bidez Kalbinismoa gaiñeratu eban, beren agindupeko lurralde guztian.

1.562`an Zemendia`ren 10`an bere senar Borbon`tar Antonio Bendome`ko dukea, Ruan`en atzilotuta il eben eta batera erlijiozko gudak ugaritu ziran. Juana`k, artean nai-ta nai-ez nastuta geratu arren, ez eutson ukorik egin beren ardurazko erantzun-bearrari. Eta orretarako Bearn`en Berrikuntza ezartzeko, neurri batzuen aginduak aldarrikatu ebazan.

1.562`an Ingalaterra`ko I Isabel`ek Eleiza-katolikotik bananduta, aurkalaria edo Anglikano`en sinismeneko aitorkuntza`ren erligioa egin eban.

1.563`an, Kalbino`ren Kristau-ikasbidea Bearn`eraz idatzi zan.

1.563`an Otsailla`ren 16`an, katolikuak, Albret`eko Pedro Komminges`ko Gotzaiña eta Juana`ren osaba zirikituta egiten eben Juana damutu eta ostera katolikotasunera aldatu daiten. Berak baiña, Juana`ren arduraren sinismeneko sendotasuna jakinda zelakoa zan, Billaermosa`ko dukeari idatzi eutson eskutitz bat esaten: "Bere nagusiengandik asi ziralda Juana`ren buruan sartzen (Keiñadura ta guzti), katolikotasunera ostera itzuli bear zala. Bere erantzunak baiña, arrazoi aundiko eta gogorrezko erantzunak izan dirala".

Ekaiztuneko denbora baltzak ziran XIV, XV, XVI eta XVII`ko gizaldi orreik, danak, Eleizako gizonetatik asi-ta: "Errege eta errege-ordezkoaren artean; erregeen berezko seme ta sasiko-semeen artean eta emakumeen artean bardin; ondamu edo bekaizkeriak eraginda, on-gosetasunaren bidetik nagusitasunaren billa ibili ziralako". Eta euren garaipenak lortzeko, bardin ibiltzen ebezan izkututako pozoitasunak, katoliko eta ukalarien (protestentes) suak, lepoak moztutea, sarrasketak edo edozein maillako gudak.

III`n Juana goian ikusi dogun lez, ez zan edozein, jakintsu ta arrazoiaren arduradun-lez margotzen ebalako. Eta Berrikuntzaren-zale izateko, konturatu baiño bakarrik ez, beren ama Margaritagaz zer izan zan beren etxea.

6.21. - JUANA MAISU AUNDIAKAZ ALKARTUTA eta ERLEJIÑO-ASKATASUNAREN ALDE:

Maixu aundiakaz inguratuta egon zan: "Del Korro`tar Antonio, beren semearen Gaztelerazko maixua zanagandik asi-ta eta berak mesedetu egin ebazanak.

III`n Juana`k Euskaldun erritarrai Kalbinismo`aren siñisbidea erakutsi gurean eta Euskerea indartzeko, "Testamentu Barria" (Vulgata: versión latina de la Biblia autenticamente recibida de la iglesia) Kalbino`ren idaz-lan batzukaz batera Euskeratzea asmatzen dau.

1.564`an Leizarraga`tar Joanes lekaidea eta beren lanak ikertu bear ebezana deituta, itzulpen orreik egitea agindu eutson. Onek, itzulpenak egin eta gero Paris`eko Rotxelan argitaratu ebazan.

1.566`an, Rotes`en ukalarien jakitun-batzarrea sortu zan.

1.566`an be, Eleizarako era-bide edo arau barriaren idazketak egin ziran.

1.567`an Juana`k Kalbinismo`a berezko erlijio edo ofiziala izendatu eban, V`n Pio Aita-Santauaren meatxuari bildurrik-gabe, bere menpeko lurraldeetan. Eta erlijioaren odol-jariozko gudan, alde-batetik ez ebalako beste biderik euki eta bestetik beren borondatea alakoa izan zalako, erkide edo bete-betean, arazo orreitan guztiz arduratuta ibili zan.

1.567`an, katolikoaren artean egin eben sarraskiak, erlijioaren arteko bigarren gudari asiera emon eutson.

1.568`an Juana`k, Arnaud de Salette`eri agintzen dautso, Bearn`erara itzuli dagiala "Psautier de Marot".

1.568`an Juana`k, ukalarien mogimendua bere aginpean ipini ondoren, bere semeari agintzen dautso, Rotxelle`ko gazteluan esku-artu dagiala.

Juana`k, euren Rotxelle`ko (baluarte) babes-tokiaren eginkizun guztiak goitik-beera, guda-gaiak izan ezik, jaurtzen ebazan.

1.568`an Frantzia`ko IX`n Karlos`ek, Juana`k Bearn`en euki ebazan laterri guztien baitua edo legez-kentzea agindu eban. Eta Katolikuak, Terride`k bideratuta, eskumena (poder) artu eben, beste lekuetan erregearen gudalozteak bardin eginda.

1.568`an Epaila`ren 23`an, Lonjumeau`ko bakeak, erlijiozko gudari amaiera emon eutson.

1.568`an, gitxi iraungo eban bake ori, Irailla`n barrero asiko zalako erlijioaren arteko irugarren guda.

1.569`an Epaila`ren 12`an Jarnak`eko eraso-aldian, Kondè ukalarien agintari nagusia il-zan. Eta Juana`ren semea III`n Enrike izango zana,

politikako arloan nagusi izendatuta, Kolygni gudaloztearen nagusi izendatu eben.

1.569`ko Epaillea`n Juana`k, Kondè`en ilketaren ostetik, beste errien artean euren kide izan ziran printzearen agiri ta alkar-izketak bere kontrolpean artzen dauz, eginda dagozan alkarteak babesteko.

1.569`ko Dagonilla`n Juana`k berriz berrezkuratzen dau beren jabetza, Montmorenzy`tar Frantzisko dukearen gudalozteak, bera laguntzera etorri ziralako.

1.570`an, katolikuari eskubide guztiak kendu eutsezan: Eleizkizunak debekatu, eta eleiz-gizonak erbesteratu.

1.570`eko Dagonilla`ren 8`an, Ugonote`en erkidetza, katolikotar usmoaren (previsiones) aurka, Nai-ta Monkontour`eko eraso-aldia galduta, gogor jarraitzen eben eta beren kidearen borondateagaitk aleginduta, Laye`n Saint-Jermain`eko bakea sinatu zan.

1.571`n Juana, beren jabetasunezko lurraldeetara itzuli zan eta Saint-Jermain`eko bakeari ezin ziralako antolak-egin, beren jazarraldiak agirian aitortu eben, bakearen baldintzak txarto ezartzen ziralako.

1.571`an III`n Juana`k, erritarrai Kalbinismoaren siñisbidea ezarri eutsoen.

Jakin bear dogu, Juana ukalari edo protestante sutsua izan bazan be, bera izan zala erlijioaren askatasuna geien babestu ebana.

III`n Juana izan zan errudun bakarra ta nagusiena..... Nafarroa galbidean ezartzeko eta erlijiozko gudatan egin ziran sarraskiak ?

Kontuan euki, lapur eta guzurrezko denborak ziralako areik. Eta bere baitan, ez zala egon guzurrik ez lapurretan egiteko aukerarik !!

6.22. - LEIZARRAGA`tar JOANNES:

LEIZARRAGA`tar JOANNES`ek, leku berezi ta omengarri bat bear dau idaz-lan onetan, Euskalerrarentzako, Leizaola`tar J.M.`ak idazten dauan lez beren "Euskalerriko Ukalarien Edestian" 175`eko orrialdean: "Euskerarentzako Leizarraga, "Ingles`entzako Shakespeare, Latin`entzako S. Jeronimo eta Aleman`entzako Lutero bezela" izan zalako.

Leizarraga`tar Joannes Laburdi`ko Beraskoitze`n 1.506`garren urtean gitxi gora-beran jaio zan.

Leizarra`gak Euskera bere izkuntzaren gaiñ, frantzesara, gaztelera, latiña eta griegoa ondo ezagutzen ebazan. Eta izkel-jakintza (linguistika,

filologia) onetatik goratuko da beren izena, Euskereak eta Euskaldunak ordaindu ezinezko esker-zor aundian geratuta beragaz.

1.559`ko Bazko`an, Joannes, Albret`eko III`n Juana`k katolikutarren sinismena bastartu eta Kalbino`rena besarkatu ebanean, baliteke apaiza izatea eta bera be kalbinismora aldatuta egotea. Jazarpenak eta atxiloketak ekarriko eutsoezan.

1.564`an Pabe`n Kalbindarren Eleiz-Batzarra egin zan eta artu ziran erabagien artean, bat Euskalerriko lurraldeetan Kalbinismoa ezartzea zan eta bestea Idazti-Deuna, Kristo`ren irakastaldi batzuekaz, Euskerara itzultzea. Juana`k, orduan eskatu eutson Leizarraga`tar Joannes`eri Idazti-Deuna (Biblia) Euskaratzeko, lanaren zuzenketarako lau Irakasle-Nagusien begiraldian.

1.565`eko Loraila`n, lana ia amaituta egon zan eta ikustaldi edo bir-azterketak asi ziran.

Lau kalbin`dar maisuaren eritzia: "Itzulpena ona zala izan zan. Ibili eban Euskerea baiña, ez zala Euskalerrri osoarena. Mokokaldi edo eztaibada ori, Euskerazko izkuntzalarrien artean argituta". Emen lenengoz "Euskalherri ta Heuscalduney "ren itzak agertzen dira. Espainol`ak gaurko itzak dirala esan dagien.

Idazti-Deuna`ren itzulpena egiteko, Rotterdan`eko Erasmok grekoz atondutako Testamentu-Barriaren idazteun`etik eginda dago. Lutero`k ibili ebana alemaneraz itzultzeko.

Leizarraga`k, Testamentu-Barriagaitik euki eban gorengo gogaia JAINKOA`ren BERBEA bezala, beren itzulpenean agertzen da, greko`eraz, sortzeko idaztia ber-bera itzuli ebalako.

Gure laterri-arteko Euskerazko izkuntza, danok dakigu ezberdiña dala, orregaitik gogoratzen dira Leizarraga`ren idaz-lanak, Euskera batuaren leenengo gramatikazko oiñarriak-lez.

Lenengo idaz-lanaren idazpurua: "Iesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria" da. Liburu-aurrean Nafarroa`ko erregiñen armarrria margoztuta daukala, idazkun onegaz: "Haur da ene seme maitea, zeinetan nuere atsegin ona baitut, huni beha zakiskiot". Eta barruan, erregiñari egiten dautson eskeintzan: "Guzizko Andre Noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguiña Bearnoco Andre gehien Ec, denari, bere zerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac".

Liburua, zeaztasun aundian eginda dago, ezer atzean itzi barik.

Bigarren idaz-lan idazpuruan: "Abc edo Christianoen Instructionea". Eta idaz-lan onen mamia, afaltzen datozeanai egin bear jakiezan itaunak

ekarten dauz, bai zerrenda bat Kristauak jakin bear dabezan gauza garrantzitzuenakaz.

Irugarren idaz-lan idazpuruan: "Kalendrera", Bazkoa noz dan jakiteko, Iretargi barriaren gora-beran.

Idaz lan oneik: Laburditarren izkuntzan geien, Nafarroa`ko Euskeran eta Suletarren izkuntzan idatzita dagoz. Gaur egun be, Euskerazko idazlearen eredu da.

1.567`tik 1.601`an il zan arte, Labastide-Cleirence Parrokian iraun eban.

1.572`an Bagilla`ren 9`an, III`n Juana, beren seme III`n Enrike izango zana, Paris`eko gortetik urruntzen saiatu zan eta alperrik edo beste aukerarik ez zalako egon, Frantzia`ko errege IX`n Karlos`en arreba Balois`eko Margaritagaz (Katalina de Mediziz`en irugarren alaba izan zana) eskontzaren itzagaz lotuta geratu ziran, Margarita`k katolikotasunean irauteko baldintzagaz.

1.572`an Bagilla`ren 9`an Juana, Paris`en bere semearen eskontza antolatzen egoala, bapateko gaitzepel (tisis-galopante) edo bularreko gaixoagaz il zala esaten eben, baiña Katalina de Medizis, Frantzia`ko IX`n Karlos`en amak aginduta pozoituta il zan.

1.572`an Dagonilla`ren 18`an III`n Enrike eta Balois`eko Margarita eskondu ziran

1.572`an Dagonilla`ren 22`an, katolikoak, Koligny amirala (almirante) iltzeko saioan porrot eginda ondoren, oneik, baimena lortu eben IX`n Karlos`egandik ilketak egiteko.

1.572`an Dagonilla`ren 23-24`ko gauan Paris`en, Frantzia eta Nafarroa`ko lurralde guztian Urrilla`rarte iraun ebana, Katalina de Medizis zirikatzaile eta Gisa`ko dukea antolatzaille zala, katolikoan ertzerarteko alderdikideak eraginda, ukalarien edo Ugonotearen (protestantes) aurkako sarraskia asi zan, egun batzuk barruan ikaragarritzko triskantzak egin da (Paris`en 3.000`tik gora il ebazan eta laterriaren lurraldeetan ?). Eta Nafarroa`ko III`n Enrike, beren emazteari esker, ule bategaitik ez eben eldu, beren billa be joan zirelako.

Frantzia`ren Laterrietako lurraldeetan, ukalariak alkartu egin ziran Kalbino`ren batasunean, IX`n Karlos erregearen zintzotasunetik edo leialtasunetik kanpo geratzen zirala. Ekintza orrek, Laugarren erlijiozko gudari asiera emon eutson.

6.23. - III ENRRIKE:

1.572`an III`n Enrrike, Borbon`tar Antonio Bendome`ko dukearen eta Albret`eko III`n Juana`ren semea, Nafarroa`ko errege egin eben.

1.576`an Otsaila`ren 5`an Enrrike`k bere bizitza galbidetik alderatzeko, agintari danez edo ofizialki katolikotasunera aldatu bear eban bere sinismena. Arik-eta urte orren amaieran gortetik iges egitea lortu arte, bere Kalbinistaren sinismenagaz ukalarien gudalozteak bideratzeko.

1.584`an III`n Enrrike Frantzia`ko erregearen anaia Frantzisko, Alenzon`go dukea il zanean, III`n Enrrike Nafarroa`ko erregea lenengo geratu zan Frantzia`ko erregeen ondorengo zerrendan.

1.585`an Nafarroa`ko III`n Enrrike konturatu zan, katolikotasunen alkargoak aurka egiten eutsielako, Frantzia`ko jabetasuna guda-bidez artu bear ebala, eta iru Enrrike`ren guda asi zan: Frantzia`ko errege Balois`eko III`n Enrrike; Lorena`ko Enrrike Giza`ko dukea, Aita-Santua ta II`n Felipe`gaz alkartuta egon zana; Eta Nafarroa`ko III`n Enrrike.

1.587`an Koutras`en, lenengo eraso-aldian (batalla) garaipena lortu eban.

1.587`an Nafarroa`ko III`n Enrrike`k, bere emazte Margarita (Margot) lasaikerizko maitakeri ugarietan ibili zalako, Ussongo gazteluan atxilotu eben eta biziera edo jokabide ori neurri aundian gaitz-eragille edo galbidetsua (escandaloso) izan zalako, maitale guztien izenak esanazo ondoren bertan giltzapean itzi eben. Baiña baitegi-zaiñagaz maite-minduta, ez eben egin espetxeko bizitzarik.

1.589`an Jorrailla`ren 30`an Nafarroa`ko III`n Enrrike adiskidetu egiten da Frantzia`ko III`n Enrrike`gaz eta onek beren ondorengo izatea on-artzen dau.

1.589`an Dagonilla`ren 2`an Frantzia`ko errege III`n Enrrike, Jakobo lekaideak il ebenean, Frantzia`ko erregetza, Nafarroa`ko III`n Enrrike`ren eskuetan, eraz jausi zan. Errege-lez baiña, Ugonoteak bakarrik on-artua izan zan. V`n Sixto Aita-Santua`k eta Espaiña`ko errege II`n Felipe`k, katolikotasunaren alkargoa bideratzen ebenak, ukalaria izatea gaitik ez ebelako on artzen. Oneik, Borbon`tar Karlos Kardinala aurreratu eben Frantzia`ko errege izan daiten.

1.589`an III`n Enrrike`k Arkes`en, alkargo katolikuari, bigarren eraso aldia irabazi eutsoen.

1.590`an III`n Enrrike`k, katolikotasunaren alkarteari Ibry`n, irugarren eraso-aldia irabazi eutson. A-ta guzti baiña, ez eban Paris`en

sartzerik lortu, aurrean, Espaiña`ko II`n Felipe`ren gudaloztea Farnesio`tar Alejandro`k bideratuta euki ebalako.

Espaina`ko II`n Felipe Frantzia`ko zeregiñetan sartuta, III`n Enrike`ri mesede aundia egin eutson gura izan barik, bere alaba Isabel-Klara-Eujenia gura ebalako Frantzia`ko aulkian ezarri daiten. Onek baiña, katolikotasunaren alkargoa banandu eban eta ortik agertu jakon Enrike`ri paregabeko aukera Frantzia`ko erregetzaz jabetzeko.

1.593`an Uztailla`ren 25`an baiña, paregabeko aukera ori, baldintza bategaz agertu jakon, Kalbino`ren ukalaritzatik alde edo ukatu daiela eta katolikotasuna besarkatu. Une oneri leporatzen dautsoe esaera ospetsu au: "PARIS`ek MEZA BAT ONDO MEREZI DAU" (PARIS BIEN VALE UNA MISA). Nai-ta III`n Enrike`ren agotik, esaera au sekula urten ez, bera ilda gero agertu zalako argitaratutako antzerki (obra de teatro) baten.

1.594`an Otsailla`ren 27`an Frantzia`ko errege koroatu eben IV`n Enrike izenagaz, Paris`en sartuta.

1.598`ko urterarte borrokan irauñ bear eban baiña, katolikotasunaren alkarteko asken bakarrezko taldeak eta espainolen erasoak baztartzeko.

1.598`an Loraila`ren 2`an, Espaina`ko II`n Felipe`k ukatu eban Frantzia`ko zeregiñetan sartzea eta Berbis`en (Reins`etik 70 kilometrora dauana) bakezko egiunea (tratado) ziñatu ondoren, ontzat artu eban Enrike`ren erregetza, borrokak amaituta.

1.598`an Jorrailla`ren 13`an Nafarroa`ko III`n eta Frantzia`ko IV`n Enrike`k, Nantes`eko agindua argitaratu eban bidetik, nai Frantzia`ko laterrian katolikotasuna erlijio-lez izendatu, erlijioaren askatasuna emon eban eta Frantzia`ko lurralde guztien gizartea lege bardiñakaz ezarri eban, ordaiñezko (desquite) ta garbi-aldien (depuraciones) debekuan oiñarrituta.

6.24. - IV`n ENRIKE:

IV`n Enrike`k, Nantes`eko agindu onen bidetik, Frantzia`n, lenengo laterrien alkartasuna (federaciòn de estados) sortu eban, beren gogamenaren alegiñean (Rusia izan ezik, bere osotasunean arazo asko euki ebalako) Europa`ko laterrien alkartasunera begira egon zalako.

1.598`tik aurrera eta bere erregetzaren sendotasuna lortzeko: "Bere ondoan ez eben onartu iñungo leen-serbitzari (primer-ministro); Itzi eutson laterri guztien batzar nagusiarri deitzea; Lege-Biltzarraren bitarteko indarra mugatu eban; Gorte eta diru-eragiñen lan lekuak, bere

kontrol edo ardurapean artu ebazan; Eta andikien jazarraldi aundian, baserritarrai atzera emon eutsezan, oneik kendutako lurrak". On-egikera guzti orreik, bera eta beren erregetzari, ospe aundia emon eutsoen.

Egikera onen ondorioa baiña, Nafarroa`ren askatasunezko legearen aurkakoak diranak, erdira-nai`en (centralismo) zaletasunezko ateak zabal-zabalik izten dauz, gero beren seme XIII`n Luis`ek "BIANA`ko PRINTZE" izatea, bear bearrezkoa zana Nafar-erregeak aginbidean ezartzeko, utsean-euki edo arbuiatu (despreciar, o, menospreciar) dagian.

Pierre Dugua, Sieur de Monts eta Samuel de Txanplain`en Amerika`ko Iparraldera gud-aldiak edo joan-aldirako diruak berak ordaindu ebazan eta Kanada`n, bere erregetzan ezarri ziran leenengo ures-andiko Frantzes-koloniak.

IV`n Enrike`gaz Frantzia`k, ekonomiaren buruzpidean aurrekuntza aundia artu eben, beren mugaldeenetik urrun eragipen aundia euki ebana.

1.600`an III`n Enrike`k lortu eban ezkontza-banatzea Margarita`k ondorengorik ez eutsolako emoten.

1.600`an Abendua`ren 17`an, bigarrenenez, Medizis`eko Maria`rekin ezkontzen da eta sei seme/alaba euki ebazan beragaz.

1.605`ean III`n Enrike`k, Margarita aske itzi eban eta Paris`en bizi zan 1.615`ean il zan arte.

1.607`an Frantzia eta Iparaldeko Nafarroa alkartu ziran, nai-ta urrenge erregeak izen biak bananduta aurrera eroan 1.789`ko iraulketararte.

1.610`ean Loraila`ren 14`an Nafarroa`ko III`na eta Frantzia`ko IV`n Enrike Paris`eko kaleetan Fransois Rabailak`ek il eban.

Rabailak apaiz-gizon au, katolikotasunaren alderdikide itsua zan, II`n Felipe ta Aita-Santu`en serbitzura egon zana, eta bera be zatikatuta il eben Loraila`ren 27`an.

Nafarroa`ko III`na eta Frantzia`ko IV`n Enrike`k ez eban merezi alako eriotzarik, Europa guztia ederretsian euki ebalako.

1.620`an XIII`n Borbon`tar Luis`ek, ez eban gura berak Bianako printzearen izena aurrera eroan eta yaregin (renunciar) eban, 1.423`an Urtarrilla`ren 20`an III`n Karlos "biotz-andikoa" (noble) deritxonari ezarri eban izen-buru (Biana`ko Printzea) ori, bear bearrezkoa zana Nafarroa`ko erregearen izena aurrera eroateko.

Dana dala, azkenean, 1.513`an II`n Fernando guzur utsez eta Aita-Santuaren laguntzagaz nor geien dala egin eben antzera.

1.620`an XIII`n Luis`ek bardin antzeko bat egin eban. Erregearen eta eleiztarren arrazoizko-gogamenean egin-bide edo egipideak geiegizko

lizun-zalekerian (obscenidad lujuriosa) egin ebazalako, Nafarroa`ko erriaren gizartea errurik gabe bananduta geratu zan.

Nafarroa`k, Euskal Nortasun aundia dauka oraindiño eta "EUSKALDUN GUZTIAK ALEGINDU BEAR GARA EUSKALERRIA`ren IZEN ta IZAERA BERRESKURATZEN, EUROPA`n BERA DALAKO DEMOKRAZIA`ren OIÑARRIA" eta "JAINKOA`ren AGINDUZ, GURE ARDURAZKO ZERGAITIK - IZATEA"

7. - ONDORIOA

7.1. - SARRERA:

Gagozan pare-gabeko antzerki onetan zelan azalkatu oial baten margoztuta, gizaren izatasunezko erabilitasuna arduraren arloan, beren egikunderako ?.

Antzerkia, beti izango da bardiña eta gizatasunaren-sorpna be-bai.

Leenengoa: JAINKOA`k emonda, beren berezizko bizia dauka, mozkin-biziak, era-fisiko ezberdiñetan emoten dauskuzana eten-bako berrikuntza baten, gure bizitzak elikatuz iraun dagien.

Bigarrenak: JAINKOA`ren legeakaz beartuta, antzerki onen mai-zabal ontan, agertzen diran mozkin orrein antolamenduzko egipidea, orekan banandu daiten. Eta jaioten diran emakume/gizon guztiak, aukera bardiñak euki dagiezan, euren ardurazko antolamenduaren egipidean, egin dagien antzerki onen legeak eskatzen dauskuzan lez beteteko.

Mundu oneitan dana sortzeko antolatuta dagoen lez, biak dira abertzale edo errikoiak, senditasunean daukielako garatzeko (brotar-florece) aukera ta azturaren sendotasuna.

Izadi onetan edo oneri, osotzen dautson guztia biziaren-arnasan oiñarrituta dagoelako, oso edo guztiz sendikorra da eta orregaitik, berak eskatzen dauan sendikortasunezko neurri bardiñean gure egin-bideak.

Gure egipideak alan bete ezkeru, beti beteko doguz, danoen arimak sendimentu bardiñean eta irrikaz eskatzen dauskuzan ekanduzko orekak lortzea.

7.2. - ETORKIZUNA:

Mundu onen izatasuna edestiko etorkizunean, argi erakutsi eta agertzen dauskuna: "Gure ardurazko zeregiñetan, berezko legearen aurka,

larderialdiko (impositivas) legeakaz edo sasi-arrazoiakaz ezartzen ba-dira gure legegintzak, aurkako igurtzi-aldi orrein bidez, fisiko maillan sortzen dan estanda, gizarteko aberkide edo senditasuna errotik atarata, erbestutako milla zatitan agertzen garala eta gaiaren arloan, dana itxuragabeen". (Gaur alan dago).

Presokratikoak argi erakutsi euskun, euren eraman-onaren (filosofia) ikas-bidean garaipen aundia lortuta, egiaren arrazoizko galderak biribildu egin ebezanean.

Arrazoizko oial orretan margotzen ibili ziranean, an agertu jakiezelako akatzak, norkerizko eta okerrezko ixaxtadak (pinceladas) emoten ebazanean, egiten eben guztia, irudimenean euki eben leen irudia, itxuragabeen agertzen zala, argi ikusita.

Edestian zear antolamenduzko ekintzan, Erromatarrak, berezko legetik kanpo, asmatutako sasi-legediaren ezarpenean sortu ebezan autsakaz, gaur, lege orreik gure artean oraindiño daukaguzelako, lokatz oneitan sartuta gagoz.

Orren aritik, daukaguzan Laterriak gure ardurakaz jabetuta, ardura orreik betetea gura dabe zigorraren keiñu edo meatxuakaz.

Zezer !! ez dago oker or....., danok arduradunak jaioten ba-gara ?.

7.3. - EUSKALERRIA:

Euskalerrian eta beren bizi-luzearen bitartez, ondoen ikertu leikezan lekua da, adoi-gabe edo zentzungabeko egipide orreik.

Egipideen (gestiòn) uts orreik edesti guztian, ez Euskaldunak egin doguzelako, arrotzak egin dabezan gordinkerizko itsuskeriak (lascivias) guk eraman bear izan doguzelako.

Esan orreik... ez dira izango arrokerizko andikerian edo abendakerian esaneko berbak ?.

EZ !! Mundu oneitan Euskaldunak daukagun bizi-luzearen bidetik JAINKOA`ri begira eta lur oneitan BERE`n legeak zentzunez ulertzen, ondo baiño obeto ikasi gendulako, demokrazizko-askatasunak zeintzuk diran, bizi onetan danok bakoitzaren ardurazko egipideak zentzu aundian beteta JAINKOA`ren aurrean garbi agertu gaitzan.

Gogamen ori azaltzeko, lenengo, Euskal-izkuntza itzez mugatuko dogu, gero, gure Euskal-Nafar-Edestiaren ondorioan ikusi daigun, zergaitik galdu gendun gure demokrazizko-askatasunaren jabetza.

7.4. - EUSKALDUNEN IZKUNTZA:

Euskal-Kromañon deritxon denbora baiño ariñagotik eta artu-emonen uler-egarrizko arloan kokatzeko, asi giñan Euskaldunak Euskerearen gorputza sendotzen.

Euskaldunak sortu gendun izkuntza, ez zan gauzai emoten jakiezan izenak jakiteko bakarrik, izen orreik ekanduzko-oituran edo aztura-bideko jakiñean mugatuta ezartzen ziralako be, lan ziran.

Itz orreik, JAINKOA`ren lotsean eta gauzen onuran edo gaizpidean ezagutzeko, euren arteko lotsagizun aundian eginda dagoz. Eskatu leike maitasun aundiagorik ?.

Berak !! (Euskereak), emon euskun daukagun Nortasunezko izena, eta bere egikeraren izaeran artu genduzan demokraziaren askatasunezko sendimenduak, gure izaeraren barnean oiñarrituta geratu ziran betiko.

Ez da ori jatorrizko edo egiazko izatea ?.

Or !! Non agertzen dan argibidea: "Ez diranak edo nortasungabekoak diranak, zergaitik besteak menperatu gure dabezan, nortasunean beste erdi-purdiko sasi-gauza batzuk izateko alegiñean ?".

Sasi-jainkokerizko norneri orren bidez, erri-gizartearen NORTASUNEAN, ARDURA-AUNDIAN EUKI BEAR DIRAN ESKUBIDEAK, edesti guztian laidotuta (maltraer) etorri dira, ikaragarritzko sarraski eta odolezko erailketa baten.

JANGOIKOA`k, baleikete Euskaldunai laguntzea gaur-bizirik agertu daiten, Mundu onen gizarte-maltzurari erakusteko: "Jaiotasunaren Nortasunean dagoela bizitza onen arrazoa".

Euskaldunak, orregaitik babestu egiten dogu Euskerea edesti guztian iñungo mugarik-gabe, bere izaera-ederrenean GURE-NORTASUNA DAUALAKO.

7.5. - EUSKAL-NAFAR-ERREGEZKO EDESTIAREN ONDORIOA:

Kontu aundian euki bear dogu: Godoa`k, Erromatar menpekotasunaren eredua artuta, bai katolikotasunaren ardurapean "Erromatarren kaizartza ezarri zalako," eta sasi-jainkotasunaren amets`kerian danon batzangotasuna lortu gurean ibili diralako beti. Nafarroa`ko gorteetan zekula ez zala Euskeraz idatzi ezer, Latiña jakintzaren-gaillua egin ebelako eta guzurrezko ta amarrukerizko bidetik Gaztelar sasi-

izkuntzari, berezko izkuntzari baiño garrantzi aundiagoak emon, berezkotasunezkoak ezereztu daitezcan.

Euskaldunak, Mauritarrek sartu ziranetik, aukera aundiak euki genduzan gure lurra, izkuntza, Nortasuna eta gure jabetzaren babeserako antolamenduak egiteko, eta alan egin genduzan. Baiña sekula ez gendun urten ezin "Erromatar kaizargotzaren ta Latiñezko sare-arteko txeberatik". Gaur be, orreitan gagoz.

Nafarroa`ko erregeak, beti izan ziran gure Euskal izaeraren legezko oituran jardunezko-bidearen zaintzale sinisgarriak eta zintzoak.

Edestilari batzuk esaten dabe: "Euskal erregetza 1.234`an VII Santxo Santxez Indartsua edo Azkarragaz amaitzen dala".

Ez da egia ori baiña. Nai-ta sei errege leiñu arrotz geiago Nafarroa`ko koroatik aldatu, danak Euskal errege-leiñuen aritik joan ziralako Nafarlegeak ondo zainduta. Arrotzezko ezkon-laguna errege edo erregiña izan arren, danak joan bear ziralako Nafartarren lege-bideak zeintzuk ziran ondo jakinda.

1.076-1.134`ko urte bitartean, Aragoi`ko iru errege euki genduzan. Arrotzak izan ziran?. Danak Naparrak eta sendi batekoak izan ziran.

V Santxo Ramirez 1.076-1.094`ko urte bitartean; I Santxez`tar Pedro "Borrokalaria" 1.094-1.104`ko urte bitartean; Eta, I Santxez`tar Alfonso "Gudalaria" 1.104-1.134`ko urteetan.

1.076`an IV Santxo Garzez "Peñalengoa", Ramon eta Ermesenda beren anai-arrebak trokatik bota eta il ebenean, Nafartarrak ez eben gura Ramon bere anaia errege lez aukeratu, egin ebenagaitik odolezko-eriotzara meatxatuta euki ebalako. Eta askenean, IV Santxo Garzez`en lengusua, I Santxo Ramirez Aragoi`ko erregea aukeratu eben, gero Nafarroa`ko V`na izango zana 1.094`ko urte bitarteetan.

1.094-1.104`ko urte bitartean V Santxo Ramirez`en semea I Santxez`tar Pedro "Borrokalaria" Sobrarbe ta Ribagorza`ko errege zana aukeratu eben, gero Sobrarbe, Ribagorza, Aragoi ta Nafarroa`ko errege izango zana.

Eta 1.104-1.134`ko urte bitartean, I Santxez`tar Alfonso "Gudalaria", V Santxo Ramirez`en semea zana izendatu eben errege.

Onen erregetzan egin zan guztia, etenbako ospagarri-bat izan zan, bere etorkizunaren ondorengoak, belaun-aldiz belaun-aldiko gudu-eresietan abestuteko modukoak.

Kristau, Mauritarrekaz eta Akitania`ko dukeaz be bai, etenbako borrokan ibili zan.

Gaztela`ko VI Alfonso erregearen alaba Urraka`gaz ezkondu zanean, len onek indarkeriz artutako latorria oster berrezkuratu eban.

1.110`an Baltierra berrezkuratu eban; 1.114`an Rotron bere kapitaiña`k, Pertxe`ko kondea izan zana, Muskaria (Tudela) artu eban; 1.118`an Salduba (Zaragoza) eraso gogor baten artu eban; 1.130`ean Baiona irabazi eban. Ekintza onegaz, Akitania`ko dukearen asmoak geratu ebazan, onek Auñamendi osteko lurralde guztiak berentzat gura ebazalako.

A-ta guzti, bera, Gurutzearen gudalaria izan zan eta beren azken naian, erregetza Tenple`ko zaldunai itxi eutsen.

Jazarraldi aundiak egon ziran, eta Iruña`ko Batzarrak VI Garzia Ramirez, Monzon ta Logroño`ko jauna, berritzaillearen izenagaz ezagun izango zana, errege izendatu eban.

Nafarroa`ko V Garzia Ramirez "Berritzaillea", eta VI Monzon ta Logroño`ko jauna (1.134-1.150`an Lizarra eta Gares`en arteko Lorka`ko erritxoan ilda), Garzez`tar Ramiro Kalaorra`ko jaunaren biloba eta beren seme Ramiro Ramirez, Diaz de Bibar`tar Kristina`gaz (Elbira ?) ezkondu ("Zid Kanpeador"en alaba) egon zanaren semea zan.

Nafartarrak, Garzez`tar Ramiro Kalaorra`ko jaun au, Santxo Peñalen`goa il zanean, errege izendatu gura eban.

V Garzia Ramirez, l`Aigle`tar Margarita, Rotron kondearen loba zanagaz ezkondu egon zan. Eta naastugabeko Euskaldunai beren maitasuna erakusteko, koroari: "Auñamendi guztiko errege"en izen ospegarriagaz erantsi eutsen. Ekintza orregaz: Araba, Gipuzkoa ta Bizkaia, Aragoi`tarren babesa alboratuta, beragaz batera joan ziran.

1.134`an Oliba`ko Lekaidetxea eraiki eban.

Au be, etenbako borrokan ibili zan. Nafarroa Aragoitik banandu eta Mauritarrai Baezan irabazi eutsen.

VII Alfonso Gaztela`ko erregeak, truke egin gura eutsen, Salduba eta bere ingurua, Logroño ta bere inguruagaitik. Gaztela`r zaltzailleak baiña, errioxa bere eskuetan geratu eban eta Aragoi`ko lurraldea Ramiro lekaideari emon eutsen.

Gaztela`r eta Aragoi`tarrak, Nafarroa euren artean erdi-banatu gura eban.

Denbora orreitan, esan leike: "Batak etxetik kanpora urtetan ebanean, bestea prest egoala etxe ortara sartzeko.

(1.150-1.194) VI Santxo Garzez "jakintsuak" gazte igon eban erregetzara eta gazte ikasi bear eban Gaztelar eta Aragoi`tarren maltzurrezko guzurren artetik iges egiten.

Euskal-Nortasunezko oso-osea izan zalako eta Euskerea miresle (admirador) aundian euki ebalako, izkuntzaren arteko leenengo maillan ezarri eban "LINGUA NABARRORUN" izendatuta.

1.180`ko urte inguruan, Donostia jendezkatu edo bir-erritu eban Iaka`ko (Jaka) fueroak emonda eta ongarriko lege-arauak erantsita.

1.181`ean, Gazteiz deritson inguruan Bitoria`ko Uria eraiki eban, Logroño`ren eratorriko fuero ekartsuak emonda.

1.234`an beren seme VII Santxo Santzez "Indartsuagaz" Añamendia`ren berezko Nafartarren erregetza amaitzen dala esaten dabe edestilariak.

Ori....., egia da baiña ?.

Ez dot usten.

Akitania Euskalduna izan zalako eta Txanpaña`ko errege-leiñua be-bai.

Brie ta Txanpaña`ko IV`go kondea eta Nafarroa`ko I Teobaldo "bertsolaria" VII Satxo "Indartsu edo Azkarra`ren" illoba zan, eta Franko`en gorteari begira, erdirazale gogamengoak izan ba-ziran-be, lotsa aundian euki ebezan Nafar-erregetzaren zeregiñak.

Naaste aundiko denborak ziran oneik, Nafar-erriari leku guztietatik tiraka ibili ziralako (Gaztelar eta Aragoitarrak alde batetik. Bestetik, Frantzesak eta Gurutzearen gudak) asko eramian bear izan eben eta apurka apurka gero-ta oiñaze, neke, egoarri ta mingarrizko bidean sartuta, azkenean ondorio guzti orrein bidetik, beldurraren izaera bateko menpean geratuko da, gero ikusiko dogun-lez.

Ebreux`tarren errege leiñua, II`n Karlos "TXAR" deritxon erregeagaz asten da.

Erabagi aundi ta gogorrek artu bear ebazan errege onek len ikusi dogun lez eta Franko`en edestilariak, bere eriotzearen ostetik izen gaizto ori ipini ba-eutsen be, Nafartarrak maitetasun aundian euki eben, bai erritarrak eta bai beren inguruko aundikiak zintzotasun aundian, nai-ta biurkerizko gauzak egiteko izan.

II`n Karlos "Txarra" deritxon au: "Izakera gogorrekoa; Zori-zale; Odol-bizikoa eta Mendekaria" zala esaten eban. Kontuan euki baiña, zelakoak izan ziran Gaztela`ko I Pedro "Odol-zalea" eta Aragoi`tar IV`n Pedro "zeremoni-zalea" k. Nai-ta nai-ez, eurelakoak izan bear, Nafarroa bestela, eurengandik iruntzita egongo zalako.

III`n Karlos "Biotz-aundikoa`k" 1.423`an Urtarrilla`ren 20`an erregearen ondorengoarentzat Biana`ko printzerria sortu eban, ortik aurrera derrigorrezkoa izango zana Nafarroa`n errege izateko. Beren billoba IV`n Karlos izanda leenengo printze edo errege-gaia.

III`n Karlos "Biotz-aundikoaren" ondorengoa, I Blanka beren alaba izango zan erregiña. Eta leenengo ezkontzan alargunduta, Aragoi`ko II`n Juan`egaz bigarrenenez ezkontuta 1.441`an bera il zanetik, asi ziran Nafarroarentzat arazo lerrienak, II`n Juan`ek guzur ta indarkeriz beren seme-alabai IV`n Karlos eta bere arreba II`n Blanka`ri, erregetzak ostu ta eurak pozoituta il ebazalako. Beren seme II`n Fernando (katolikoa) bideratuta, zelango amarrukerikin Nafarroa`ko erregetzaz geratu.

Eta ez da egia, orduko denboran gaurko Espaiña`ren asmoak lortzeko ibili zirenik, Gaztela eta Aragoi`ko erregetzak andi, indartsu ta zabalak ziralako. Geiago, kontuan eukiten ba-doguz, Isabel ez zala Aragoi`ko erregiña eta Fernando Gaztelakoa be. Erregetza, itzarmen egiunetik, antolatzailetasunezko artekariak bakarrik izan zirelako.

Godokatoliko amets ori lortzeko, beste antzezleri bat ibili zalako artean, bere lekuan ikusiko doguna. Eta asmakizun ori, espataren indarragaz beartuta, ez zalako aurrera eroan XIX`n gizalderaiño.

Nafarroa`ko errege-erregiñak Euskaldun on-bezela, berba aundikoak ziran, euren izatasunezko ekanduan beste gauzarik ez ebalako ulertzen. Eta Kristautasuna babestearren, ez eben euki lotsarik Gaztelar ta Aragoi`tar etsaiari laguntzeko.

III`n JUANA daukagu izate orren aipagarriena: Euskerea, Erria ta Erlijioa, biotzez eta maitasun guztiagaz babestu ebazalako, gure "IZAERA OSOTZEN DABEN NORTASUNEZKO BEREZKOTASUNAK".

Eta beren denborako LEIZARRAGA`tar JOANNES. Orain 435 urte irakasle aundi-lez, Euskera-Batuaren gramatikazko oiñarri-lez irakatsi euskuna: "EUSKALKI GUZTIAK EUSKERA BATEN BATZEKO, ALEGIÑEZKO EKINTZAREN GAUZAK ZELAN ERABILI BEAR ZIRAN. EUSKERAZKO OIÑARRI BATEN ERPERATUTA, EUSKERAREN SENEAN AGERTU DAITEZAN, EUSKALERRIAREN OITURAN EZARTZEKO". Euskereak eta Euskaldunak, ordaindu ezinbesteko esker-zor aundian geratu giñan, oraindiño Euskerazko idazlearen eredu danagaz.

7.6. - NAFARROAN BILDURRA:

Maisu ta lagun aundi bi daukadaz nik, bata: Olazar eta Uribe`tar Martin, semetzat daukatena bizitzako arazoetan eta Euskerazko arloan artu-emon aundian alegintzen nautena, dakitena argitaratu dagian.

Eta bestea: San Sebastian`tar Joxe Mari (LATXAGA), beragaz Nafarroa`tik zear iker-lanetan, ainbat erri eta gizon-emakume ikustera joanda.

Latxaga`ri itaunduten neutsoenean: "Nafarroan bildur asko dago ez?".

Beren erantzuna beti izan zan bardiña: "Ez zara konturatuten..... Euskal lur oneitan eskuak lurperatu ezkerro odolez beterik ataraten dodazela?".

Nirentzat baiña, dana asi zan Aita Santi`gaz joanda Garde`tar Martzeliño Euskerazaintzaren izenean Zaragaztelu`n (Karkastillo`n) omendu gendunean.

Bere etxearen sarrerako atearen goialdean, oroi-arri bat ipini gendun Euskeraz idatzita, andik egun-bi barruan eta gabaz, baten-batzuk mailluakaz apurtu egin ebana. Gaur erderaz idatzita dagoena, lotsean artuta dago.

Gaur begitu baiño ez da bear, batzuk zer egiten dabizen Euskerazko iragarpenakaz.

Beste osterata bat egin gendun Zaragaztelu`ra eta etxeari argazkiak ataraten ibili giñan orduan, niri, gizon bat aurreratu jatan ondora, bera Zaragaztelu`ko bake-epaillea zala ezanez.

Etxera eldu giñanean, ikerketazko alkar-izketaldi luze bat euki gendun, ararte ikusi genduzan gertaera guztiak azaltzeko. Eta konturatu giñan, Euskera eta Abertzaletasunaren aurkakok, dana kontrolpean euki ebela, lan-tokietatik asi-ta. Eta zigorrak be erabili egiten ebezala, alango susmorik barrundatu egin ezkerro.

Edesti guztiari ikertu bat egin da gero, argi azaldu gendun 1.836`tik asi-ta aurrerantza, izan dirala, daukagun Laterriaren kontrolpekotasun orreik.

Geiago, 1.936`tik aurrera, Nafarroan gudako tirokada-bat egon gabe, ainbat milla gizon-emakume tiroz il (fusilar) ebezala.

7.7. - NAFARROA GAUR NORA ?:

Nafartar guztiak irakurri bear leukie, ale-bitan idatzita dagon liburua: "NABARRA 1.936 - DE LA ESPERANZA AL TERROR". Konturatu daitezcan, ezker eta eskubitar-alderdikoak geien, Nafartarren NORTASUNA dala, desagertu gure dabena.

NORTASUNIK-GABE ZER IZAN ?. Berezkotasunak agintzen dausku, bizitz oneitan zelan jokatu bear dogun, Mundura arduradun agertzen garalako. Eta orretarako nai-ta nai-ez "NOR IZAN BEAR DALAKO".

Ez dot uste, Nafartarrak beste erbesteko NORTASUN baten atzean dabizenik. Betiko eskubi-alderdiko eriogille faksista`ren kontrolpean dagozela bai. Oneik, gizartearen antola-bideetan eta ekonomiaren aldetik aukera aundiak daukiezelako, bildur ori ezereztu ez daiten zaintzeko.

Eta or.... EUSKADI OSOAN BEZELA, GURE GIZARTEAN EGIN BEAR DOGUZAN EKANDUZKO LANAREN ZAIN DAGO ERRIA. BEREN NORTASUNA DIRDAITSU AGERTU DAITEN.

A-ta guzti itxarogarri agertzen naz ni, baten LATXAGA`gaz Korella`ra eldu giñan eta jolasten egoan amar urteko neskatilla baten ondora joanda, Latxaga`k, geratu barik egoala, ingeleraz asi jakon berbetan eta neskatxoa geratu barik erantzuten, bardin Euskeraz eta bardiñ gazteleraz.

Ni Nafarroara joaten nazenean, beti saiatzen naiz Euskeraz berba egiten, gu gogoratzen garan baiño erantzun aundiagoak artzen diralako. Eta ori egin bear geunke danok, "EZ NAFARROAN BAKARRIK". EUROPA GUZTIAK ZALANTZA BARIK ESAN DAGIEN, " OR !! EUSKALERRIA ".

ATUTXA`tar PAUL

Zornotzan 2.006`an Dagonilla`ren 7`an

EUSKALERRIA (I) -

SARRERA:

Euskalerriatik berba egiten dogunean, sentimentu edo biozkada sakonagaitik berba egiten dogu. Beren gizartea, senitarte, etxeak edo pamilya batekoaren jatorrizko aideak Kromañonetik senditzen garalako.

Euskal-gizarte oneri, berezko Sentimentu orreik dira azken baten errizaletasun edo abertzaletasunaren sentimentuak emoten dausi.

Berezotasun oneitan danok arduradun jaiota, ikas-egipidearen azturak beren etorkizuneko lojikan beteta, beartu egiten gaitu erri ta etxeak daukan mailla guztietako bearkuntzan, eginkizun guztiak zentzun aundian eta ekanduzko-oreka baten babesteko edo zeaztasuneko ardurak beteteko.

Eta orretarako: "Oiturak, izkuntza eta izatasunaren Nortasuneko ekintzak" legezko bereiztasunaren lotsean bete bear dogu.

Artu-emon orreik berezotasunean eginda, erri-gizartearen arteko ezinbesteko artu-emonetan, alkarkizuneko obekuntza batera eroaten dabez, bere ondorioz gizartearen eskubideko arduran egin bear diran ekintzak, demokrazizko ekandu baten eginda.

Euskaldunak asieratik, lotsaren arduran berezko autabide-lojikan ezargiñan-etik, gure zentzuren orekara bideratu gaitu beti menpekotasunik gabe.

Europa'n, Frantzia ta Espaiña Euskalerriatik oso berandu (1.789'tik aurrera) baiña, eurak aukeratutako Laterritasuneko batzangotasun onetan, euren gogamenean antolatuta dagozenak, gizartearen arrazoi guztietako oarmen edo sentimen guztiak euren kontrolpean eukiteko, erlauntz etxe-baten, esku-arrotz bat sartzea bezala da. Erlauntz etxe orreitan, bere erl-ama ta lan egiteko erleak, bat-eginda ba-dagoz indar aundiko alegiñean, al izango dabe erbestetik etorritako kanpotar ori euren gandik urrindu. Bestela, erlauntz-etxe ori indar gitxikoa izaten bada, arrotza garaille edo irabazle agertuko da.

Eta ori da zeaztu gura dotena gizartearen arlo ezberdiñetan adierazita.

IZKUNTZA ta OITURAK:

Euskerea da gure izkuntza. Eta oiturak, arbasoetatik zear bizitzaren ekintzan jakiñaren egarriz aztura-bidetik, gure arimaren ulermenean lotsagizunezko ardura aundi baten, berezkotasunean lortu egin doguzan garaipenak oiñarritu egin doguzelako. Bien artean osotzen dabe gure izatasunaren Nortasuna.

Europa`n zaarrena dana eta oraiñarte Auñamendi kateak, mendi ta baserriak bere senean zaintzea lagundu ba-eusku, gaur zabaltasun aundi baten agertzen gara, gure Nortasunaren bereiztasuna naazpiltzeko galbidean izan leiken lekua dana, makaltasunezko egoera baten agertzen bagara.

Makaltasun ori sortu leiken gauza da, gure bizitza, Mundu onek daukan mozkin eta ordezkaritzarako asmatzen doguzan aginduzko on-guztiak, jan-edate ta senezko gauzak, xautzailletasunezko (derrochador) eta zentzun-gabeko egarritasunera bideratzen ba-doguz, bearrezko neurritik kanpo geratzen diralako.

Ni ez naz arrazakerietan dabillen gizona, JAINKOA`ri begira BERE-LEGEA`ren zentzua, ulertzera irixten saiatzen nazelako.

Orregaitik, eldu-nazen begira-tokitik argiago ikusten dira erri-gizartearen naazpiltasunak, Nortasunaren berezitasunezko aztura-bidetik aldatu egin diralako.

Esaera bat, izkuntza bien arteko itz bategaz adierazten ba-dogu, itz ori zentzun-bako esaera baten geratzen da, beren esaera ez dalako eltzen ulermenak eskatzen dauan zeaztasunera, erdi-purdiko esaera baten geratu dalako.

Ekintzazko oituran eta jan-edatean bardin, gure egarriak arlo bietan gaurko erreztasunagaitik xautzailletasunera bideratzen ba-doguz, gure konortea edo sentimena bere ondoriozko ekintza arduragabeen naaztuta, iretsitasunaren kazkarraldiko (obstinaciòn) neurrian agertzen dalako.

NORTASUNA:

Euskaldunak, gure asierako arbasoetatik gaur-arte, eten-bako ekiñaldian ikas-bidearen azturaren, zentzuzko-zeaztasun eta askatasunezko NORTASUN aundi baten agertu gara.

JAINKO`ak billuzik bialtzen gaitu bizitz-onetara NOR izateko eta laster gogoratzen gara ez dala txantxetan ibiltzeko bizitza, ainbeste nortasun artean kokatuta agertzen garalako.

Nor-bera izateko or ! agertzen da leenengo ikas-gaia, Lur-bizi au danoen eskubidekoa izanda, bear-bearrezko ordezkaritzaren ardurapean kokatzen garalako.

NORTASUNA`ren izaera, orregaitik da bereizgarria. Beren borondatean dauelako, gauzak zentzuzko legean egin edo NORBERKERIAN oker egitea. Bereiztasun ori, nor-beragandik asi-ta EUSKALERRIA`ren izaerara arte eltzen da.

Euskaldunak JAINKOA`ri, esker aundiak emon bear dautsaguz, aukera aundiak emon dauskuzalako Auñamendi-kateko mendietan gure baserriak kokatzeko.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.006`an DAGONILLA`ren 16`an

- EUSKALERRIA (II) -

SARRERA:

Euskalerria`ren leenengo idaz-lanean ikusi dogu, zelako baldintzak izan diran, gaur arte Euskal-Nortasunaren Askatasunezko Sentimentu eder onetan babestu gaituenak eta Euskal-Nortasunaren berezizko Askatasunean zelako garaipenak lortu doguzan, bizitzaren eten-bako ekintzan JAINKOA`ri begira, BERA`k ezarritako LEGE`en ulermenera alegindu garelako beti.

Esan dogu-baita, Euskaldunak, JAINKOA`ri ezker aundiak emon bear dautsaguzela, aukera aundiak emon dauzkuzalako Auñamendi-Kateetako mendietan gure Baserriak kokatzeko.

Urteak dira, baten: Aita-Santi, Kerexeta`tar Jaime, Akesolo`tar Lino, Zubikarai`tar Augustin, Larrea`tar Mari Karmen, Goti`tar Jose Luis eta beste ain-bat gizon aundi, Donostia`ko Maria-Kristina ostal-etxean egin zan batzar batera joan giñela, Karo-Baroja`tar Julio izlari zala.

Aita-Santi, Zubikarai ta ni beragaz egon giñela: "Euskaldunak gaur bizirik agertzea mirari aundi-bat dala, eta mirari orren egille, Auñamendi-Kate oneik, etxea-lez ezagutzea zala" esan eben.

Ni, ez-jakiña izan arren, Aita-Santi ta Augustin`eri esan neutsen: "Uskerizko berbak dirala orreik, Auñamendiko-bideak ez dabelako egiten Euskaldunak daukagun Nortatasunaren sinismena. Daukan indar ta borondateari, baleiteke asko laguntzea, bizitzeko gogorrak diralako, baiña gaiezkoak diran lez, ez zekula eurak egiña, orren ardurazkoak, arrazoiezko gizon/emakumeak diralako.

Nirentzat, gauza orreik esatea, gaur sortzen dan-lez, Mundua xautzailletasunezko bizi baten kokatuta dagoelako sortzen dira. Berak daukan indarra, arrazoiaren zeaztasunetik kanpo izten gagozelako, gal-bide baten sartuta.

Euskalerriak milla urte asko daukaz bizitz onetan. Eta idaz-lan onetan aipatuko doguz, zer egin eban bere bizitzako azturan eta zeintzuk izan dira beren betiko eragozpen edo gaiztasunak, Askatasunezko Nortasunean, bakez, iraun dagian. Gero, irugarren idaz-lanean gaurko egoera ikertzeko.

EUSKALERRIA`ren IZATASUNA:

Euskaldunen izatea "Arduraren ondorioa da". Ainbeste milla urtetan ikasi daualako beren ardurapekoa dala, daukan Nortasuna`gandik asi-ta: Etxea zaintzea, Senitartea babestea eta Erriaren Askatasuna lortzea. Erriak

osotzen dauan Gizarte-Guztia, Nortasunezko Lotsa aundian, Askatasunean eta JAINKOA`ren LEGE`an bizi daiten.

Orregaitik, Euskeraz berba egiten dauanean, Lotsa aundiko Egian berba egiten dau. Xautzailletasun aldeko Menperatzaille ta Faziztak arrigarritasunean itzita, edozein egonaldian, Demokraziaren-Askatasunezko-Lotsean berba egiten daualako.

Or !! Euskal-Izkuntza eta Euskaldunen-Itza, beren berezko sinismena dalako.

EUSKALERRIA`ren ERAGOZPENAK ta GAIZTASUNAK:

Euskalerrriaren gizartea beti bizi zan aske jakintzazko aztura bidetik, arik eta Erromatarrek etorri arte.

Guda-indar aundian kokatuta egon ziralako eta besterik egin ezinean, eurakaz alkartu giñan, kalte aundiagorik ez daiten sortu Euskalerrrian.

Eurengandik ainbeste ikasi gendun lurrak eta burdiña lantzen. Ekarri eben baiña, Mundu onentzak kaizargo, erlijio ta izkuntz bakarria egon daiten asmakizun- etik, indar asko eukinda-be, eurentzat lar edo zabalegia zalako, ezereztu egin ziran.

A-ta guzti, berezkotasunari kalte aundiak eginda. Jaurkintzan, erlijioan eta izkuntzan egin eben estukuntzaren bidetik, dana naastuta geratu zan, Latin eta Euskeraren bitartez ainbeste sasi-izkuntzak sortuta (Bable, Gaztelera, Napar-Aragoikoa eta abar).

Erromatar asmakizunaren aria artzeko Godo`ak agertu ziran, eta etenbako borroka baten iraun gendun eurakaz Mauritarrek etorri arte.

Mauritarrek, Godo`ak ezereztu egin ebezanean, pare-gabeko aukera agertu jakon Euskalerrria`ri, eta Euskaldunak ez eben galdu.

Europa`ko erri guztien antzera erregeak sortu genduzan eta euren artean senituta ta katolikotasunak bere eskuetan erromatar "Kaizar-Sakratua" euki eben-lez, indar geiago euki ebanari emoteko, or agertu gintzazan erdi-erdian, daukagun EUSKAL-NORTASUNA kentzeko, leku guztietatik gudak agertzen jakuzela.

Euskalerrri osoagaz ezin ebelako lortu, erregeakaz euki gendun itzarmenaren bitartez eta katolikotasuna Europa guztian aintzat egon zalako, Nafarroa, guzur ta amurrukeriz Eleiza`ko bulda edo Berun-Idazkia eskerniatuta (falsificado) lapurtu euskuen.

A-ta guzti, Batzangotasunezko asmakizun orrek ez ebalako indar geiago euki, 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren eredia artuta, guda-indarragaz daukagun laterri menperatzaillepean, beste sasi-nortasunakaz gura dabe gu izatea.

Ez dira konturatuko..... NORTASUNA....BEREZKO edo JAINKOA`ren gauza dala ?.

Gaur, or!! gagoz, irugarren borroka nagusian dan Mundu onetan sartuta. Gizartearen ESKUBIDEAK, LOTSEAN ez diralako on-artzen. Urrengo idazlanean argituko dodana.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNTZA`n 2.006`an IRAILLA`ren 4`an

- EUSKALERRIA (III) -

SARRERA:

Euskalerriko bigarren idaz-lanean ikusi dogu, Euskal-Izatasunak erdi-aro guztian, zelako eragozpenak euki dauazan, askatasun osoan bizi al-izateko.

Mundu onetan, edo Europa bideratzeko batez-be, errietan ezarri ziran erregeen-jaurkintzak itxura baten antzekoak izanez gain, ez eben euki zer ikusirik Euskaldunak euki genduzan jaurkintzaren oiturakaz, demokraziaren askatasunezko antolarazian zuzentzen gintzazalako.

Kromañon`etik urrialdian edo txikiagotzen joanda, Auñamendi-kate onen alde bietan zaldikatuta gaur daukagun lurraldean bizi gara, asierako ikas-bidetik eten-bako arian edo jardunezko (empirikamente) oiturantzan JAINKOA`ri begira.

Erromatarren menperatzaille asmotatik, Europa`ko sasi-jauntxoak, Mundu au JAINKOA`gandik BEREZTASUNAREN-NORTASUNEZKO LEGE`an OIÑARRI- TUTA dagoena, jaunkerian (imperialismo) bideratu gura izan dabe beti.

Mundu oneitan, Zer izan-gura dabe..., edo Zer gura dabe..., berezko-legeari, gizarte ta erri-giza-barnearen eskubideai, ain lotsagabetasunezko NORKERI orreikaz jaramon ez egiteko ?

Mundu onek daukazan legeakaz, ekanduzko oreka baten bizitzea eskatzen dausku. Eta menperatzaille-asmo orreikaz, ankaz-gora daukagu dana.

Izatasunean....., Oiñarrituta Gagozan Giza-barneko Sendimentutik ez da geratuko ezer ?

Gizon-emakumeak, sekula ez dabe al izango, oiñarritutako lege orreik norberagandik erauzi edo zusterretik ebatuta kanpora bota.

Euskalerria, orregaitik izan bear da itxaropentsu, bere senean dagoalako demokraziaren-askatasunezko altxor aundi ori. Eta kontuan euki: Alemania, Italia, Frantzia, Espaiña, Polonia, Ingalterra eta abar, izan ba-ziran altxor aundi orren jabe....., gaur Babel`en antzera, egundoko oroit-karri bat eraikita eukiko ebela.

EUSKALERRIA`ren ERAGOZPENAK:

ARANA`tar SABINO`k JAINKOA`ri begira, Euskalerrria`ri itandu eutson: "JAIO ETE NINTZAN NI, ZURE IL ORDURA ELTZEKO ?".

Baiña laster emon eutson erantzuna: "BEREINKATUA IZAN DAITELA NIRE ABERRIA EZAGUTU NEBAN EGUNA ETA BETIRAKO ESKER-ONAK, ARROZTASUNeko ILLUNTASUNETIK ATARA NABENAI".

Egia esan eban orduko denboran, Euskalerrria il zorian egon zalako eta bereala bizkortu egin zan.

Euskalerrria`ren orduko egoera-larria, gaurko egoeraren antzekoa izan zan, kontuan eukiten ba-doguz, len guda indarrarren bidez estukuntza aundiagoan sartuta egon giñela, Euskal-Nortasunaren arnasa aundiagoa izan zalako.

Gaur bertan, gure Euskal-Nortasunaren arnasa, naiko motelduta (difuminado) dago, artean ainbat erbesteko edo etorkin daukaguzelako eta isterbegikoak edo etsaiak, eginkizunaren erreztasunak edo aisetasunak euren alde daukiezelako, alegin guztian dabiltz daukaguzan guzurrezko laterri-menperatzaillenen alde, gizartearen eskubideko aitzakiagaz, maltzurrezko ta guzurrezko ekintzarekin aurrera egiteko.

Konturatu bear gara baiña, laterri onein guzurak, ez dabezala kontuan eukiten gizartearen sentimendu ta bear bearrezko ardurak: Eskubideetan, berdintasunean, Nortasunean, Erriaren Nortasunean, Nortasunaren Ekanduzko artu-emonetan eta Izkuntzan. Eurak gura dabezelako eskuetan euki menperatzailletasunezko tresnak domukidearen (socio-capitalista) alde, guk berezko ta arrazoizko ardurak, euren keiñada ta zigorraren bidez beteteko.

Eginkizun ori ez da bakearen bidea, ez dagozelako gizartearen morroi edo zerbitsura eta beren ondorioz, gizartean gaur-lez, arduragabetasuna agertzea da.

Eurak gura dabelako naastetasun ori, gure bizitza xautzailletasunezko ekintza baten eukinda, sasi-jainkotasunean bizitzea.

Baiña bakez bizitzeko, sasi-arrazoi orreik berezko egiaren aurrean, ukamen edo ezeztapeneko (contradicción) uts-baten agertzen dira, bereztasunezko legeak ain nabariak diralako.

Orduan..... etenbako borroka baten bizi bearra ?.

Idaz-lan onen asmo-azterpen edo egitamu-saioa, bakar edo launa (simple, comun) da, Mundu onetan egin bear doguzan gauzak soillak edo leunak diralako. Eta Konturatu, gauzaren eginkizunak gaitzikor edo trabakor

agertzen diranean, baten-bat maltzurkerian edo guzur betean dabilrelako dala.

Mundu onetan, gaurko goi-maillako jakintza txeberatuta dago, NORBERKE- RITIK ezin daualako urten (Begitu bestela zer dan, Aita-Santuaren Islam`en aurkako anka sartzea). Arik eta Erromatarrak asi eben menperatzailetasunezko asmakizun ori (Munduko sasi-jakintsuak on-artu ebana), iruzur edo iruzaku egite baten antzera berezko legearen aurka amaitu arte. Edo bestela, goiko jakintzaren aldetik, edestiko uts-egite aundi-baten antzera onartu arte.

Ori da gure gaurko Munduan dagon irugarren borroka nagusia, gizartearen eskubideak ez diralako lotsean artzen. Eta Or !! gure EUSKALERRIAREN arazo aundiena.

1.901`an Urtarrilla`ren 5`an Arana`tar Sabino`k Arantzadi`tar Ingartzi`ri (Kizkitza) idazten dautson eskutitzan-lez, gaur bardiñ-antzera baten gagoz, arazoa goian ikusi dogun-lez bardiña dalako.

IKusi bestela:

Sabino`k denbora areetan aberkideen artean itxitasunaren alako bat, edo abertzaleen artean biotz-galdu edo kikiltasun antzeko bat ikusten ebalako, au esaten eutson Ingartzi`ri:

"Gogoratzen azten nazenean onetaz edo endaren gora-beran, au bajoakula aitzen dot eta bajoaku asi dogun gizaldia amaitu orduko"

"Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarregarria da !!. Espaiñol`ak ikusten dabelako euren aberriaren osotasuna arriskoan dagoala, espataren arrazoia artzeko".

"Aukera bakarra diruan dago eta au ez da aurkitzen". Baserritarrak geiegi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari.

Zuzenbide bakarra ba: Lantokiak sortuaz da, baserriak erosi, lagun-arteko ontzigintzari eutsi, langintzako eta trebetasunezko alkarteak antolatu, anai arteko ongilleak eta arrantzaleentzako, nekazaritzarako, abel-azikerarako alkartasunak (mutualidades) sort-arazi eta ibilbideak zabaldu edo jabetuz.... bizitzan eskutarteko guztiak legez-erritaratuaz (nacionalizando), Euskereak zeozertarako balio dagian, nai-ta naiezkoa izan daitela eurakaz artukizuna eukitea. JAINKOA Aundia, Aalduna eta Bakarra da zuzendu leikena !!.

Bearrezkoa da Euskerea naikoa izan dedilla eta gertatzen dana da, ez dauala balio nekazaritzako egintzaren izketarako baiño.

Bizkaian, bear doguzan liburuak be ez daukaguz azibidea burutzeko, guztia ez, erlijiozko oituraren azibidea baizik, bear bearrezkoa, emakume gaztea sendi baten ama izateko dana.

Ai nere laguna !!. Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nor-berak argi ikusten dau; gauza-bat oartzten dau (experimentar): "Biotzak negar egiten dauala eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu ezinik". Gure aurrekoak zer egin dabe ?. Zer egin dau Eleizak ?. Eleizkideen amak ?.

Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: Euzkera ber-beran dago orren ezaugarria. Egiazko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asierako bidetik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baiña ardura gitxikoa, bizirik irautea.

Gaur-arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik arazo-aldia, beren duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasunak izan dira.

Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera, esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA`ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona, nor-berak itauna egiten dau: Izango da... JAINKOA`k gura ez dauana au desagertzea ?.

Emen garbi ikusten da ez zala ameslari bat. Ankak ondo ezarrita euki ebazalako lur gaiñean. Eta gutxiago zoratuta.

ONDORIOA:

Guzti au ikusita, Euskalerraren eragozpenak ez dira borrokarekin konpontzen, eurak maltzurkerian eta guda-indarrean geiago diralako. Gure izatasunezko tresnak beren senera ekarrita baizik.

Orregaitik alegindu bear gara, Europa`n eta Mundu`ko belarri guztietan Euskalerraren izena, zentzun aundiko soiñu edo atsegiñezko otsakin entzun daiten, gure ezin-besteko askatasunaren egarriari, on-erantzun dagioen.

Zeozter badakie, gure erria ikustera gero ta geiago etorten diralako eta egon giñan larritasunetik gaur artzen gabizen itxuragaz txundituta, asko atsegin jakielako.

Orreik dira gaurko bideak Europa`rako, Euskalerrria, Kromañon`etik onarte eta gaur, askatasunezko izar nagusi lez artu dagien.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.006`an IRAILLA`ren 18`an

- OPARIZKO EGUNAK -

Badago gure artean noz edo nozko baten, alango egun batzuk ospatzeko jokabidea eta orain dala ille-bat inguru Olazar`tar Martin`eri esan neutson, alako egunen baten osterata bat egin bear gendula, dana ez dala izango lanagaz menpetuta egotea-ta.

Martin`ek, Martitzenean, Irailla`ren 5`ean alkarragaz egongo giñela eta Zapatuan egin bear geunkela bidai ori, esan eban, eta niri ondo baiño obeto iruditu jatan.

Zorrontzatic, goizeko amarretan urten gendun eta gurdian sartuta egon giñela, Martin`ek: "Ayala ta Mena ibar edo mendarteak" ikusi gura leukezala esan eban eta Galdakon Basauri`ko bidea artuta, Padura (Arrigorriaga), Llodio, Amurrio`tik Arespalditza`ko bidea artuta, Aiara dagozan erritxo guztiak ikustera joan giñan.

Aiara`ko arana edo ibar-mendarte au, Araba`ko lurralde aberats ta indartsua da. XV`n Gizaldea Bizkaia`ri lotuta egon zan lurraldea zan, nai-ta beren buruaren jabe izan da.

Iparaldean Bizkaia; Ego-aldean Burgos`ko Losa Ibarra; Ekialdean Laudio, Orozko, Amurrio, Orduña; Eta Mendebaldean Burgos`gaitik inguratuta dago.

Eta erritxo onekaz osotxen dau bere lurraldea: Aginaga, Añes, Beotegi, Opellora, Etxegoien, Erbi, izoria, Lexartzu, Luxo, Luxaondo, Lantenu, Madaria, Maroño, Menagarai, Menoio Murga, Ozeka, Olabezaar, Kexaa, Arespalditza (errien-buru zala, bere ondoan, Zaroabe edo Sarauben batzartzen ziralako Alkate barriak autatzeko). Okendo, erri eder ta aundia-be an dago.

Agorraldi aundia egon arren, erri politik dira eta Baserrietan, bideetan ta auzunetan egiten dabizen obekuntzakaz, beren-zenezko edo aurrerako itxura on-bat emoten dabiltz Aiara`ko mendarteari. Toki izenak Euskeraz daukez, baiña eurak erderaz egiten dabe.

Eta emendik Artziniega`ra, Araba`ren Ipar-Mendebaleko Udalerria joan giñan.

Artziniega`n egonda Intziña`ko Amabirjiñaren Santutegira joan giñan eta gurdia bastar baten itzita Eleiza ikusi gendun.

Lenengo, Santutegi ondoan dagon arte-aundiaren azpira joan giñan, arri-bakarren gaiñean, burdiñezko liburuan zer ipinten eban ikustera. Euskeraz eta erderaz esaten eban: "1.623`an inguruko auzuneak, arta-azpian egin ebela Batzarra".

Gero, Eleiz-barrura joan giñan eta an ibili ziran batzuk oiñ-oialak zabaltzen, koruan abeslariak saio-aldian eta beste batzuk lorak ipinten, ezkontza egon zalako.

Intziña`ko Santutegi au XIV-XV gizaldietan eraikia da eta barruko erretaulak edo aldare-buruak ikusten egon giñela, geiago ikasi nebazan Barroko, Plateresko eta Txurrigurezko denborako lanaren gora-beran.

Itandu bat egin neutson Martin`eri Eleiz-barruan egon giñela: "Zergaitik Santutegia`ren erderazko INTZIÑ (Encina) izena Euskeratua?". Ez zan izango obe...bere zeatz eta bereztasunezko izen ARTEA?. Eneban artu erantzunik, baiña baleiteke Euskerea XIVn gizaldian gitxi gora-beran galdu ebelako izatea.

Martin`ek, Santiago`ren irudia beren espata aundiagaz ikusten egon giñela: "Irudi ori debekatuta dago, baiña or daukie arro-arro" esan eban.

Eta emendik, Mena`ko mendartera joan giñan elburu edo asmo bardiñekin.

Mena`ren ibarra, Aiara`ko aran`en antzekoa da: Lurrez "Oso eder eta indartsuak" biak, nai-ta Mena`n Aiara`n baiño agorraldi geiago egon.

Mena, Burgos`ko errialdean, Gaztela`ren Ipar-Ekialdeko arana da. Eta Iparraldetik: Karrantza (Bizkaia); Ekialdean: Balmaseda, Artziniega, Zalla ta Gordexola; Eta Egoaldetik: Burgos`eko Losa ta Montija`ko merindadeagaitik inguratuta dago.

Aran biak Euskal lurak izan arren, ba-dira gauzak bai, ezberdindu egiten dabezenak. Bideak: ez dagoz Aiara`n beste zainduta. Eta bideetan dagozan bideratzeko iragarkiak, batzuk Iparra galtzeko naiko trebeak. Ardura bardiña ez dago an eta Euskalerrian, norabideak ikurrakaz argitzeko.

Barre batzuk-be egin genduzan, nai barre ez egiteko izan, erriak daukazan izenakaz, Billa Sana de Mena, Medina de Pomar, Billarkayo, Espinosa de los Monteros`en ingurutik ibilli giñanean.

Nire adierazpena Martin`eri: "Baten batzuk, azelango alegiñak egin ebezan Euskerazko izenak aldatzeko eta izen baragarri orreik ipintzeko" zan. Eta beren erantzuna: "Ez Kantinflas-bat egon bazan, bere argaz-mintz filmean (pelikula de El Padrecito) esan eta egin eban lez: "Berak umea ez doala bataiatzen, aurreratu eutsien "NEPOMUZENO" izen barregarri orregaz, bere bizi guztian zori-gabekoa izan dadin".

Aiara`ko ibarrean bardin, Gazteleraz daukiezan izen batzuk ez diralako ezkontzen Euskerazko AUZOAREN izen-itzakaz. Gure errian, alegiñ geiago egin bear geunke erri bakoitzari beren senezko izenak berrezkuratzen.

Arratsaldeko irurak zirala, Billa-sana de Mena`ra bazkaltzera joan giñan eta "Alberge jatetzean" ondo bazkaldu gendun.

Etixerako bidean, Tornos`eko mendatea igonda, Lanestosa`tik Karrantzara eta emen, Suceso`ko Amabirjiña`ra igon gendun.

Ez dakit tokiaren izena, baiña erromeri aundi bat egon zan, gazteak Ikurriñ askoren artean eta neskak soiñean sardin-saltzaille ta oiñetan abarka kaz jantzita.

Burnidun saltzarrizko (cemento armado) Amabirjiña aundi bat daukie, Txabarri`tar ama batek beren seme bateri eskeinduta. Zezen-toki aundi bat-be, guztiz saltzarrizkoa dana eta Bas-eliza ta abade-etxe ederrak.

Egun ederra ospatu gendun.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZAN 2.006`an Iraila`ren 8`an

- EUSKALERRIA`ren ARAZOA, GOIKO -

- MAILLA`ko LISKARBIDEAN -

Europa, 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren ostean indarrarekin Laterritu zanean, berezko erriak ortik aurrera Euskalerrria`ren antzera, erritarren-arteko nortasuna galdu eben eta menpeko maillara beeratu ziran. Errien artean mugi-aldirako, ixilleko eskubidean bakarrik egin leikezan lekura.

Euskalerrria`ren arazoa orregaitik, Laterrien arteko maillara igotea betiko konpondu daiten, pozgarria izatez gaiñ itxarogarria be ba-da, gaur egun erri-gizartearen eskubideko legeak, konpondu leikezan mailla bakartera igoten dalako.

Zergaitik esaten dot mailla bakarra dala arazoak konpondu daitezcan ?.

Begitu daigun Europa`ko jaurkintzaren edestia begi-zorrotz labur bategaz, konturatu gaitzcan Europa ta Mundu onen jaurkintz guztia nolako sare-arte edo txeberazko naaspiltasunean arrapatuta urten ezinik zelan dagon.

Europa`ko erritarrak, Godo`en ostean euren babeserako antolatzen asi ziranetik, artekariak (arbitros) ipini ebezan buru, erritarren giza-bizitza bideratzeko, beti Erri-Batzar nagusiaren menpe, Jaun edo errege izenarekin, erri-zaletasunean edo erri-aginte aundi baten (democraticamente).

Jaun edo errege onein artekari bidean baiña, iru sare aundi egon ziran zabaldua Europa guztian ezin besteko txebera baten sartzen ziranak eta berezko erritarren larderia (respeto humano) edo gizaren-lotsazko eskubideak, menperatzen ebezanak.

Lenengoa, Errromatarren asmakizunean kaizartza bakarra ezarri daiten Mundu guztiarentzat.

Bigarrena, Mundu guztiarentzat Katolikotasun-Alderdia erlijio-lez.
Eta irugarrena Latiña.

Erromatar kaizar-batzangotasunezko (globalizaciòn) asmakizun indarbidetik Europa gustian: "Erritarrak, Nortasunezko biziaren babes billa, naaste aundietan geratu ziran, jaurkintz menperatzaillak, Latiñ ta berezko izkuntzaren artean sortu ziran sasi-izkuntzaren laguntzakaz.

325` ean Nizea`ko batzarrean Konstantino`k Eleizaren agintariakaz batera, Mundu guztiarentzat Katolikotasunaren alderdia aukeratu eban. Eta 589`an I Rekaeredok artu ba-eban batzangotasunezko asmakizun aube, batu baiño ainbat naste ta erlijio barri sortu ebazan Kristautasunaren kalte.

Latiña, jakintzaren ibilgaillua egin ebenetik gaurko egunararte, berezko erri ta izkuntzarentzat, kaltegarria izan da beti, beragaz menpekotasunaren zauri-atz edo orren asmo txarragaz ekarri dabelako kaltea, berezko izkuntzak ezereztu daitezana.

Erregeak, antolatzaillazko artekaritzan ipini ziranean, asieratik goian esan dodazan txeberazko sare orreitan ezarri bear izan eben, katolikotasuna bere "Erromatarren Kaizar Sakratu eta Latiña`gaz" Europa`ko erregeen artean nagusitzat artu zalako erlijioaren aitzakiagaz.

Kristautasunari kalte eta banaketa aundiak egin eutsozan menperatzailletasunezko batzangotasun asmo orrek eta askoz geiago Europa`ren erri ta errien-arteko jaurpideari. Erregeen artean Katolikotasunak ortik aurrera "Erromatarren Kaizar Sakratu" ori salmentan ipini ebalako.

Lenengoetan, Europa`ko erregeak sari orren atzean, euren artean eskontzen ziralako lur eta erri geiagoren antolaraziak lortzeko. Gero, euren artean indarrezko odolkeri utsean asi ziran kaizar sakratu orren saria lortzeko, berezko erriak ezeren kontuan euki gabe.

Katoliku Alderdia gaiñera, Mundu guztia menpean eukiteko, indarrezko gurutzadetan asi ziran eta odolkeri uts-ori sinis-ezinezko lurraldetan zabaldu.

Indarrezko ekintza orreik, guzurra baiño ez dabe lagun eta denborak aldatzen doiazela erregeen maldabera bereala etorri zan.

Nai katolikotasuna eta erregeak, artekaritzazko antolarazia baztertzen joan ziralako sasi-jainkoaren mailla artuta, ez ziran gai berezko erritarren demokrazia beeratzeko eta Europa beste aukera bateko saioan Laterritu eben. Emen urriñago joanda, berezko erritarren Nortasunak eta izkuntzak ezereztu naian.

Erromatar asmakizun orrek, ikutu dauan guztia, beren batzangotasunezko elburua lortu barik, dan guztia beti birrinduta agentu eban.

Ezin konturatu.... JAINKOA`ren LEGE` en aurka.... ez garala ezer ?.

Mundua`ren batzangotasuna lortu ezinean, Europa zati aundietan laterritu eben, oraidiño errege batzuk irudi-edergarri lez dirala. Biziaren aurrerakuntzan baiña, oraindar-denborea agertu da, eta beragaz lantegi-gintza (industrializaciòn) eta lantegi-zalekeriak ekarri dauzan diru goseak.

Era-barri onek berezko erri ta erritarrentzat, beste arazo aundi bat ekarri eban, gizartekeria edo sozialismua sort-arazi zanean.

Euren egikeraren tankera esan leike, erritar-langillearen babeserako izan bearako zala eta beragaz berezko erritarrentzat. Baiña ez zan sortu alakorik.

Sozialistak Europa guztian indarra geiago eukiteko, laterrizko maillan kokatu ziran eta batez, euren jakintzazko azturana aurrera joan ziralako berezko erritarren Nortasunak ta izkuntzak kontuan euki gabe, "Erromatarren kaizar sakratuzko menperatzailletasun txeberazko sareetan konturatu barik edo itzultzeko al ez ziralako, jausita, eurak be kaizar-menperatzaille biurtuta.

Orregaitik gaur, lotsa aundiz eta ago-txikerragaz esanda, Mundu`aren erritartasunezko (ciudadanos del Mundo) eritzian agertzen dira. Ez daukie paparrik, nai egia zein dan jakinda-be, atzera egiteko.

JAINKOA`ren LEGEA`k baiña, erri-gizarteetan egipide txar edo okerrak egiten diranean, ekintza orreik LEGEA`rekin ados-gabetasunean agertzen diralako, esne-bitzaren antzera agiri-agirira ataraten dauz eta maltzurtasunezko guzur orrekaz aurrera egin ezkeru, amiltegitik dingilizka kokatzen gaitu.

Mundu`ko bigarren guda-nagusitik urten gendunean eta egin zan sarraskiagaz konturatuta, erabagi eder-bi artu ziran, bata: "Iñoiz ez zala egingo guda-bidez alako beste odolkerizko triskantzarik. Eta bestea: "Berezko erri ta erritarren eskubideak berrezkuratu egin bear zirala".

Gaur egun danok dakigu: "Erromatar kaizartzak, katolikotasunezko alderdikeriak eta daukaguzan laterri oneik, euren maltzurtasunezko-guzur eta menperatzailletasunezko egipidean, beti porrotean edo azken-gaiztoan amaitzen dirala, danon ardurak esku gitxietan batu ezkeru, egin bearak ezin dabezelako zentzunez eta zuzenezko bidetik eroan, nai-ta zigorraren keiñadan izanda be.

BERE LEGEA`ren demokrazizko qiñarritik kanpo ibili ezkeru, arduragabean agertzen garalako eta beragaz xautzailletasunezko bizi baragarri baten.

EUSKALERRI`ko SEMEAK ORREGAITIK, ZELAKO EGOERAN GAGOZAN SARTUTA KONTURATU BEAR GARA eta ZUURTASUN AUNDIAN JOKATU, BARAGARRIZKO EKINTZAK ALBORATUTA.

GAUR BADA KIGU, EUROPA`ko LATERRIA`k IZAN BEAR DIRALA, EUSKALERRIA`ren ARRAZOIA`ri BAIETZA EMON BEAR DAUTSOENAK, BERE BEREZKO TA ASKATASUNEZKO LEKUAN EZARRI DAITEN. ETA GURE EGIPIDE DEMOKRATIKOAKAZ ERAKUTSI, EUROPA`ko IKAS-BIZITZAN ZAARRENAK IZANEZ GAIN, "EUSKALERRIA BEREN IZARRA DALA".

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.006`an URRILLA`ren 11`n

- Euskalerrian LAN EGITEKO ZAR- SARIA' ren SASOIA ONENA -

Euskalerriak beren bizitzaren azturazko jakintz ekintzan, ulermeneko arloan lortu eben demokrazia , bizitzarako-zeregiñetan gaur-lez danon eskubideak sartzen ziralako, ez zan edozer gauza, euren artean konpondu egin bear ziralako.

Europa`ren izotz-aldia urtzen asi zanetik, Kromañon-giza gaurko itxuragaz izan zan Europa`ra etorri zana, bizi-bideak erreztatzeko eta bertan egon ziran Neardental`ak, ekarri eben askatasunezko-jakiturian bat eginda, jendartea aberastu ebana.

Lan gogorak izan bear ziran areik leenengo bizitzaren ikaz-lanak, ogi-bidea ez zalako bakarrik leen ulertu bear zana, artean eta batez gizaren eskubideak zaindu egin bear ziralako.

Gauza ederrak lortu ebezan eten-bako jakin-bide ortatik: "Azturazko jakin-bidetik OITURA; Gizartea`ren egokitasunezko egarri-bidetik EKANDU-DEMOKRATIKO AUNDI eta ZABAL BAT, gure LEGE-ZAARRETAN OIÑARRITUTA DAGOENA; eta gauza guzti orrein bitartez EUSKAL-IZKUNTZ ZORAGARRI-BAT, berbaz-berba ekanduzko-azturaren lan eder baten eraikita dagoena. Jakin bearrezko txar eta on-guzti orrein zer-izanak, Euskal gizartearen arrazoitasunezko ARIMAREN ezagutzan ezartzeko.

Demokrazizko lan ederra benetan, gure arbasoak egin ebana.

Zoritxarrez baiña ! erromatarren-gandik asi-ta, Europa ta orduko Mundu onetan ezagutzen zan jaurgo guztia, arein asmakizunezko sasi-norkerian ezarri bear izan eben, batzuk katolikotasunezko Erromatarren Kaizar-Sakratua aurrera eroan ebalako.

Mundu onen gizabide guztia borrokaren oituran bananduta, ia nor geratzen zan aiek asmatutako sasi-jainkotasunaren batzangotasunezko jabetzan. Gaur oraindiño daukaguzan laterriakaz amaitu ez dana.

Andik aurrera, Europa guztian, jaurkintzarako aukeratu ziran gizon/emakume areik, euren artean ezkondata, apurka apurka indar aundia artu eben eta sasi-aundiki orren asmakizunezko guzurrak erritarren artean zabaldu ebazanean, erlijioa eta jaurkintzaren zentzua naastu egin ebezalako, erri-gizarteak zekula ez dau aukera eta indarrik euki, jabetza maltzur orreik alboratu eta berezkotasunaren senezko zeaztasunean ezarri, indar, ospe ta diru guztiaren jabe egin ziralako.

Sasi-jainkotasunak, guzti ori lortzeko, beti !! JAINKOA`k Mundu oneri ipinita daukazan bereztasunezko legeak eta beren ulermeneko ekintza bidetik lortutako berezko-berezitasunak alboratu dauz.

Orregaitik, euren sasi-asmakizunak lortzeko, leenengo alboratu egin bear dabena, arlo guztietan daukaguzan bereiztasunezko NORTASUNAK dira eta ekintza orreitan, berezko erritarrak egiten dauana. Sasi-garaipenak lortzeko, euren ekintza-lez goraldtu bear dabezalako

EUSKALERRIAN:

Kromañon`en etorkizunean, guk ulertu gendunetik demokrazia eta askatasunaren arloa JAINKOA`k Mundu oneri ipinitako lege-baldintzakaz osotzen zala. Zekula ez giñan erasoan joan beste erri baten aurka, gure lurraldeak eta izateko

Nortasunak zaindu baiño ez genduzalako egin. Menperatzailleak apurka-apurka gure lurak jaten juanda, gagozan lurraldeko neurrian geratu arte.

Euskalerrian, 1.832`ko urte ezkerero, laterri-menperatzailleak meatxuzko guda-keiñuakaz morroituta gagozenetik, gure Euskal-arduran, oiturazko-jaurkintzaren antolamendurako, ezer edo gitxi al izan dogu egin eta jakintza arloan, egin dogun apurra, erri guztietan euki doguzan Apaiz ta lekaide abertzaleai ezker izan da.

Eta Sabino`ren irrintzi`tik, Eurak (Apaiz ta Lekaide) izan dira, gure antolakuntzazko bideak debekatuta euki doguzelako, al izan daben aukera-bidetik lortu dabenak Euskal-sena gagozan abertzale-neurrian irauteko.

Gure gaurko Euskalerrian baiña, beste aukerazko-bide barrien bearra daukagu, datozan Euskal-seme/alaba barriaren senak bizkortzeko eta erriaren izatasuna sendotzeko.

Goian argi geratu dan-lez, etsai asko daukaz gure Euskalerrri maite onek eta edesti arloan, oraiñarte guzurrez beterik idatzi daben antzera, sekula ez dabe esango orretaz egirik. Euskal gizarteko arloan, sozialistak guzurtzen daben antzera: "Gu, Europa ta Mundu`ko uritarrak (ciudadanos) gara", erdira-zale menperatzailleak asmatutako espaiñoltasunezko abertzaletasun barri ori eurak be on-artu eta atzean ostonduta erabiltzen dabela.

Orregaitik, bideak aukeratu bear doguz, mariñeltzan adibidez, jakiteko: Nortzuk izan ziran bizkaitar areik 1.246-1.248`an Bonifaz`tar amirala`rekin, itsas-bidetik eta bizkaitar itsas-ontzia`kaz Sebilla askatu ebenak Mauritarrengandik. Eta zeintzuk izan ziran baldintzak, Euskaldunak gudu-gertaera orreitan agertu daitezana.

Nor, Ruiz de Abendaño`tar Martin Bizkaitarra. Eta XIV-XV`n gizaldietatik aurrera, asko izan ziranak, Europa guztian itsas-ontzi egille trebeenak izan ziralako eta mariñeltzan bardin.

Eurak, len esan dotenagaitik, gurerik aipatu-be ez-dabe egingo. Bestela, egia zer dan euren erritarrak-be jakin ezkerero, batzangotasunaren asmakizun orreitan jai daukie. Erdi-ugarte onetan, gureak izan diralako ospe ta merezimendu aundikoenak.

Eta erakuskizun labur onen antzera, beste arlo guztietan bardin.

Euskalerrian, badagoz bere Ikastetxe-Nagusietatik asi-ta, jakifnean jarri leikezan joandako zati orreik idatzitako irri-antzerki bidetik; kondaira`ren leiaketatik, internet`bidetik zaleak gogotu egin daitezana eta abar asko. Ikastetxe-nagusitik beintzat aolku-ori emonda, errietako Udalak, kultur-erakundeak eta ikastolaren-arduradunak ekiñean ipini dagiazana.

Eurak egia zekula-be ez dabe esango eta gu egiagaz ondo apainduta aurka urten ezkerero, Euskal-gizartea argibide orrekaz zaletu baiño ez da egingo, bere edestiaren egiakaz arduratu eta onuran artuta, NORTASUNEAN eta ABERTZALETASUNE-AN sendotu gaitezana.

EUSKALERRIA`k, BERE-ETXEA APAINTZEKO eta DAIKOZAN GELA GUZTIAK GARBI eta ARGITSU AGERTU DAITEZAN, BERE SEME/ALABEEN ARDURA ZINTZOAREN BEARREAN DAGO. Eta ZER OBEAGO.... GAUR "ZAR ZARI`an GAGOZENAKAZ BAIÑO ?. OR !! PAREGABEKO AUKERA BAT.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.006`an ABENDUA`ren 22`an

- EIBISSA`n 15 EGUN -

EIBISSA UGARTE`aren EDESTI LABURRA:

Eibissa edo Ibiza, lurrarteko itsasoaren beste adintsua da, Europa Afrika`tik banandu zanean, Baleares deitzen jakozan lur zati edo ugarte orreik bananduta bertan geratu ziralako.

Mallorka`ren Ego-Mendebalean dago eta gure erdi-ugarte onetatik bera da urren dagoana.

Lurraren luze-zabaltasunean Baleares`eko ugarteetatik irugarrena da eta Bere zabalkuntza, 541 km karratukoa da 72.309 biztanlegaz eta bere koska, azkarri edo goi-bedun lurratan ez dau artzen 475 m. baiño geiago Sa-Talaiassa`goi-aldean eta ortik beragokoak Mola`ko mendi-kateak (sierra de la Mola).

Bere ibar-zelaietan batu egiten dira bere erri-gizarteak eta bai-ta nekazaritzaren bizi-bideko zeregiñak.

Giroaren (clima) gora-beran, Lurrarteko-itsasoarena (Mediterranea) da, nai-ta sarritan Saajara`tik agertutako, Atlantiarren eragipenezko-indarren (fuerza-influyente) eskutartean egon.

Egu-giroa (clima), ur-gabekoa edo legorra (seco) ta gezaltsu izanez gain, beren bata-besteko eguraldiaren otz-beroak 18°ko girokoak dira eta bere urteroko euri-kopurua 497 mm`koa.

Eta nai-ta bere lurak buztindun area izan, bere nekazaritzan garrantzi aundia euki eben labore`ko aleak, zitu edo bii`ak (cereales), oli-aranak (aceituna), marikol edo ilar-txikia (algarroba) maatsa (uva), barazkiak (verdura, legumbre, vegetal, hortaliza) lur-sagarra (patata), txerri-arbi, frantzes-arbi edo udarbia (remolacha), arbendol (almendra), piku edo ikoa (higo), gatza eta arraintzak (pesca).

Eibissa (Katalaneraz, La Vila d'Eivissa) bere asieran, portuaren begira-toki ondoko bizkargunean (colina) jaio zan eta gero Ipar-alderuntz zabaldu.

Ugartearen portu ta uri-nagusia da eta bere Ego-Ekialdean dago kokatuta 11 Km. Karratugaz eta 29.000 biztanlekin.

Uri zarrak, azkoz leenago arresiak (murallas) euki ebazan, baiña orain ain sendo ta gogor agertzen diranak XVI`n gizaldikoak dira.

Gaur, Gotzai-Eleiza edo Katedrala dan bere Santa Maria`ren Eleiz-Nagusia, Mauritarrek leen egineko erlijiozko-etxe gaiñean dago eginda.

Barregarria da, zelan baten-batek Katedrala`ren ate ondoko iragarkiren (cartel explicativo) ikusteko txartelean, Mauritarren izena suntsitu (borrar) eta bere ordezkristaua`ren itza ipini. Argazkia atara neutson.

Ekintza ori baiño geiago bearko dau mauritarren izenak, kristau izenakaitik aldatzeko, Eibissa`ko etxe-egikera eta daukan izatasunezko itxura, Ekialdeko izatasunaren itxuran, antz edo kidetasun osoa daukalako, mauritarrak ainbeste urte eta ainbeste jakituriagaz 1.000 urtean egon ziralako

XIV`n gizaldian godoen-eraikeran aundiagotu edo zabaldu eben, Eleiz-bular edo Eleiz-belarriak (abside), zeñutegi, ezkiladorre edo kanpandorra eta Eleiz-barnean Eleiz-gela (sacristia) bat egin eutsoezenean.

Gero, 1.712-1.727`an era-berritu aundi bat egin eben, gaur daukazan barroko itxuraren gauzak emonda.

Gaur, gero esango doten lez, ez dakit onegaitik izango ete dan, baiña... itsas-uraren kutsapenagaitik, beren bir-garbiketarako ez daukalako Jibraltarreko itsas-estutasuna baiño besterik eta Europa`ren Ego-aldea, Afrika`ren Iparraldea eta Ekialde`aren Ego ta Ipar-lurraldearen zikin-zuloa dan lez, nai-ta bi-iru itsas-arrantzal ontzi-txiki ikusi, arrantzale eta nekazaritza guzti ori bertan itzita, dana, ikusketari edo txangolitzara (turismo, expedicionario) eta etxe-egiteari emonda dago.

EDESTIA:

Ugarte onek, balekite K.a. 4.000 urte baiño ariñago giza-bizitza eukitea.

Dana dala, K.a. 1.000 urte baiño ariñagotik, Iberiar jakintsuak (cultura) joan zirala esaten dabe, ugarte orrein inguruetan bizi ziranentzako oso erakargarriak edo atsegiñezkoak (atractivo) ziralako eta arriskuzko (comprometido) lur-baten biurtu zan, erasoak sarritan eukiten ebazalako.

Baiña... nork esan leike ez zirala Kromañoiak izan eta euren leenengo izkuntza Euskerea..., denbora aietan Loira-ibaitik Kadiz`erañio Kromañoi edo Euskaldunak baiño ez ba-giñan izan ?

Keltiarrak, K.a. bi-milla urte ariñago bakarrik asi ziran euren zabalkuntzakaz. Eta zer ziran germaniar-indoeurpeo areik..... gaur Europa`ren gizan %`tik 77 Kromañoi edo Euskaldunak ba-gara ?

Fenizia eta Grezia`tar merkatariak edo saltzailleak be ibili ziran izparter edo itsas-bazter orreitan, baiña ez ziran luzaro geratu.

K.a. VII`n mendean Kartagotarrak bertaratu ziran eta IBOSIM`eko iria sortu eben.

Puig des Molins`eko illerrian K.a. 654`ko Kartago`tar aztarnak aurkitu dira, lurpeko illobiaren (hipogeo o obovedas subterranas donde se conservaban los cadaveres sin quemarlos) arkaitzetan ia 5.000 izen xixelgintzatutakoari atzemana emon dautsielako.

K.a. I`go mendean erromatarren Uria izango zan Ebusus izenagaz.

K.o. 1.000 urte luzaroan Bandaloak, Bizantziarrak eta Mauritarrak egon ziran eta oneik izan ziran Eibissa gorenengo edertasunera eroan ebenak XI-XII`n mendeetan.

1.235`an I Jaime Aragoi`ko errege-menderatzaillearen zaldi-gaiñeko De Montgri`tar Gillem jabetu zan ugarteagaz eta I Jaime erregeak, l`Enpordà, Bartzelona eta Tarragona`ko giza-sumeakaz jendezkatu eban.

Ortik aurrerantza, bultzakada aundia artu eban Aragoi`ko erritar barriakaz, merkataritzan eta erriak bear eben esku-lanetan geitzen asi zalako.

Baiña, lurreko lan-arloetan, gelditasun aundi bat sortzen asi zalako, nekazaritzaren arloan iskanbil edo matxinada gogorrak sortu ziran, 1.450`an eta 1.521-1.523`an Mallorkan sortu ziran`en antzera, I Karlos`ek gogorregi geratu ebazanak.

Gero, XVI eta XVII`garrengo gizaldietan Amerika`ko agerketarekin, lur-arteko inguruan lanaren-eza sortu zan, baleares`eko itsas-ugartedi guztia gainberako bidean sartu ebana.

XVIII`n gizaldian Turkia`ren eraso-aldi gogorrak euki ebazan.

Ugarte oneitan XIX`n gizaldi guztian, beti egon dira eztabaida gogorrak Uri`tar ta Nekazari`en artean, daukiezan lurak txiroak diralako eta XX`garrenean aldatzen asi, txangolaritzaren bideak zabaltzen asi ziralako.

Len Uritarrak Nekazariakaz asarratuta egon ba-ziran gizarte areik aitor-seme`en morroien-morroiko (tiempos valvasores) denborak ziralako, gaur egun langilleak edo nekazariak-be asarratuta dagoz, lau Uri`tar edo merkataritzazko-txangolari-zaleen artean bakarrik kontroletan dabezelako irabazten diran diru geienak.

Zekula ez dira konpondu euren NORTASUNA galdu ebenetik (antziñean izan zana) eta gaur berakada aundi baten sartuta dagoz (gero ikusiko dan lez), ez ba-dira laster konturatzen, dagozan estetikazko utsaltasunetik, porrot egitera dagozela bideratuta.

Mundu onetan, egiten diran gauza guztiak NORTASUNAREN EKANDUZKO ARDURAN egiten diran gauzak izan bear dira, gure sentipen eta begiaren aurrean, Ekanduzko (moral-etika) ekintzak berez !! giza`ren gorputz-aurpegiak eta gauzaren itxurak, edertasunera on-bideratzen dabezelako.

Orreik dira JAINKOA`k Mundu onen BEREZTASUNARI ipini EUTSOZAN BEREZTASUNEZKO LEGEA`k. ETIKA eta ESTETIKA MATEMATIKA`ren NEURRI-BARDIÑEZKO OREKAN joan daitezkan.

OLAN EZ-BALITZ, NORTASUNAREN-GABETASUNA`K edo EZAK eta NORKERIAREN BELARRI-ITSUSI ta MOTZ`ak, BEREZ !! AGIRI-AGIRIAN AGERTUTEN DIRA.

Ori da guk ikertu bear dogun edo eta iker-arakatu bear dogun "FISIKA`ren ARLOA" "EKANDUZKO-MATEMATIKA"ren bidetik. Gure azturazko-bidean, jakintzaren-egarriak asetu daitezcan.

Baiña...., ZALANTZARIK-GABE, BEREZTASUNA`ren GAI`en BIOTZETIK AGERTZEN JAKUZAN BALDINTZAN (con las condiciones normativas o legales que se desprenden de la naturaleza de èsta Creaciòn).

LEGEZ eta SENTIPENEZ, BEAR DOGUN: "EKINTZA`ren ASKATASUNA" edo "EKINTZAZKO BAKEAREN-OREKA" k Lortzeko = LOTSA`zko ARDURAK - GIZA`ri ZOR DAUTZAGUZAN BARDINTASUNEZKO ESKUBIDEAKAITIK AUNIZTUTA (multiplicado) IZAN BEAR DALAKO eta gero AZPIKO BERDINTASUN-LEZ (como denominador comùn), GIZARTE GUZTIAREN ARTEAN ZATIKATUTA.

GAI`onen ADIERAZPENEKO ZENTZUAK LEEN ALAN ESKATZEN DAUALAKO EGITEA. Geroz edo eta ostean: "GURE BEARREZKO ARTU-EMONAK GAUZA`ren EKINTZAN, ASKATASUNEZKO NEURRIAN AGERTU DAITEZAN".

SARRERA:

Gure lagun-onak diran eta Urduliz`en bizi diran Etxegarai ta Etxebarria`tar Maite (bertakoa) eta Olazaran ta Gazton`tar Jesus`ekin (au, Napparroa`n Lizarra`ondoan dagoan Murietas`eko erritxokoa dana) batera erabagi gendun Eibissa`ko ugartean 15 egun oneik egin, Inverso`k irugarren adifneko edo zartzarozko adifnetan sartuta gagozenai laguntzeko, eskeintzen dauazan opaka`ren (ofertas) artean oneri ebatuta.

Poz-aundiagoa artu neban, Lourdes nire emaztea etxera etorri zanean eta lemoa ta Zorrontzatic asko doiazela esan ebanean.

2.007`an JORRAILLA`ren 25`eko EGUASTENA: **LEENENGO EGUNA**

Eldu zan, joan bear gendun eguna eta Jorrailla`ren 25`ean 12`terdietarako, Ormazabal`tar Pedro koñatua eta Atutxa`tar Mila nire arrebak Loiu`ko egazkin-zelai edo aide-portura eroan ginduezan biok.

Maite eta Jesus`egaz alkartuta, leen egin bear genduna egitera joan giñan eta bide-zorro edo pardelak marratu edo markatu genduzanean, aide-portuko kefetegian eroan genduzan ogi-tartekoak, garagardoakaz akaita ta

txortalo`ko mentagaz (menta-poleo) edo sendatzeko-belarragaz jan eta edan genduzan.

Ordu-biak eta amarrean Bartzelona`ra eroan bear ginduzan egazkiñera igon gendun eta iruretan bertan egon giñan. Denbora ona egin eban eta egazkiñetik ondo baiño obeto ikusten ziran Bizkai, Napar-Aragoi ta Katalunia`ko erritxoak.

Itxaron bear gendulako, Bartzelona`ko egazkin-zelai edo aide-portu`tik ibili giñan eta osterabe kafetegira joan giñan, garagardo, kafeinabako akaita eta sendatzeko-belarrak artzera.

4`terdian artu gendun osterabe egazkiña eta seirak lauren gitxiagotan eldu giñan Eibissa`ra.

Bidaia`ren tresnerira joan giñan, eroan genduzan biderako-zorroak batzen eta guri itxaroten egon zan beribil aundira joan giñanean, taldegidari bat aurkeztu jakun eta onek, zer egin bear gendun esan-da sei-terdian urten gendun arrotzetxe edo ostal-etxerantza.

Bidean eta ostatu-etxera (hostal, hotel) eldu orduko, soloetako nekazarien lanak edo ondo ikusten zana begiratzen asi nitzan eta oso baragarri ikusi nebazan ango inguruak, geienak jorratu barik eta bertan itzita, belarrak ebagi-barik eta sasiak nun-nai ikusten nebazalako. An-emenka bakarrik ikusten zan ondo apaindutako solo baten-bat, patatea, indi-baba, baba-zuri eta abar`egaz, oso gitxi baiña, guztiz iru ez ziralako izan.

Igalidun-zuaitz naiko ikusi nebazan, geien gigil-urritz edo arbendol-ondo`ak (almendros) ziran eta piku edo iko asko be bai.

San-Antoniño`ko inguruan bide-geienak estu ta konpondu-barik egozan eta leenengo egun orreitan ez neutsen garrantzi aundirik emon, baiña neure buruaren gogoan eroan neban bai !!, beste opor-bidaietan beti eroaten doazan lez, gauza orreik, geratzen ziran amalau opor-egunetan kontuan artuko nabazala, idaz-lan oneitan agertu daitezcan.

Zazpi`rak bost-minutu gitxiagoetan eldu giñan "Hotel Sol-Pinet-Playa"ra eta bertan arrerak (recepciòn) egiten diran tokira joan da, arduradun edo artzaillegana aurreratu gintzazan, bakoitzaren lo-gelak xedatu (asignar) edo izendatu eta giltzak emon dagiskuezan.

Gure lagunak diran Maite ta Jesus`eri, ogebateko gela-bat emon eutseen eta eurak ez ziralako egon oituratuta batera lo-egiten, guri emoneko oge-biko gelagaz aldatu gendun eta danok pozik geratu giñan

Gelan sartu eta jantziak bere lekuetan antolatu genduzanean, aurpegia otz-arazi edo ozkirritu (refrescar) eta afaltzeko bera joan giñan.

Jan-tokian mai-tresnak, nor-berak artu bear dauz eta bardiñ janari gauzak, jan-tokiko gela, olan antolatuta dagoelako.

Jan-gela, janari ezberdin, ederbegian eta ugaritasunean apainduta egon zan, nor-berak, nai-gure eban beste janari jateko gertu.

Nik, litxu edo urraza (lechuga), tomate eta kipula naiko jan neban eta gero arraiña saltsa gozoagaz. Ez neban igali edo sagar-ale`rik (fruta) jan eta afal-ostean akaita edatera joan giñan. Txola-be artu gendun, Jesus`ek patxarana eta nik "ron-negrita" eta Lourdes`ek ikusi ebanean bereala esan eustan "azkenekoa izan daitela !!".

Gaba guztietan bingo ta jantza eukiten gendun eta gure ebanak gure-arteartean kartetako-jokua.

Jesus, Maite eta ni, 10`k eta laurenentan ogera joan giñan, ni irakurten eta Lourdes 12`ak lauren gitxiagotan ogeratu zan.

2.007`an JORRAILLA`ren 26`ko EGUENA:

BIGARREN EGUNA

8`retan jagi giñan eta garbitu ostean ondo gosalduta 10`etan rutier`en berbaldia euki gendun, Eibssa egunero ikustekotan, zelako ibil-bideak euki genduzan jakiteko.

Rutier`ek bere antolamendua erakutsita, otelean baster baten egon zan mai-baten ezarri zan eta gura ebenentzat txartelak saltzen asi zan.

Lemoa`tar Anton eta bere emazte Karmen ta Julian eta bere emazteak deitu euskuen eta esan: Bidai-orreik dirua atarateko bakarrik zirala eta danon artean auto-bus bat egun guztirako alokatuta naikoa zala Eibissa ikusteko eta itsasotik bardin. Janariak gaiñera, ostatu-etxeko sarrerak egiten diran lekuan arriñagoko egunean eskatu ezker bertan emoten dabez eta beste eguneko denbora guztia, guk gura dogun eratara erabili geunkela esan euskuen.

Erabagi orreitan geratu giñan eta San Antoniño`ra joan giñan erria ta euken kai-ederra ikustera.

Oiñez joan giñan eta bidean konturatuten joan nintzan ikusten neban guztiagaz.

Dana anka-z-gora euki eben, oin-bide, gurdi-bide ta baztar guztiak konpondu ta edertuten ibili ziralako. Gero jakin neban oraindiño ez zala txangolaritzaren denbora eta gu giñela inser-soa`ren azkeneko bidaikoak, gu joanda egun batzuk-barru azten zalako txango-aldia.

San Antoniño`n egon giñanean Urien`tar Jesus aurreratu jakun eta zabalgunean edo plaza`n egon zan txabolan txangoen-arduradugana joan zan gure bidaiaren billakuntza egiteko.

Billakuntzaren ixilpeko edo barreneko gauzakaz jabetuta eta plaza`ko taberna baten zuri, limurreta edo mosto eta bermut edanda, berandu zalako eta gure ostatu-etxe edo ostal-etxea itsasoa`ren beste alderdian egoalako, txalupa edo irurogeientzako zan ontzi baten igon gendun baktzak euro-bi ordainduta eta bereala etxera joan giñan.

Bazkaldu ostean Maite, Lourdes eta Jesus ondartzara joan ziran bitartean, nik gelara igon neban, lo-arin bat egitera joan nintzan, bostak lauren gitxiagorarte.

San Antoniño`tik ostera eginda, afari ostetik jantzan asi giñan eta bingo`ra jokatu, danok festa eder-giro baten.

2.007`an JORRAILLA`ren 27`ko BARIKUA:

IRUGARREN EGUNA

Emen, bakarrik aipatu bear dodaz, zeintzuk izan ziran bardin antzeko opor-egunak, nik ikusitakoa gero, zerrenda baten antzera adi-erazi edo xeekatzeko.

Egun onen bazkal-ostean, unekadatan baiña, eten-bako euri apur-bat egin eban eta ori zan egun-giroan euki gendun aldaketa bakarra, bestek denbora onak eta bardin-antzekoak ziralako.

2.007`an JORRAILLA`ren 28`ko ZAPATUA (laugarren eguna):

Lagunen-artean, nai-ta jolas-jai opor-egunak izan, agertzen dira bai goi-bel`ezko edo zalantzazko egunak, leenengo aldizko bidai baten alkar-aditzen danean batera jokatzeko, lagun-joko orreitan, ondo ulertzen ez diran gauzak agertzen diranean.

Laster aienatu ziran baiña laiño-baltz eta erantzun-txar (adibidez: Nora zoaz ? // Ogera !! // Zergaitik ? // Aurre-gurintxo`ak (prostata) estu-aldian sartu naualako !!) orreik Jesus`egaz berba egin nebanean.

2.007`an JORRAILLA`ren 29`ko DOMEKA (bost`garren eguna):

Goizeko zazpi`terdian jagi giñan eta bederatzirak ziranean gela`tik urten gendunean Maite eta Jesus`egaz alkartuta, barauste (desayuno) edo goizeko gosaria jatera joan giñan.

Lemoa`tar eta Zornotzakoakaz alkartuta, danak San Antoniño`ko Eleiza`n eguerdiko amabietan emoten eben Mesa-Santuan kide izateko joan giñan.

Eleiza bete-beterik egoan eta askok edo ainbat beintzat kaletik entzun bear izan eben, Eleiz-barruan ez zalako lekurik egon.

Mezadun edo meza abestua zentzu aundiz emon eben apaiz-gazteak Ego-Amerikakoa izan zan.

Eta Mezea amaitu zanean, abadeari baimena eskatuta, danok batera Euskeraz abestuta, ezkerak emon geuntzezan JAUNGOIKOA`ri.

Danak geratu ziran ao-zabalik, abestalde ura nungoa zan jakin gurean eta nungo edo zelako izkuntzan abestuten eben.

Eleiza`tik beko enparantzara beratu gintzazanean txistua`ren doiñua entzun neban eta ikustera joan nintzan.

Eta euren arbasoen jantziakaz eta seska edo kañaberazko txistu ta danboliñaren doñuagaz (Aragoiko oiñordezkoak izateagaitik ? dana-dala, danean, gure antzekoak oso-osoa diranak) jausika jantzan ibili ziran eta ainbat argazki atara neutsezan.

Gero bertan, zabalguneko enparantzaz egoan jan ta edaritegi leku baten ardau-zuri, mosto ta bermut edanda, itsas-ontzi`an etxera (ostatura) joan giñan bazkaltzera.

2.007`an APRILLA`ren (Jorrailla) 30`eko ASTELEENA (sei`garren eguna):

Aurretik esan bear dot, gaurko egun au atseginkorra eta oso polita izan zala. Nai-ta Lourdes`ek aize apur bategaitik billurtu eta bera pertse edo jersey barik ez doala esan.

Baraustea edo gosaria (desayuno) eginda eta arrerak (recepciòn) egiten diran lekuan, agindu genduzan ogitarteko (bocadillos), ura ta igaliak (fruta) artuta, goizeko 10`etan eta ariñago alokatu gendun 22 ezar-leku daukazan belbil-busera (autobus) irripartsu eta egun-on bateko itxaropenean igon gendun, emen aitaturko doazenak:

Belaustegi`tar Julian eta bere emazte Mendikote`tar Karmen // Etxebarria`tar Anton eta Karmen bere emaztea // Arteaga`tar Joakina eta bere senar Arraeta`tar Fernando // Bilbao`tar Marian eta bere senar Urien`tar Jesus // Etxegarai`tar Maite eta bere senar Olazaran`tar Jesus // Berrio`tar Joselu ta bere emazte Azpiazu`tar Bego // Manzizidor ta Ugarte`tar Karmele eta Arteaga`tar Gregori // Nati`tar Diez eta bere senar Diez`tar Jesus // Anjela Albarado eta bere senar Kruz`tar Faustino // Barroeta ta Gorritxo`tar Lourdes eta bere senar Atutxa eta Agirre`tar paul.

Txorien belbil-busa (autobus) ezan leike izan zala, sartu gintzazanetik abestuten asi giñelako eta ez gintzazan izildu, bidaia amaituarte.

Merezimendu aundia emon bear jakie baiña, Arteaga`tar Josepin eta Olazaran`tar Jesus`i, eurak izan zirelako abesti guztiakaz gogoratzen ziranak eta bide batez zuzendariak (directores).

San Antonion gure Otel Sol Pinet Playa`ko etxetik urten eta Pou des Rafals, Sant Agusti des Bedrà, capella d`en Beia`tik aldatuta, SANT JOSEP DE SA TALAIA`ra eldu giñan.

Ordu erdiko epea emon euskun Paulino belbil-busa`ren eramailleak eta auzune txukun zainduta egoala ikusita Eleiza ikustera joan giñan. Bertan Aita-Gurea abestu gendun eta barruan egon ziranak ao-zabalik itzita berebillera igon gendun.

Gero Egazki-zelaia`ren ondotik Sant Jordi de ses Salines eta San Françesc de s`Estany, ses Salines "MALYBU" ondartzera, punta de la Rama

ta Punta de sa Torre de ses Portes lur-muturren bitartean dagoena, ikustera joan giñan.

Gatz asko ikusi gendun eta euki eben ondartz eder onetara, ospatsu edo izendun asko joaten zirala esan euskuen. Bere eguzki-margoaren ederra ta miresgarria izan zan ondar-baster eta luze-zabal au.

Belbil-bus`era igonda etorri giñan lekutik igonda EIBISSA`ra joan giñan.

Erri onek daukan garrantziagaz, nik ikusitakoagaitik erri bezela, ez dabe ain txukun zaintzen eta eten-bako lan-zeregiñakaz dabiz. Ez dira izango.....zeregin guzti orreik diruaren igespide-bat ?. Itzi daiguzan susmo edo sinisgaitz orreik eta goazan arira.

Ordu bateko epea emon euskun Paulino`k eta bereala arresizko (amurallado) erri zarrera joan giñan.

Ara joan giñan orduko Gotzai-Eleiza edo giltzatuta egon zan Eleiz-Nagusia ikusteko bidea denbora luzetxokoa izan zalako, ez gendun guk gura gendun-beste ikusi, baiña a-ta guzti ondo arakatu (curiosear) gendun inguru guztia eta ainbat argazki atara genduzan.

Eibissa`tik, Puig d`en Balls, Santa Gertrudis de fruitera, Sant Miquel de Balansat, Sant Joan de Labritja, Kala Xarraka eta Sillot des Renkli edo Ciudad del Mar`etik Portinatx`en bazkaltzera joan giñan.

Ingurua ez gendun ikusi, baiña Paulino`ri itanduta, Portinatx`eko argidorrea eta es-Portitxol lur muturren bitartean dauan Portinatx`eko itsasxoko`ren (ez genduna ikusi) ondoan dagoen jan eta edaritegian bazkaldu gendun.

Maien jarri giñan eta picnic pardeltxo`tik ogitartekoak (bocadillos), igaliak (fruta) eta bertan eskatu gendun ura ta ardauagaz, txantxetako solasketan bazkaldu gendun.

Akaita, txolak eta txokorrak errearte egon giñan eta osterabe, belbil-busera igonda, Sant Joan de Labritja, Sant Bicent de sa Cala`tik San Carles de Peralta`ra gure ebanak paitxarra eroatera joan giñan.

San Karles`etik eta d`Eibissa`ko museu etnogràfic aldenduta, Santa Eulalia des Riu`ra joan giñan.

Santa Eulalian, ordu beteko epea euki gendun erri politau ikusteko.

Edertasun aundiko eta garbia da erri au, daukazan margoak ikusgarriak diralako.

Nun-nai eta txukun-txukun ipinita eukezan margo desberdiñean mota askoko lorak, egun zoragarri onen garbi ta argitasunezko eguzkiagaz, itsasoaren margoarekin ezin bestean aldi-bateratuta (sincronizados) egon ziranak, txangolaria`ri miragarritzko irudi ederra erakusten eutsoezan.

Baiña agertu jakun bai, zoritxarrez agert bear ez diran gauzak, barrualdetik itsasora botatako lupetz-zikin bat, 150-200 m karratuan itsasoa ezinbestean loitzen ebana.

Belbil-bus`era joan giñanean, Julian gogoratu egin zan bertan Lemoa`ko Zubero`tar Jon futbol-jokalaria egoala, eta urrutizkiñetik deituta Jon bereala gure artean agertu zan.

Ez gendun denbora askorik agurtzeko euki, Paulino bus-gidariaren premiña nabaria zalako eta bera besarkatuta, pozez beterik itzita agurtu gendun.

Santa Eulalia des Riu`tik eta San Rafael de sa Creu`ren erritik joanda, SANT ANTONO DE PORTMANY`ra elduta ostalera eroan ginduzan.

Benetan, zorientasunezko eguna emon gendun.

2.007`an LORAILLA`ren (Orrilla) 1`eko ASTEARTEA edo MARTITZENA (zazpi`garren eguna):

Aizetsu ta illuna agertu jakun zazpi`garren egun au, baiña gure opor gogoentzat ez eben iruditu besterik, aukera ezberdin bat baiño, oporraren atsegintasunean.

Andrak bai pozik ?. A !! zelako eguna agertu jakien..., zarpiltegi edo dendetatik janzteko gauzak ikusten ibilteko.

Gu pepeloen antzera euren atzetik, pozik baiña !!, San Antoniño`ko alde zaar guztia ikusi gendulako eta andrak-be pozik ikusten genduzelako.

Gero edaritegi baten zeozer artuta etxera joan giñan bazkaltzera.

Bazkalduta nik gelara igon neban, ekarri neban ARRUPE`ri buruz liburua "Eleizan eztanda bat" (una explosiòn en la Iglesia), irakurteko gogoa euki nebalako.

Lourdes sei`terdian agertu zan eta jantzi ondoren, afaltzera joan giñan.

Andrak ez ziran egon pozik goizean dendari ibili ziranean bakarrik, urrengo egunerako Eskalante`n egiten zan jantzien azokara-be joateko egin-naiak antolatu ebezalako eta gizonak San Antoniñora joateko geratu giñan.

Gero batzuk futbola ikusten ibili ziran bitartean, besteak kartetaldi jokoan eta besteak jantzan, lo egiteko ordua agertu zan eta izil ezin besteko berritxu edo solaskerian gelarantza igon gendun.

2.007`an LORAILLA`ren (Orrilla) 2`ko ASTE-AZKENA edo EGUASTENA (zortzi`garren eguna):

Gu barautsia (desayunar) kentzera bera joan orduko, andrak Eskalante`ko azoka`ren bidea artuta egon ziran.

Gosari ostean gizonak alkartu giñanean, San Antonio`ko bidea artu gendun eta bidetik, itsas-untziren jabeakaz ia noz egingo gendun itsaso`ko egun-aldi ori ikustera joan giñan.

Itsas-ontzi`ko ugazaba`ren izenak: Biko ta Nogera`tar Jesus eta Ribas`tar Juan Antonio Mari izan ziran.

Mutil jator eta adikorrak eurak, gure ezaupide edo artu-emonetan oso biotz-zabalekoak eta argiak agertu eta izan ziralako.

Zortzi orduko itsas-ibilbide ori 300 euro`ko balioa eukiko ebala esan euskun eta eurak bideratzea gura ba-gendun, pozik egingo ebela, bazkal egiteko leku-onenak non dagozan erakutsita.

Eta eguraldia ? itandu geuntson.

Euren erantzuna: Eguzkitsu eta aize-bako eguna agertuarte itxaron bear eta zuek etxera joan orduko ez badau orrelako eguna egiten, zer egingo jako ?. Gu diru-barik eta zuek itsas-bidai orren gogoak bete barik, etxera itzuli bearra.

Bostekoak emon da eta edaritegian zeozer artuta oiñez joan giñan ostatu-etxera.

Ordu-batetan bertan egon giñan eta aurpegiak ozkirrituta ta illea euki ebenak orraztuta, bazkaltzera joan giñan.

Andrak, ordubat eta erdiak zirala, irripartsu agertu ziran eta bazkal ostean danak, gelatara joan giñan.

Bostak eta laurenarako danok alkartu giñan sarreran, aizea baiña biurri-aldatzen asi zalako eta lañoak iluntzen.... barrura sartu giñan eta solas`eko izketaldian batzuk, kartetan beste batzuk, afaldu, akaita`k artu eta lotara joan arte bingo ta jantzan eginda, arraztia alai emon gendun.

2.007`an LORAILLA`ren (Orrilla) 3`ko OSTEGUN edo EGUENA (bederatzi`garren eguna):

Egun onen aldaketa, bankutik diru apur-bat atara gendula zan eta atzoko egun-giroa baiño, gaurkoa egun ohea izan zala.

Ba-egoan beste alda-txiki bat-be, guk bankuko zeregiñetatik askatu gintzazanean eta Lemoa`tarrakaz alkartu. Oneik Eleiza ingurutik agertu ziranean guri begira, berba egin gure ba-genuen sakristau`gana joateko eskeinlari etorri ziralako. A !! zelako gogait-aldia (chapa, tabarra) emon dauskun.... Julian`ek: "Ia.... zoratuta itzi ginduzan !!".

Eta nik itandu neutsoenean: "Baiña zentzuz edo zentzurik-gabe". Anton`ek: "Ez, ez !! Zentzu aundiekin".

Orduan..., egon gura neuke beragaz, itaun batzuk egiteko.

Julian`ek: "Egoadi, egoadi !! erantzungo due-ta !".

Gabaz, futbola ikusten egon giñan eta Osasuna galtzen ikusi gendun Sebilla`ren aurka.

Egun ederra benetan.

2.007`an LORAILLA`ren (Orrilla) 4`ko OSTIRAL edo BARIKUA (amar`garren eguna):

Egun onetan Lourdes`ek eta nik, Bilbao`tar Marian eta bere senar Uribe`tar Jesus`ekin joan gintzazan errira. Eta itzulker a Berrio`tar Joselu ta bere emazte Azpiazu`tar Bego`rekin egin gendun.

Bego eta Joselu`k, esan euskuen zelako asmoa euki eben opor-aldi onen ostean egiteko eta nik nekez sinistu neutson.

Baiña egia izan-da bai !! Legunean, Santiago`raiñoko ibilbidea (ez nazena gogoratzen nondik-nora dan, baiña 854 km. 25 egunean egiteko esan ebala bai) illabeteko epean egiteko biok urten ebela jakin nuelako.

Eurak esaten euskuen, 25 eguneko epe-aldian beteteko asmoan egon zirala, baiña egun batzuk geiago izan arren bardin zala.

Arratsaldean, etxe-ostean dagon ondartzan eguzkia artuaz batera ibilten eta igerian poztasun osoz emon gendun.

2.007`an LORAILLA`ren (Orrilla) 5`eko LARUNBATA edo ZAPATUA (amaika`garren eguna):

Egun onetan Lourdes`ek eta nik gosari ostean, Lemoa`ra Leon`etik etorritakoak ziran Diez`tar Jesus bera, Lemoa`ko-Kare-beltz lantokira (Cementos-Lemona) lan egitera eta bere emaztea Diez`tar Nati, amaika seme-alabaren gurasoak diranak ostatu-etxeko ateetan alkartu giñan eta goizalde ori batera ibiltzeko aditu giñan.

Andik-ona naikoa ibilita eta zeozer artuta, itzultzea erabagi gendun eta bidean Urien`tar Jesus`egaz alkartu giñan

Au dendarik-denda ibili zan denbora guztian, beren ametz`eko txanoa (gorra) topatzen.

Gero konturatu gintzazan, bere emazte Mirian`ek eta gero berak esanda jakin gendulako, beren mesederako, txanoak txota (bisera) aundia euki bear ebala.

Orregaitik ibilten zan egunero denda guztietatik atzeman (sin poder encontrar) emon ezinik.

Berak, laguntza eukitearren eta gure emazteak atzipetu (seducir) ondoren, etxeraiño egon ziran denda guztiak ikustera eroan ebazan. Eta guk bidetik aurkitu gendun edaritegi baten ardau-zuri bana edanda etxera joan giñan.

Andrak, ez genduzan ikusi bazkaltzera joan arte.

Arratsalde osoa emon gendun ostal-etxe ostean dagon ondartzan jolasten, igeri ta eguzkia artzen.

Afaldu zazpi`terdian egin gendun eta sarrerak egiten diran lekuan Domeka`rako ogitartekoak (picnic) eskatuta, Reala`ren futbol jokoa akaita ta txola edaten gendun artean ikusitera joan giñan, ondoren amabi`terdiekarte jantzan eginda lotara joan giñan.

2.007'an LORAILLA'ren (Orrilla) 6'ko IGANDE edo DOMEKEA (amabi'garren eguna):

Oiturazko gauzak egin eta gero, prest egon giñan San Antonio'ko Eleizara joateko eta Meza santua entzunez gain, kide izateko prest egon giñan urten gendunetik.

Oraingoan ez zan izan ariñauko domekan egon zan Ego-Amerikako apaizen antzekorik, bertako erretorea izan zalako.

Eta bien arteko berdiñ-eza nabaria izan zan ikusi gendunetik.

Aurreko domekan, mezea asi baiño ordu erdi ariñagotik ezar-leku guztiak beteta egon ziran, lotsazko (conversaciones recatadas) berba ugari entzuten ziran eta iñok jaramonik egin barik, mezea asi zan unean danok isil eta prest egon giñan Kristo Jainkoagaz bat izateko.

Oraingoan ez zan izan bardin, erretoreak urten eban orduan, eleizaren gai-etxea, nai-ta oteundegi edo Sagrarioa egon, an egon giñen benetako Eleiza izateko baiño gaiñetik ipini ebalako, danari ixilik egoteko Jaunaren aurrean agindu ebanean.

Eleizara... alango egunetan egokitasunezko egoeran egoteko ainbeste denbora aurretik joaten garanean, farisau itxurak egiteko joan giñela esangura eben ?.

Oraindiño, Menperatzaille ta Katolikotasunezko-Abertzale fazizta (nacional-katoliko-imperialista) asko dagoz zoritxarrez, benetako eleiza gaia'ren azpitik ipinteko.

Zeren asmoz...., euren menpean egoteko ?. Nortzuk dira edo zeren atzean dagoz olango sinismena daukienak ?.

Kristo'ren Eleiza il-da baiño, bizirik bear dogu. Gu !! garalako Kristo ta Kristautasunezko Eleiza, daukaguzan JAUNGOIKOA'ren gai-legepean.

A-ta guzti eta Eibissan ez gintzazalako geiago joango edo egongo, bera'ri baimena eskatuta, mezea amaituta AITA-GUREA Euskeraz abestu gendun eta danok arrituta geratu ziran, nortzuk eta zer on-abestu gendun itanduta.

Gero, baragoko enparantzara joan da, edaritegi batera joan giñan, txibiak erregosita eta olio-aran batzuk janda, ardau-zuri, limurreta (mosto) eta bermut'ak edateko.

Etxera joateko, itsas-ontzira joan giñan eta bide batez, urrengo Itsas-egunerako (Astelenean) ez daiten ezer aaztu, egin bear gendun antolameduzko gauzatan egin genduzan.

Danean batera geratu gintzazan eta etxera joan giñan arratsaldea ostatu-etxearen eta inguruko eskuartekoakaz atsegintasunean egunari amaiera emoteko.

2.007'an LORAILLA'ren (Orrilla) 7'ko ASTELENA (amairu'garren eguna):

Eguzkitsu eta aize-bakoa agertu jakun egun eder-au.

Berari begira gure irudimenak, egaz egiten eben itsasoaren gainetik, lotatik itzartu giñanean eta gelako begira-tokitik (balcon) eguraldia ikusten urten gendunean.

Gosaldu ostetik alkartu giñan danok eta ostal`eko arreran (recepcion) ginduezan lekutik bakoitzaren ogitartekoak, ura eta ale edo igaliak (fruta) artuta (picnik) 11`etan itsas-ontzira igon gendun.

Txalupa`ren jabe, eramaille eta gidariak ziran Biko`tar Jesus eta Ribas`tar Juan Antonio M^ak plastikoz`ko ontzi-bat izotzez-beterik egon zana aurreratu euskun eta bertan edariak sartzeko ezkeintza egin ondoren, ia danok egon bagiñan itandu eben eta danok bertan egon giñela, ostal edo Otel Sol Pinet Playa ostatu ostean dauan itsas-txoko`tik, 11`kak eta laurenetan urten gendun.

Bidean joan giñela Por des Torrent itsas-arteko polita zana eta Konejera`ko ugarteia ikusi gendunean Juan Antonio`k esan eban, bertan : Anibal (Konejera`ko ugartean) K.a. 247-183`ko urte bitartean bizi zan Kartajinesen gudal-nagusia jaio zala.

Gero, Kala-Bassa`ra edo Bassa`ren itsas-txoko`ra joan giñan, oso atzegin eta txukun ipinita dagoena txango-zaleen (turistas) onerako, bere ondartzaren politagaz batera gizartearen serbitzurako toki-barri ta garbiak euki ebazalako.

Itsas-txoko`aren sarrerako eskom-aldera, lurrartean ate-bat ikusten zan eta Jesus ta Juan Antonio`k, ermita-zai bat (ermitaño) berton bizi zala eta gure ba-gendun ta bertan egon bazan, ikustera-be joan al-gintzazala esan euskun.

Be-aldean egon ziran txango-zaleentzako antolamenduzko prestaketak ikusita, jakin-minduta (llenos de curiosidad) gora joan giñan, eremutar edo bakar-zale ori ia nor zan eta zelan bizi zan jakiteko.

Ni ez nintzen lurko bizi-antzeko ori ikustera joan, baiña esan eustien Belaustegi`tar Julian eta beste batzuk ara joanda oge-gaiñen itzunde.... eta ibili zirala.

Gu goi-alde guztitik, an egon ziran Ama Birjiñ, Aita Santua`ren, Jesus eta ain-bat argazki ta irudigintza (estamperia) aundi ta txiki ikusten ibili gintzazanean eta bera gorantza igoten ikusita, beragana joan giñan, ia zer esaten euskun.

Gora joan giñan beragaz osterabe, an egoana berak emoneko zentzuan entzun eta ikusteko eta berak JAINKOA`ri otoitz egiteko eskatu ebenean, guk Aita-Gurea Euskeraz abestu geuntson.

Ez egoan zoratuta edo burutik egon, ez da gutxiagorik-be. Inguru guztia otoitz-lekua biurtuta euki eban sinist-geiegi erakusten ebalako eta nik geiegi jakin gurean ibilita, itandu neutsonen: "Beren sinismen guztia,

Jesus, Katolikotasunean eta Fatima`ko Ama-Birjiñean » ezartzen zala esan euskun.

Berak, artean esanekoakatik, adibidez: Azkeneko Aita Santua izango dala, katolikotasunezko erlijioa ezereztu egingo dala ta abar, bai !! “Mundu oneri eta gure artean egiten gagozenakaz, iñoz baiño txarrago” daukagula esan eban, eta ez eban arrazoien-gabetasunik euki.

Itanduten ibili nintzan bere izen ta bizitzaren ogi-bidezko lana`gaitik eta Jose (Pepe) deitzen ta maisua edo irakaslea zala esan eustien.

Nire onspenean (apreciación) baleiteke apaiz-irakasle zarsari-duna izan zala.

Bera berotasun aundian eta alai agurtuta, ostera joan giñan itsas-ontzira.

Gero, kap de la Bassa, kala Gorria eta Negre lur-muturretik aldatu giñanean Turkoa`katik egindako itsas-argi edo argi-dorrea (torre de comte) ikusita, sa-Konillera`ko ugartea inguratu eta bere lur-adarrean dauan argi-dorrea ikusita, Konte`ren ondartzarantza joan giñan.

Fedrà ugartea-be ikusi gendun eta bertan Eibissa`ren osteko-parean dagoan leize-zulo edo ar-zuloa-be (cueva) ondo egoana, bere denboran ainbat itsas-ontzi-txiki ostontzeko lekua izango zana.

Fedrà ugartea be ikusi gendun leize-zulotik urten gendunean.

Kondolar, Korral, Tarida`ko kalak edo itsas-arte politik ikusi genduzan eta ainbat aundiki edo aberats`en etxeak ikusi-be, itsas-ertzaren goi aldean ezereen lotsa barik eginda dagozenak. Esan leike lapurretan eginda dagozela, bestela ezin-lei ulertu.

Biko`tar Jesus`ek, Badellas`eko (Bedella) kala`tik aldatzen asi giñanean, beste ainbat aundikien etxe be, lenagokoen antzera eginda egon ziranak ikusi genduzan.

Gose izan giñan eta Jesus`ek: Zatituta etorten diran Lur-sagar (patatas) prijituak eta olio-aranak (aceitunas), arduagaz, bermut eta Koka-kola`gaz edateko atara euskuzan. Bera jan da gero, Juan antonio`k emotzezan amuakaz, arrantzale aldatuta.

S`Oratje, Kalo, d`Ort, kap Blank, Kap des Jueu itsas-arteko edo Kala`k eta Sabinarren lur muturretik dauan argi-dorrea ikusi eta es-Bendrel ta es-Bedra ugarteari beren Kala-Kala`ko argi-dorrea-be ikusita itzuli gintzazan etorri giñan lekutik joateko.

Ostera aberats`en etxeak begi bistan euki genduzanean Biko`tar Jesus`ek esan euskun, begitu: A da, Elen Mak Person jantzi-maixtra (modelo) aipatuaren etxea.

Eibissa guztia inguratzen daben itsas-bazter oneik oso politik diranak, ainbat ezberdiñezko eratarata jokatzeko aukeratu leiken bazterrak dira, lakartsuak (abruptos) diralako itsas-indarrak egin dauazan milloi askoko urtetan lurraren aurkako ekifñaldian eta bere izaeran dagoelako berak daukan edertasunaren onegarria.

Ordu-biak eta laurenak ziranean, Komte`ren itsas-arteko kala`n kairatu edo lurreratu giñan, bere goi-aldean eta piñu artean eroan genduzan ogi-tartekoak, ale edo igaliak (frutas) eta edariak jan edateko.

Denbora guztian kantari ta txantxetan oso alai ibili giñan zoragarritzko egun orretan eta jaten egon giñela danori argazkiak atara neutsezan.

Laurak eta laurenetan urten gendun pinu artetik eta itsas-ontziratuta, arratsaldeko seiretan gure ostalaren osteko itsas-txokoan ego giñan.

Lourdes eta ni gelara joanda turrustatu (duchar) egin giñan afaltzera joateko.

Anton Etxebarriak loteria ekarri euskun eta bananduta afaltzera joan giñan.

Akaitak edaten egon giñanean, euki gendu bai !! gure artean zer esan eta amabiak inguruan ogera joan giñan.

2.007`an LORAILLA`ren (Orrilla) 8`ko ASTEARTEA (amalau`garren eguna):

Azkeneko eguna zan eta alaba, suin, billoba edo bir- seme (nieto) eta Lemoa`ko loba`ri erosteko geratzen ziran azkeneko gauzaren eguna izan zan eta orretan emon gendun denbora geiena.

Baraua autsi-ta (desayunar) Lourdes eta ni San Antoniño`ra joan giñan. Nik geraldiki batzuk egin bear nebazan anka dala-ta, baiña ondo eldu giñan.

Lourdes dendetan sartuta ainbeste denbora egin ondoren, azkenean agertu jatan eta itzulkeran Eleiza`ren ondotik joanda sakristaukuntza egiten dauan gizonagaz alkartu giñan.

Julian`ek esan eben eran (berbatsu) agertu jakun eta izketaldia aurrerantza joan zanean, nik erriaren itxuragaitik erriko-lanakin anka gora euki ebalako, baratze ta inguruko ostal`etan lore-lanaren eza`gaitik eta orren gora beragaitik itandu neutsonen, beren erantzuna gogorra izan zan: "Euren ardurazko eskuetan ez zalako egon, lauen artean banatzen ebelako an ibiltezan diru guztia". Eta nik Eibissa`k itxuran bakarrik alegintzen zala azpiko ugerrak kolorea edo margoztuta kentzen alegintzen zirala`gaitik esan neutsonen, berak: "Diruaren ameskerian Ekanduzko arloa ezereztu egin dala" esan eban berak eta egia izan zan, orain esango doazenakaz, berori esangura ebalako.

Gure ostatu-etxetik San Antoniño porturaino eta portuan bertan, dan guztia ibilgune eginda dagoena, ez dago ez komunik, ez irolik, ez iturririk. Pitien, pitien ipinten dabizen berinpeetan edo berin-aterpeen (marquesinas) burdiñezko zozko`etan (estructuras) ugerraren ganean margoztuta estaldu (tapar) egiten dabe: Ugerrak bere lana eginda, noiz-arte iraun ?. Langilleak euren osasunerako-be ez dira gai, ainbeste kale-egaletan edo oin-bide guztietan ipinten dabizen kare-baltzazko galtzar-arriak (adokines) ebaten

dabizenean iñori ez neutson ikusi ago`ko babesik ipinten, ain kaltegarria izan da. Beste gauza bategaz-be konturatu nintzan eta nik ikusi neban ugartearen itsas-ondo edo itsas-bazterreko (litoral) guztian metro-biko zabaleran arrolio (petroleo) legortuagaz (seco) zikinduta egon zala barren guztia. Ni begitzen edo ikertzen egon nintzanean, mundrun edo pike (alquitran) zati-bigunak-be ikusi eta ikutu nebazan. Lotsagarria dana.

Eleiz-mutil edo sakristau-ura agurtu gendun (berak geiago gura eban baiña guk denborarik ez) eta ostalerantza joan giñan oiñez.

Lourdes`ek bidetik goazela lobarentzat soinpekoak (camisetas) erosi bear dauzela eta dendetara joan zan.

Ni, beti joaten gintzazan edaritegira joan nintzan eta ugazabagaz berbetan asi nintzan.

Onek, ostal guztiak daukiezan azpiko ur-eztiko (agua dulce) urtegiak ur-gaberik dagozela eta itsasoko ur-gazdunagaz beteta daukiezala esan eban. Eta batzuetan erabiltzen dauala ur ori.

Gure ostalean dauan ura, ur garbia, ur-gazbakoa zala esan ondoren, nik itauna egin neutsoan: "Ia itsasoko ura`ri gatza kentzeko tresnik ba-egoan" eta berak: "Gu gagozan itsasoko bestaldean ur-gazia`ri gatza kentzeko lantegi aundi bat dagoala, gu guztiontzat naikoa dana", baiña dirua balio dauena eta orregaitik batzuen okerkeriak.

Egia da benetan: Lurrarteko itsasoaren antzera, egia dala "Itxuran, askoz obeto dabizela EKANDUAN (etica, moral) baiño".

Lourdes agertu zan eta etxera joan giñan bazkaltzera.

Afal-ostean bingo`ra olgetan eta dantzan ibili-giñanean, Anton edo Julian`ek ez dakik nor, gabeko egoerak biztu (animar) egiten eban neskari esan eutsoen, gure azken eguna izan-lez, abestutako azken-agurra egingo gendula eta ainbat denbora itxaroten egon eta gero, ia danak ogerantza joan ziranean esan euskun abestuteko. Eta abestu barik agurtu genduzan.

2.007`an LORAILLA`en (Orrilla) 9`ko ASTE-AZKEN edo EGUASTENA (amabost`garren eguna):

Egun argia ta eguskitsua agertu jakun Orrilla`ren 9`garren egun au eta askena gure oporralditakoa.

Biok JAINKOA eskertu gendun eta garbituta baraustrera edo gosaltzera joan giñan.

Apur-batean danon arteko solas-berbetan ibili giñan azkeneko egunaldiaren zirrara edo biotz-ondokoa kentzeko eta ostera joan giñan gelara.

Dana prest euki gendunean, zorroak artu eta bera joan giñan, etorri giñanean egin gendun bidaia etxerantza berriz egiteko.

Loiu`ra eldu giñanean eta pardelak artuta, gauza bat ikusi neban, mindu edo asarratu ninduana: pardel edo zorroak batzen ziran tokiren

sarrerako iragarkian “BAGAGEAK – BAGGAGE – EQUIPAJES” EUSKERAZ ipinten ebalako. Ez zan izango obe “BIDEKO ZORROEN BERRIZ-ARTZEKO edo BERAGANATZEKO LEKU edo GUNE edo alango EUSKERAZ BEINTZAT zeozer bat ?. Zertarako daukaguz, gure aurrekoak ainbesteko lanagaz egin dabezan iztegiak ?.

Gure alaba nagusiak urten euskun etxera eroateko eta Jesus eta Maite agurtuta Mari Lurdes`ek etxera ekarri ginduzan.

ONDORIOA:

Gure zarbidedun oneitan, argiago ikusten diralako egin bear eta egiten doguzan gauzak, eskertzekoak dira egiten diran erri lanak, gizarte jakintsulez goragoko maillak zentzuz igoten gabizelako.

Baiña gaurko eguna Bagilla`ren 5`eko Astearte edo Martitzen au ez da ez !! edo ez dauka iñorengo zoriuntasunik !! gaur goizeko seiretan izparringia erosi dotenean izki aundiekin leenengo irakurri dotena E.T.A`k bakearen geldi-unea apurtu daualako.

GAURKO EUSKALDUNA`k EUSKALERRIA`ren ELBURUZKO GARAI PENARI JAKITURI ta ZEAZTASUN AUNDIZ BEGITU BEAR DAUTZAGU, beste lekubatzuetatik arazo aundiak daukaguzelako zuzentasunezko bidean sartzeko eta... ez da ez!! gauza ona gure EUSKAL-ERRIARENTZAT, menperatzaileak Mundu au gaur daukien urduritasunezko leize-zuloan sartuta edo amiltegitara begira, ez dalako ona urduritasun edo zain-ikara geiagorik.

“Euren arrazoia errezago artzen daualako”

ATUTXA`tar Paul
ZORNOTZA`n 2.007`an ORRILLA`ren 5`ean

- NORTASUNEZ`ko IZAERA`ren ZENTZUA -

(I)

JAINKOA`k, Mundu onetara bialtzen gaituanean, ez gara etorten ardurabako gauza-bat izateko, gure borondatearen zentzunean NOR izateko baiño eta jaioten garanean artzen dogu leen Nortasunezko zentzua, gizatuta jaioten garalako.

Eta guk gura izan barik, senitartean jaioten garan ezkeru, sendi orren etorkizunagaz asten gara leen-soiñekoak jansten, leiñuaren izenagaz.

Jakin daigun NORI deitzen jakon, Nor-beren izena ipinten dauskue eta izen orregaz, bagoaz azpiko leen galtza-zuri edo praka-txikerrak eta soinpeko soiñekoak jazten.

Batez-be, auzotasunezko sendipean eta JAINKOA`ren beldur edo lotsean-pean bir-lotuta jaioten gara eta izatasun orrek, arkondara, prakak, artillezko pertse edo jersei eta galtzerdiakaz ia NORTASUNA`ren zentzuan ipinten gaitu.

Baiña oraindiño, aundienetariko eta garrantzi aundieneko gauzaren gabetasunean gagoz, asieratik arbasoen zentzuak, euren egarrizko ulermen bidetik, gure bizitzari ez ba eutsoen jantzi IZKUNTZA`ren Zapel-on (txapel) bategaz, soin-gaiñeko berogarri-sendo ta gogorragaz eta oiñetarako mendi-oski edo bortzegi ederrakaz, bizi onetan, aurre egin bear jakon edozein gauzari egiteko. Berak emon euskun izena eta beragaitik Mundu guztian ezagutzen gaituelako.

Badaukagu-ba, gure ARIMA`k leen, JAINKOA`k gai-aragi onen zentzuan jantzita eta gure arbasoak ainbeste mila urteko ikas-bidetik jantzi euskuen NORTASUNAGAZ, tresneri ederrak bizitzari aurre egiteko.

Or !! agertu giñan NORTASUNA`ren zentzu ederrenean ondo jantzita, gizon-emakumeak daukiezan biotz-gabekerizko ankerkeriak eta ekaitzazko denboraldiaren aurka ondo babestuta.

Milla-urte askoren Demokrazizko zentzu ederrenean etorri gara, JANGOIKO`aren eta BERE bereztasunezko LEGE`en ulermena, ardura ederrenean ondo zainduta.

Mundu osoan eta gure Europa onetan batez-be, Euskaldunen berbea beti izanda EGIA`ren ikurra, JAINKOA eta GIZARTEA`ren aurrean LOTSAZ`ko ardura aundikoa izan dalako. Orregaitik EKANDU`zko ZENTZU`aren arloan bera izanda oraiñarte aundiena.

IÑOR !! EZ DA IZAN GAI ORAIÑ ARTE, DAUKAGUN EUSKAL-NORTASUNAREN BORONDATEA MAKURTZEKO, JAUNGOIKO`aren SINISMEN EDERRENEAN BIZI GIÑELAKO eta MUNDU ONETAN EZ DAGOELAKO INDARRIK SINISMEN-ORI MENPERATZEKO.

Beti !! ERRIAREN ALDERDIZKO EZBERDIN ERAK ULERMEN AUNDIAN EUKITA zaindu genduzan zalantzarik-gabe EUSKAL ELBURUAK eta EZ DAIGUN AZTU orko bidetik ibilita, beti agertu garela GARAI PENTSU.

Baiña....., zer gertatzen jaku gaur ?. XAUTZAILLETASUNEZKO (consumismo) denboraldi onei esker....., bereztasunaren edo bereztasunezko lege`tik urruntzen asi garanean ?.

Gaur nik ikusitakoagaitik esan bear dot, ez dakigula nondik-nora gabizen eta okerreko aolkuak artuta, etxea barrutik apurtzen gabizela.

Eta ez da urrun joan bear, gure etxetik asi-ta sortzen diralako gauza orreik.

Menperatzaillaren trebetasuna nondik-nora doa ?.

Ondo baiño obeto dakie zer egin bear dan eta orregaitik itxaroten dabiz, gure NORTASUNA xirriborratu, nastu edo illundu daiten, indarra galduta euren Espaina`ko asmakizuna indartu daiten.

Zein da orduan... euren egitamuaren saioa ?.

Euskerea eta E.T.A.`ren bitartetik dabiz jokutzen erriaren gizartea gogaitu daiten.

Gure artean oker edo guzurrezko ulermenak buruan sartuta Euskerearen buruz, umeari ez dautsegulako daukan garrantzia erakusten (Ama`ren izkuntza edo gure izenaren oiñarria dala) umeak NORTASUNAREN-GARRANTZIGABETASUNEAN berdintasunezko neurri orren parean, menderatzailletasunezko izkuntza (gaztelera) artzen dabe.

Orregaitik eurok, "ORAINDIÑO EZ DALA DENBOREA" eta igasaldi edo igaro-aldi luzea izango dala esaten dabe, Euskal- NORTASUNARI oraindiño, ez dautselako indar naikorik kendu.

Non igertzen dabe eurak, edo zelango neurriak daukiez ori jakiteko ?. Auteskundetan zalantzarik gabe.

Orregaitik lau urte orreitan E.T.A.`gaz jolasten dabe, onek mozollo`en antzera joko ori on-artuta eta ez ba-dabez eurak (menperatzaillak) gure dabezan emaitzak lortzen, ibiltzen ipini direzan bake-aurreraldiak apurtzen dabez eta daukiezan ezker-eskubi indarrak batuta E.T.A. azpiratzera doiazela esaten dabe.

Goazan euren itzaldietan zer esaten daben ikustera eta uste dot argi geratuko dala: Rajoi`k, E.T.A. azpiratzen doala esaten dauenean, bere menperatzaillak esan beroetan, geiago esaten dauala ikusten dalako, (bestela begitu euren esanak) EUSKALERRIA azpiratzen doiela-be esaten dauelako.

Zapatero`ren Itzaldia, Elkartasunezkoa (confederaciòn) izan barik, bateratzekoa (federaciòn) egiten dau, Nortasuna kontuan euki gabe, bere azpiko asmakizuna Laterritasunaren jokia dalako.

Biak gogotasun bardiñekoak diralako, beti alkartuko dira EUSKALERRIA`ren aurka, gaurko egunean Nafartarrarekin egin dauan antzera, euren eskuetan egon daiten.

Gauza oneik, ezeren lotsarik-gabe egiten dabez, aukerak betidanik daukiezelako E.T.A.`rekin jokia barriztu ezker, iñork ez dauelako sinisten gauza onekaz ain guzurtiak izango direnik eta osterabe beste lau-urteko joko bardiña EUSKALERRIAREN urduritasuna lortzeko urrengo auteskunderarte.

Guk obeto jakin bear gendun politikako jokoak jolasten, arrazoia gudan daualako. Konturatzan zarete....., a-zelango urduritasuna sartzen jaken ABERTZALEAK irabazten dogunean ?.

Eurak politikako jokoan jolasten dabizenean eta berri-emailletan daukiezan taldeakaz abestalde aundi bat eginda, era azkotako eta guzur-utsezko berbakin "EUSKALERRIAK EZ DAUKALA ZENTZURIK ESATEN DABE". Eta tanborrada uts orreik billurtzen gaitue....., Euskal talde guztien artean ontzigelan daukaguzan trapu-zar guztiak bata besteari botaten asteko ?.

Euren guzur joko-ori egiteko nungo JAUNGOIKOA`gaz dabiltz..., berezkotasunezko-erri bizi dan baten aurrean enda-iltzaille (genocidas) amurratu agertzeko ?.

Mundu au geurea da ?. Ala guk erabiltzeko BERA`k daukazan legeakaz ?.

Katoliko-abertzaleak (Kristauak ez direnak) gaur, badaukie-bai !! alango arrazoiaren aurrean zer gogoratu, 1.936`an sortuzana gaur osterabe ez daiten sortu, orduan Mundu guztian zabaldu egin ebalako, euren "COMO !! HAN COMBATIDO CON LA CRUZADA NACIONAL KATOLICISTA A LAS ORDAS ROJAS Y COMUNISTAS VASCAS". Emen eurak baiño sinismen askoz aundiagoko KATOLIKOAK egonda.

Zelan adierazi bestela..... Euren katolikotasunezko indar-faziztak Euskalerraren benetako katolikoan aurka borrokan egin ebala ?.

A-ta guzti, etxakie jausten arpegia lotseak eraginda, EZ !!.

Guzurti batek euki leuke lotsarik ? : "Guzurrean dabizenean ez behintzat"

Orregaz oartu bear gara eta gure benetako jokoak egin, "EUSKALERRIAK BERE BENETAKO SINISMENEAN ALAN ESKATZEN DAUALAKO".

ATUTXA`tar PAUL
ZONOTZAN 2.007`an BAGILLA`ren 12`an

- NORTASUNEZ`ko IZAERA`ren ZENTZUA -

(II)

Ariñagoko idaz-lanean ikusi dogu, Espainol menperatzaille diabru oneik zelango lan-jokoa egiten daben Euskalerrriaren NORTASUNA aienatu, urtu edo eurak gure daben lekura aldendu daiten.

Menperatzailleen asmakizun oneik nai-ta erromatarrengandik etorri, gure Euskalerrriarentzat kalte aundienak Aragoi`ko II`n Juan`en eskutik agertu jakuzan eta edestian zear asmo bardiñean orain-arte etorrira, gaur gure lepo gaiñean daukaguzenak dira.

Nafarroa`ko errege III`n Karlos "Biotz-Aundikoa" k, ikusi eban Nafar erre-iñuarentzat, gauzak zelan apurka, apurka joan ziran okertzen eta batez-be bere alaba I Blanka Aragoi`ko II`n Juan`egaz 1.420`an bir-ekzkondu zanean.

III`n Karlos`ek, ikusi eban zelan erlijijioa eta erregeen lege-ekintzak, gero ta geiago ekanduzko arloetan, merkeak edo guzurrezkoak asi zirala biurtzen eta orregaitik 1.423`an Urtarrilla`ren 20`an sortu eban BIANA`ko Printzerria, andik aurrera Nafarroan errege izateko ezinbestekoa izango zana.

III`n "Biotz-Oneko" Karlos`ek ez eban euki arrazoi-gabetasunik, II`n Juan diabru onek ez ebalako iñungo errenkurarik (escrúpulo), 1.441`ean bere emazte I Blanka erregiña il-zanean, bera errege izateko, bere seme IV`n Karlos eta bere alaba II`n Blanka benetako errege/erregiñak ziranak, leenengo banandu, aldendu edo bastartuta, gero pozoituta il ebalako.

II`n Juan oneri 1.458`an Aragoi`ko erregetza-be jausi jakon eta bigarrenez Gaztelar Juana Enrikez`egaz ekzkondata "FERNANDO KATOLIKUA" jaio zan.

Gizaldi onetan, gero ta gogorrago joan ziralako erritarrak menperatzen, Fernando Isabel`egaz errege-katolikuak zirala, 1.478`an IV Sixto Aita Santua zala, fede-zaindi edo inkisizioa Tomas Torkemada`ren agintaritzan ezarri eban eta danok dakigu zer esan gure eban gauza zikin orrek.

Fernando`k a-zelako maixua euki eban, gero II`n Julio Aita-Santuaren laguntzagaz maltzurkeriz egin ebazan gauzak egiteko, 1.512`an adibidez, Nafar-erreñua guzurrezko bulda eta espatakaz menperatzeko.

Gero Austriarrak etorri ziran 1.700`arte eta onekaz euki genduzan babesaren itzarmenak beti zaindu ziran, Espainolak beste gauza-bat esan arren.

Gero V`n Felipe Borboia sartu san eta onek arrabots-guda aundiak ekarri arren, gure itzarmenak Espaina`ko erregeakaz bere legean iraun eban euren artean Salika`ko legeak apurtu arte.

Gu`k orduan, V`n eta VII`n Karlos`eri eskeiñi geuntson laguntza eta bietan galtzaille urten eban lez 1.876`an menperatuta geratu gintzazan, Espaina, Frantzian 1.789`an egin zan maltzur eta lotsa-gabekerizko iraultzaren bidetik

Europa guztia-lez Laterritu egin zalako, gu Euskaldun berezko erri ta erritarrak eta Katalana`k euren menpean geratuta.

Gaurko 2.007`an Mundu onetan danak begitzen dabe EUSKALERRIA`ren IZATASUNA mirari aundi-bat bezala, Euskaldunak bertan gagozelako gure NORTASUNA`ren ASKATASUNA bir-eskuratzeke alegiñean eta guztiz itxaropentsu lortuko dogula, arrazoi osoa gudan daualako.

Egia da, Britania`tik Kadiz`erañño eta Ekialdetik Italia ta Alemania`k mugatuta, Kromañon edo Omo-Sapiens gizak (Atlantida ?) bertan lortu ebala bere EUSKAL-DEMOKRAZIZKO-JAKINTZA (cultura) edertasun guztian eta Europa`tik Mundura eiza`ren bidez zabaldu zirenak, Euskal-sendia`ren erdi-UNETIK urrunduta, nai-ta oñarriak Euskerazkoak euki, euren bakardadeke aztura-bidetik beste erabateke izkuntzatan agertu zirala, izkuntz-barri orrein izenak artuta.

Urrundu zirenai, NORTASUNA eta DEMOKRAZIA`ren ariak ebagi jakiezelako eta etsai bezela agertu ziralako..., gu apurka, apurka gutziagotzen joan giñan daukaguzan Zazpi-Euskal-Lurraldeetan larritasun aundiz bizirik geratzeko.

Gure arbasoak zekula ez ziran joan besteen ardurakaz eta lurrakaz jabetzen, euren oiturak Demokratikoak ziralako eta bakotzari lotsa aundian berea emoteko arduran, ardura aundiz zaindu eben, milla urtetako ikas-bidean eraiki ebezan "LEGE-ZAARRA" k.

Zer egin eben gure arbasoak mirari au lortzeko ?.

Sinismen aundiak euki JAINKOA`gan, Anai-Arreben artean, euren azturazko Ikas-bidean ziurtasun osoz sinisten ebelako gauzak zeaztasunezko alegin guztian egiten ebezala eta sinismen aundia EUSKALERRIAN, ondo baiñño obeto jakin ebelako, Euskaldun bakotza Euskaldunen artean, Euskerazko izkuntzan itzak bezela aditz-osagarriak diran lez, gu-be osagarriak (complementos) garela.

Baiña..., zer gertatzen jaku gaur ?.

Itzarmen bidetik daukaguzan Alkarte guztietatik : « Ezkontza, Seme-Alabarik eza erriak iraun dagian, Alderdi, Alkargo, Alkar-Laguntza, Sendia`n anai-arreba`ren artean, Alkarrezko-Bidetik eta Erritarren artean lotzen gaituen Zentzunezko Arremanetatik » laster aldendu edo banatzen gara ezeren lotsa-barik eta txarrena !! ezeren damu-barik.

Orren erruak-be.., menperatzailleak eukiko ete dauz ba !! ?.

Erriak, zekula ez dau galdu bear dauan NORTASUNA`ren IPARREZKO ZENTZUA eta zuzentasunezko aurrerakuntzan joan, gure ARBASOAK egin eben lez.

Xautzailletasuna (consumismo) sasi-jainkotzat bezarkatzen ba-dogu, JAUNGOIKOA BERA eta GURE "LEGE ZARRAK" alboratzen doguzela esan gura dau. Eta guretzat zoritxarrekoa izan leiteke, gaur iker-lanaren bidez Europa`k egiten dabezan alegiñak EUSKALERRIA bere merezimenduzko lekuan kokatzeko, guk alpertzeta.

EUSKALERRIA, EUROPA`ren IZARRA-DA, BEREN ZENTZUNEZKO
AUKERAN EREDUA DALAKO gure ARREMANAK EGOKITU DAITEZAN
JAUNGOIKOAK eta EUSKALRRIAK BERAK, EZKERTUKO GAITUE

ATUTXA`tar PAUL

Zornotzan 2.007`an Bagilla`ren 12`an

-NORTASUNEZ`ko IZAERA`ren ZENTZUA-

(III)

Euskaldunen artean konturatu bear gara, gure arbasoak eguneroko aztura-bidean gauza txiker xeekatutatik, Euskal-bizitz erakusgarriko gauza aundi eta argigarrira (iluminador) eldu zirala eta guk ezeren lotsa ta bildur barik jarraibidezkotzat artu geikena egin ebela. Gurentzat zertzelada (dato) edo txeetasunezko gauza-txiker baiño besterik ez dala, bere itxuran edo ederrago agertu daiten, guk bete bear doguzelako egunero egin bear doguzan gauza zeatz eta zentzun aundiz arduraren xeetasunakaz. EUSKALERRIA belaunik belaun JAUNGOIKOA eta Mundu`ko gizartearen aurrean, bere edertasun ederrenean agertu daiten.

Begi bistan, errez egin leiken gauza-lez agertzen bada-be, ez da erreza ez !!, Gaur gagozan Mundu onetan xautzailletasunezko bizi onek menpetuta, ardurazko gauzak alboratuta izten doguzelako.

Baiña xautzailletasunezko arduragabetasun orren zeregiña, ez da gure erritarren artean bakarrik sortzen, Mundu au zuzentzen dabizen artean-be bardin agertzen dalako. Gure ARDURAZKO EGIA`k edo bearrezko zeregiñean egin bear doguzan GAUZA`k EGIA`ren ULERMENEAN, zentzun ta zeaztasun aundiak bear dabezelako euren lekuetan ondo adiñondu (ajustar) edo eta egokiro (ajustadamente) kokatu daitezcan.

BEREZKOTASUNARI, orregaitik agertzen jakoz bear dauan beste baiño ainbat etsai geiago, Mundu onetan eta gure artean batez-be, GARAILLE dalako ARDURAGABETASUNA.

Arduragabetasun orreik zergaitik diran jakiteko, aurkeztu daigun egitamu-saio bat eta egoera larri oneik zergaitik diran ikertuta, ikusiaz batera jakin daiguzan, zelango ezberdintasuna dagoan gure arbasoen jokotik, gaur guk jolazten dogun jokora.

Orretarako baiña, aztura-bide (metodo-empirico) edo lojikazko egitamu-saio au egiteko, bere oiñarrietan baldintza oneik aurkeztu bear dodaz, gero baldintza guztien laburpeneko ondorio bategaz amaitzeko.

Lenengoa: BIZITZA`ren JAIOTZA eta IKAS-BIDEA`k izango dira.

Bigarren: BIZITZA`ren BEREZKO BATSUENTASUNEZKO (pluralidad) LEGE AURREAN EZIN-BESTEKO NEURTASUNA`k.

Irugarrena: MUNDU ONETAKO GIZARTEA`ren JAKINTZA eta ZERGA-ITIK DEMOKRAZIA ta OREKA`ren BEARTASUNA.

Laugarren: ONDORIO`an:

MUNDU ONETAN, EZIN-BESTE GAUZA`rik EGIN eta ED-ESTI GUZTI`tik ZEAR, EGIN BEAR DIRAN GAUZA GUZ-

TIA`ri, ZERGAIK EMON BEAR JAKEZ....., GAUR DERITXON ESKUIÑ-ALDEKO edo XAUTZAILLETASUNEZKO NORA-BIDE ORI ?.

ZER-DA....., edo ZERGAIK DERITXON "EZKER ZUZEN-BIDE BARRI ORI" eta ZERTAN GERATU DA ?.

AZKENEZ "EUSKALERRIA"`gaz. AMAITZEKO.

a) BIZITZA`ren JAIOTZA eta IKAS-BIDEAK: Bizitz onetara belaunik belaun`ezko ondorengotasunean jaioten gara eta ortik asi-ta badaukaguz bideratuta, zelan, gauzaren iker-lan`etatik ikasten edo adierazten (interpretar) doguzan gauzak, bear daben jakintzazko ulert-arazian egokitzeko, gure leiñu edo sendituta dagon gizarteko zabaltasun orren gogoan edo oroimenean oituratu daitezana. Gero, jakintzan ezartzen dana, ondoren datozen erritar-barri guztien ezaguerazko mendean egon daiten.

b) BIZITZA`ren BEREZKO BATZUENTASUNEZKO LEGE AURREAN EZIN-BESTEKO NEURTASUNA`k: Bizitz onen lurretan, amai-gabetasunezko lore-motatan daukagu landaretza, nai zuaitz, belar, goroldietan eta abar. Gizartean ta aberetan be-bai eta ez dira gutxiago ura`k eta aizeak daukazenak, bakoitzak bere izatasunean bizitz oneri, JAUNGOIKOA`k emonda, euki bear dauan zentzua emonten dautsielako.

Emen argi ikusten dana, bizitzak beren eten-bako jaiotzagaz eta ekintzarekin, daukagun konorteko zentzuan, berak bideratzen gaituala. Gure zentzumenezko arrazoia`ri, berak bideratzen daualako an egin bear dana eta zelako neurriekaz egin, sal-bide edo eskatu-eskeintza baten antzera.

Bearrezko neurtasun onen barruan, beste garrantzizko gauza-bat agertzen da eta ez da errez ulertzekoa: "Berezkotasunaren legezko eskeintza orren zentzuan, guk almena daukagula zelan erabili asmatzeko". Adibidez: Berezkotasunak eskeintzen dauan lez eta guk bere legean, apuribat edertutako menduteagaz, fruituak eder ta ugaritasunean artzeko ta urrengoan be emon dagian gure atsegintasunerako, edertu egiten ginduzan eta egiten doguz, baiña sekula ez.., ezer !! gure norkeriaren alegiñezko bidetik, berezkotasunaren aurka egiten doguzan gauzakin". EZETZA, BEREZKOTASUNA`k BERA`k !! bereala emoten dauskulako.

Zergaitik berezkotasunaren zentzuan ezetz ori ?.

JAUNGOIKOA`ren BORONDATEZKO LEGEA dalako, gure almenean ez dago egilletasunik izatea, erabil-almenekoak baiño. Orregaitik dakigu "ZER GERTATZEN DAN" baiña sekula ez !! "ZERGAIK GERTATZEN DAN".

Aalmen ori euki bagendun, zer !! gertatuko zan Mundu onetan ?.

d) MUNDU ONETAKO GIZARTEA`ren JAKINTZA eta ZERGAIK DEMOKRAZIA ta OREKA`ren BEARTASUNAK ? : Oraifarte ikusi dogu, zelan jaiotzatik neurtu bear izan doguzan gure egin bear guztiak, gai oneri JAUNGOIKO`ak emondako LEGE`aren AURKA`koagaz.

JAKINTZA: Mundu onen gai-osotasunezko izaera, desberdintasunaren izaerazko gai-zati txikerragotan osotuta dagoalako, gure iker-lanaren bidetik, nai-ta nai-ez antolamendu orregaz aurkitzen gara eta gero ta geiagoko bereiztasunezko

zatitan bakandu egiten doguzelako, gure bizitzeko egokitasunak samurtu edo erreztu egiten doguz.

Norarte ?. Ez dakigun gauza da. Baiña JAUNGOIKOA`ren erabagia dalako, gure ekintzaren bidetik, badakigu IZADI au, orren antolamendupean sortua dala. Gurentzako orregaitik, egiten doguzan edo egin bear doguzan gauza guztiak, gauza txikerretatik asi-ta osotu bear dira: “Tresneria, gailluak, gizartea, izkuntza, jantziak, janariak eta abar guztia”. Gauza guztien zentzuzko garaipenak lortzeko ez dagoalako beste biderik.

Baiña, Egilleak ezin garalako izan, gure almenak ortxe mugatzen dira, guretzat “GAUZAK, ZERGAIK SORTZEN DIRAN MUGATUTA DAGOALAKO”.

JAUNGOIKOA`k beste garrantzizko gauza eder-bat irakasten dausku antolamendu onen bidez: Asiera edo Aintzin-aro, Arri-aro, Erdi-aro, Aro-barri eta Oraingo-aroko denborak “BARDIÑAK IZAN ZIRALA eta DIRALA” BEREZKOTASUN`ezko IZADI onen LEGEA`k EZ DIRELAKO ALDATZEN.

Orregaitik Gizon/Emakumeen ARIMA`k, LEGE-GAI orreitan oiñarrituta gagozalako, edestiaren belaunik-belaun`eko denbora guztiak dira bardiñak, LEGE orren OITURA edo EKANDUA`ren OREKA`k betetzeko ardurapean jaioten garalako .

Nai-ta guk geiegian, gure norkeria gurtzen alegindu, EGILLEAK garela sinistu gura dogulako.

Orrarte erreza izan da, baiña gure ugaritasunagaz, bear diran gauzak be ugaritu egiten dira eta egin bear diran zentzuzko zeaztasunak be bardin. Batez-be askoz geiago, Erromatarren`gandik artu ziran okerrezko bideak ez ba dira zuzentzen.

Andik ona eta gaur egun batez-be, gaiak bere berezkotasunaren zentzuzko izatasun osagarria garbitu ta indarrean orekatzeko daukan eten-bako eta ixilaren lankidetasunezko almenean, guk gure bizitzako ekintzan atal-gai guztietan zikintzen doguna. Gaiak, nai-ta luzeroko denboran garbitasun orreik bir-orekatu daitezcan aalmen guztia euki, gaur ez dautsagulako denborarik emoten, gure bizitza be galbideko larritasunean ipinten dogu. Eta gizartean bardin, xautzailletasunezko gogo orregaz askatu baiño geiago, traba egin edo eragotzi egiten dalako. Orregaitik ainbeste estanda leku guztietatik.

ZERGAIK DEMOKRAZIA eta OREKA`ren BEARTASUNA`k:

Demokrazia`ren izen-itx ori aipatzen dogunean, ez dogu adierazten itzak daukan indarra, bere izatasunean ez daukolako ezer. Berak, gizartearen arrazoimeneko gaitasunean (capacidad, competencia), ardurazko-zentzuan daukan indar-aundiari egiten dautson aipamena baiño. Gizartean dagozelako Mundu onetan egin bear direzan OREKA`ren ADIMENEZKO-ARDURA guztiak.

Demokrazia ta askatasunezko itz-bi oneik, gauza-bat baiño besterik ez dabe esaten, euren aipamenak Nortasunezko arduraren jabetasunezkoentzat bakarrik diralako, gizartearen zor-eskubideak (derechos humanos) aipatzen doguzenean.

Guretzat, orregaitik bear-bearrezkoak dira: “Gauzak, Demokrazizko-Orekan ta Ekanduaren Neurriko Askatasunean egitea”, Mundu onen erabagiak bereztasunezko zentzura eroan daiguzan, oraiñarte, sasi-jainkoren arrokerizko dogmaren arauz egin direzan bideak, guztiz korapillotuta dagozelako.

Garrantzizko itz oneik, ez dira txantxan esaten diran itz-gauzak: “GIZARTEA`ren ZOR-ESKUBIDEKO ARDURAK eta DEMOKRAZIZKO ASKATASUNAK” biak esangura eder-bat bakarrik eukinda...., eta zentzun aundiz batera eroan ezkeror: “GAIA`ren EGOKITASUNAK” sekula ez gendukezelako eroango, oraiñarte eroan doguzan amiltegiko larritasunera.

Ezin bestekoa da !!, sasi-asmakuntzagaitik, Izadi ta Giza`ri egiten dautzaguzan ainbeste lapurketa. “ZEREN ITXAROPENEKIN ?”.

Mundu oneitan, ezin beste gauzarik egin eta edestitik zear, egin bear diran gauza`ri, zergaitik emon bear jakez...., gaur deritxon “Eskuiñ- Aldeko edo xautxailletasunezko” nora-bide ori ?:

Antziñan, K.a. 2.500 urtetik onantza asi ziran norkerizko asmakuntza orreik Persa`kaz Ekialde guztian, Griego`en bereztasunezko demokrazian ezin egoneko larritasunak eraginda.

Gero, K.a. 800 urte inguru Etrusko`ak eta Griegoa`kaz alkartuta, Persen menperatzailetasunezko eta arrazoi-bako bizitz-ura ezin zalako on-artu, Ramnes, Tizio`ak, Luzereak, Sabino eta Iszeres`ak batu ebazan Palatino mendian, gero, Esparta`tar gudaloztearen jarraibidean Roma-kuadrata izango zana eraikitzeke.

Mundu osoa, kaizar eta izkuntza baten agindupean gura eben, baiña sekula ez ziran konturatu danoren edo Nortasuna euki ebenen baimenagaz egin bear zirala gauza orreik.

Latiña eta Erromatar kaizargotza ezerezetik sortu ziranetik, goraldi aundiak artu ebezan, baiña sekula berezkotasunaren (Democracia-y-lei de la Naturaleza) arrazoirik ez !! Eta bear dan arrazoizko-lekutik ez ziralako ibili, beti lupetzezko ankakaz ibili ziran. Borondate onagaz egiten zan guztia, xautzailletasun-zaleen menpean oratuta geratzen zalako.

Erromatarrak egiten ebezan menperatzailetasunezko astokeriakaitik, Mundu au zentzunezko bide onean sartzeko-be, Kristautasuna sortu zan, lupetzezko anka orreik: “Urrezko, burdiñezko edo galtzairuzko (acero) anka`gaitik ordezkatzeko”.

Dana izan da alperrik baiña, zentzunezko asmo guzti orreik beti !! Sasi-norkerizko asmatzailleakaitik menderatuta geratu diralako.

GUZURRA orregaitik, nai-ta santu-aurpegiagaz mozorrotuta ekarri, azkenean: “JAINKOA`ren BEREZTASUNEZKO LEGEA`kaz”, gura izan barik

aurkitzen da. Eta onen aurrean ez dago txantxarik: “Berak bere izatasunean, gure ekintza gaiztoak berez !! Eta Bere berezko narotasunean (calma), esnearen bitzak-lez, GUZURRAK GAIÑEAN-ARGI eta ezeren adierazpenaren bearrik-gabe danok ikusgeinken lekuan ipiñita dagozelako”.

Gaur nai-ta nai-ez, Mundu onen irugarren borroka nagusian sartuta gagoz, gizartea eta gaiaren izadia ankaz-gora daukaguzalako eta gauza oneik danok jakinda....., bai gure arimak gai-Mundu onetara mozorrotuta zertan datozen jakinda....., ez da egongo iñor !! JAINKOA`ren bildurra eukiko dauenik ?.

Zer egin dabe arduradunak EKANDUAN eta beste jakintzazko arlo guztietan ?.

Gai oneitan bear-bearrezkoa eta beti kontuan euki bear dan gauza dalako, gure ezinbesteko: **BESTE GAUZARIK EGIN**”. Gauzaren egikera sortzen diran onura edo irabazki guztietan: Bere, Zure edo Nerekoi-zaletasunean bizi bear gara ?.

Mundu oneitako gizaren gogamenean adibidez, begitu zelan, asieran igarribako: “Bere, Zure edo Nere-gogo ziztrin baten erreztasunagaz eskuiñ-aldera bideratuta” eldu leiken, gaur daukagun guztiz neurritz-kanpoko xautzaille madarikatu onen larritasunera.

Egia da, 2.760`urte gitxi gora-beran (baleiteke borondate onagaz izatea), okerreko bide ori artu zala. Baiña..., esaera orrek zer esan nai-dau !!: “Beste ainbeste urte itxaron bear dogula....., asiera orren tokiko aukeran egon gaitezkan ostera zuzenezko erabagi barri ori artzeko ?.

ZER DA...., edo ZERGAITIK DERITXON “EZKER ZUZEN-BIDE BARRI ORI” eta ZERTAN GERATU DA ?:

Europa`n batez-be, lantegi-gintza`ren bideak artu ziranean, eskuiñ-zale morroitasunezko egoera larrian egon giñan ezarrita eta XIX`n gizaldean, gizartearen ulermeneko bitarteak zori-onez laburragoak izan ziralako, txirotasunen premiñak aleginduta, giza`ren arrazoitasunezko zor-eskubideak arpegi-auste`ko (careo, entrevista) ausardian (audacia) asi ziran estaibadakutzen eta ordurako Europa guztia laterrituta egoan-lez, berezkotasunezko erri ta erritarrak kontuan artu barik estaibadaikatu ziran.

Kendu egin bear ziran, menperatzailletasunezko eta berezkotasunaren kanpo egin ziran laterritasun orreik, katoliko-abertzaleak (nacional-katolicismo, facinerosos) eta diru-zalekerien (mercantilismo) laguntzagaz indartu egin ebezanak.

Sozialismoa zertan geratu da ? : “Eskuiñ-aldeko fazizta`ren eritzitik, apur baten aldeko desberdintzan”. Daukien sozialismoaren ulermenagaitik, berezkotasunera urbiltzen diralako.

Ekanduzko eritzian dagon naspilduntasunagaitik, berezko NORTASUNA`ren zor-eskubideak ez dabez ulertzen eta faziztak euren diru-zale menperatzaille laterritasunagaz gure daben nortasun barriak artu daiguzan eritzian ezarri diralako, eurak-be Laterritasunaren-menperatzaillezko eritzian agertzen dira.

Ikusi ta senditu egiten dabe ez dala bidea, berezkotasunak beren legean baktzari zor-jakona berez erakusten dautsolako eta euren gizarteko lanagaitik urbiltasunean dagozelako geiago ulertzen dabe, baiña diruaren premiñ edo zalekeriak zirikatuta ez dira ausartzen.

Euren gaur eguneko Sozialismoaren zentzua, izango ete-da ba..., gizartearen nortasunezko zor-eskubidearen babesle izan barik, gai-diruaren babesle izatea ?.

Edo etorkizunaren bildur diralako, Fazisten antzera..., berezko ERRI ta bere ERRI`tar-NORTASUNAREN iltzailleak (genocidas) izan ?.

Gaur, Sozialismoa`ren zentzu ori ezinezkoa da baragarritzko gogo orreitan artzea, bere izatasunezko gogamena, gizarteari zor jakozan eskubideak babesteko jaio zalako. Ekanduan naastuta egoteagaitik ez dira konturatzen, baktzari: "Beren ardurazko jabetasunak emon ezker, gizartearen eginkizunak arrazoiz egokitzen dirala".

Eta errietan, euren-gizarteko borondatearen aurka, menperatzaillezko indar bidetik, arduragabeen ezartzen ba-dirala, arduragabetasunezko oitura sortzen dala.

Bai !! NOR-IZATASUNEZKO BEREIZIA`ri sartzen jakozan NORTASUNEZKO EZA`ren LARRIALDIAGAITIK, eskubidearen jabetasunezko ardura orreik, bakeak lortu arte ezin diralako alboratu, gureak eta gure izatasunak diralako, beti borrokan ibili bearra ?.

Gaur gagozan jakiturizko denboratan, lasterrago garbitu ta argitu egin bear dira arrazoizko erabagiak, nai-ta menperatzailleen eragozpenagaitik larri-aldi batzuk egon, pakezko zuzentasunaren aurreraldiko bideak, zentzuak eskatzen dauan baiño askoz astiroago doazelako. Bestela...., eten-bako borroka baten zuzendu bear dira ?.

Zentzunezkoa izango ete-da....., indarkerizko jolas edo Indarkerizko-Arrazoi-bidetik egiten dan BAKERAKO-AURRERALDI ORI ?

Gaiñera, SOZIALISMOA`ren izena artzen dauanak, berezko erri-gizarteetan egokituta dagoela esangura dau, "EZ !! MENPERATZAILLEA`ren EZAR-LEKUETAN". ETA ORREGAITIK GAUR, ARRAZOA`ren ZENTZUA ARGITASUNERA EROAN BEAR DOGU, NAASTETASUN GEIAGOTAN SARTU BARIK.

GURE EUSKALERRIKO GIZARTEETAN ARDURAREN JABETASUNEZKOAK IZAN BA-GIÑAN, OLAKO SARKILKERIAN (golferias) DABIZENAI LASTER EUREN LEKUETAN EZARRITA IPINIKO GENDUZAN "EUSKALERRIA BEREZ eta BEREN ASKATASUNAREN BABESLE IZANEZ-GAIN, ARBASOETATIK GUZTIZ ARDURATUTA DAUALAKO".

GAUR GAIÑERA JAKIÑA DA, BEREZKO-ERRI BAKOITZA BERE ARDURAZKO JARDUN-BIDEAN EZARRI EZKERO, EUROPA OSOTZEN DABEN ERRI BIDETIK, DIRDIRTSU "ARGIDUN" AGERTUKO DIRALA.

ALA....., ESPAINAN BERTAN EZ DA IKUSTEN, NOR-BEREN JABETASUNARI (autonomias) ESKUA APUR-BAT ZABALDUTA,

MENPERATZAILLEAK EURAK !! SINISTU EGITEN EZ DABEN LEKURA..., ZELANGO AURRERAKUNTZAK EGIN DOGUZAN ?.

“SOZIALISTAK, KONTURATU BEAR DIRA..., BEREZKOTASUN BAKOITZARI, BERA EMON BEAR JAKOLA; EUSKALERRIA`n, ESPAINA`n, EUROPA`n eta GAGOZAN MUNDU ONETAN, BIZITZA ABERASTASUNEZKO EKANDU eta BAKEZKO OREKA BATEN IRAUN DAGIAN”.

EUSKALERRIA:

Euskaldunak konturatu bear gara, JAUNGOIKOA`ren LEGEZ`ko bidean, Euskal Demokraziaren Berbean edo Izatasunezko Jakintzan ezarri gintzanetik, ez giñela iñor menperatzen joan eta gitxiago euren etxe ta lurraz jabetzen.

Gure legezko edo izatezko berbea erri-lez, baktzari bere zor jakon eskubidean emotea edo ordaintzea, gaur arte milla urte askotan izan dalako.

Eta edesti labur oneitan ikusi dogun-lez, Britania`tik Kadiz`eraiño Mendebaletik Atlantiko itsasoagaz eta Ekialdetik Italia, Alemania eta Beljika`gaitik mugatuta, lur-zerrenda orreitan lortu gendula daukagun DEMOKRAZIZKO EUSKAL IZATASUNA.

Bai, gure leiñuetatik urrundu ziranak Europa ta Mundu osoan zabaldua, zelan tronkaletik bananduta ebagi jakiezan asierako oiñarritik euki ebezan erriko azturaren demokrazizko oitura eta izkuntza, beste oitura ta izkuntzetan euren itzulkeran agertuta.

Gero erromatarrengandik, gaurko menperatzailetasunaren batzangotasunezko siniskaietan asi-ta (gaur-be erroma`tarren legeakaz gagozelako), berezko-erriak lortu ebezan izkuntzak, demokrazizko oiturak eta lurraldeak, milla zatitan apurtu ebezala. Europa guztian, demokrazizko jakintzan lortu egin zan zentzunezko irudia, milla zatitan banandu ta ongaizkatuta (mezclar lo bueno y lo malo) edo eta naspilduta geratu zalako.

Euskaldunak, JAINKOA`ren LEGE`a eta aztura bidean oituratu genduzan sinismenak babesten, gaur gagozan zazpi-lurraldeetan kokatuta geratu gara.

Eta ez !! erriak bear dauan osasun onenean, bere eskubidearen borrokan, Europa`n erperatu egin ziran amarrukeria (artimaña, artificio, marrulleria) eta maltzurkerizko (fraudentamente, falazmente, falsamente) guzurraren bideak, berezko gizarte ta-gai jatorrizkoentzat (genuino) etsai-amorratu aundienak izan dira, gure EUSKAL-ERRIA eta EUROPA`ren DEMOKRAZIA zauri aundiakaz geratu garalako.

EUSKALDUNAK, konturatu bear gara, etsai guzti orreik, or !! dagozela eta gaiñera guzur orreik, gure arteko ulermenetan egin dabezanak ez dirala ongarritasunezkoak, gure gizartearen ulermena, arlo aundi baten beintzat, naastuta geratu dalako.

Orregaitik ipini bear doguz mai baten gaiñean gure EUSKALERRIA`ren IZAERAZKO NORTASUNA, EUSKAREA eta ASKATASUNA`ren alde edo

aurka daukaguzan baldintzak, gure IZAERA zelango osasunagaz dagoan jakiteko eta ELBURUZKO NEURRIAK ARTU, DANON ARDURAK ALEGIN BATEN SARTZEKO.

ETA ERRIA DAGON LARRITASUNEZKO EGOERAN EGON-DA, EZ DAUKAGU IÑUNGO LOTSARIK, NAI EZKER ta ESKUBI ALDETIK GAUR GABILTZAN "NEREKOI" JOKO AU EGITEKO. EZ DIRA !! GURE ELBURUAK JOKOAN DAGOZENAK, EUSKALERRIARENAK BAIÑO !!

ETXE-BAT GALBIDETIK ATARATEKO, BERE GURASO ta SEME-ALABA GUZTIAK "ELBURU" BATEGAZ EGIN BEAR DABE LAN.

BESTELA ETXE-BIZI ORREN JABETASUNEZKO IZAERAK EGINDA DAGOZ.

EUSKALERRIA EUROPA`ren IZARRA DA eta EZ DAU MEREZI, GAUR DANON ARTEAN EMOTEN DAUTSAGUN LOTSABAKO ARRERA AU.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.007`an GARAGARRILLA`ren 4`an

- ESKOZIA`tik ZEAR ADIÑEKO A`kin -

ESKOZIA:

Ezarpena: Europa`ren Mendebalean, Britania-Aundia osotzen daben berezko iru aberrien (naciones) artean, Gales eta Ingalterra`gaz, Eskozia bat da.

Mugak non: Britania Aundiko Iparraldean kokatuta dago eta beren mugak: Egoaldean Ingalterra ta Irlanda`ko itsasoa, Iparralde ta Mendebalean Atlant-Itsasoa, Egoaldeko-Mendebalean itsas-odi edo Iparraldeko itsas-adar`ekin (canal del Norte) eta Ekialdean Ipar-Itsasoa.

Beren Bereiztasunak: Bere izparter edo itsas-bazterrak eta Mendebalekoak batez-be, koskadun itsas-aldira da, ugarte, ur-kolko eta itsas-zirritu edo fiordo askorekin.

Bere lurraldea, ezberdiñeko zati bitan bananduta dago Kaledonia`ko ildo-erreka (surco) sakonagaz, Atlant-Itsasoa Iparraldeko-Itsasoarekin alkar-bidetu egiten dauana.

Bere mendebala ugartez beterik dago. Iru taldeetan dagoz oneik: Ighlands lurraldearen Mendebalean Ebrida ugarteak eta Iparraldean Orkada`k eta Shetlands ugarteak.

Daukazan ibaien artean: Klide, Don, Forth, Liddel, Tay eta Tweed dira nagusienak.

Txebiot-mendiak daukaz Ingalterrako mugan eta Iparralderago Southern Uplands mendi-apalak Merrick-mendiak daukaz 843 m neurri aundienean. Ighlands lurraldearen Egoaldean Granpians mendiak, Ben Nebis mendiak 1.343 m. daukazela eta Glen More izeneko sakontasunetik Iparraldera edatzen edo zabaltzen diran North Ighlands lurralde menditsuak, Mam Sedhail`ek daukazan 1.182 metroakaz.

Daukazan elurtegi (glaciar) edo izotz-mendien leku nagusien artean Firth of Lom eta Firth of Klide dira Atlant-Itsasora begira eta Iparraldeko Itsaso begira Moray Firth eta Firth of Forth.

Guztiz 78.773 Km. karratu daukaz eta 1.981`ean 5.230.000 biztanle.

Ezkozia`ren izkuntza Keltiar Gaelikoa da, berba egiten dabenak baiña, 80.000 inguru dira Ighlandeko Ipar-lurraldeetan eta Ebridetako ugarteetan geienak.

Gaur, Mari Jose gure taldearen erakusle zuzendariak esan ebanez, berrezkuratzen dabizena.

Iriburuak: Beren Iriburu nagusia Edinburgo da eta daukazan garrantzi aundiko iriburuak: Glasgow, Aberdeen eta Dundee.

Bederatzi lurraldeetan bananduta dago 1.975`eko urtearen geroztik: Borders, Erdialdea, Dumfries and Galloway, Fife, Grampians, Ighland, lothians, Strathclyde eta Tayside.

Egu-giroa: Atlant-itsasoak emoten dautson girokoa da eta oso lurralde euritsua.

Mendiko ta Ortu-Landarak: Bere basoko zugatz-landarak, oso-osoan gure erriaren lakoak dirala esango neuke, euren zuaiz-sakratu edo erriaren irudizkoa lez artuta daukien zugatza Eledonio piñua izanda eta belar-landareen artean Kardulatz. Bere lurrak zotal-ikatz edo sats-ikatzekoak (turba = tierras de carbon-mineral) izanda be, nekazaritzazko erri-aberaskian (riqueza publica de la huerta): Garia (trigo), Garagarra (cebada), Oloa (avena), Artoa (borona), Lur-sagarra (patata), Azukrea

egiteko Udarbi edo Txerri-arbia (remolacha para azucar) aberastasunean artzen dabe eta barazkiak edo ortuariak ugari.

Aberetan be oso aberats dira daukiezan Ardiak (8.500.000 buru) Beiak zabaltasunaren araubidean bazkan edo larreratuta daukez.

Edestia: Labur esanda, leenengo biztanleak itzi ebezan astarnak oso nastuak dira, baiña K.a. 600 urte gitxi gora-beran, ondo mugatutako lau erri keltiar agertzen dira: Piktos Iparraldean, Ezkoziarrak, Britanoak Egoaldean eta Angloak.

K.a. I gizaldian agertu jakiezan Erromatarrak eta K.o. 410`ean alde egin ebenean, lau leiñu ziran nagusi Kaledonia deitutako lurralde oneitan: Piktoak Iparralde eta Ipar-Mendebalean, Irlanda aldetik joan ziran Eskotoak Mendebalean, Britaniar gaelikoak Ego-Mendebalean eta Angloak Ego-Ekialdean.

Kristautasuna Eskozia`ra VI gizaldian sartu zan San Kolunbano`ren eskutik.

Normando`en sarritako eraso-aldiak beartuta 843 urte inguruan danon batasuna lortu ebelako, lenengo erregea I Kennet Mak Alpin eskotoa eta Alban eritxona izendatu eben.

Gero, eleiz-gizonen maixukeriaz, euren errege-aundikien arteko eskontzak eta Normandoakaz odolkerizko borroka latz eta ugarien bitartetik, asi jakiezan eragozpen gogorak agertzen erriaren sendotasunerako, 1.468`an III Jakobo`k, laterri geografikoaren batasuna alegin aundiz lortu eban.

IV Jakobo`k, Inglaterrako VII Enrike`ren Margarita Tudor alabagaz eskonduta, erreñu bien alkartasuna bideratu eben, baiña V Jakobo`k 1.517`an Eleiz-Katolikoaren aurka agertutako berri-aldiak (reforma) eta Inglaterrak eskatuta, ez eben gura Aita-Santuaren aurka joan eta Ingalterra bereganatzeko tentaldia euki ebalako Solway Moss`eko borrokan il eben. Bere andrearen Maria de Guisa (Maria Estuardo) errege-ordean erlijiozko iskanbil edo iztilluak asi ziran eta John Knox berritzaille aipatua agertuta, Maria Ingalterran eskutatu bear izan eben, bitartez Eskozia`ko parlamentu eta aundikien baimenetik katolikotasuna debekatuta.

Eskozia ta Ingalterra`ko erregeen arteko eta Eleizaren berrikuntzazko nastutasunakaz batera borroka latzak asi ziran, euren aundikerietan biak izan gura ebalako erri-bien erregeak, berezko erri ta erritarrak kontuan artu gabe, erregeak ordurako ez ebalako iñungo abertzaletasunik euki. Eta azken baten Kromwell`ek Eskozia`ri eskeiñi eutson: Ingalterra`ko Lege-Biltzarrean, erri-bien Lege-Biltzarrak batera lan dagian, Eskozia`ren nortasunezko legeak lotsa aundiaz artuta.

1.688`ko iraultzak lortu eban Lege-Biltzar bien alkartasuna 1.707`an baieztatuta geratu zana eta ortik aurrera Eskozia`ko Lege-gizonak Ingalterrakoko Lege- Biltzarrean asi ziran lan egiten.

Eskozia`k ortik aurrera, ez dauka berezko erakunde politikorik, baiña a-ta guzti erri edo nazioaren lotsan artzen dabe eta eurak orretan alegintzen dira.

Orain dira, erriaren eritzia batuta, Ingalterra`ren menpetik askatasuna lortzeko eta Espaiñolak eta Frantzezak nai-ta esaten bada-be, arazo orrek Euskalerriaz ez daukala zer ikusirik, gure erriarentzat ondo baiño obeto etorriko zan, azken baten bere bien oiñarrizko sustraitik, arazo bardin-bat bakarrik agertzen dalako: "ERRI-GIZARTEAREN ESKUBIDEAK".

ESKOZIA`tik IBILALDIA:

2.007`an Irailla`ren 3`ko astelena: Adifneko erakundearen arduradunak esanda amarretarako Bilbao`ko Termini-bus`era joan giñan Lourdes eta ni. Eta txango-zale guztiak alkartuta, txango-zuzentzailleak Loiu`ko egazki-zelaira bus`ean eroan ginduzan.

1`35ean urten gendun Loiu`tik Alemania`ren Frankfort`eko egazki-zelaira, an egazkiña aldatu bear gendulako eta 4`1/2`etan bertan egon giñan. Bostak amar gitxiagotan, Frankfort`etik beste egazkiña artuta urten gendun Eskozia`rantza eta bertara zazpirak eta bost minutu zirala eldu giñan.

Egazkiñeko ibilbide bietan ogi-tartekoak, gura gendun edariakaz (ardo, garagardo, txanpana, kafe edo ura) emon euskuezan

Erlojuak ordu-bat atzeratu bear genduzan Eskozia`ko orduakaz bat egiteko eta 6`1/2`etan bus-berebilla artuta, 7`retan eldu giñan Edinburgo`ko Premier Trabel I nn ostal-etxera, Lauriston-Street kalea gurutzatzen dan eskomako bazterrean dagoana.

Bus-berebilla`ren autolariak, Markos euki eben izena. Mutil jator ta zintzoa bera eta ez eban bear ifungo laguntasunik beren lanak ondo baiño obeto beteteko.

Txango-zaleen edo gure bide-erakuslea Mari Jose (Benzolanea bera) neska gaztea izan zan eta au-be beren bearra ondo baiño obeto betetan ebana zan.

Aurretik emoten euskuzan, egin bear gendun gauza guztien argibideak eta bus-berebillean joaten gintzazanean Eskozia`ko lurraldeak ikusten, bere jakintza erakutsiz, ondo baiño obeto xeeatzen (explicar en detalle) eban, Eskoziatarren edestia adierazteran. Pozik ibili giñan beragaz.

Ostal-etxearen gelako giltzak artu ondoren eta afaltzeko ordua 9`1/2`etan euki gendulako, Etxegarai`tar Maite`k, Olazaran`tar Jesus`ek, Lourdes Barroeta`k nire emazteak eta nik, inguruak ikustera urten gendun.

Afaltzera joanda, gatz-ozpiñeko ontzien antzeko baten, arean erretako kipula-gorri ugari, urraza (lechuga), arbi-gorri (zanahoria) eta ollaskoaren zerra, au-be goitik erreta egon zana eta eurak prestatutako pitxer-txiki baten, ondo egon zan saltsagaz naastuta jan gendun. Ondoren katillu txiker baten atara euskuezan sagar-laranja-maatz garuekaz naastuta eta afaldu ondoren, danok era-bat marmaraka ogeratu gintzazan.

Irailla`ren 4`ko asteartea:

Zazpiretan izartu giñan eta zortzirak eta laurenetan gozaldtu. Nik, merlatuko igaliak (frutas confitadas) jan nebazan, nai-ta gure ebanak erregosiko arrautzak, urdaia eta abar eukinda.

Egun onetan, lainu batzuk egon arren, denbora ona egin euskun.

Bus`era igonda, Edinburgo ikusten urten gendun bederatzietan, izena ez gogoratzen jatan erakusle barri batekin. Oso atsegiña bera eta erakusle ona.

Bere adierazpenetan, Edinburgo`ren bizitza euki eben dirdari dembora onenean argitu ta iruditu euskun eta benetan ederra izan bear zala: "Lantegiko-trebetasunean, ontzi-gintzan, ikastetxe nagusiak euki eben garrantzi aundia, San Giles`eko Eleiz-Nagusia, Milla-Real`eko lau kaleak: Kaste Hill, Lawnmarket, High-Street eta Kannongate. Grassmarket ortuariak zaltzen ziran enparantza, John Knox`en etxea (puritanismuaren irasle deritsona), Eriot gaxo-etxea, Holirroodhouse gaztelua (Inglatera`ko erregiñak Laterrien garrantzizko egikuntzatan eta agintarizko arreratan ibilten dauana eta Mile-Royal (real)`eko kale azkenean kokatuta dagoena) antziñako

sumendi baten gaiñean eginda dagoena eta ainbat etxe-eder, Udal-etxe, Lege-biltzar eta abar zirenak”.

Gero, Oratio Nelson`en oroikarria eta andik ikusten diran ibai-bideko mugi-aldiak eta aurrez-aurre euki gendun ikustoki ederrera joan giñan.

Amabi terdian Heights rte/Apex (Hotel-Internacional) ostatuko bost`garren solairuan naiko ondo bazkaldu gendun, baiña ona izan arren, ia janari guztietako azpil edo plater-izarretan Izokiña (Salmon) izan gendun.

Jan da gero zortzi`ak arte, arratsalde guztia aske edo mende-gabe ibili giñan eta Edinburgo, ondo baiño obeto oinkatu gendun. Emen esan bear dot, Edinburgo`k daukan Illerri aundira joan giñela eta ardura-gabe aundian zainduta egoala ikusi gendun.

Laburpena edo Edinburgo`n ikusi neban en ondorioa:

Asko poztu nintzan, jakin neban orduan, jatetxeko gelari, mai-serbitzari eta tabernari geienak ez zirala lan orren bizibidekoak, ikasleak baiño. Orren adierazpenak, gaztekin ardura aundiak daukiezala esan gura daualako. Eta goizean iruditutako euren lan-zaletasuna eta Uri-errien arlo guztietako gizarte-auzietan (cuestiones sociales) zelan arduratzen diran ikusita, ikusleentzat askatasun osoko erritarrak dirala iruditu leike.

Baiña badago beste alde gogor-bat, guztiz aurkakoa esaten dauana, adibidez: “Erriaren etxe guztiak ondo landutako arriakaz eginda dagozenak, daukan ingurugiroaren (medio ambiente) sutsuduragaitik guztiz loi eta baltzituta dagoz eta baltzitasun orrek emoten dautson illuntasunagaitik, Uri-au, beldurrezko erri-illunaren itxuran agertzen da”.

Kalietako zelaiak bardin: “Zaarkitutako (desgastadas) eta aldatu bako itxuragabetuta (deformadas) dagozan galtzar-arriakaz oraindiño dagozalako. Eta dagon biribilearen joan-etorriagaz ibilbide estuak dirala, eguneroko bizitza oreka-larrian edo oreka zaindu bearrean bizi direla itzura emoten dau”.

Benetako erantzuna, Saint-Giles`eko Eleiz-Nagusian argi ulertu neban: Eleiz-Nagusi ori (catedral), nai-ta ukalari`en Eleiza (iglesia protestante) izan eta Ingalaterra`ko errege edo erregeñaren agindupean egon, Eleiza guztia, agin-zalekerien edo kaizarkeripean borrokatu ziran gizon ospagarrien omenaldian eginda dagoela esan leikelako.

Orregaitik ez dira Laterriak (estados) demokraziaren zuzentasun edo zentzunezko bidezkoak, berezko erritarrak euki bear dabezan ardurazko lotsak kentzen dautsiezalako eta batez be, eurak bear dabezan ordezkartzarako diruaren kontrolak kendu ezkeror.

Or ikusten da, euren etxearen jabe ez dirala, nai-ta Laterritutako Ingles kaizartzak, eurak nazio edo aberri-bat dirala onartu.

Europa`n, XIX gizaldian Laterritutako Kaizartza oneik, konturatuko dira... LAPUR-UTSAK DIRALA ?. Espainan beintzat argitasun guztiagaz azaldu da, berezko-jabetasunari (autonomias) nai-ta apur-bat bakarrik izanda-be eskuak zabaldu ezkeror, bizitza on eta ordezkartzazko-bakean aurrera eroateko, bear doguzan ardurak bete egiten dirala. Baiña noz !! ardura orreik “REX GRATIA DEI” AMESKERIAN BETE ?

Irailla`ren5`ko aste-azkena:

Seiretan jagi giñan, zazpiretan gosaldutako eta zortziretan fardel edo bide-kutxak artuta bus`era igon Edinburgo`ko gorengo lurraldeak ikustera.

Lurralde onen mendiztia (orografia) ikusten joan giñela Dalwhinni`ko Whisky-lurrindegira (destileria de Whisky) amar`terdian eldu giñan eta ango arduradunak

Whisky-gintza erakutsi, Malta`ko whisky`a gozatu (catar, paladear) eta erosi ondoren, Inberness`era joan giñan Glen Mhor jatetxean bazkaltzeko. Emengo janaria ez zan izan gure gogokoa.

Inberness erri onek, ikusteko gauzak daukaz eta polita da, baiña Edinburgo`ri sortzen jakon antzera: Etxe, lur-saindu edo illerriak, Eleizak eta tegi (edificios) guztien arriak loi. Len esan doten lez, erri oneik ez dagoz euren ardurapean.

Bus`era igonda eta bidean Kulloden`etik aldatzen goazela, Mari Jesus`ek esan euskun: Lur orretan Ingles`aren aldetik 1.746`ko Jorrailla`ren 16`an egin zan azkeneko borroka-odoltsuan, Inglaterrarentzat garrantzi aundikoa izan zala, bertan Ingles`tar Kumberlad`eko dukeak Estuardo`tarrak ezereztu egin ebazalako, ortik aurrera Eskoziarrak menpean geratuta.

Gero, Kawdor gaztelua ikusten joan giñan eta an ondo zainduta dagozan ortu ta gazteluaren barriak ondo azterkatuta gero, Abiemore`ra joan giñan.

Emen, I Abimore ostatu-etxean fardelak itxita, ondoan egoan Mac Donald jatexera joan giñan. Bufet edo zer-zerbis egon zan eta askotariko ta ondo apainduta egoan lez, gure-gendunetik artuta, ondo ta pozik afaldu gendun.

Iraila`ren 6`ko ostegun edo eguena:

Goizeko seiretan izartu giñan zazpiretan Mak-Donald Mesort onetan gosaldu bear gendulako eta zortziretan bus`era igon, eguen oneri txango-zaletasunaren merezimenduan, erantzuna emoteko.

Abiemore`tik urtenda Wester Ross`erantza joan giñan, bidean Rogie-Falls`en geratuta ango The falls of Measatx ur-jauziak ikustera eta ango bide basatietaik joan giñanean urretxa`k, ongoak eta zuza-ori perretxikoak artu genduzan. Baten batek esan eustan: An egon ba-giñan e...?.

Ikuspegi polita da benetan, arek ur-jauzi baltzak (azpian ikatza dagoelako) ikustean ain azkortasunezko oiantsu (frondosa vegetaciòn) ederrean.

Begirategitik eta berago egon zan kablezko zubitik argazki batzuk atarata, osterabe perretxikoak ikusten joan giñela bus`era eldu giñan.

Orain, Glen-Dotxerty`tik Gairlotx`era Lotx-Maree`en (lago Meri) Ego-Mendebaleko bastarretik, Ipar-itsasotik Atlant-itsasoren izpasterrera aldatzen gara eta aurreratxoago dagon Inberewue Gardens`enean, 1.862`an Osgood Mackenzie`ek landatzen asi eben beroaren be-aldeko (jardines-subtropicales) lorak eta zugatzak lurralde aundi baten ikustera.

Lorak eta zugatzak ikusten zoazenerako, ango arduradunak euro bigaitik eskuko-gaillu bat alokatu egiten dautsue, nor-bera ikusten doan bitartean, jakindesun zer eta zergaitik dira ango lore ta zugatz aiek. Ederra eta lan bikaiña asi ebenak eta an egiten dabizena.

Gero Aultbea O.T.A.N dauan erritxotik Dundonnell`eko ostal-etxean ondo bazkaltzera joan giñan. Janarien izarra izokiña zan.

Ortik, Drumndrotxit`era joan giñan eta Lotx-Ness`ean (lago-Ness) itsas-ontzi batera igonda, ordu erdiko ibilbidea egin gendun Urkuhart-Gaztelu ederrera joateko eta kanpo aldetik zurez eginda daukazan gazteluaren aurkako tramankuluak eta gaztelua ikusita gero, ondo egon zan pelikula labor-bat emon euskun, beren azkeneko edestian sortu ziran gertakizun gogorak adierazteko. Argazki asko atara nebazan.

7`1/2`etan eldu giñan Abiemore I ostal-etxera eta Mak Donald Mesort`en ondo afalduta ogeratu gintzazan.

Irailla`ren 7`ko ostiral edo barikua:

Bost`terdian jagi giñan 7`retan gosaltzeko eta zortzirak lauren gitxiagotan bus`era igoteko.

Txango-bidai au, Abiemore`ko goiko lurraldeetatik ugartearen ibilbide polit-au artu gendun eta 10`1/2`etan Eilean-Donan`eko gaztelura eldu giñan.

Ordu bat eta erdi egin gendun gazteluaren edestia barru ta kanpo-aldeetik ikus-entzuten.

Eskatza zabala eta ondo antolamenduta euki eben, bere zizkuetan (departamentos de la cocina): Tresneriak eukiteko, eizan arrapatutako egazki ta abereari lumak eta narruak kentzeko, artesak urune eta bear zana gordetako, mai-luzeak urunak oratzeko eta gozokiñak ta gatz-ozpiñak apaintzeko eta su-laba azko lapikoetan egosi, abereak erre eta ogiak egosteko .

Sukaldeko inguru guzti orreik, bizirik eta len lan egiten egon baziran-lez: Gizon/emakume, tresneri ta eizako egazkin abere ta guzti, edertasun guztian irudituta egon ziran. Argazkiak atara nebazan.

11`1/2`etan urten gendun Skye ugartearen Ipar-Mendebalerantza eta Staffin erritxo baifño berago dagon Kilt-Rock itsas-bazterrean, itsas-maldan edo goitik-beerako arteztasun guztian eta Eskozia`tarren gerri-beko jantziaren antzera, artudunen (falda plisada) edo tolesturatuta (en pliegues) dagozan atx-ebakiak ikustera joan giñan. Nor-bera txundituta geratzen da, alango gauzak berezko edertasunean ikusten diranean.

Portree errian, lenago Mak Nab`s izan zan Royal ostatura joan giñan bazkaltzera eta ondo jan gendun.

Bus`ean igon eta 4`1/2`etan Armadale`ra elduta, 5`etan itsas-untzi (ferri) batera igon gendun Mallaig errira joateko.

Emendik bus`era igonda Fort-William`erantza eta au atzean itxi ondoren Lotx-Linnhe aintzira (lago) edo ur-geldiaren ertzetik Oban`eko erritxora, Kolunba ostatuan lo eta afaldu egiteko.

Itsas-ertzeko Oban erri polit-onen etxe-bizitzak, beren itsas-kai ta ondar luzeran, iru edo lau kaleko maillatan eginda dago. Eta argi ikusten jako txangolarientzat eginda dagoela.

Itsas-ertzean kokatuta dagon ostatu garbi ta polit-onetan jan da lo egiteko bere denbora onenean, gelak aurretik eskatuta artu bearke ziran, bestela jai. Gaur baifña, naita beren betiko lillura (encanto) euki, beren garbitasunean lan geiegi egin bear dalako, ez dot uste gaur egunean aurrera atarateko moduan dagoela, guk susmatu genuen antzera, ez bada izaten arrotzetxe`en (hospederos-hosteleros) ikastetxe bat.

Bertan afaldu ta gosaldu gendun ondoen.

Irailla`ren 8`ko larunbata edo zapatua:

Oban`etik, goizeko 9`etan urten gendun eta Eskozia`ren Glenkoe`ko ibar edo aranetik eta Trossan`eko inguru menditsu ta basarte ederreneko eritzian aipatuta dagozan bidetik zear, Lotx-Lomond (Loch=lago) aintzira edo ur-geldi zabalena bealdean itxita, Stirling`erantza joan giñan, bidean Kallander`ean egoan Hamish zezen uletsu, aundi ta adartsua ikusi bear gendula-ta geratuta.

Hamish zezen au, oso apetatsu eta maiñatsua (caprichoso, perspicaz) izan zan, ikusle eta jendearen maitekerizko ikutuetan ez bazan asarratzen, alboan gizon bat maillukiak zaltzen egonda berari jaten emoteko, ez ebalako mugi-aldi edo zirkinik egiten.

Stirling`era elduta, beren goi-aldian daukan gaztelu ederrera (Stirling Castle & Nat Wallace Monument) igon gendun eta guk ordurarte ikusi genduzan gaztelutatik edestiaren garrantzizko arduran, aunditasunean eta zainduta bera izan zan.

Emen be, sukaldean bertan eta inguruan egon ziran tresnerien gelak, eizan arrapatutako egazki-abereak garbitzeko ta gero erregosteko, ogien gertaerako orezkatzeko artezak eta labak, gizon/emakumeak euren lanetan dirala eta abar, lengo gazteluan bezela emen-be lanean danak bizirik egon ba-ziran lez antolatuta euken.

Argazkiak atara nebazan eta orma baten gaiñera igon nebanean talde osoari argazkia atarateko, beko-aldetik makiña bat garrasi edo oi u egin eustien andik beratuarte.

Gaztelu eder au ikusi ondoren, ospen aundiko Golden Lion (Leon de Oro) jatetxera bazkaltzen joan giñan eta ateetan bertoko ezkontza baten ospakizunagaz aurkitu gintzazan, gizonak Eskozez eta nezka-andrak dotore jantzita, ostatu barruko sarreran ta atean argazkiak ataraten egonda eta otamen (piscolabis) edo amaiketako baten antzera, prestatutakoak janda joan ziran.

Gu, leenengo solairura joan giñan bazkaltzera eta tresneri askoren artean eta jateko gitxi aoratuta, bus`era igon gendun Glasgow`era joateko.

Bidean goazela, Mari Jose`k bere erakutsian Drakin ur-geldi (lago) polita erakutsi euskun (itzulpenduta "Mozkortia" esan gure dauana). Mendietan bizi dan aberea, orein edo bas-auntz gorria dala eta egaztietatik galduta egon dana, basoak, zuaizti edo oianetan egon ziran zuaitz guztiak bota egin ebalako (gaur-egun bir-eskuratzen dabizenak) "Martin-oilar edo Bas-oilarra" dala esan eban.

6`retan Glasgow`era eldu giñan eta bus`etik fardelak artuta "QUALITY" ostatura joan giñan, afaldu ta lo egiteko, astelenean Eskozia`tik etxera itzuli arte.

Iraila`ren 9`ko domeka edo igandea:

Quality ostatu aundi au, Gordon-Street kale ondoan dago eta bere denboran bitxi-bat izan bazan-be, gaur betiko apainduekaz egonda, izarak izan ezik loitasunean agertzen da.

7`retan jagi giñan, 8`1/4`retan gosalduta eta 9`1/4`etan bus`era igon Glasgow uria ikustera.

Alizia izeneko txangolarien-erakusle barria euki gendun emen. Erriaren xeetasunezko adierazpenetan oso jakitun eta atsegintsua bera.

Glasgow izenaren itzulpena "Biotzeko toki orlegia" dala eta erria, edonondar edo nunaitarren (cosmopolita) Uria zala. Bertan, Mundua`ren leenengo Merkatarien-Etxea sortu zala eta kanpotik giroaren sutsuduragaitik oso loi ikusi gendun XIII`n gizaldiko Gotzai-eliza edo Eleiz-Nagusia, gaur Uria`ren patroio edo zaindari dan San Mungo leenengo gotzaiñak eraiki ebala eta Ingles`en eleiza abadearen eleiza dalako ez daukala maillazko gotzaidirik esan euskun.

Ikastetxe-Nagusien ondolik aldatu giñanean, artean Txarls Darwin`ek irakasten eben etxea zein zan erakutsita, aldi baten 45.000 ikasle egon zirala batera esan eban.

Uri lantegitsua izan zala eta bere denborako Klyde ibaia, Munduan lenengoa bere 80 ontzitegirekin.

Errekaren ertzetik aldatzen ibili giñela “Uribarri`tar Dolores”en tupiki edo brontzezko oroigailua errekarara begira eta besoak zabalik eukazala ikusi gendun eta erriaren erditik ibili giñanean, Mandela`tar Nelson`en enparantza. Bera espetxetik askatu ebenean Glasgow izan zan leen ikusi ebana.

Aratsaldeko ordu batetan, Millennium-jatetxera joan giñan ondo bazkaltzera.

Glasgow`en laburpena:

Edinburgo baiño argitasun aundiagoa eukinez garbiagoa-be ba-da eta errekan ta errian egin diran aurrerakuntza aundiak nabarmenki ikusten ba-dira, oraindiño naikoa egin bear dabe euki bear dauan maillara igoteko.

Gazteen artean egoera larriak ikusi nebazan, Glasgow`eko gazteri artean (nai neska edo mutil izan) jai-eguneko arratsalde ta gauak, guztiz neurribakoak diralako.

Zeozter ospatzen urtetan dabenean, esan leike udabarrian aberetasunari kortako atek zabaltzen diranen antzera larreratu daitezkan kaleratu erdi larru-gorrian urtetan dirala.

Gure artean berbetan egon giñela, baten-batek esan eban: “Erritar-arduradun jakintsuaren artean, alkoola, sendagailu (droga), garagarra eta gazteen loditasunak dirala” geien arduratu egiten dautsienak eta garbitu egin gure dabela. Baiña garbitasun orreik nekez egin leikez, Eskozia`ko erria euren ardurapean ez ba-dago, etxeko arazoak etxean garbitu bear diralako. Zelan...etxearen ardurazko jabetasunik gabe ?.

Eskoziatarrak Keltiar lez, beti izan dira demokraziaren askatasunezko maitekorrak, beren izatearen nortasunezkoak izan-da, beti borrokatu diralako ingles`en kaizartzazko menperatzailletasunaren aurka. Orregaitik euren arazoak gureak dira, bion arazo bakarra, JAINKOA`k gizartearen eskubideari emondako NORTASUNA`k ezereztu egiten diralako.

Mundu onetan... zer izango giñan NORTASUNIK GABE ?.

Bidaiaren egunak nai-ta mugi-aldi aundikoak izan arren, nirentzat oso ederrak eta argi-bide aundikoak izan dira beintzat.

Iraila`ren 10`eko asteleena:

Etxera etorteko eguna.

Arantza egin gendun ibilbide bardiña egin gendun, Frankfurt`en baiña iru orduaren itxaron bearra eukinda.

Atutxa`tar Paul

Zornotzan 2.007`an Iraila`ren 24`an

EUSKALERRIAREN ASKATASUNAREN

EDESTIA

AURKEZPENA:

Euskalerriaren Askatasunezko edestia argitasunera azaltzeko, bere gizartea, iker-arlo zabalean daukazan atal-ezberdin edo berezietan ikertu bear dogu, jakiteko, bizitzaren azturazko asieratik, zelako baldintzak izan diran, gaurko Euskalerriaren askatasunezko egarrion agertu gaitezkan.

Edestilaria ez naz, baiña !! gure erriaren askatasunezko arazoakaitik minduta bai !!. Eta arduraren bide-ori izan da beti, gure Euskalerriaren edestia zer dan jakiteko menperatzaillearen aurka zaletasuna emon daustena. Eurak, edestiaren arrazoizko aipamenak, sekula ez dabezalako esango. Eta esaten ba dabe, sekula egirik ez, aurkakoa dalako.

Beti jakin-dot Euskalduna nazela, baiña gure egiaren arrazoizko ziurtasunak, Berriatergortua`tar Pedro ta Aita Santi`gaz asi nintzanetik, Akesolo`tar Lino, Arostegi`tar Luis, Zubikarai`tar Augustin, Arrinda`tar Anes, Latiegi`tar Bizente, San Sebastian`tar Jose Maria (LATXAGA), Oñatibia`tar Manu ta Dionisio, Gaztañaga`tar Jesus, Zatarain`tar Anbrosio, Azurtza J.J., Zubiri`tar Iñaki, Solozabal`tar Paulin eta gaur Olazar`tar Martin`en irakatsiakaz. Euskalerriak eta bai nik-be, zor aundiak daukaguz oneikaz, euren bizitzak Maisutasunezko irakaskintzan, JAINKOA`ri eta Euskalerriari, oso-osoan eskaiñi dautsoezelako.

Orregaitik, edesti onen autueta edo kondaira ez dot egingo, guk, beti lez egin dogun antzera, lan guztia gure lepoetan artuta, barruko barnetik asi-ta kanporantza garbitzen, errudunak izan ba-giñan bezala.

Menperatzailleai egokera orrek, itzitasunean lagundu baiño ez dautsolako egiten, euren guzurrea 2.760 urte dirala asmatu zanetik, 1.682 urte dirala sendotu, Toledo`n 1.418 urte dirala ezarri zanetik eta oraingoak 500 urte dirala egi-lez ezarrita eukin-da, edesti arloan lan gitxi egin bear dabelako, gizarte ez-jakin aurrean nozik-bein ondo apaindutako liburu baten edo aoz, beste guzur aundi bat botata, arrazoigabeko naaste orreik iraun dagian.

Gaur egin diran iker-lanakaz, autu au edestuteko, dakigun Kromañon`en zabaltasun ta jakintzaren kanpo aldetik barrurantza asiko gara, menperatzailleak be aitzakigabe itzita, arrazoitasunaren bearrezko lanean sartu daitezkan. Danok jakindaigun, andik gaur egunerarte, zelango asmo-gogoaren indarrezko-alegiñiak izan diran errudunak, arrazoibako-lokatz oneitan agertu gaitezkan.

ITZ-AURREA:

JAINKOA`k bialduta, Mundu onetara jaioten garan guztiok....., jakin-miñagaz jaioten gara, azken baten gure aldetik bizitza, ontzat-artu bear dan gauza dalako eta bizitzak aurrera egiteko aurkezten dauskuzan egin bearrak, jakintzazko antolamendu on-baten bearrean kokatzen gaituelako.

On eta Txarrezko itzak aitatzen doguzenean baiña...., zeri buruz aitatzen doguz ?
Beti ! JAINKOA`k Mundu onetan ipinitako bereztasunezko legeari, danok bardin jaiota, danoentzat lege-bardiña dalako.

Mundu onek daukan Legea gai guztiarentzat bakarra izanda, gure elburuzko eginkizunak lege orreitan oso-osorik sartzen dira, bere une edo muiña gizartearen eskubideak dirala.

Gizartearen eskubideakaz borondate onean jokatu ezkerro, gure bizitza bakez eta berez, zuzentasunezko bidetik joaten da. Baiña, sasi-jainkotasunean edo menperatzailetasunezko elburuan jokatu ezkerro...., dana da amurrua, egon-eziña, gaurko gudu-sarraski eta urkapenak. Ekaitz-lege orreik amilburu bateko larrialdean kokatzen gaitue.

Orregaitik, gure borondatearen autabidea ain laburra da, "On eta Txarrezko" gogamenean geratzen dalako. "EGIZ = BEREIZTASUNEZKO LEGEAN EGIN-DA" edo "GUZURREZ = BEREIZTASUNEZKO LEGEAREN AURKA EGIN-DA". Gaur, Espaina`ko laterriaren legeak, bigarren autaketa onen barrutik egiten dira ezereen lotsa-barik eta orregaitik, nazkagarri ta gorrotogarriak dira !! Berezko-Legearen-Elburu-gabe, guzur-utsean eginda dagozelako.

Biak, euren eginkizunaren maillazko adierazpenean, amaitueziñeko arloak daukiez (uts`etik-amaigabera). Eta neurrizko bizi-mailla orreitan igaroten dira gure balaun-aldiak. "Gaurkoa" txarreneitarikoa dala esango neuke.

Txarren ondorioz agertzen jakuna: Menperatzaileak alde-batetik, gure Euskal-Iparrean naastu gaitez, euren lojikazko eginkizunetan eta edestiaren adierazpenetan guzurak baiño ezin dabezelako aurkeztu (erreza da arrapatzea) euren oifarrria guzurra dalako, gaurko-lez, beti egongo dira egia naaspiltzen.

Gaur ikusten dan lez, sasi-jainkotasunean aurrera egin ezkerro, laster agertzen da JAINKOA`ren LEGEA`k daukan muga (agertzen dabizena), Mundu`ko bizitza eziñezkoa biurtuko dauana, gure ARIMA`k, BERE LEGEA LOTSA-GABEKERIAN artu daualako.

JAINKOA`k, ASKATASUNA emon euskun BERE LEGE aurrean bide-onetik edo txarretik jokatzeko eta au izango zan ASKATASUNA`ren esangura, bere azalpen edo xeetasunean: "BEREIZTASUNEZKO LEGE-AURREAN = EKANDUZKO-NEURRIA, GURE ORDEZKO ERANTZUPIDEETAN".

JAINKOA`k emonda, ez daukagu beste ASKATASUNIK eta eroaten dogun bidetik eroanda, zelango itxaropidea daukagu ?. Bizitzari zirriborro bat egin eta barria asi ?. Ekintza ori BEREN BORONDATEAREN ASKATASUNEAN DAGO.

Euskalerrriaren seme/alaba guztiak, alegindu bear geintekoz Euskal-Askatasunezko edestia zer dan JAKIN eta ULERTZEN. Mundu onetan ez dagoalako borondatezko indar AUNDIAGORIK. Europa`n Izar aundi bat-lez, oraindiño EUSKALERRIAREN ASKATASUNA dalako.

EUSKALDUNAK ifondik ifñora ez dogu itzi bear, Europa`ko indar gaizto orreik, Europa`n geratzen dan ASKATASUNAREN URREZKO ALTXOR AUNDI ORI ezereztu dagian. Beragaz, ez bakarrik gure ASKATASUNA, gure NORTASUNA ta EUSKAL IZAERAREN EDERTASUNA be ezereztu leikiezalako.

Orretarako baiña, danok EGI AZKO-NEURRI-BEREAN edo eta al dogun EKANDUZKO-ZIURTASUN AUNDIENEAN jokatu bear dogu.

EUROPA, KROMAÑON GIZARTEAK BETE eta ERRI-BALTZU BATEN (Anfictionia) DEMOKRAZI ZABAL BATERA EROAN EBAN ANTZERA, BERAGANDIK GERATZEN DIRAN AZTARNAK (Reliquia) edo EUSKAL-NORTASUNAREN-ASKATASUNAK, EUROPA ta MUNDUA, BERRIZ LIMURTU (Conquistar) BEAR DITUZ, ASIERATIK eta MILLA URTETAKO IKAS-BIDEAN LORTU ZIRAN DEMOKRAZIZKO ASKATASUNAREN ULERMENAK EZ DAITEZAN AZTU. EUROPA eta MUNDU AU TXARREKO BIDETIK ATARATZEN ALEGINDUTA: ZUZENDU, ARGITU ta GARBITU DAGIAN, JAINKOA`ren LEGE-ONENEAN BIZITZEKO.

Ez gaitez aztu, oraindiño: EUSKALERRIA, EUROPA ta MUNDUA`an, DEMOKRAZIZKO ASKATASUNA`ren IZARRA DALA.

Goazan ba, Euskalerraren Askatasunezko edestia azaltzen, nire iker edo billakuntzazko jakintza-bidetik lojikaren aztura, zer erakusten daukun.

LENENGO ZATIAREN SARRERA:

- Kromañoñ`en asiera eta zabalkuntza.
- Europa`n , ezagutzen doguzan leenengo gizakiak.
- Europa`n, Kromañoñ`en sarrera.
- Kromañoñ`en bizitzan, antolakuntzaren arlo-ezberdiñak: “Senidetasuna, Izkuntza, Legea`k, Erlijiñoa eta Gizartean ardurazko artu-emonak”.
- Europa oraiñarte ikertu daben jakintsuak zer esaten dabe edo nungo ondoriotara eldu dira ?.
- Europa`ren azturazko bizitzan, Kromañoñ giza...., zelan geratu zan antolatuta....., euren goi-maillaren dirdaitsuzko denboretan ?.

KROMAÑON`en ASIERA ta ZABALKUNTZA:

Kromañoñ-giza Euskeraren itz`etatik asi zan sortzen eta Europa`ra etorri orduko.... Zer izan zan edo nondik ibili zan ?.

Afrika-Asia`ko Ego-Sortalde arteko inguruan sortutakoa da tximu-jakintsu (Rhesus) au, orregaitik Euskararen asierako ainbeste itz, inguru orreitan.

Baleiteke Kanarias`eko ugarteetara bera-be joatea, ango ikusketarienzuzentzailleak TEIDE-sumendiaren izena “ETXEIDE” (EUSKERAREN IZKUNTZAN, DEABRUAREN-ETXEA ESAN GURA DAUANA) dala esaten daualako. Kromañoñ`en goi-arri-aro denborako itza da.

EUROPA`n EZAGUTZEN DOGUZAN LEENENGO GIZAKIAK:

Europa`n ezagutzen doguzan leenengo gizakiak, 1.856`ean Alemania`ko Rhur ibarrean aurkitutako gizaren azurrak dira eta orregaitik eroaten dabe ibarraren izena: NEANDERTHAL-ARANA, Düsseldorf etik urbil dagoena.

Europa`n ta Munduan egiten dabezan iker-lanak eta adibidez, erdi-ugarte onetan Granada`ko lurraldean Orze (Orce) deritxon errian, aurkitu diran gizaren eta bere tresnerien aztarnak orain milloi ta erdi urtekoak izan, Europa`ko gizaren benetako bilbakuntzak (evoluciòn), orain 300.000 urte inguruan dauka bere asiera eta Neanderthal gizaki onegaitik esaten dabe, laugarren izotz-aldian, orain 100.000-35.000 urte bizi zala eta osteko iker-lanetan 100 gizon/emakumeen azur-ondarrak baiño geiago aurkitu dabezala Europa guztian. Bai Siberian, Jaba eta Rhodesian be.

Txikerra ta indartsua izan zan antza, eta bere jakintzazko-izatasunean, Omopapiens (Kromañoñ) baiño, beragoko mailla batekoa izan ei zan.

KROMAÑOÑ`en SARRERA:

Kromañoñ-giza Europa`ra, Kristo baiño ariñoagoko 20.000-10.000`n. urtean Magdalenense eta Aziliense (gorengo Paleolitikoaren asken denborak edo arriaro`ko aldiak zirenak onantza asi-ta) arteko denbora inguruan Afrika`tik etorri zan eta bere zabalkuntzan, Neanderthal`ak ezereztu ziran edo Kromañoñiek urtsutu eben aurrekoen Europa.

1.868`an Frantzia`ko Ego-Sartalde`an Dordoña`ko lurraldean eta Perigor`eko (edesti aurretik Eyzies-de-Tayac deitzen zana) errian dagoan Kromagnon aitzuloan, goi-arri-aldiko asieraren giza-azurrak aurkitu ebezan: Gizon-zaar batenak, adiñoeko gizon bi, emakume bat eta aurtxo batenak.

Danak buztin gorriagaz margoztuta, zirgillo edo beso ta samako estunakaz (pulseras y collares) eta saretxo edo xirristak itsas-maskorakin (conchas) aristatu edo ondozkatuta egon ziranakaz apainduta. Eta giza-azurrak geiago: Frantzia`ko beste lurralde batzuetan, Txekoslovakia`n, Erdi-Ugarte onetan, Alemania`n, Suezia`n, Italia`n eta Polonia`n be aurkitu ziran.

Gizaki onen buru-azurrak, gaur daukagun giza-itxuraren bardiño-antzekoak ziran eta eroaten ebazan apainkeriak, bilbe (evoluciòn) aundikoak zirala esan eben. Oneik dira Kromañoñ giza deitu dautsienak eta Europa`ren arbasoak.

KROMAÑOÑ`en BIZITZAN, ANTOLAKUNTZA`ren ARLO-EZBERDIÑAK: "SENDITASUNA, IZKUNTZA, LEGEA`k, ERLIJIOA eta GIZARTEAN ARDURAZKO ARTU-EMONAK:

Kromañoñ giza Europa`n sartu eta ugaritzen asi zanetik, leia edo premiatusun bateri aurre emon bear eutson euren babeserako. Janari billa gero ta geiagoko lurraldeak, abere eta landareen azi ta fruituak bear izan ebezalako.

Eta babes-ori, orduko Europa`ren izotz-urtzean lortu eben. Eiztariak urtze orren ondorioz, izotz-oreiñoak eta mamutzar`en iges-aldian edo atzerakada egitean euren atsegiñozko giroan egoteko, Kromañoñ giza, Europa guztian zabaldu zalako.

Europa`n, orduko denboraren giroa beren goraberakaz, negu-gorrian bizi eta euren babeserako eiza eta landara`ren fruituak batzea bakarrik ez zalako naikoa, berez, beste lojikazko oldozmen edo gogapenezko egarrian agertu ziran: "Euren bizitzak bakezko egokitasunean ezartzeko, zelako antolaketak bear ebezan, ardurazko egokitasun ori lortzeko".

Mundu-bizitsu ta aldakor oneitan, ekintzazko arduran eta berezko denboraren larrialdiko egoeratik babesteko, leenengo ikasten doguna, orekaren egokitasuna da, Izadi onen indarrari, gordin-gordifnik aurka egin ezkeru, gu bañio askoz geiago dalako.

Ortik asi giñan senditasunezko alkartasunetan babesten eta gero, auzotasunezko leifñuetan, Europa guztia egokitzen.

“IZKUNTZA”:

Danon jakintzarako, zeregiñezko ekintzan, gaztelu eder bat egiten egon ba ziran`en antzera: “Gauza, giro, egoera, truke, ordain, abere, egazti, arrain, zuaitz, belar, lur, aran, mendi, arri, aitz eta abarren bear genduzan gauzari, ondo atondutako izenak ipini eutsezan. Eta izen bakoitza, itz-guztien arteko esangurean ezagutu daiten, bere bereiztasun ederrenean.

Orduko jakintsuak, goi-maillako arduran eta lojikazko aztura-bidean zentzunduta, ondo zaindutako ekanduan, itzen arteko oreka zaintzen alegindu ziran. Eta berbak, txarrera eta ontzarako esangurak euki eben benetazko zer-ikusia, gure arteko ulermenera argi ta garbi agertu daitezcan, eder-lanean landutako itzakaz eraiki eben Euskerazko gaztelu-eder ori eta Europa guztia argitan-ezarri, zentzu-aundieneko berba ederrenen artean.

Bereztasunari egindako iker ekintza bidetik Demokrazia`ren arloak atonduteko, gauza eder-bi ikasi ebezan: “Gure zeregiñezko arduraren EGIK, Bereztasunaren Egizko Ulermenean zentzun eta zeaztasun aundian egin bear dirala, ITZAK euren ekanduzko lekuetan, ondo ADIÑONDUTA (ajustar) kokatu daitezcan.

Eta bigarrena: “Euskerea`ren Izkuntzan gaztelu eder-ori egiteko, Aditza`k Itz-osagarriak diran-lez, guk be, danon eta gauza guztien antzera Bereztasunezko Legegai bakarra dan orren barruan erperatuta egoteagaitik OSAGARRIAK (complementarios) GARELA”.

Zentzun aundiz artu eben bide ori, zuzentasunen ardurean bide onena eta bakarra dalako. Begitu !! “DEMOKRAZI ARLOAN, ZELAKO GAUZA EDERRA EGIN EBEN”.

LEGEA`k:

Gai`ezko Mundu oneitan, iñor ez da nor, Legeak, nor-beren gogoko burutasunaren irudimenetik sortzen diran lez Legeztuteko.

Zergaitik?: Mundu onen len-gai`a eta gurea Lege bardiñean eginda dagozelako, gure oiñarrizko sustriak bere len-gai`an erperatuta dagoz eta izaerazko egokitasun orreik dira guri debekatzen dauskuenak, Lege arloetan nai-doguna edo gure naia egiteko.

Orregaitik, guk edozein gauzatarako egiten doguzan Legeak, berak daukazan egizko legeditik bakandu edo atarata bakarrik egiztu geunkez, beren mendekoak garalako edo JAUNGOIKOA`k ipinitako Lege`en menpekoak garalako.

Gure Kromañon-arbasoak ainbeste milla urteko ikas-bizitzan ondo baiñio obeto ulertu eben berezko legetik-kanpo ezin zala bizi eta oso-osoa artu eta oituratu genduzan ikas-gai guzti orreik EUSKALERRIA`ren “LEGE-ZAARRAREN” bidetik.

"ERLIJIOA":

Orduko gizarteak, ezau-gabeko Izadi`bateri aurka egin bear eutson eta ain gordifñezko ostagi-aldaketak (cambios-atmosfèrikos) ikusita, bildurtu-be egin zan.

Bildurra artzeko dalako, laster asi ziran gogoratzen eta konturatuten, Izadi onen gaiñean BATEN-BAT egon bear zala eta euren giza-samalda ta nortasunarentzako babesa eskatzen asi ziran "JAUNGOIKOA`ri", gauza ta egin bear ziran zeregin guztien eskeintzazko bidetik. Danoren egokitasunezko aietasuna (comodidad, desahogo) eta onezko aukerak, bereratasunean (abundancia, prosperidad) lortu daitezcan.

Beste alde-batetik, ekanduan (costumbre, uso, moral) bearrezkoa dalako antolamendu on-bat, gure IZPIRITU`zko ARIMA`k giza itxuran mozorrotuta agertzen dan gorputzagaz bat eginda on-bideratzeko "GAIAREN SENDIPENEO ARRAZOIAK ONDO ULERTUTAKO OITURAN EGOKITU GAITEZAN".

Leen, ez gaitezcan aaztu eta beti kontuan euki daigun azken garaipeneko ari ortatik galdugabe edo eta oldozmen au danoen gogoetatik ez daiten suntsitu (desvanecer): "BESTE ARRAZOIZKO MUNDU BATEKOAK GARALA".

Bigarren, beste gauzarik ezin dogulako egin eta ezer egin gabe noraezean agertzen garalako, ortik agertu zan "EKANDUAREN ESTUAGOTASUNEZKO BEARTASUNEAN" ERLIJIÑO (religare).

GIZARTEA`ren ORDAIÑEZKO ARTU-EMONETAN:

Bizitza babesteko: "Senidetasuna, Izkuntza, Erlijiñoa, Jabe-gai bideak (herencias) edo Jatorrizkoak egokitzeko, Eiza, Bernutsak eta Soifeko jantziak apaintzeko, Janariak eta gauza guztiak ebagi eta bakez-lantzeko bear eben tresneriak emoten eutsoen lagungo edo alkar-lanen bidetik agertzen ziran arremakin. Euren arduratan beste ezinbesteko gauza bategaz aurkitu ziran, "LOTSAGIZUNA edo LOTSA`ren BEARTASUNAREKIN".

Eta "JAUNGOIKOA`ri ezkeintzerakoan, bai eta euren artu-emoneko gauza guztietan, LOTSA !! antzerkilari-nagusi lez artu ebelako, Europa milla urtetako jakintzaren egarrían eta lojika`ren jardunezko (empirismo lògico) azturan, gure denboraraiño etorri diran legezko argi-dirdaitsuakaz OITURATU zan.

EUROPA, ORAIÑARTE IKERTU DABEN JAKINTSUAK, ZER ESATEN DABE edo NUNGO ONDORIOTARA ELDU DIRA ?

Gaur, Europa`ri buruz goi-maillako ikerketan dagozanen artean: "Hamel`tar Elisabet, berrien idazlea; Wennemann`tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedratiko); eta Foster`tar Peter, Kambridges`ko ikastetxe nagusian genetika`ren irakaslea" dira.

"Spectrun Wisenschf" Aleman aldizkari jakintsuan argitzen dabe euren ikerketaren emoitza. Eta ezagutzera emoteko, au diño: "

"Europa`ren oiñarrizko gizartean, edo gizartearen genetan % 75 EUSKALDUNAK (Kromaño) dirala eta euren oiñarrizko izkuntza EUSKAREA dala".

Orregaitik aurkitzen dirala Europa guztiko baztarretatik Euskara`ren oiñarrizko itzak: "Aran, Ibar, Ur" eta abar asko.

Eta nik, barri au egiztatzeko Arrinda`tar Anes zanari itandu neutsonean, berak au erantzun eban: "Jakin aundiko gizon bi onein eta emakumeen esanetan, ez dagola adimen edo ezagumenen gabetasunik, EDESTI-AURREA, ODOLA eta GENEAK, gaur gai onen inguruan ikerketaren bidez ekarri dauskuenak, ALAN EMOTEN DABELAKO EZAGUTZERA".

EUROPA`ren AZTURAZKO BIZITZA, ZELAN GERATU ZAN ANTOLATUTA KROMAÑOI`en DIRDAUTSUKO DENBORATAN ?:

Europa osoa, Kromañoñ bizitza antolakuntzaren denboretan ikusi dogun lez, Euskal alkartasun, erri-baltzu edo erderaz Griego`en alkartasunari deitzen jakon anfiktionia baten antzera mugatuta geratu zan. LEIÑU`etan auzotuta, laterritu ziralako.

Faziztak gaur esaten dabe: "Euskalerrria, sekula ez dala laterritu !!".

Nor-bait edo erri-baten Laterritasuna, izaeraren erazko egokitasuna esangura badau eta edo gauzak ta norbait zelako erazko jarkeran agertzen dan beren izaera alan dalako edo bestela, erabagi ori berak artu daualako !!. Zer zan orduan..... eurak artu eben erabagi ori ?. Geroago agertu ziran faziztak, euren sasi-jainko ametsakaz garaipenean agertzeko, Europa osoa guzur-utsean ezarriko dabenak edo 2.510 etorkizunezko urteetan bardin dabizela (K.a.510 urte Erroma egin zanetik gaur arte) JAUNGOIKOA`ren berezko eta BERAGANDIK bereiztasunean eginda dagozan LEGEA`k ezin dabezelako eurak gura daben lekura aldatu.

Kromañoñ gizarteak, milla urte-askotan bizi ziran bakezko eta etenbako aztura-bide baten jarraituki (consecuentemente, constantemente), euren nortasunezko izkuntz, erlijio ta euren arteko lotsaren-ekandua oreka berean sendotu edo indartu daiten.

Demokrazizko elburu ta bide ortatik, fruitu ederrak artu ebezan. Geuri fruitu-eder orreik, bere edertasun osoan agertu jakuz "JAUNGOIKOA`eta LEGE-ZAARRAREN" ikur-itz edo ezaupideko ikur-buruagaz.

Eta emen kontu aundia artu bear dogu: "Gure ARBASOAK lortu ebezan goi-maillaren ASKATASUNEZKO OLDOZMEN edo GOGAPEN ORREIK, erromatar menperatzaillakandik asi, ta erdi-aro guztitik iraganduta, alde guztietatik espatakaz ainbeste eraso-aldi ta Izkuntza`ri ainbeste oztopo, naaste ta egin eutsoezan debekazioak dirala.

Bai !! katolikotasunezko laterri zaleen`gandik (nacional-catolicismo), euren guzurak siniskai-biurtuta ainbestean aizatuaren (amedrentrar, atemorizar) keifiauk egin, inguratu eta ezeren erruki barik zorotasunezko amurruagaz jazartzeko..... (perseguir).

Ludi onen legeakaz NORTASUNAREN ASKATASUNEAN bat-eginda eta IZKUNTZAREN ARLOAN lortu eben zeaztasunezko ta sendotasunezko gorputzak, ezin-beste ALDUNEZKO (poderoso) ARRALDOI-AUNDI BATEN ANTZEKOAK

izan bear ziran, bestela leenengo eraso-aldirik-be ez eban eutsiko eta gitxiago erdi-aro guztiko eten-bako eraso-aldiari.

Gaur-be, DIRU-ZALEKERIA`ren BURUZ eta GIZARTEAREN-NORTASU-NEZKO ARDURAKAZ BATERA, begitu zelango su ta garrezko egiñalean dabiltzan, MENPERATZAILLETASUN ORI LORTZEKO.

Eta arrazoi edo adimeneko-arlo oneitan, goi-maillazko iru itaun agertzen jakuz:

- a).- BETIKO ETORRI-ETE-GARA-BA.....BIZITZ ONEITARA ?. Bizitzak erakusten dauana eta danok oartzen dogunagaitik: "EMEN EZ DA GERATZEN IÑORK !!".
- b).- Gure arbasoak.....zergaitik ez eben gura danoentzat laterri-bat egin ?. Euren eskuetan egon zalako egitea !!. Eta euren eskuetan egon bazan egitea.....ez zan izango.....Nortasunezko ordezkartzan, ardurak obeto ordezkatu ta bete egiten ziralako.....ez ebela olango batzangotasunarik bear ?.
- d).- Gaurko borroka ez da.....giza ta erri-gizartearen Nortasunezko zor-eskubideak ez diralako lotsazko ekanduan ordezkartzen ?.

Nik uste-dot, euren leiñuzko auzotasunean ezartzean arrazoi guztia euki ebela, danontzat oso gaitz izango zalako, nor-beren ardurazko ordezkartzatik ies egitea. Eta danez gain, JAUNGOIKOA`k: "NORTASUNA`ren BORONDATEZKO GAI-BIZITZ ONEITARA" orretarako bialdu gaitulako.

Baiña...agertu ziran bai !! bizitz-au, betirako dalakoan... erromatarren`gandik asi-ta, sasi-jaintasunezko norkerian bizi leikela-ta....., batak-beste zapaltzen.

MUNDU ONEN LENENGO JENDEKUNTZA edo AZIERA (civilizaciòn), ta GIZABIDEA(cultura):

Mundu onen leenengo jendekuntza (civilizaciòn) ta giza-bidearen (cultura) asiera, Ekialde-Urbil ta Ekialde-Erdi inguruan sortzen da. Indo-ibai ta Nilo-ibaiaren bitartean.

Ejipto, Nilo ibai inguruan: Kamita`k eta Semita`k Suez`eko lur-beso`tik (istmo) sartuta, an egon ziran baltzak basamorturaino alboratu ebezan eta K.a. 4.000 urte inguru politika-legez erregetzazko giza-bide sendo baten antolamenduan egon ziran. Eta 3.300 urte K.a. Menes`ek erregetzara igon ebanean, goiko ta bealdeko Ejipto`ko lurak alkartuta, beren ostean Faraaien jendekuntzari (civilizaciòn) bideak zabaldu eutsoezan. Oneik ogeita-amar errege-leiñutan iraun eban.

Grezia`n K.a. 2.800 urte brontzezko denboran asi-ta, Elenika`ko erdi-ugartean Lateritutako-Uria`k ezarri ziranen artean, erri-jakintza asko sortu ta gaienduta desagertu ziran. Garrantzidunak Kreta ugarte eta geroago K.a. 1.700 urte inguru Mizenas`eko jendekuntza`tik sortu ziranak. Euki eben jakintza baiña, ez zan izan eurenagatik sortutakoa, Asia ta Ejipto`ko jakituriaren alkartasunagaitik sortu zana baiño.

Asia-txikia edo Anatolia, antziñako denboretatik izan zan jendekuntzaren gurutze-bidea: Ititen kaisertza 2.000-1.200 K.a gaiendu (florece) zan.. Geroago Urartu, Frijia, Lidia eta beste erreifñu batzuk agertu ziran, euren arteko giza-bidean oso ezberdiñak ziranak. Griego`ak Ejeo itsas-bazterretatik lateritutako garrantzizko

Uriak sortu ebazan: Efeso, Mileto, Klazomene, Fozea (Focea), Esmirna, Pergamo ta abar. Eta Ziro (Ciro) K.a. 546`an agertuta, inguru guzti ori, Persen nausitasunean menperatu eban. Ortik aurrera eta odol-zaleko baten edesti ostetik, Otomano`en eskutik Turkia biurtuko zana.

1.500-1.200 K.a. Indo ibaiaren ibarretan, Indoeuropeo`tar alderraiezko-abelzain (pastores nòmadas) Arioa`k, arbasoko-leiñuaren antolamenduan egon ziranak sartu ziran, eta barrurantz zabalduta Penyab eta Ganjes ibaiaren goi-aldi artean erreifñu txiker batzuk sortu ebezan, gero Eki-aldetik Bengala eta Ego-aldetik Gujarat`eraifño zabalduta, etorkizunezko 2.000 urtetan gizarte baten alkartu eta gizaki-mota`tan antolatu ziran.

Etruria, Arno eta Tiber ibaien erdian jaio zana K.a. 1.200 urte gitxi gora-beran giza-bide aundira eldu zan eta Erromatarren jaiotzarako eskuartzte aundia euki eban.

Baiña asierazko edestiaren zati au aitatzea, gure esanerako garrantzi aundirik euki ez arren, orduan zer sortzen zan jakiteko badauka bai, orduko erri-jendartearen artean garaitzen zanak, bestien giza-bideak batu egiten ebazalako eta Mundu guztiko gizarteak batzangotuta bideratzeko kaisertza baten menpean, asmakuntzazko oldozmen edo gogapenak egon zirala.

Etrusko ta Griego`ak lortu eben asmakizun ori eta euren-gandik K.a.753`an Palatino, kapitolino, Zelio (Celio), Eskilino, Biminal, Kirinal eta Abentino zazpi bizkarren mendisketan sortzen dalako Erromatarren kaizargo-menperatzaille irudi barri ori, Etrusko`ak, Sabino ta Iszeres`ak alkartu ziranean eta geroago zabaldu Tiber (Trastèvere) ibaiaren beste aldeko Janikulo, Batikano, Mario, Sakro, Pinzio, Kanpindoglio eta abar bizkar-mendisketan bizi ziran auzotegiak alkartuta.

Orrarte, iruditzen dogun Europa`ko Kromañon edo Euskal gizartea, Askatasun oso baten, bakez eta zoriontsu bizi zan, Demokraziaren lotsazko arduraren eta berezkotasunaren edo JAUNGOIKOA`k emondako berezko Legeetan ondo baiño obeto egokitu zalako.

Orregaitik asi bear dogu bigarren zatia, Europa osoan bizi ziran Indoeuropatarren leiñuakaz kokatzeko, gero irugarren zatian Europa`ko edestian, eurak artu ebezan lege bideak ikusita, laugarren zatian Euskalerrria`ko askatasunaren edestiagaz arduratzeko.

BIGARREN ZATIAREN SARRERA:

- Euskalerrriak, Keltiar eta Erromatarrak agertu orduko, bere erdi-gunetik dirdaitsu, nungo lurraldeetan burutu eban daukagun Euskerea eta lortu eben "EUSKAL-NORTASUNAREN-DEMOKRAZIZKO-IZATASUN EDER AU ? (cultura).
- Europa`n nortzuk izan ziran Indoeuropatarrak ?.
- Zelan gertatu zan...edo Indoeuropeo`ari zergaitik ebagi jakien euren asie-erako Euskal-izkuntza eta bardintasuna jaurkintzazko antolamenduetan ?.

- Noz agertu ziran Keltiarrak ?.
- Euskalerrria edo Euskerea, zelako lurraldetan geratu zan Keltiar ondoren ?.

EUSKALERRIAK, KELTI`ar eta ERROMATARRAK AGERTU ORDUKO, BERE ERDI-GUNETIK DIRDAITSU, NUNGO LURRALDEETAN KOKATUTA, BURUTU EBAN DAUKAGUN EUSKERA eta LORTU EBEN "EUSKAL-NORTASUNAREN-DEMOKRAZIZKO-IZATASUN EDER AU ?":

Euskaldunak, Keltia`rrak izan orduko, Euskalerrriaren zabalkuntza Auñamendiak zilbor edo erdi-gune (AUÑAMENDI`ren GIZABIDEA? - CIVILIZACIÒN PIRENAIKA ?) lez kokatuta, Europa`ko lur guztian zabaldu zirala, billur barik esan geinke, orduko denboretan Euskaldun (homo Sapiens) edo Kromañoiak bakarrik izan ziralako.

Orain, Euskerazko lurak-lez edo Euskal-jendekuntzazko gizabide-lez (civilizaciòn), milla urteko denboraren etorkizunean, Iparraldeko Eguzkiaren Sortalde edo Eki-aldeetik Italia, Suiza eta Alamanakaz mugatuta geratu zala esan leike (Aleman`aren izkuntzak, Euskal berba-asko daukaz bere itz-kopuruzko sabelean, antzekuak edo euren izatasunean, tankeran bardin-antzekuak diranak). Mendebaletik Itsas-Atlantiko`arekin eta Ego-aldeetik Afrika`gaitik. Orduan, Britaniatik asi-ta Kadiz`eraifio, Mendebaletik Atlantiko eta Ekialdeetik Italia, Suiza eta Alemania`k mugatzen daben goitik-berako lur-zerrenda orreitan.

EUROPA`n, NORTZUK IZAN ZIRAN INDOEUROPARRAK ?:

Iker-bide edo billaketa-bideko jakintzaren (saber cientifiko) oiñarria, izakizun, izan-diteken edo gerta-diteken alderagiña edo eta izakizun ta gerta-ditekena bereiztea, banatzea edo baztartzea izaten bada (eliminaciòn de posibilidades), eurak euki bear eben zabalkuntzazko eta azturazko arazoaren lojika-bidetik artu bear dogu asmo-azterpen edo egitamuzko-saio au, bere zentzunean argitzea gura ba-dogu.

Guk "Wennemann`tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua eta Foster`tar Peter, Kanbridges`ko ikastetxe nagusian genetika`ren irakaslea" diranak eredu-lez artuko doguz.

Gaur, euren ikerketaren bidez Europa`ko gizartearen geneetan %`tik 75 Kromañoen edo Euskaldunak dirala emoten ba-eutsoe eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea dala esaten dabela on-artuta, bildur-gabe eta uts-egin barik EUSKAL-SUSTRAI edo EUSKAL-ERROKO`ak zirala esan geunke.

Eta Euskal-izkuntza`tik datozela ziurtatzeko, or daukaguz Europa`ko baster guztietatik agertzen diran oiñarrizko Euskal berbak: "Urartu, Ur, Ibai, Tiber" eta abar asko Euskal izen.

**ZELAN GERTATU ZAN..., edo INDOEUROPEO`ari ZERGAITIK EBAGI
JAKIEN EUREN ASIERAKO EUSKAL-IZKUNTZA eta BARDINTASUNA
JAURKINTZAZKO ANTOLAMENDUETAN ?:**

Europa`ren lurak gaur txikerrak geratu ba-dira be, orduan zabalak ziran eta izotz-aldia urtzen asi zanetik, eurak Mamut eta izotz-oreiña`ren eizan zabaldu ziran, Euskalerrria`ren erdi-unetik urrun geratuta.

Euren urruntasunagaitik eta asi bear-eben aztura-bidetik.... aurrerantzean egin ebena, nai-ta sustrai batekoak izan, Euskal-erri-giroan geratu ziranaren antzera, euren bakartasunaren ekimenezko gogamenean ezerezetik era-barriak sortu eta bizitzaren egarrizko arlo guztiak jantzi: "Legean, izkuntzan, erlijioan eta jakintza-oituratzean".

Or !! Europa`ko Kromañon gizarteetan nun agertu zan ezberdintasuna.

Ez ziran ezberdindu gorputz`eko asiera`ren (genetica-genesis) soin-ataleko (somatikamente) arloetan, gaur be, ortxe daukaguzelako %`tik 75`eko berdintasun ori, eta jaurkintzazko antolamenduan bardin, Europa guztia leiñu-auzoko mugaldietan laterrituta geratu zalako.

Ezberdintasuna argi dago, ez dala agertzen gure Arimak jantzi-ta gagozan gai`ezko gorputz edo asierazko soin-ataletatik (nai-ta oneri be, lur-inguruak bere bereiztasuna emon), bizitzaren legeari emoten dautsagun azalkuntza edo adirazpenetik baiño.

Euskalerrria, millaka urteetan zear gaur egunerarte, gai`ezko Ludi onek daukazan legeak edo JAUNGOIKOA`k gai-Mundu oneri ipinitako Legedia, zentzuz eta eten-bako ekintza bidetik asi-ta, ondo baiño obeto ikasi edo ulertu eban, BEREZKOTASUNAK eskatzen dauan DEMOKRAZIZKO OITURA ederrenera eldu zalako.

Orregaitik, porroka-ezin edo, ia suntsi-ezinezko (casi indestructible) NORTASUNERA ELDU ZIRALAKO. Gaur "GURE NORTASUNEZKO ABERTZALETASUNEAN AGERTZEN GARA".

Euskalerrria bere bizitzan, zorion edo aldi-onekua izan dala esango neuke. Asieratik gaur-arte, bere azturaren ekanduzko bizitza, jarraian (de seguido, sin interrupciones) etorri dalako.

Eta emen, Arana ta Goiri`tar Sabino aipatu bear dot, Aranzadi`tar Engartzi`ri (Kizkitza) 1.901`an Urtarrilla`ren 5`eko eskutitzan egiten dautson itauna agertuz: "JAUNGOIKOA ETE-DA BA...., GURA EZ DAUANA EUSKALERRIA DESAGERTU DAITEN ?".

Ez eben euki zorientasun bardiña Euskalerrriaren senetik banandu zirenak, Euskal-erpetik urrun eta leiñu txikietan zabaldua, ez ebelako aukerarik euki tronkaleko gorputzetik zabaltzen diran ekanduzko-dirdirak (irradiaciones-morales) euren gogoetan oituratzeke. Eta baliteke eldu-bako ekandu ori izatea, gero euren itzulkeran erasotzaillezko oituran agertzeke. Euskalerrria, sekula ez da joan beste erririk menperatzen, bere EKANDUZKO OITURA DEMOKRATIKOA, SINISMEN AUNDIKOA IZAN ZALAKO.

Baten, Aita-Santi, Zubikarai`tar Augustin eta beste batzuk Karo Baroja`tar Julio`gaz egon giñanean, onek: "Euskaldunak gaur agertzeko mirari aundi-bat izatez gain, mendi-bideak edo euren lurak ondo baiño obeto ezagutzen ebezalako zala" esaten eban. Ez zan konturatzen Euskaldunak JAUNGOIKOA`gan sinismen aundia eukela eta BERE-LEGE aurrean, bere bizitzan egin bearrezko gauzak ondo baiño obeto eta ardura aundiz bete egin ebezala. Ori egiztatzeko, or !! gure "LEGE ZAARRAK" edertasun guztian. "BEGITU NUN DAGOEN, MIRARI AUNDI ORI EGIN EBANA".

Eta emen bitxi bat, fazizta menperatzaileak eta antzekoak diran sozialistak, gaur egun biak, berezotasunaren aurkakoak eta menperatzaileak diralako, ezergaitik-be ez dabe entzun gura "Tximu Rhesus"etik edo Tximu-Jakitun`etik (Kromañon) gure ikerketaren lanerako, bere gorputzeko osotasunetik agertzen diran, sendi baten bereztasunean datozen bereiztasunezko txeetasunak odola eta abar, ta gitxiago gure ao`tik.

Bizitz onetan txeetasun edo zeaztasun guztiak zer diran eta nundik etorten diran jakiteko, neurri barru baten sartu bear dira eta guk erri-bat izatez-gaiñ ziurtatzeko, daukagun izkuntza, ekanduan oiturazko sinismena eta gorputzaren zeaztasun orrekaz Europa`ko erri-zaarrena garala erakusten dogu, Euskalerrian geien agertzen dalako "Tximu Rhesus"en zertzelada orreik ezezko keifñuan (negativo), endakerian (racismo) jokutzen dogula edo arrotzen etsaiak (xenofobos) garela esan dagian.

Zergaitik ainbeste amurru, jakin-bideko iker-lan bateri ?

Euren diru-zaletasunean, sasi-jainkotasunezko menperatzailetasunean jokatzeko asmatutako guzurak aizean eta agiri-agirian geratzen diralako ?.

JAUNGOIKOA`ren bereztasunezko legea, beti bardiña eta muga-gabekoa da, orregaitik guk erabili bear dogun mozkin edo dirua ta indarrezko gai guztiak euren kontrol-pean eukiteko, guzur geiagorekin egia gorde edo ostondu eziñean ibili bear dabe ?. Eurak, ez diran erritarrak guzur orreitan egia dan bezela kokatzeko ?. Noz !! arteko oiñaze eta nekagiroya izango ete-da NORKERI-ORREN-EKINTZA ORI ?.

Gaur, Europa`ko gizartea guzur orreitan ezartzeko eta sinisteko..... Mailla aundiren jakintzazko-egarrian kokatuta dago eta jakituriaren zeaztasun edo zertzeladak baiño ez dira orreik.

NOZ AGERTU ZIRAN KELTIARRAK ?:

Leenengo-Keltiarrak, Alemania`ren Ego-Mendebaleko lurraldetan jaio ziran.... 2.000 urte K.a.?

Inguru orreitan beintzat, Alemania`n egon ziran kokatuta Keltiarrak, euren izkuntzakaz leiñuzko auzoetan laterrituta.

Ortik, leen Britania`ko ugarteetara zabaldu ziran, gero Mendebaleruntz Iberia`ko Erdi-ugartera, Ego-alderuntz Italia`ren Iparraldera eta Eki-aldeetik Danubio-ibaiaren bealde baiño urrunago.

1.800 - 1.600 urte K.a., Britania`ko Ugarteetara egin eban leenengo erri-aldea.

1.200 - 800 urte K.a., Galia edo Frantzia`ren Britania`ko lurraldeetara, Franko`ak Loira-ibai`aren goialdean kokatuta.

Eta 900 – 500 urte K.a., burdiñezko asiera Hallstatt deitzen jakonari eta Alemania`ren Ego-aldean Renania`ko lurraldetan kokatuta egon ziranean, Keltiar-jendekuntza Europa`ren Sarkaldetik zabaltzeko gertatzen asi zan.

K.a. VI – I`n Mendeen artean, Tène deritxon goi-maillako Keltiar-jendekuntzan (civilizaciòn) egin eben zabalkuntza ori Europa`ko lurralde guztietara.

V`n gizaldian K.a. La-Armonika`gaz (Frantzia`n ariñagotik Britania`ko lurraldeari deitzen jakon izena eta gero erromatarrek galia`ren izena ipinita) jabetu ziran. Britania`k, Goidelo`ak Britania`ko ugarteetatik bota ebazan.

Batzuk, Akitania`tik iberia`ra aldatu ziran eta onekaz Kelt-Iberia`ko erri-gizartea sortu eben. Baiña....nortzuk izan ziran Ibero orreik ? Ez ziran izan....Kromañoi edo Euskaldunak ?. Azken baten danak Euskaldun-erpekoak..., nai batzuk Euskalerriaren erdi-gunetik urrunduta beste era bateko eritxi baten oituratukoak.

Argi dagoana da, Euskera`ren zilbor`etik urrundu ziranean, batera ikasitako eta oituratutako ekandutik-be urrundu egin edo atzean geratu zirala, itzulkeran argi erakutsi eban-lez. Euskalerria.... sekula ez dalako joan, gaur-be ez, iñor menperatzera

K.a. IV`n gizaldian, Alpes`eko mendi-kateak aldatuta Po ibaiaren ibar guztia menperatu eta Italia`ko Iparraldean kokatu ziran, lurralde oneri Galia-Zisalpinaren izena ipinita.

K.a. 280`an, Asia-txikia`tik zabaldu ziran, inguru areitan Galata izenarekin ezagututa. Eta K.a. 279`an, Grezia menpetu eben.

K.a. III`n gizaldian, Keltia`aren indarra aundia izan zan, baiña menpekotasun orreik antolamendu barik egin ziran lez, erromatarren bultzakadagaz, aienatu edo urtu egin ziran, Irlanda`n Gales`en eta Galizia`n bakarrik geratuta.

Eta emen, edestilariaren buruz zeozer aipatu bear dogu: Euskalerria Europa osoan....., jakin !! erri zaarrena dala eta iñungo liburuetan aipamenik egin ez !!. Eta aipatuak izaten ba-gara, beti iñoren menpean egon garela esateko ?. Gaiñera....., erri guztietatik bera bakarrik geratu dana....eta orain milla urte asko lortu eban izkuntz ederrenean eta demokrazizko jendekuntzan agertuta !! ?.

Ekintza ori egiteko....., Noren morroiketa edo serbitzura dabiz jolasten ?.

Gaur egun, guzurra esan leike dala, ainbesteko menpekotasuna.

Eta jakintzazko mailla nagusientzat, ez bakarrik eurena, bai gurea danarentzat-be lotsa-gorri aundiena.

EUSKALERRIA edo EUSKERA, ZELAKO LURRALDEETAN GERATU ZAN KELTI-IBERiar ONDOREN?:

Keltiarrak (Franko`en Leifñuak) Loira ibai`tik Britania`ko lurraldeetan kokatu ziranetik, Iparraldean asi-ta Loira-ibaitik bera, erdi-ugarte onen Ego-aldeko erdirarte inguru Gaztela zaarra ta Aragoi`en lurraldeak mugatzen ebana Galizia ezin ezik eta Eki-aldeetik Italia, Suiza eta Alemania`gaz.

Baliteke berago-be izatea, adibidez: “Guadalajara`ren izen zaarra ARRIAKA” izan zan eta Keltiberiarrak Guadalajara, Kuenka, Soria, Teruel, Toledo, Salduiba

(Zaragoza), Kastellon, Balentzia, Lusitania`ko Ego-aldean, Betika`ko Iparraldean, Badajoz, Sebilla eta Kordoba`n kokatuta geratu ziralako.

Nortzuk izan ziran Iberoak ? Ez ziran Euskaldunak ?. Argi dago Euskaldunak izan zirela, baiña nirentzat orren ziurtzak, beste ikaspidetako iker-lan baten mamiak izan bearko litzatekez.

Orduko Euskal-izkuntzaren askatasunak, Keltiarren zabalkuntza orreikaz galdu eben leenengo lur-arlo aundi bat, gero Askatasunaren edestian ikusiko doguna. Baiña Euskal Nortasunaren izaeran ez eban iruditu (representar) kalterik.

Keltia`rren izaeran argi ikusten doguna, nai askatasunezko gizartea izanda-be Euskal-Demokraziaren ekanduzko kanpo-aldetik edo menperatzaillearen itxuran agertu ziralako euren gizarteak babesteko, Europa`tik zabaldu ziranean. Eta Eki-aldeko Persen antzera, nor-geiagoren bide-menperatzaille oitura orreik artu Ekialde-Urbil, Erdi ta Urruneko lurraldetatik sortu zan lez, gura izan-gabe Erromatarren jaiotzeko bideak atondu (preparar) ebezan. Irugarren zatian ikusiko dogu.

Orregaitik, Euskalerrria ta Euskeraren edestia OITURAZKO-ASKATASUNEAN nundik-nora asi ziran murrizten..... gaur gagozan lurraldeetan kokatzeko, laugarren zatian "Euskalerrriko Askatasunaren Edestia" argitzen dogunean azalduko doguz, goian esandako lurraldeetatik asita.

IRUGARREN ZATIAREN SARRERA:

- Mundu onetarako, Persa`k euki ebezan menperatzailletasunezko asmoak.
- Europa sortzeko Grezia`ren ikutua.
- Zergaitik eta zelan atondu zan erromatarren jaiotza ?.
- Zer gertatu zan Keltiarrakaz eta Euskaldunakaz Erromatarrak Europa`tik zabaldu ziranean ?.
- Emon egizu arrazoi-bat, Euskaldunak Keltiar eta Erromatarrak ekarri eben jakituriagaz, aberastu egin zala esateko.
- Erromatarrak egindako-Latiñak eta bere jaiotzatik sortzen asi zan ondorioak, zelan ta norarte iraun eban ?.
- Erromatarren Kaizartzan Mendebaleko-beerakada eta Katolikotasuna aukeratuta, Europa`rentzat euki eben ondorioa.
- Godo`en sarrera eta zer gertatu zan Euskaldunakaz oneik emendik ibili ziran artean ?.
- Mauritarren etorkera zer izan zan Euskaldunarentzat ?.
- Orduko Euskaldun`ak....., erri bateko sendimenduan alkartzen ziran ?.

- Zelan geratu zan Euskaldunaren askatasuna, Keltiar, Erromatar, Godo ta Mauritarren ostean ?.

MUNDU ONETARAKO, PERSA`k EUKI EBEZAN MENPERATZAILLETASU-NEZKO ASMOAK:

Mundu onetan, orduko denboretan ezagutzen ziran jendekuntzak eta lurak batzangotzeko asmoak, balekite ariñagokoak, Akab eta Babiloniatik orain 4.200 urtetik asi-ta onantza izatea. Baiña Persen errege Ciro (K.a. 560-529) aundiagandik asi ta I Dario (K.a.558-486 eta errege 521- 486) ta I`go Jerjes (519-465) izan ziran Mundu onen eta orduan Europa`ko jendekuntza guztiak (civilizaciones) morroitasunean batzangotu gure ebenak edo askeneko ikutua emon gura ebenak euren menpean egon gaitezana.

Orduko Persa eta Griego`en jendekuntzak (civilizaciones) ekanduzko oituratan, bata: "Menperatzailletasunaren morroitasun gogokoa oso-osoa izan zalako". Eta bestea: "Azturazko giza-bidean ekanduzko mailla aundira elduta...., Askatasunezko Demokrasi aundi baten sinismenekoa izan zalako", begiz-begiko aurkakoak (diametralmente opuestos) izan ziran.

Eta Persa`ren gogoko eritzi orreik beteteko, Ziro`k Eki-alde guztia menpetuta, bere ostean Dario`k, 499-494`ko urte bitartean, Joniko erri batzuk bakeztuta, K.a. 490`ean Maraton`en, Grezia`ri emon eutson leenengo eraso-aldia.

Grezia`ren gudalozteak Milziades`en aginduan 9.000 Espartar-gudariakaz, babeserako prest egonda, Dario`k eroan ebazan 20.000 gudariaren aurka. Dario galtzaille agertu zan eta bere seme I Jerjes`ek Ejipto`ko iraultza bakeztuta, Grezia`ri Termopilas`en 480`an emon eutson bigarren eraso aldian, garaille agertu zan arren, 480`an bertan Salamina`ko itsasoan Temistokles`ek emoneko pasara ederra artuta, I Jerjes Mardonio`ren agintzan gudalozteak itxita Ekialde-Txikerreko Susa`ra euren kaizar-jauregira joan zan.

Mardonio`k, K.a. 479`an Platea`ko (Grezia`ren Antziñako uri-bat izan zana eta Tebas`en Ego-Mendebalean kokatuta egoana zan) borrokan be galtzaille urten eban, Pausanias`ek bideratutako Espartarren Alkartsunezko gudaloztearen aurka eta Mikala`n egun berean itsas-ontzidi edo guda-ontzidien itsas-borrokan Persa`k ondamentuta geratu ziran.

Eta emen bitxi bat: Mardonio, Jerjes`en lengusua eta borroka irabazi ba-eben Grezia`k eukiko eban urrengo satrapa edo jaurlaria il-da, Griego`ak bere oialpe edo oial-txabolan (tienda de campaña) egonda eta an egon ziran diru-altxorrak ikusita, euren arritasunezko itauna: "Gizon onek, zergaitik gura eban ainbesteko premiatasunagaz gure erriak menperatu, aibesteko aberastasuna eukin da ?" izan zan.

I Jerjes il eben eta bere seme II`n Jerjes asi zan Grezia`ren aurkako erasoan, baiña au-be alperrik, euren artean trebetasunezko nor-geiangoan asi ziralako, au-be il eben, beren agintaritzak aste gitzi artu ondoren.

Greziatarren Demokrazia`ri ezker, or !! geratu ziran, fazizta`k leenengo aldiz Europa menperatzeko euki eben asmakuntzak eta Eki-aldeko itxuran agertu gaitez an alegin guztiak.

Gaur, arrazoiaren erabagiak ez doiazelako gudaren bidetik, nai-ta norkerian dabizenak ainbat alegin egin, petroleoa, diruak eta lurrak euren eskuetan eukiteko. Euskaldunak, Griego`en Demokrazizko sinismen aundiak, Euskal-Nortasunezko zentzu aundian artu bear doguz, gure arbasoen ekin ederrari ez badautzagu begitzen eta danok alkartuta, gure askatasunezko garaipenaren elburua`ri zuzen edo artez begitu.

Konturatu bear gara: "Euskaldunak Demokratikoak garela !!". Zergaitik orduan..., ni eskumakoa naz eta edo ezkertiarra nazelako lelokerietan ibili ?.

DEMOKRATIKOAK izan gaitez an eta alkartu !! iñungo lelokerietan ibili barik. Euskalerrriak etsai geiegi daukaz, guk bat-geiago izateko eta.

Berezkotasunaren etsaiak, beti-danik balekite, berezko garbitasunean ikusten dauan gauza guztiak, ardurazko ordean ezer ipini gabe, dana jan edo suntsitu arte ez dirala geratzen. Orregaitik : **NORTASUNAREN ABERTZALEAK GARA !! LAN ORREIN ARDURADUNAK. DANOK !! BAT-EGINDA-BAIÑA. GURE EUSKALERRI MAITE ONEN ASKATASUNA LORTU GURA BA-DOGU.**

EUROPA SORTZEKO GREZIA`ren IKUTUA:

Europa`ko edestia K.a. 1.000 urte inguru, nai-ta Kreta`ren jendekuntza (civilizaciòn) askoz ariñagotik, Munduko jendekuntzaren sorburu edo asiera izan, Grezia izan zan jakintzaren arloan zilborra, edo erdi-gunea, Lurrarteko itsasotik ta erdi-alde edo Aurreko-Ekialde guztitik benetako jakiturgia: "Eder-Lanean, Filosofi edo Burubidean, Ele-Ederretan eta Demokrazian" zabaldu ebena. Euren jakintzazko gunea K.a. V`n gizaldira`ko lortuta.

Grezia, orduan ezagutzen zan Mundua`n, jakituriaren zilborra izan bazan-be, bere barruan guda-indarraren zaleak euki ebazan, nai-ta beti, jakintzaren menpean geratu.

Eta bere azkeneko denboratan, gizon aundiak euki ba-ebezan Alexander-Aundia bezela, K.a. 356-324 urtetan bizi zana. Erromatarren keiñaduragaz-be ez eben euren batasunik lortu, Kromañon denboratik lortutako demokraziaren edo gizartearen zor-eskubideko legetik oituratutako oiñarrien "Leiñuzko-Auzotasun-Laterritasunak" ez ziralako gai-izan apurtzeko.

Ez !! ez ziran gai-izan ez !!, berezotasunaren demokrazizko legeak menperatzeko. Berezkotasunaren legeak ulertuta, euren oituran oiñarrizko legeak izan ziralako.

Euren oiñarrizko-izatasunean, ez ziralako eldu edo alpertu "GUZURTIK-IZATERA".

Orregaitik izan zan ona eta guztiz demokratikoa, ararte egin zan "ERRITARREN-EUROPA`ko-JENDEKUNTZA". Eta batez-be Laterritasunaren arloan.

Gero, Etruskoa`ak martxan ipini ebezan erromatar indarrakaitik menperatuta geratu ziran, K.a. 149`an asi eben borrokan eta 146`an amaitu, Korinto guztiz apurtuta. Andik aurrera, Mazedonia`ko erri-alde edo lurralde-lez izendatuta geratuko zan, milla urte askotan Kromañon`etik lortu ebezan **ASKATASUNAREN-OIÑARRIZKO-OITURAK-MENPERATUTA**.

Europa`k, Grezia menperatuagaz, demokrazizko arlo aundi bat galdu eban, ortik aurrera, askatasunaren oiñarrizko-oitura galdu zalako.

Eta ez zan galdu, demokrazia zer dan aaztu egin-jakelako. Ortik aurrera, gaur egunerarte Europa ta Mundua Erromatarren-Kaisertzazko legeak (derecho-romano) eta katolikotasunezko-Abertzaletasunaren (nacional-katolicismo) oinpean daualako baizik.

Orregaitik gagoz gaur, Mundu`ko irugarren borroka nagusian sartuta, **“BEREZKOTASUNAREN-DEMOKRAZIZKO-OIÑARRIAK”** (itzulpenduta: “gizartearen zor-eskubidearen oiñarriak” diranak) guztiz menperatuta edo lekuzkanpo daukaguzelako.

ZERGAITIK eta ZELAN ATONDU ZAN ERROMATARREN JAIOTZA?:

Orduko denboretan, Ekialde-Urbil, Erdi ta Urruneko lurraldeetan, jabetasunaren billa, bata bestea menperatzen ibili ziran lez, Europa`n, Keltiarren leiñu ezberdiñen artean-be, oikunde (costumbre, uso continuado) bardin antzeko-bat agertu zan.

Baiña, Keltiarren menpetasunezko asmakuntza ori antolamendu-bakoa izan zalako eta Eki-aldean menperatasunezko asmakuntz-saio orreik, nai gogorrak izanda-be, luzarorako iraupenik ez ebalako emoten. Etrusko`ak konturatu ziran, asmakuntz orreik, antolamenduzko arloetan zeozer`en gabetasunean jaioten ziralako, erri-gizarteak berezkotasunaren legera itzultzen ziralako beti.

Eta zentzuz edo ondo bideratuta egon ziralakoan euren ustez, emen asmatu ziran benetan, gaur dagozan **BATZANGOTASUNEZKO** gogo orreik, Mundu`ko erri-gizarte guztiak antolamendu barri onen mendean ondo zuzenduta egon daitezkan.

Baiña erabagi orreik, **BEREZKOTASUNA`ren LEGEA`k** kontuan artu gabe artu ziran lez, sortu ziran erakunde guztiak, ez daukalako beste biderik, Norkeriaren mendean geratu dira beti, **JANGOIKO** edo Bere bereztasunaren legetik kanpo artu ziralako.

Kristau erlijio guztiz ederra be sortu zan, baiña dana alperrik, norkerizko eritzi zikin orren mendean geratu dalako.

Edestian zear, zuzentasunaren eritzizko erabagiak artu dira beti. Baiña danak !! **BEREZTASUNA`ren LEGE`ak** kontuan euki gabe artu diralako, zentzuaren arrazoiezko zuzentasunean beti **LUPEZTUTA**. Orregaitik !! agertzen jakoz gaurko **JENDEKUNTZA`ri** (civilizaciòn) beti edo andik ona euki dauazan **LUPETZEZKO ANKAK**.

Eta burutasunezko uste-orren antolamenduari beste tankera edo itxura sendo bat emon eutsoen, antolakuntza orreitan izkuntz ta Nortasunaren aldaketak egin-ezik, ez

zalako egon aukerarik sasijainkotasunean batzangotasunezko-asmakizun orreik aurrera eroateko.

Orregaitik K.a. 753`an Etruskoa`k leen egin ebena, Sabino, Iszeres, Ramnes, Tizio eta Luzereakaz alkartuta, Roma-Kuadrata deituko zana Esparta`ko guda- oituran, eraiki Palatino mendian.

K.a. 715`ean Ponpilio`tar Numa`gaz erregetzaren antolamenduan ezarri ziran eta zazpi errege igarota K.a. 510`an Tarkino`tar Luzio`gaz amaitu eben lenengo ekiñ-aldi onen sorkuntza.

Ortik aurrera, Mundua euren edo eurak euki eben eritxiaren antolamenduzko agindutara batzangotzen zabaldua.

Batera, Grezia`ren Ego-aldeko Griego jakitunai laguntza eskatuta: “Griego- izkitegia artu eta Latiñezko iztegi-barria” sortu eben, Lazio-lurralde`ko baserri- inguruetan berba egiten zan mintzadar edo izkelki-bateri indar aundia emonda, erromatarren bultzakadagaz Italia`ko izkuntz-nagusia izango zanari.

ZER GERTATU ZAN KELTIARRAKAZ eta EUSKALDUNAKAZ ERROMATARRAK EUROPA`tik ZABALDU ZIRANEAN ?:

Keltiarrak askatasunaren zaleak izategaitik, Erromatarren etsai-amorratuak izan ziran, baiña ez eben euki lekurik erromatarrak euki eben indarraren aurka eta aienatu, suntsitu edo Euskaldunen artean urtu egin ziran, Europa guztian egin eben antzera.

Euskaldunak ez eben alango arazorik euki, ikusi ebelako zelako indar eta almena euki eben erromatarrak euren aurka joan ezkeru eta euren agindutara alegindu ziran, Euskal-gizarte bezela irauteko.

Euskaldunak, bere oiturazko izatasunaren demokrazitik ez eben galdu ezer, gero K.o.V`n gizaldian Erromatarrak ezereztu ziranean, Euskaldunak bereala berreskuratu egin ebezalako euren oiñarrizko demokraziaren oiturak.

EMON EGIZU ARRAZOI-BAT, KELTIAR eta ERROMATARRAK EKARRI EBEN JAKITURIAGAZ, EUSKALDUNAK ABERASTU ZIRALA ESATEKO:

Keltiarrak: Jakintza aundikoak izan ziran eta euren jendekuntzaren mailla aundiena K.a. 400 urte inguruan lortu eben.

Erti (arte) trebetasunean goi-maillako aldi eder bi euki ebezan: “Hallstatt” leenengoa K.a X`n gizalditik VI`garreneraño izan zana, gure erdi-ugartetik Ungria`raiño osotzen ebana eta K.a. V`n gizalditik K.o.`ko I gizalderaño “Tene” deitzen dautsoen denborakoa.

Tupiki edo brontzea, burdiña eta buztingintza ondo baiño obeto ezagutzen ebezan maisu aundiak izan ziralako eta oso trebeak metalezko gauzak ondo edertzen.

Euren izkuntza zati-bitan banandu zan, lurraldekoa (continental) eta ugarte artekoa.

Ugarte artekoa (islas), Britania-aundikoa alde batetik: Gales, Korniko, Bretoia, izan ziranak eta Gaelikoa: Manx, Irlandes eta Eskozez ziranak.

Eta Lurrartekoa (continente Europeo), Galoa izan zana, IV`n gizalditik onantza, Latíña`ren indarrakaitik ezereztu egin zana.

Keltiarrak Euskalerritarren artean ia 2.000 urte egin ebezan, erromatarren bultzakadagaz gure artea ezereztuarte.

Euskaldunak, ain leloak izango giñan...., ainbeste denboran, eurak ekialdetik (Asia-menor) ekarri eben jakituri guztitik...., zeozer ez artzeko ?. Ez !! eta oso trebeak izan giñan gaiñera.

Askatasunaren etsaiak esaten dabe: "Euskaldunak Keltiarren menpean egon giñela". Ez da egia ori, gero, erromatarren bultzakadagaz gure artean bakez urtu edo ezereztu egin ziralako.

Erromatarrak: Gure lurraldera K.a. irugarren gizaldiaren amaieran etorri orduko, Keltiarrak eta Iberoak (Ibero oneik... Euskaldunak ziralako ?) Euskalerrriagaz bat egin ziran, asken baten eurak-be, demokrazizko askatasunaren aldekoak ziralako eta erromatarren etsai-amorratu sutsuak izan zirelako..

Keltiarrak, Kalagurris`en borrokatu ziran, lur aberats-areik euren jabetasunean babesteko, lenengo Euskaldunaren aurka eta gero, guk lagundutako erromatarrakin.

Oneik, Keltiarren sendokuntza (fortificaciòn) inguratuta, azken baten erreaustu edo ezeztatu egin eben. (bitartean, sendokuntzaren barruan egon ziranak gorriak igarota. Ortik datorrelako gazteleraz esaten jakon "HAMBRE KALAGURRITANA", saguetatik asi-ta, abereak, larruak, bai illak-be jan egin ebezalako).

Eta K.a. 133`garren urtean, euren Numantzia`ko azken zaintokian.

Ortik aurrera Euskaldunak erromatarrekin bat eginda geratu gintzazan. Euskaldunak ondo baiño obeto ikasi gendulako erromatarren indarra aundia izan zala eta zer egin eben Akitania ta Auñamenditik sartu ziranetik.

Orregaitik, burua guztiz makurtu barik on artu ginduezan, euren gudalozteetan be lerrokatuta eta lurra lantzeko ekarri eben aurrerakuntza guztitik bear genduna on artu eta erabilten ikasi.

Euskaldunak, ainbat erromatar gudalozteetan borrokatu ziran eta euren giza-bide edo jarduera (berbadunek izateagaitik batez-be) erakutsita, Augusto, Galba kaizarrak eta abar, euren-buruak zaintzeko inguruan euki eben gudari taldeak, askotan guztiz Euskaldunak izan ziran.

Baiña, Auñamendiren Ego ta Ipar-aldeko Euskal-izkuntzarentzat ordain aundiak izan ziran: "Ebro-ibaia`ren ur-bazterreko ibarretatik eta Aragoi`ko Iparraldetik Napar-Aragoi`ko latin-kondo, Burgos`eko Ipar-Ekialdetik gaztelera, Asturias`en Bable eta Akitania`n be, eurekaz aitu edo ulermentzeko, erderazko (lenguas extrañas) izkuntz baragarriak sortu ziralako".

Euskal askatasunarentzat nai-ta euki ez garrantzi aundiko ondoriorik, euren berakadan gauza guzti orreik osterabe berrezkuratu egin genduzelako. Kalte aundiak euki ebazan, Euskerazko-izkuntzaren arloan, jaiotako latin-kume barri orreik, nai gizaldi askotan oraindiño erdi-geldi egon arren, baten-bat agertuko zalako Etruskoen batzangotasunezko asmakizunari nork bultza egin gero ikusiko dogun-lez, Mundu oneitan sasi-jainkotasunezko bizitza aurrera eroateko.

Bestela, nai-ta Erromatarrak gure lurretan ia 700 urte egon: Eta "Latiña, jakituriaren ibil-gaillua lez ipini ba-eben-be, gure oiturak euren oituretara aldatu bearra, gure jaurkintza euren eratan ezarri, errigizartea beste arau-politikoetan sartu, Izkuntza barri-bat ezarri gura, euren erlijioa sartu-gurean ibili, gauzak egiteko era barriak ezarri.... Gizarte edo sozial-arauetan gauza-zaarrak barriakin aldatu edo naastu egiten ziranean, bertokoak-kanpotarrekin ondo konponduten zirala ikusita....", ori izan zan ERROMATARTUTEA ?. Eurak, ez ziran gai-izan iñungo erritarrai ezer eskolatu edo irakasteko, orregaitik, berezko erritarren gogozko sentipenetan ez eben euki ezeren zaurizko-oifñazerik (traumatismo) eta euren ezereztuteagaz, Euskaldunak errez berrezkuratu ebezan askatasunezko oitura zaarrak.

Txarragoa izan zan euren berakadan, ibilten ipini ziran alderdikertziko gogamen barriak, gero ikusiko dogun lez, gaur arteko eta gaur-egunean-be, urten-ezinezko lokatz-aundi baten sartu ginduezan, gizarte guztien artean, ardura aundian euki bear diran zor-eskubideak, menperatuta geratzen diralako.

ERROMATARRAK EGINDAKO LATIÑA eta BERE JAIOTZATIK SORTZEN ASI ZAN ONDORIOA, ZELAN ta NORARTE IRAUN EBAN ? :

Etrusko`en jakintza aundian, leen asmakizuna Latiña sortzeko, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibil-gaillua izan daiten egin ebela. Griego`aren laguntzagaz erindu ta argituz (refinar) biribilduta (perfeccionar), elerti-arauzko izkuntz-aundi bat biurtuta geratu zalako, gure gaurko egunerarte iraun dauana.

Baiña beragaz-batera, Mundua batzangotzeko menperatzailetasunezko asmakuntza eroan eben-lez, nai-ta 2.000 urte iraun, ezin izan dau berezkotasunari edo JAUNGOIKOA`ren legediari geiago egin, ezerezean geratuta.

Menperatzaile asmakuntz guztien antzera, bere ibilkeran batzangotu baiño, birrindu edo milla zatitan bananduta itzi ebelako ikutu eben guztia, indoeuropear izkuntz asko ezereztu, aldatu edo bestelakotu egin ebezalako Ingles eta Aleman izkuntzaren antzera. Eta ez zan gitxiago Euskerea berba egiten zan lekuetatik egin ebana.

Latiña, Euskeraren indarragaitik naastekatuta, Akitanian eta erdi-ugarte oneitan geratu ziran`en antzera: "Lusitanian (Portugal), Asturias`en Bable, Burgos`eko goiko Eki-aldeetik Gaztelera, Nafarroa`ren ur-bazterreko ibarrean eta Aragoi`ko Iparraldetik Napar-Aragoi`ko Latin-kondoak sortuta.

Europa`ren lurraldeak or galdu ebazan askatasunezko zati aundiak, naastetasun orreikaz demokraziaren ulermenezko oifñarrietan atzerakada aundia egitea izan zalako, izkuntzak naastekatuz gain batera, bereztasunezko legeak be aldatu egiten diralako.

Euskalerrian argiago ikusiko dogu, gure errege-jaun denboretara eltzen garanean.

Eta emen JAINKOA`ren LEGEA`ri aipamen-bat egin bear dautsagu: "Bereztasunaren aurkako asmakizun orreik aurrera eroanda-be, beste nortasunezko aurrerakuntza bateri bideak zabaltzen jakoz". Bide-barri orreik baiña, beti !! nai-ta

nai-ez BEREN-LEGE bidera joan bear diranak dira !! Mundu oneitan NORTASUNAREN ANTZEZLARITZATIK-KANPO guretzat ez dagolako aukerarik. Danok bardin jaiota ANTZEZLARITZAREN ARDURAN BARDIÑAK GARELAKO eta NORTASUNIK GABE, EZ LITZAKELAKO ANTZERKIRIK EGONGO.

“Mundu onen arduradun bakara JAUNGOIKOA da. Ez gaitezcan sartu gu BERE gauzatan ».

ERROMATARREN KAIZARTZAN MENDEBALEKO BEERAKADA eta KATOLIKOTASUNA AUKERATUTA, EUROPA eta EUSKALERRIARENTZAT EUKI EBEN ONDORIOA :

Emen sortu zanarekin kontu aundia euki bear dogu, Franko`k beren eriotzaren osterako egin eban antzera eta esan eban lez : « GEROKO..., DANA GERATZENDA ONDO LUTUTA ». Erromatar, Godo eta katoliko-kaizartzak egin eban antzera bir-idatzita egon zala esan leikelako.

Konstantino`gaz asten da aurrez-ikuste (prever, ver anticipadamente) au : K.o. 284`an Diokleziano kaizartzara igon ebanean, danak ibili ziralako borrokan, nor-bera kaizarra izateko aukeraren billa.

Azken baten borroka au Konstatino ta Majenzio`ren artean egin zan eta Kristauak Konstantino`ri lagunduta, 306`an onek kaizar-jauntzara igon eban eta ez zan izan Mendebaleko ta Ekialdeko kaizartzaren jabea 324`n urterarte. Bera`ri gerizpea egiten eutsoen leikideai irabazi arte: 310`ean Maximiano`ri, 312`an Majenzio`ri eta 324`an Lizinio`ri irabazi arte.

Kristau`en indar aundiko sinismena ikusita eta beren laguntza bear zalako bidez, Galeno`k kontu aundiagoan artu ebazan eta 311`n Sardika`ko legeak argitaratuta, Kristautasunaren jai-arauak askatu ebazan, gero 313`an Konstantino`k Milan`eko aginduagaz, Balerio`k baieztu ebana.

Arrianismoa, IV gizaldian Kristautasunak euki eban leenengo sinist-auste edo zifuskeria izan zan, Alejandria`ko apaiz orrek: “Jainkoa`ren borondatetik, Kristo izan zala Mundu oneitara etorritakoa, baiña ez zala izan AITA`ren izatasunezkoa” esaten ebalako.

324`an Konstantino geratu zan Mendebaleko eta Ekialdeko kaizargoetan agintari bakar-lez eta 325`an Nizea`ko Eleiz-Batzarra batu ebanean, ararte Atanasio Santua`k Arriano`ren irakaspide ori ezereztu gurean ukatzen bakarra izan zanetik, Konstantino`k Arriano`ren ikaspidea baztartuz ta ziñauskerian gaitz-etsiratuta (apartado como el mal mas odioso o despreciable de las herejias) Katolikotasuna aukeratu eban eta siniskisunezko aitorketa (creencia, fe sacramental) biurtu ebanean, or !! jaio ziran laterri`ko, naziozko edo bereztasunetik kanpo gizonak egindako ABERRI-KATOLIKOTASUNAK (nacional-katolicismo). Erromatarren kaizargotzak iraun dagian.

Konstantino`k aurrerantzerako, Iru baldintza oneikin: "Mundu guztia kaisar-jaun baten azpian, Katolikotasunezko erlijioa Mundu osoarentzat eta Latiña jendekuntzaren gaillu-lez" (vehiculo transportador de la civilizaciòn) oifarritu eben

Konstantino`k, jakin eban erromatarren kaizartza malda-beran egoala, orregaitik indartu gura izan eban eta ortik alkartu zan orduan ezin geiagoko indarrarekin gorantza joan ziran kristauakaz.

"Katholiko, latiña`ren bidez datorren itza da" orregaitik, Itz Grekoak: "KATA" NORANTZA esan gura dauana eta "Holos" DANA edo DAN-GUZZIA esan gura dauan itzak alkartu ebazanean eta Katolikotasunaren itza agertu, (nai-gabe...?) Kristautasunak ALDERDIKIDETU ebazan.

Eta Kristautasunari kalte geiago egin-nai ez arren, urrengo urtean: "JAUNGOIKOA`ren eta Mundu onen bitartean Eleiza ta Kaizartza ordezeko bakarrak zirala" esan da, asi ziran muga-gabeko irudimena aske itzi-ta sinis-egiakaz gora ta bera dana korapillotuten, eurak betirako izan ba-ziran agintari-lez edo sasi-jainko-lez, dana berezko-legearen aurka batzangotu gure-naian.

330`ean Konstantino`k Bizanzio izan zanari Konstantinopla`ren izena ipini eutsen, Europa ta Asia`ren erdian egoalako eta batera Mendebaleko eta Ekialdeko Kaizartza`ren bitartean egon zalako.

Ez eben kontuan artu, erabagi orren ondorioaren bidetik 395`an Mendebal eta Ekialdeko kaizartzak banandu egingo zirala.

Konstantino`ren eriotza 337`an izan zan eta beren ondorioz, bere seme II`n Konstantino anaiakaz batera kaizartzara igon ebenean 340`an Italia menperatzen joan zan, bere anai Konstante`ren jabetzan egon zana bereganatzeko eta bertan il eben.

347`an Teodosio aundiak igon eban kaizartzara eta 395`ean il zanean Eki-aldeko Kaizartza bere seme Arkadio`ri emonda eta Onorio`ri Mendebalekoa, Ekialde ta Mendebaleko kaizartza oso ori, betirako bananduta geratu zan.

Godok`ak denbora orreitan, Uno`en ekintzagaitik banandu ziran, Ego-Mendebalean Bisigodoaren izenagaz eta Ostrogodo`en izenagaz Ekialdean geratu ziranak. Ostrogodoak Uno`akaitik menperatuta geratu ziran Danubio-ibai`aren inguruetan eta bisigodoak Mendebalde ta Egoalderuntz bultzatuta 409`an Alariko`k erroma saskildu eban eta 476`an Odroako`k Mendebaleko Erromatar-kaizartza ezereztu egin eban.

Erromatar Ekialdeko kaizartzak 1.453`n urtean Turkoak` ezereztu arte iraun eban eta ortik aurrera Eleiza-katolikuaren eskuetan bakarrik geratu ziran Europa`ko kaizartzaren funtsezko zentzuak (contenidos mas importantes). Bai II`n Teodosio Arkadio`ren semea izan zanak, I Konstantino`k bere asierako kaizartza`tik agertu ebazan erispen (constituciones) edo lege-guztiak batuta eta Justiniano`ren lege-bildumagaz osotuta, Teodosio`ren lege-sorta deituko zanakaz.

438`an II`n Teodosio`k (401-450) Ekialdean eta III`n Balentiniano`k (419-455) Mendebalean, batera argitu ebezan lege orreik, Ekialdean Justiniano`ren lege-sortagaitik eta Mendebalean Godo`en legeagaitik aldatu arte.

**GODO`en SARRERA eta ZER GERTATU ZAN EUSKALDUNAKAZ ONEIK
EMENDIK IBILI ZIRAN ARTEAN ?:**

Godoak ez eben euki denborarik Europa`n euren menperatzailletasunezko asmakuntza ezartzeko, Mauritarrak agertu ziranean ez ebelako indarrrik euki oneik geratzeko eta aienatu ziran.

Baiña goazen zer egin eben jakitera, leenengo oso adierazgarria dalako eta bigarren, menperatzailletasunezko guzurak, ikusi daiguzan, berez, zelan joaten diran euren leen asmakizunezko lekuetara.

II`n Alariko`gaz asi gaitezana. 484-507`n urte bitartean izan zan Bisigodo`en errege eta bere errege-aulkia, Iparraldeko Tolosa`n kokatuta euki eban. 506`n urtean Romana-Bisigotorun legearen laburpena (brebiario de Anniano o còdigo de la lex Romana Visigothorum) argitaratu eban Mendebaleko Bisigodo guztientzat.

Urrengo bisigodo`en errege Gesaleiko izan zan 507-511`n urte bitartean.

Amalariko 511-531`n urte bitartean izan zan errege eta bere erregetzan 531`ren Orrilla`n Toledo`ko II`n Eleiz-Batzar nagusia egin zan.

Teudis izan zan urrengo 531-548`n urte bitartean bere agindua bete ebana.

Teudiselo`k 548-549`n urte bitartean bete eban beren agintaritza.

Ajila`k, 549-554`n urte bitartean bete eban beren agindua. Eta onek, Atanajildo`k bideratuta euken anai-arteko guda`ri aurre egin bear izan eutson.

Azkeneko lau errege oneik, eraillak (asesinados) izan ziran.

Emen Erromatar Justiniano aipatu bear dogu, guk esaten gabizenerako garrantzi aundia daukalako.

Au 483-565`n urteetan bizi zan eta Mendebal ta Ekialdeko kaizartza 527-565`n urte bitartean eskuratu eban.

Indar asko egin ebazan Lurrarteko itsaso guztia, ostera erromatar-kaizartzaren agindupean egon daiten.

Lortu ebazan guda-garaipenak baiña, bere biziaren denbora be ez eben iraun. A-ta guzti, betirako lortu eben garaipena, erromatarren legeak bildumatuteagaz izan zan, gaurko legeak-be, bere oiñarriaren gaiñean eraikita dagozelako.

Batera Godo`en errege 551-567`n urte bitartean Atanajildo izan zan eta Justiniano`ren laguntzagaz Ajila erregetzatik bota eben. Bere jaurkintza Toledo`n ezarrita.

Eta Justiniano`rekin egin eban bakezko itzarmenagaz, Betika`ko zati bat Bizanzio`ren menpean itzita, jaio zan Spania`ko Bizanzio`ren lurraldea.

Atanajildo`ren ostetik, Leobijildo izan zan urrengo errege 568-586`arte, I Liuba`gaz batera 568-573`n urte bitartean eta gero bakarrik.

Leobijildo erregea, Ermenejildo Santua`ren eta I Rekaredo`ren aita izan zan. Godo-errege guztiak onarte Arriano`ren ikasbidekoak ziran eta bere seme Ermenejildo il eben katolikotasunezko erlijiotik ez zalako Arriano`ren ikasbidera aldatzen.

Godo`ak, erromatarrak euki eben jaurkintzazko legedian egon ziran egokituta eta nai-ta legeak denbora guztian euren gogamenera eratu edo aldatzen ibilita, laster

konturatu ziran Konstantino`ren katolikotasuna zala bidea, kaizartzaren ametsak garaitzeko.

Orregaitik Leobijildo`k, bere seme I Rekaredo`ri emon eutson aolkua..., arrianismoa baztatu ta Katolikotasuna besarkatu dagian. Eta onek 587`an arrianismoa alboratu eta katolikotasuna on-artuta 589`an Toledo`ko Eleiz Batzar Nagusia bere agindupean batu eban eta ortxe emoten jako osterabe indarra, Mundu au batzangotzeko errege ta katolikotasunezko ekandu bakarrean, Etrusko ta erromatarrak euki ebezan leen asmakuntzak beteteko.

Ortik aurrera datoz zoritxarrez Toledo`ko menperatzaille Eleiz-Batzar-Nagusi orreik katolikotasunezko-abertzaletasunean (nacional-katolicismo) zaldikatuta.

Euskalerrria ta Euskaldunarentzat zer izan zan Godo`en etorkera ?:

Euskaldunentzat orduko denboretan, eten-bako borroka baiño besterik ez.

Euren nagusi guztiak errege-aulkian egoten ziranean "Et domuit Baskones" esaten dabe kronikalariak esaten ebela, baiña guzurra izan zan.

Erromatarrakaz 600 urteko bizitza batera eginda eta euren gudari-taldeetan denbora guztian lerrokatuta, ainbat guda-gauza ikasita egon ziran orduko Euskaldunak eta Godo`ak ez eben ezeren aukerarik euki gure arbasoen aurka.

Gaiñera, 300 urte orreitan nai-ta eurakaz beti borrokan ibili eta katolikotasuna ta latin-kumearen zaleak izan, oneik berezko izkuntzak ezereztutea gure ebalako eta euki gendun Euskerazko Nortasuna, katolikotasunean batzangotuta eurak aukeratuko eben nortasunean biurtu gaitez, ekiñaldiko alegiñetan ibili, gure izkuntza ta legeak berrezkuratu ziran arlo guztietan.

Txarragoa izan zan, gero laugarren zatian ikusiko doguna, Euskalerrira etorri ziran guzti oneik ezereztu edo aienatu ziran orduan eta berezko erri ta gizarteak jaurkintzazko antolaketak egiten asi ziranean euren babeserako eta errege-jauntzak aukeratuta, osterabe betiko iru baldintza madarikaturen artean jausi bear izan ziralako: "Aurrerakuntzazko Grezia`ren jakiturian, menperatzailletasunezko erroma`tar legeetan eta batzangotasunezko katolikotasun-abertzaletasunaren oinpean".

Nok ulertu leike: "Grezia`ren Demokrazizko jakitua naastekatu leikela..., erromatar legeekaz eta katolikotasunezko burutapen edo eritziakin, nai ondo maltzurtutako edo ostondutako azpikaritzan etorri arren?".

Ortik gaur arte gure bizitzak, ia urten ezinezko lokatzartean sartuta geratu dira.

MAURITARREN ETORKERA ZER IZAN ZAN EUSKALDUNARENTZAT ?:

Indar eta jakituri aundiagaz etorri arren, gure erriaren askatasunarentzat eta guretzat batez-be, ez eben euki gal-zori edo ezetako galbiderik. Eurak alboratzeko edo erdi-ugarte onen Ego aldean kokatzeko, Europa`ren indar geienaren alegiña izan zalako alde batetik eta bestetik, bertan egon giñenen alegin bakarra izan zalako, Euskaldun erregeak buru izan zirela Mauritarrak bakezteko.

Euren jakituritik asko ikasi gendun eta ez gaitez an aaztu, gure Nafar-Erreiñua sortzeko, Banu-Kasi sendi mozarabeen (Ebro-ibai ur-bastarrean kokatuta egon ziranak) laguntzagaz, 824`an lortu gendula.

Euskaldunak, oso ezagunak izan giñan orduko denboretan Europa guztian, Loira ibaitik Ebro ibaiaren Egoalderarte alde batetik, erdi-ugarte onen osotasunezko lurraldeetan Galizia izan ezik, Euskaldunak izan giñelako. Eta ondo baiño obeto ezagutzen giñuezan Europa guztian, Ekialde osoan eta Afrika`ren Iparraldean, gure Nortasunaren indarra ondo baiño obeto ekielako. Nai-ta fazista menperatzaille oneik eta daukiezan edestilari morroiak beste gauza bat esan, gure Nortasunaren izatasuna aienatu daiten.

Gero ikusiko dogun-lez, onen ostean izan zan, erriak euren jabetasunezko bideak ez daitez an garaipendu, zelako bidetik joan ziran erroma`tar menperatzaille orreik, bereztasunaren legeak euren lege-pean morroitzeko

Eta lortu ebena, gaur bereztasunaren legepean danak batzangotuta egon bear giñena, osterabe berezko erritarren izatasuna, erdi ero-aldiko milla zatitan bananduta, amaitu gabeko borroka baten agertzea.

Zer gertatzen da emen ?. Bereztasunaren LEGE-BAKARRA aurrez-aurre eukinda... eta gaiñera GU !! beragaz erperatuta egon eta konturatu EZ !! JAINKOA`ren aurka borrokan gabiltzala ?. Ba, Mundu onen gizarte menperatzailleak... bere burkoitasun (terquedad) edo bere buru-gogortasunagaz aurrera egin ezkeru, makiña bat borrokaldi, zorigaizto eta neke-aldi geratzen jakuz oraindiño aurrerantzean.

Gaurko gizarteak, JAUNGOIKOA edo BEREN BEREZTASUNAREN LEGE-ALDEKO ABERRIKOIAK eta EUROPA`n EUSKALDUNAK BATEZ-BE, norkerizko lelokeriak eta xautzailletasunezko gaien-egarri baragarri orreik baztatu eta lotsa aundiz NORTASUNAREN-ardurai ondo oratuta aurrera egin bear dogu, gaur alako guzurrik ez daukalako jarrai-biderik eta beren usaiñiak bakarrik, atzerantza eragiten daualako.

ORDUKO EUSKALDUNAK....., ERRI BATEKO SENDIMENDUAN ALKARTZEN ZIRAN ?:

Aberri baten sendimendua ez ba-eben euki, lurraldearen leiñuzko-auzotasunean laterrituta egon ziralako, ba-euken bai, ondo lotzen ebazan artu emonak, sendi edo etxe bateko sendimenduan alkartzeko.

Asi gaitez an euren Nortasunari emon eutson izatasunaren zentzuzko izkuntzatik (Euskerea) eta ikusiko dogu zelango sendotasunagaz zabaltzen ziran beren bidez, bizitzarako bear ebezan aurrerakuntza guztiak.

JAINKOA`ren beldur eta edo BERE GAI-LEGE`tik agertzen diran dirdaitsuzko eza`k ulermenduta, gauzak eta arremanen iker-bideak, ekanduaren lotsazko-ardurean oituratu eben euren jakintzazko aztura-bidea eta beragaz lortu, agertzen garan EUSKAL-NORTASUNEZKO-IZATASUN-AU, DEMOKRAZIZKO-ASKATA-SUN EDER ONEITAN.

Ez ziran babestuko-ba..., nai Akitania osoan, Naparroan, Bizkaian, Gipuzkoan edo Araban bear izan eben orduan ?. Euren aztura bidean, garaipen eder orreik lortu ba-zituen ?.

Garaipen orreik, ez dabe bear beste xeetasunaren premiarik, bera dalako milla urtetan zear erri-osoaren lotsazko-arduran egin dan lanaren adierazpena.

Fazizta-menperatzailleak, ori da ez dauana entzun gura, euren guzurak agiri-agirian geratzen diralako. Eta or !! beste ziurtasun aundi bat, euren fazizmoa ikusi leiken lekuan argi ta garbi agertu daiten: "Ez zan izan Goebbels ba..., GUZUR-BAT MILLA BIDER ESANDA, ASKENERAKO EGI BIURTZEN ZALA esan ebana ?. Gaur zelako ekintzetan dabiz eurak ?.

ZELAN GERATU ZAN EUSKALDUNAREN ASKATASUNA...., KELTIAR, ERROMATAR, GODO ta MAURITARREN OSTEAN ?:

Euskaldunak: Keltiar, Erromatar eta Godo`tarren ostean.... "Nortasunezko eta Askatasunezko Izatasun eder baten".

Grezia ta Europa guztiaren antzera, Leïña`ren auzotasunezko laterritasunetik kanpo, ez bear gendun edo ez zalako bear beste politikarik, danon artean ekanduzko orekak zaintzeko ederrena izan zalako, bai denbora aietan eta gaurko denboratan-be.

Eta orko denboratik aurrera, egoera ortatik asi ba ziran batzangotasunaren egitamu-saio barriak, erri-gizarteak gero ta urbillago agertzen ziralako eta gure babeserako artu-emoneko salerosle gauzak urbillago eta ekanduz egongo ziralako, gaur beste era-bateko batzangotasun eta bakezko asmo-azterpeneko gora-bera baten berbetan egongo giñan, iñungo zalantzazko gauzaren oarkabe (distracciòn) barik.

Mundu onen jakintsu edo sasi-jakintsuak (ez dakit zeintzuk) baiña, norkerizko dogmaren arauz edo sasi-zifneskintzako maixukerietan asi ziralako, ekanduzko arloan lokatz onetan sartuta gagoz. Eta txarrago, bategaz naikoa ez ba-gendun eta guzurra garaille dalako, merkataritza gure babeserako egon bearrean, guzurtien eskuetan dago eta ainbat borroka geiago ipini bear jakoz lengo ekintzari, mozkin guztia be euren agintaritzazko eskuetan gure dabelako.

Gaiñera..., itandu egiten dogu: "BEREZTASUNAK BEAR DAUAN EKANDUA, ARDURA ta LOTSA`k" nun dagoz ?. Barregarriz artu leiken gauza da baiña, makiña-bat negar egin bear dogu, gauzak gure arbasoak lortu eben garaipenera osterabe eroateko.

LAUGARREN ZATIAREN SARRERA:

- Mundu onetan, beartutako batzangotasunaren asiera.
- Keltiarrak, Euskalerrria eta Keltiar ostean Etruskoak..., zelako burutasunak ipini ebezan ekintzan..., batzangotasun barri orreik lortzeko ?. Zer ziran

erromatar garai orreik ? Eta zelango ondorioak euki ebezan gaurko Munduaren jendekuntzarentzat ?.

- Nortzuk edo nor izan-da Erromako kaizar-katolikotasunaren menperatzaille asmo ori oraiñarte aurrera eroan dabezanak eta zergaitik ?.
- Zelako ondorioak euki dauz Euskalerrarentzat eta non asten dira berriz Euskal-Asakatasunaren maldaberak eta zergaitik ?.
- Euskalerrria, errege-jauntzan sartu orduko, zelako errege kaizertzakaz egoan inguratuta eta zelan egon ziran antolatuta ?.
- Gure Jaun-Erregetzaren askatasunezko edestia erdi-aro guztian eta XVII`n gizalditik Europa`n menperatzaille jaurkintzan iraganatzeko, ze garrantzi euki eben Frantzia`ko Iraultzak ?.
- Ortik aurrera Euskaldunaren alegiñak Askatasunaren gaitik eta eukiten doguzan okerrak, alderdikerietatik asi-ta.

MUNDU ONETAN, BEARTUTAKO BATZANGOTASUNAREN ASIERA:

Ekialdeko Ego-aldean Tigris eta Eufrates ibaiaren artean (Mesopotamia`n), Turkia, Siria ta Irak`en lurralde batzuk osotzen dabezan inguruan, azkortu (desarrollarse, crecer) ziran leenengo jendekuntzak (civilizaciones) K.a. 4.000-3.000 urte inguru.

Mesopotamia`ko Sumeria`n Akkad`eko Akadia, Babilonia eta Asiria`ko jendekuntzak ziran oneik K.a. 539`an Ziro`k (Ciro) menperatu ebana eta Persen errege edo mendetasunezko kaizartza biurtu ebana.

Len be, mendekoaren aburumen edo eritzian oifñarrituta eraiki ziran jendekuntza batzuk, baiña: Ziro, Dario eta I Jerjes`etik asi-ta izan ziran Europa`rantza begitzen asi ziranak.

Euren ustezko eta indarkerizko mende-bidean, askatasunaren babesean azkeneko zaindaria (paladines) izango ziralakoan: Griego`en aurka “Medikas, deituko ziran sarraskiko borroka latzetan” euren zentzunezko ekandu ta jakintzan guztiz aurkakoak ziralako, asi ziran.

K.a. 480 eta 479`an len esan dogun lez, Persa`k Termopilas`etan garaipeneko bideak zabaldu ba-ebezan be, Salamina`n, Platea eta Mikalas`eko borroka latzak galdu ebezan eta 477`an Grezitarrak Atenas`en babespean Delos`eko alkartasuna lortuta, Espartarren gudalozteak Zimon`ek (Cimon) bideratuta, 468`an Eurimedonte`ko borrokan irabasle urten eban eta gero 449`an osteria be Salamina`ko itsas borrokan.

Persa ta Griego`en artean, mendeko ta demokraziaren eritzizko zalantza orreik aurrera egin eben, baiña Persen garaipena ezinezkoa izan zalako, 448`an amaitu ziran Kalias`eko bakearekin.

Eta orduko Munduan, or !! amaitu ziran, Persa`k, Europa ta Ekialderako euki ebezan batzangotasunaren asmoak.

KELTIARRAK, EUSKALERRIA eta KELTIAR OSTEAN ETRUSKOAK...., ZELAKO BURUTASUNAK IPINI EBEZAN EKINTZAN...., BATZANGOTASUN (globalizaciòn) BARRI ORREIK LORTZEKO ?. ZER ZIRAN ERROMATAR GARAI ORREIK ? eta ZELANGO ONDORIOAK EUKI EBEZAN GAURKO MUNDUAREN JENDEKUNTZARENTZAT ?:

KELTIARRAK: Europa`n, Keltiarrak K.a. 2.000 urte inguruan asi ziran euren mugialdiak egiten eta Ekialde ta Europa guztitik zabaldu ziran.

Euren azturan baiña...., nai-ta asko ikusikoak izan, orduko mendekeriaren denboretan ez eben garrantzi aundirik euki. Jendekuntzazko jakiturian be-maillakoak izan..... edo eta neurri aundi baten askatasunezkoak izan ziralako, euren oldozmeneko asmakisunetan, ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen eta orduko denboratan zalantza orreitan kokatuta egon ezker, erromatarren antzera, mendekerietan azkartasunezkoak diranakaitik bultzatuta, ia aienatu ziran Europa guztian berezko erritarteetan.

EUSKALERRIAN: Euskalerrriaren izkuntzarentzat leen murriztuteko ikutua izango zana: Iparraldetik Britania ta Loira ibaiaren arteko lurraldeetan Frankoak kokatuta eta erdi-ugarte onen Ego-aldera be etorrita, Kelt-Iberoen izatasunean auzotu, antolatu edo errikotuta geratu ziralako.

Euskereak a-ta guzti, luzeroan iraugo eban lurralde orreitan, Kelt-Iberoen idatz-astarnak alan erakusten daualako. Idatz-orrein itzulpenak, Keltiarren izkuntzatik baiño, Euskeratik obeto argitu leikezelako.

ETRUSKO`ak, KELTIARREN OSTEAN...., ZELAKO BURUTASUNAK IPINI EBEZAN EKINTZAN, BATZANGOTASUN BARRI ORREIK LORTZEKO ?:

Mundu au on-bideratzeko, Europa`ren orduko jakintsuak (norkerietan edo betiko sasi-jakinkerietan dabizenagaitik ?) gogoratzen asi ziran, zeozer egin bear zala erri-gizartearen egokitasunak lortzeko eta Etruskoen gendekuntzatik asi zan asmatutako aurrerakuntzaren bide barri ori, K.a. 753`an Jorraila`ren (Apirilla) 21`ean, Ramnes, Tizio`ak, Luzereak eta abarrean egon ziran leiñuak alkartuta, Palatino, Kapitolino, Zelio (Celio), Eskilino, Biminal, Kirinal eta Abentino mendietan Espartarren guda`ko antolamenduan. Eta geroago inguru ori babesteko, Serbio Tulio`k egin ebazan ormakaz. Jaio zan, Roma-kuadrata izenagaz deituko zan iker-bide edo azterbide barri ori.

Gero Tiber (trastèbere) ibaiaren beste aldeko mendietatik: Janikulo, Batikano, Mario, Sakro, Pinzio, Kanpidoglio eta abarretik, zabaldu ta indartu ziran.

Etruskoen erregetzak, Erromatarren ekonomi ta jakitasunezko aurrerakuntzan, zer ikusi aundia euki eban. Bai, Griego`akin be, biok batera Griego`en izkitegia artuta, Latiñezko izkitegi barria argitu ebelako.

Etrusko ta Griego`en asmakuntz-au Europa ta Ekialdearen erri-gizarteari begira, ezerezetik eta euki eben tresneri onenakaz nortasun barri au eraikitzeke, balekite borondate onenagaz eginda egon zala (?).

Baiña Erromatarrak, berezko erri-giarteak iñoz ez ebezalako kontuan artu, (naita Etruskoak eta Griegoakaz asi, antolamendu demokratikoak ziran orreik ?) bakezko eragiñean lortu daitezcan aurrerakuntza orreik eta gaiñera, Latiña agertu, danon izkuntza edo jakituriaren gaillua izan daiten. Ez eben euki iñungo maisutasunik iñori ezer irakasteko eta or ! agertu zan leenengo larderialdia (imposición), berezko erri-gizartearen jatorrizko jaurkintz eta izkuntzetan (gobiernos e idiomas genuinos) ainbeste kalte egingo ebena, berezkotasun ta latiñezko izkuntz artu-emoneko ulergaiztasunen bidetik, ainbeste izkel-baragarri agertu ziralako.

ZER ZIRAN ERROMATAR GARAI ORREIK ?: Antolamendu barri onen jaurpidea lenengo ekitaldian, erregetzan aukeratu zan, Ponpilio`tar Numa`gaz asi-ta 510`ean Tarkino`tar Luzio, arroputz deritsonagaz amaituta.

Erromatarren bigarren ekitaldia, K.a. 510-509`an Junio ta Bruto`tar Luzio eta Tarkino ta Kolatino`tar Luzio`k, erregetzaren ondoriozko jabetza ezereztuteko matxinatu egin ziran eta erromatarrak Errepublika`ko jaurpidetzan antolatuta geratu ziran.

Errepublika`gaz, Etruskoen gurasordetasunetik (tutela) askatu ziran, baiña euren jaurkintzarako aldakuntza aundirik euki ez arren, bere erri-gizartearen arteko demokrazizko aztura bidean, atzerako oinkada aundi bat emon eben ostera be, antziñako senitarte-etorbideetik ez zirenak agertzen, baztatu egin ebazelako eta be-maillako erri-xume (plebeyos) edo erritar andiki ta txikietan erromatar gizartea banandu zalako.

Senatore-batzarretan xumearen babeserako, erri-xumearen tribunoak eraiki ebezan.

Maillatan banandutako ekitaldi onegaz, euren artean zalantzazko-borrokak agertu ziran, Errepublikaren denboraldi guztian iraungo ebenak.

Eta jaurkintza guztia aberats`en eskuetan egonda, andi-mandikeria, apainkeria eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin beste, arbasoak ekanduaren oituran lortutako goi-maillako neurri aundiak, galduta.

Ekintza onen ondorioa, berezko baserritarren zuntsitzea edo ezeztatzea izan zan, lur-zabalen etxagunak agertu ziralako, menpetasunezko joputasunean (esclavismo).

Etrusko eta Griego`ak, leen asmakuntzatic eraiki ebezan erromatarrak, demokraziaren oiñarrian asi ta zabaldu daitezcan, eurak, Europa ta Ekialdearen berezko erritarren artean egokitasunaren aurrerakuntzazko pakeak lortu daitezcan edo alan sinistu gura neuke beintzat, guztiz naaspilduta agertu ziran eta eritzi-naaspil orren norabideagaz, Persen menperatzailetasunezko eritzi-bidera aokatuta (abogados) geratu ziran.

Italia barruan borrokatuta, 393`an lortu eben Italia`ko indartsuenak izatea.

Gero Kartagotarrakin asi ziran laidogarrizko (sangrientas) guda-punikoak, 264-41`an Sizilia`n garaipena lortuta.

Borroka onen ekitaldi bitartean, Demokraziaren leen-asmotik edo Mundu onentzako, pakezkearen-antolakuntzazko saio barri onen asmotik, beste atzerantzako oinkada aundi bat aipatu bear dogu, K.a. 240`an be-maillako erritar aberats batzuk, erri-gurasoen (patricios) sendiakaz alkartu ziranean, erri-xumeak (vulgo, plebe, populacho, poco importante) jaurkintzatik, baztatu egin ebezalako.

Eta 238`an Zerdeña ta Korzega`gaz jabetuta, 229-221`eko urteen artean Iliria (Yugoslavia ta Albania`ren lurraldeak), Alpes`eko-Galia Zisalpina`tik (Galia transalpina) eta Akitaniatik erdi-ugarte onetara etorri ziran.

Kartagotarrak ez ziran amaitu borrokak eta bigarrenengo guda-puniketan Anibal`en aurka 218-02`ko urte bitartean borrokatu ziran eta K.a. 202`ko urtean Afrika`n Kartago`ko Ego-Mendebalean dagon Zama`ko errian Eszipion Afrikano deritxonak Anibal`eri irabazi eutson, Anibal`ek Europa`n euki ebazan jabetasunak erromatarren eskuetan itzita. Eta irugarren guda-punikoetan 149-146 urteko bitartean iraun ebena, Afrikatar Escipion gazteak Kartago deuseztu edo ezereztu eban. Kartago eta Afrika`ko Iparraldea ortik aurrera Erromatarren Eskualde edo lurraldea (provincia) biurtuta.

Euskaldunak lenengoetan Anibal`eri lagundu geuntson, baiña gure Akitania`ko Euskal-lurraldeetan, Kalagurris`en eta gure Beroia`ren aurka K.a. 133`an Numantzian eta ibili ziran inguru guztietatik zer egin eben ikusita, eurekaz euki genduzan leenengo arremanetan itzarmendu gitzazan eta euren gudalozteetan bakez lerrokatu. Orko bidetik geiago irabasten gendulako, gure izatasunezko Nortasun eta sinismenak galzorian jarri barik.

Erromatarrak or !! jabetu ziran erdi-ugarte onen lurraldeakaz.

Gero, Ekialde-txikerratik mugak aurreratuta, orduko Mundu onen jendekuntzazko erdigune-lez kokatuta geratu ziran.

Euren arteko zalantzak dirala ta, Sila`ren (Kornelio`tar Luzio K.a. 138-78 urte bitartean bizi zana) jauntzargo (dictadura) bildugarrira (terrorifico) eltzen dira, K.a. 60`n urtean Ponpeyo, Kraso eta Zesar`ek euki eben bereiztasun ta bakoiztasunezko nortasun-politikoagaitik bakarrik geratu al egin zana. Eta emen emoten jako aginzalekeria edo kaisarkeriari asiera.

Edestilari batzuk esaten dabe, erromatarren gainbera III gizaldian asi zala, baiña euren zabalkundeak eta indarrak gero ta aundiagoak izan arren, ekanduaren eza ta norkeriak gero ta aundiagoak izan ziran eta maldaberaren abiadura eten-bako lasterraldian (en aceleraciòn) asi zan emetik.

Kaizertza iru zatitan banandu ba-eben be: Siria Kraso`ren agindupean, erdi-ugarte au Ponpeyo`ren agindupean eta Galia Zesar`en agindupean, euren aundi-naiagoko bekaizkeriak aundiagotzen asi ziran eta Kraso Ekialdean Partos`en aurkako borrokan il da gero, Ponpeyo ta Zesar`en artean odol-jariozko borroka latzak asi ziran, nor kaizerra izateko alegiñean eta Zesar irabazle agertuta, bere oldozmeneko

gogo-barnetik asi zan egozten Mundu onentan eta guztientzako errege-orokar bat bear zala eta bere kideak, berentzako gure ebalakoan, il eben.

Oraindiño, indartzen eta sendotzen joan arren, euren arteko nor-aundiagoren zalantzazko bekaizkeriekin aurrera eginda, erromatarrak Oktabio`gaz euki eben dirdaidun denboretara eltzen gara, eta emen beste atzerantzako oinkada eder-bat ikusten dogu.

Oktabio, inperatore edo kaizar-jauna augustoaren izenakin artu eben orduan eta berak Tiberio ondorengo aukeratzea on-artuta geratu zalako, kaizertza, kaizar-jaunaren eskuetan izten dabe beren ondorengoak aukeratzeko eta oitura orreitan ezartzen da ortik aurrera.

Baiña, aginterri edo kaizal-erri (paises sometidoas al imperio) erraldoi orren lupetzazko anketan, leen euki ebazan ikus-eziñezko arrakaletan (grietas) mugi-aldiak ikusten dira, euren arteko bekaiztasunetik ilketara aldatu ziran astuntasunak eraginda.

Geratzen dira oraindiño dirdai aundiko denborak, Flabio ta Antonio`tar errege-leiñutatik Trajano`ren erreñua bete-arte, baiña gero ta geiagoko maldaberan, Konstantino`ren kaizertzara eltzen gara.

Onek, erraldoiaren lupetzazko anketan arrakaldu orreik geratzeko, Ekialde ta Mendebaleko kaizertza indartu gurean ibilita (len argitu dogun lez), katolikotasuna aukeratu eban eleiz-gizontarrakaz batera (325`eko Nizea`ren batzar nagusian) eta alkartasun ori siniskizunezko aitorketara (fe sacramental) goratuta, ez ziran izan gai kontuan artzeko, menperatzailletasunaren indarrak bikoiztu egin ebezala.

Bere seme Teodosio`ren (346-395) eriotzean Kaizertza bananduta geratu zan beren seme-bien artean, Ekialdekoa Arkadio`ren eskuetan geratu zana eta Mendebalekoa Onorio`en eskuetan.

Mendebaleko kaizertzan, Alariko godo`ak Roma saskildu eban eta 476`an Odoakro`k kaizertza bera ezereztu eban.

Egin eben guztiagaz, oraindiño ez eben euki bularrrik norkerizko arrokerietan esan ta egiñak isti edo atzera egiteko (retractarse) eta Mendebaleko anka orrek ez ebalako indar geiagorik euki, euren norkerien arteko guzur-zalantzazko astuntasunean artzen eban pisutik, birrindu egin zan.

ZELANGO ONDORIOAK EUKI EBASAN GAURKO MUNDUAREN JENDEKUNTZARENTZAT ?: Kaizertza eta katolikotasunaren norkerizko asmakizunak Ekialdean geratu ziran oso-osorik eta beste milla urte iraun ebezan Turkoa`k 1.453`an menperatu arte.

Mendebalean baiña, Godo`ak Kristautasunaren ekanduan eta Arriano`ren irakaspidetzan aginduzko alegiñean ibiltzen ziralta, eleiztar katolikuak euren lanakin aurrera egin eben, godoak limurtu arte, katolikotasunaren batzangotasunera aldatu daitezana.

Eta Rekaredogaz lortu eben, gaurko Munduaren jendekuntzarentzat laidogarrizko (afrentoso, desonroso, indecente) jarkera (situaciòn) dana.

**NORTZUK edo NOR IZAN-DA ERROMAKO KAIZAR-KATOLIKOTASUNAREN
MENPERATZAILLE ASMO ORI AURRERA EROAN DABEZANAK eta
ZERGAITIK ?:**

438'an Ekialdean Balentiniano`k eta Mendebalean Teodosio`k, erromatar legeak bildumatu egin eta kaizertza bietan argitu edo zabaldu ebazan.

Baiña, Mendabaleko kaizertza Godoen eskuetan geratu zalako, Frantzia`ko Egoaldean Tolosa`ko Urian euren kaizar edo erregetzaren ezar-lekua kokatuta, eurak izan ziran Teodosio`ren erromatar-legeak aurrera eroan ebezanak.

Godok, Arriano lekaidearen irakaspeneak ziran eta Konstantino`ren katolikotasunakaz eztabaida edo zalantza orren bitartetik, 527-565`eko urte bitartean kaizertza-bietan agindu eben Justiniano`ren denborara eltzen gara.

Justiniano onek, menperatzaillaren alde egin eban gauza aundiena, erromatar-legeak bildumatu egitea zan. Baiña zori-txarrekoa !! aurrerantzean etorriko gifaientzat, gaurko legeak be bere oiñarrien gafiñean jarraipenean etorri diralako.

568-586`ko urte bitartean, Leobijildo izan zan agindu ebana eta Justiniano`ren bildumatutako erromatar legeak berriz berrezkuratu Mendebaleko kaizertza sendotzeko, katolikotasun aria artu ebana. Eta bere seme Rekaredo (516-601) limurtu (persuadir) ebana, beren buruan sartzeko, Arriano`ren irakaspidetzak bastartu dagiazan (587) eta katolikotasuna besarkatuta, 589`an III`n Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusien bidetik erromatar-kaizertza ta katolikotasun alderdikeriak aurrera iraun dagien.

Erdi-ugarte onen Toledo`ko Eleiz-Batzar-Nagusiak, erromatarren denboratik bertan egin ziran eta lenengo biak (400 eta 527) katolikotasunezko ulermenean egin ba-ziran be, Espaina`ren aberkidetasunezko-katolikotasun (nacional-katolicismo-español) maltzurkerizko uler-menperatzaillan ez ziran egin 589`an Rekaredok eginekua egin-arte. Eleiz-batzar orreik, ortik aurrera artu ebelako gaur daukan menperatzaillatasunezko elburu politiko ori.

I Rekaredo`ren ostekoak: Sisebuto (612-621). II`n Rekaredo onek (?-621) ille batzuk baiño besterik ez eben egin. Suintila gudal-nagusia (621-631). Sisenando`ren aginduan (631-636) Toledo`ko IV`n Eleiz-Batzar Nagusiak bete ziran eta beren erregetza guztia eleiz-gizonaren eragipenean (influencia) egonda, judutarren aurkako lege-gogorak agindu ebazan. Txintila`ren (636-639) erregetzan V`n Eleiz-Batzarrak bete ziran. Tulga (640-642) izan zan urrengo. Txindasbinto`ren (642-653) erregetzan VII`n Eleiz-Batzar Nagusiak bete ziran. Flabio`tar Rezesbinto`ren (653-672) erregetzan VIII`n (653), IX`n eta X`n Eleiz-Batzar Nagusiak bete ziran, juduen aurka alegiñ aundiak egin ebazan eta "Liber iudiciorum" argitaratu, legedia (conjunto de leyes) bateratzeko. Wanba (672-680) izan zan urrengo eta bere denboran (675) Toledo ta Braga`ko (Portugal) Eleiz-Batzar Nagusiak egin ziran eta erregetzatik botata beren ostekoa izango zan Erbijio`gaitik, Panpliega`ko (Burgos en ondoan dagoena) lekaideen eleizan sartu zan beren eriotzerarte. Erbijio`ren (680-687) erregetzan XII`n Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusiak bete ziran eta bertan on artu zan Wanba`ri egin eutsona eta larrialdiak beartuta, judutarrakaz artu-emon onak euki

ebazan. Ejika`ren (687-701) erregetzan XV`n, XVI`n eta XVII`n Eleiz-Batzar Nagusiak bete ziran. Bitiza (edo Witiza, 701-709). Rodrigo jauna izan zan urrengo errege, Bitiza`ren seme Akila`ri, bera geiago izango zalakoan edo erregetza lapurtuta aditsu (nobles) batzuen laguntzarekin, beren seme ta Bitiza`ren semeakaz alkartuta, anai-arteko guda sortu ebala, Mauritarren sarrera erreztu ebana, batzuk diño. Edestiko kondairak baiña: "Erregeak, Zeuta`ko gobernari edo guda-jaurleri Julian kondearen alaba Florinda (la cava) bortxatu egin ebelako, onek gaztelua Mauritarren eskuetan itxi ebala, gero Bitiza`ren semeakin batera Mauritarrai lagunduta erdi-ugarte onetan sartu daitezana.

Rodrigo jaunaren Godo-gudalozteak, 711`n Uztailla`ren 19`an Tarik`en Mauritarrak Guadalete`n ezereztu ebezan.

Gaurko edestilari batzuk esaten dabe Barbate`ko ibai inguruan egin zala borroka ori eta kondairak Guadalete`ko ibai inguruan.

Dana dala, Kadiz`eko lurraldean dagoz biak, leenengoa auntz`en mendietatik jaio eta beren urak Atlant-itsasora botaten dabezanak eta bigarrena mugako-Jerez`en (Jerez de la Frontera) ondolik joaten dana eta beren urak Kadiz`eko ur-golkoan botaten dauzana.

Godo`ak, ortik aurrera aienatu ziran, baiña ez ziran aienatu, Mundu au jaurkin eta erlijio baten batzangotzeko, Etruskoak Griegoakaz batera, Erromatarrek eraikitzeke artu ziran erabagiak.

Lege-bilduma orreik Konstantino (325) ta Rekaredo`kin (589) Nizea ta Toledo`tik bideratuta, 711`n Pelayo jaun godoak Asturias`en Erroma-Godo eta Katolikotasunezko sasi-leggedi "REX GRATIA DEI" guzti orreikaz kokatu zalako eta mauritarrai Kobadonga`ko guda irabazita, menperatzailetasunezko kaizertzagaz bir-jabetuta 718`ko urtetik aurrera-bidean ipini ebazalako.

Pelayo 737`an il zan eta urrengo errege bere suin I Alfonso katolikua izanda, or ! asten da osterabe menperatzaillari ari ori indarra artzen.

X`n gizaldian II`n Ordoño`k (914-924) Asturias`eko erregetza Leon`egaz alkartu ta erregetzaren aulkia bertara eroanda, 1.230`ean Gaztelatarrek alkartu ziralako eta 1.388`an gure Bizkaiko jaun I Juan`ek Asturias, Leon eta Gaztelatarren errege zala, Asturias printzerria izendatu ebenetik.

Frantzia eta España`k ortik aurrera, euki ebezan aldiko errege eleiztar-katolikuaren aolku-aginduan bideratuta, ez eben iñungo errukirik euki, JAUNGOIKOA`ren bereztasunezko Legeen aurka joanda be, berezkoak eta sinimen aundiko Kristau-Erri zintzoak sarraskitzen, nai-ta erri-iltzailleak (genocidas) izanda be.

Kristautasunaren ekandua eta katolikotasunarena, nondik nora ezkondu leikez ?.

Mundu onetara gure ARIMA`k ez dira gizatzen morroi izateko, NOR izateko baizik. Eta egunen baten danok batzangotzen ba-gara, danon borondatezko sinistek alan eskatzen daualako izango da.

EZ !! edonor, beren sasijainkotasunean esan daualako, gauza oiek oraiñarte egin diranean, berezotasun NORTASUNAK bastartuta eta norkeriaren tentaldiko arriskuan eginda, odol-jariozko sasi-jainkotasunaren oiñarrian egin diralako beti.

Mundu onetan, bereztasunezko (naturaleza) legeak elburu dira eta eurai begira egin bear doguz gauza guztiak. Ekintza orreik baiña, elburu orregaz egiteko borondate onaren arrazoizko argibidean egin bear dira beti, gure buruetan bestela, aberetasunaren arrazoibako edo itsuen bildurrak agertzen dira, bizitzako ekintza guztietan norkerizko sabelak bete ezinik izten gaituenak.

ZELAKO ONDORIOAK EUKI DAUZ EUSKALERRIARENTZAT eta NON ASTEN DIRA EUSKAL-ASKATASUNAREN EDESTIAN BERRIZ MALDABERAK eta ZERGAITIK ?:

Sarrera: Europa eta Euskalerrriaren edestiari buruz, kontu aundia artu bear dogu, erdi-mendearen goi-aldetik oraiñarte kontatu edo esan dauskuezanakaz.

Ez diralako izan berezko erri ta erritarren edestiak, erregeak eta alderdikerrizko-erromatar-katolikotasunak (beste erligiñoetan bardin) indarra artu ebenean, euren sasi-jainkotasunezko norkeriak ibili ziralako legeztuten eta ori da gaur agertzen dana, berezko erriak ezertarako kontuan euki gabe.

Tenkortasun edo burugogortasun (terquedad, cabezonada) orreitan dabiz orain be, nai-ta gaur, jakinda okerreko bidean dabizela.

Baten batek esango leuke, erriaren azturak-be adirazi edo adierazten (narrar, explicar) dirala !!. Baiña, Nortasunean ala.... Morroi-lez ?. Nik, zalantzarik gabe esango neuke: "eurak erriaren jabe izan ba-ziren itxuran" adierazten dabela eta ez dabe guzurrik esaten.

Esan leike, apur-apurka doazela arrazoitari lekua emoten, eurak oraiñarte egindakoak ez daitezkan geratu guzurti aundien egindakoak-lez. Baiña apurka ori baldintzatuta, (condicionado) ia bada-ezbadan guzurrezko elburu orreitan sasi-garaille geratzen ba-dira, bizitzeko gizarteak bear dauzan gai-indar guztiak euren kontrolpean eukiteko.

Ez dago eskubiderik, gaur egunean norkerizko lapurketaren bidetik, aurretiaz (prevenidamente) egiten diran odol-jariozko gudak eta lotsabako guda-keiñuak, Irak en antzera, erriak erailtze (matanza) aundi baten bidetik, errautsi edo ondatu egiten dabezanak.

Berezko erri ta erritarren edestiak gaur, beste argitasun-bat euki bear leuke, adibidez: Europa`ren edesti-aurretik, "gure arbasoak, euren izkuntz-nortasunaren ardurazko bizi-jokuan lortu eben askatasunezko demokrazi ederra eta hurraldeko auzotasunean kokatu ziranetik onantza" euren erri-maillako azturaren zelako aurrerakuntzak egin ebezan, JAUNGOIKOA`ren LEGE`ak lotsazko ardura aundian artuta.

Baiña edestiaren adierazpena zoritxarrez, norkerizko aundikerian azalduta agertzen jaku eta orren argiak: Baten batzuk gaitik, "EGIA GUZURRA`ren MENDE" dagoela esan nai-dau.

Nik, ulertzen doten bereztasunezko-egian aleginduko naz, gure Euskalerrri maite onen Askatasunezko edestia argitzerakoan.

ONDORIOAK: Euskalerrriaren demokrazizko askatasunaren sinismenerako, betiko artegatasun aundia, beren nortasunezko izkuntza asieratik, latin eta latin-kumearen bitartez ezeztuteko alegiñean ibili ziran ta diralako eta politika maillako ekanduan aurkakoak garan lez, alako urduritasun eta etsitasuna (desesperaciòn).

Izkuntza arloan, eskerrak emon bear doguz oituzko edo oiturazkoak izan gifiela eta erri-lez ez gintzazala egon izkitegituta (alfabetizados) beranduarate, orduko batzangotasunaren-katoliko-zabaltzailleentzat berezko eragozpide (barrera natural) aundi bat zalako. Bestela gure Euskal-izkuntz eder au, ezereztu egingo eben.

Baiña aurkitu eben gure errege-jauntzatic sartzea, Mendebaleko kaizertza suntsitu edo aienatu zanean.

Mendebaleko kaizertza aienatu ta gero, Erroma`tar eleiztarrak katolikotasunezko asmakuntzan geratu ziran Europa`ren errege guztien gaiñetik, Munduko Kristautasunaren ekanduzko zilbor edo erdi-gune lez geratzea lortu ebelako eta 1.453`an Ekialdeko kaizertza ezereztu zanetik gogortu, ekanduaren irakaspeneko politikan, Aita-Santua ezarri zalako aolkulari edo maisu-nagusi lez, erregeen artean politikazko baimenak berak bananduta. Ortik agertu ziran Euskalerrrientzat eta berezko erri guztientzat ezin-besteko zoritxarrak gero kondatu edo esango dautsuezanakaz.

NON ASTEN DIRA EUSKAL-ASKATASUNAREN EDESTIAN BERRIZ MALDABERAK eta ZERGAITIK ?:

Mauritarrak Euskalerrira etorri ziranean, Europa geiena artegatu eta erdi-ugarte onetan godoak bastartuta, Euskaldunak paregabeko aukera euki gendun gure demokraziaren ulermenean antolatzeke.

Alan egin gendun, baiña Kristautasunaren aurrerakuntzan, eleiz-gizonak dan guztia katolikotasunezko ariagaz lotu gura ebelako, Europa guztiaren berezko errietan Euskalerrriai bezela, ortik aurrera agertu jakiezan zalantzak, aundiak izan ziran. Gaur be ainbeste artegatu egiten gaituenak, menperatzailletasunezko elburu orreik gure askatasunezko demokraziagaz ezin leikezelako iñondik iñora ezkondu.

Orregaitik, gure denborako edo oraingo edestiko-askatasunaren gaia ulertzeko, baldinpetzen (condicionar) dabezan eritzizko-atalak aurkeztu bear doguz, jakin daigun, zelako oiñarriakaz jokatu bear dogun, gaurko naspiltasunezko-lupetzartearen egoera onetik urteteko.

GRIEGO`en JAKINTZA, ERROMA`tar KAIZAR SAKRATUA ta LEGEDIA eta KRISTAUTASUNA`ren KATOLIKOTASUNA dira baldintza orreik.

GRIEGO`en JAKINTZA: Griego`en jakintza artu zan bai, baiña Griegoak, euren jakintzaren azkuntzazko iker-bidean zarratu eben jakintzazko biribiltasunetik, erromatar kaizar legean ta katolikotasunezko batzangotasunaren asmakuntzan ibili zirenak artu eben guztiagaz, aaztu jakien: Griego`ak euren azturazko bidean lortu eben jakintza zertarako gura eben. Azken baten, erri-jakintza guztiak, gizartearen zor-eskubideko arduraren bidetik jokatura, elburu bat bakarrik daukielako, erriaren

bakezko askatasuna lortu gura danean. Eta egoerazko elburu orreri "DEMOKRAZIA" esaten jako.

Ez eben jakin..., Griego`en jakintzak edo jakintza berak, buruan daukaguzan mugak edo illundutako gelak, argitu edo askatu egiten dauazala eta bere jarraipenean askatasun osora eroaten gaituela ?.

Eta jakinean egon ba-ziran...., artuko eben erabagi ori ?.

Maltzurkerizko norkeriaren guzurrak..., zelan konpondu leikez egiazko baldintzen artean ?.

Nik, oraiñarte ikusi dotena, arrazoizko egi ta guzurraren arteko zalantza orreik, guda-mendekuaren elburuan erabagi dirala beti.

Eta berezko erriak Euskalerrria-lez alderantziz, euren DEMOKRAZIAREN arrazoiaren jokatzeko ez dabelako ikusten guda`ren bearrik, sekula ez dira aleginduko iñor menperatzen eta odolkerizko erailtzeko sarraski orreitan.

Beti !! izan dira norkerizko sasi-jainkotasunaren bizi gurean alegintzen diranak joko orreitan eta ezinean gero-ta indar geiagorekin.

Eta errukari bakarrak, Europa`ko arbasoai Euskalerrriagandik asi eta Griego ta Euskal demokrazizko izkuntz ta askatasuna murriztu edo ezereztu gure dauanak, gaiñera...., ASKATASUNAREN IZENEAN ?.

ERROMATARREN LEGEDIA: Etrusko`en leen asmakuntzak erromatarrak eraikitzeke, bakezko edo demokraziaren batzangotasunezko elburuak lortu daitezcan izan ba-ziran be, asieratik okerreko bidea artu eben, euren babeserako, Espartarren gudalozteko antolamenduan ezarri ziralako.

Ez zan orduan...., alango gogo onik !! Griego`en izkitegitik latiña sortuta izkuntz guztien gaiñetik ibiltzeko egin ba-eben, beste izkuntzak menpetzeko edo ezeztatzeko egin zalako.

Geiago, goian esan doten lez, erromatarrak asmatu ta argitu ebezan lege guztiak, Teodosio`k bildumatu ebazanak eta Godo`en bidetik gaur arte datozenak, menperatzailletasunezko jokorako eginda dagozan legeak diralako.

Zelan aitu leike..... Demokrazi-bat, lege menperatzaillearekin ?. Goian aipatu doten lez....., borrokan ?. Gaur egunean, uler-ezinezkoa da ori. A-ta guzti !! aurrera egiten da.

KRISTAUTASUNAREN KATOLIKOTASUNA: Jesus`ek, gu gaitzetik askatzeko edo eta ekanduzko eraman-onaren aolku bidetik, JAINKOA`ren LEGE`ak ulertu daiguzan eta BERE`n ardurazko jarrai-bidean, bakoitzaren naimen-on edo borondate-onenean arduratu gaitzezan bizitzako gauzarekin, irakatsi euskuzan adigai edo gogamen (conceptos) barri-on guztiak, demokrazia-on baterako bideratuta egon ba-ziran be. BERE ostean etorri ziran eleiz`tar batzuk, garai aien batzangotasunezko oikuntzakaz (moda) limurtuta, kaizertzari ez eutson eragozpenik ipini eta erlijiosko zeregifietan-be, beartutako ziñezkintzaren lokatzertera eroan ginduezan.

Katolikotasunaren alderdikeriak, antolatutako gauzakaz artu eben gogorkerizko bidea, isti edo atzera egiteko ez ziran gai eta elburuak lortzeko gero-ta indar geiagorekin aurrera eginda, estutasunaren astuntasunak eraginda erroma`tar kaizertza

eta latifiaren batzangotasunari erri ta izkuntzatan sortu jakien antzera, Kristautasuna milla zati ta eritzietan asi zan banatzen eta gaur aienatutako larritasunean kokatu zan.

Ez eben balio ezer, XXIII`n Joan Aita-Santuak II`n Batikano`ko Eleiz-Batzar-Nagusira deituta artu ziran erabagiak berezkotasunaren bideak artu daiguzan, gaur osterabe lengo bideak artu diralako.

Erroma`tarren burugogorkeri orreik, euren itzaldura edo suntsidura`gaz (desaparición) ordeztu ba-ziran.... Eta kontuan artuta BEREZKO LEGEAK JAINKOA`ren BORONDATEAN OIÑARRITUTA DAGOZELA, BERAK AGINDU EBAZALAKO, menperatzailletasunezko Katolikotasun alderdikeriak ez ete dau bardin ordaindu bear ?.

Edestiko denboretan Mundu onen lurraldeak eta Europa`renak batez-be aundi-zabalak izan ziralako, guzurak leku zabalak euki ebazan, baiña gaurko egunaren aurrerakuntzakaz, nun !! sartzeko lekurik ez eukinda..., ez dira konturatuko... okerreko bidetik gabiltzala ?.

ZERGATIK, EUSKAL-ASKATASUNAREN EDESTIKO MALDABERA ?:

Gaurko edesti aurretik Europa`n, Euskal-jendekuntzaren askatasuna Iparraldeko Britaniatik Egoaldeko Kadiz`eraíño eta Mendebaleko Atlant-itsasotik Ekialdeko Alemania eta Italia`raiño izan zanetik.

Leenengo murriztu aldia, Keltiarrak emoten dabela ikusten dogu, Britania ta Loira ibai artean eta erdi-ugarte onen Ego-aldean (Iberoak Euskaldunak izan ziran) Kelt-Iberoak Toledo`tik berantza kokatu ziran.

Bigarrena, Erromatarrak euren kaizar batzangotasunagaz etorri ziran, Euskaldunak Iparraldeko Loira ibaitik eta Frantzi erdiko Ekialdean dagon goi-zapalda (meseta-central) zebedes`eko auñamendi kateagaz eta Mendebalean Gazkuña`ko urkolkoagaz inguratuta, erdian dagon Akitania deritxon lurraldeetatik, erdi ugarte onen Toledo`raiño, geratu ziran.

Irugarren eraso aldian, Iparraldetik V`n gizaldian Klodobeo`k (481-511) eta beren ondorengotik Karlomagno (742-814) franko`tarren bidetik Garona ibai`raiño murrizten joan zana eta erdi-ugarte onen Medebalean Pelayo godo`ak Asturias`eko erreñua sortuta, Gaztela, Errioxa ta Ekialdean Aragoi lurrarteko (mar Mediterraneo) itsasoraiño murriztuta geratu gintzazanetik, asiko dogu gure Euskalerriaren Askatasunezko edestia.

A-ta guzti ez oldoztu edo gogotu, Euskal izkuntza ta Nortasunak besteakaz bat-egifarte eta egifnean, bereala aienatu (desaparecer) zirala, gizaldi askotan iraun ebelako. Adibidez: menperatzailletasunaren morroikerizko edestilaritasunean dabizenak, emoten daben zentzutik, esan leike, Aragoi`ko erreñua sortu zanean (1.035), ango euskerea amaitu zala eta egitik urriñ dago ori, XVII-XVIII`n gizaldien bitartean Ueskan eta Aragoi`ko baserrietan Euskeraz berba egiten zalako. Eta orain be Zalduba`ko (Zaragoza) ingurutik Basa`ko Iebra`n itandu ezker, eurak Euskaldunak dirala esaten dabe eta ez da arritzekoa, Pirineos`eko Auñamendi Katearen Jendekuntzakoak diralako !!.

Errioxan gaurko gazteak itandu egiten dabena: "gure lurraldeko toki-izenak Euskerazkoak ba-dira.... ZER GARA GU?"

EUSKALERRIA, ERREGE-JAUNTZAN SARTU ORDUKO, ZELAKO ERREGE KAIZERTZAKAZ EGOAN INGURATUTA eta ZELAN EGON ZIRAN ANTOLATUTA : Euskalerrria gure gaurko edestian sartu zanean, Mauritarrek artean dirala eta denbora areek alan eskatzen ebelako, antolamendu-on baten beartasunean agertu gintzazan.

Gure erregetza sortu orduko baiña, iru erregetza, gero kaizertzak izango ziranak euki genduzan aurretik:

Iparaldean Klodebeo Franko`ak (481-511) V`n gizaldian Merobinjio erregeleifua sortuta, Karlomagno`ren (742-814) erregetzara 768`an eltzen gara. 800`garren urtean III Leon Aita-Santua`k deituta Erroma`ra joan zan eta bertan Iparaldeko-itsasotik (Mar del Norte) Garellano ta Ebroraiño eta Mendebaleko Atlant-Itsasotik Ekialdeko Boemia`rañoko Erromatar Kaisal-Erri Sakratua`ren Inperator edo Augusto-Kaizar-Jaun Erromako San Pedro`ren Eleizan koroatu eban. Eta Amen emoten jako asiera edo kaizartzazko lengo ariari barrero oratuta Erroma`tar kaisal-Erriaren inperatore edo kaizar agintari izendatuta.

Euskaldunak...., erromatar kaizal-erri orrek esaten dauan lez, Karlomagno`ren menpean egon giñan ?. III Leon Aita-Santu ta Karlomagno`ren irudimenean bai, baiña egia non ?.

Ekialdeko Alemania`n, I Oton aundia (912-973), erregearen aulkira 936`an igon ebana eta 962`an XII`n Juan Aita-Santua`k: Europa`ren erdi-gune, Italia`ko lurralde bi eta Frantzia`ren Ekialdeko lurraldearen Erroma`tar Kaisal-Erri Sakratua`ren inperatore edo kaizar-jaun izendatu ebana eta gero berak 963`an XII Juan Aita-Santua bere jarlekutik kenduta VIII`n Leon Aita-Santua ezarri ebana.

Eta erdi-ugarte onen Ipar-Mendebalean Asturias`en Pelayo`k 718`an sortutako erregetza.

Onen gora beran, batzuk esaten dabe, Rodrigo Jauna`ren (Don Rodrigo) bir-seme edo illobasoa zala (nieto), besteak, Fabila Kantabria`ko dukea`ren semea. Dana-dala, au 718`an kaizartzaren asmakuntzak eskuratzeko asi zan eta onen ondorengoa bere suiñ I Alfonso (693-757) katolikoa 739`ko urtetik aurrera izan da.

882`an III Alfonso Magno (838-912) Asturias eta Leon`eko erregeak beren lurraldeak Mauritarren eskuetatik berrezkuratuta eta erregetzaren mugak Duero ibai ostera eroan ebazan. Au Euskaldun bategaz ezkondu zan (Balpuesta`koa ?) eta bere kronikan I Alfonso`ren aldian, Bizkaia aitutzen dau lenengoz eta bere erreifukoa dala diño.

II Alfonso nasgabeak (el casto) egin eben antzera, Garzia (910-914), III Alfonso`ren semeak, X`n gizaldian errege-aulkia Obiedo`ra aldatu eban eta beren ondorengo II Ordoño (914-924) Galizia`ko errege zanagaz, Leon-Asturias`eko erregetza sortu zan. Gero Nafarroa`ren III Santxo Nagusien (965-1.035) eskuetako antolabidetik eta 1.230`ean III Fernando (1.199-1.252) (onek, Godo-Bisigotiko`en "Fuero-Juzgo" lege-sorta, gero gaztelerazko izkuntza izango zana eta orduko latin-

kumearen erri-izkerara itzuli eban, erriarentzat agintezko izkuntza izendatuta. "Ararte zelako izkuntzan berba egiten eban erriak ?) Nastu-gabeak egin eben alkargo bidetik, Gaztela, Asturias-Leon`eko erregetzak Galiziagaz bat eginda geratu ziran.

VII Alfonso (1.105-1.157) Borgonia`ko Ramon eta Andre Urraka`ren (Doña Urraca) semeak 1.111`n urtean artu eban erregetzaren agintaritzza eta bere ama Urraka 1.126`an il zanean, 1.135`an Leon`eko erregetza. Españas`eko kaizertzagaz bereganatu eban.

Erregetzaren ezean Dukeak (del frances "duc" y este del latin "dux", guia, conductor) izan ziran gorengoak printze edo erregekumearen ostetik eta Konde`ak ziran lurraldeen jaurleri edo gobernariak, Markes agintaritzatik be-maillakoa zana eta bizkondearena baiño goi-maillakoa.

Dana-dala, danak Erromatar Kaizar Sakratuaren bedeinkapenagaz buruzagiak ziran orren antolamendutik etorten ziranak, gero erregearen ezean eurak lerrokada (escalafon) orreititik erregetzara igoten eben.

Zer ziran jaurkintzaren ardurazko aginpide orreik eleiztar bedeinkapen barik ?. Asieran bai, erri-gizarteak aukeratu ebazalako, baiña ortik aurrera ?. Erritarrak, jaun-erregeak zergaitik ospatu egiten ebazan, bildurragaitik ?. Dana dala, errege/erregiñ ta jauntzak: "Euren artean eskontzen asi, ondorengoak eurak aukeratu eta erregetzak euren jabetasunean beraganatzeagaitik, erritarren ardurak ezerezean edo nai eta askatasunezko sustraikoak izan, morroipetasunean geratu ziran. Nafarroan ez !! gero ikusiko dogun-lez, beti borrokatu ziralako menpekotasunaren aurka.

Euskalerrian ez zan gertatu ekintza orrein bardintasunik, baiña Europa`ren erdian kokatuta eta menperatzail-estukuntzazko (presiones imperialistas) indarkerien bidetik, zentzunezko Iparrean naaztuta, erriaren sinismenak eleiztarren aolkuak on-bidetik aldendu egiten ebazalako bereztasunaren aurka jokatzea gaitik, beti borrokan ibili giñan. Menperatzail gogamenakaitik, guzur ta indarkeri buruz, Europa guztia gaur daukaguzan edo bear ez diran indarkerizko-Laterrietan egokitu arte.

Badago beste erabat erregetzaren jaurkintzara igoteko edo erregetza ori beraganatzeko, edozein errege-erregiñ (Nafarroako III Juana erregiñaren erlijiozko zalantza denboretan adibidez, euren indarra baiño besterik ez ebalako euki) Eskomikatu (excomulgar) edo Eleizatik-kanporatu egiten ebezanean, erregetza ori Eleiz-debekuan geratuta, edozein printze edo errege katolikoari zabaltzen eutsozan bideak, erregetza ori bere jabetzan geratzeko.

Konturatzen gara orain... nondik-nora, bai !! eta zelago oldozmenagaitik (pensamiento, idea) berezko erriak ezeren kontuan artu gabe... egoan dana lotuta ?.

Ori da ikusiko doguna orain, Euskalerriko Edestian Askatasunezko maldaberak zeatz argitzen doguzanean.

Franko`k esaten ebana "TODO QUEDA BIEN ATADO", nondik atarako eban esaera ori ?.

EUSKAL EDESTIAN, ASKATASUNEZKO MALDABERAK:

Euskal errege-jauntzak sortu genduzenean, Europa, goian aipatu doguzan lege osoakaz: "Griego`en jakituria, Erromatarren kaizertza ta Legedia eta Kristautasunaren

Katolikotasun Alderdikerizko” baldintzatan egoan oiñarritutako aukeran sortu genduzan.

Ba-egoan beste aukerarik ? Bai !! baiña... Europa`ren Mendebaleko erdian egonda... zelan aurrera egin danon aurka ?. Asieratik ezereztuko ginduezan.

Orduko Euskaldunak indartsu egon ba-ziran nai gorputz ta sinismenean be “Euskal Ekanduzko Egia`ren arloan NORTASUN aundia euki ebelako”, orain 1.183 urtetik onantza, guzurraren zalantzazko jarkera (situaciòn) baten egokitu bear eben euren askatasunaren babesa eta orain be or gagoz.

Nafarroa`ko erregetza Iparraldeko ta Egoaldeko lurraldeakaz osotuta, Bizkaiko Jauntza ta batzarrak, Araban Arriaga`ko anaitegi edo auzotegia eta Gipuzkoa`ko batzarrak agintari euki ba-genduzan be, Erromatarren Kaizar Sakratuaren antolamenduzko asmakuntz fazista edo eriogille (facinerosos) orreik, zoritzarrez gaurko laterrietan geratzen jakuzenak, Europa`ko agintaritzaz artuta euki eben eta gero ikusiko dogun lez, odolkerizko eta lotsagabeko edesti barru baten, gaur-be daukaguzan tresneriekin “ARRIGARRITASUNEZKO GUZUR ORREIK OSTONDU EZINIK” bertan daukaguz.

GURE JAUN-ERREGETZAREN ASKATASUNEZKO EDESTIA ERDI-ARO GUZTIAN eta XVII`n GIZALDITIK EUROPA`n MENPERATZAILLE JAURKINTZAN IRAGANATZEKO, ZE GARRANTZI EUKI EBAN FRANTZIA`ko IRAULTZAK ?:

BIZKAIA`ko JAUNTZA: Bizkaia`ren edestia labur adiraziko-dot, bestela luzeegi egingo jakun eta leenego argitu bear dotena: “Gure Lege-Biltzar edo Batzar-Nagusiaren aginduak, itzarmeneko arauan jaun-errege artekariak aukeratzen ziranean erriaren babeserako, zelako agindu eta ordainketan geratzen ziran jaun-errege orreik euren antolaritzak egin dagiezan, jabetza erriaren Lege-Biltzarrean geratu daiten eta itzarmen orrein bitartez, zelako ondorioak euki genduzan, nai Nafarroan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban”.

Jaunak eta erregeak, gero Nafarroan ikusiko dogun lez, Euskalerriarentzako eta Europa guztientzat asierako denboretan Laterrien (anfictionia de regiones, que aunque entonces no se comprendiese el tèrmino naciòn, de sentimientos nacionales en el compendio de la lengua, religiòn, usos y costumbres, estaban gobernados por sus juntas regionales con personalidad propia) antolakuntzan egokituta egon ziralako, artekariak baiña besterik ez ziran izan, euren arteko eztaibadetan, antolamendu orrein epaiketaren bidez, arteko ebazkizunetan (problemas a dirimir) bakeak lortzeko. Baiña jabetasuna beti, anfictioni orrein Laterri-batzarrak jaun eta jabe dirala.

Eta erabagi orreik artu ziran denboran, konturatu bear garanagaz : “VIII-IX`n gizaldietan, Iparraldeko Akitaniatik erdi-ugarte onen erdiraiño, oraindiño Euskerazko izkuntzakoak giñela, Demokrazizko Asakatasunaren oitura batekoak eta Erlijiozko arloetan, sinis batekoak, kristautasunean egokitu arte.

Oraindiño ez eben indarririk euki, gero Europa`ko jaun-erregetzan Pelayo artean dala, godoaren eta eleiztarren ari-bidetik sartu ziran “Erromatar Kaizar-jaun Sakratuen asmakeriak” leen erromatar zoritzarreko batzangotasunaren asmakerietara

eroango ginduzanak, berezko erri-gizarteak ezereen kontuan artu gabe, eta gaurko egunetararte.

Orregaitik ondo ulertu bear doguz gauza bi-orreik: "Gure oiturazko legedia jaun-erregeak euki arte eta ortik aurrera oraiñ arte.

BIZKAIA`ko JAUNTZA:

Bizkaia`ko jauntza`ren ekimenak bakarrik aipatuko doguz, Araba`ko Arriaga`ren Anaitegia (cofradia) eta Gipuzkoa`ren Batzar-Nagusi`en oiturak, bardifiñ-antzekoak ziralak eta luzeegi egingo zalako lan onen azalbide (narraciòn) au.

Erri-Batzar-Nagusiak iru gauzatarako aukeratzen ebazan jaun-errege artekari barri oneik: a) "Gudal-buru izateko; b) Zuzenbidearen buru-nagusia izateko; Eta d) Bizkaia`ren ondorezko lur zabalak zaindu dagiazan".

Eta jauna`ren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun dagian, ain aalmen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, berea ez zala ezer !! daukon guztia, Bizkaitarrak emonekua dalako, egin bear eben antolarazia (arbitraje) itzalgarritasunean (respectabilidad) ezarri daiten.

Orregaitik, "Erabakitasunean, Egilletasunean eta Lege-egilletasune`tik" apur-bat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra errian egoala erakusteko.

Bizkaitarrak..., jauna beren jaurkintzatic kendu leiken, ziñ egindako baldintza orreik bete edo lotsakortasunean (respectuosidad) ez ba-ebezan eukiten ?.

Bai !! eta adibide batzuk argituko dodaz: "1.137`an IV Lope Gaztela`ko VII`n Alfonso erregearen alde egon zalako, Nafarroa`ko VI`n Gartzia`ren aurkako borrokan" bera kendu eta Nafarroa`ko erregeagaz alkartu ziran.

1.454`an Epailla`ren 4`an Gaztela`ko IV`n Enrike errege`ari: "Bere jaurkintzazko leenengo denboretan, Bizkaia`ko jauntza ziñ egin barik artzeko ibili zalako edo gudartean ibilteagaitik mandio-urdiñenak (remoloneando) egiten bai beintzat egon zalako", Batzar-Nagusiaren keifiaduragaz beartuta 1.457`an epailla`ren 2`an (iru urte beranduago), Gernika`ko Antigua`ko Ama`ren Eleizan: Erria`ren Lur-Zelaiko Foruak zindu ebazan eta ille orreitako 10`ean Billa`koak Bermio`n.

1.469`an erregeak, Bizkaia`ren billak eta lurrak saldu ebazala surrumurrua zabalduta. Bizkaitarrak, surrumurru orrein azalpenak eskatu eutsozan erregeari eta onek: "Guzur aundiak zirala esanda, bakeztu eben urduritasuna".

Bizkaitarrak ez eben ontzat artzen surrumurru ori eta erregeak eskutitz baten bidez Bizkaitarrak ostera guzurtzen dauz, Gaztela`ko erregearen asmo-osoia Señorioa zatitu eta alokatzea (de acuerdo al sistema feudal) zalako. Eta Bizkaitarrak batzartuta, erabagi au artu eben: "Jaun-txar ori bereala kentzea eta Isabel (gero katolikoa izango zana) beren ugaz-arreba (hermanastra) izendatu".

IV`n Enrike`k ez eban on-artu erabagi ori eta leenengo maltzurtsunez (con mentiras, engañosamente) jokatuta, larderiaz (bravatas, amenazas) gero eta 1.470`ean Epailla`ren 4`an bere errege-aunditasunean Bizkaitarren aurka galdu eben borrokagaz minduta, on-artu eben: "Bizkaitarren agindua, beren gaiñetik egoala eta euren eskuetan bakarrik jauntzaren aldaketa".

1.581`ean Gatza`ren zergakaz bardiñ: II`n Felipe Lisboa`n egoala, beren ministru edo serbitzariak, Bizkaia`ko gatza zergapetu gura eben eta beren ezaugurera eldu zanean, bereala agindu eban Bizkai`tik agindu ori kentzeko.

1.590`ean Bizkai`tarrakin bai erakusten dau beren lotsagizun eta zentzutasuna, Espaina "Servicio de millones"ekin zergapetu gure ebanean: "Zerga orreik Espaina`ko errege-lez ipini ebazala eta ez Bizkaia`ko jaun-lez". II`n Felipe`k ondo jakin ebalako, zelako eskubideak euki ebazan Espaina`ko errege-lez eta Bizkaia`ko jaun-lez.

1.598`an baiña, III`n Felipe errege-aulkira igonda eta beren zeregiñeko jaurkintzak Duke de Lerma`ren eskuetan itzi ebazalako, berak ezer jakin barik eta beren ministruak ezer aldarrikatu barik, Bizkaia`ra etorri ziran "Servicio de millones" zerga orreik eskuratzen eta Bizkaitarrak: "Zerga orreik eurakaz zer ikusirik ez daukiela" esanda, besteak gogorkeriz asi ziran. Eta Bizkaitarrak ikusita, jauna`ri bialdutako mezuak beren lekura ez zirala eltzen, 1.601`ean Loraila`ren 10`ean Gernika`ko zugazpean batzartuta, eskutitz au bialdu eutsoen:

"Muy alto Padre"

Señor:

Visto por Nos esta antigua è honrrada Señoria de Vizcaya lo mal que V.M. està informado, por orden del consejo de Castilla, en querernos agraviar y tratar tan mal al descubierto, en recompensa de los muchos y grandes y leales servicios que esta antigua Señoria de V.M., en mandarnos que pagàsemos ciertos pechos à derechos como los demàs buenos hombres de esos reinos de Castilla pagan; hicimos Junta General de Caballeros è Hijos-dalgo de esta Señoria en nuestra Villa de Gernika, que los reyes antepasados de V.M. nos dieron por nuestros honrrados servicios, hallamos que queriendo usar V.M. de tanta riguridad con nosotros y quebrantar nuestros honrrados Privilegios (Bizkaitarren artean orduko denboretan itz onek ez dau esan gura Espainola`ren artean gaur esaten dauana, beren berezitasunezko erri ta legeak izan zirala baizik) y la autoridad que nuestros honrados padres han tenido: que debiamos de suplicar y pedir humildemente à V.M. sea servido de mandar que se borre, teste y atilde de sus Pragmàticas Reales lo que à nosotros toca, pues es justicia lo que pedimos; y, suplicamos à V.M. no hubiese lugar de hacernos, nosotros quedamos obligados à defender nuestra muy querida y amada Patria, hasta ver quemada y assolada esta Señoria y muertos mujeres è hijos y familia, è buscar quien nos ampare y trate bien.

Esta lleva D. Pedro de Gamboa, Diputado de esta Señoria, gran servidor de V.M.; no sea èl solo culpado por ello, antes V.M. le haga merced, porque fue importunado para ello.

Dado en nuestra Villa de Gernica en 12 de Mayo de 1.601.

Vuestra antigua y leal Señoria de Vizcaya, que al servicio de V.M. queda.

1.601`ean Lorailla`ren 24`an III`n Felipe`k, beste eskutitz bategaz atzerakada egiten dau eta Bizkaitarrai esaten dautse: “nire aurreko erregeak zer egiten eben ikusita, zuekaz nik be alan beteko dot”.

1.602`ko urtean, Fueroai zifnezko-itza emon eutsen.

IV Felipe`k errege aulkira igon ebenean, gobernuko zeregiñak Konde-Duke de Olibares`en eskuetan itzi ebazan eta ostera asten dira Foruen aurkako ekintzak, gatzari zergak ipini gurean.

Olibares`ek ez eban jakin, guk gure Foruko-legediaren jabetasuna euki gendula eta bere gogamenean Espaina`ko lurraldearen berdintasuna gura eban lez, Euskaldunaren aurka jokutzen asi zan.

Euskalerriko kaleetan ikaragarrizko borrokak egin ziran eta ez gutxiago Bizkai`ko Lege-Biltzarrak erregea`ri bialdu eutson eskutitzan guda-zibilla`ren keifnuagaz:

“Que el monarca no tenia ni fuerza ni poder para conquistar Vizcaya, respeto de que, aunque fueran guresos ejèrcitos de mar y tierra, la naturaleza de ella era tal, que todos habian de perecer, como les habia sucedido a todos los reyes que habian enviado armas contra ella”.

Aberri baten, beti egoten dira baiña, Judas edo saltzailleak eta oraingoa: “Erregeak Ciudad Real`eko Dukea`ren aundiki-izenagaz goraldtu eben Alonso de Idiaketz`tar Juan zalduna izan zan”. Larritasunak bakeztu ondoren, errukarien atzetik asi zana eta 1.634`an Lorailla`ren 24`an borrokaren aintzindariak ziranak espetxean sartuta: Morga eta Sarabia lizentziduna; de la Puente eta Urtusaustegi`tar Juan eta Otxoa ta Ojarabide`tar Martin Señorío`koak, espetxean bertan, garrote-bil`ean il ebazan. Beste irurak: Larrabaster eta Amuñarri`tar Juan, Bizkaigana`tar Juan eta Domingo anaiak, erriko enparantzan gargaillez ito edo urkatu ebazan”.

Lasa eta Apalategi`tar Jose`k bere liburuan esaten dauan lez: “Euren gorputzak eustuta egongo dirala illobian, baiña euren izpirituzko ARIMA`k gure artean bizi-bizirik”.

Eta Olibares`en ezagutzara ain gordifiik eldu ziranean jabetasunezko jakintza orreik, bera izan zan Espaina`ren laterrizko aolkularitzan goi-maillako arrazoiak erabilia, gure jabetasunak babestu ebazana. “Berak egiten ebana sinis-betean egiten ebala aitortuta”. Gure jebetasunezko eskubideak, gureak bakarrik zirala jakin ebanean.

Badagoz beste garrantzi aundiko gertakizunak be aitatzeko, baiña bardiñ-antzekoak izanda danak eta luzea izango dan lez, goazen Kadiz`eko gorteetan zer gertatu zan jakitera.

IV`n Karlos Espaina`ko errege zala, 1.808`an Epaila`ren 19`an Asturias`eko printzearen alderdiak beartu edo premiatuta, bere seme VII`n Fernando`ri erregeen ezar aulkia iztea lortu eben, baiña 1.808`an Lorailla`ren 5`ean Napoleon`ek Baiona`ko Balenzai jauregira deituta, aita aurrean dagoela, galazo eutson, ostera errege aulki ori aitari emon dagiola, berak bere anai Bonaparte`tar Jose Espaina`ko errege izendatzeko.

1.808`an Uztailla`ren 26`an II`n Fernando`k Baiona`tik oiuzkatu eban, nai-ta bera beren egoeragaitik ez-baiezko agintari izan, Batzar-Nagusietan artutako erabagiak ezereztuta geratzen zirala.

1.809`an Epailla`ren 19`an Espaina`ko Batzar-Nagusiak, Euskalerraren lau lurraldeko Batzarrak ezereztutea erabagi eben eta Espaina`ren orduko egoera, guztiz maldaberan egoalako, 1.810`ko Batzar-Nagusietan izendatu zan erregeen-ordezko Gudal-Batzar Nagusiari emon eutson agintaritza eta oneik Espaina`ren leenengo araudi-batzarretarako (cortes constituyentes de España) deitu eben.

Araudi-batzarreko batzar-kide oneik aurrera egin eben eta 1.812`an Epailla`ren 19`rako Kadiz`eko batzarrean Espaina`ren estapena edo iraspenna (constitución) egiteko deitu eben eta Euskalerrria`ren asarraldi aundienean, ara joan ziran Euskal ordezkarri saltzailleak, 1.809`an Epailla`ren 19`an orduko batzar-nagusietan, gure Foruen jabetasuna ezereztuteko artuko ziran erabagiak, ziñatzera.

1.812`ko Dagonilla`n Mendizabal gudal-buruak Frantzezen gudaloztea kanporatu ebanean, batzarrak batu ebazan, ezar-leku guztietan Euskalerrriko askatasunaren aurkakoak ezarrita, Kadiz`eko batzarretan ziñatu zanari bir-baietza emon dagian.

Euskal-etsaiak gauza oneikaz gura ebena: "Euskalerrria, Espaina`ko gudalozteak bir-eskuratua zala eta Espaina`ren iraspenna Euskal-ordezkarriak on-artua" erakutsi, euren nausigo-menperatzaille agindu-nai orreik, betirako on-artuak izan daitezana.

Ori gura eben eurak, baiña 1.813`an Bonaparte`tar Jose`k beartuta, Espainatik alde egin bear eban eta bere anai Napoleon`ek VII`n Fernando askatuta Espaina`ra itzuli zan.

Euskaldunak, Fuero`en jabetasuna berrezkuratuta, erregeak 1.814`an Uztailla`ren 29`an Fuero`ak zinpetu ta baietzu egin ebazan.

Euskal lurraldeak askatasuna lortu ba eben-be eta zerga-mugak (aduanas) itsasotik ostera Ebro-ibai`ko bere lekuan kokatu, arbuiozko (despectivo) guztiz dan izen baragarri bategaz ortik aurrera deitu euskuen "provincias vaskongadas".

Euskalerrriaren eragozpenak ez ziran amaitu or, eztaibada asko euki genduzelako 1.833`an Irailla`ren 29`an VII`n Fernando il zan arte eta ortik aurrera karlistada`ren gudari asiera emonda, 1.836 eta 1.876`an gure Foru`en legeak guztiz ezereztuta, gaur-arte.

ONDORIO-LEZ, ZELAKO ERAGOZPIDEAK IKUSTEN DOGUZ EUSKAL ASKATASUNARENTZAT...JAUNTZAK EZARRI GENDUZENETIK ?:

Jabetasunezko edesti onen azalkuntzazko adirazpenean leenengo ikusten doguna: "Gure arbasoen gaiak euren Batzar-Nagusietan, demokraziaren neurri-aundiko arduratan ezartzen zirala, erri-gizartearen eskubideak lotsazko antolakuntzan zuzendu daitezana".

Bigarren: "Erregeen artean, ekanduzko izatasun arloetan desberdintza aundiak egon zirala, adibidez: "Alemania`ko gortearen eragipeneko irakaskintzatic etorri ziran Austriarrak I Karlos`etik asi-ta, danak, Euskalerrriagaz itzarmendu ziran antolakuntzaren baldintzak, lotsa ta ardura aundiz zaindu zirala. Nai eta I Karlos`ek,

beren aolkularien esanari: "Nafarroako erregeak osteraz ezarri dagiazala euren erregetzako aulkietan" uts egin, Zizneros`ek, Erromatar Kaizar-Sakratuaren batzangotasunezko asmakuntza Godo`en aritik etorten zanaren zaintzalea izan zalako eta beren alde, beragaitik ondo irakatsita (aleccionados) egon ziran, adibidez: Aragoi`en Alfonso (Fernando katolikuaren sasi semea izan zana) Zalduba`ko gongotzain edo artx-apezpikuak I Karlos`eri esaten eutsona "Nafarroa`ko jabetzari eutsi dagiola, euren laterriaren babeserako, bere zainpean, Auñamendiaren igarobide guztien giltzak eukazalako".

Eta 1.518`ko urtean Gaztela`ren Balladolid`eko gorteak I Karlos`eri esan eutsonakaz: "Nafarroa`ko erregetza menpean euki dagiala, bera zaintzeko gure gizaki edo pertsonak eta etxaldeak ipini bear ba-dira, ipiniko doguzela-ta. Erregetza-ori gure erregetzaren giltz-nagusia dalako`en aitzakiagaz".

Zizneros berak !! esaten eutsolako: "Erreiñu ura, berak balio baiño geiago kosta izan jaku eta gutxi gaitik ezin da galzorian jarri, ain sariko gauza ori. Zure Espaina`ren erreñuentzako, atea izan balitz bezala, bideak zabaldu ta zarratu egiten dauana da-ta".

Ez alderantziz Frantzia`ko gortearen eragipeneko ikaskintzatik etorri ziran Borboi`ak, oneik Franko`en erroma`tar kaizar-sakratuaren iritzekoak oso-osoan izanda, indarraren bidez batzangotasunaren-menperatzaille eritzikoak ziralako. Eta sare-arte orreitan gure Nafar eta Frantzia`ko errege XIII`n Borbon`tar Luis jausita Biana`ko printzea izateari, Nafarroa`ko errege izateko bear-bearrezkoa izan zana, yaregin (renunciar) ebana.

Irugarrena: "Jaun-errege`en eskontzak euren artean asi ziranetik eta euren aolkularitza osoa erromatar kaizar-sakratuaren eleiztarren eskuetan egonda eta Eleiza`ren printze aulkiak euren artean bananduta, Euskalerrarentzat zoritzarrekoak biurtu ziran jaun-erregeakaz euki genduzan leenengo itzarmenak, euren gudarako eskubideakaz (nai-ta aurretik Jaun-Erregeak diruaren ordaiñiak emon bear) Euskaldunak gure artean beti borrokan agertzen giñalako, Eleiza`ren printze orreik euren dama-joku edo xaxe-jokuan (ajedrez) zorionezko jostaldiak euki dagiezan batzangotasunezko-menperatzail kaizar-sakratu orrean zerbitzura.

Bide orretatik, Europa guztian sortu ziranak, baiña Euskalerrian batez-be zazpi Laterrietako Euskaldunak bananduta geratu gintzazan: "Bizkaian = Oñaz eta Ganboa`tarrak aurkariak zirala; Gipuzkoa`n be = Oñaz eta Ganboa`tarrak; Araba`n = Mendotza`tar eta Gebaratarren artean eta Nafarroa`n = Beaumontes eta Agramontes`en arteko aurkaritzan.

Sinistu ezifnezko naaztekuntzan sartu gintzazan Euskaldunak joko orrean bidez eta alderdikierietan gaur-lez ia birrinduta, Karlistada eta Franko`ren aurkako gudatara eldu gintzazanerako.

Gure Euskal arbasoak euren batzarretan lotsa aundiz, berezko Legean edo demokraziaren ekanduzko zeaztasun osoan jokatzen ba eben-be, menpeatzaille erdira naieko oneik, batzangotasunerako indarkerien bidez egiten ebezan gauza guztiak "Egia`ren aurka, guzurraren neurri aundienetarikoan jokatu bear izan eben", eurak

goraldu ziran aunditasunezko sasi-jainko maillatik errez euki ebalako erri-gizartearen sinismen bidetik, alderdikerizko naaztetasun orreik lortzea.

Eta edesti guztian joko bardiña izanda, orduko denboratan erreztasun aundiz jokutzen ebelako: GAURKO EUSKALDUNAK KONTURATU EZ !! ALDERDIKERIZKO JOKO ORTATIK LEN-BAIT LEN ALDENDU BEAR GARELA...., GURE ASKATASUNEZKO ELBURUAK LORTU GURA BADOGUZ ?.

NAFARROA`ko ERREGETZA:

Mundu onetako Berezko-Legea`k bideratuta, beste gauzarik ezin dogulako egin (aldoguz egin baiña betiko borroka baten), argitasun guztiagaz ikusten dana, gure arbasoak ikusi eben lez, nor-beren gorputzatik asi-ta, gure almenean ez dagoela iñungo gauzaren jabetasunik ez Legerik egitea. Gai`ari eta Giza`ren Nortasunari zor dautzaguzan lotsagisunezko ardurak ordezkatzeta baño !!. Beste gauzarik ez !!.

Ulermen ori izan zan gure arbasoak lortu ebena Mundu au adierazterakoan eta eldu ziran Demokazizko ulermenean kokatuta, senidetasunezko oituren bide-onenetik, altxor aundi bat-lez guri aldatu, bere edertasun guztiagaz.

Baiña, or goian azaldu doten tarteko itz`etan lez, gauzak egin leikez bai !! beste erabateko ulermenakaz, adibidez: “Norkeriz, Lotsa-Gabekeria eta Arduragabea edo Nor-beren arduratik-kanpo geiegi erabil-gurean” eskubidearen ordezkartzan naaztu egiten gaituenak, gaurko egunetan sortzen jakun-lez.

Edesti oneitan oraiñarte azaldu doten lez, antziñatik agertzen jakuz Norkerizko eritzi irabazkoi oneik, K.a. 4.000 urte inguru Ekialdetik Mesopotamia`ko Eufrates ibaiaren ibarretan Sumeria`ko erriak Sargon, erregeak menperatu ebazanak, Babilonia`ren jendekuntzari bideak zabaldua.

Mundu oneitan, ekintzazko ardurak zentzun-gabeko era orreitan betetan doguzanean, errestasun aundiagoetan betetan doguzela esan leike.

Or dagolako, Berezko-Legea`k makurtuta daukan kakoa, gauzak beren azalkuntzan edo erakuspenaren adierazpenean ez badoguz betetan, samatik oratuta danak naspilduta, zirriborro antza baten kokatzen gaituenak.

Mundu onen gaia erabiltzerakoan ez dauka ezelango ardurarik nai-ta gure gorputzak izanda-be, beren orekak berrezkuratzeko JAUNGOIKOA`ren Lege`tik antolatuta dagoelako. Baiña ez gure bizi denboran, orregaitik gauzak eta gaia ikusten doguzanean euren garbitasun ederrenean, ez doguz lokaztu edo kakaztu bear, gure on-bizitzaren pake ta onurarentzat diralako.

Euskaldunak konturatu gaitezana: “Orregaitik dira gaur arrazoiaren berbak, gaiagaz egiten doguzan ekintzak baiño garrantzi aundiagokoak”. Eurakaz arrazoiaren zentzu aundiz, eraiki bear dogun gizartezko gaztelu aundi ori, arrazoizko arri-eritziak garbitasun osoan euren lekuetan egokitu bear diralako.

“EZ !! IZKILLU ta ALDERDIKERIZKO MALTZURKERIRIK GEIAGO” GURE EUSKALERRIAREN ASKATASUNA LORTU GURA BADOGU.

EUROPA`ko IZAR AUNDIENA DAN EUSKALERRI AU, BEREN NORTASUNEZKO BORONDATEAN SENDOTU BEAR DOGU, IÑORK EZIN DAGIAN ESAN "EZ DAGOELA BIZIRIK".

Guzti au Bizkaia`ko edestian lez, Nafarroa`ko edestian-be ikusten da argitasun guztiagaz. Orregaitik aleginduko naz al dodan xeetasun guztiagaz, artu dodazan edestiko zeaztasunetatik GURE ESKALERRI MAITE ONEN ASKATASUNEZKO ARRAZOIAK ADIERAZTEN.

NAFARROA: Euskalerrri onen zilbor edo erdi-toki-lez, beti izanda Euskaldunen babeslekurik ederrena, gaurko edestiaren aurretik Añamendietatik zabaldua, isterbegi edo etsaiaren aurka beti euki gendulako mendien legorpea.

Baiña gaurko edestian sartu gintzanetik, giza`ren erreztasunak soiltzen (simplificar) joanda, bearrezkoa agertu jakun oraintsuko antolakuntza barri baten kokatzea.

Aukera orreik VIII-IX`n gizaldi bitartean agertu jakuzan, 778`an Karlo Magno`ren gudalosteak, bere zaldun bioztoi (resuelto, valiente) Roland aipagarrien agindutara, Salduba (Zaragoza) Mauritar Soliman Ibn-al-Arabi`ren menpetasunetik askatzera joanda eta eziñean Iruña`tik etxerantza aldatu zanean Napar-Uria erraustu ebenean lenengoz.

778`ko Dagonilla`ren (Agosto) 15`ean Karlo-Magno`ren gudalostea Añamendiak aldatzen egon ziranean, Euskaldunak ostonduta Orreaga`n itxaron eutsoen eta ikaragarritzko zarraskintza egin eben gudaloste orreitan, Roland bera be il-da.

Eta 814`an bigarren, Karlo Magno il ostean, bere seme Ludobiko Pio`k 824`an ostera bialtzen dabezalako beren gudalozteak Nafartarren aurka. Euskaldunak ezereztu ebezanak.

Eta emen, 714`an Kalifa`ren zerbitzura aldatu zan Akitania`ko Kasio kondea kontuan artu bear dogu, ortik aurrera Euskal sendi onen izen barria Banu-Qasi`ren izenagaz ezagutu zalako eta euren laguntzagaz 824`an, Nafarroa`ren Jimenez ta Arista`tar Iñigo leenengo errege izendatu zalako, 852`rarte iraun ebana, il zan arte.

Iruña`ko II`n Garzea`tar Iñigez 870-882 urte bitartean errege izan zanaren Ximena alabea, III`n Alfonso Aundia (Magno, 838-912) Asturias eta Leon`eko erregeagaz ezkondu zalako (babesagaitik ?), Banu-Qasi`ren senditik urrunduta, eurengana urbildu zan, ortik beste ziri sakon-bat sartuta Nafar-erregetzazko Nortasunaren osasunerako. (Kontuan euki bear dogu, erdi-ugarte onen Iparralde guztian laterritutako erri-gizarteak, Euskeraren senetik berba egiten ebela, nai-ta izkuntzan naastuten asi).

Orregaitik ikusiko dogu, zelako aukeran sortu gendun gure Nafartar erregetza.

Alde-batetik: "800`n urtean III`n Leon Aita-Santuak, Karlo-Magno`ri Gabon-Egunerako Erroma`ko San Pedro Eleizara deituta, Mendebaleko Erroma`tar Kaizar Sakratuaren Augusto-Kaizar Jauna koroatu eban, ortik asiera emonda osterabe, zoritzarreko menpekotasunaren asmakuntza orreri". Goian aipatu doten lez.

Beste aldetik: Orduko errege`en nagusitasunaren asmo bidez... edo eta pakearen naikundeak babestearren (Baliteke asmo biak beartuak izatea, Nafarroa`ko erregetzan beintzat) "Errege`en artean ezkontzen asi ziran". Adibidez eta leenengo erregetzatik

asi-ta ulerpide batzuk aurkeztuz: "II'n Garzia edo Gartzia Iñigez 870-882'ko urtetan errege izan zanaren Ximena alabea, Asturias-Leon'go errege III'n Alfonso'rekin ezkondu eben eta beste alaba bat, izenez Oneka deitzen zana Aragoi'ko Aznar Galindo'rekin. Eta era berean, Mauritarrek Begi-Bakarra ta Kristauak Monakoa deitzen eutsoen I Fortun 882-905'n urte bitartean errege izango zanaren alaba, Oneka, Abd Alah mauritar'ekin. II'n Santxo Abarka 970-994'ko urte bitartean errege izango zanak, Mauritarrai ezin irabazi eta alaba bat Almanzor'ekin ezkondu eban, bai bera-be bigarrenez Urraka Fernandez'ekin, Fernan Gonzalez Gaztela'ko kondearen alabea zanagaz bakearen truke. Bere seme II'n Gartzia Santxez'ek 994-999 urte bitartean errege izango zana eta Dardarti edo Ikaratia deritxon'ak, alaba Asturias-Leon'go V'n Alfonso'gaz (994-1.027) ezkondu eban".

Dana dala, zelan ezkondu... menperatzailletasunezko feudo'an antolatuta egon ziran Franko ta Asturias-Leon'eko erregetzak...kaizar astuntasunezko izen orreik emoten eutsoen punpeziagaz (solemnidad)...., Foru edo Lege-Zarraren ardurazko ordezkarietan eta askatasunezko demokrazian oituratuta sortu zan Euskal-Nafar erregetzarekin ?. Ba..., antzerki edo eta gertakizunezko lazgarri orreitan iraungo dau Nafartar-erregetzaren edestia 1.512'an Fernando katolikuak Nafar-erregetzaren Ego-aldea menpetu arte.

Europa'n, berez askatasunaren oiturazkoak ziran erregetzak eta Nafarroa'ko erreinua batez-be, etsai asko euki ebezan orduko denboratik asi-ta. Indarkeriz batzangotzeko, Erromatar Sakratuzko kaizar katolikotasunaren aolkularitzazko laguntzan Feudalismo'aren asmakeriak sendotzeko, berezko erri-gizartearen Kristau sinismenak eta sendi-giro-aberakuntzak naastuz, lokaztuten asi ziralako, Europa morroikerizko Feudalismo sasi-jainko orreitan garaitu dagian.

Europa'ren "Berezko Erri-gizarteari" ortik aurrera, iñoz !! ez dausielako aukerarik emon, bereztasunezko jarraipenean itzarmen bidetik batzangotu gaitez. Eta gaur Espaina'n indarkeriz laterrituta gagozanai batez-be. Euren sasi-asmakeriak lortzeko, ibiltan dabezan guzur-andi orrein Jarraitasunezko ekimenak beti !!, Izkuntz-Nortasunezkoak zapalduta izan dalako.

Zer esan gura dabe.... ?: Bizitz oneri...: "GIZA edo eta BEREZKO-ERRI-GIZARTEAK JAINKOA'ren LEGEAN ULERMENTZEKO, IZKUNTZAK AZTURAREN ADIERAZPENEN AZALGARRIAN EMON EUTSEZAN NORTASUNEZKO-IRAKATSIK EZ DIRALA EZER esaten dabenean ?. ALA..., EZ DIRALAKO GAI-IZAN, NORTASUNAREN IZKUNTZAZKO ADI-ERAZPEN ESAN-GURA GUZTI ORREIK BATU ta ONDO IKERTUZ...DANON ADIMENENKO ULER-ONESPENAKAZ DEMOKRAZIKO ERABAGI ON-BATEN OITUTA "JAUNGOIKUA EZKERTZEKO"... , ORDEZKO- ARDURA-ON GUZTI ORREIK PIKUTARA BOTA ZIRALA eta EUREN "SASI-JAINKOAREN" ZENTZUZ INDARKERIAREN ERREZTASUNEZKO OITURAN MUNDU'KO GIZARTE GUZTIA BATZANGOTZEKO EGIN EBELA ?.

Zer !! ulertzen dabe...ASKATASUNEZKO-DEMOKRAZIAREN ITZA'k ESAN-GURA DABENAGAZ ?.

Europa`ko erreinuetan eta Nafar-erregetzan batez be, ortik aurrera artu ziran erabagi geienak, kaizartzaren txeberazko sare-naspil orreitan jausten ziran danak, euren artean ainbat aundi-nai`keri, bekaizkeri ta kain`keri sortuta.

Orregaitik, III`n Santxo Garzez "Aundi"tik (999-1.035) asi-ta, askatasunezko-
ezkubidearen aurka egindako zertzelada batzuk azalduko dodaz, luzeegi ez jakun egin idaz-lan au.

III`n Santxo Garzez "Aundiak" 1.016`an Gaztela`ko kondearen Munia alabeagaz ezkondu-tako bidetik, bere lurraldeko nagusitasuna edo antolarazia lortuta. 1.035`an Euskalerrria, bere lau semeen artean banandu eban bidetik, Euskaldunak gaur osotzen dogun Iparralde ta Egoaldeko lurraldea bere seme III`n Garzia Santxez`eri emon ba-
eutson be, berak "Kaizar" izen-buru ori euki eta dirua ataraten ebalda idazpuru orregaz, Nafar`tar lurraldeari, berak !! emon eutson azken murriztasuna.

Nai-gabe ?. Ala... Euskalerrriko Jaun-Erregeak euken erlijiozko sinismen itsu-
bidetik, ez ebalako ulertzen katolikotasunezko alderdikeriak ekarten eban menperatzaille-asmakuntz ori, egin ebazala banakuntza orreik ?. Batez, Aita-Santuaren maltzurkerizko aolkuagaz Euskalerrria indarra galdu dagian, bere ondoan ez ebalako gura iñungo Askatasunezko Demokrazirik ?. Aita-Santua itxaroten egoalako !!, indartsuenari kaizar-sari ori emoteko, katolikotasunaren menpean Mundu guztia batzangotu dagian !!. Emen, ez da susmatzen zeozer`en ustel usaiñik ?.

Dana-dala, ortik aurrera laurak errege-lez izenduta eta kaizartza ori eureganatu gurean, bekaizkeriaren bidetik etsai aundiak biurtu zirala, Fernando`ri Gaztelako erregetza emonda, denboraren etorkizunean Asturias-Leon`etik etorten zan kaizartzaren aria oratuta feudalismoaren asmakuntzan biurtuko zana, Aragoi`ko I Ramiro`ren ondorengotik bardin eta Gonzalo`ri emondako Sobrarbe ta Ribagorza, Aragoi eta Gaztela-Leon-Asturias`eko erreinu gaitik iruntzita geratuko zana.

Nafarroako erregetza ortik aurrera, Franko`ak Iparaldetik, Ego-Mendebaletik Asturias-Leon-Gaztelarren erreinua eta Aragoi Ego-Ekialdetik beti keiñuka, beti egon bear izan eban ADI, noz banaka edo irurak batera erasoan etorten ba-ziran Nafar erregetza euren artean banatzeko.

Euskeraren arlotik begituta, Nafarroa`ko erregeak Euskal abertzale sutsuak izan arren: Euskal eregeen artean VI`n Santxo Jakintsua lenengoa izango zanak "EUSKERA" "LINGUA NABARRORUN" izen aundian ezarri eban. Baiña, goian aitatu dodazan txeberazko arrazoiaren bidez: "latiñez eta sasi izkuntzetan idazten ziran jaurkintzaren agiri guztiak".

Erljioaren aldetik begituta, ba-eukan Nafarroa`ko erregetza III`n Zelestino Aita-Santua`gaz beste etsai aundi bat, Aragoi eta Gaztelarrai ez eutsielako laguntzen Mauritarren aurkako gurutz-gudaldietan, naikua euki ebalako eurakandik zaintzeagaz eta 1.194`an Jorrailla`ren 13`an bialdu eutson bere berun idazki edo bulda`n, errege zala "Rex Gratia Dei" legezko errege guztiari idazten dautsen-lez "Nafartarren DUKE" izenagaz idazten dautsolako.

Bardin egin eutson VI`n semea zan VII`n Santxo "Azkarra edo Indartsua"ri 1.196`an Epaila`ren 27`ko (Martian) eskutitzan. Eta begitu zer gertatu zan Aita-Santua`ri begiratzeagaitik, alde-batetik: 1.200`ean, Santxo gurutzeko-gudan kanpotik

zala, emen itzi ebazanak eurak gura ebena egiten. Eta bestetik: Araba babes barik egonda eta Gaztela`ko VIII`n Alfonso adi alango aukeraren billa, Araba inguratuz, Giputzak antolaritza on baten billa eta 1.224`an Bizkaia bere antolaritzatik alde eginda, Euskalerrria banandu zala. Bai-ta bere asken-borondatean Nafarroa`ko erregetza, beren loba I Teobaldo bertsolaria begi-onez ez ebalako artzen, Txanpañ errege-leiñua ez zalako erritarren ta buruzagien atsegintasunezkoa, Aragoi`ko I Jaime`n eskuetan iztea zalako. Eta Teobaldo ori Nafarroarentzat ez bazan atsegintasunezkoa, ona erdirazailleentzat eta gurutz-gudatan ibili zalako Aita-Santua`ren esanetan: "Bere baimenik gabe, iñork ezin ebalala Teobaldo Eleizatik kanporatu" agindu eban.

III`n Karlos "Biotz-Aundikoa" k, 1.423`an Urtarrilla`ren 20`an Biana printzerria lez izendatu eban, andik aurrera erregetzara aukeratzen ziranentzat bearrezkoa izan dagian izen-buru ori errege izateko. Bere alaba I Blanka 1.420`an bigarrenez Aragoi`ko II`n Juan`egaz (Gaztela`ko Trastamararen sendikoa) ezkondu zanean, ez zalako fidatzen onek zer egingo ebanagaz bera bakarrik geratuta.

Ez eban euki arrazoi gabetasunik, onek 1.441`ean I Blanka erregiña il zanetik, 1.479`rarte berak eroan ebalako erregetza bere IV`n Karlos eta II`n Blanka seme alabari erege-aulkia lapurtu eta biak pozoituta il ebazalako. Bai bigarrenez Enrikez`tar Juana`rekin ezkondata (biak antzekuak ziranak) euki eben Fernando Katolikua izangozan semeari, beren guzurrezko-maltzurkeriak ondo erakutsi gero II`n Julio Aita-Santua`ren laguntza osoagaz Nafarroa`ko erreñuarekin geratzeko.

Nafarroa`ko erregeak Frantzia`ko erregetzara igon ebenean eta XIII`n Luis`en erregetzara elduta, batzangotasunaren erdira naierako feudalismoan biurtuta egon ziran eta euren arbaso III`n Karlos "Biotz-Onekua" k 1.423`an Urtarrilla`ren 20`an irasi eban "Biana`ko Printze" izen-buru ori arbuiatuta geratu zan, nai euren erregetza Frantzia eta Nafarroa`ren izenarekin iraun 1.789`ren Frantzia`ko iraulketararte.

1.789-1.804`ko URTE ARTEAN FRANTZIA`an IRAULKETA:

Europa guztian, erregetzaren antolaraziak, gauzezean edo ezereza`ren (incapacidad) maldaberazko aipu-txarrean (descredito) egonda, Frantzia`k erregeak kendu ba ebazan be XVI`n Luis 1.793`an Urtarrilla`ren 21`ean "Lepoak-Mozteko" gailluan burua kendu eta bere emazte Mari Antonieta`ri bardin Urria`ren 16`an eta Frantzes`en eskubideak goraldtu "LEGETASUNA-SENIDETASUNA ta BARDINTASUNA" ospe aundiko itz`ekin. Zeozeren "USTEL-USAINA" euki eban, berezko erritar-gizartearen eskubideak menperatu egin ziralako: "Frantzia`ko Errege`en Antolarazitik, Frantzetarren-Erregetzara" aldatuta, berezko izkuntzak (Euskerea-lez) ezereztu naian, ortik aurrera Europa guztia indarkeriz Laterrituta geratu zalako.

Erromatar Kaizar Sakratuzko Katolikotasun asmokoak (nai-ta Napoleon`egaz lenengo eta Hitler`ekin gero itxaropenduta egon), konturatu ziran, Europa betiko kaizartzaren batzangotasunezko jaurkintz orreitan ezin zala zuzendu eta nai-ta zati-txikerragoak izan arren, Frantzia`ko saioa ikusita, laterriaren batzangotasunezko autabideagaz (opciòn) geratu ziran, Kaizertzaren (imperialismo) asmo ori ezereztu edo kenduta.

Eginkizun oneik, ez dabe egiten besterik JAINKOA`ren Berezko LEGE`ak ostondu baiño, sasi-jainkotasunaren asmakeriak bizi-bizi dagozelako oraindiño edo goiko: “Merkataritzazko, Laterrizko Agintaritzan eta Katolikotasun” batzangotasun alderdiaren buruko eritzietan geratzen diralako oraindiño.

Europa lantegi-gintzan sartu zanean, erdira-naiezko laterri-batzangotasunaren agintaritzazko morroikerian gura eben ezarri erritarren ogi-bidea eta menperatzailletasunezko ekintza orrein aurka, gizartekeri edo sozialismoa sortu zan.

Erdibitu egin zan au be, Komunismuak aurrera egin ebana desagertu arte eta sozialismo onek, laterri menperatzaille onein agintaritzazko maillan txanda artu gura dauanak.

Zer esan gurako dabe..., “Erriarteko Politika aitutzen dabenean...” Berezko erri ta erritarrak Izkuntzazko-Nortasunak zapaltzen daben ezkerro ?.

Bigarren Mundu`ko guda-nagusien ostetik billurtuta eta egin zan sarraskiagaz guztiz damu, “Geiago alango borrokarik ez” eta “Erri-gizartearen eskubide guztiak babestu” egin bear ziralako erabagi gogorrak artu ziran.

Baiña damu orreik bere-ala itzali edo aienatu (desaparecer, disiparse) ziran, menperatzailletasunezko antzerkia Komunismo eta Amerikarren nor-geiagoko guda-otz`era aldatu zanean, errigizartearen eskubide guztiak lengo-lez, menperatzaille asmo orrein mendean geratuta.

Komunismoa ezereztu egin zan, batzangotasunaren leen asmo orreik aurrera eroanda euslari edo gordetzailleen eta sozialisten eskutik, fazizta`tarrai aukera barriak emonda agertu daitezkan. Merkataritzak, laterrizko agintaritzak eta katolikotasunaren batzangotasunezko ameskeriak ez diralako gai aldatzeko. Noz arte ?.

Gaurko Munduaren antzerkiak, xautzailletasunkerizko ta maltzurkerizko-guzurkeriekin bizitzeko ez dauka lekurik. Orregaitik JAUNGOIKUA`k ipini euskun BEREZKO LEGERA aldatu bearra daukagu. JAUNGOIKUA`k emonda, ekintz-orreitarako egun guztietako aukeraren gaitasunean (posibilidad) gagozelako !! Gaur, biar eta etzi baiño obe.

EUSKALERRIA`ren ASKATASUNEZKO EDESTIAREN ONDORIOA:

Ikusi dogu, zelan Kromañoi (Homo-Sapiens) giza, Afrikatik urtenda izotz-urtzean Europa`ren Mendebal ta Ekialdetik zabaldu zan eta milla urte askotako azturaren ikas-ekintza bidetik Demokrazizko-Anfictionia edo lurraldeko auzotasunean laterritutako jendekuntzan geratu ondoren, Ekialdearen Mesopotamiako lurraldetatik egon ziran berezko erriak, Sargon buruzagiak menperatzen asi-ta Babilonia`ko jendekuntza barrieri bideak zabaldua, jendekuntza orreri Ziro`k mendekuntzaren asiera emonda, Dario`k ta Jerjes`ek amaitu ondoren, Europa mendetzeko asmoan asi-ta, zelan Grezi`tarrak ezereztu edo geratu ebazan.

Gero, Keltiarren jendekuntz-ugariak demokrazizko askatasunaren ulermenekuak izan ziran-ezkerro, euren mugi-aldiak bakezkoak izan zirala, Ekialdetik ikasi ebena Europa`tik zabalduz eta ori azterkatzeko ez daukagu besterik ikustea baiño, zelan ezerezetik sortutako Erromatar Menperatzailletasun asmakizun orreri, aurre egindako

eziñean, gure artean zelan aienatu ziran, Eskozian, Irlandan eta Galizia inguruan geratuta.

Baiña geien eta ondoen ikusten dana, zelan Demokrazizko jakintzan kokatuta egon giñenak, zekula ez gintzazala joan iñori eraso egiten eta Fazizta asmo ori eten-bako ekiñaldean gaur arte, nai-ta jakinda Maltzurkerizko guzurraz menderatzeko gai dirala, baiña limurtu edo gure buruetan sartu guzurrezko ekimen orreik zekula-ez !! gaur egunean-be, lotsaren bildurragaitik atzera ez egitearren aurrera egiten dabe, oraiñarteko edesti guztian egindakoak, guzur-lez ez daitezcan agertu.

A-ta guzti, berandu baiño lenago egin bear ko dira aldaketa orreik, bestela Mundu onen giza ta berezko erri-gizarteak amiltegira bideratuta dagozelako

EUSKALERRIA`ri BEGIRA:

Euskaldunak gure berezkotasunean konturatu bear gara, Izkuntzezko Nortasun Demokratikoaren Askatasun bereiztasunean menderatuta egote ba-garela, ez dala bakarrik gure arazoa, Munduko erri guztiena baiño eta batez-be Europa`rena, giza eta erri-gizartearen eskubideak mendekuaren eritziakaz lokaztuta dagozelako NORTASUNAK ezereztu naian.

Orregaitik sartu bear da Europa`ren arazoen artean, gure ariñagokoak Agirre, Landaburu, Irujo, Ajuriagerra eta abar`ek egin eben antzera Europa`n, N.E.I (Nouvelles. Equipes. Internationales d`emocratiques d`inspiration chrètieene. (Democracia Cristiana)) orduko denboratan beste biderik ez egoalako egon sortuta. Erri-gizartearen eskubideak ordezkatzeko Laterri onein gauzeza, nabarituta geratu daiten.

Europa`ren arazoa izanda, bakarrik joan ezkerro, iñork ez dauskulako askatasunik emongo eta erdira-nai edo batzangotasunaren laterri aldekoak gitxiago, Europa`ren arazo oneitan txikerrak izanda bakarrik joan ezkerro, guzurdunak euren ondorio-onak artzen dabezelako, bestien ardura-gabekeria.

Gaiñera, alderdikierietan zatituta egonda "Demokratak" garela esaten ba-dogu, ez dago guzur aundiagorik. Demokrazi baten berak agintzen dauan-lez, baktzari berea emon ezkerro, alderdikeri guztiak geinkerian dagozelako eta geiago gure izaera demokratikoan. Begitu bestela zelako aurrekuntzak egin doguzan gure ardurak egokitzeko eskubide geienak euki ez arren

Ori da !! ikertu bear dogun bidea EUSKALDUNEN BATASUNA lortzeko eta SABINO`k ezan eben antzera "EUSKALDUNEN BIZI-EKINTZAZKO ARLO GUZTIAK EUSKERATU, INDARRAK EUKI DAIGUZAN GURE DEMOKRAZIAREN ASKATASUNEZKOA DAN EUSKALERRI IZAR-MAITE AU ASKATU DAIGUN".

ATUTXA`tar PAUL

Zornotzan 2.007`an Urrilla`ren 22`an

EUSKALERRIA`ren ASKATASUNA`ren
EDESTIA
(EUSKERAZALEEN Etxean 2.007`an
Zemendia`ren 21`ean I`go Itzaldia)

AURKEZPENA:

Arrastion, itzaldi onetara etorri zareten guztioi eta on-egin daigula danori, beren mamitik ulertzen dogunak.

Leen esan bear dot, leenengo itzaldi edo kondaira onetan Munduaren edestia adirazten dodala, Mundu ta Europa onentzako Euskalerrria, bizitz oneri bere ulermenean adierazterakoan, garrantzi aundiko erri-gizartea izan eta dalako. Eta bigarren, menperatzaillaren arrazoi-gabeko edo maltzurrezko esanari aurrera urtenda: "Euskalerrria, Mundu ta Europa onen ERRIA-DALA eta gaiñera GARRANTSUENETARIKO bat, oraindiño beragan geratzen diralako milla urte askotan ikasita, Bereztasunezko LEGEA`ren ulermenak.

Euskalerrriaren Askatasunezko edestia argitasunera azaltzeko, bere gizarteak, iker-arlo zabalean daukazan atal-ezberdiñ edo berezietan ikertu bear dogu, jakiteko, bizitzaren azturazko asieratik, zelako baldintzak izan diran, gaurko Euskalerrriaren Askatasunezko egarrrian agertu gaitezcan.

Orregaitik, edesti onen autueta edo kondaira ez dot egingo, gu errudunak izan ba-giñan lez, lan guztia gure lepoetan artuta, barruko barnetik asi-ta kanporaiño garbitzen.

Europa`n gaur egin diran iker-lanakaz, edesti au autu edo edestuteko, dakigun Kromañoñ`en zabaltasun ta jakintzaren kanpo aldetik barrurantz asiko gara, menperatzaillak aitzakirik-gabe itzita, eurak-be arrazoitasunaren bearrezko lanean sartu daitezcan. Danok jakin-daigun, andik gaur egunerarte, zelango asmo-gogoak indarkerizko alegiñean izan diran errudunak, arrazoibako lokatz oneitan agertu gaitezcan.

ITZ-AURREA:

JAINKOA`k bialduta, Mundu onetara jaioten garan guztiok...., jakin miñagaz jaioten gara, gure aldetik bizitza azken baten, ontzat artu bear dan gauza dalako. Eta bizitzak aurrera egiteko aurkezten daukuzan egin bearrak, jakintzazko antolamendu on-baten bearrean kokatzen gaituelako.

On eta txarrezko itzak aitatzen doguzenean baiña..., zeri buruz aitatzen doguz ?.

Beti ! JAINKOA`k Mundu enetan ipinitako bereztasunezko legeari, danok bardiñ jaiota, danorentzat lege-bardiña dalako.

Gizartearen eskubideakaz borondate onean jokatu ezkerro, gure bizitza bakez eta berez zuzentasunezko bidetik joaten da.

Baiña, sasijainkotasunean edo menperatzailetasunezko elburuen bidetik joaten bada, dana da amurrua, egon-eziña eta gaurko gudu-sarrazki ta urkapenak. Ekaitz-lege orreik, amilburu bateko larrialdean kokatzen gaitue.

Euskalerriko seme/alaba guztiok, alegindu bear geintekoz, Euskalerriko edestia zelangoa dan jakiten, gure arrazoiaren EGIA`gaz eta EGIAN jokatuta, Europa`n menperatzaillaren guzurrarentzat, ez zalako egongo lekurik.

Orretarako baiña, danok EGIAZKO-NEURRI-BEREAN edo eta al dogun EKANDUZKO-ZIURTASUN AUNDIENEAN jokatu bear dogu.

Ez gaitzezan aztu !, oraindiño: "IZKUNTZ-NORTASUNEZKO-EUSKALERRI-AU !!" EUROPA ta MUNDU onetan OITURAZKO DEMOKRAZIA`ren ASKATASUNEAN IZARRA DALA".

EUROPA`n, KROMAÑON`en ASIERA ta ZABALKUNTZA: (idatz-olan)

Europa`ra Kromañon giza, gaur daukagun irudizko-itxuran, Madaleniense ta Aziliense arteko denbora inguruetan, K.a. oraiñ 20.000-15.000 urtetan Afrika`tik etorri zan eta bere zabalkuntzan, egon ziran Neanderthal`ak ezereztu ziran. Europa`n Kromañon giza, bakarrik geratuta gure arbaso-lez (omo-sapiens), gero Mundu`ra zabaldu zana. (mapan argitu nundik sartu ziran: Ekialdetik ? edo eta Erdi-ugarte onetik ?) Dana dala betik-gora egin bear eben, izotza`ren urtzean. Eta Europa`n gaur, genetika`ren iker bidetik dakiguna: 100`etik 77`ko arloan bardiñak garela.

AFRIKA`ko EKIALDEA eta EUROPA`ren MENDEBAL ta EKI-ALDEAK ZELAKO JENDEKUNTZA`tan GERATU ZAN BANANDUTA ?:

Mundu onen lenengo giza-bidearen jendekuntzazko (civilizaciòn) asiera, Ekialde-urbil ta Ekialde-erdi inguruan sortzen da. Indo-ibai ta Nilo-ibaiaren bitartean.

Eta meartu ezker, Tigris eta Eufrates ibaiaren artean, (Mesopotamiaa`n) Turkia, Siria ta Irak`en lurralde batzuk osotzen dabezan inguruan azkortu ziran leenengo jendekuntzak K.a. 4.000-3.000 urte inguru.

EJIPTO, NILO-IBAI INGURUAN : Kamitak eta Semitak Suez`eko lur-besotik (istmo) sartuta, an egon ziran baltzak basamorturaino alboratu ebezan eta K.a. 4.000 urte inguru, politika-legez erregetzazko giza-bide sendo baten antolamenduta, K.a. 3.300`go urtetan Menes erregetzara igon ebanean, Ejipto`ren goiko ta bealdeko lurak alkartuta Faraaien jendekuntzari bideak zabaldu eutsoezan, ogeita-amar errege-leiñutan iraun ebana.

GREZIA: K.a. 2.800 urte, brontzeko denboran asi-ta, Elenika`ko erdi-ugartean Laterritutako-Uria`k ezarri ziranen artean, erri-jakintza asko sortu ta gaienduta, desagertu ziran. Garrantzidunak, Kreta ugartean eta geroago 1.700 urte inguru, Mizenas`eko jendekuntzatik sortu ziranak.

Asieran euki eben jakintza baiña, ez zan izan eurengadik sortutakoa, Asia ta Ejipto`ko jakituriaren alkartasunetik sortu zana baiño.

ASIA-TXIKIA edo ANATOLIA: Antziñako denboretatik izan zan jendekuntzaren gurutze-bidea: K.a. 2.000 ta 1.200 urte artean, Ititen kaizertza gaiendu zan.

Geroago: **URARTU (IBAI edo UR-ARTEAN ?)**, Frijia, Lidia eta beste errifñu batzuk agertu ziran, euren arteko giza-bidean oso ezberdiñak ziranak.

Griego`ak, Ejeo itsas-bazterretatik laterrituta, garrantzizko Uriak sortu ebezan: Efeso, Mileto, Klazomene, Fozea, Esmirna, Pergamo ta abar. K.a. 546`an Ziro agertuta, Persen nausitasunean menperatu ebana eta ortik aurrera, odol-zale baten edesti ostean, Otomano`ren eskutik Turkia`n biurtuko zana.

EUROPA`ren MENDEBALEAN EUSKALDUNAK:

Kromañon edo Euskalerrriaren zabalkuntza Keltiarrak izan orduko, Añamendiak zilbor edo erdi-gune lez kokatuta, Europa`ko lur guztian zabaldu zirala, bildur barik esan geinke.

Orduko denboran, nai Ekialdean eta Europa`ren Mendebal-Ekialdean danak !! Euskaldun edo Kromañoiak (omo-sapiens) bakarrik izan ziralako.

Orregaitik, Afrika`tik asi eta Europa ta Asia`n, ainbeste Euskera`ren leenengo itz-astarnak toki guztietan.

Oraifñ, Euskerazko lurak-lez edo Euskal-jendekuntzazko asieratik giza-bide lez: Iparraldeko Ekialdetik Italia, Suiza eta Aleman`akaz mugatuta (Aleman`aren izkuntzak, Euskal berba-asko daukaz bere itz-kopuruko zabelean, izatasunezko tankeran (forma, traza) bardiñak diranak). Mendebaletik Itsas-Atlantiko`ak eta Ego-aldeetik Afrika`k mugatuta geratu zan. Orduan, Britania`tik asi-ta Kadiz`eraifño, Mendebaletik Atlantiko eta Eki-aldeetik Italia, Suiza eta Alemania`k mugatzen daben goitik-berako lur zerrenda orreitan.

NOZ AGERTU ZIRAN KELTIARRAK ?:

K.a. 2.000 urte inguru, Alemania erdi-gune lez artuta Europa`ko Ekialde guztian euren leiñuzko auzoetan laterrituta sortu ziran.

EUROPA`n ZELAKO MOGIMENDUAK ASTEN DIRA ORTIK AURRERA ?:

Keltiarren leenengo aldakuntzak, 1.800-1.600 urte inguruetan, Britania`ko ugarteetara egin eben leenengo erri alda`kaz asi zan.

1.200-800 urte bitartean Galia edo Frantzia`ren Britania`ko lurraldeetara, Loira-ibai gaiñetik eta Britania`ren bitartean Frankoa`k kokatuta.

K.a. 900-500 urte bitartean, burdiñezko (Ekialdetik ibilita eta Itita`ren jendekuntzatik artuta, itzulkeran, eurak ekarri eben burdiñaren jendekuntza)

asieran, Hallstatt deitzen jakonari eta Alemania`ren Egoa-aldean Renania`ko lurraldeetan kokatuta egon ziranean, Keltiar giza Europa`ren Sarkaldetik zabaltzeko gertatzen asi zan. Eta VI-I`n Mende artean, Tene deritxon goi-maillazko Keltiar-jendekuntzai, egin eben zabalkuntza ori Europa`ko lurralde guztietara.

Britano`ak Inglaterrara joan-da, Goibeloak bota ebezan.

Akitionia`tik Iberia`ra aldatu ziran, Kelti-Iberia`ko erri-gizartea sortuta

Baiña...nortzuk izan ziran Ibero orreik ? Ez ziran izan Kromañoi edo Euskaldunak ?. Azken baten danak Euskal-erpekoak, nai batzuk Euskalerrria`ren erdi-gunetik urrunduta, beste era bateko eritxi baten oituratakoak.

Argi dago, Euskeraren zilbor`etik urrundu ziranean, batera ikasitako eta oituratutako ekandutik-be urrundu egin edo Mundu au adiezterakoan atzean geratu ziralako, Euskalerrria-lez, bere gizarte guztien alegiñean leku baten kokatuta, bertan egin ebelako bere jendekuntz-ori, erri-aldean iñor menperatzen ibili barik.

Keltiarrak indartsuak izan`arren eta euren azturan nai-ta asko ikusitakoak izan, orduko mendekariaren denboretan ez eben garrantzi aundirik euki.

Jendekuntzazko jakiturian be-mailakoak izan.... edo eta neurri aundi baten askatasunezkoak izan ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan, ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen. Eta orduko denboratan, zalantza orreitan kokatuta egon ezker, erromatarren antzera, mendekarietan azkartasunezkoak diranakaitik bultzatuta, ia aienatu ziran Europa guztian, berezko erriarteetan.

EUSKALERRIA edo EUSKERIA, ZELAKO LURRALDEETAN GERATU ZAN KELTI-IBERIAR ONDOREN ?:

Keltiarrak (Franko`en leiñuak) Loira-ibai`tik Britania`ko lurraldeetan kokatu ziranetik, Iparraldean asi-ta Loira-ibai`tik bera, erdi-ugarte onen erdirarte inguru, Gaztela zaarra ta Aragoi`en lurraldeak mugatzen ebana, Galizia ezin ezik eta Eki-aldeetik Italia, Suiza eta Alemania`gaz mugatuta geratu zan.

Erdi-ugarte oneitan, baleiteke berago-be izatea, adibidez: Guadalajara`ren izen zaarra ARRIAKA izan zan eta keltiberiarrak, Guadalajara, Soria, Teruel, Toledo, Salduiba (Zaragoza), Kastellon, Balentzia, Lusitania`ko Ego-aldean, Betika`ko Iparraldean, Sebilla eta Kordoba`n kokatuta geratu ziralako.

Eta Euskeraz mintzatzen ba-ziran be, Euskerea`ri, ortik aurrera bideratu jakon bigarren murriztasuna.

MUNDU ESAGUN ONEITAN, NOZ eta NUNDIK ASTEN DIRA
MENPERATZAILLETASUNEZKO OITUR-ZIKIÑEZKO MUGI-ALDI
ORREIK ?:

Mundu onetan ezagutzen ziran jendekuntzak eta lurak batzangotzeko asmoak, baleiteke ariñagokoak izan, Asiria`n Tigris ibai-arru edo sakanean (cuenca del rio), Ninibe uri-nagusi lez euki ebena, orain 4.500 urtetik asi-ta onantza izatea, I Sargon`ek orain 4.025-4.010 urte inguruetan menperatu ebana.

Dana dala, ortik asi zan menperatzailetasunezko jendekuntz zikin ori.

Baiña, Persen errege Ziro (K.a. 560-529) aundiak asi ta I Dario (K.a. 521-486) ta I`go Jerjes`ek (519-465) izan ziran Mundu onen eta orduko Europa`ren jendekuntza guztiak morroitasunean batzangotu gure ebenak. Eta jendekuntz (civilizaciones) aundi bien arteko alkar-aurkeztzea (confrontaciòn) sortu zan.

Orduko Persak eta Griego`en jendekuntzak ekanduzko oituran, bata: "Menperatzailetasunaren gogoko oso-osoa izan zalako". Eta bestea: "Azturazko giza-bidean ekanduzko mailla aundira elduta..., Askatasunezko Demokrazi aundi baten sinismenekoa izan zalako", begiz-begiko aurkakoak (diametralmente opuestos) izan ziran.

Eta Greziatarren Demokrazia`ri ezker, or !! geratu ziran, fazizta`k, leenengo aldiz Europa menperatzeko euki eben asmakuntzak, Medikas`eko gudu-ospetsuetan.

Baiña, orko bitarteetan, 753`an ain zuzen, Etruskoa`k Italia`ko lurraldeetan Arno ta Tiber-ibai bitartean kokatuta egon ziranak, Erromatarrak Espartar-gudu antolamenduan sortu eben eta ortik asten dira Europa`n menperatzailetasunezko larri-aldiak barriztuta.

Eta zentzuz ondo bideratuta egon ziralakoan euren ustez, emen asmatu ziran benetan, gaur dagozan zorigaitzeko Batzangotasun gogo orreik, Mundu`ko erri-gizarte guztiak, antolamendu barri onen mendean ondo zuzenduta egon gaitezana.

Gudu-antolamendu ondoren, Latiña be sortu eben, norkeri orreitan bizi gaitezana. Baiña ikutu eben guztia, nai: "Erri-gizartearen aberkuntzan eta izkuntzetan" Europa guztia, milla zati-geiagotan banandu eben (Alemania, Farntzia ta erdi-ugarte onetan, izkuntza ta erri-maillan sortu zan antzera).

Kristau erlijio guztiz ederra-be sortu zan, baiña dana alperrik, norkerizko eritzi-zikin orren mendean geratu dalako, katolikotasunezko alderdikeriagaz.

Edestian zear, zuzentasunaren eritzizko erabagiak artu dira beti. Baiña danak !! "Bereztasunaren Legeak kontuan euki gabe artu diralako, zentzuzko arrazoiaren zuzentasunean beti, Lupeztuta agertu ziran". Eta Europa ta Munduan menperatzailetasunezko ari ori ez dalako ebagi, gaurko jendekuntzari, orregaitik agertzen jakoz Lupetzeko anak, Munduan eta Europa`ren berezko errietan oraindiño, konpondu barik dagozenak.

GODOA`k: Artu eben Erromatarren ordezkotza, Europa kaizargo orreitan sendotzeko. Baiña oneik aldebatetik, ez eben euki indarrrik eta bestetik, Mauritarrak jendekuntz aundia euki ebenak eta indar askorekin etorri ziralako, nai-ta iru-mendeko aundikerian ibili, denbora guztian "ET DOMUIT BASKONES" esan bearrean egon ziralako, ez eben denborarik ezertarako euki, menperatzailetasunezko ari ori Pelayo`k artuta Asturias`etik osteras asi dagian.

EUSKALERRIA ZELAN eta ZELANGO AUKERAKIN AGERTU ZAN URTE-BITARTE ORREITAN ?:

Europa`ri agertu jakon egoera larri orregaz, Mauritarren aurka joan bear izan ebalako, antolamendu barri baten billa joan bear izan eban eta Euskalerrriak aukera ori ez eban galdu.

Edesti au adierazteeran argi geratzen dana, Grezia ta Euskalerrria-lez, jendekuntzan askatasunezko-demokraziaren ulermen aundi batera eldu ziranak, ez zirala iñor menperatzen joan eta eraso-aldiak indar aundikoak izanda, beti joan giñela lurralde ta izkuntzan gitxiagotzen.

Grezia`k, Persen eraso-aldiak ezerezean itzi ba-ebazan-be, ez eban aukerarik euki erromatarrena geratzeko eta utsun ortatik agertu jakon Euskalerrriari, Europa`n geratzen zan azkeneko jendekuntz (civilizaciòn) Demokratikoa babestea.

JAINKOA`ren LEGEA aipatuta, menperatzaillle oneik ez dirala konturatzen edo ez dabela ulertzen JAINKOA`ren Berezko-Legeak zer diran esango neuke.

Konturatu ba-ziran, gagozan denboretan jakin bear leukielako: "Bereztasunaren aurkako asmakizun orreik aurrera eroanda-be, beste Nortasunezko izakera bateri bideak zabaltzen jakozela" Nortasunezko arazo bardiñ baten aurrean kokatuta.

Baiña beti !! Arbasoak euren milla asko urteetan zentzuzko azturan, bizitz-oneri emon eutsen izkeraren bidez (perdiendo la explicaciòn que le dieron a la vida a trabes de los crecimientos idiomáticos) xeetasunezko adirazgarritasunak galduta.

Gaurko jendekuntzarentzak utsegite galanta izango zana, asierako denboretara atzeratuko euskuezanak, Berezko Lege-gabe ezin dalako iñundik-iñora aurrerabideko pausorik emon.

Bai ! zelan erromatarren gudu-indarragaitik ezereztu egin zan Griego`en Demokrasi arrigarria, nai-ta eurak izan zati baten katolikotasunagaz batera, Grezia`ko jendekuntzaren bialgailluak.

Eta Euskal-jendekuntzaren demokrasi ederrari bere zabaltasunean, murriztu aldiak bideratuko ebazanak.

Bide-barri orreik beti baiña !! nai-ta nai-ez BEREN NORTASUNEZKO LEGE bardiñera joan bear diranak dira, Mundu oneitan Nortasunaren ANTZEZLARITZATIK-kanpo gurentzat ez dagolako aukerarik, danok bardiñ

jaiota Antzezlaritzaren arduran bardiñak garelako eta Nortasunik gabe, ez litzakelako antzerkirik egongo. Mundu onen antzerkia, betiko lege bardiñekaz antolatuta dagoelako.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.007`an Zemendia`ren 6`an

EUSKALERRIA`ren ASKATASUNA`ren

EDESTIA

(II`n Itzaldia)

AURKEZPENA:

Leenengo itzaldian, JAINKOA`ren BEREZKO LEGE`ak aipatuta amaitu gendun eta menperatzaille oneik ez zirala konturatzen, ez ebela ulertzen edo konturatu gura ez, JAINKOA`ren BEREZKO LEGE`ak, zer direzan. Eta milla urte askotako etorkizunetik, Europa`ri geratzen jakon Askatasunezko-Demokrazian azkeneko aztarnetan, Euskalerrria zala IZAR nagusia.

Orregaitik, Euskalerrriaren edestia xeetasunean adierazpenduta, ari orren jarraipenean argituko doguz, Europa`ko leen Demokraziaren astarnak galdu daitezcan, Euskalerrriagaz egin diran astokeriak argitzeko. Bai egiten dabizenak be.

MUNDU edo ORDUKO EUROPA, LATERRITASUNAREN ARLOAN ZELAN EGON ZAN ANTOLATUTA ?. ETA ORDUKO EUSKALDUNAK..., ERRI BATEKO SENDIMENDUAN ALKARTZEN ZIRAN ?:

Orduko Mundu ezagun guzti oneitan, aberkuntzaren burutapenik (concepto) ez zalako egon, euren lurralde batzarrakaz, leiñuak bakar-legeko auzotasunean, anfiktionik (confederación de las antiguas ciudades Griegas) antzeko baten laterritasun antolamenduan kokatuta egon ziran.

Zer gura-nai dau esan egokitasun orrek ?. Izkuntz batekoak izanda, bakotzaren Nortasunagaitik nai euskalki antzekoetan zabaldua egon, sinis eta oitura batekoak izanda..., sendimenduzko arremarik ez ebela eukingo ?.

Euskalerrrian ez ziran babestuko ba.... !! Nai Akitania osoan Nafar-erreñuagaz, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban bear izan eben orduan.... . Euren aztura bidean, ain jendekuntzazko garaipen eder orreik lortu ba-zituen ?.

Baiña gero ikusiko dogun lez, bizitz oneitan, ordezkariaren zentzuzko ardura demokratiko orreik, ain sendo oiñarrituta eta auzotasunaren laterritasun antolamenduzko egokitasunean kokatuta egon. Batzangotasun zaleentzat edo menperatzaille asmakuntzazkorentzat, denbora baiño besterik ez eben bearrik, euren guzur naaslari ta bakantzaille-sakratuaren ziri bidetik, gure artean siñist-ezin okerkuntzazko alderdikeri ta maltzurtasunezko ondorio ganorabakoetan ezarri edo kokatu gaitezcan, euren mendeko garaipenak lortzeko.

Eta jarkera orreitan gagoz gaur be.

GODO`ak:

Orregaitik, Godo`etatik asi-ta artu bear dogu leen menperatzalleen asmakizunezko ari ori, Mundu, Europa eta batez-be, Euskalerrriaren Askatasunezko Demokrazia, zelan joan dan murrizten gaurko egunerarte ikusi

daigun eta gaur-be, zelango naaztetasunekin dabizen alegintzen, Demokrazizko aztarnak galdu daitezkan, euren sasijainkotasunean bizitzeko.

Zeren: "Izadi oneitan...euren alabearragaitik ?" (Por su sino o destino en lo Universal ?). "Danon alanbearra (sino, destino), Mundu onek daukazan berezko legearen ardurak ordezkatzan diranean lortzen da". Ez !! asmakerizko ameskeriekin".

II'n Alariko`gaz (484-507) asiko gara, zelan 506`an, Romana-Bisigotorun legearen laburpena (brebiario de Anniano, o còdigo de la lex Romana Visigotorum) argitaratu eban Mendebaleko bisigodo guztientzat.

Amalariko`k (511-531) bere erregetzan, 531`ren Orrila`n Toledo`ko II`n Eleiz-Batzar nagusia bete eban.

Justiniano`k (483-565), 527-565`ko bitartean, 553`an ain zuzen, Konstantinopla`ko II`n Eleiz-Batzar Nagusia Bijilio Aita-Santuagaz batera bete ebazan eta Mendebal eta Ekialdeko kaizartza eskuratu ba-eben-be, bere bizi denbora be ez eben iraun. Baiña betiko lortu eben garaipena, erromatarren legeak bildumatutea zan, gaurko menperatzaillezko legeak be, bere oiñarrien gairian eraikita dagozelako.

Leobijildo Arrianoa (568-586), bere seme Ermenejildo il ebanetik izan zan konturatu zana, Konstantino`k 325`an Nizea`ko Eleiz-Batzar nagusian egin eban antzera, katolikotasunezko erlijiorik-gabe, gatz zala euren asmakuntzak bideratzea eta bere seme I Rearedo limurtu edo eskuratu eban aldakuntza ori egin dagian.

Rekaredo`k 587`an Arrianismoa alboratuta, 589`an Toledo`ko III`n Eleiz-Batzar Nagusia bere agindupean batu eban eta ortxe emoten jako osterabe Mundu au batzangotzeko errege ta katolikotasunezko ekandu bakarrean, Etrusko ta erromatarrak euki ebezkan leen asmakuntzak beteteko.

Iruña`ko gotzaiña-be birriten aipatzenda Toledo`ko batzar orreitan eta leenengoa, emen izan zan.

Oinkada aundi bat emonda, Ejika`ren (687-701) erregetzara eltzen gara, onen agidupean XV`n, XVI`n eta XVII`n Eleiz-Batzar Nagusiak bete ziralako.

Bitiza`ren (701-709) ostean, Rodrigo jauna izan zan urrengo errege, Bitiza`ren seme Akila`ri, bera geiago izango zalakoan edo erregetza lapurtuta aditsu (nobles) batzuen laguntzarekin, beren seme ta Bitiza`ren semeakaz alkartuta, anai-arteko guda sortu ebala, Mauritarren sarrera erreztuta, diñoie batzuk.

Edestiko kondairak baiña: "Erregeak, Zeuta`ko gobernari edo guda-jaurleri Julian kondearen alaba Florinda (La Cava) bortxatu egin ebalako, onek gaztelua Mauritarren eskuetan itxi ebala, gero Bitiza`ren semeakin batera Mauritarrai lagunduta erdi-ugarte oneitan sartu daitezkan.

Rodrigo jaunaren godo-gudalozteak, 711`n Uztailla`ren 19`an Tarik`en Mauritarrai Guadalete`n ezereztu ebezkan.

Gaurko edestilari batzuk esaten dabe, Barbate`ko ibai inguruan egin zala borroka ori eta kondairak Guadalete`ko ibai inguruan.

Dana dala, Kadiz`eko lurraldean dagoz biak, leenengoa auntz`en mendietatik jaio eta beren urak Atlant-itsasora botaten dabezanak eta bigarrena Muga`ko-Jerez`en (Jerez de la Frontera) ondotik joaten dana eta beren urak Kadiz`eko ur-golkoan botaten dauzana.

Godok, ortik aurrera aienatu ziran, baiña ez ziran aienatu, Mundu au jaurkin eta erlijio baten batzangotzeko, Etruskoak Griegoakaz batera, Erromatarrak eraikitzeke artu ziran erabagiak.

Ez ziran ezereztu Godo Lege-Bilduma orreik, Konstantino (325) ta Rekaredo (589) Nizea ta Toledo`tik bideratuta, 711`n Pelayo jaun gogoak Asturias`en, Erroma-Godo eta Katolikotasunezko sasi-leggedi "REX GRATIA DEI" guzti orreikaz kokatu zalako. Eta mauritarrai Kobadonga`ko guda irabazita, menperatzailletasunezko kaizertza orregaz jabetuta, 718`ko urtetik aurrera, jarraitasunean ipini ebazalako.

Pelayo 737`an il zan eta urrengo errege, bere suin I Alfonso katolikua izanda, or ! asten da osterabe menperatzaillari ari ori indarra artzen.

Frantzia eta Espaina`k ortik aurrera, euki ebezan aldiko errege, eleiztar-katolikuaren aolku-aginduan bideratuta, ez eben ifungo errukirik euki, JAUNGOIKUA`ren Bereztasunezko-Legea`ren aurka joanda be, berezko eta sinismen aundiko Kristau-Erri zintzoak sarraskitzen, nai-ta erri-iltzailleak (genocidas) izanda be.

Kristautasunaren ekandua eta katolikotasunarena..., nondik nora ezkondu leikez ?.

Gure ARIMA`k Mundu onetara, ez dira gizatzen MORROI izateko, NOR izateko baizik. Eta egunen baten danok batzangotzen ba-gara, danon borondatezko sinisteak alan eskatzen daualako izango da.

EUSKALERRIA`ren AUKERA, ERREGE-JAUNTZAN ANTOLATZEKO:

Euskalerrria gure gaurko edestian sartu zanean, Mauritarrak artean dirala eta denbora areek alan eskatzen ebalako, antolamendu-on baten beartasunean agertu gintzazan.

Gure erregetza sortu orduko baiña, Erroma`tar Kaizar eta katolikotasun sakratu baldintzatan antolatuta egon ziran iru erregetza, gero kaizertzak izango ziranak euki genduzan aurretik:

Europa`ren Mendebaleko Iparraldean, Klodobeo Franko`ak (481-511) V`n gizaldian Merobinjio errege-leiñua sortuta, Karlomagno`ren (742-814) erregetzara 768`an eltzen gara.

800`garren urtean III Leon Aita-Santua`k deituta, Erroma`ra joan zan eta bertan, Iparraldeko itsasotik (Mar del Norte) Garellano-ibai (en Garigliano o rio Liri en el centro de Italia. Batalla ganada por el Gran-Capitan en 1.503 sobre las tropas Francesas mandadas por el marques de Saluzzo) ta Ebroraiño, eta Mendebaleko Atlant-Itsasotik Ekialdearen Boemia`rañoko Erromatar Kaisal-Erri Sakratua`ren Inperator edo Augusto-Kaizar-Jaun Erroma`ko San Pedro`ren Eleizan koroatu ebana. Eta amen emoten jako ostera asiera edo kaizartzazko

lengo ariari barriro oratuta Erroma`tar Kaisal-Erriaren inperatore edo kaizar agintari izendatuta.

Euskaldunak....., erromatar kaisal-erri orrek esaten dauan lez....., Karlomagno`ren menpean egon giñan ? III Leon Aita-Santu ta Karlomagno`ren irudimenean bai, baiña egia non ? Baleiteke Kristautasunaren zabalkuntza katolikotasun alderditik finkatu edo gogortasuna babesteko izatea. Baiña..., zergaitik naspildu gudu-indarrak eta JAINKOAN`gan euki bear doguzan sinismenak ? Argi dago Erritarren gaifietik egin zirala asmakuntza guzti orreik.

Ekialdeko Alemanian, I Oton aundia (912-973), erregearen aulkira 936`an igon ebana eta 962`an XII`n Juan Aita-Santua`k: Europa`ren erdi-gune, Italia`ko lurralde bi eta Frantzia`ren Ekialdeko lurraldearen Erroma`tar Kaisal-Erri Sakratua`ren inperatore edo kaizar-jaun izendatu ebana eta gero berak 963`an XII`n Juan Aita-Santua bere jarlektutik kenduta VIII`n Leon Aita-Santua ezarri ebana.

Eta erdi-ugarte onen Ipar-Mendebaleko Asturias`en Pelayo`k 718`an sortu eben erregetzagaz.

Onen gora-beran, batzuk esaten dabe, Rodrigo jauna`ren bir- seme edo illobasoa zala (nieto), bestek, Fabila Kantabria`ko dukea`ren semea.

Dana-dala, 718`an Pelayo`k, kaizartzaren asmakuntzak eskuratzeko asi zan eta onen ondorengo bere suifñ I Alfonso (693-757) katolikoa 739`ko urtetik aurrera izan zan bultzatu ebana.

882`an III Alfonso Magno (838-912) Asturias eta Leon`eko erregeak, beren lurraldeak Mauritarren eskuetatik berrezkuratuta, erregetzaren mugak Duero ibai`ra ostera eroan ebezan.

Au, Euskaldun bategaz ezkondu zan (Balpuesta`koa ?) eta bere kronikan, I Alfonso`ren aldian, Bizkaia aitatzen dau lenengoz eta bere erreifñukoa dala diño. Bai..?. Orduan....., zer ziran gure Gernika`ko batzarrak ?.

EUSKALERRIA`ren ERREGE-JAUNTZA`ren SORTZEA:

Gure Euskalerriko Batzar-Nagusiak, denbora orreik baiño milla-urte askotatik ariñago, euren Berezko-Legean antolatuta (JAINKOA ta LEGE-ZARRAK) etorten ziran Batzar-Demokratikoak izan ziran. Baiña, erlijioz ta jaurkintzan Europa`ren ezarpena ikusita, beartuta agertu ziran beste aukerazko antolakuntza bat sortzea, Europa`ren erri-artearen erri-lez bizitzeko eta errege-jauntza`ren antolamenduan ezartzea erabagi zan.

Eta nai-ta, errege-jaun antolamendu ori, beti ! Batzar-Nagusia`ren agindupean ezarri: "Griego`en jakintzan, Erroma`tar Kaizar-Legedian eta Kristau-Katoliko Sakratuaren" antolamenduzko baldintzatan ezarri bear genduzan nai-ta nai-ez gure antolamendu barri orreik.

Zelan ezkondu baiña: "Griego`en jakitza, Euskalerraren berezkotasunezko oitura eta Kristautasunaren Demokraziak....., Erroma`tar Kaizar-Katoliko Sakratua`ren menperatzaille legediakaz ?".

Gu, JAINKOA`ren Berezko-Lege demokratikoetan betiko-lez iraun bear dogu.

Leen, betiko ta berezko lege orreitan jarraituta, Mundu`an egin bear diran ekintza-demokratikoak, giza eta erri-gizartearen eskubideen bardintasunezko lege-bidetik eroan bear diralako (Derechos Universales Humanos).

Bigarren: "Bide-ori baztertu egiten badogu, Mundu oneri Euskaldunak, milla-urte askotan azturazko bizi-jakintzan emon geuntson ulermen aundian argitasunezko adierazpenak, galtzen diralako eta beragaz, gure maitasunezko Euskalerrri onen IZATASUNA.

Eta irugarren: menperatzaille-asmakizunezkoak diranak, berrezkuratu berezko zuzen-bideak, danon baimenagaz alkartu gaitezcan egitarau (proyecto comun) inguru baten, berezko NORTASUNIK GALDU GABE.

Mundu oneitan, borroka orreitan gagoz gaur, JAINKOA`ren LEGEA`k gure ekintzak, mugatzen asita dagozelako eta aurrera egin ezkeru "odei-ekaitzezko laifio-baltzak aurretik agertzen dabizelako".

ZELAKO BALDINTZATAN SORTU GENDUZAN ANTOLAMENDU BARRI ORREIK ?:

Labur esanda, Jaun barria aukeratzen zanean, Batzar-Nagusiak edo erriak, iru gauzatarako artzen eban: a) "Gudal-buru izateko"; b) "Zuzenbidearen buru-nagusia izateko"; d) eta "Bizkai`ko ondore aundiko lur zabalak zaindu dagizan".

Eta Jauna, ain zabaleko almenakaz jantzi ba-eben-be, kontu aundian eukinda, berea ez dala ezer, daukan guztia Bizkaitarrak emonda dalako, egin bear eben antolarazia (arbitraje) ondo bete edo eta itzalgarritasunean (repetabilidad) ezarri daiten.

Jauna`ren aldetik, baldintz oneikaz beartuta geratzen zan: 1`go) "Bera ez zala ifior lurraren Forua aldatzeko, batzar nagusi baten eta Bizkai`tar guztien baimenarekin ez bazan izaten". 2`gn) "Bizkai`ko aitor- seme baten oiñarrizko ondasunak sekula ezin dirala kendu, nai-ta gaiztakeri aundiak eginekoa izan". 3`gn) "Ez eskatu eta ez kendu ifungo zergarik, fogerarenak (etxe-bizitzaren zergak ?) baiño". 4`gn) "Ez irasi edo sortu Billa`rik, Bizkaitar batzartuen baimenik gabe". 5`gn) "Bizkaitar guztien bizitzak, lurak, etxeak eta ondasunak babestu, edozein jaun edo erregeak, erria mindu edo naigabetu gure dabezenean". 6`gn) "Jauna`k, beti babestuko dauz gure lur oneitan dagozan legeak, askatasunak eta oitura onak".

Baiña berak, beste baten jaun-erregearen aurka joateko, indarraren laguntza bear ebenean eta nai-ta aurretik berak ordaindu bear, berari laguntzen joaten ziranai ! Bizkaitarrak, beartuta geratu ziran laguntza orreik egiteko.

GURE EUSKALERRIA`ren ASKATASUNERAKO ZELANGO ARAZOAK SORTU ZIRAN JAUN-ERREGEAK AUKERATU GENDUZENETIK ?:

Jabetasunezko edesti onen azalkuntzazko adierazpenean, lenengo ikusten doguna: "Gure arbasoen gaiak euren Batzar-Nagusietan, Demokraziaren neurri

aundiko arduratan ezartzen zirala, erri-gizartearen eskubideak lotsazko antolakuntzan zuzendu daitezcan”.

NAFARROA`n:

Euskalherri onen zilbor edo erdi-toki-lez, beti izanda Euskaldunen babeslekurik ederrena, gaurko edestiaren aurretik Auñamendietatik zabaldua, isterbegi edo etsaiaren aurka beti euki gendulako mendien legorpea.

Baiña gaurko edestian sartu gintzanetik, giza`ren erreztasunak soiltzen (simplificar) joanda, bearrezkoa agertu jakun oraintsuko antolakuntza barri baten kokatzea.

Aukera orreik VIII-IX`n gizaldi bitartetan agertu jakun, 778`an Karlo Magno`ren gudalozteak, bere zaldun bioztoi (resuelto, valiente) Roland aipagarrien agindutara, Zalduba (Zaragoza) Mauritar Soliman ibn-al-Arabi`ren menpetasunetik askatzera joanda eta ezifnean Iruña`tik etxerantza aldatu zanean, Napar-Uria erraustu ebenean lenengoz.

778`ko Dagonilla`ren (Agosto) 15`ean Karlo-Magno`ren gudaloztea Auñamendiak aldatzen egon ziranean, Euskaldunak ostonduta, Orreaga`n itxaron outsoen eta ikaragarritzko zarraskintza egin eben gudalozte orreitan, Roland bera be il-da.

Eta 814`an bigarren, Karlo Magno il ostean, bere seme Ludobiko Pio`k 824`an ostera bialtzen dabezalako beren gudalozteak Nafartarren aurka. Euskaldunak ezereztu ebazanak.

Emen, 714`an Kalifa`ren zerbitzura aldatu zan Akitania`ko kasio kondea kontuan artu bear dogu, ortik aurrera Euskal sendi onen izen barria Banu-Qasi`ren izenagaz ezagutu zalako eta euren laguntzagaz 824`an, Nafarroa`ko Jimenez ta Arista`tar iñigo lenengo errege izendatu zalako, 852`rarte iraun ebana, il zan arte.

Iruña`ko II`n Garzea`tar Iñigez 870-882 urte bitartean errege izan zanaren Ximena alabea, III`n Alfonso Aundia (Magno, 838-812) Asturias eta Leon`eko erregeagaz ezkondu zalako (babesagaitik ?), Banu Qasi`ren senditik urrunduta, euren gana urbildu zan, ortik beste ziri sakon-bat sartuta Nafar-erregetzazko Nortasunaren osasunerako. (Kontuan artu bear dogu, erdi-ugarte onen Iparralde guztian laterritutako erri-gizarteak, Euskera`ren senetik berba egiten ebela, naita izkuntzan naastuten asi).

Orregaitik ikusiko dogu, zelako aukeran sortu gendun gure Nafartar erregetza.

Alde batetik: “800`n urtean III`n Leon Aita-Santua`k, Karlo Magno`ri Gabon egunerako Erroma`ko San Pedro Eleizara deituta, Mendebaleko Erroma`tar Kaizar Sakratuaren Augusto-Kaizar Jauna koroatu eban, ortik asiera emonda osterabe, zoritzarreko menpekotasunaren asmakuntza orreri”.

Beste aldetik: Orduko errege`en nagusitasunaren asmo bidez... edo eta pakearen naikundeak babestearren (Baleikite asmo biak beartuak izatea, Nafarroa`ko erregetzan behintzat) “Erregeen artean ezkontzen asi ziran”. Adibidez eta leenengo erregetzatik asi-ta ulerpide batzuk aurkeztuz: “II`n

Gartzia Iñigez 870-882`ko urtetan errege izan zanaren Ximena alabea, Asturias-Leon`go errege III`n Alfonso`rekin ezkondu bear eben eta beste alaba-bat, izenez Oneka deitzen zana Aragoi`ko Aznar Galindo`rekin.

Era berean, Mauritarrak Begi-bakarra ta kristauak Monakoa deitzen eutsoen I Fortun 882-905`n urte bitartean errege izango zanaren alaba Oneka, Abd Alah mauritar`ekin.

II`n Santxo Abarka 970-994`ko urte bitartean errege izango zanak, Mauritarrai ezin irabazi eta alaba bat Almanzor`ekin ezkondu eban, bai bera be bigarrenez Urraka Fernandez`ekin, Fernan Gonzalez Gaztela`ko kondearen alabea zanagaz bakearen truke.

Bere seme II`n Gartzia Santxez`ek 994-999 urte bitartean errege izango zana eta Dardarti edo Ikaratia deritxon`ak, alaba Asturias-Leon`go V`n Alfonso`gaz (994-1.027) ezkondu eban”.

Dana dala, zelan ezkondu... menperatzailletasunezko feudo`an antolatuta egon ziran Franko ta Asturias-Leon`eko erregetzak... kaizar astuntasunezko izen orreik emoten eutson punpeziagaz (solemnidad)... Foru edo Lege-Zarraren ardurazko ordezkaritza eta askatasunezko demokrazian oituratuta sortu zan Euskal-Nafar erregetzarekin ?. Ba...., antzerki edo eta gertakizunezko lazgarri orreitan iraungo dau Nafartar-erregetzaren edestia 1.512`an Fernando katolikuak Nafar-erregetzaren Ego-aldea menpetu arte eta geroago gaurko egunerarte.

Europa`n, berez askatasunaren oiturazkoak ziran erregetzak eta Nafarroa`ko erreñua batez be, etsai asko euki ebezan, orduko denboratik asi-ta, berezko Erri-gizarteari ortik aurrera iñoz !! ez dautsielako aukerarik emon, bereztasunezko jarraipenean itzarmen bidetik batzangotu gaitez

Bigarren: “Erregeen artean, ekanduzko izatasun arloetan desberdintza aundiak egon zirala”, adibidez: “Alemania`ko gortearen eragipeneko irakaskintzatik etorri ziran Austriarrak I Karlos`etik asi-ta, danak, eurakaz itzarmendu ziran antolamenduzko baldintzak, lotsa ta ardura aundiz zaindu zirala”. Nai eta I Karlos`ek, beren aolkularien esanari: “Nafarroa`ko erregeak osteria ezarri dagiazala euren erregetzazko aulkietan” uts egin. Gaur-be, laterri bi orrein artean, desberdintza ori (Alemania-España) nabarian (manifestamente-visiblemente) agertzen dana da (landers).

Zizneros, Aleman aolkularien etsaia izan zana eta Gaztela`ko gortetik I Karlos`en aolkulari nagusi-lez, Godo`en aritik etorten zan batzangotasunaren asmakuntzazko Erromatar Kaizar-Katoliko-Sakratu orren zaintzalea izan zan eta beren alde edo beragaitik ondo irakatsita egon ziran, adibidez Aragoi`en: Alfonso (Fernando katolikuaren sasi semea) Zalduba`ko gongotzain edo artxapezpikuak I Karlos`eri esaten eutsolako: “Nafarroa`ko jabetzari eutsi dagiola, euren laterriaren babeserako, bere zainpean, Auñamendiaren igarobide guztien giltzak eukazalako”.

Eta 1.518`ko urtean, Gaztela`ren Balladolid`eko gorteak esan eutsonakaz: “Nafarroa`ko erregetza menpean euki dagiala, nai-ta bera zaintzeko, gure gizaki

edo pertsonak eta etxaldeak ipini bear ba-dira, ipiniko doguzela-ta". Erregetza ori, gure erregetzaren giltz-nagusia dalako`en aitzakiagaz.

Zizneros berak !! esaten eutsolako: "Erreñu ura, berak balio baiño geiago kosta izan jaku eta gutxi gaitik ezin da galzorian jarri, ain sariko gauza ori. Zure Espaina`ren erreñuentzako, atea izan balitz bezala, bideak zabaldu ta zarratu egiten dauana dalako".

Ez alderantziz Frantzia`ko gortearen eragipeneko ikaskintzatik etorri ziran Borboi`ak, oneik Franko`en erroma`tar kaizar-sakratuaren iritzekoak oso-osoan izanda, indar bidez menperatzailletasunezko-batzangotasunaren eritzikoak ziralako. Eta txeberazko sare-arte orreitan, gure Nafar eta Frantzia`ko errege XIII`n Borbon`tar Luis jausita, Biana`ko printzea izateari (Nafarroa`ko errege izateko bear-bearrezkoa izan zana) arbuiatu (menospreciar-despreciar) edo yaregin (renunciar) eutson.

Irugarrena: "Jaun-errege`en ezkontzak euren artean asi ziranetik, euren aolkularitza osoa erromatar kaizar-sakratuaren eleiztarren eskuetan egonda eta Eleiza`ren printze-aulkiak euren artean bananduta euki, Euskalerriarentzat zoritzarrekoak biurtu ziran jaun-erregeakaz euki genduzan antolaritzazko itzarmenak, euren gudarako eskubideakaz (nai-ta jaun-erregeak euren gudarako diruak aurretik ordaindu bear) eta azkoren antolaraziak eroaten eban-lez, Euskaldunak gure-artean, beti borrokan agertzen giñalako. Eleiza`ren printze orreik euren dama-joku edo xaxe-jokuan (ajedrez) zorioneko jostaldiak euki dagiezan batzangotasunezko-menperatzail kaizar-sakratu orrein zerbitzura.

Bide orretatik, Europa guztian sortu ziranak, baiña Euskalerrian batez-be, zazpi laterrietako Euskaldunak bananduta geratu gintzazan: "Bizkaian, Oñaz eta Ganboa`tarrak aurkariak zirala; Gipuzkoan be, Oñaz eta Ganboa`tarrak; Araba`n, Mendotza ta Gebara`tarren artean eta Nafarroa`n, Beaumontes ta Agramontes`en arteko aurkaritzan.

Sinistu eziñezko naaztekuntzan sartu gintzazan Euskaldunak joko orrein bidez eta alderdikierietan gaur-lez ia birrinduta, karlistada eta Franko`ren aurkako gudatara eldu gintzazanerako.

Gure Euskal-Arbasoak euren batzarretan lotsa aundiz, Berezko-Legean edo Demokraziaren ekanduzko zeaztasun osoenean jokutzen ba eben-be, menperatzaille erdira-nai aldeko oneik, EGIA`en AURKA batzangotasunerako indarkerien bidez egiten ebezan gauza guztiak, Guzurraren neurri aundienetarikoan jokatu bear izan eben (gaur-be), eurak goraldtu ziran aunditasunezko sasi-jainko maillatik, errez euki ebalako erri-gizartearen sinismen bidetik, alderdikierizko naaztetasun orreik lortzea.

Eta edesti guztian joko bardiña izanda, orduko denboretan erreztasun aundiz jokutzen ebalako: "GAURKO EUSKALDUNAK KONTURATU EZ !! ALDERDIKERIZKO JOKO ORTATIK LEN-BAIT LEN ALDENDU BEAR GARELA....., GURE ASKATASUNEZKO ELBURUAK LORTU GURA BA-DOGUZ ?.

Gaur Espaina ta Frantziak, eurenkaitik indarkeriz laterrituta gagozanai batez-be. Daukiezan sasi-asmakeriak lortzeko, ibilten dabezan guzur-aundi orreïn jarraitasunezko ekimenean beti !!, Izkuntz-Nortasunezkoak zapalduta izan dalako, zer esangura ete dabe esan..... Giza edo berezko erri-gizarteak, JAINKOA`ren LEGE`an ulermentzeko: "IZKUNTZAK azturaren adierazpene-ko azalgarrian emon eutsezan Nortasunezko-Irakatsiak ez dirala ezer !!", esaten dabenean ?.

Ala...., "Ez diralako gai-izan, Nortasunaren izkuntzazko adi-erazpen esangura guzti orreik, batu ta ondo ikertzuz..., danon adimeneko uler-onezpenakaz, Demokrazizko erabagi on-baten oituta "JAUNGOIKUA EZKERTZEKO"... ordezko ardura on-guzti orreik pikutara bota zirala eta euren "sasi-jainkoaren" zentzuz, indarkeriaren erreztasunezko oituran Mundu`ko gizarte guztia batzangotzeko, alegintzen dabizela ?.

Nai-ta euren agoetan asko erabili... zer !! ulertzen dabe..., Askatasunezko-Demokraziaren itzak esan-gura dabenagaz ?.

Europa`ko erreifñuetan eta Nafar-erregetzan batez be, ortik aurrera artu ziran erabagi geienak, kaizartzaren txeberazko sare-naspil orreitan jausten ziran danak. Euren artean ain-bat nai`keri, bekaizkeri ta kain`keri sortuta.

Orregaitik, III`n Santxo Garzez "Aundi"tik (999-1.035) asi-ta, askatasunezko-eskubidearen aurka egindako zertzelada batzuk azalduko dodaz, luzeegi ez jakun egin idaz-lan au.

III`n Santxo Garzez Aundiak, 1.016`an Gaztela`ko kondearen Munia alabeagaz ezkondu-tako bidetik, bere lurraldeko nagusitasuna edo antolarazia lortuta. 1.035`an Euskalerrria, bere lau semeen artean banandu eban bidetik, Euskaldunak gaur osotzen dogun Iparralde ta Egoaldeko lurraldea bere seme III`n Garzia Santxez`eri emon ba-eutson be, berak kaizar izen-buru ori euki eta dirua ataraten ebalda idazpuru orregaz, Nafartar-lurraldeari berak !! emon eutson azken murriztasuna.

Nai-gabe ? Ala... Euskalerrriko Jaun-Erregeak euken erlijiozko sinismen itsu-bidetik, ez ebalako ulertzen katolikotasunezko alderdikeriak ekarten eban menperatzaille-asmakuntz ori, egin ebazala banakuntza orreik ? Batez, Aita-Santua`ren maltzurkerizko aolkuakaz Euskalerrria indarra galdu dagian, bere ondoan ez ebalako gure iñungo Askatasunezko Demokrazirik ? Aita-Santua, itxaroten egoalako !!, indartsuenari kaizar-sari ori emoteko, katolikotasunaren menpean Mundu guztia batzangotu dagian !!. Emen, ez da susmatzen zeozer`en ustel usaiñik ?.

Dana-dala, ortik aurrera, laurak errege-lez izendatuta eta kaizartza ori eureganatu gurean, bekaizkeriaren bidetik etsai aundiak biurtu zirala, fernando`ri Gaztelako erregetza emonda, denboraren etorkizunean Asturias-Leon`etik etorten zan kaizartzaren aria oratuta, feudalismoaren asmakuntzan biurtuko zana, Aragoi`ko I Ramiro`ren ondoregotik bardin eta eta Gonzalo`ri emondako Sobrarbe ta Ribagorza, Aragoi eta Gaztela-Leon-Astururias`eko erreifñugaitik iruntzita geratuko zana.

Nafarroa`ko erregetza ortik aurrera, Franko`ak Iparraldetik, Ego-Mendebaletik Asturias-Leon-Gaztelarren erreinua eta Aragoi Ego-Ekialdetik beti keifuka, beti egon bear izan eban ADI, noz banaka edo irurak batera erasoan etorten ba-ziran Nafar-erregetza euren artean banatzeko.

Euskeraren arlotik begituta, Nafarroa`ko erregeak Euskal abertzale zutzuak izan arren : Euskal erregeen artean VI`n Santxo Jakintsua, lenengoa izango zana EUSKERA LINGUA-NABARRORUN izen aundian ezarri eban. Baiña, goian aitatu dodazan txeberazko arrazoiaren bidez : LATIÑEZ eta SASI-IZKUNTZETAN idazten ziran jaurkintzaren agiri guztiak.

Erljioaren aldetik begituta, ba-eukan Nafarroa`ko erregetza III`n zelestino Aita-Santua`gaz beste etsai aundi bat, Aragoi eta Gaztelarrai ez eutsielako laguntzen Mauritarren aurkako gurutz-gudaldietan, naikua euki ebalako eurakandik zaintzeagaz eta VI`n Santxo Jakintsua errege zala 1.194`an Jorrailla`ren 13`an Aita-Santuak bialdu eutson bere berun idazki edo bulda`n Rex-Gratia-Dei, legezko errege guztiari idazten eban lez « Nafartaren DUKE » idazten dautsolako.

Bardin egin eutson VII`n Santxo Azkarra edo Indartsua`ri 1.196`an Epaila`ren 27`ko eskutitzan.

Eta begitu zer gertatu zan Aita-Santua`ri begiratzeagaitik. Alde batetik : 1.200`ean, Santxo gurutzeko-gudan kanpotik zala, emen itzi ebazanak, eurak gura ebena egiten ibili zirala.

Bestetik : Araba babes barik egonda eta Gaztela`ko VIII`n Alfonso adi alango aukeraren billa, Araba inguratuz, Giputzak antolarazia on baten billa eta 1.224`an Bizkaia bere antolarazitik alde eginda, Euskalerra banandu egin zala.

Bai-ta bere asken-borondatean Nafarroa`ko erregetza, beren loba I Teobaldo bertsolaria begi-onez ez ebalako artzen, Txanpañ errege-leinua ez zalako erritarren ta buruzagien atsegintasunezkoa, Aragoi`ko I Jaime`n eskuetan iztea zalako. Eta I Teobaldo ori, Nafartarrentzat ez bazan atsegintasunezkoa, erdiratzaillentzat ona izan zalako eta gurutz-gudatan ibili zalako Aita-Santua`ren esanetan : « Bere baimenik gabe, iñork ezin ebala Teobaldo Eleizatik kanporatu » agindu eban.

III`n Karlos « Biotz-Aundikoa`k » 1.423`an Urtarrilla`ren 20`an, Biana printzerri-lez izendatu eban, andik aurrera erregetzara aukeratzen ziranentzat, bearrezkoa izan dagian izen-buru ori errege izateko. Bere alaba I Blanka 1.420`an bigarrenez Aragoi`ko II`n Juan`egaz (Gaztela`ko Trastamara`ren sendikoa) ezkondu zanean, ez zalako fidatzen onek zer egingo ebanagaz bera bakarrik geratuta.

Ez eban euki arrazoi gabetasunik, onek 1.441`ean I Blanka erregiña il zanetik, 1.479`rarte berak eroan ebalako erregetza, bere IV`n Karlos eta II`n Blanka seme alabari errege-aulkia lapurtu eta biak pozoituta il ebalako.

Bai bigarrenez Enrikez`tar Juana`rekin ezkondata (biak antzekuak ziranak), euki eben Fernando katolikua izango-zan semeari, beren guzurrezko

maltzurkeriak ondo erakutsi, gero II'n Julio Aita-Santua'ren laguntza osoagaz Nafarroa'ko erreinurekin geratzeko.

Nafarroa'ko erregeak Frantzia'ko erregetzara igon ebenean eta XIII'n Luis'en erregetzara elduta, batzagogtasunaren erdira naierako feudalismoan biurtuta egon ziran eta euren arbaso III'n Karlos « Biotz-Onekuak » 1.423'an Urtarrilla'ren 20'an irasi eban « Biana'ko Printze » izen buru ori, arbiatuta geratu zan, nai euren erregetza Frantzia eta Nafarroa'ko izenarekin iraun 1.789'ren Frantzia'ko iraulketararte.

1.789-1.804'ko URTE ARTEAN FRANTZIA'n IRAULKETA :

Europa guztian, erregetzaren antolaraziak, gauzezean edo ezereza'ren (incapacidad) maldaberazko aipu-txarrean (descredito) egonda, Frantzia'k erregeak kendu ebazan-be, XVI'n Luis 1.793'an Urtarrilla'ren 21'ean « Lepoak-Mozteko » gailluan burua kendu eta bere emazte Mari Antonieta'ri bardiñ Urria'ren 16'an eta Frantzez'en eskubideak goraldtu « LEGETASUNA-SENIDETASUNA ta BARDINTASUN »ezko ospe aundiko itz'ekin. Zeozeren « USTEL-USAIÑA » euki eban, berezko erritar-gizartearen eskubideak menperatu egin ziralako : « Frantzia'ko Errege'en Antolarazitik, Frantzetarren-Erregetzara aldatuta, berezko izkuntzak (Euskerea-lez) ezereztu naian, ortik aurrera, Europa guztia indarkeriz Laterrituta geratu zalako.

Erromatar kaizar sakratuzko katolikotasun asmokoak (nai-ta Napoleon'egaz leenengo eta Hitler'ekin gero itxaropenduta egon), konturatu ziran, Europa betiko kaizartzaren batzangotasunezko jaurkintz orreitan ezin zala zuzendu eta nai-ta zati txikerragoak izan arren, Frantzia'ko saioa ikusita, laterriaren batzangotasunezko autabideagaz (opcion) geratu ziran, kaizertzaren asmo ori ezereztu edo kenduta.

Eginkizun oneik, ez dabe egiten besterik JAINKOA'ren Berezko LEGE'ak ostondu baiño, sasi-jainkotasunaren asmakeriak bizi-bizi dagozelako oraindiño edo goiko : « Merkataritzazko, Laterrizko Agintaritzan eta Katolikotasunezko » batzangotasun alderdiaren buruko eritzietan geratzen diralako oraindiño.

Europa, lantegi-gintzan sartu zanean, erdira-naiezko laterri-batzangotasunaren agintaritzazko morroikerian gura eben ezarri erritarren ogi-bidea eta menperatzailletasunezko ekintza orrein aurka, gizartekeri edo Sozialismoa sortu zan.

Erdibitu egin zan au be, komunismuak aurrera egin ebena desagertu arte eta sozialismo onek, laterri menperatzaille onein agintaritzazko maillan, txanda artu gura dauanak.

Zer esan gurako dabe..., « Erriarteko politika aitatzen dabenean... » Berezko erri ta erritarrak, euren Izkuntzazko Nortasunean zapaltzen daben ezkerro ?.

Bigarren Mundu'ko guda-nagusien ostetik billurtuta eta egin zan sarrazkiakaz guztiz damu, « Geiago alango borrokarik ez !! » eta « Erri-

gizartearen eskubide guztiak babestu » egin bear ziralako erabagi gogorak artu ziran.

Baiña damu orreik, bere-ala itzali edo aienatu ziran, menperatzailetasunezko antzerkia Komunismo ta Amerikarren nor geiagoko guda-otz`era aldatu zanean, errigizartearen eskubide guztiak lengo-lez, menperatzaile asmo orrean mendean geratuta.

Komunismoa ezereztu egin zan, batzangotasunaren leen asmo orreik aurrera eroanda euslari edo gordetzailleen eta sozialisteen eskutik, fazizta`tarrai aukera barriak emonda agertu daitezaz. Merkataritzak, laterrizko agintaritzak eta katolikotasunaren batzangotasunezko ameskeriak ez diralako gai aldatzeko. Noz arte ?.

Gaurko Mundua`ren antzerkiak, xautzailetasunkerizko ta maltzurkerizko-guzurkeriekin bizitzeko ez dauka geiagoko lekurik. Orregaitik JAUNGOIKUA`k ipini euskun BEREZKO-LEGE`ra aldatu bearra daukagu. JAUNGOIKUA`k emonda, ekintz-orreitarako egun guztietako aukeraren gaitasunean (posibilidad) gagozelako !!, Gaur, biar eta etzi baiño obe.

EUSKALERRIA`ren ASKATASUNEZKO EDESTIAREN ONDORIOA :

Ikusi dogu, Kromañoi (Omo Sapiens) giza, zelan Afrikatik urtenda, izotz-urtzean, Europa`ren Mendebal ta Ekialdetik zabaldu zan eta milla urte askotako azturaren ikas-ekintza bidetik, Demokrazizko-Anfiktionia edo lurraldeko auzotasunean, laterritutako jendekuntzan geratu zala.

Eta Ekialdeko Mesopotamia`ren lurraldetatik egon ziran berezko erriak, Sargon buruzagiak menperatzen asi-ta, Babilonia`ko jendekuntza barrieri bideak zabaldu eutsoezan eta jendekuntza orreri Ziro`k, Perzi`ar mendekuntzaren asiera emonda, Dario`k eta Jerjes`ek amaitu ondoren, Europa mendetzeko asmotan asi-ta, zelan Grezia`tarrak ezereztu edo geratu ebazan.

Gero, Keltiarren jendekuntz-ugariak, demokrazizko askatasunaren ulermenekuak izan ziran-ezkero, euren mugialdiak bakezkoak izan zirala. Ekialdetik ikasi ebena, Europa`tik zabalduz eta ori aztertzeke ez daukagu besterik ikustea baiño, zelan ezerezetik sortutako Erromatar Menperatzailetasun asmakizun orreri, aurre egindako eziñean, gure artean aienatu zirala, Eskozian, Irlandan eta Galizia inguruan izan ezik.

Baiña geien eta ondoen ikusten dana, zelan Demokrazizko jakintzan kokatuta egon giñenak, zekula ez gintzazala joan iñori eraso egiten eta Fazizta asmo ori etenbako ekiñaldean gaur arte, nai-ta jakinda Maltzurkerizko guzurraz menderatzeko gai dirala, baiña limurtu edo gure buruetan sartu guzurrezko ekimen orreik zekula-ez !! gaur egunean be, lotsaren bildurragaitik atzera ez egitearren, aurrera egiten dabe, oraiñarteko adesti guztian egindakoak, guzur-lez ez daitezaz agertu.

A-ta guzti, berandu baiño lenago egin bear ko dira aldaketa orreik, bestela Mundu onen giza ta berezko erri-gizarteak amilttegira bideratuta dagozelako.

EUSKALERRIA`ri BEGIRA :

Euskaldunak, gure berezkoasunean konturatu bear gara, Izkuntzezko Nortasun Demokratikoaren Askatasun bereiztasunean menderatuta egoten bagarela, ez dala gure arazo`rena bakarrik, Munduko erri guztiena baiño eta batez-be Europa`rena, giza eta erri-gizartearen eskubideak mendekuaren eritziakaz, lokaztuta dagozelako, NORTASUNAK ezereztu naian.

Orregaitik sartu bear-gara Europa`ko arazoan artean, gure arifaukoak Agirre, Landaburu, Irujo, Ajuriagerra eta abar`ek egin eben antzera. Europa`n N.E.I., (Nouvelles. Equipes. Internationales d`emokratiques d`inspiration chretieene. (Democracia Cristiana)) orduko denboratan beste biderik ez egoalako egon, sortuta. Erri-gizartearen eskubideak ordezkatzeko, Laterri onein gauzeza, nabaritura geratu daiten.

Europa`ren arazoa izanda, bakarrik joan ezkerro, iñork ez dauzkulako askatasunik emongo eta erdira-nai edo batzangotasunaren laterri aldekoak gitxiago. Europa`ren arazo oneitan txikerrak izanda, bakarrik joan ezkerro, guzurduinak euren ondorio-onak artzen dabezelako, bestien ardura-gabekeria.

Gaiñera, alderdikierietan zatituta egonda, « Demokratik » garela esaten badogu, ez dogu guzur aundiagorik esaten. Demokrazi baten, berak agintzen dauan lez, baktzari berea emon ezkerro, alderdikeri guztiak geinkerian dagozelako eta geiago, gure izaera Demokratikoan.

Begitu beztela zelako aurrerakuntzak egin doguzan gure ardurak egokitzeko eskubide geienak euki ez arren.

Ori da !! ikertu bear dogun bidea EUSKALDUNEN BATASUNA LORTZEKO eta SABINO`k esan eben antzera "Euskaldunen BIZI-EKINTZAZKO ARLO GUZTIAK EUSKERATU, INDARRAK EUKI DAIGUZAN, GURE DEMOKRAZIAREN ASKATASUNEZKOA DAN EUSKALERRI IZAR-MAITE AU ASKATU DAIGUN".

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.007`an ZEMENDIA`ren 20`an

EUSKERA

Aznar`ek, maltzurkerien bitarteko alegiñean "News Korporation"en aolkulari lez eta berari lotuta dagon "The Wall Street Journal" amerikar aldizkarian 2.007`an Zemendia`ren 6`an Keith Johnson berri-idazleak, Abaskal`tar Santiago, Barreda`tar Leopoldo ta Arregi`tar Joseba`ren aolkularitzan argitaratuta.

Fazizta-Menperatzaille oneik, erdi-mende guztian euren aurrekoak egin eben antzera, EUSKERA`gaitik esaten dabe: "Euskal Izkuntza, bortxa ta indarkerien izkuntza dala eta ez dabela balio ezertarako, jendekuntzari (civilizaciòn) kalte egiteko baiño".

Guzur-Zale oneik: "Euskerea eta Euskaldunen egi-zaletasunak" zergaitik agertu gure dabez erdeiñuzko (despectivo) eta arbuiozko (despreciativo) itz orreitan ?.

Berezko Egia`k, ezinezkoak biurtzen diralako Menperatzailleak daukien eritzizko asmo-azterpenak beteteko edo eta ezartzeko ?.

Baleiteke !!. Baiña zergaitik eta zeren aurka ?.

EUSKERA: Euskaldunak, milla-urte askoren ikerpeneko atun-bidean (procedimiento empirico) edo eta aztura-bidetik (crecimiento del conocimiento), Euskal-Izkuntza`ren ondo erindu ta biribildutako lanean, Euskal itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu daitezcan, gaztelu ederrena eraiki eben.

Lur-Aize-Ur ta Itsas-Abeldi`ai eta bizitzarako gai-lur oso onek daukan Loredi, Landaredi, Lur, Are, Arri, Arrikatz, Burdin-Mea, Kobak eta gure Lur onetan agertzen diran era guztiko irudiak zentzu aundienean izendu ebezan.

Gure Izen-Abizenakaz eta Ekandua`ren arloan bardin eginda, Euskera`ren berba bakotza: "Leku, Era edo eta zeregifiñezko Gauzatan, esaeraren zentzuzko argitasun ederrenean irudimenduta kokatzen gaitu. Arteko arremantetan eta berbaz mintzatzen garenakaz, egia`ren ziurtasunezko eta xeetasunaren irudimenezko ulermenean kokatuta.

Euskaldunak, alako berezkotasunaren izkuntz-ederragaz jendekuntzatuta ez gara izango...., EGIA ta ASKATASUNA`ren DEMOKRAZIZKO zaletasunezkoak ba ?.

Oraifarte eta ziur nago emendik aurrera-be alan izango dala: "Euskaldunen berbea, egon diran lekuetan edo kidetuta, EGIA`ren Zentzunkidezko (sinònimo) labelekoa izan dalako beti".

Eta Menperatzailleak, euren inguruan ez dabelako askatasunik gura..., eurak daukien menperatzailletasunezko-asmakizunetan, ainbeste kalte egiten dautsielako, ez dabiz gudu-indarraren alegiñetan batzangotu gaitezana, BEREZKO NORTASUN ta IZKUNTZAK aienatu edo desagertu daitezana ?.

Mundu onetako Sasi-jainko eritzi orreik, oso erpe sakonak daukiez katoliko-aberkidetasunetik onantza, merkataritzaren mozkin guztien indarrak euren kontrolpean eukinda asmakizunezko ta ametsezko sasi-iruzurgille (pseudo o impositor chapucero, engañador, fullero) orreik lortzeko.

Beti baiña, JAINKOA`k agindutako BEREZKO-LEGEAKAZ aurkitzen dira eta or !! nun agertzen jakien EUSKAL-JENDEKUNTZA-EDERRENA, Europa`n Homo-Sapiens`etik (Kromaño) IZKUNTZ ta DEMOKRAZIAN zaarrena dana.

Nik, zalantza barik esango neuke "JAINKOA eta BERE LEGEAREN AURKA" dabizela jokutzen.

Ikusi dogu, zelan Euskal-Izkuntzaren berbak, gure alkar-mintzaldietarako zeatzezko zentzuan, irudimenezkoak dirala eta bere Europa`ko edestian menperatzen ibili ziran erromatar ta mauritarren izkuntzetatik berba asko artu ba eben-be, sekula ez zan aldatu beren JENDEKUNTZAZKO NORTASUNAREN ZENTZU-DEMOKRATIKO-TIK.

Ez zan gertatu bardiña baiña, menperatzaille orrei guztiz aurka urten eutsienakaz, nortasunean eta izkuntzan naastekatuta urten ebalako: Asturias`en Bable, Nafarroaren Ego-aldeko ur-bazterrean eta Aragoi`ko Iparraldean Napar-Aragoia eta Burgos inguruan Gazteleraizko latin-kume izkel-gaiztoetan geratu ziralako.

Izkuntzan galdu ba-eben nortasunezko izaera orreik, nola bardindu edo geiegitu egin-leikez EUSKEREAK bere garbitasunean irudimentzen dauan JENDEKUNTZA`rekin ?. Euren asmakuntzagaz beartuta: "Orokartasunaren Alanbear`en gaitik ? (Por su destino en lo Universal, forzando a todos ?). Nungo JAINKOA`gandik daukiez artuta opide edo eliz-opide (prebendas) orreik ?.

1.960`ko amarkadan, Espaina`ko Ele-Jakintza`ren irasle edo sortzaille izan zan Menendez eta Pidal`tar Ramon`eri entzun neuntson: "Gaztelera`ren latin-kumea zentzunean sendotzeko 1.971 Euskal-itz`ekaz tartean sartuta egin bear izan ebela eta a-ta guzti, ainbat itz zentzunezko-gabetasunean geratu zirala. Adibidez: "Playa" itzak, zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?. Badauka zer ikusirik areagaz, leguntasunagaz (lisura, tersura) edo eta areatutako maskor-ondarrarekin ?.

Euskera`ren-itza: "Laida, Ondarru edo Mutriku`ren Itsas-Bazterreko Ondartza"k, ez gaitu kokatzen..., ulermeneko zentzuan adi-erazi (indicar) gura dogun irudimenezko lekuan ?.

EUSKEREAK, ez dau galdu bear, Homo-Sapiens, Kromañon edo Euskaldunak, milla-urte askotako azturan, Bizitzari adierazpeneko (interpretaciòn a la vida) ekintzan emon eutson zentzuzko xeetasunetik ezer, or !! dagoelako gure jendekuntzaren garaipena eta batez-be: "GURE NORTASUNA`ren ZENTZUZKO IZATASUNA".

Atutxa`tar Paul
Zornotza`n 2.008`an Urtarrilla`ren 22`an

-EUSKALERRIA`ren EGIA: I ABERRI LEZ

SORTZEN

Idaz-lan au, zazpi zortzi idazkitan argitu gura neuke, gaurko Mundua`ren gizartearentzat eta Euskalerrarentzat batez-be ardura aundiakoa dalako eta nire ardurazko ikuspegitik alan ulertzen dotelako.

Gauza arrigarri`bat sortzen jaku gaur, gaiñera gaurkoa ez dana, K.a. 8.000 milla urte gitxi gora beran asmatutakoak diralako, adibidez: Sumeria`n Sargon`ek zeaztu ezin diran Kristaurreko 2.600-2.300 urte inguruetan Beko-Mesopotamia`tik Eufrates`eraño menperatzen alegindu zanetik asi eta K.a. 561`ean Ziro (Ciro) Persia`rrak Ekialdeko Turkia, Mesopotamia ta India menperatuta, Kanbises, Dario ta Jerjes`ek K.a. 521-486 urtetan Ejipto ta Mendebaleko-Asia guztia menperatu ondoren, Europa-be menperatu gura ebenetik, egoera bardiñean gagozelako.

Emen baiña, Europa`k euki eban demokrazia`ren jendekuntzazko bietariko (Euskalerrria eta Grezia) batek urten eutsoen aurka eta Medikak deritxen guda`kin, euki ebezan menperatzailetasunezko asmoak moztu eutsoezan.

Merkantilismu`aren diru-zalekeriak aleginduta baiña, agindukeria, indarraren bearrezkoan agertzen da eta Seneka`k esaten eban lez: Mundu onetan "Beartsua edo txirotasuna ez dala agertzen, gauza gitxigaz edo zeatz, bear doguzan gauzakaz bakarrik konpontzen garanean" "Andikeri-naian, gauza geiago eukiteko irrikatzen (ambicionar) gagozanean baiño".

Eta Mundu fisiko onetan, asko ikasitako azturan edo zeaztasunezko alegiñaren ikas-bidetik oartuta, badakigu: "Leku batetik geiegi kendu ezkeru, leku ori gabetasunean geratzen dala", nai lur, gauza edo giza ta gizarteko eginkuntzan bardin sortuta.

Mundu onetako LEGEA ez dalako gurea, gure-artean konpontzeko baizik !! JAUNGOIKOA`ren LEGEA`k or !! emoten dautsolako asiera gizartearen eskubideai.

Zer gertatu zan baiña ?.

Ekialdetik etorten zan Norberkeriaren andi-zaletasunezko aberastasun asmo orrei edo eta moral-gabeko amets`abarreri (sueños-confusos) oratuta, Italia`n, Arno ta Tiber ibaieko bitartean bizi ziran Etruskoak emon eutsela barriro asiera, Europa ta Mundua menperatzeko, erromatar menperatzailetasunezko asmakuntzari.

GAURKO JAKINTSUAK..... ZER ESATEN DABE EUROPA`ren BIZITZAZ`ko ASIERA`ri BEGIRA ?:

Orain 30.000 urte ingurutik, Homo-Sapiens, Kromañoñ edo EUSKALDUN leiñuak, lur geiagoren edo babes`eko janariaren billa Afrika`tik urten da, Lurrarteko-Itsasoa`ren ingurua, Atlant-Itsaso`tik India`arteraiño lurrak erritu egin ebezala eta Europa`ren Mendebal da Ekialde guztiko izoztea urtzen asi zanetik, landara`ren fruitu, mamut ta bas-auntz edo izotz-oreiña`ren atzetik Europa ta Mundu guztian zabaldu zirala.

Europa`ren Giza-genetikan % 77`an bardiñak garala eta Europa`ren leenengo izkuntza EUSKEREa dala. Leenengo izkuntzaren toki-izenak nai-ta jendekuntz-

menperatzaillak euren izkuntzazko aztarnak itzi, milla urte askotan Euskeraz izaneko toki izenak guztiz sekula ez zirala aienatu edo ezeztatu eta orregaitik geratzen dirala Afrika`n, Europa ta Asian ainbeste Euskerazko toki-izen ta izkuntz-ezberdiñetan Euskeraren itz-ugari.

EGITAMU-SAIO ONEN AZTER-BIDEA:

Gaur, jakintzazko iker-lanaren bidetik, oneik diralako daukaguzan aurreko-zeaztasunak, zabalkuntz-agiri onen gaiñean aztertuko dodaz al doten mailla aundienean, gero Europa ta Euskalerrriaren bizitzak aztertzeke, agertuko diran arlo ezberdiñak: “Izkuntzan eta erromatarren-gandik izkuntz-barriak sortuta agertu ziran ondorioak. Oiturazko-izatasunean, erlijioan, edestian, askatasunezko-demokrazian. Eta ondorio-lez, Euskalerrri gaur daukagun Askatasunezko arazoetan”. Aztu-gabe, oraiñarteko edestilariak menperatzailletasun zerbitzura egin dabezan adierazpenak, guztiz diru-griñaz edo bizitzeko diruaren gogoz egindakoak dirala, kaizertza eta katolikotasunezko erromatar kaizertzak, alan beartzen ebalako ? Ori da batzuk daukien aitzakia, baiña... eta besteak ?.

EUROPA ta MUNDU ONEN LATERRI-GEOGRAFIKOA ZELAN GERATU ZAN ANTOLATUTA HOMO-SAPIENS edo KROMAINÑON en ZABALKUNTZAN ?:

Leiñu-giza`k zabaldu eta euren babesak erreagoak egiteko banatzen asi ziranetik gaur arte eta Euskalerrria eredu-lez artuta, ezagutzen zan Europa ta Mundu guzti-au: “Bakotxa beren nortasunezko izen ta ardurakaz, leiñuzko bakantasunaren auzotasunean, laterrituta” geratu ziran.

Arreman aundiak euki bear ebezan milla urte askotan, Euskera`ren izkuntz-zarrak alan erakusten daualako, adibidez: “Eskozia`ren goi aldeko Kaledonian, Piktoak bizi ziran eta aurkitu diran, eurak egindako arri-landuetan idatzitako izki`ak, euskerazkoak dira.

Adibidez, Pikto`z idatzitakoak: “doannataenakotekaetua” eta beren irakur agiria: “doana da Eneko t`ekaitsua”. Gazteleraz irakurrita: “el que se va es Eneko y la preocupaciòn”. Krutwig`ek Euskera-lez onartuta eta Nuñez eta Astrain`tar Luis`en “EL EUSKERA ARKAIKO” liburutik artua.

Pikto`ak IX`n gizaldian Eskozez-Keltiarrakaz bat egin ziran.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.008`an EPAILLA`ren 12`an

EUSKALERRIA`ren EGIA: II ASIERA eta ERROMATARRAK

EUSKERA:

Gaur badakigu, onartuta dagoalako, Homo-Sapiens`en edo Kromañoi`en gizakiak, len-ereduko Euskerea edo Euskera`ren itz-zarretatik Mundu guztira eta batez-be Europa onetara zabaldu zirala.

Eta nai-ta gaur arte, Mundu`an ta Europa`n batez-be, ele-jakintza`n, asko dakien ele-jakitun aundiak egonda, batek-be ez dauala aipatzen Euskerea`renik ezer, nai euren lan-guztiak, Euskera`ren sorburuko barnera bideratu.

Egoitza`ren (actitud-postura) jarkera (situaciòn) orreik, oso ezberdiñ gauza-bi gaitik sortzen dira, gaur gagozan menperatzailletasunezko Mundu onetan.

Adibidez: a) "Menperatzailleak, euren sasi-jainkotasunean (azkenekoak, katolikotasunezko Erroma`tar aberri-barri zaleak) Mundu onen erri ta erri-gizarteak beartuta batzangotu gura ebenak, LATIÑA jakintzaren izkuntz bezela gaiñeratuta eta BEREZKO IZKUNTZAK oinperatu edo arbuiatuta, izkuntz-basati edo ez-dakien izkuntz bezela, euren sasi-asmakintzak garaipentzeko".

Eta b) Erroma`tar katoliko menperatzaille oneik, Nizea`ko Batzar-Nagusi`tik orain 1.683 urte sasi-agintzan garaipendu ziralako, ekanduz edo berezko-oitura onean ibili ziran izkuntzalariei egia dana argitzeko, frogapen edo siñispideko eskaeraren eragozpeneko bidetik debekatu egiten eutseelako.

Leenengoai esan: Nai-ta euren sasi-jainkotasunezko indarrarekin garaipenean agertu gura, ez zirala aal edo gai izan, 1.683 urteko denbora guzti onetan, Italian eta erromatarren jaio tokia izanda, bertan daukiezan Euskerazko izen asko eta batez-be "Arno ta Tiber" ibaiaren izenak aldatzeko.

Alde batetik: Ondo baiño obeto etorri jakuna, gauzak, siñispide frogako eskaera orreitan argitzea, jakinduritzaren zeaztasunean betetako lanezko-ardura orreik, BEREZTASUNAREN sabelera bialtzen edo bideratzen gaitualako.

Alderantziz: maltzurkerizko guzur orrein bidez dabizenai, leen: "LATIÑA" desagertu jakie eta "KATOLIKOTASUNAREN ERROMA`tar-KAIZERTZAZKO ALDERDIKERI (nacional-catolicismo)" ori be, bere azken maltzurkerizko guzurak eutsi ezinean dabilrelako.

Jakintzaren arloko denbora aiek, erritarren artean mailla txikerrekoak izan ziralako eta jakintza gaiñera euren norkerizko eskuetan egon zalako, iñor ez zan konturatuten. Baiña gaurko denboretan..., zelango zentzunezko arrazoiak daukiez... alango ganorakaz aurrera egiteko ?.

Ez dago beste biderik JAINKOA`ren LEGEA`n izan ezik, bestela musturrak-be or itziko doguz euren aurka. Eta aurrera begira bakerako bidea, gizartearen eskubideak, BEREZKOTASUNAREN-LEGEAN zainduta lortzen dalako.

Bigarrenai: Esan: "Mundu`ko gizarte guztia, BIZITZA`ren LEGE`zko ARDURAN ezartzeko, ez dagoala beste arau-biderik, ZUEK ardura aundiz arremanduta AZTURAZKO (metodo empirico) lanean, IKER edo AZTER-SAIL`eko bidetik (comisiones de investigaciòn) jakiten doguzanak ziurtatzeko".

“AUSARTASUN aundiz baiña !!” Gaurko, menperatzailleak ez daukelako indar geiegirik eragozpen aundiak ipinteko, ainbesteko nabaritasunai (evidencia).

Eukingo dabez diru ta telebistaren kontrolak, gu jakintzan naastekatuta xautzailletasunezko bizi baten erdi-lo egon gaitez, baiña ez da naikoa, emakume ta gizonezko “ARIMETAN”, bereztasunezko borondatearen egarria dalako nagusi.

Euskalerriko seme-alabak, EUSKAL`lez bizi gura ba-dogu eta gure arbasoak demokrazizko elbidean egin eben lan-ederra Mundu onen jendekuntzari erakutsi ikasbide-lez artu dagian, arrazoitasunezko baldintza oneik euki bear geunkez zaletasunezko ardura aundiz gogoan, “GURE-ARTEAN, EUSKAREA`ren NORTASUNA GARAIPEZTEKO eta EUSKALERRIA`ren NORTASUNA BERE DEMOKRAZIZKO NEURRI AUNDIAN KOKATUTA AGERTU DAITEN”.

ERROMATARRAK SORTU ORDUKO, AURREKO LEIÑUEN JAURKINTZAZ-ko ANTOLAMENDUA:

Homo-Sapiens edo Kromañoia`ren izkuntza Euskerea izan bazan-be, euren zabalkuntzazko aztura bidean eta euren artean artu ebezan lur-bitarteak, eziñezkoa biurtu jakien jendekuntz bardin baten azi edo eta izkuntz baten azkortzeko (fortalecer, consolidar). Orregaitik, Afrika, Asia ta Europa guztian eurak asieratik euki eben izkuntz-bakarreko oiñarrietatik ainbeste Euskerazko-itx.

Asiera orren jarkera, asko esan gura dau aurrera begiratu gura ezker eta edo, goian esan doten-lez, ele-jakintza`ren izkuntzalari edestilariak, iñundik iñora-be ez dabelako ardura aundiz kontuan euki edo ekanduzko ardura orreik, menperatzaille-berekoiak ez ebelako gura berezko LEGEA`n ikusi, gaur umeak izango giñan-lez, or gabiltz, ganorabako eztaibadan bata besteari arrazoia eragozpentzen.

Berez, bereztasunaren-izti`ak edo bereztasunezko-lojika`k erakusten dausku, ardurazko lotsa gitxi dala emen agertzen dana.

Dana dala, kontu aundian artu bear dana, erpe batetik zuaitz baten adarkurazko antz-baten zabaldu ba-zirala, berbea oldozmenaren (pensamiento) adierazpena gaietsitzeko dala edo esabidea dala, zertan gabiltzan ulermentzeko, Homo-Sapiens, Kromañoi edo Leen-Euskaldunak, ainbeste urteko aztura bidetik: “Adimen edo ezagumeneko (facultad de discernir) oiñarri sendo bardiñ-batetik zabaldu zirala, gero oiturazko ekanduaren orekan, gauzak azterbideratzeko.

Europa`ren Mendebal eta Ekialdeko mapa goitik ikusita eta oinkada txiki-bat emonda, Kelti`en mugialdiak eta edo Indo-Europeo`aren bitartekotasunak (influencias) kontuan artu gabe. Ikusten doguna: “Leiñuen azturazko jaurkintza, nai izkuntz batekoak izan, Nortasunezko ardura aundiz bakeak zaintzeko, Euskaldun, Keltiar eta Griego`ak-lez, bakotxa beren ardurazko batzarrarekin, alkartasun antzeko baten (anfictionia), lurraldearen auzotasunezko laterritasunean antolatu zirala”. Geiago bear eben.....?, galdetu egite eban Latiegi`tar Bixente`k.

Europa`ko Demokrazia`ren antolamenduzko jaurkintz au da, erromatarrak euren menperatzailletasunezko asmoarekin naastekatu edo zirriborrotu egin ebena.

ATUTXA`tar PAUL
2.008`an EPAILLA`ren 15`ean

EUSKALERRIA`ren EGIA: III MENENDEZ

PIDAL`ek EZ DIÑOANA

ERROMATARREN MENPERATZAILLE EKINTZAN SORTU ZIRAN IZKUNTZ BARRIEN ONDORIOAK:

ERDI UGARTE ONEITAN - Erromatarren sarraldia: Erromatar agintariak, Kartajines`ak guda-bidez ezereztuteko naian, K.a. 218`n urtean Geneo eta Publio Kornelio Eszipion anaiak bialdu ebezan Tarragona`ra (Tarraco), euren neguko gudaltegia Tarrako izenagaz bertan ezarrita.

Zeza`ek gero, Biktriz (Victrix)`en idazpuruaz kolonia lez artuta eta leen orko aldeko uri-nausitasun lez izendatuta (Hispania-Citerior), Tarrakonense`ko izenagaz geratuko zan, beren nausitasuna sendotzeko alegiñean.

Eta nai-ta gero Europa`ko Galia-bidetik ekin, Erdi-Ugarte onen Iparralde ortatik asi ziran sartzen eta euren nausitasuna odolkerizko guda-bidez ezartzen. Bide batez, Ennio`tar Kinto (K.a. 239-169) Afro`tar Publio Terenzio (K.a.185-159) eta Luzilio`tar Kaio`k (K.a. 160-104 ?), Latiña erinduten (refinar, depurar) joan zirala, Mundu guztiko erri-gizarteak jendekuntzazko izkuntza-lez on-artu dagian.

Euskal eta Keltiar izkuntzan bizi ziran leiñuakaz, menperatzailletasunezko ekintza orren bidez, Europa guztian eta erdi-ugarte oneitan batez-be, latin-kume (romance) ugari ta erri ezberdiñak sortu ziran.

Gure Euskera`ren izkuntzazko leiñuak auzotutako laterritasunean bizi ziran artean adibidez: "Iparraldean eta Garona-ibai ta Auñamendien (pirineos) bitartean Gaskoi`a", "Rodano ibaia, Lurrarteko-itsasoa ta Italia bitartean Probenzala", "Kataluña eta Balenzia`n Katalana", "Ebro-ibai`aren ur-bazterretik eta Aragoi`aren Iparraldean Nafar-Aragoi`a", "Kantabria ta Burgos bitartean Gaztelera", "Asturias-Leon bitartean Bable", eta Gallego-Portugesesa, Galizia ta Portugal keltiar`en artean".

Izkelki-gaizto orreik latin-kume biurtu arte (romance) gizaldi asko igaro ziran eta gero be ez gitxiago benetako edo zentzunezko mintzoera bat biurtzeko.

Danetatik, Gaztelera izan zan zorientsuena, III`n Santxo Aundiak 1.035`ean bere antolabidezko lurraldeak banandu ebazanean lau semeen artean asi-ta.

Gaztelako erregetza sortu zanean Uri nagusia Burgos`en ezarrita, 1.085`an Toledo Mauritarren`gandik artuta eta 1.230`ean Leon-Asturias`eko erregetzagaz bat eginda, sendotzen joan zalako.

X`n Alfonso Jakintsuak (1.221-1.284 eta errege 1.252-1.284) emon eutson bultzakada aundiena. Leen, bere kantzillergo`ko jaurkintzan Latiña Gaztelerazko latin-kumeagaitik aldatu ebalako. Bigarren, jakitezko-trebetasunak eta ele-ederrak berotu edo bizkortu ebazanean arabiar eta ebraitar jakintzuak babestu ebazalako. Eta irugarren, Idazti-Deuna, Koran, Talmud, Kalila e Dimna Arabiar-kondairak eta abar asko gaztelerau ebazalako.

Eta Erdi-Ugarte onetan geien, Godo`en asmakuntzazko lurraldeak bir-artzera asi ziranetik, gaztelerau zabalkuntz aundia artzen asi zalako.

Bai, 1.474`an Gaztela ta Aragoi ezkontza`ren bidez alkartu ziranean, ortik aurrera Amerika ta Filipinas`era be zabaldu zalako.

Gaurko Erromatar, Godo eta Katoliko`en asmakuntzazko aundikerien naidunak, zentzun aundiko belarrietan miñ aundiak egiten dabezan berba oneik esaten dabez: Gaztelera “España`ko Aberria`ren Izkuntza biurtu zala”.

Guzur aundia dana edozein lekutatik begituta be, gaurko egunean eurak-be ez dakielako Espaiña`ko itzak zer esan gura dauan, gure Euskeraren izkuntzan espaina`ren esan guretik aurrera.

Eta guzurtapen (refutaciòn) au egiteko, Menendez ta Pidal`tar Ramon`ek (1.869`an A-Koruña`n jaio eta 1.968`an Madrill`en il zana) bere liburuan “España y su Historia” I`go atalean 80 orrialdeko zenbakian “Los nacionalismos” eta 81`ean argitu egiten dauan “La cuestiòn lingüística” idatzitakoari aurrera urten da, guzurtagarrian ipiniko dogu.

Berak, idatzitako lan guzti oneitan asieratik “Espaiña`”ren itzari emoten dautso leentasun edo nagusitasun guztia, erdi-ugarte oneitan Homo-Sapiens`etik gaur arte olan izan-balitz bezala, Menperatzaille asmakizunezko agindu-naiari, jendekuntzaren aztura-bideko jakintzaren trebetasunean lortu diran aurrerakuntza guztiak eurenak izan balitzaz bezala.

Ez da konturatzen edo ez dau kontuan artzen: “JAINKOA`k ipinitako Berezta-sunaren LEGE-bidetik argitu bear direla gure erri-gizarteen arrazoizko edestiak.

Olan ez-balitz, berea dan jakituri aundiagaz, erri-gizarteak, gaur gagozan-lez, bide-lokatz baten ongaizkatuta edo berezko-egi ta guzurrezko arrazoiak batera dirala bide baten naastuta izten dabezelako.

Ez da Menperatzailletasunezko maltzurkeri bidez egin dan beartutako batzangotasun ori...., gaur maltzurkerizko Espaiña`ren egoerak aurkeztu egiten gaituena ?.

Nortasunezko erriak, erri-zentzunezkoak bezala itzarmen bidez ondoratu edo urbildu egiten dira, danon bizi-arazoak eramankorrek egiteko.

Ez oldoztu edo gogoan izan, indarkeriz, nortasunezkoak diran eta ez diranak zorro baten sartuta... eta naste-borraste orren bata-bestien zapalkuntzaren bidez konponketarik urtengo danik. Ortik, borroka-latzak baiño ez diralako agertzen.

Demokrazia`k, arrazoizko-orde bidez, bakotzari berea emotea eskatzen dau, danok JAINKOA`ren argitasuna ikusi bear dogulako. Eta zorro orren barrutik zelako argitasunera agertu ?.

Ikusi daigun “La cuestiòn lingüística”ren azalkuntzan, zer esaten dauan Menendez ta Pidal`tar Erramon`ek:

“Modernamente en los movimientos secesionistas se concede la mayor importancia a la diversidad de la lengua. Mientras la cultura tiende cada vez màs a la uniformidad universal, se valoriza màs la individualidad de múltiples culturas menores, representadas por lenguas cuyo desarrollo histórico no puede decirse completo, en comparación con las grandes lenguas culturales. El vivo interés científico y literario despertado modernamente hacia las lenguas menos estudiadas antes, sirve de apoyo al interés político por las “pequeñas naciones”, y èste no aprecia el diferente papel que representan las grandes lenguas hegemónicas y las que no tienen una sustantividad tan firme, por no tener un cultivo tan intenso y original como

las otras, ni tan continuado y sin vacíos extensos. El flamenco, el estonio, el irlandés, el catalán... vienen a tomar un valor representativo de aspiraciones políticas; lenguas que nunca fueron de cultura, como el vasco, hacen desesperados esfuerzos por querer serlo y bastarse a sí mismas. En suma, se tiende a igualar en la consideración histórica las grandes lenguas de la cultura con las pequeñas y hasta con las antes no existentes como tales”.

Urrengo lerroak irakurrita, España`ri baiezko erantzun antzeko bat egiten dautso: “A propósito debemos desde luego notar, respecto a España, que ni el mayor individualismo ibérico produjo mayor diversidad de lenguas, ni esta diversidad obró como determinante en las disgregaciones históricas que hayamos de recordar”.

“El reino de Navarra, desde su comienzo en el siglo X, usó promiscuamente dos lenguas habladas, el vasco y el dialecto navarro, afín al castellano, y como lengua escrita sólo usó el latín y el dialecto románico, pues el vasco no comenzó a escribirse algo sino en el siglo XVI”.

“Lo mismo el reino de Aragón, desde su principio en el siglo XI, fué bilingüe por su condado de Ribagorza, cuya mitad oriental habla catalán, y el bilingüismo del reino se afirmó cuando se le unió en el siglo XII el gran condado de Barcelona, el cual desde entonces dejó de llevar vida aislada, formando un estado único con Aragón”.

“Así, pues, durante los muchos siglos en que la fuerza centrífuga del localismo estuvo en su auge, pues lo exigía el desarrollo de la vida nacional, un bilingüismo constitutivo, inextricable (difícil de desenredar, muy intrincado y confuso) se extiende por todas partes”.

Pidal`ek bere España`ren elburutasunean ez dabena esaten:

a) Erromatarren menperatzailletasunezko ta odolkerizko ekintza areitan, zelako izkuntzaren aurka sortu ziran izkelki-baragarri aiek, ez ziranak latin-kume egin berandu arte eta zer sortu zan IV`n. mendean Nizea`ko Eleiz-Batzar-Nagusitik aurrera.

b) Erdi-Ugarte oneitan, VIII ta IX`garren mendeetan sortu ziran erregetzak, zelako antolamenduaren baldintzetan sort-arazi ziran eta beartuta noren aolkularitzapean.

d) Orduko erregeen artean, zelan sartu ziran errege batzuk beartasunezko batzagosunaren eritzi bidean eta eritzi orreik zelan lortu eben euren maltzur-elburua izkuntz ta Nortasunetan 1.789`ko Frantzia`ko iraultzaren ostetik.

e) Gizarteko siko-genetikan sortzen dan antzera, bardiñ sortzen da toki-izenaren agerkietan, bereztasunaren lege bardiñeko baldintzatan oñarrituta gagozelako.

f) Ortik aurrera eta gaur arte, zelako guda-alegiñak egin dira batzangotasunezko-Menperatzaille eritzi orreik garaipendu daitezcan.

g) Edesti orren ondorio bidez, zelako arazoetan bizi-gara gaur, gure erri-gizarteetan.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.008`an EPAILLA`ren 25`ean

EUSKALERRIA`ren EGIA: IV ERRI-ASKATASUNA ta JAKINTZA

MNENDEZ PIDAL`tar RAMON`ek ESATEN DAUANA BEREZKO ABER-
ZALETASUN edo ERRIKOTASUNA`gaitik:

Pidal`ek Berezko Errikotasuna`gaitik esaten dauana:

“Modernamente en los movimientos secesionistas se concede la mayor importancia a la diversidad de la lengua (I)”.“Mientras la cultura tiende cada vez más a la uniformidad universal, se valoriza más la individualidad de múltiples culturas menores, representadas por lenguas cuyo desarrollo histórico no puede decirse completo, en comparación con las grandes lenguas culturales (II)”.“El vivo interés científico y literario despertado modernamente hacia las lenguas menos estudiadas antes, sirve de apoyo al interés político por las “pequeñas naciones”, y éste no aprecia el diferente papel que representan las grandes lenguas hegemónicas y las que no tienen una sustantividad tan firme, por no tener un cultivo tan intenso y original como las otras, ni tan continuado y sin vacíos extensos (III)”.“El flamenco, el estonio, el irlandés, el catalán.... vienen a tomar un valor representativo de aspiraciones políticas; lenguas que nunca fueron de cultura, “COMO EL VASCO (V)”, hacen desesperados esfuerzos por querer serlo y bastarse así mismas. En suma, se tiende a igualar en la consideración histórica las grandes lenguas de la cultura con las pequeñas y hasta con las antes no existentes como tales (IV)”.

GUZURTABIDEA (refutación):

(I) .- “Modernamente en los movimientos secesionistas se concede la mayor importancia a la diversidad de la lengua”:

Jakitun onek lerro oneitan, ez dau kontuan artzen edo baztertu egiten dauana da:
a).- Berezko izkuntz bakoitza, leiñu edo erri-gizarte ezberdiñen artean, Nortasunezko izkuntza dala, bere jakin-egarriaren bakardadeko aztura-bidean, bizitzari emon eutsoezan adierazpenak, erri-izkuntz orreitan zentzun aundiz, azalduta dagozelako.

b).- Belaun-aldiz Mundu oneitara jaioten garanean, amaren bulerretik xurgatzen dogun bezala, arbasoen izkuntzazko oituraren esabide-eder orreitatik artzen doguzelako bizitz-oneitan bear doguzan zentzunezko baldintzak, orekan eta batez-be bakez bizitzeko.

Adibidez: Oituraren edo eta azturaren legezko-bidean bear doguzan etika edo moral`eko zentzuzko zeaztasunetan.

Erlijio arloan: JAINKOA eskertzeko ta BERA`ri egiten dautsaguzan eskaerak bizitz onen izatasuna eukita edo BERA`k ipinita daukazan LEGE-baldintzaren eskabideak ulertuta, zentzun aundiz aurrera egin daigun.

Jakintza arloan: Bizitzako azturan bear doguzan arlo guztietako ulermenaren Jakintzan, bakandutasunezko trebetasunetik, erreztasunez zentzu ederrenean aurrera egin daigun eta abar.

Eta aundienetariko bat: Gure Mundu oneitako agerkeran, belaunez belaun beragandik artzen doguzelako daukaguzan izatasunen izaeran: Izkuntz, izena ta abizen guztiak, daukagun NORTASUNA beragandik artzen dogulako, bizitz oneitan “ZER” edo “NOR” JAINKOA`k gure ARIMA`i emon dauskun aukeran, gure borondate-on edo txarrean bizitzeko.

Bestela begitu: Gure arbasoak bizitz oneri emon eutsoen adierazpeneko erantzuna noraiño eldu zan, eurak izkuntzaren geneakaz batera “JAINKOA`ri BEGIRA..., LEGE-ZARREA`n OITURATU EBEZAN eta ASKATASUNA`ren DEMOKRAZIZKO SIÑISMEN EDERRA`k” emon euskuezan. Orain Espaiñol`ak, euren oldozmeneko gogoetan daukiezan sinisteakaz aurrera egiten ba-dabe, mailla orreitara sekula ez diranak elduko, bereztasunaren bidegaz ez ba-dira alkartzen.

Mundu onetan: Ez da au benetako....., edo “BEREZTASUNA`ren LEGE ordezkotzan artzen diran benetako ERRI-JAKINTZA`ren JENDEKUNTZA`k ?”.

Izkuntza`k eta Euskerazko izkuntz-zaarrak batez-be, Berezkotasunaren zentzuan emoten dauskuelako izatasunaren NORTASUN`ak, orreik dira jendekuntzazko izkuntzak (idiomas de cultura) eta Pidal`ek: “Sasi-jauntzaren guda-beartasunekaz”, euren bereztasunezko legean ez dausielako urbiltzen itzi..., “BEREIZTALDIKOAK (secesionistas) DIRALA ESAN ?”.

Bereztasunezkoak..., zergaitik babesten dabez EUSKALERRIA-LEZ euren izkuntzak, bereiztaleak izateko, ala..., jakintzazko aztura-bidean milla urte askotan lortu daben SINISMENDUNEZKO NORTASUN-DEMOKRATIKOAK zaintzeko ?.

JAINKOA`ren aurrean, NOR-BEREN ardurak NOR-BERENAK dira !! Ez da danontzat bardifi..., BEREN LEGE ori ?

Liburu au 1.957`an egin eban eta geroago izan zalako (irurogei`ko amarkadan) ez zan konturatuko Euskereagaitik (berak maite ebala esaten eban) esango ebanagaz: “Gaztelera`ri 1.971 Euskal-itz sartu eutsoezala zentzuan sendotzeko”. Zeiñ da JENDEKUNTZAZKO-IZKUNTZA gaztelera edo EUSKEREAA ?.

Oraiñ ikusiko dogu, Pidal`ek zeifitzuk izkuntzai esaten dautsen, JAKINTZA-AUNDIKO izkuntzak dirala.

(II).- “Mientras la cultura tiende cada vez màs a la uniformidad universal, se valoriza màs la individualidad de múltiples culturas menores, representadas por lenguas cuyo desarrollo histórico no puede decirse completo, en comparación con las grandes lenguas culturales:

Mundu onetako JENDEKUNTZAK, BEREZTASUNEZKO-LEGE`ak bideratzen gaituen lez, leen: “Gai`ezko Mundu au danoentzat dalako”. Eta bigarren: Daukan LEGE-GAI-BAKAR onek oiñarri baten lotu egiten gaitulako ERRI-GIZARTEAK Beti !! arrazoidun-giza lez joango dira alkarren arremenetako itzarmenean urbiltzen, Mundu onen ulermeneko garaipena antza, gure gai`tutako ARIMA guztien garaipena izan bear dalako.

Baiña, zer gertatzen da...., gure abere-legean urbiltzeko edo batzangotzeko egiten doguzan alegiñekin?: "Bereztasunezko legeak alboratu ezker, gure aberetasunezko legean agertzen garela" eta lege orreik abere-legeak diran lez, indarraren odolkerizko sarrasketan (exterminio, degollina) egiten doguzela, norkeriaren naikerizko arrazoi-ustel orreik garaipentzeko.

Mundu oneitan, Erromatarren`gandik gaur arte egin bear izan diran gauza guztiak, indarraren ta odolkerizko aberetasunaren jendekuntzan (civilizaciòn) egin dira, sasi-aunditasunezko arrokeriz eta diru-lilluralekeriaren amets, Mundu onek gizarteentzat daukazan balio-on guztiak euren kontrol`pean edo agintaritzan eukiteko.

Arrazoi-bako ekintza orren bidez, Mundua bera !! lurralde-nagusietako (continentes) aurkari edo eta adizkide-ezin diran jendekuntz-aundietan banandu da.

Pidal`ek, nor-geiagoko ekintza orreri bidez lortzen diran batzangotasunezko menperatzailletasunak deitzen dautso urbiltasuna?. Norkerien edo arrazoi-bako biltze orreik, gaur orain-be gudarako eratzen dabizenak, Mundu au guda-nagusi bateko arrisku edo galbidean kokatuta izten gaituenari?. Ekintza ori, asieraren gabekotasunezko-arrazoiaren ezberdintasuna batzea baiño ez da, mamu-tzar aundien antzera, goitik-bera keiñuka daukaguzenak noz iruntsiko.

Ez dogu bear Pidal`en arrazoitasunik urbiltasun orreik ikusteko, JAINKOA`k Mundu onetarako bereztu ebazan LEGE`ak erakutsi ta bideratzen gaituelako. Sasi-jaukotasunik gabe baiña !! GURETATIK IÑORK EZ DALAKO NOR !! Mundu oneitan bere oldozmeneko legerik sortzeko. Ala BERE`ak, ez izango ete-dira naikoak?

Eta...., zeri esaten dautso Pidal`ek: "Jakintza`ren mailla aundiko izkuntza?"

Erdi-ugarte oneitatik, Ameriketara eta Filipinas`era kolonigille edo erri-irasleen arpegi-ordezkatzen (disfrizado) mozarrotuta joanda: Euki ebezan izkuntz, giza-bereiztasunean nastu, erlijio ta oiturak espataren indarragaz buruak zabaldu ta barruan katolikotasunezko ikasbideak gazteleraz nai-ta nai-ez sartu, urrezko mozkin guztiak lapurtu eta gaur daukien gaztelerazko izkelki txarragaz eta nortasunik-gabe bertan itxita....., eurak ainbeste diralako, gaztelera orreri esaten dautso JENDEKUNTZAZKO-IZKUNTZ NAGUSIA?. Ori !! len esan dogun okerra edo korapilloa, aundiagoa egitea baiño ez da.

Pidal`ek, edestian zear egin zan lez, bereztasunezko erri-gizarteak kontuan euki gabe, Menperatzailletasunaren jendekuntzazko (civilizaciòn) arrazoi-ustelari emoten dautso aintza guztia, sasi-jaukotasunaren egizko andi-mandikerian (boato), danon ardurak eurak artuta egin ziran eta egiten diran norkerizko guzur onei.

Danoren ardurak euren eskuetan eukinda...., danoren lanak eurak egiteko?. Eurak-be ez dabe sinisten ori. Ala..., erri-bereiztasunaren bidez bakoitzak daukazan ardurak euren kontrolpeko ta aginpideko eskuetan eukita...., espetxe ta zigorraren keiñuagaz bete daiguzan?.

Ez dira konturatuko...., orain 2.761`urte egon zan berezko leiñuen auzotasunezko antolamendura joan bear dogula, andik asi-ta BEREZTASUNEZKO LEGE-BAKARRA`ri ondo oratuta, Erromatarrek zirriborrotu ebena eta gaur arte guzurrean ta oker-bideratuta datozen arrazoi-gauzak, zuzendu dagiguzan?.

Ez ba-gara konturatuten, etorkizunezko ekaiztsu denborak daukaguz aurretik.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.008`an EPAILLA`ren 31`n

EUSKALERRIA`ren EGIA: V JAKINTZAREN

EDESTIA

(III).- El vivo interés científico y literario despertado modernamente hacia las lenguas menos estudiadas antes, sirve de apoyo al interés político por las "pequeñas naciones", y éste no aprecia el diferente papel que representan las grandes lenguas hegemónicas y las que no tienen una sustantividad tan firme, por no tener un cultivo tan intenso y original como las otras, ni tan continuado y sin vacíos extensos":

Etrusko`ak Griego`en izkitegia artuta Latiña sortu eben, Arno ta Tiber bitartean egoan izkuntz-bat`eri zentzun aundiko gorputza emon naian, gero Emilio`tar Kinto (K.a.239-169) Afro ta Publio`tar Terenzio (K.a. 185-159) eta Luzilio`tar Kaio`k (K.a. 160-104 ?), erinduten joan zirana, Mundu guztiko erri-gizarteak, jendekuntzazko izkuntza-lez on-artu dagian.

Pidal, ez da konturatuten baiña: "Latiña", danon arteko konpon-bidetik limurtagarrizko izkuntz-nausigo-lez agertu egin bazala, atzean ez ebalu eukingo maltzurtasunezko guzurrik, ez da Menperatzaille-gaiztotasunik, erri-gizartean artean limurtzaillezko sinis-bidetik sartuko zalako eta gaur, beste edesti-baten aurrean egongo giñelako.

Gaurko erri-gizarteetan, bakoitza beren NORTASUN`ezko ekintzan JAINKOA`ri eskerrak emoten, askoz aurreratuago egongo giñalako, BERE`n BEREZTASUNEZKO LEGE`ak eskatzen dauskun-lez.

Baiña, Menperatzailletasunezko jendekuntzan asmatu ziran ekanduzko amets orreik, eta maltzurkeriz, bereztasunaren arrazoizko lege ordezkia izan bezala odolkerizko-indarkerian sartzen asi ta iraun !!. Or gabiltz Mundu`ko erri-gizarteak 2.761`urte luzeetan, JAINKOA`ri begira odol-jarioz, gure Nortasunaren ordezkio-ardurak babesten.

Gure ARIMA`k Mundu-fisiko onetan gizatzen diranean, agerkizun fisiko-lez, neurtasunezko bizi baten ezartzen gara, BERE`n LEGE`ak ardurazko ordezkotzan sartzen gaitulako eta orren erantzun bidez ez gara izango POLITIKUAK-BA ?. Gaiñera, jakintsuak...., ordezkio ardurai POLITIKA`ren izena ezarri ba-eutsoen ?.

JAINKOA`k, ez leikegu parkatuko sekula, NORTASUNA`ren ARDURAZKO-ORDEZKOTZAN alango uzkundera egiten badautsagu BERE`n LEGEA`ren agindu edo esanari.

Pidal`ek gaiñera, berak dauka bere buruan aurkaldi (contradicción) gogor-bat.

Adibidez, gaurko laterri erritar ezberdiñen artean, euren bereiztasunen (características) gora-beran egiten dauan siko-azterketa onetan: "Ingles`ak, gauzaren erabakitzean, beti gogoratzen dirala edo erabakitzen dabela egin baiño len". "Frantsesak, euren bizkor edo presadunezko arrokeriagaitik, sekula ez dabela erabakitzen, gauzak eginda agertu arte" eta "Española`k, euren zeregin-gabeko begiratzean, sekula ez dabela erabakitzen gauzak eginda joan diran arte".

Ez dau egiten Euskaldunen aipamenik, bera Europa zatituta dagoen laterri menperatzailletasunezko kaizertzakaz lilluratuta egon zalako, baiña gaur bizi bazan eta Euskerea ain maite eukinda berak esaten eban lez, EUSKADI beren ordezkio

arduratan ikusteagaz batera, ez zan konturatuko...., ORDEZKOTZA....., NORTASUNAREN ARDURAZKOA...., BAKARRIK DALA ?.

Pidal berak, gura ezin gabe esaten dau, Espaiñol bereiztasunaren gora-beran egiten dauan siko-azterbidean, Laterri oneik Nortasunaren Menperatzailleak diranak ez dirala zuzenbidekoak. Bizitzaren berezko antolamenduan, kontuan artu bear dan garrantzizko gauzarik aundiena: "ORDEZKARITZA, NORTASUNA`ren ARDU-RAPEKOA DALA SINISTEA, EUREN EGINKIZUNETAN, EURAK BAKARRIK DIRALAKO JABE EGITEN DABEN GAUZATAN, MUNDU ONEN ZENTZUA, BERE`n LEGE`akaz OIÑARRI ORREITAN EZARRITA DAGOALAKO".

(IV).- "El flamenco, el estonio, el irlandés, el catalán... vienen a tomar un valor representativo de aspiraciones políticas; lenguas que nunca fueron de cultura, como el vasco, hacen desesperados esfuerzos por querer serlo y bastarse a sí mismas. En suma, se tiende a igualar en la consideración histórica las grandes lenguas de la cultura con las pequeñas y hasta con las antes no existentes como tales":

Pidal`ek bein eta berriz, bereztasunezko izkuntza`ren balio-gabetasuna osteratu egiten dau ezeren lotsa-barik, nortasun-gabeko Latin eta latin-kume orrei eman-aitasun edo ospe aundiena emoten dautselako.

Nik esaten dautsat, "maltzur ta guzurrezko lan ori egiteko ez zala bear ainbesteko jakituririk".

Bizitzan, bereztasuneko-legean eraikiten diran gauzak, maltzurtasunezko-guzurrean egiten direnak baiño, erreztasun aundiagoagaz ezereztu egiten diralako eta geiago, eurak jakinen-gaiñera erri-gizarteetako ekanduaren ordezkotza-jakintzan sortzen daben naste-borrasteakaz.

Eta gure gaurko ekintzan, bereztasunezko erri-gizarteen edestian, bizitzaren antolamenduzko gauzak sasi-kaizertzazko siniskerian egin eben-lez...., gaur demokrazizko ordezkartaren-antolamenduan eta eurak egiten daben menperatzailletasunezko eskabidez, gauzak frogapen edo siñezpideko bidetik argitu daiguzan sasi-denborak luzetzeko, bereztasunezko bidera eroateko alegiñean gabiltz.

Kostako jaku, 2.761`eko urteen okerra beren berezktotasunaren lekura eroatea. Nai-ta gaur, berezko legea`ren aurka aiñ urrun joan garalako, bizi onen bereztasunezko-legeak premiña aundietan sartu, guzurrezko oker orreik ainbestekoak diralako.

Aunditasunaren ospeko menperatzaille-eritxi orreitan sakon sartuta... Ez zan konturatuko...., berezko errien iltzaille zala ?. Eta gaur bizi ba`zan zer esango eban ?.

Dana dala esan onekaz emoten dautso amaiera arlo oneri: **"Así pues, durante los muchos siglos en que la fuerza centrífuga del localismo estuvo en auge, pues lo exigía el desarrollo de la vida nacional, un bilingüismo constitutivo, inextricable (difícil de desenredar, muy intrincado y confuso) se extiende por todas partes":**

Ez dakit zer esango eban gaurko European sortzen danagaitik Laterri-meperatzaille eta alderdikerezko-katolikotasun oni buruz, baiña uste dot, burua nekez makurtuko ebalá, maltzurrezko okerkerian esandakoak aundiak diralako, sei`garren idaz-lanetik aurrera ikusiko doguzenak.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.008`an JORRAILLA`ren 1`ean

EUSKALERRIA`ren EGIA: VI JAKINTZA ta IZKUNTZAK

(V).- Lenguas que no fueron de cultura como EL VASCO, hacen desesperados esfuerzos por querer serlo y bastarse a si mismas y ser lenguas hegemónicas:

Esan guzti au, bost zatitan bananduko dogu, bakoza beren guzurtabidea eroan dagian.

a).- "Lenguas que no fueron de cultura como EL VASCO".

b).- "Hacen desesperados esfuerzos por querer serlo".

d).- "Bastarse a si mismas".

e).- "Lenguas hegemónicas".

f).- "Lengua Madre y Nación".

Orrelango baiezko itz-gaiztorik, ez eban sekula esan bear alango jakituri aundiko gizon batek eta Pidal`ek gitxiago, jakitun aundia izan zalako.

Egia da, bera 1.968`an il zanetik ona, edestiaren azteraldi-lanezko aurrerakuntzan, zeaztasun asko argitaratu egin dirala, baiña aurrerakuntza orreik, berari ez dautso aitzakirik emoten esan orreik azaltzeko, Euskerea`ren gora-beran asko jakin ebalako.

Euskerea`ren edesti gora-beran gaur asko dakigu, azter-lan ondokoi (de mucho fondo) edo zorrotzak egin diralako.

Orregaitik dakigu gaur, Homo-Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunen iru itz auen xeetasunezko adi-mugan (definición), Euskal izatasunarena dala, egin diran sakonezko azter-lan orreik argi azaltzen dabena.

"LENGUAS QUE NUNCA FUERON DE CULTURA COMO EL VASCO":

"JAKINTZA": Gizon-emakumeak edo eta erri-gizarteak, alkar-ulertzaren bizitzarako bear dauan arlo guztietako ezaguntzari esan edo adierazpentzen jako.

Adibidez: Gizon/emakume edo Erri-gizarteak euren oardunezko aztura bidean eta euren artean berbaz ulertzeko lortu eben IZKUNTZA, EIZARAKO bear ebezan TRESNERIA, OSASUNERAKO bear ebezan BELAR-EZAGUNTZA`ri, ERLIJOAN, euren arteko JENDEKOITASUNEAN (sociabilidad) ARDURAZ`ko-ORDEZKOTZA`n LOTSA`ri, NEKAZARITZA`n, LANGINTZA`ren TREBETASUNEAN eta abar asko.

Eta jakintza`ren arlo guzti orrerik xeetasunaren bakantasunean aztertuta eta erinduaren maillan zelango obekuntza artu daben ikusita, gizon-emakume ta erriak, JAKINTZA`ren neurri-maillan erroldatu (catalogar) edo maillazko-iritzian (calificación) ezartzen dabez.

JAKINTZA itza`ren esangura adi-mugatuta zer dan jakin-da eta azkeneko izotz-ostetik Europa`ren lenengo gizakiak Homo-Sapiens eta Kromañon, Euskaldunak zirala jakin eta milla urte askotan leenengo euki eben izkuntza Euskerea zala..... Pidal`ek, zergaitik esan eban !! EUSKEREAA ez zala jakintzazko izkuntza...., Homo-Sapiens Afrika`tik zabaltzen asi zanetik eta gero milla urte askotan..., Europa ta Asia guztia Euskereagaz lur guzti oneik erritu ba-ebezan?.

Paris`en, ez dago ba.... ondo erroldatutako lauki baten, Europa ta Asia`n ezagutzen diran izkuntz guztien izendegia, Euskerea danetatik zarrena dana eta beren sorburua ezakizun-lez (incognita) irarrita ?

Argi dago, Pidal`ek menperatzailetasunaren JENDEKUNTZAN berba egiten dauala. JAINKOA`k bereztasun oneri ipini eutsozan legea`ak ez ebazalako kontuan artzen, aberetasunezko sasijainkoaren okerkerienak baiño, bere maisutasunaren jakintza guztiagaz, Mundu onen gizakia`ri amiltegirako bideak landu ta erreztuta.

1.957`ko inguruetan...., Franko`k, menperatzailetasuna ezarri eta beren garaipena betirako izan balitz-bezela..., agindu eutsolako ?

“Hacen desesperados esfuerzos por querer serlo”:

Bereztasundutako Mundu oneri, Erri-gizarteak euren jakin-egarritasunezko aztura bidean eta gaitasun oneri ulermenduzko adierazpen bat emon naian, azter-lan orreitan lortu eben izkuntzaren izena artzen eben eta alan ezagutzen ziran erri-gizarte guztien artean, bakoitzak beren Nortasunezko bereizkuntza artzen ebalako.

Orregaitik, ez da Pidal`ek esaten dauan antzera: “Euskaldunak alegiñik aundienak egiten doguzela, Euskaldun izan-gurean”.

Gure bizitzaren ulermeneko Nortasun zentzu ta izaerak ezereztu egiten diralako baizik !! Danok daukagun giza-bereiztasunetik erri-gizartearen bereiztasunean NOR izatera eldu giñalako. Eta Nortasunaren berezko ardura dalako, ezereztasun ori.... nor-beren gorputzaren ilketa-lez izango litzakelako.

Geiago, LEGE`aren egarri bizi onetan beartuta....., nor-beren ardurak bastartu !!.. bestien ardurapean bizitzeko ?. Zelako bizitza izango zan ori ?

JAINKOA`k Mundu onetara, askatasun osoz !! arteko ordezkotzaren ardurapean bereztu egin gaitu eta orregaitik menperatzaileak sekula ez dabe irabaziko, BEREN BORONDATE on-ori gure ARIMETAN irarrita (impreso) ekarten dogulako.

Mundu onetan gizarteko-eskubideak izanda nagusi...., sasijainkotasun eritzi orregaitik beti borrokan ibili bear ote-gara ba?.

“Bastarse así mismas”:

Maltzurrezko esaera onek alan esanda, arrazoi gabekoa dalako, ez dau bear itzaldi luzerik, bizitz-oneitan gizon-emakume edo erriak diranak: “IZAERA`ren ZENTZUA ARRAZOIZ ERAKUTSI edo eta AGIRIAN-ITZI BEAR DABELAKO”. Eta JAINKOA`ri begira, bizi au “ORDEZKO-ARDURAN” egin bear dan gauza bakarra dalako, danon bakeak lortu gura ba-dira.

“Como las grandes culturas hegemónicas lo hacen:

Pidal`ek gura-nai ez, “EUSKEREAA”, “NAGUSITASUNEZKO IZKUNTZ BAKARRA IZAN ZAN MILLA-URTE ASKOTAN”

Zer dira..., edo zelan erabilten dira “NAGUSITASUNEZKO JAKINTZA” orreik ?.

Asieratik, menperatzailetasuna jakintzan-be garaipentzen zanean eta egoan jendekuntza euren ardurapean artuta, erri-gizarteak arrazoizkoak zirela artu dagien, menperatzaile barriak sortuta...., jendekuntza orreñ jakintza nai-ta erritarren artean zabalduz joan, JAINKOA`ren eskubideko bakarrak izan ba-ziran lez, sasi-jainkotasunean...., euren artean ibiltari ?

Griego`ak, Asia ta Ejipto`ko jakintzaren jendekuntz orreik batuta, lortu eben, eraman-oneko (filosofia) eta demokrazizko bereztasunezko-jakintza biribiltasunean erindu ta inguratzea.

Baiña...., zer egin zan Erromatarrengatik asi-ta aurrerantzean ?

Oraiñarte, zer !! egin dabe menperatzaileak "Nausitasunezko Jakintza" orreik euren ardurapean artuta ?

Eurak-be JAINKOA`ri begira, Mundu onetako gizartearen urbiltasunezko alkartasunean dalako garaipena igarri dabela-ta..., Bereztasunaren LEGEA`k kontuan artu gabe eta sasi-jainkotasunezko ordezkotza euren eskuetan artu naian, dirua, merkataritza eta bizitzeko bear doguzan mozkin guztiak euren kontrolpeko agintaritzan euki, guda-indarrakaz..., gura nai-ez edo morroi-lez sasi-agindu orreitara batzangotuta egon gaitezana ?

Orreri esaten dautsoe....: " JENDEKUNTZAZKO (civilizaciones) JAKINTZAREN (las culturas) NAGUSITASUNA (hegemónicas) ?

Gure Bereztasun au, Izadi onek daukan gai guztiagaz, "BEREIZTASUNA`ren ordezkotza-ardurapean LEGEZ-OIÑARRITUTA" dagoalako, eurak zainduta iraun bear dogu aurrerantza, BERA dalako LEGE-BAKARRA. Eta guk egiten doguzan legeak Beragandik bereiztutako legeak izan bear diralako, Mundu oneitan IÑOR ez dalako NOR !! beren gogotik atarateko iñungo legerik. Mundu fisiko oneitan alan egin ezker, bestea gabetasunean geratzen dalako.

Lengua Madre y Nación:

"Ama`ren izkuntza":

Belaunez, ama ta aitaren maitasunezko irakaspenetik ikasten dogun izkuntza eta beraz artzen dogun giza-bereiztasun ta Nortasunai esaten dautsagu "AMA`ren IZKUNTZA".

"Erria":

Eta Erria, Euskalerria-lez, zabaltasunezko lurraldeetan kokatuta dagozan leiñuak: "Izkuntza", "Erljio", "Ekanduan" eta euren arteko "JENDEKOITASUNEAN" oitura bardiñekoak diranai.

Baiña zer sortzen da, Europa, Asia ta Afrikan-lez Erromatar aberekoi lakoak agertu ezker leiñuzko erri orreik menperatzeko alegiñean etorrita eta euren izkuntza ezarri gurean berezko errikoiak naastuz erderazko latin-kume izkera-baragarriak sortzen diranean ?

Orduko Euskalerrriaren biotzean bizi zirani bezela, ezer ez, euki eben sinismeneko indarragaz ostera be, bereala berrezkuratu ebezalako izkuntzaren eta beren oiturazko demokraziaren Nortasunak.

Baiña biotz orren kanpotik egon zirana, erromatarren ostetik Godo`ak etorrita euren asmo bardiñakin..., dana !!.

Mauritarrak ezereztuten joan ziranetik, Erromatar katolikotasunaren kaizertzazko asmo-iritziaren sasi-agindu-nai zaleak menperatzailetasunezko ari orrei osterabe oratu eutseelako.

Agindu-zale erdira-nai orreik edestian zear, sekula ez eben lortu batzangotasunezko garaipenik, nai-ta maltzurkerizko guda-indarrez edesti guzti au, odolkerizko zarraskietan ibili, areik eta guda-indar geiegian, 1.789`an Frantzia`ko iraultetaren bitartez Europa`n gaur daukaguzan Espaiñol, Frantzes, Aleman eta abar Laterri-menperatzaileak ezarri.

Eta..., laterri orreik nun !! AMA`ren izkuntza eta NORTASUNAK ?.

Europa guztiaren batzangotasuna ezin ebelako lortu, lurralde aundietan banandu eben. Baiña..., nungo NAZIO edo ABERRI-BARRI`ak dira ?.

Asmatutako Espaiña`ren izkuntza, gaztelera izatea gure dabe. Baiña nungo amaren tititik xurgatu dabe esnea..., gure AMA indartsu, bizirik ta esnetsu badago ?. Iñork ez dakien zer eta zertarako dan bulerretik ?. Zer da Espaiñ ori..., eurak gu gazteleratuak izatea gure ba-dabe ?.

Egia da, menperatzailetasunezko-sare orreitan jausita sinistu egiten dabenak, belaunez alan beartu egin dabezelako eta Gaztelera AMA-ORDE lez artuta daukielako, beragandik titia edaten daben ezkerro, eskubidea daukiela izkuntz ta Nortasun barri orreitan bizitzeko, asiera or berrizten jakielako. Baiña..., besteak ?.

Konturatzen dira zer egiten daben..., aurrera begira alango aurretikoak (precedentes) legez ezarri ezkerro ?.

Gaur, menperatzaile daukaguzan laterri oneik, maltzurak dira, JAINKOA`ren agindu aurrean, bizitz-au BEREN LEGE`zko bereztasunetik kanpo gure dabelako zuzendu eta bide okerragorik ezin leike artu !!.

Gaurko sozialistak, Mundu`ko Uritarrak (ciudadanos) garela lotsarik-gabe esaten dabe. Eta NEURRIAK ?. Dana neuria ete-da ba ?.

Dana dala, umeak euren aurtxotasunean-be, ez eben esango ain-oarkabeko berba`rik.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.008`an JORRAILLA`ren 5`ean

EUSKALERRIA`ren EGIA: VII ZERGAITIK LATIN-KUMEAI LEENTASUNA

Pidal`ek emen, gaurko Espaiña`ren edestiko iritzia, betikoa izan balitz lez aitatzten dau. Eta eskubide arloetan ez dago maltzurrezko okerkuntza aundiagorik, arri-aro edo paleolitikotik etorkizunezko denboratar, Bereztasunaren zentzuzko Demokrazian lortu diran aurrerakuntzak, erromatar asmakuntzatik ona ekanduan eta izkuntzatan sortu dan naste-borraste edo korapillo onekin bat egiteagaz.

“A propósito debemos desde luego notar, respecto a España, que ni el mayor individualismo ibérico produjo mayor diversidad de lenguas, ni esta diversidad obró como determinante en las disgregaciones históricas que hayamos de recordar”:

Pidal`ek bere Espaiña`ren elburutasunean ez dauana esaten edo jakin ez banean, uts egiten dautsona: Erromatarren aurretik, Britania`tik Kadiz`eraifio eta Atlant-itsasotik Alemania`raifio Euskal jendekuntz batekoak zirala eta berba, nai-ta izkuntz-zabal batek, berez beartasunezko urruntasunaren bakandutasunak daukazan mintzadar esberdiñ-antzekotik ulermendu, arremanezko ordezkotzan, ekanduzko-oitura bardiñ batetik bizi zirala.

Geiago bear eben ?. Ortik aurrera urbiltzen asi ba-giñan, giza`ren eskubideakaz gaur, zalantzarik gabe, beste edesti baten aurrean egongo giñan.

Erromatarren menperatzaille ta odolkerizko ekintza areitan, zelako izkuntzaren aurka sortu ziran izkelki-baragarri aiek, ez ziranak latin-kume egin berandu arte eta zer sortu zan IV`n. mendean Nizea`ko Eleiz-Batzar-Nagusitik aurrera.

Errez iruditu leike, orduko Euskal-leiñuen urruntasunagaitik eta erromatarrak lurralde bakar areitan, odol-jariozko ekintzaren borroka bidetik lortu ebezan mendeak, izkuntz bi bakarren artean izan zala eta euren artean ulermeneko bidean, galde-erantzunezko mintzadar edo berba`ren sorburua, Asturias`en “Bable”, Burgos-Santander bitartean “Gaztelera”, Nafarroa`ko Ebro`aren ur-bazterrean eta Aragoi`ko Iparaldean “Napar-Aragoia” eta Kataluñan “Katalan`eraz”, gogo edo oldozmen bardiñ batetik sortuta be, bardiñak izateko, leiñuak bata-besteengandik urrun egon zirala une areetan, oldozmenaren esabideko mintzo edo abots`ak, itxura edo irudi bardiñak euki dagiezan.

Ekintza orren bidez urten eben ainbeste latin-kume (Pidal`ek, Euskerea ez ba-dau emen aitatzten-be, bere buruan aurkaldi gogor bat dauka: “Latin-kume esberdiñak izan ba-ziran eta “afines” itzagaz mugatu, nondik agertzen jakien antz edo kidegotasun “afinidad” ori....., Euskerea eta Latiña`ren bitartetik ez ba-ziran sortu ?) bada- ezbadakoak. Ez zirala ezer izan, areik eta erromatar kaizertzak 325`ean katolikotasunezko “guzurra irakatsi-arte” (dogmatizar), gero menperatzailletasunezko alegiñean indartzen joan ziranak, berezkoak ezereztu gura ebazalako, gero ikusiko dogun-lez.

Ortik aurrera eta erromatarrak asmatutako “katolikotasunezko aberri-barri (facineroso nacional catolicismo) fazizta-izkillodun” orren bidez, berezko erri ta izkuntzak, ezereztuteko alegiñean dabiz, Mundu onetako gizarteak, eurak asmatutako

kaizar ta erlijio bakar bateko batzangotasunean sasi-jainkotasunezko iritzian iraun dagigun, erri-gizarteak morroi-lez erabilita.

Ez da alegiñezko egokitasun-maltzur ori..., gaur Mundu guztian sortzen jakuna ?.

Mirarizko Euskalerrria bere senezko izkuntz ta sinismenean zirriborrotu-bako bakarra geratu jakie eta gaur-be or dabiz eskubi ta ezkertiarrak (Azkeneko oneik, euren izatasuna jakin edo zergaitik dan ulertu barik, eskomatarren jokua eginda. "Socios o socialistas ciudadanos del Mundo dicen ultimamente que somos: "¿ De què mundo pero.... si estan haciendo el juego a una globalizaciòn impuesta por el nacional-socialismo fascista contra el que ellos precisamente nacieron ?". Para que carezcamos de toda identidad y facilitar la condiciòn del borreguismo ?) erri-gizarteak eta izkuntzak, Euskalerrria eta Euskerea lez ezereztu naian.

Begitu bestela zer agertu zan 2.008'an Jorrailla`ren 26'an DEIA aldizkarian: "Sabian què: "La revista de Rouko Varela ilustra con un anagrama de ETA un artículo sobre las "trabas" al castellano y a la religiòn en la enseñaanza en EUSKADI ?".

Ez dira konturatzen...., oraiñarte berezko izkuntz ta errigizartearen aurka egin dabezan ezereztasunezko alegiñean naikoak dirala !!. Gaiñera...., JAINKOA`ren LEGE`zko diran giza-eskubideak 1.683 urtetako epean...., odol-jariozko ekintzan zapalduta ekarri ba-dabez ?.

Ez dira konturatuko.... JAINKOA`k ipinitako LEGEA`ren aurka ezin dala joan ?.

Badakigu 325`eko Nizea`ren Eleiz-Batzar-Nagusi`tik 1.453`ra katolikotasunezko siniskai eritzi gogor baten eroan ebalu Europa`ren jaurkintzazko aolkularitza eta ortik aurrera agintasan osoan 1.789`an Frantzia`ko iraulketararte. Baiña gaur-be, eurak ez dabe eroaten aolku-aginte ori.... KRISTAU-LEZ mozarrotuta ?.

Europa`ko guda guztiak.... euki dabe Bereztasunezko zentzurik ?. Zer gertatuko da azter-lan bidez gauza guzti orreik ikertzen diranean ?. Ez daukie lotsarik !! eritzi orreik uts egin da gero....., geroko edestiaren idazleak ipini dauskuezan izen-ondorengoakin ?.

Pidal`ek, menperatzaille-katolikotasunezko sinismenean sakon sartuta egoalako (obnubilado), bere jakintza aundian, ez eban banatzen jakin, Mundu onetan zer diran JAINKOA`ren LEGEA`k eta ze legea`ri buruz, giza eta erri-gizartearen Berezko-Eskubideak dirala-ta jokatu bear dogun ekanduzko ordezkartizan. Mundu onetan, JAINKOA`ren LEGEA zer dan jakinda, DEABRUA`k bakarrik jokatu leikelako, beren sinismenaren aurka. Eta "bera, ez zan DEABRUA".

Pidal`ek, jakiñaren gaiñetik urrengo lerrotan esaten dau: "El reino de Navarra, desde su comienzo en el siglo X, usò promiscuamente dos lenguas habladas, el vasco y el dialecto navarro, afin al castellano, y como lengua escrita sòlo usò el latin y el dialecto romànico, pues el vasco no comenzò a escribirse algo sino en el siglo XVI".

Pidal`ek ez dauana esaten: Nafarroa`ko erregetza, Europa guztikoak lez, erromatar asmakizunean etorten zan batzangotasunezko eritzia Konstantino`k eleiztarrakaz batera, beste era-barri baten antolatuta, zabaldu eben "katolikotasunezko-aberri" sare orren barruan erorita (entrampados) geratu zirala, iñora iges egin ezinik.

Alde batetik: Siñezkintzaren (dogmatismo) sinismeneko naste, lausodura edo illuntasun (obnubilaciòn) orretatik gatz izan zalako urtetea, nor-bera ekanduz-kanpoko damuan geratzen zalako eta alderantziz, aurrera egin ezkerro eleiza`ren aldetik eskomikatuta geratzen ziralako. Orduko arau-agintariak (imperio), lege orrein sinismenak galtzen ebezan erregeai edo eta Nafar`tar errege`ari bezala Euskal-bereztasun askatasunezkoak ziralako, aurkakoak-lez artuta, beren ezar-lekuak aske izten eutsoezan euren jokuan ibiltzen ziran printze edo erregeai, onean nai guda bidez bere erregetzan ezarri daitezkan. Eta olangoa izan zalako maltzurrezko joko ori, oso latx biurtzen zan sare orretatik urtetea.

Baiña, nai-ta denbora aiek olango illuntasunezkoak izan, Nafar erregeak tinko eutsi eutsoen euren nortasunezko izatasunari, sare orren barruan ainbat artegatasun ikusita.

Orduko Aita-Santuak ikusita, Nafarroa`ko erregeak euren nortasunaren zentzuzko senetik ezin ebazala atera, beren maltzurrezko txeberak-be ibiltzen ebezan, adibidez: Legezko errege guztiari eskutizetan idazten ba eutsoen "R̄EX ḠARTIA DEI", Napar erregeari "DUX GRATIA DEI" esanakaz zirikatuko eben eta abar.

Beste alde batetik begituta: VI`n Santxo Jakintsua`k.... zergaitik agertu zan beartuta EUSKERIA "LINGUA NABARRORUM" izen aundiakin izendatzeko...., aurkako ekiñalde aundi bateri aurrez-aurre urteteko izan ezik ?.

Eta VII`n Santxo indartsuari bardin: Bera Aita-Santua`ren esanari begiratzeagaitik, kanpoko Mauritarren lurraldeetan gurutzeko-gudan ibili zala, VIII`n Alfonso`k guda-keiñu bidez, lapurtutako Araba ta Gipuzkoa on-artu eta abar asko, Fernando lotsagabeak, II`n Julio Aita-Santua`ren eskerniatutako (falsificada) berun-idazki(bula) bategaz eta indarkerian 1.512`an Nafarroa eta gero Euskalerrria Aita-Santua`ren baimenagaz menperatzea on-artu arte.

Bestetik: Goian esan doten lez, Kaledonia`ko Pikto Euskaldunak eta emengo Euskaldunak, Euskeraz berba ta idazten ebala. Ez gaurko Euskalerrrian bakarrik, Errioxan, Ojakastro`ko erritarrak ain zuzen XIV-XV`n gizaldirarte badakigu Euskeraz berba egiten ebela, baiña... noz arte ?. Eta XVII-XVIII`n gizaldian (Ueska`n) Aragoi`an be egiten zala.

Eta Euskerea inguru orreitan galdu bada, katolikotasunaren-aberritasunezko (nacional-catolicismo) indarkerien alegiñagaz sare orreitan lakioratuta (entrampados) Nortasuna galtzen joan ziralako dala. Bai !! Madril`eko laterriaren jaurkintzak, lurraldeetan ipinitako guda-indarrak, errietan ipinten ebazan agintariak eta bialtzen ebazan idazkarien lanakaitik, lan guzti ori apaiz-lekaide`en maltzurkerizko ekanduak biribilduta. Europa`n eta batez-be erdi-ugarte onetan sinistu ezinezko alegiñak egin dira, Bereztasunaren Demokrazizko-Askatasunean geratzen dan oiñarrizko bakarra, desagertu daiten.

Ez gaitezkan aaztu Franko`ren denboran, kanpotik Euskalerrira ekarten ebazan irakasleekin eta abar.

Ainbat eramakizunezko-lana (trabajo de sufrimiento) egin dabe gure apaiz-lekaide aberkideak JAINKOA`k gai oneri bereztuta ipinitako LEGEA`ren alde. Bildur barik esango neuke: "Euragaitik oraindiño Euskeraz eta Euskaldun bizi garala".

Eta Pidal`ek ondorio-lez esaten dauana: "Asi, pues, durante los muchos siglos en que la fuerza centrifuga del localismo estuvo en su auge, pues lo exigia el desarrollo de la vida nacional, un bilingüismo constitutivo, inextricable (difícil de desenredar, muy intrincado y confuso) se extiende por todas partes".

Pidal`ek bere jakintza aundian, ez ebana iñundik-iñora ulertu, gizakia eta errigizarteak gai-lez, nai-ta guk gai-beragaz naastutasunezko zital-zirriborroak egin, beren osotasunezko gorputzetatik geikerian dagozan zibizki edo mukulluak (moleculas), ez dakigu zenbat denboran, JAINKOA`k aginduta euren egokitasunezko lekura osterabe joaten dirala, BERE`n oiñarrizko LEGEA`k alan beartzen dauzalako.

Gizon-emakume eta errigizarteetan bardin, Nortasunean bizirik badagoz, LEGE orren oiñarria gai guztientzat bardiña dalako eta gu gaituta gagozan-lez, NORTASUNA`k daukan izatasunezko gerta-lekura joan bear gara, jaiotzaz batera, arduraz artzen diran ordezkartzazko bete bearrak BEREZTASUNAREN ZENTZUZ bete daiguzan.

Or !! 1.683 urteetan Europa`n eta Mundu`ko erri guztietan, egun-bakoitzaren barre-negarrezko antzerkia.

Eta nai-ta gaur egunean, Mundu onetako irugarren guda nagusian buru-belarri sartuta egon, berezko giza eta gizartearen eskubideak dirala-ta, ekaitzak, luzero guztian ikusleiken mugararte susmatzen (presentir) doguz. Erromatar menperatzaille zaleak ez diralako gai, gauza edo al, lupetzezko egoera onetatik urteteko.

Emen ederto dator JESUS`en irakatsi aundi bat, BEREN eta danon AITARI esaten dautsonean: "AITA, PARKATU EGIEZU, EZ DAKIE ZER EGITEN DABEN ETA....".

Billur dira..... sasi-jainkotasunezko egokiera edo egoki-aldi ortatik urteteko ?. Ba..... onezkero jakin bear gendun: "BESTE BIDERIK EZ DAGOALA".

Pidal`ek bere lilluramenduzko illundurán, menperatzaille asmakizun au izan zan baieztu ebana eta Epaña`k buru gogortasun guztiagaz aurkeztan dauskuena.

Eragozpen oneik dira, EUSKALERRIKO ANAITASUNEAN aurkeztuta aztertu bear doguzenak, erria sendotu eta erriartetako laguntza lortu gura ba-dogu. Bata bestien aurka, izkilluakaz eta arrika ez gaitezán ibili, ortik ez dagoelako zuzen-biderik, ez pakerik eta gitxiago EUSKALERRIA`k beren bizitzarako bear dauan OSASUNIK.

Atutxa`tar Paul

Zornotza`n 2.008`an Orrilla`ren 2`an.

EUSKALERRIA`ren EGIA: VIII EUROPA`ko ANTOLAMENDUA`ren AURREAN

AURKEZPENA:

Gure Europa onen edestiari, txoria`ren ikustaldi labur bat eginda ikusten dogu: Homo-Sapiens, kromañon edo Euskaldunak, Europa`ren izotz-urtzean Lurrarteko-itsasotik goruntz igonda Europa erritu egin ebela eta milla urte askoren azturazko ikasbidetik, leifñuen auzotasunezko lurraldeetan kokatuta, Euskerazko izkuntz antzeko baten laterrituta geratu zirala. Eta zelan Euskalerrriak, Atlant-itsasotik Alemania`ra eta Britania`tik Kadiz`erañoko lurraldeetan bere Euskal izatezko Jendekuntz nagusia lortu eban.

Bai, Persak, Europa zelan menderatu gura eben, Grezitarrak Maraton, Salamina eta Platea`ren medikas`eko guda`rekin geratuak.

Emen, Europa`ko bakezko antolamenduaren zirriborrotasunak asi-ta.

K.a. 753`ean asmatutako erromatarren jaiotzagaz asi zan dan-guzti au. Mundua`ren agintaritzan ardatz nagusia izan daiten, nai-ta euren maldaberan erlijioagaz alkartu indarrean sendotzeko 1.162 urte geroago ezereztuta (K.a. 753`tik-K.o. 409`rarte) geratu ziranak.

Zelan, Godo`akaz, euren 305`eko (409`tik-711`rarte) erromatar asmakuntzazko bizi urteetan, ez eben euki denborarik, leifñu guztiekin mendezko-borrokaren artean aren legeak bildumatzeko eta Toledo`ko Eleiz-batzarretan babestu, 718`tik aurrera Pelayo`k abiadan ipini dagizan.

Mauritarrak euren jakintza aundian, agintaritzaren jaurkintzan eta erlijio`rako euki ebezan nagusitasunezko asmakuntzak 700 urtera be ez zirala eldu (711`tik-1.492`an Urtarrilla`ren 2`rarte).

Eta Europa`n, menderatzailletasunezko oldarkeri (atropello, violencia, impetuosidad) onein ostein, erri-gizarteak zelan agertu ziran bearrezko antolamendu barri baten egarrian.

Europa, erregearen epaille edo artekaritzazko antolakuntzan ezarri zan eta euren eraikiteagaz batera, zelango naastetasunaren sare-arteko txeberan arrapatuta iges-eziñik geratu ziran, orduko jakin-agintaritzak alan erabagi ebalako: "Griego`en Jakintzan, Erromatar Kaizar eta Legedi-Sakratuaren" oiñarrizko baldintzatan, orduko jakintsu areik Europa ta Mundua baldintza orrekin neurtu gura izan ebelako.

Eta nai-ta, erregearen izatasunezko baldintzak artekaritzan ezarri, erregeai larderizko erromatar lege-orreik (leyes impositoras) menperatzailletasunezko jokora bideratzen ebezan, Europa eta Munduan ezagutzen ziran jendekuntzazko erri guztien artean, ia milla urteko guda-latzetan etorrita. Areik eta errege-leifñuen izarra beraldian egonda 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren bidetik, Munduan euren ustez dagozan jakintsu aundiak ostera, eta euki eben indar guztiekaz, Europaren jaurkintzazko antolamendua, bereztasunaren aurkako laterrietan ezarrita.

Mundua gaur, etsaitasun edo aurkatasunezko eritzi-bi onein (bereztasunaren eskubideak, menperatzailletasunezko beartasunaren aurkaritzan) bitartez, bere 3`n

guda nagusian dago eta ez da iñungo miraria, giza ta erri-gizartearen eskubideak jokoleian dirala-ta, berezkoak diran arrazoiak, euren lekuetan ezartzeko alegiñean gagozelako.

Orañarte ikusi dogu, ez Euskalerrria bakarrik, Europa ta Mundu guztia baizik zelango txeberazko sare-arte indartsuan arrapatuta dagoan iges egin ezinik.

Eta txeberazko eritzi-au da daukaguna, daukaguzan laterri-menperatzaille onekin.

Pidal`ek bere jakintzazko indar guztiekin babestu egiten ebana, Europa ta Mundu onen edestia maltzurtuz, beren España, betikoa izan bezala gaztelatarrai eta espaiñol-ametsean dabezana okerreko edestia erakutsi ta España`ren sasi-ameskerian itzul-miñagaz (añoranza) edo atsekabetuta (compungidos, afligidos) dagozenai aurkeztu eutsoena.

Eta eritzi ori da, gaurko espaiñarrak aurkezten dauskuena.

A-ta guzti, bere buruan ezaukizun (incognitas) aundiak agertu jakozan, ez ebelako ulertzen: **“Asi pues, durante los muchos siglos en que la fuerza centrífuga del localismo estuvo en auge, pues lo exigía el desarrollo de la vida nacional, un bilingüismo constitutivo, inextricable (difícil de desenredar) se extiende por todas partes”**. “Gaztelarrak..., zer !! euren ameskeriaren bidez lortu eben, berezko eritziaren aurka joanda, gizartearen eskubideak naastu baiño ?.

Zergaitik berezko erri ta errigizarteak ez ebezan alboratzen euren NORTASUNEZKO izkuntzak ?.

Ez da izango konturatu egin zirala..., JAINKOA`ren LEGE-bidez, bizitzari gure arbasoak emon eutsoen milla urte askotako adierazpen bidean, lortu genduzan jendekuntzazko NORTASUN`aren ulermenetik ordezkatu bear doguzala bizitz onetan egin-bear doguzan gauza guztiak ?. Artean beste erri-gizarteakaz urbiltzen eta zergaitik ez..... bizitz onen eragozpenak samurtu edo erreztu egiteko zentzunezko oinkadak emon eta NORTASUNAK galdu-gabe, NOR izanda batzangotzen joan gaitezkan ?.

Beti baiña !! edestian ondo ikasita daukagun eta danok jakitun izanda ASKATASUNEZKO NORTASUN-ARTEKO LOTSAGIZUNEAN, “DANOK” eskubide bardiñekoak garelako JAINKOA`ren AURREAN.

Pidal`ek, ondo jakin eban, Euskerea gaztelera baiño, ainbat milla-urte ariñagokoa izan zala, eta maltzurrezko eritzi orreik egia-bezala zabaltzeagaitik dala, ez daukana iñungo parkamenik.

EUSKALERRIAN, GAURKO ERAGOZPENAK:

Europa eta Espaiña`ko laterrian batez-be, oraiñarteko edestian ikusi dogu, 2.000 urtetik onantza eguneroko orrialdiak gaurko egunerarte aldatzen joanda, bardiñiak izan dirala eta erdi-ugarte onen erri-gizarteetan, bear diran baiño askotan odol-jariozko sarrazkiak eginda.

Eta Euskalerrian, ariñagoko erri-babesaren alde ez ba-ziran gitxi izan euki genduzenak, orain 185 urte daroaguz morroilope txeberazko sare onetatik urten ezinik, gure borondatearen aurka daukagun menperatzaille-laterri au Europa guztian sortzen dan bezala, merkataritzaren nausitasunak eta gudalozteak euren alde daukiezelako, bizitzeko bear doguzan lurralde, diru ta mozkin guztiak euren kontrolpean euki dagiezan.

Beste alde batetik begituta esan leike, menperatzaillai, daukien bereztasunaren aurkako antolamendutik billurra emoten dautsoela urtetea, berezko erri-gizarteak Euskalerrria-lez, ez garalako gai izango Europa`k daroan batzangotasun edo urbiltasunezko bidean konpontzeko (Felipe Gonzalez`ek, borondate guztiagaz emon eban ezetza, Europa`n sortzen dauazan jaurkintzak, kirker (grillo) kaiola antzekoa baten biurtuko ziralako). Edo ez dabela urten nai, euren sasi-aundikerian ondo bizi diralako.

Dana dala eta Demokraziaren egarritasunezko eskaerari esker, gauzaren egitasunak, zentzun eta zeatz`tasunaren ardurazko lotseak eskatzen dausku danori eta orrek ardurak ezin dira bere senean ordezkatu, danon ardurak esku baten kateatuta gaur-lez egoten ba-dira. Gaur, bear doguzan arduraren ordezko lotsa onen aurrean, menperatzaillaren maltzurrezko eragozpenak, eznearen-bitzak lez, argitasunezko nabaritasunean geratzen dira, JAINKOA`ren LEGE`ak euren zabaltasun aundian, egian estuak diralako eta izatasun orreri esker: "Euskalerrriaren Askatasuna uste-on edo itxaropentsu agertzen jaku.

EUSKALERRIA`k:

Au da aurrean daukana, baiña..., zelan jokatu bear dogu erria ta Euskal erri-gizartearen NORTASUNA sendotzeko eta beren Askatasuna lortzeko ?.

Zelango baldintzatan jokatu bear dogu ?.

NORTASUNEZKO BALDINTZAK :

- * .- Gure ERRIA`ren eta gure NORTASUNAK sendotu daitezcan EUSKALERRIA INDARTU.
- * .- Euskal Giza-Barreneko ARDURAN SENDOTU gaitzcan, BATZARRAK INDARTU.
- * .- ERRI-lez indarra euki dagigun GURE JAURLARITZA SENDOTU.
- * .- IPARRALDEKO EUSKALDUNAKAZ, SENDOTU: "JAKINTZAN, LANGINTZAN, BIDEAK eta ARTU-EMONETAN.
- * .- Españatarrai BETI !! ASKATASUNA ESKATU.
- * .- BETI, EUROPA-BATUARI eta Espaiña-BARIK, GURE-NORTASUNA EZKEIÑI (KOSOBO`en ANTZERA).
- * .- Eta SASOI EGOKIENA DATORRENEAN "ASKATASUN OSOA ESKATU"
- **.- ORRETARAKO BAIÑA, IÑOZ EZ DA BEAR "GUDA-BIDERIK EZ IZKILLURIK !!".

EUSKALERRIA BERE EDESTI GUZTIAN, SINISMENDUTA EGON DA BETI EGIN DAUAN ZENTZUNEZKO LANAGAZ AURRERA URTETEKO ETA ONAÑO EKARRI EUSKUEN GURE "ARBASOAK".

"EUSKALERRIAREN ABERRI ta NORTASUNEZKO ASKATASUNAK GURE ZENTZUNEZKO ZEREGIÑETAN DAGOZ". GITXIAGO IZANGO ETEGARA-BA ?.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZAN 2.008`an LORAILLA`ren 20`an

- SALOU`ra INSERSO`rekin -

TARRAGONA: Katalunia`ko eskualde edo erri-alde bat da, 6.283 Kilometru karratuak daukazena eta 484.600 bizi-lagun gitxi gora-bera.

Bartzelona, Lerida, zalduba (Zaragoza), Teruel, Kastellon eta Lurrarteko itsasoak mugatuta dago. Berago, Ebro-Ibaia`k, Tortosa`ko-Kap`eko ibai-ondo`tik itsasora botaten dauz bere urak.

Beren ortuak: Ugolo edo irris`a (arroz), maats, olio-arana, urretxa, amanda edo arbendol`a (almendra) eta ale, zitu edo ugar-ale (fruta) ugari emoten dauz. Bai uste dot zitu, bii edo aleen (cereal) soloak-be ikusi nebazala. Beren alde-bi onenak Penedes eta Priorato`lurak dirala.

Lantegi`en artean: Eungintza edo oialkintza (industria textil), papergintza (industria papelera) eta nekazaritzazko mozkiñ`en aldakuntza`renak (transformaciòn de productos agrilcolas) dira aipagarrienak.

EDESTIA: Euskaldunak izan ziran Erromatarren aurretik Anibal kartagotarrari gudu-erromatarrak zigortzeko lagundu eutsoenak.

Erromatarrak K.a. 218`an, Kartagotarrak ezereztuteko alegiñean, Geneo ta Publio Kornelio Eszipion anaiak bialdu ebezan eta euren neguko gudaltegia berton ezarrita, aurrerantzean "Tarrako" izenagaz ezagutuko zan (Tarrakonense edo Hispania Citerior).

Gauza ederrak daukaz andik ona Erromatarren ur-bidetik asita, Erromatarrak luzaro, ia euren amaierarte egon ziralako.

Mauritarrak-be egon ziran gauza ederrak eginda, baiña guda-sarraskien bitartez Gotzai-Eleizan dagoen Mauritar-Dorrea bakarrik geratzen da.

III`n Berenger`tar Ramon Bartzelona`ko kondeak berrezkuratu eban euren eskuetatik.

SALOU: Tarragona`ko eskualde edo lurraldea da Kanbrils eta Port-Abentura erdian itsasoan sartzan dan Salou lur-mutur ori Billaseka`ko Udalean, ugustegi-tokia dana (estaciòn balnearia) eta ondartzza ederragaz udatiar`en egurasketarako.

Erria, izparter edo itsas-bazter`en luzera guztian eginda dago eta lerro bizkiz marraztuta egon bazan antzera, kaleak gorantza galgan (paralelas) zabaltzen dirala.

Neguan, bertan eginda dagozan ainbeste etxeentzat ez dago bizi-lagun asko, taxi-zai baten esanetan 22.000 eskas diralako. Uda-aldean 400.000`tik gora izaten dira.

Ostatu, taxi eta abar guztien serbitzurako, Mundu onek daukazan abenda guztietako atzerritarrak daukazela esango neuke. Ego-amerikarrak dira nik geien ikusi dodazenak.

Salou, toki polita da eta ederra egurasketarako.

INSERSO`rekin SALOU`ra, 8 EGUNERA`ko:

Nire emazte Lourdes`ek egin ebazan "Mundosenior"ek antolatzen ebazan igaropide onen konpon guztiak. 2.008`ko Jorrailla`ren 14`tik 21`erarte izango zan.

14`ko Asteleena: 7`retan jagi giñan eta 8`rak ta laurenatarako gure suin Mintegi`tar Mikel itxaroten euki gendun, Indautxu`n dagon gurdi edo berebil-busez urten eta amaieraren geltokira (termi-bus) eroateko.

Bertan, gure adiskide aundiak gaur diranakaz: Azurmendi ta Muguruza`tar Jose Manuel eta bere emazte Irasuegi`ta Ania`tar M^a Anjeles`ekin alkartu giñan. Eta eguraldia lainñutsua izan arren, pozik igon gendun berebil-bus`era 10`k eta iru minututan urteteko.

Bidaia, iru geraldietan osotu gendun, lenengoa amaikaterdietan, Logroñora orduko dagon "MEDAS" jatetxean. Ordu erdiko epean, anak luzatu, zeozer artu eta barruan geikerian euki genduzan urak bota ta eguerdiko amabietan urteteko.

Bigarrena: Sobradiel`eko Utebo`n, zelaikada aundia daukan "ARS" jatetxean geratu gintzazan ordu bateko epean bazkaltzeko eta egin bear genduzan gauzak egiteko.

Emendik aurrera eta lur-landuak leiotik ikusten goazela, arrituta geratu nintzan mats-ondoan adarrak orriz beterik egon zirala eta geiago itsas-bazterrerantz urbiltzen goazela. Lur areetan agertzen jakuzan ori-urdiñeko margoak, ederrak ziran, nai-ta geienak ur-tantako ureztaldian egon. Benetako lur aberatsak dira orreik.

Irugarren geraldian eta arratsaldeko sei`rak zirala, Salou`n zortzi egunetan gure etxea izango zan ostatu Kalipso`ra eldu giñan.

Berebil-bus`etik jatsi edo beratuta eta pardel edo bide-zorroak artuta, artzen genduzan maira (mostrador) joan giñan eta gela`ko giltzak artuta gora igon gendun soiñeko jantziak euren lekuetan tzukun ipinteko eta garbituta gero, M^a Anjeles eta Jose Manuel`eri deituta, zortzi`retan afaltzera joan giñan.

Esan bear dot, garbitasun aundikoa izan zala ostatua eta gugaz euki eben ardurea, aundia izan zala, oso pozik igaro genduzan egunak.

Afal-ostean, lauok ostatuaren erri-inguruak ikustera joan giñan eta nekatu gintzazanean ostatua`ren bidea artu gendun. Jose Manuel eta ni 10-15m. andraren aurretik joan gintzazala, orma baten gaiñeko arbaztatik (ramaje) gazte bat abarrots naikoa atarata Lourdes nire emazteari indarkerizko tiraldi bategaz katanarru edo lepotik eroan eban sakela kendu eutson, euki eben diru, betaurreko, urrutizkin-aldakorra, argibideak (documentación) eta euki eban gauza guztiakaz.

Danok joan giñan bere atzetik, baiña alperrik zan, eta Errebeskeria gogorra izan arren, niri barreak urten eustan M^a Anjeles beren irurogeita amabi urtekin bere atzetik korrika ikusi nebanean, lapurraren batera urten ba-eban lez, ziur nagolako lapur-arek ez ebala eukingo igesbiderik.

Lapurra sartu zan kaletik joan gintzazan eta erbesteko dendari batzuri itanduta, eurak lagundu euskuen urrutizkin-aldakorragaz erri-zaiñari (guardia civil) deituta lapurketa ori salatzeko eta berandu zan lez, urrengo egunean joateko esan euskun.

Ostatura joan gintzazanean JoseManuel`en urrutizkin-aldakorragaz etxera deitu gendun, gure alabak M^a Lurdes eta Maite arduratu daitezkan BBK`ra deituta diru-txartelak ezereztu dagiazan lapurraren aukerak murrizteko eta guri dirua bialtzeko.

Jose Manuel eta M^a Anjeles`ekin akaita artuta ogera joan giñan.

15`ko Asteartea: 7`retan itzartu giñan eta leiotik egun argitsua euki gendula ikusi ondoren 8 1/2`etan gosaltzera beratu edo jatsi gintzazan. M^a Anjeles eta Jose Manuel`ekin atzoko irudi gaiztoak, gosalduz batera gogoratzeko.

Ostera geletara igon gendun 9 1/2`etan gidariaren adierazpenak entzutera joan bear gendulako eta bide batez, berak aste barrurako egin euskuzan bidai-eskeintzetatik, guk gura genduzan txartelak, Jose Manuel eta M^a Anjeles`ek aurreratutako diruakaz, artzeko.

Gero, errizain edo guardia-zibillen etxera joan giñan lapurketa salatzeke eta bertan iru-ordu bete genduzan, zeaztasunak salakuntzazko-agirian ezartzeko. Gaur, ezin lei siñistu oneik daukien arri-aroko trebetasuna.

Bostak arte lo-kuluzka apur-bat eginda urten gendun laurok bidai-etxera joateko eta arratsaldeetan ez eben-lez kale-jenderik artzen, erria-ikustera joan giñan.

16`ko Aste-azken edo Eguastena: 7`retan jagi, gosaldu eta 8`retan gurdi edo berebil-bus`era igon gendun, Bartzelona`ko berebil-bidea (autopista) artuta, eskualde edo lurralde orreitan dagon Monsterrat`eko mendi-katean eginda dagoan lekaideetxera joateko.

Mendi-kate zorrotz orren gorengo neurria 1.224 metrokoa. da eta bere erdi inguruan 723 m. neurrian ain zuzen Montserrat-lekaide etxea dago bere anditasun edo ospan, Bartzelona`ren Ipar-Mendebal`eruntz 30 Km. inguru.

1.025`ean eraiki eban Oliba Abate edo Apaiz-buruak eta XIII gizalditik aurrera erromes`en bidezkundea da. Bertan egon zan ostatz Loiola`ko Iñazio-Deuna be.

“La Moreneta” esaten dautsoe Montserat`eko Ama-Birjiña`ren irudi txikerrari, argizagi`ekaz (velas) eta ezko lodi edo argizai`aren (cirios) aldi`ko keekaz baltzituta dagoelako.

Montserrat`era (berba onen itzulpena: “Mendi-zerratua” da, zerra`ren antzean ebagita dagoelako). Aridun gurdian (funicular) igon gendun eta 10`1/2`etan bertan egon giñan.

Dauan tokian eginda dagon Eleiz, jatetxe ugari eta gurdien-goroizkiko bilduma ori arrigarrian eginda dalako, txundituta ikusi gendun dana eta ainbat argazki kanpoan eta Eleiz-barruan atera genduzan.

Gu eldu giñanean, lekaide baten eortzetak edo il-otoizketak (funeral) egon ziran eta kanpoan itxaron gendun arek eta amaitu arte. Eta ordu batetan abes-mutilla`ren abesti politak entzun genduzan.

Arritzekoa-be izan zan, andik gora % 75`eko aldapan igon eta beratu eten barik goroizkikoak egiten ebana, bildurra emotekoa dalako.

Orregaitik Stxiller`ek esan eban: “Montserrat`ek gizona, kanpoko izatasunetik, bere barruko izatasunera ekartzen ebala”. Eta Goethe`k bere zartzaroan: “Gizonak, iñun ez dauela aurkituko bere zoriontasunik, Montserrat`en ezin ezik”. Himler`ek lekaideai: “Negocios de èsta clase hemos suprimido en Alemania”.

Santutegi onen arpegi edo aurre-aldea, Gaudi`ren aurrekoa izan zan, De Paula ta Bidal`tar Franzisko`k egin eben, bai-ta Pamili-Sakratua`ren Gotzai-Eleiza`rena be asi.

Ango bazkal-etxe batera bazkaltzen joanda, euken antolakuntzazko serbitzu berezi bateri esker, bereala bazkaldu gendun.

2`1/2`etan berebil-bus`era igon gendun eta 3`1/2`etan San Sadurni de Noia`ra eldu giñanean, Kodorniu leize-zuloak ikustera eroan ginduezan.

Arritzekoa da an ikusi genduna, bere bost-solairu`aren 27 m. Sakontasunean daukazan ardan-gelak, luzeran ipini ezkerro 30 Km. eukiko leukezalako.

Beste izen batzuen artean EUSKADI`rena be ikusi gendun. Eta goitik daukena ederra ba-da, lur azpian daukena arritzekoa da.

Edan-ontzi poli baten ardo-atsegingarri bat edanda berebil-bus`era igon gendun eta 6`1/2`etan eldu giñan Kalipso ostatura.

17`ko Eguena: Gure kontura artu gendun egun au eta Kanbrils`era joan giñan. Andrak dendari ibili ziran bitartean Jose Manuel eta ni portu edo kai-aldetik ibili giñan ango edertasunak ikusten.

M^a Anjeles eta Lourdes agertu ziranean, gure txantxetako irri ekin edaritegi batera joan giñan eta ozpiñean erre-egosita egon ziran antxoak edo bokartak, ardo-zuri on-baten laguntzagaz jan-edanda berebil-bus`ean ostatuko bidea artu gendun bazkaltzera joateko.

Arratsaldeko 4`1/2`etan ostatu aurrean geratzen zan "TSCHU-TSCHU" (Germaia) artuta, umeentzako dan "Portabentura"ren piztitegi eta jolas-leku`ra joan giñan.

7`retan itxi egiten zalako eta sarrerak garestiak ziralako (33`50 euro), ostera "TSCHU-TSCHU" orreitan jostari Salou`ra joan giñan.

18`ko Barikua: Euritsu agertu jakun bariku agun au eta 9`rak lauren gitxiagotan berebil-bus`era igondaartzelona`ko bidea artu gendun.

Bidean geldi-aldi bat eginda, 11`etan eldu giñan Gurutz-Santu eta Eulalia Santua`ren Gotzai-Eleiz nagusira.

Txango-zaleen gidariagaz, erromatarrak egin ebezan ormak ta dorrea, erregearen enparantza edo zabalgunen`aren zarrerizko etxe-sail erromatar-gotikoan ta pizkunde`ko berri-zalean (moderno renacentismo) eginda dauana, bertan dauan Aragoi`ko agiritegien etxea etaartzelona`ko kale nagusietatik ibilita, gaiñ-gaiñekoa dan Pamili-Sakratu miresgarria ikustera joan giñan.

Argazki pillo-bat atarata, "Los Portxos" (Porchos) jate-etxera joan giñan bazkaltzera.

Bazkari guztietako "Oillaskoa izar nagusi zala" naiko ondo jan gendun eta ortik "Pueblo Español" ikustera joan giñan.

Erri au, gaztela`tar usaiñean eginda dago eta erregea orduko denboran bertan egon zalako, Kolon`tar kristobal-be bertara joan zan, Ameriketatik, bertan jaiotako ekarri ebazan leenengo semeak bataiatzeko. Zer !! egingo eben JAINKOA`ren seme aiek, gero agertu jakien`akaz, gaur Nortasunean emoten daben irudizko itxuran agertzeko.

Monjuit-be ikusi gendun eta ondoren 7`rak ta 5 minutu ziranean Kalipso ostatexean egon giñan.

19`ko Larunbata: Geroago egun ona egin arren, esnarazi giñanean egun euritsua agertu jakun eta gure kontura artuta kanbrils`era joan giñan, andrak ezer esan barik, eguenean ikusi ebazan gauzak eroatera joan-gurean ibili ziran eta ugazabak agintzen dauan lekuan mariñelak batela lotu egiten dauan lez, gu kai-ondotik ibilaldira eta neskak dendari zirala emon gendun goiza.

Arratsaldeko 6`1/2`etan San Jorje eleiz-parrokira joan giñan mezea entzutera eta ondoren akaitegi batera eta an emon gendun ordu biko denborea alaitasunez.

20`eko Domekea: Egun euritsua agertu jakun au be, baiña guretzat ez eban ardura aundirik euki, arratsalderako aterri ta argitsu egiten ebalako.

Udal-etxera joan giñan ia udalzaiñak Lourdes`en gauzarik aurkitu ba-ebezan, baiña alperrik izan zan eta erritik txangolari ibili giñan.

Arratsaldean "TSCHU-TSCHU"an ibili giñan eta ostean ondartzako akaitegi baten, denborea alai emon gendun.

Emen esan bear dana, illuntze guztietan karta-jokoan ibiltzen giñela afal-oste guztietan eta Jose Manuel`ek eta nik irabazi arren, ordainketak guk egiten gendun beti.

21`eko Astelena: Etxeratzeko eguna. Ariñagoko astelenean lez apaindu gintzazan eta Bilbao`ko berebil-bus geralekura, arratsaldeko seiretan elduta, M^a Anjeles eta Jose Manuel besarkatu ta agurtu ginduezan, ez dala izango, gu laurok txangolari alango osteratan egiten dogun azkeneko bide-aldia itxaropenez.

Ondorioa: Gaztetu egiten garalako, bearrezkoak dira gure adifietan noz-beiñ, alango arnasak artzea. Geiago, nai-ta batzuetan alango biurkeriak agertu, benetako lagunakaz txangolari, poz pozik egurasteko diralako ibilbide barri orreik.

ATUTXA`tar PAUL
2.008`an Jorrailla`ren 28`an

- TREBIÑO`tik TXANGOLARI -

Olazar`tar Martin`ek esan eustan: Trebiño ezagutzen dok ? Ez !! Orduan osterata bat egin bear dogu, Euskaldun batek beren lurraldeko irudimenean ez leukelako euki bear alango jakin-gabetasunik.

Loraila`ren 30`erako (Barikua) ipini gendun eguna eta Martin`ek Meza Santua emon da gero 9`1/2`etan urten gendun Mungia`tik Trebiño`ra Barazar`etik zear.

10`k eta laurenetan eldu giñan Argantzón`eko (Km.333) errira eta gurdi-bideak guztiz aldatuta dagozan lez, argazki batzuk atarata Palazios`eko jatetxera joan giñan norabideakaz argitzeko.

Trebiño`ko lurraldeak ikusiaz batera, ortik aurrera ondo aztertu genduzan beren inguruak, leenengo baiña, goazan edestian zer aipatzen dan beragaitik ikustera eta nungo mugakin Kastilla-Leon mendean dagon kokatuta.

ERRI, ERREKA eta BEREN LURRA`ren EMANKORTASUNAK:

Burgos`ko jaurkintzapean dago Araba`ko eskualde au, Iparraldetik Iruña ta Gazteiz; Ekialdean, Bernedo; Mendebalean goiko-erribera, beko-erribera, Aramiñon eta Beranturi; Egoaldean, Zanbrana, Urizaarra (Peñacerrada) eta Lagran`ek mugatuta.

Itsas-goian 621`eko metrukoa da eta zabaleran 221`57 km. Karratuak daukaz. Uda ibaia aldatzen dau Iparraldetik Egoalderuntz eta ez dauka ura`ren gabetasunik beren menditsutasunagaitik eta Urizaar mendi kateari esker. Oso aberatza da ur-kontuan.

Beren uri-nagusiak Trebiño (trifiniun edo iru muga daukazena esan gure dauana) eta Argantzun Udal-erriak dira eta erri-kopuruan: Agelu, Axarte, Albaina, Añastro, Arana, Argote, Armentia, Askartza, Bajauri, Burgeta, Busto, Dordonitz, Dorofio, Franko, Fuidio, Golernio, Imiruri, Ladrera, Laiño, Marauri eta Mezantza`gaz osotzen da.

Lurrakaz: Garia, garagarra, lur-sagarra, lekadun landareak eta txerri-arbi edo udarbi`ak (remolacha) artzen dabez edertasun osoan, bai eta baratzean-be ortu-ari eder ta ugari.

Eta abere azkuntzan: Ardi, txarri, bei eta zaldiak ikusi genduzan.

EDESTIA: Trebiño eta inguruko erritxoaren agiriak, X`n gizaldian agertzen dira leenengoz eta XI`n mendean, Nafarroa`ko erregearekin batera borrokatu ziran Gaztela`ko erregearen aurka.

1.160`an Lopez Lainez`ek sortu eban Trebiño`ko konderrria eta 1.194`an Nafarroa`ko VII`n Santxo azkarrak zabalkuntza emon.

1.201`ean, Trebiño Gaztelatarren mendean geratu zan, VII`n Santxo Azkarra (1.194-1.234) Nafarroako erregea, Gaztela`ko VIII`n Alfonso`gaz (1.155-1.214) itzarmendu zalako Arga-Miranda`ren truke.

1.417'an, Gaztela'ko II'n Juan'ek (1.405-1.454) emongo eutsozan Logroño'ko Foruak eta geroago Leon'go erregetzan agiri-idazle nagusia zan Gomez Manrique de Lara'tar Diego Trebiño'ko kondea izendatu eban.

XIX'n gizaldian, errien banakuntza egin zanean Burgos'ko mendean geratu zan Trebiño Argantzuneko erriarekin batera.

1.942'an erabagi ori barriztu egin zan, nai-ta Trebiño'ko biztanleak %`tik 98'ko kopuruan Araba'ko jaurkintzarekin gura eta ainbat aldiz eskari ori egin Eusko-Legebiltzarraren bidez.

Gaur gagozan gizaldian ez dago eskubiderik, Euskaldun izan eta senditzen diran Trebiño'ko konderrian bizi diranak alango arbuio, erdeiñu (desprecio) edo ez-ikusi onik, gero esango dodanakaz. Gaztelatarrak, daukien arra !! argi erakusten dabelako.

IZKUNTZA: Trebiño'tarren izkuntza oso beranduarde Euskerea izan zan eta nik esango neuke XIX'n gizaldi erdirarte egin ebela, Gaztela'ko erritarren artean-be XVI'n gizaldian Euskeraz egiten zalako eta geiago, Trebiño'tarrak euren anai Euskaldunakaz inguratuta egon-da Euskalerriko sabel barruan. Gaur, berrezkuratzen dabizena ikastolaren bidez.

Erregezko Jaurkintzak beste gauza-bat dira, erria'ren zentzuetik kanpo ibili ziralako.

Europa guztian Erromatar-Godo'engandik jaurkintzarako artu ebezan nausigai'tasunezko andizki edo aitor- seme aukera orreik, euren artean, Mundu onetan batzagotasunezko asmakizuna elburu zala eta nor-geiagoko edo norkerizko jokuan asi-ta, umien antzeko jolas-toki batera bideratu ebazan.

Nafarroa'ko erreñuan-be bardiña gertatu zan eta Latin ta Euskera'ren bitartean sortu ziran latin-kume baragarri orreri indarra emoten asi ziran, bereztasunezko erri ta izkuntzak ezereztuteko alegiñean ibili ziralako eta gaur-be dabizelako Gaztelatar-menperatzaille oneik.

ARGANTZU ERRIRA: 10`k eta laurenetan eldu giñanean Palazio`z jatetxean egonda gero, errian sartu eta artez, Udaletxera joan giñan argibide billa. An egoan emakumezko arduraduna baiña, txangolarien adierazpenera-ko ez eban euki ezelako paper-iragarki ez bide-maparik.

Gure itaunen gora-beran, bera lotsatuta egoala esan euskun bein eta berriz eta urrengo osterata bat egiten gendunerako aleginduko zala eukiten, argi-bide edo adierazpeneko paper orreik, joaten ziranai eskeintzeko.

Emakumea, atseginez agurtu ondoren erria ikustera joan giñan eta leen ern-arazi edo gogoan eroan nebana, enparantza eta kale guztien izenak Euskeraz eta gaztelera idatzita egon zirala. Poz aundia artu gendun Trebiño'tarren alegiñak ikusteagaz eta geiago, gazteak Euskeraz berba egiten ebala jakin gendunean.

Eleiz ederra-be badaukie, baiña ez gendun barrutik ikusi, atea giltzatuta egon zalako.

AÑASTRO: Txarto zaindutako errepidetik joanda, 12'etan eldu giñan Añastro`ra eta eleizaren aurrean geratuta, aurrez-aurre euki gendulako, "Añastro`ko Gaztetxea" ikusi gendun idatzita.

Poz aundia artuta, berebilletik beratu gintzazanean, gizon bat ikusi gendun eta beragana joan nintzan itanduten ia eleiza ikusi leiken.

Bera zala giltzaduna esan euskun eta bereala joan zan etxera giltzaren billa atea zabaltzeko.

Beren emazte ta semea etorri ziran eta ama atea zabaltzen ibili zan bitartean Euskeraz berba egin neutson gaztea`ri eta berak be Euskeraz erantzun.

Eleiza, barrutik ikusten ibili giñanean, uste-onean asi giñan berbetan eta beren izen abizenak Agirre Perez Onrraita`tar Julian zirala esan ondoren, Angola`n dagon gotzaiña Onrraita Perez de Agirre`tar Luis Maria eta onen anaia, apaiza danagaz, lengusuak zirala esan euskun.

Argazkiak atara nebazan eta batez-be, arrizko sermoi-alkia`ri, ederlandean eginda dagoelako.

Bai aldare nagusien erretaula edo aldare-buruari eta korua`ri, au zaintzen ez bada-be, denboragaz jausteko arriskuan dagoelako.

Gauza oneik ikusita, bereala konturatuten da bat, euren jabetasunezko arduraren kanpo direla erriari eutsi edo zaintzeko bear diran diru eta artu bear diran erabagiak. Eta eritzi ortatik konturatu, gaztelatarrak jabetasunezko arduradunak edo menperatzaileak izanda, "neri zer doakit edo zer ardura-tzen daust?" esaten dabela, Trebiño`ko konderrria maite ez dabelako. Edo eta euren menpean bakarrik daukielako "dirua atarateko ogasun edo ondasun-lez".

Dana-dala, gazte gitxi ikusi genduzan kaleetatik eta zeozegaitik izango da, erritxoak, etxe ta errepideak aiñ-gitxi zainduta agertzen diranean. Baiña erria, euren jabetasunezko ardurapean ez dagoela ziur nago.

TREBIÑO: Trebiño`ra elduta, Udaletxe`ko txango`zaleen billaketa edo argibidea`ren bulegora joan giñan, ia zertaz atzeman emoten gendun, gure ikus-azterketa argitsuagoa izan daiten eta an-be bardiñ, ez zalako egon ezer.

Eleizara joan giñan eta berebilla itxi gendun gera-leku alboko etxea`ren orman, dauan zurezko iragarkian irakurri neban: "Manrique de Lara, armarridun-etxea / casa blasonada", SAN JUAN. Argazkia-be atara neutson.

Eleiza`ren ate, ateartea eta berak emoten dauan itxura, ikusleentzat oso alper, nagi edo baldras agertzen da eta bere ateko albo bietan, gazteleraz idatzita agertzen dira: "DE TODA PALABRA OCIOSA DARAN LOS HOMBRES CUENTA RIGUROSA". Beste aldean "LA MALDICION DE

LA MADRE..., eta ortik aurrera ez enintzan izan gai an esaten ebana irakurteko.

DORDONIZ: 1' 1/2'etan eldu giñan Dordoniz'eko eleizaren aurrera eta lenengo erakutsi eustena, eleiz ondoko etxean dagon leio-bat, berak, orain berrogeita amar urte: "Leio ortatik egin bear izan ebalako jauzkada, lagunak ez daiten joan atea giltzagaz itxita euki ebelako, berebil-bus'ak iges egin daiotzen".

Eleiza-be giltzapetuta egoan eta ez gendun ezer ikusi. Eleiza'k, XV'gizaldiaren amaiera edo XVI'garren gizaldikoak dirala esan eustan Martin'ek, Amerikatik ekarritako urre-gorriagaz eginda dagozelako.

Lurrak ondo landuta egon arren, erria illun-itxuragaz agertzen da eta bizitasun barik. Euskaldunak zeozer geiago egin bear gaunke gure erriak illuntasun ortatik atarateko.

ALBAINA`n: Karmeldarren usai'koa dan Eleiza'ren aurrean geratu giñan eta au-be giltzatuta egoan lez, zar-saridunen txoko'ra joan giñan zeozer artzen.

Martin'eri esan neutson, gazte gitzi erri onetan ez ?.

Jakin gura neuke, emengo gazteak zelako iritzia daukien gaztelarrarekin.

LAIÑO`ra: Eldu orduko, areazko-atxarteetan eremutar edo bakarti'arrak eginda dagozan goba'k edo euren etxe-bizitzak ikustera joan giñan.

Goba oneik (asko diranak), VI'n eta VII'n gizaldikoak dira. Euskalerrian Kristautasunaren asieran, asko izan ziralako mundu onen zalekeritik iges eginda, ARIMA'ren bizitzak zuzentasunezko bidetik JAINKOA'ri eskeintzeko.

Orregaitik, basati eta jainkotar bizitza bidetik, JAINKOA, zilbor biurtu zan ain-bat gizon-emakumeentzat.

Trebiño'ko eremutar edo bakartiarren Goba-geienak, Laiño orduko dauan ibarra'ren albo bietan eginda dagoz. Ezker aldean Santorkaria ogei-Goba daukazenak eta eskomatara eskuz eginda dagozan amaika inguru.

Eremu'tar edo bakartiar onen bizitzak maldaberan asi ziran, Eleiza'ren aztura-bidetik zaletasun aiek, lekaime/lekaide-etxe-arauz bideratu edo eta antolatu egin ebazalako.

Orregaitik XIII'n gizaldian irasi edo ezarri zan VI'n gizaldian egindako Goba baten Gure Peña'ko Andra Maria, Faído eta Lagran'eko erri-bitartean.

Gure Barandiaran'tar Miel'ek, Goba onekaitik esaten eban: Arri-aro (paleolítico) eta Arri-aro barrien (Neolítico) bitartetik (Mesolítico), Bisigodo'en aldi rarte, eremutar edo bakartiar oneik bizi zirala.

Euskalerria da geien agertzen dan arkaitzetako-etxe'gintza au eta Araba'ko lurraldeetan geien, adibidez Baldegobian: Billanueba, Tobillas, Korro, Pinedo, Kexo eta abar. Eta Trebiño'ko konderrian: Markiñez, Urarte, Laiño eta Albaina'n.

Urruntasunetik atara nebazan argazkiak, Goba inguruetan ur asko egon zalako. Baiña badaukaz argazki oso onak ARANZADI Web orrialdetik ataratakoak eta bertan idaz-lan onetan doazenak.

Laiño erri-txikerra da baiño sendotasun aundia erakusten dauana eta askeneko begiraldia berari emonda Armentia`ko Bentaz bide-ostatura joan giñan bazkaltzera.

Bazkal-ostean Urizaarratik La-Bastida`ra joan giñan eta andik Mungia`ra Olazar`tar Martin etxera eroateko eta ni Zornotza`ra

Egun ederra emon gendun Trebiño`ko Euskal-lurralde au Txangolari`zko azter-zaletasunean eta poztasunez eldu giñan gure etxeetara.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.008`an Bagilla`ren 6`an

- ARABA ARAKATZEN -

LAIÑO: Martin`ek, len Trebiño`tik ibili giñanean Laño`ko kobak, ur geiegi egon zalako inguruetan, ez genduzela gura gendun bezela ikusi eta 2.008`an Dagonilla`ren 26`rako itzi gendun, txangoketa ostera baten, guk genuen eran ikusteko.

Egun onen goiza laiñotsua agertu arren, egun on-berezi bat egin euskun orrelako txangotasunean ibilteko eta Mungia`tik 9`rak eta laurenetan urtenda, bidearen aztarna naasi edo gal-erazi ondoren 10`terdietan bertora eldu giñan.

Goba oneik asko eta VI`n eta VII`n gizaldikoak dira. Euskalerrian Kristautasunaren asieran, asko izan ziralako mundu onen zalekiritik iges eginda, Arima`ren bizitzak zuzentasunezko bidetik JAINKOA`ri eskeintzeko gertu egozanak.

Trebiño`ko eremutar edo bakartiarren goba-geienak, Laiño-errira eldu orduko dagon ibarra`ren albo bietan eginda dagoz. Ezker-aldean Santorkarien ogei-goba dagoz eta eskomatara amaika inguru.

Gu eskumako gobak ikustera joan giñan eta zelan ta nun dagozan eginda ikusi genduzanean, nik arrituta Martin`eri itandu neutson: "Denbora aietan egiten eban otza`rekin alako auntz-bizi lekuetan, nundik bizi edo zelan elikatu ?. Abere askoren ingurua zala eta baleiteke, nekazariai laguntzaren eskeintzatic !!. A-ta guzti, bizi gogorragorik ezin aukeratu.

Eremu`tar edo bakartiar onen bizitz-aukera oneik, Eleiza`ren aztura bidetik asi ziran aienatzen, lekaime/lekaide oneik lekaretxe-arauz antolatu egin ebezalako.

Gure Barandiaran`tar Joxe Miel`ek, goba onekaitik esaten eban: "Goba oneitan, Arri-aro eta arri-aro barrien bitartetik, bisigodo`en aldi`rarte, bakartiar bizi zirala bakartiar oneik".

Eta gure Latxaga jauna (San Sebastian`tar Joxe Mari), Gizadi-iztian (antropologia), Teolojia`n eta Euskerazko ele-jakintzan jakintsu aundiak esaten dau "Euskalerraren Kapadozia" dala (Kapadozia, lekaide asko egoan lekuari esaten jako).

Gaurko argazki-gailluak aukera asko emoten dabelako, argazki asko atara genduzan, gero gure genduzenakaz geratzeko.

Gero, Nafarroa`ko mendi-kateetan Araba`ko mugan Toloño mendizerretara joan giñan, goi-aldean 1.245 m. daukazenak eta Lizarrako merindadearen Agilar-Ibarrean dagozan Lapoblacion`go (961`eko mendi-garaieran kokatuta, 18 km. Karratuak daukaz eta 215 biztanle. 1.180`ko agiri baten aitatzen da leenengoz) Lapoblacion (45 biztanle) eta Meano`ko (170 biztanle) errietara joan giñan (aipagarriak dira XIII`n gizaldiko Andra Maria`ren Jasokunde Eleiza eta XV`n mendeko etxeak, bai Erdi-Aroan egon ziran gudu-latzak), bertan gazta ta lukainka apur-bat, ardo ta melokotoi-zukuagaz jan edateko.

Ardura aundi barik eta erdi-galduta, Logroño`ra joan giñan eta Biasteri, Bastida eta inguruko erri-txiker guzti orreik ikusita, arratsaldeko bostetan Espejo errira joan giñan bazkaltzera eta nai-ta Martin`ek euki urte askotan ondo ezagutzazko gomendioagaz be ez euskuen bazkaririk emon eta Angosto`ko lekaidetxea ta Amabirjiña ikustera joan giñan. Bertan jan genduzan urdai-ontzaki edo urdai-azpiko okelagaz ogi-tarteak beteta eta Eleizan egonda ta Amabirjiña ta errekea ikusi ondoren Gaubea ta Mioma bitartean, Omezillo ibaiaren ezkeraldetik Araba`n sartzen dan Burgos`eko adarrean Valpuesta izenagaz dagoan ("Villanueva de Valdegobia" / "Gobia`ko ibar edo arana esan gura dauana"/, "Valpuesta" eta alako izenak ipini ebazanak, ez eben euki Euskara`ren zaletasunezko usaiñik eta izkitegietan ez diralako agertzen, zentzun-gabeko aipamenean geratu dira) lekura joan giñan, erdi-ugarte oneitan egin zan leenetariko Eleiz-Nagusi edo gotzai-Eleiza (catedral) ta inguruak ikustera.

Gaztelarrak ez daukie eskubiderik, leentariako Gotzai-Eleiz onek edestian daukan garrantzi aundiagaz, itxura orregaz eta ain arreta-gabekeria (desatención) eukiteko. Ala..., bildur dira beren berezko jabetasunera itzuli daiten?. Olan ez bada, eleuke egon bear ain ardura-gitzi erakusten dauan lotsa-gabeko eskuetan.


Gaubea Araba`ko Udalerrri onek 553 m. mendi-garaieran kokatuta dago 238 Km. Karratu daukazela eta 898 biztanle, eta daukazan auzuneak: Azebedo, Astulez, Barrio, Basabe, Batxikabo, Belloxin, Bilanane, Bobeda, Korro, Erribera, Espejo, Fresneda, Ginea, Gorostiaga, Gurendes, Kexo (badagoz erri onek daukan Eleiza`ren argazkiak), Karanka, Karkamu, Lalastra, La(h)oz, Mioma, Nograro, Osma, Pinedo, Kintanilla, Tobillas, Tosta, Balluerka, Billamaderne eta Uribarri-Gaubea. Lur onetatik, Omezillo eta Tomezillo dira igarotzen diran ibai nagusiak.

Erri-txiki oneik ondo arakatuta gero, gaubeko 10`rrak ziranean etxera`ko bideratu gintzazan eta Karkamu, Fresneda ta Osma`ko bidea artuta Urduña`ko mendatea aldatu gendun, Laudio, Arrigorriaga`tik Donosti`ko bide-zabala artzeko eta Galdakao`n urten da, Erletxes`etik Mungia`ra eta ni Zorrontza`ra joateko.


Egun polita igaro gendun eta itxaropentsu geratu giñan, alango beste txangotasunezko egun baten, EUSKALERRIAN ezetzen ez doguzan erri ta lurak arakatzeko.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.008`an DAGONILLA`ren 26`an




2.008`ko Irailla`n Olazar eta Uribe`tar Martin`egaz LAIÑO`ko Kobak ikusten



2.008`ko GAGONILLA`n OLAZAR eta URIBR`tar MARTIN`egaz LAIÑO`ko kobak ikusten



2.008`ko Irailla`n OLAZAR eta URIBE`tar MARTIN`egaz LAIÑO`ko KOBAK IKUSTEN



2.008`ko IrAILLA`n OLAZAR eta URIBE`tar MARTIN`egaz LAIÑO`ko KOBAK IKUSTEN

- “AGUR MARTIN !!” -

LAIÑO: Martin`ek, len Trebiño`tik ibili giñanean Laño`ko koba inguruetan ur geiegi egon zalako, ez genduzela gura gendun bezela ikusi eta 2.008`an Dagonilla`ren 26`rako itzi gendun, txangoketa osterata baten, guk genuen eran ikusteko.

Enintzan konturatu, beren leenengo apaiz-ingurua agurtu gura ebenik areik eta ni oartu arte, Martin`ek askeneko denboratan ez ebalatzen gura ainbeste ordu berebilgailluan ibili, asko nekatzen zalako eta jakinda zelakoa nazen, niri ainbeste olako astarnak itzi, gero josi dagiazan “ZER” eta “EUSKERAZAINTZA”ren aldizkarietan argitaratzeko.

Egun onen goiza laiñotsua agertu arren, egun on-berezi bat egin euskun orrelako txangotasunean ibilteko eta Mungia`tik 9`rak eta laurenetan urtenda, bidearen aztarna naasi edo gal-erazi ondoren 10`terdietan bertora eldu giñan.

Goba oneik asko eta VI`n ta VII`n gizaldikoak dira. Euskalerrian Kristautasunaren asieran, asko izan zirako mundu onen zalekiritik iges eginda, Arima`ren bizitzak zuzentasunezko bidetik JAINKOA`ri eskeintzeko gertu egon zirenak.

Trebiño`ko eremutar edo bakartiarren goba-geienak, Laiño-errira eldu orduko dagon ibarra`ren albo bietan eginda dagoz. Ezker-aldean Santorkarien ogei-goba dagoz eta eskomatara amaika inguru.

Gu eskumako gobak ikustera joan giñan eta zelan ta nun dagozan eginda ikusi genduzanean, nik arrituta Martin`eri itandu neutson: “Denbora aietan egiten eban otza`rekin alako aurtz-bizi lekuetan, nundik bizi edo zelan elikatu ?. Abere askoren ingurua zala eta baleiteke, nekazariai laguntzaren eskeintzatik !!. A-ta guzti, bizi gogorragorik ezin aukeratu.

Eremu`tar edo bakartiar onen bizitz-aukera oneik, Eleiza`ren aztura bidetik asi ziran aienatzen, lekaime/lekaide oneik lekaretxe-arauz antolatu egin ebezalako.

Gure Barandiaran`tar Joxe Miel`ek, goba onekaitik esaten eban: “Goba oneitan, Arri-aro eta arri-aro barrien bitartetik, bisigodo`en aldi rarte, bakartiar bizi zirala eremu`tar oneik”.

Eta gure Latxaga jauna (San Sebastian`tar Joxe Mari), Gizadi-iztian (antropologia), Teologia`n eta Euskerazko ele-jakintzan jakintsu aundiak esaten dau “Euskalerraren Kapadozia” dala (Kapadozia, lekaide asko egoan lekuari esaten jako).

Gaurko argazki-gailluak aukera asko emoten dabelako, argazki asko atara genduzan, gero gure genduzenakaz geratzeko.

Gero, Nafarroa`ko mendi-kateetan Araba`ko mugan Toloño mendizerretara joan giñan, goi-aldean 1.245 m. daukazenak eta Lizarrako merindadearen Agilar-Ibarrean dagozan Lapoblaciòn`go (961`eko mendi-garaieran kokatuta, 18 km. Karratuak daukaz eta 215 biztanle. 1.180`ko agiri baten aitatzen da leenengoz)

Lapoblacion (45 biztanle) eta Meano`ko (170 biztanle) errietara joan giñan (aipagarriak dira XIII`n gizaldiko Andra Maria`ren Jasokunde Eleiza eta XV`n mendeko etxeak, bai Erdi-Aroan egon ziran gudu-latzak), bertan gazta ta lukainka apur-bat, ardo ta melokotoi-zukuagaz jan edateko.

Emendik aurrera, Konturatzen asi nintzan, ni konturatu naiten izten ebazan aztarnakaz, berebil-gailluaren gidaritzan itanduten neutselako nondik ? berak bid-erakuslearenak egiten, eskuaren zuku-atz`ekin aztarnatu (indicar) egiten ebalako.

Ardura aundi barik eta nirentzat erdi-galduta, Logroño`ra joan giñan eta Biasteri, Bastida eta inguruko erri-txiker guzti orreik ikusita, arratsaldeko bostetan Espejo errira joan giñan bazkaltzera eta nai-ta Martin`ek euki, urte askotan ondo ezagutzazko gomendioagaz-be, ez euskuen bazkaririk emon eta Angosto`ko lekaidetxea ta Amabirjiña ikustera joan giñan. Bertan jan genduzan urdai-ontzaki edo urdai-azpiko okelagaz ogi-tarteak beteta eta Eleizan egonda ta Amabirjiña ta errekea ikusi ondoren Gaubea ta Mioma bitartean, Omezillo ibaiaren ezkeraldetik Araba`n sartzen dan Burgos`eko adarrean Valpuesta izenagaz dagoan ("Villanueva de Valdegobia" / "Gobia`ko ibar edo arana esan gura dauana". "Valpuesta" eta alako izenak ipini ebazanak, ez eben euki Euskara`ren zaletasunezko usaiñik eta izkitegietan ez diralako agertzen, zentzun-gabeko aipamenean geratu dira) lekura joan giñan, erdi-ugarte oneitan egin zan leenetariko Eleiz-Nagusi edo gotzai-Eleiza (catedral) ta inguruak ikustera.

Gotzai-Eleiza ori ikusten gagozela Martin`eri esan neutson: "Gaztelarrak ez daukie eskubiderik, leentariako Gotzai-Eleiz onek edestian daukan garrantzi aundiagaz, itxura orregaz eta ain arreta-gabekeria (desatención) eukiteko". Ala..., bildur dira beren berezko Euskal-jabetasunera itzuli daiten ? Olan ez bada, eleuke egon bear ain ardura-gitzi erakusten dauan lotsa-gabeko eskuetan.

Gaubea, Araba`ko Udalerri onek 553 m. mendi-garaieran kokatuta dago 238 Km. Karratu daukazela eta 898 biztanle, eta daukazan auzuneak: Azebedo, Astulez, Barrio, Basabe, Batxikabo, Belloxin, Bilanane, Bobeda, Korro, Erribera, Espejo, Fresneda, Ginea, Gorostiaga, Gurendes, Kexo (badagoz erri onek daukan Eleiza`ren argazkiak), Karanka, Karkamu, Lalastra, La(h)oz, Mioma, Nograro, Osmá, Pinedo, Kintanilla, Tobillas, Tosta, Balluerka, Billamaderne eta Uribarri-Gaubea. Lur onetatik, Omezillo eta Tomezillo dira igarotzen diran ibai nagusiak.

Erri-txiki oneik ondo arakatuta gero, gaubeko 10`rarak ziranean etxera`ko bideratu gintzazan eta Karkamu, Fresneda ta Osmá`ko bidea artuta Urduña`ko mendatea aldatu gendun, Laudio, Arrigorriaga`tik Donosti`ko bide-zabala artzeko eta Galdakao`n urten da, Erletxes`etik Mungia`ra eta ni Zorrontza`ra joateko.

Egun polita igaro gendun eta itxaropentsu geratu giñan, alango beste txangotasunezko egun baten, EUSKALERRIAN ezetzen ez doguzan erri ta lurak arakatzeko.

Ez nintzan konturatzen, txangotasunezko azken bidaia izango zala alkar egiten genduna eta gitxiago urrenez-urrengo gertatuko zanarekin.

Osasunezko larri-aldietan sartuta: "MARTIN" Euskal-nortasun aundikoa izan-da, JAINKOA ta gure erri-gizartearen aurrean.

Eta orretaz oartzeko, ez dago besterik ikustea baiño, eten-bako lanean, zelako merezimendu aundian egin dauazan beren zeregiñak JAINKOA eta Erri-Euskera`ren serbitzura.

Nortasun bardifña erakutsi dau bere osasunaren gora-beran, iñori ez dautsolako itzi, beren bizi-gaixo arduraren sartu daiten.

Niri aztarnak itzi bai, egun baten deitu egin eustalako Kurutze`ko-eritegira joan gaitzean, berak beren gaixoa eroaten eban osagillearen-gana joan bear zala-ta.

Orduan oartu nintzan, bere gaixoa, este-lodian min-bizia zala euki ebana eta euren alboan egonez entzun, osagillearen aldetik esanda: "Aukera bi eukazala, miñaren miñez edo eta miñ-gabea bizitzeko". / Martin`ek: "Zelako epe-aldia dago bien artean?" itandu ta gero, / Osagilleak: "Bardiñ antzekoa" eranzun eutson.

Martin`ek andik aurrera ez eban euki miñik, baiña zeozer geiago jakin eban berak, Araba`ko lurraldeak agurtzera joanda Laiño`ko bidai onen aurretik apur-bat oritzen joan zalako eta bera ez zan arduratu areik eta oritasunezko baltzitasun ori nabaritasunean agertu arte.

Bera bakarrik joan zan Ama-Bijiña`ren klinika edo sendategira eta Billanueba`tar osagilleak ogeratu eban.

Bereala deitu eustan eta bertara joanda, osagilleak oritasunezko (ictericia) gaixotasuna zala esan eban.

Eritetxean Irailla`ren eguasteneko 3`an arratsaldeko lauretan sartu zan eta Irailla`ren zapatuko 20`an egun onen asieran, gaueko leenengo orduan ordu-batak lauren miñutu gitxiagoak ziranean il.

Larogeita-bat urte Zemendia`ren ama-zazpian betetako euki ebala JAUNGOIKUA`ren ETXERA, BEREN besoetako zorientasunean bizitzera joan jaku MARTIN.

Iñor oartu-gabeko Martin`en azken aztarna: Martin, EUSKERAZAINTZA eta ZER aldizkariak argitaratzeko arduradun bakar-lez, zuzendu eta irraritzeko aginduak emon da, 341`eko zenbakiaren "ZER" aldizkarian itzi euskun.

Beren eriotza`ren ondorioz ni bakarrik geratuta, laguntza bear neban eta beragaz asko arduratu zan Gerrikaetxebarria`tar Andoni apaiza`ri etxera deitu neutsen.

Bereala agertu zan eta gaxo-etxeko ardurakaz oartu ondoren, berak gotzaintegian daukan bulegora eroan eustan, andik obeto eta eragozpenik gabe, egin bear genduzan deialdiak egiteko.

Andoni`gaz, Martin`ek itzi euskun aztar onein gora-beran asko itz egin neban, eritetxera egun guztietan etorri zalako Martin ikustera eta Gotzaitegia`ren igo-gailluan beren gelara joateko igoten gagozela itandu neutson: "Ezetz igarri Martin`ek azkeneko aztarna non itxi euskun". Andoni ez zan konturatzen eta neuk erantzun neutson: "Ez zara konturatu..., Martin`ek gure aldizkarietan beren argazkirik sekula ez dabela argitara agertu ?. Bai !! Egia da eta gaiñera iru argazki. Ortze daukasu-ba itxi dauskun askeneko aztarna.

Gu Bion alkar ezagutza: Ni, Aita-Santi`gaz Tolosa`n egin zan batzarrera “EUSKERAZAINTZA – EUSKERA`ren ERRI AKADEMIA” sortzeko zala joanda, ezagutu neban OLAZAR eta URIBE`tar MARTIN.

Aita-Santi`gaz gazteleraz idazten neban “EUSKADI” aldizkarirako, baiña Aita-Santi joan jakunean, Deba`n egiten genuen EUSKERAZAINTZA`ren batzar batean, Martin`ek EUSKERAZ idatzi bear nebala esan eustan eta nik ez nekiala esanda, berak: “Ori konponduko genuela” erantzun ondoren, askeneko denbora auetan bera EUSKERAZAINTZA ta EUSKERAZALE`en lendakari eta ni idazkari-lez, idaz-lan bitartez zorioneko artu-emon ederrak euki doguz, lan ugari eginda.

Badakit nik, Martin`ek JAINKOA`ren ZERUTIK gure zurztasunean (desamparo) lagundu be egingo dauskula “EUSKERAZAINTZA eta EUSKERAZALE`en” egin bearrak aurrera eroan dagiguzan.

- “EGUN AUNDIRA ARTE” -

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.008`an IRAILLA`ren 23`an



Zornotza`ko Larrean, Karmeldarren lekaretxe aurrean 2.008`an Ekainilla`ren 28`an Latxaga`k Berrogeta-amar urte apaiz lez bete ebazanean.

Olazar`tar Martin ezarrita, Egurrola`tar Iñaki, Fernandez`tar Karmele eta Barroeta`tar Lourdes. (260)



San Sebastian`tar Martxu, Fernandez`tar Karmele, Uriarte`tar Ana, Arzelus`tar Amale
San Sebastian`tar Isabel, LATXAGA, Barroeta`tar Lourdes, Egurrola`tar Iñaki eta
Olazar tar Martin.



Fernandez`tar Karmele, Arzelus`tar Amale, San Sebastian`tar Isabel, LATXAGA,
Olazar`tar Martin, San Sebastian`tar Maritxu, Atutxa`tar Paul, Barroeta`tar Lourdes.



LATXAGA eta OLAZAR`tar MARTIN MEZA-SANTUA EMOTEN





Karmeldarren Lekaretxe aurrean: OLAZAR`tar MARTIN, SAN SEBASTIAN`tar JOSE MARI eta ATUTXA`tar PAUL



Zornotza`ko "JUANTXU" jatetxean, LATXAGA, OLAZAR`tar MARTIN, URIARTE`tar ANA eta ATUTXA`tar Paul.



"LAIÑO`ko" Kobak joan giñanen egunean "OLAZAR`tar MARTIN`en" AGURRA

Martin Olazar Uribe ahadea

(Goian bego)

Gorputurrungo
Hileta

GAUR,
martitzena, 23
arratsaldeko
7.00etan

MUNGIAKO
Andra Mari
eta San Pedro
Parrokiari



ZULAI BAR
ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

Zulaibarko eskolea indartzen
zuzk egingdakolan sakoma, gure
gogoan geratuko da betirako



OLAZAR eta URIBE'tar Martin Abadea

(Goian bego)

Gorputurrungo
Hileta

GAUR,
asteartea, 23
arratsaldeko
7.00etan

MUNGIAKO
Andra Mari
eta San Pedro
Parrokiari

EUSKERA ZALEAK eta EUSKERA ZAINITZA' ren
Lendakarija

Asko goratu bearko geunke ainbeste urteetan
Euskerazaleak eta Euskerazaintza' ren gandik
biotzez eta maitasun andiz egin dozuzan alegeñakatik.
«AGUR MARTIN» egun aundiarate

- “ONAINDIA`tar AITA-SANTI” -

eta

-“OLAZAR`tar MARTIN” GOGORATZEN -

Bizitzan, sortzen dira gauza batzuk, nor-bera konturatu barik edo amesetan-be gura ez dogulako agertu daitezkan agertzen diranak, eta len Aita-Santi Onaindia`ren Gazteiz`en izan bazan, egun oneitan Olazar eta Uribe`tar Martin`en eriotza Bilbao`n izan da.

Badakigu, gure bizitzak epe-aldikoak dirala, alan da guzti be, ez gara konturatzen agertuko danik eta beti erdi-ustegabeen or agertzen jaku ordutsu, JAINKOA`k atek zabaltzen dabezanean BERA`k deialdia egiten dagoenerako.

Ez da Aita-Santi eta Martin`i gertatu jakiena, batak biotzekoa emonda jakitun egoalako eta besteak osagillearen bidez jakin ebalako epe laburra eukala, nai-ta berak jakin ez noiz izango ete-zan, jakitun agertu zanetik zenbat denbora egoera orreitan iraungo eben, nik orain asmatzen dodanetik urte-bi luze inguru izanda.

Gure bizitzaren gertakizunetan be alan agertzen dira eta batez be, Aita-Santi`gaz alkartzea, nik orren susmorik euki ez arren, iñok ez dauan gogoratzen uste lekutik agertzen diralako, niri sortu jatan-antzera.

1.977`ko Urrilla`ren inguruan, Zornotza`ko E.A.J.`ren batzoki`an sarritan egoten giñela, Goioaga`tar Txomin`ek Letra-ederrak (bellas-artes) eginda daukanak, margo-erti baten zaletasunezko talde bat sortu gura eban eta arrasti baten mus kartetako jokoan ibili giñela, Arizmendiarieta`tar Patxi ta niri aurkeztu euskun berak euki eben asmoa.

Onartu genduan Txomiñ`en asmo ori eta batzoki`ko gela baten asi giñan gure alabakaz batera marrazten, domeketan Boroa ta Bernagoitiko baselizetara joanda, eguratsean (al aire libre) eurak leenengo marraztu gero margotzeko oldozmenarekin.

Baiña !! (eta emen asi zan bidea okertzen), goiz-baten nire emazte Lourdes`ek esan eustan, zergaitik ez dozuz bion armarrak margozten eta Barrenetxea`ren leiartegian agindu eskaratzaren ateko leiarrean irarri edo ezarri dagiazan.

AITA-SANTI ONAINDIAREN AGERPENA:

Eneban ziurtasunez jakin, gure armarrak zelako irudiakaz eginda egon ziran eta Onaindia`tar Aita-Santi jakitunengana joan nintzan.

Armari liburu orregaz ez eban atzemanik emoten, baten batek eskatuta aldiko emonda eukalako. Baiña, berak jakin ebala, apaiz-batek egineko Atutxa`tarren armari-irudia eta leiñuz`ko zuaitz baten etorkizunezko izen abizenarekin margotzuta egoala eta Zornotza`ren Bernagoiti auzuneko baserri batera joan giñan ikustera.

Armarriarena bai, baiña nire sendirik ez zan agertzen eta berandu egin jakun-lez. Berak, ordu onetan gure lekaidetxean ez dabe janaririk emoten, esanda, Oba`ra joan giñan bazkaltzera.

Bazkari luzea egin gendun, babarrunak, gatz-ozpiñak, ardo, aragi, gazta-barria, akeita, txola eta txokorra. Jan, edan eta erre-bitartean, gure errimiñeko mintzaldi luze orreitan euki gendun gaia (Euskalerria`ren askatasunezko arazoa), biontzat atsegingarri izan zalako.

Ni erantzuten ibili nintzan bitartean, bera ez zan nekatzen itaunak egiten, ari batetik apur-apurka tiraka ibili bazan antzera eta arratsaldeko zortzirak inguru ziranean Larrea`ra eldu giñan.

-Aita-Santik gurditik urten orduko: "Esan dozuzan guztiak, zergaitik ez dozuz idazten eta nik zuzenduta, Euskadi-aldizkarian argitaratu ?. -Nik: Baiña zoezer geiago ikasi bearko dot ez ?. Ori konponduko dogu !.

Idaz-lana aurkeztzeko eguna ta ordua ipini ondoren, beste itaun bat egin eban: Eta au noiz arte ?. Liburuak amaitu arte ! erantzun neutson agurtuaz batera.

Or ! amaitu ziran nirentzat, sortu gendun marrazkilaritzazko talde eta margozteko ametsak. Ortik aurrera, idaz eta ikas-lanean buru-belarri sartuta egon nazelako.

Nik, itaun bat egiten neutsoenean, berak, Bizente Silio`ren liburu ederra, iru atal daukazenak eta Mundu`ko edestia ezin-bestean adierazten dauanetik asi ta, Luis Cuèllar Bassols eta J.M. Rovira Martinez`en Eraman-Onaren Sarrera (introducciòn ala filosofia), P. Gabino Marquez S.I. Ekandua`ren Eraman-Ona (filosofia moral), Walter Brugger S.I. Eraman-Ona`ren iztegia eta abar irakurteko emoten eustazan.

Ainbat lan gaztekeraz-idatzita argitaratu genduzan E.A.J`ren Euskadi aldizkaria amaitu zan arte.

Ez giñan sekula asarratu eta illean baten opari-lez, ostera bat egiten gendun, danak erri-jakitazkoak izanez gain, Euskalerriko lurraldeak ezagutzera.

Gurentzat, zelakoak izan ziran amazortzi urte areik ?: Niretzat batezbe, bizi guztia aldatzea. Araiño erdi-maillako jakintzan bizi ba`nintzan, andik aurrera itandu egiten neutsoenean ZERGAITIK ?. Berak, liburu bat emoten eustalako, benetako jakin-bide baten egokituta geratu nintzan.

Eta araiño, egizko bidea izan bazan-be, nire baitan ez dotelako zalantzarik onartzen, ortik aurrera erabagi gogor-bat artuta: "Jakiñezko egi-bizi baten aurrera jarraitu dot".

Esan bearrean nago, batzutan oso gogorra eta beste batzuetan latza izan arren, laguntza orreikaz erreztasun aundiz eroan dodala eta nire bizitza, baldintza orrein jarraitzaille izango dala.

1.979`an Euskerazaintza, Kardaberaz`en baimenean sortu zan asieratik, Aita-Santi`gaz joaten nintzan batzar guztietara eta an ezagutu neban Olazar`tar Martin.

OLAZAR eta URIBE`tar MARTIN`en AGERPENA:

1.996`an Otsailla`ren 11`garren egunean il zan Aita-Santi agurgarria eta Deba`n egiten genduzan batzarretan Latxaga (San Sebastian`tar Jose Mari) jauna izan zan leen alegindu zana nik euskeraz idazteko asi naiten. Eta enekiala esan neutsonean, berak: “Konturatu-adi, Euskeraz idazten dozun itz-bakotzarekin, Euskalerraren etorkizunerako, oinkada aundi bat emotea dala” esan eustan.

Urrengo batzarrean, ez zan gertatu bardin Olazar`tar Martin`egaz batzarretik urten nebanean, onek txantxak, beldurrezko-lotsak edo eta nagikeriak, ezertara-be ez ebalako ontzat artzen, Aita-Santi`ren antzera: “Zergaitik ez dozu Euskeraz idazten?”. Berari be, enekiala esan ondoren, erantzun zeatza emon eustan: “Ori, konponduko dogu !. Zuk idatzi bai ! eta nik zuzenduta ZER aldizkarian argitaratuko doguz”.

Ortik aurrera, ardurazko artu-emon estuak euki dodaz Latxaga`rekin (San Sebastian`tar Jose Mari) Nafarro`tik azterraldiko lanean eta idazten nebazanak Martin`ek zuzentzen ebazan.

Baiña Martin, ez zan edozein gauzagaz egokitzen, naita gauza orreik garrantzi aundikoak izan eta Euskalerria`ren edestia Euskeraz idatzi bear nebala esan eustan ondoren, or sartu genduzan al izan dogun egiazko sakontasunean.

EUSKERAZAINTZA:

Euskerazaintza sortu zanean, ainbat ezberdiñeko eritziren aurka irasi zan. Ez! Euren arrokeria nagusi izan zalako, alako gauzarik JAINKOA elburu dala eta erriaren arazoekin biozminduaren sendimenduan egokituta ez dalako aldi-berean astirik egoten arrokerizko erazkeri orreitan ibilteko.

Ondo baiño obeto jakitun egon ziralako batua`gaz egingo zana. Euskereak asieratik eta jarraian ekarte eban sinismeneko sendotasunari, kalte aundiak egingo eutsezalako. Nortasunaren neurrizko-arloan berakada galantak sortuerazota. Atzean datozenak NORTASUNDU egin bear dabena, Mundu onetan zeozer izatera eldu gura ba-dabe.

Nortasunezko arloa-gaitik berba egiten dogunean. Mundu onetako izatasunagaitik berba egiten dogu eta ori ez da zirtzilkerizko (naderia, cosa baladi) gauza barragarri bat.

Euskereak milla urte askotaren etorkizunean, Mundu onen bizitzari, ezin besteko adi-erazi argi ta zabal-bat emon eutson, etorkizunean siñis eta osasun aundiz agertu dana, gure arbasoak bere barneko gorputza, ulermenaren zentzun aundiko ardurakaz osotu egin ebalako eta izatasunezko jarraipenaren elburuan ain trebe ta ardua aundian egin diran gauzarekin ezin lei jokatu alaikeriz.

Egia da, gaur Mundu onetako ulermena bakandutasunezko erreztasunean (simplificar en la desdogmatizaciòn globalizadora por no tener en cuenta el paso que debe imprimir a nuestras acciones la impresiòn enraizada en nosotros de

SUS LEYES NATURALIZADAS) ezarri bear dala, bideak garbituz, azturazko-aurrerakuntzan argitasun geiagorekin ibili gaitazan .

Baiña, Euskeraren arazoa ez da ori !! Euskerea bera dalako Askatasunaren Demokrasiako zaindaria, beren gaztelua erri-gizartearen eskubideko arduran eginda dagoelako.

Etorkizun orregaz kezkatuta, Kardaberaz Bazkunak, Euskerazaintza baimendu eben eta ez ziran txatxetan ibilteko gizonak nik ezagutu dodazan: "Jon, Dionisio ta Manu Oñatibia`tarrak, Akesolo`tar Lino, Arostegi`tar Luis, Augustin Zubikarai, Eizmendi`tar Iñaki (Basarri), Arrinda`tar Anes, Latiegi`tar Bizente, San Sebastian`tar Jose Mari (Latxaga), Gaztañaga`tar Jesus, Zatarain`tar Ambrosio, Azurza`tar Jose Joakin, Zubiri`tar Iñaki, Solozabal`tar Paulin, Arzelus`tar Amale, Garzia ta Alkorta`tar Martin, Moraiz`tar Mirentxu, Garmendia`tar Juan Jose, Garmendia`tar Inazio, Salaberri`tar Demetrio, Murua`tar Jose Mari, Onaindia eta Bazeta`tar Aita-Santi eta Olazar ta Uribe`tar Martin eta orain ez nazenekin gogoratzen.

Euskalerrak zor aundiak daukazenakaz, euren bizitzak maitasunezko irakaskintzan, JAINKOA eta EUSKALERRIA`ri oso-osoaon eskaiñi dautsoezalako.

OROIPENGARRIA:

Enaz sekula aaztuko ospe aundiko gizon-emakume onekin eta batez-be, maitasunezko adiskidetasun aundian euki dodazan Onaindia ta Baseta`tar Aita-Santi eta Olazar ta Uribe`tar Martin, badakitelako JAINKOA`ren zerutik laguntza emongo gaituela EUSKALERRIA`ren NORTASUNEZKO ZENTZU EDERRA BERREZKURATU DAGIGUN.

ATUTXA`tar PAUL

Zornotza`n 2.008`an Urrilla`ren 28`an




EUSKERAZALEEN ALKARTEAN
Zubiri`tar Iñaki, Augustin Zubikarai eta Olazar`tar Martin.



Karmeldarren Lekaretxe ondoan "AITA SANTI`ri" egin jakon omenaldian
OLAZAR`tar MARTIN islari



Donostia`n egin gedun EUSKERAZAINTZA`ren Batzarrean: Arzelus`tar Amale, Atutxa`tar Paul, Zolozabal`tar Paulin, Latxaga, Olazar`tar Martin, Murua`tar Jose Mari, Lorda`tar Trni eta Erbiti ta Arbilla`tar Bakarne Iruña`koak (275)



ONAINDIA eta BAZETA`tar AITA SANTI



Donostia`n, Manuel Lekuona`ren omenaldian

LEKUONA`tar MANUEL, LEIZAOLA`tar JESUS MARIA eta AITA SANTI ONAINDIA

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAKL TOKI-IZEN MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

AURKEZPENA:

Arrastion, itzaldi onetara etorri zarien guztioi eta on-egin daigula danoi beren mamitik ulertzen dogunak.

Munduan eta Europa onetan batez-be, asko dira maltzurrezko jokoan dabizenak, euren norkerizko asmakuntzak garaipendu daitezcan eta Bereztasunezko LEGEA`ren aurka diran lez, or !! sartzen gaitue gu, EUSKALERRIA ezereztutea gure dabelako.

Erreza ez da izango, Euskaldunak bizi egin gura dogulako eta geiago, gure arbasoak JAINKOA`ri begira gai-bizi oneri emon eutsen adierazpen ederragaz zor aundiak !! daukaguzelako.

JAINKOAK, NOR izateko bialtzen gaitu gaitasun onetara eta gure arbasoai esker, gure NORTASUNEZKO sinismenak bereztasunean sustraituta dagozan-lez, gaitz izango da JAINKOA`ri eta ARBASOAI uko egitea.

Olazar eta Uribe`tar Martin`ek agindu eustan lan onen mamia azaldu dagidala eta al-dodazan alegiñak egingo dodaz, solas-itzaldi onetatik arrazoiz beteta pozik urten daigun.

SARRERA:

JAUNGOIKOAK, gure ARIMAK gai`ezko bizitz oneitara bialdu ebazanean, BERAK ipinitako GAI-LEGE`en artean ezarri ebazan eta guretzat ezagutu-gabeko bizitza izan zalako, urduritasunezko bildur aundiagaz asi giñan bizi au erabilten.

Aize, lur, ur, egazti, suge, narrasti, arrain, abere eta lorategi eder oneitan sartuta, laster konturatu gintzazan “ARDURA” izan zala bizi onek eskatzen euskun aurreneko-ardatza eta beartuta geratu gintzazan jakintzaren antolaketakaz arduratzeko.

Gaitasun onen LEGEAK beartuta bizitzan irauteko, laster konturatu giñan, leen “NEURRIZ”, egiten genduzan gauza guztietan “ARDURADUN-NAGUSIENA” zala eta gizatasunarentzat or asten dira iker-lanak, daukaguzan jakintasunezko egarriak asetzeko, gaur arte eta gaurtik aurrera noz-arte izango dan jakin-gabe: “ZERGAITIK ITAUN” !! gure jakintza entseguz edo oarrez (metodo empirico), azturazko (crecimiento sapiente) bidean, garaipendu daiten.

Orregaitik, bizi onen asiera eta gaurko denboratan, nai-ta jakintzagaz bakandutasunezko aztura-bidean erreztasun aundiak lortu, aukera arloetan neurri bardiñean gagoz, bakandu bear doguzan ditekeenak edo izan-gaitasunetik beste ainbeste aurretik agertzen diralako, JAINKOAK ipinitako LEGEEN oldozmenean

antza, BERAK bereztutako LEGEA´ren elburua betetea gura daualako, orekan bizi gaitezana.

Bigarren: Bizi onen bearrezko eta eten-bako egitarau-ekiñaldietan, gure gizatutako ARIMAK baita (conciencia) garbi baten eta poz-aundiz agertu daitezana, danon ordezkartzan ESKUBIDE BARDIÑAK daukaguzalako, ondorio-lez beste garrantzi aundiko irudi-bategaz estutu egiten gaitu, bizitzan bear dan ardatz-nagusiaren “LOTSA”gaz. Au, Izadi onen ardatz-nagusia biurtzen jaku.

Oiñarrizko ardatz oneitatik ASKATASUNEZKO irudia bakarrik geratzen jaku aurkezteko.

Irudi au ez da baiña: “JAINKOAK emon euskun aukera, gure ekiñaldiko gauzak ON edo TXARREZKO bidetik egin daiguzan” baiño.

Orregaitik, NOR-BEREN eta DANOREN giza-barren ASKATASUN OSOKO egikeratik agertzen dana: Gauzak “ON-BIDETIK edo BEREZKO-LEGEAN EGITEN DOGUZANEAN” nor-beren SENDIMENDUZKO-BAITASUNA garbi ta pozez beterik agertzen da.

Eta gauzak “MALTZURKERIZKO TXAR-BIDETIK EGITERAKOAN, NOR-BEREN BAITA DAMU-AUNDI BATEN, EZEREN ASKATASUNIK-GABE MENDERATUTA AGERTZEN DA”.

JAUNGOIKOAK BERE BEREZTASUNEZKO LEGE aurrean, giza-barrenaren minkortasunezko sentimentu orregaz bialtzen gaitu gaiezko lorategi-eder oneitara eta zoriontsu edo oso-txar senditzen gara danok, zuzentasunezko gauzak zeintzuk diran jakiten dogunean, txarto egin ezkeru.

Gizon-Emakume batzuk, diruaren lillur-deiak gaiñezka egiten dautselako baiña, gaiezko Izadi oni danok NOR izanda emon bear dautsaguzan adierazpenetik eta Nortasunaren baitan gaitz-eginekoak emoten dauan damuari jaramon egin gabe, euren sasi-norkerizko ziñezkintzakaz, giza eta erri-gizarteak BEREZTASUNAREN LEGEZKO jakintzan naastatu egiten dabez eta Mundu onek emon bear eban olatugabeko itsas edo pakezko iruditik, ikaratutako elefante-bat leiargintza baten (cristaleria) sartuta egin leiken ondamen irudia emoten dogu.

Deiadarti-bat (alarmista) nazela irudituko jatzue batzuri. Nire giza-barren edo baita´ren egarriak baiña, zuzentasunaren zentzua eten-bako eskaera baten eukinda eta gure Euskalerra maite onen arrazoiakaitik minduta, ardura orreitan buru-belarri sartuta nago.

Edestilaria ez naz, ele-jakituna be ez, jakintza´ren arlo orreik, euren teknika-bidez edo arauz bete bear diralako.

Baiña, lenagoko edesti-ziurtasunaren zentzuzko zeaztasun asko batutakoa bai, orregaitik, erri-gizartearen edesti ta edestian izkuntzak emoneko toki-izenak (toponimia) alkarren arteko ulermen baten azalduko dautsuedaz.

ITZALDI ONEN ZATIAK:

I. ZATIA:

1. Izkuntza eta edesti-arloan idazlari batzuren laguntza izan dot.

1.1. Zubiaga eta Legarreta Felix “Origen del Vasceuce”.

Beragaz egonda, Gaztelera emon eustazan “Vasceuropeismo versus Indoeuropeismo”. Eta Euskeraz idatzita daukan: “Euskara ermeneutika” liburuetatik artuta.

Liburu oneik Internet´etik atarateko daukan elbidea:

<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

1.2. Nuñez eta Astrain´tar Luis´ek egin eban “EL EUSKERA ARCAICO” liburutik. Internet´eko elbidea: **www.txalaparta.com**

1.3. Euzkadi Online: “LA PRIMITIVA LENGUA DE LOS ANTIGUOS EUROPEOS”. Internet´eko elbidea: **email@EuzkadiOnline.com**

1.4. “TOPONOMIA VASCA EN EUROPA”.

1.5. “Gran Diccionario Enciclopedico Ilustrado”. Selecciones Del Reader’s Digest.

2. Europako jakintsuen esanetan, Kromañoen denborako giza-jakituria eta gaurko giza-geneak zelan dagozan.

3. Orren frogagarri batzuk.

3.1. Kromañoi´en Izkuntza.

4. Homo-Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, Zelako jendekuntzagaz osotu eben..., ezagutzen ziran Afrika, Asia eta Europa´ko lurraldeak ?.

5. “Mundu´ko-Gizatasuna´ren ETORKI edo GURASO-ONDOKO” izatea.

6. Arri-Aroan, Euskera´ren mintzotasuna nondik-nora egiten zan eta erro-bar-diñetik sortuak non ?.

7. Mundu zabalean, Euskal Toki-izenak eta Itzak.

7.1. Afrika, Asia eta Europa´n, Euskal toki-izenak.

7.2. Maixu jakintsuak zer esaten dabe.

7.3. Krutwig´tar Federiko´k esaten dauana.

7.4. Italia´n Euskerazko toki-izen eta itzak.

7.5. Lonbardia´n.

7.6. Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalterra´n Euskerazko toki-izenak.

7.7. Kaukaso´an.

7.8. Bereber inguruan.

7.9. Bouda´tar Karl Aleman Euskalria eta Errusia´ren izkuntzan berariskoak zer esaten eban.

7.10. Iriondo´tar Mikel antropologo edo giza-iztilariak.

7.11. Gandia´k idazle edo asmalari Arjentina´rrak.

7.12. Europa, Asia eta Afrika´ren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta.

8. Europa, Asia ta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko ?.

2 ZATIA:

1. Asia, Afrika eta Europa'ko jendekuntzak.
2. Gure edesti-aurretik, Asia, Ejipto, Grezia'ren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo eta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri-aldaren edesti laburra.
 - 2.1. Asia'ren edesti laburra.
 - 2.2. Ejipto'ren edesti laburra.
 - 2.3. Grezia'ren edesti laburra.
 - 2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta....Indoeuropeo'tarrak ?.
 - 2.5. Zergaitik euren erri-aldak ?.
3. Zer edo nortzuk izan ziran Etrusko'ak ?.
4. Zer edo nortzuk izan ziran Mauritarrak ?.
5. Bigarren zati onen ondorioa.
 - 5.1. Giza-leiñuen egokitasuna.
 - 5.2. Izkuntza ta toki-izenak.
 - 5.3. Jendekuntzazko garaiak.
 - 5.4. Indoeuropeo'tarren alderraitasunak eta Etruskoa'ren agerkera'ren edesti laburra.
 - 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarrizko izen-on.

3 ZATIA:

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak eta erromatar ta latiña'ren jaiotza.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.

4 ZATIA:

1. Gure Erdi-Mendeko Euskalerrian, errege ta jauntzaren sorkuntzak.
2. Euskalerria'ren Oraingo-Aldia edo eta Berrizte-Aldi'tik (desde la reforma) Frantzia'n 1.879'an egin zan iraulketararte.
3. Euskalerrian iraulketatik gaur arte.
4. Euskalerria'ri Euskerea'k zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?.
5. **EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.**

1. IZKUNTZA eta EDESTI-ARLOAN IDAZLARI BATZUREN LAGUNTZA:

1.1. Zubiaga ta Legarreta'tar Felix'ek, bere argitaratutako liburuan "Origen y desarrollo del lenguaje" (según el vascuence) 49n. orrialdian esaten dau: Munduko gizarteetan "Mintzoeraren jaiocera eta beren azalkuntzaren azkera edestian, Munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala bere neurri guztietan.

Orregaitik, Euskerazko mintzoera-bat bezala, Izadi'ak daukazan irudizko eredu-nagusietan ikertu ta ipuin bezala adi-arazia dala, edesti ta edesti-aurre onena, GIZATASUNAGAITIK iñoz azaldu, esan edo kontatu dana".

Maixutasunezko lan ederra benetan Felix Zubiaga eta Legarretak egin dauana. Euskaldun guztiak eta batez-be jakitunak irakurri bear leukiena, gure Euskal-Askatasunezko-Demokrazia sinismenean sendotu daiten eta European erakutsi, bera dala orain-be asieraren "IZAR"ezko ARGIBIDE ONENA, IZADI ONEN GIZA, ZENTZUTASUNEZKO "ORUBEAN" ESERI edo KOKATU GAITEZAN.

(ORUBEAN emplazamiento, de ORU= SOLAR+BE=(bajo). Arri-aro berriko berbea, Griego'en ots-izti edo fonetikan ORUBE=EUROPA, SOLAR-EUROPEO esangura dauana).

Felix Zubiagak, bere "Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo" 56 orrialdeko IIIIn. zatitik datorrena, liburua 79n. orrian: "IZEN-JAKINTZA (la Onomástica), JAKINTZAREN OROIMENA" (memoria sapiencial): An, Utu, Ra, Ilu, Ka, Ba eta As'en eredu-nagusiren (arquetipos) izkin-bateko berbak aztertu ta argitutako amaieran ondorio-lez esaten dau: "Izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala".

"Izkin-bateraño eltzea, eredu-nagusiren (arquetipos) ozenezko (sonoro) iturria argitzea dalako berbearen mintzo edo abots sorkuntzan".

Eta Euskerea, al dalako izkin-bakarreraiño eldu, orain ezin da esan alderatzailleak (comparatistas) esaten daben antzera, "Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala".

Mintzoeraren oguzpeneko (pronunciación artikulada) jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz beren jaiokera argitzen dauan IZKUNTZ-BAKARRA.

EUSKEREAK, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartezko itzaren antolakuntzan eta entzutezko abotsetan irarrita daukazelako.

Zeruko (divino) eredu-nagusiaren (arquetipos) antzezko (analogias) zuzentasunetan "Izadi-iztia" (cosmología) dalako, gizadiaren jakintzan "gogo-iztia" (alma-psicología) ta "gizadi-iztia"(antropología) da, bai dirdaitasunezko-gogarketa (meditación refleja) gizartearen eredu-nagusiaren antzezko zuzentasunetan eta "teología" da, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.

Euskereak, Sumerio´en izen-jakintzazko irudimenaren eredu-nagusiko arlo aundietan eta gramatikan-be esku artzen dau, Ugarit ta Ejikto´ren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako.

Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna ipuiezko asmamena (imaginaciòn mítica) da, baiña eredu-nagusian berba barrien jaikunezko kokamenaren (engarce ritual) trebetasuna-be bai, aiek ez dabelako galtzen abots´ik, antolamenduzko zentzurik ez aintzintasunik, bieri oso-osoan aurreratuzota burutakizun barrien artu-emonetan.

Izkuntz edo mintzoera-gintza baten, lojikak, mitolojia beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko Izadi onen antolakuntzan eta Arri-Aro Barriko gizonen oldozmenean.

Berbea, “esan/izaneko (decir/ser) elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zan beren oiturazko arau-zaletasunean, dana, Izadi onen berezko-antolakuntzagaz egokituta egon daiten, oroimenaren atzerakadarik ez daiten egon, bere galduerak danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, ele-jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir-jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

1.2. Nuñez ta Astrain´tar Luis´en: “El Euskera Arcaico” (EXTENSIÒN Y PARENTESCOS) liburutik be bai, zeaztasun batzuk artzen dodazalako.

2. Europa´ko jakintsuen esanetan, Kromañoen denborako giza-jakituria eta gaurko giza-jeneak zelan dagozan:

“Elisabeth Hamel, berrien idazlea; Theo Wennemann, jermaniar ele-jakintzaren maixua, eta Peter Foster, Kanbridges´eko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea” diranak eta irurak bat eginda, auxe da baieztatuten dabena (leen Wilhelm Humboldt ele-jakiton edo izkuntzalariak eta orain beste jenetista-barri batzuk-be bardiñ esaten dabena): “Europa´ren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan euneko zenbakitik, irurogeita amabost Homo-Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunak dirala eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea zala”.

3. Orren frogagarri batzuk:

Homo-Sapiens Afrika´n sortu eta ugaritu zanean, “WURM” deritxon azkeneko izotzaldia urtutzen asi zanean, orain K.a. 14.000-9.000 urte Magdalenense eta Aziliense, gorengo Paleolitiko edo arri-aro´ko denboran Europa´tik zabaldu eta erritu egin zala..

1.868´an Frantzia´ko Ego-Sartaldean Dordoña´ko lurraldeetan Perigor´eko errian dagoan Kromagnon aitzuloan, Goi Arri Aldiko asieraren giza-azurrak aurkitu ebezan: Gizon-zaar batenak, adiñeko gizon bi, emakume bat eta aurtxo batenak.

Danak buztin gorriagaz margoztuta, zirgillo edo beso ta samako estunakaz (pulseras y collares) eta saretxo edo xirristak itsas-maskorrakin aristatu edo ondozkatuta egon ziranakaz apainduta. Eta giza-azurrak geiago: Frantzia´ko beste

lurralde batzuetan, Txekoslovakia´n, erdi-ugarte onetan, Alemania´n, Suezia´n, Italia´n eta Polonia´n be aurkitu ziran.

Gizaki onen buru-azurrak, gaur daukagun giza-itxuraren bardiñ-antzekoak ziran eta eroaten ebazan apainkeriak, bilbe (evolucìon) aundikoak zirala esan eben.

Oneik dira Kromañoen giza esan dautsoenai eta Europa´ren arbasoak.

3.1. Kromañoi´en IZKUNTZA:

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu, Homo-Sapiens edo Kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitzeko, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturan oituratzeko euki eben izkuntza, ulermenean ezartzeko “LEN-EREDUKO EUSKERA” zala Atlant-Itsasotik INDIA´raiño. Iñorentzat ez leuke izan bear sinis-gogorkeri-bat, Homo-Sapiens edo Euskal-Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Besterik...., egoan ba?.

Alan dala, esan leike antza !!. Jakintsuen ikerkuntza bidetik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda, EUSKERA asikoen sorkuntza askoz aurreragokoa izanda galdu egiten ekielako.

Afrika, Europa ta Asia´n, orregaitik ainbeste EUSKERAK argitu leiken toki izen aurkitzen dira: “Aran, Ur, Ibar etabar asko, mendi-toki, lur, ura, aize, osko eta eurak biziaren ulermenean sartzeko, izendu bear ebezan gauzetan agertzen da .

Emen, EUSKERA´ren ziurtasuna zeaztuteko esan bear dogu, goian, Felix Zubiaga ta Legarretak maixutasunezko adierazkizunean esaten dauana: “Izkin bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza, jatorriz sortutako izkuntza dala”.

“Izkin bateraiño eltzea, eredu-nagusien (arquetipos) ozen´ezko iturria dalako, berbearen mintzo edo abots-sorkuntzan”.

Eta EUSKERA dalako izkin bakarreraiño eldu leikena, orain ezin da esan alderatzailleak (comparatistas) esaten daben antzera: “EUSKERA jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala”. “Bere izatean, bera dalako berezko-aitortzaille, oguzpeneko (pronunciación articulada) mintzoera jaiokeran”.

Gaur EUSKERA orregaitik, mintzoera´ren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz, beren jaiokera argitzen dauan “IZKUNTZ-BAKARRA” da.

4. Homo-Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, zelako jendekuntzagaz osotu ebezan, orduan ezagutzen ziran Afrika, Asia ta Europa´ko lurraldeak ?:

Afrika´tik mugi-aldiak asi ziranean, jakintza´ren arloetan: Euskerazko leen-izkuntz eta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik gabe eta milla urte-asko ondoren jakintzazko azturan, leiñuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduan kokatuta geratu ziran bakoitza beren Batzar-Nagusiko babespean.

Mundu-bizitsu ta aldakor oneitan, ekintzazko arduraren eta berezko denboraren larrialdiko egoeratik babesteko, leenengo ikasten doguna, orekaren egokitasuna da, Izadi onen indarrari, gordin-gordiniñ aurka egin ezkeru, gu baiño askoz geiago dalako.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten eta gero auzotasunezko lur-leiñuetan Afrika, Europa ta Asia´ko lurralde guzti orreik egokitzen.

Milla urte askotako aukera orreitan lortu eben orduko leiñuak, gaur oraindiño EUSKALERRIAK daukan, euren NORTASUNEZKO-IZKUNTZAK eta OITURA-DEMOKRATIKOAK, gure LEGE-ZAARRETAN DAUKAGUZAN´en ANTZERA.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura-arloan gaztelu-bat bakarrik ezin eben egin eta orko bidetik asi ziran berexkatzen antzeko izkuntz-desberdiñetan.

Alan da guzti, nai-ta Mundu zabal orreitan gizarentzat, mendi, aran, euri, izotz, egu-giro, lurraren otz-berotasun, abeldi ta lorei antzeko-ezberdintasunak, bizi-ekintzaren bidez bereiztasun-bereziak emon, ekanduan eta oiturazko oiñarri batekoak izan-da, aukera barri orrek, ez dau nai esan guztiz banakatu egin ziralako, auzotasunaren leiñutasunezko urbiltasunak arremen edo alkar-ikusteak zaindu egiten ebazalako.

Gure arbasoak, milla urte askoren aukera orreitan eraiki eben, gaurko jakintsuak esaten daben..., eta eurentzat: “Aurreko JENDEKUNTZ-GALDUA dana ?.

Baleiteke, baiña..., Mundu onek daukan giza´ren jarraikuntza ikertzeko ez dago ezelako mirari ez antzekorik, hainbeste antzeko izkuntz eta toki izenaren arrasto eukinda.

Gaiñera, Felix Zubiagak esaten dauan antzera “EUSKERA” bere jaiocera argitzen dauan IZKUNTZ-BAKARRA izan-da, “JAINKOA`ren GAUZA IZAN-DA”, bizitza bera, ez ba-dogu kontuan artzen.

Esan onekaz, oraindiño edestiaren-azalckeran gaurko izkuntzalarien artean ainbeste ganorabako-irabazkoi (interesados) egonda, guzurtapeneko illuntasunak iraun dagiazan ibili, ez dot esaten lengo jakintsuak errudunak ziranik.

Menperatzaille aundiak Munduan egin eben naas-illunezko zirriborrotik eta gaiñera ekanduz edo berezko-oitura onean ibili ziran izkuntzalariei, egia dana argitzeko, frogapen edo siñispidearen eragozpeneko eskaeran debekatuta, euren azterkuntzak uts´etik ez bakarrik asi bear izan ebezalako, guzurrezko ta illuntasunezko zirriborro uts´etik asi bear ebelako baiño, gero bigarren zatian adiraziko dodan lez, NORKERIAREN maltzurtasunezko guzurrak irabazki-politiko biurtuta, eragozpen aundiakaz aurkeztu egin ziralako.

A-ta guzti, euren jakituri aundian egindako ikerkuntzazko-lan guztiak ez ziran makalak, goian esan dodan lez, asierako Homo-Sapiens, Kromañoi edo asierazko Euskal egokitasunera, gura nai-ez bideratuta geratzen diralako.

5. Mundu´ko-Gizatasuna`ren “ETORKI edo GURASO-ONDOKO” izatea:

Emen aipatzeko bearrezkoa dana: Zergaitik, gure arbasoak euren irudimenetan ez daitezcan aztu, Santimamiñe, Ekain ta Altzarri´ko ar-zulo edo leize-zuloetan marraztuta agertu diran irudiak “Mundu´ko-Gizatasunaren ETORKIZUNEZKOA” izendatu eta gure artean izkuntz-zaar eta ederrena dana, irudi-ulermentzeko mintzo-berbaren leenengo itz-ots´ak Euskeratik argitu leikezenak eta orregaitik garrantzi aundienekoa izan da “EUSKERA-IZKUNTZA”, ZERGAITIK-EZ ?.

Erri-legean edo Demokrazian sartuta gagozela esaten dabe batzuk, baiña sekula ez gara aukera orreitan ezarriko, antziñatik datorren eta gaurko NORKERIAN, geiegian kokatuta dagon artean.

Laster izan bear dana, JAINKOA´ren LEGEA´k, txarto egiten doguzan gauza guztiagaitik mugatuta egonda, premiazko-larritasun oneri irten-bide bat emon bearrean gagozelako.

EUSKALDUNAK, EZ DOGUZ GALDU BEAR AURKEZTEN JAKUZAN AUKERA ONEIK, GURE NORTASUNEZKO eta ORDEZKO-ARDURAK BERRESKURATU GURA BA-DOGUZ.

ORRETARAKO BAIÑA, EUSKALERRIAREN ASKATASUNEZKO ELBURUARI DANOK BATERA BEGITU BEAR DAUTSAGU, NAI-TA POLITIKAREN EZBERDINTASUN TALDE-KIDEETAN LAN-EGIN.

BETI, LELOKERI-BARIK ETA BURU-BELARRI !! GURE ARBASOAK EMON EUSKUEN “LEGE-ZAARRAREN” ERRI-LEGEZKO (democracia) ZENTZUAREN ARDURAN LAN-EGINDA.

6. Arri-aroan..., Euskeraren mintzotasuna nondik nora egiten zan eta erro-bardiñetik sorturitako ezberdintasunak non ?:

Olazar´tar Martin´ek, beti esaten eustan, idazten doten guztian, erabateko (rigor) zorroztasunean lan egiteko.

Baiña zer esan..., adibidez: Zesar´ek, leenengo aipamenean esaten ba-eban, Euskerea Garona-ibaitik bera berba egiten zala eta bigarrean Loira-ibaitik ?. Gaiñera gaur jakinda, Eskozia´ren ugartean goialdeko Kaledonian Pikto´ak bizi zirala eta eurak egindako arri-landuetan aurkitu diran idatzitako izki´ak Euskerazkoak dirala ?. Arri baten adibidez Pikto´z idatzitakoa: “doannataenakotekaetua” beren irakur agiria: “doana da Eneko t´akaitsua” eta Gazteleraz irakurrita: “el que se va es Eneco y la preocupaciòn”.

Eta Pikto´ak Ixn. gizaldian Eskozez-Keltiarrakaz bat egin ba-ziran..., nortzuk bizi ziran an Keltiarrak joan arte ?.

Orregaitik, gero, Mundu zabalean gaur agertzen diran sustrai bateko leen-Euskerazko toki-izenetan eta itz´etan argituko dodan lez, orduan ezagutzen zan Homo-Sapiens gizarteetan: “Atlant-Itsasotik India`raiño ? eta Britania´tik Afrika´ko zein lekutaraiño ?.

Eta Euskerea´ren jendekuntz osoa (civilizaciòn), nik aurkitu dodazan zeaztasunezko zentzutik, Atlant-Itsasotik, Beljika, Alemania Italia´raiño mugatuta eta goitik bera, Eskozia edo Britania´tik Kadiz´eraiño.

Ez da arritzekoa nik emen esaten dodana, itaun gogorrek agertzen diralako, adibidez: “Zer ziran Tarteso ta Iberoak Euskaldunak baiño eta zer !! Keltiarrak ?. Eta Sumer ta Etrusko´tarrak ?.

Indo-Europeotarrak nortzuk izan ziran ?. Non izan ziran ?: Europa, Asia´ren Ego-Mendebala eta India´ren Ekialdeko-Iparraldean egon ziran izkuntzari esaten dautsoe.

Eta izkuntz onek, ainbesteko arremen aundiak eukitea-gaitik, ele-jakitunai buruko-min aundiak emonda, euren azpiko-bardintasunak izkuntz-bakar batetik sorturikoak zirala emoten eutseelako.

Zelako izkuntzatic baiña?: Homo-Sapiens'ek euki eben izkuntzatic zalantzarik gabe, orain beste gauza-bat esanda-be.

Niri, indoeuropeoaren-itz adi-mugaren gora-beran, ele-jakintzaren esku-antze edo trebetasunean ezer jakin gabe, zentzuzko-lojikan egiten nagoen billaketazko lan onetan, nastatutako edo zuzenezko ez diran gauza asko agertzen dira, adibidez: Zergaitik Gaztelera eta Katalan izkuntzak indoeuropeoarrak?.

Ez ziran sortu biak..., erromatarrak ekarri eben Latin eta Euskera'ren bitartez?. Edo..., latiña'gaitik?.

Zorro orreitan danak naastuta sartzea baragarria da, gaiñera jakinda, latiña, Etruskoak Griego'en izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatic sortu ebela eta Etrusko-izkuntza Euskerearen anai edo antzekoa dala.

Nortzuri esan eutsoen Indoeuropeoak zirala?.

Nik daukan iztegiak esaten dau: "Semita, Uralo-altaika eta Malayo-polinesian beste batzuen laguntzan ondo egokituta egon ziran izkuntzak baiño oso ezberdiñak zirala (?) eta alkartasun orrean mordozkak: "Albaniar, Anatoliko, Armenio, Baltiko, Kelta, Eslabo (Errusitar ta Txekoak sartuta) Germanikoak (Ingles, Aleman eta Eskandinabia'ko izkuntzak sartuta), Griego, Indoirano (Sanskrito, Hindi, Persak eta abar), Italiko (Latin eta español, frantzez, italiano, katalan, gallego, español-judua, Zerdeña'ko ugartean sardo, Adriatiko itsas-baztarretan dalmata eta abar latin-kume bezala)".

Eta Indoeuropeoa baiño beste ariñagoko oinkada-bat emonda, Ario'ak nortzuk izan ziran?: Indoeuropeoak baiño ariñago "Asia'ren erdian bizi ziran leiñuai esaten eutseen".

Oneik, lur-langille ta abel-zain edo artzaiak izan ziran. Eta ez eben euki, orduan Babilonia'n, Ejipto ta Siria'n euki ebezan oroi-karri lakorik eta irakurri ta idazten jakin-gabe, euren leiñuen antolakuntza etxe-gabeko edo erdi-alderraiezkoa izan zan (semi-nòmadas).

Ario itzak, indoeuropeoaren erri ta izkuntzak edestian mugatzeko, ez dauka ezerlako zentzurik.

1.823 eta 1.900 urte artean Max Müller aleman ele-jakitunak izkuntzaren bilbe (evolucìon) edo aldakuntzak argitaratzeko alegiñean, "ario" itzari ospe ta zabaltasuna emon eutson, beste batzuk, Europa'k euki ebazan nortasunezko arazo guztiak adierazteko ibili ebena.

Egoera orreik, "NAZI" faziztak aukeratu ebazan, Ario itza, ordeko "indogermano" edo "judua ez dana" itzan ulertu daiten, eurak endaren gora beran euki ebazan eziñ-ikusiak (antagonismos) arrazoitasunean ezartzeko. Eta begitu ortik aurrera zer egin eben Mundu'ko bigarren gudan.

Eta arrazoi-au argitzeko, Keltiar, Eslabo eta Germaniar izatasuna azalduta, adibidetu egingo dot.

Nik, danak sartuko neukez keltiar arlo bakar baten, oitura antzeko baten ibili ziralako eta euren izkuntzak alan emoten daualako. Adibidez: Oso indartsu ta

mobikorrak izan ziran izatasun orreik baiña, alderraiezko ekiñaldi orreik ez eutselako izten euki ebezan sinispideak sendotzen, orregaitik, nai-ta indartsuak izan eta euren azturan asko ikusikoak, ez eben gizabideko (cultura) jendekuntzan (civilizaciòn) jakintzazko indar geiegirik euki.

Indoeuropeoak jendekuntzazko jakiturian be-maillakoak izan.... edo eta neurri aundi baten Homo-Sapiens asieraren oiturari jarraituta askatasunean oiñarrituta egon ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan, ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen. Eta orduko denboretan, zalantza orreitan kokatuta egon ezkerro, erromatarren antzera, mendeetan azkartasunezkoak diranak bultzatuta, ia aienatu ziran Europa´ren berezko erritarteetan, Aleman eta Eslaboak izan ezik.

Azalpen orrek, iru irakaspen argitzen daukuz: a) Milla urte askotako mobikortasun orreik Sinismenetan ez eutsela itzi sendotzen. b) Euren arteko izkuntzak zirriborrotu egin ebezala eta d) Demokrazizko askatasunean erdi-purdiko aukera baten geratuta, ez ebela indarririk euki, menperatzailetasunetik urten eta euren sinismenetan sendotzeko.

Emen Aleman´akaz salbuespen-bat egin bear dogu, gero erdi-aroan I Karlos´en denboran eta Alemania´tik ekarri ebezan aolkulariak, Nafarroa espaiñolak mendetuta egonda. Oneik, Zisneros´ek euki eben menperatzaile batzangotasunezko eritziaren aurka, Nafar´tar erregeak euren ezar-lekuetan urte-mordozka baten, ezartzeko aolkua emoten eutselako.

Grezia ta Euskalerrriagaz ez zan gertatu bardiñ, euren lurraldeetan kokatuta iñor menderatzen ibili barik, sinismenean indartuta geratu ziralako. Baiña azalbide ori, Europa´ren zeazkuntzan ezartzen dalako, beren edestiko lekuan adieraziko dogu.

Orain indoeuropeo onein artean dagozan asierako Homo-Sapiens´en itz ta toki-izenak aurkezten joango gara.

7. Mundu zabalean, Euskal Toki-izenak eta Itzak:

Toki-izenaren (toponimos) zentzua azaltzeko, gogoko garrantzi aundian euki bear dogu, asieratik gaur arte izen-jeografiko batek iraun dagian, izen ori errotsu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

Euskereak, Neolitikotik asi-ta gaur arte ikutu-bako berbak daukaz, Asia ta Afrika´ko leen gizarteak euren errekarri eta abar emon eutsezan izenak: Ibai/rio, Ibi/vado, Ibar/rio/valle eta abar. Eufrates-ibaia bera deitzen zan “Buranu”= “Urnammu”, zeru guztia “URA” izan zala gogoratzen ziralako: “URA = UR+ANU = Agua del cielo”.

7.1. Afrika, Asia ta Europa´n, erreka, mendi, toki ta erri-izenetan ostonduta dagozan sorburuzko edo oiñarrizko Euskal-itz asko dira, jakintsuak orain dabizena argitzen eta azkar esan leike, lendik eginda dagozan lanak sakonak diralako.

Europa´n erreka askoren izenak itz bardiñakin emoten dabez euren esangurak ezagutzera edo euren oiñarriaren sorburuzko itz-bardiñakaz bai beintzat.

Susterrezko itz-bat "IS" adizkia (elemento berbal) da: "Noruega'tik asi-ta Italia'raiño, Espaiña'tik Errusia'raiño eta Bretaina Aunditik Balkanes"eraiñoko 200 errektan baiño geiagotan aurkitu diranak.

Adibidez: Noruega'n "Isselfjorden" edo "Isa" Italian. Errusia'n "Isainka" edo "Ieslà" Lituania'n. Txekia'ko Errepublikan "Jizera" edo "Ijssel" Beko-Errietan (Paises-Bajos). Euskeran "Iz" berbea "S"lez esanda URA edo UR-LASTERRA esangura dau.

Izen-itzak, era bardiñetan agertzen dira "ur (aur)", "var (ver)", "sal (salm)" edo "al (alm)". "UR" itzak ur-geza (agua-dulce) edo ur-gazi (agua-salada) esangura dau eta "URA" ur-tira edo ur-lasterra (corriente de agua).

"AL" eta "SAL" itzentzako be esangura bardin antzekotan babestu edo zaindu dira, danak batera, Euskerazko-Izkuntza aldi-baten, oso-zabala izan zala erakusten dabela.

Izen onein esaerak beste ainbesteen artean, adibidez: Noruega'n "URULA", Bretaina-Aundian "IRWELL", Beljika'n "OURTHE", Alemania'n "AUERBACH" "URBACH" "AURACH", Austria'n "IRRSEE", Frantzia'n lenago "UROFIA" izan zana eta gaur "AROFFE" eta "HURIEL", Espaiña'n "URURA" ta "UROLA", Polonia'n "URWIS", Errusia'n "URA" eta abar.

Alemania'n "VAR" adizkia daukien izenak: "Warne, Werre, Warmeno, Warme Aue" dira.

"SAL" adizkia dauken izenak: "Saale, Sale, Selz (Salusia), Selke (Salika)".

Eta "AL" adizkiarekin: "Aller, Alm, bi Alme, bata Alman eta bestea Almara, Ahla, Elte (Alantia) eta Elz.

Erdi-ugarte onetan, besteen artean izen oneik agertzen dira: "Alba, Alenza, Almar, Almanza, Almonte, Almantes eta abar.

Lenagoko izkuntzaren izenak-be, oiñarrizko itz orreitatik etorri leikez, orduko gizarteen leiñuak, errekek edo lurraldeak euki eben alderdi-eder baten berezitasunetik, izenak artzen ebezalako.

Erdi-Ugarte onen Iparraldean, Erromatarrak "IBERUS" esan eutsoen Ebro ibai'ari.

Ebro erreka onen luzera guztia, bere urak Lurrarteko-Itsasoan bota-arte, danak Euskeraz berba egiten eben lurraldeak ziran. Eta izkuntzalariak ez eben bearko burutasun aundirik egin, Euskeraz "IBAI" errekea dala esateko eta "IBARRA" errekeak bere urak itsasoan botaten dauazan "IBAR" zelaiari.

Guadalajara'ko erria, Segobia, Soria, Zaragoza (bere antziñako izena ZALDUBA zan), Teruel, Kuenka eta Madril erriengaitik mugatuta dagoena, euki eben antziñako izena "ARRIAKA" izan zan.

Erromatarrak etorrita, Toledo'tik aldatzen zan Zaragoza Merida'raiño egin eben bidea, Arriaka ibaiaren albotik igaroten eban eta Mauritarrak etorrita "Guad-il-hijarah"ren (euren izkuntzan "arriaren erreka" esangura dau) izena ipini eutsoen, gaur eurengandik datorren Guadalajara izenagaz ezagutzen doguna.

Ernest Försteman Aleman'ak (1.822-1.906) Germaniar eta Amerikar izkuntzalariak XIXn. gizaldi-erdian toki-izenen azterketan ibili zala: "Errekaren auntziñako izenak "Leunkatu-bako (sin pulir) Bitxiak" zirala esaten eban.

7.2 .- Vennemann´tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedratico), Foster´tar Peter, Kanbriges´ko ikastetxe-nagusian genetikaren irakaslea eta Hamel´tar Elisabeth berrien idazleak esaten dabena:

Ebersberg erria, Babiera´ren goi-aldian Ebrach-ibaiaren ondoan kokatuta dago, aurreratsua basalde zabal, abartsu edo eta oiantsua daukana eta Erdi-Aroan Eberesperch edo Epaesperc izena esaten eutsoen.

Uri orren izena esan leike, basarte orreitan eizarako egon zan ainbat abereen izenetik datorrela (Eber= basurde, bas-auntz edo orein eta Berg= mendi) eta euren armarrarian orregaitik ipinita daukiela basurdearen irudia.

Antza ez da olan baiña, Ebrach izena eredu-lez artuta, Ebersberg izena “Ibai” esan gure daualako eta apur-bat estututa “Ibai-Ibai”, ipini eutsoen azkeneko “ach” ori euren Ego-aldean dagoan Aleman mintzadar edo izkelki baten “IBAI” esan gure daualako.

Frantzian izenak gaiñera ainbat “eber”ekin asten dira, nai-ta beste izkuntz-senditik etorrita doiñu ezberdiñak euki.

A-ta guzti, ainbat: “Ebreon, Ibarrolle, Evrune, Ivry, Ivors, Averdon, Avricourt, Avrolle, Yvre eta ain-bat izen, danak izkuntz baten erro bardiñetik datozenak.

Ez dago Frantze´zik izen orreik, (nai-ta Aleman izkuntzan “eber basurdea izan”) basurdea´ren izenagaz elkartuko dauzanik, basurdea euren izkuntzan “sanglier” esaten dalako.

Orregaitik “eber” izen orrek berak bakarrik erakusten dau: Erri biak, bata-besteagandik ain urbil egonda eta itza Euskerearen antziñako jendekuntzaren errotik artuta, erreka edo IBAIA´ren adi-muga (definición) daukala.

Lenago adizkai oneik ez ziralako ondo adierazpenduta egon, Renfrew´tar Kolin Ingles arkeologuak, beren adierazpenarekin bidera urten da, esaten eban: “Indojermanoak edo erri guztien artean ezagutzen diran indoeuropeoaren izenarekin, berandu etorri ziralako eta Europa´ra etorri ziranak nekazarien bardiñ antzekoak ziralako, eurokaz Europa´ren Neolitikoa egokituta.

Emen aipatu bear dot, Satarain´tar Anbrosio´k egin eban “DUDEN” Euskara Aleman itzultzeko iztegia. Berak amaitu ezin ebalako, arrigarrik lan eder ori ametsezko bidean geratu da.

Berak aurkeztu eustan itzezko zerrenda aundi bat: Aleman ta Euskeraz idatz eta esan bardiñak euki ebezanak eta damu naz aren bir-idazki bat orain ez eukitea.

7.3. Krutwig´tar Federiko´k esaten dauana:

Krutwig´tar Federiko´k esaten dau, Europa´ra indoeuropeoaren aurrekoak etorri orduko, Europa ta Asia´ren zati batean, jendekuntz-aundi baten, oiñarri bateko izkuntz-ezberdiñakaz mintzatzen ziralako eta naastu egingo ziralako agertu ziran erri-lapur edo sartzailleakaz (invasores).

Krutwig´ek, alkar-ganatu (relacionar) egiten dauz Dordoña ta Altamirak euki eben jendekuntza (civilización), gero agertu ziran Troya (euren ariñagoko izena Ilion

izan zan eta Euskeraz ili=iri, Uria esan gura dau) Sumeria edo Babilonia´k euki ebenakaz.

7.4. Italia´n Euskerazko toki-izen eta itzak:

Italia´n, Euskerazko toki-izenak: Liguria (Genoba inguruan, III.n. Gizaldian erromatarrak menperatu eben erria), Etruria (Arno ta Tiber bitartean egon zan Etrusko erria), Oscia (Erroma´ren Ego-Ekialdeko Kanpanian) egon zan kokatuta Osko-erria, (leen-Euskerazko orde-izenak erdi-ugarte onein tokietan dagozenak eta Astur-Galizia´n batez-be), guztiak Sizilia ta Alpes´etan dagozenak.

“Alpe” itza, Euskerazko “Arpe” (arpe, aizpe=cobijo bajo la roca, caverna, pie de la peña, concavidad de la roca) itzatic datorrena da.

Alpes´eko toki-izenak **AOSTA´n**: “Artavoz: arta=roca (arkaitz), naba=planicie, otz=fin” / “Ayas: aia=vertiente, as=de atrás” / “Arbelei: arbel=pizarra (arbel), ei=punta (egi)”. / “Arieta: Arrieta (arri-tokia)” / “Arroil: garganta montañosa (Euskeraz bardiñ)” / “Arrobi, Arpe, Aran, Arpet: nido de aguilas (arrano abi), bajo la piedra, Valle y Valle bajo las piedras (Euskeraz Valle=Aran da)” / “Gane: cima (Euskeraz bardiñ esaten da)” / “Lesache, Lessona, Lezetta: sima (Euskeraz: Lezea, Lezona eta Lezeta dira)” / “Loy: loi (Euskeraz: barro, tierra húmeda)” / Orio: Gipuzkoa´ko errekea bezala” / “Oyace: Oiane (selva)” / Oren: Orein (ciervo)” / Eta abar.

7.5. Lonbardia´n: Izen asko dira “ATE”n amaitzen diranak eta Euskeraz ainbat dagoz esangura bardiñakin: “puerta” “paso” esan gura dabe. / “Albizzate, Alzate, Lazate, Velate, Lurate, Lainate, Azzate” eta abar.

100 kilometrutan 200 izen baiño geiago dagoz.

Elxpuru´rentzat: Iru lurralde dagoz Euskal-izen oneik argi erakusten dabezanak. Aundiena: **Piamonte´ren Iparraldea** (italieraz PIAMONTE = ARPE = al pie de la montaña, Euskera´ren antzera Auñamendi´lez (al pie de la montaña) eta Oñamendi Pirineos´en Euskerazko izena. **Lombardia eta Aosta** (Milan eta Milan´eko Iparraldean) eta **Suizan, Ticino edo Tesino´ko erri-aldean**.

Eta esan doguzenak baiño, geiago be badagoz: “Azasca, Andrate, Aranno, Artore, Arbedo, Arese, Arizzano, Arona, Arola, Arrobbio, Arzo, Ascona, Balzola, Barasso, Bettola, Biasca, Gabiola, Gauna, Gazza, Gordola, Landarenca, Lesa, Oria, Ossola, Zubiena etabar.

Liguria lurraldean, batez-be Savona inguruan eta bere Iparraldean (Genoba´tik urbil): “Aiona, Albissola, Ardola, Berri, Carcare, Olano, Orba, Ormea, Sabona, Varese” etabar.

Ladinia´n (Tirol eta Trento´tik ur): “Agordo, Andraz, Arabba, Ardo, Arta, Gardena, Gares, Lasa (tirol), Maia, Mendola (Trentino), Padola” eta abar.

Milan´etik, erreka-bi aldatzen dira: “Lambro” (Euskeraz “niebla” esan gura dauana) eta “olona” (“avena”ren lurraldea ?)

Frantzia´gaz muga egiten dauan “UBAYE” errekea / Ladinia´n: “EGA” ibaia / Dolomitas´eko mendietan: “Bai de dones”eko aintzira edo ur-geldia. “Aiarnola, Arlas,

Arblatsch (Tz doñuagaz), Atalalta, Cima de Gana-Bianca (Euskeraz bardin), Ormea eta abar Alpes'eko mendiak dira.

Aran edo Ibar asko dagoz “-asca”ren amaieragaz, Euskeraz bardin esan gura dauanak: “Val di Anzasca, Val di Verzasca” eta abar.

Lurralde orrean Izkuntz ta mintzadar'en artean-be sortzen dira bateratasunak: “Asciola = acha (Euskeraz AIZKORA) / Astore = cernicalo (Euskeraz “aztore”) / Baita = borda (casa del pastor)”.

Txistuka esaten diran”TZ” eta “Z” geiago dira Euskerarenak orko izkuntz-latinoarenak baiño.

Emen, derrigorrezkoa da aitatzea: Alpeetan, Aleman, Italiano ta Frantzes izkelki edo mintzadar'etan berba egiten dala eta bai beste bost edo sei izkuntz geiagotan.

Adibidez: “ROMANCE, (Suiza'n % 0'7 50.000 giza-seme/alaba). / LADINO (aurrekoen mintzadarra dana eta Dolomitas'en erdian 10.000 giza-seme/alabak berba egiten dabena. FRIULI (Austria, Eslovenia eta Italia'ren muga 500.000 giza-seme/alaba). / OCCITANO (Piamonte'ko lurraldean 200.000 giza-seme/alaba). / ESLOVENO (Piamonte'ren muga, Trieste eta Gorizia'n 80.000 giza-seme/alaba)”.

Alpes eta Kaukaso'ren gertakizunetan ikusten da, mendi aundien babesean izkuntz geiago bizitzen dirala eta euren nortasunak obeto zaindu.

Alpes eta Euskal-mitolojian-be, antzeko gauza asko daukiez artean.

Italia'n beste toki-izen batzuk: Liguria'n: “VENASCA”. / Genova'n: “BENASCO” / Pavia'n: “BEASCHI”. / La Chapelle: “BENÊCHE”. / Vaucluse: “VENASQUE”. / Naples eta Campania'n: “AUSONA ta LIBERI”. / Salerno'n: “ORRIA”. / Potenza'n: “ANZI”, “ABRIOLA”, “BANZI” eta abar.

Sizilia'ri buruz, garrantzizko gauza da, 25'etik 101'era bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana: “Sizilia'ko alor edo soro'ak (campo de cultivo) leenengo landu ebezanak Oña-mendi edo Pirineos'etik bera joan zirenak zirala eta euren lurraldearen erreka aipatzea bearrezkoa izanda ezagutzen ulertu dagien “Sicanos” dirala esan eben.

“Sikano” berbea, baleikete Oñamendian (Pirineos) dagon “ZINKA” ibaiaren izena izatea, antza baiña, ez dagoz ziurtasun guztiagaz.

7.6. Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalaterra'n Euskerazko toki-izenak: (Kromañoien ezurrezko-ondar asko dagozan tokiak direnak)

Zalantza aundiko berbak dira: “-barri” edo “Berri” adizki'etan amaitzen diranak.

“LANDA” berbea adibidez (nai-ta Keltiar berbea-be ba dala gogoratu) edo Irlandan “GARA” ibaia.

Eskozia eta Irlanda'ren mea-gune'ko lurretan: “CARRICK” berbea (Karr” = piedra) edo “SCOTH” (“-sk” doñuan, eusko, ausko edo basko-lez) eta “GLASGOW” (“gasko” doñuan).

7.7. KAUKASO'an: Zalantzazko berbak eta sinis-gabekeria artu bear diranak dira Georgia'n adibidez: “GORBEYA” (Bizkaia ta Araba bitartean dagon mendi ederra-lez). / Eta Armenian: “ARARAT” mendia (Araba, Gipuzkoa eta goi-aldeko Nafarroa'ren bitartean dagoan Aralar-mendi eta edo mendi-besanga lez). / Edo

“GORA” (lurralde orrean izkuntzan “Montaña” esangura dauana eta Euskeraz “Arriba”).

7.8. BEREBER inguruan: Zalantzazkoak dira: Magdaleniense garai alditik datozen berbak “-barri” abots´ean amaitzen diranak, adibidez: “Sugabarri”, “Zuchabarri” (Ptolomeo) edo Succbar” (Plinio´k). Eta beste batzuk, Euskal toki-izenak osotzeko ekartzen dauan adizkiakaz, adibidez: “-Gar)a (altura): “Garb, Garian, Gardaya eta abar”.

7.9. Larl Bouda Aleman (1.901´ean Anburgo´n jaioa eta 1.979´an Erlangen il) Euskalaria eta Errusia´ren izkuntzan berarizkoak (especialista) esaten eban:

Euskerea eta Siberia´ko izkuntz artean, urbilleko abotsak aurkitu edo argiratu (descubrir) egin ebazala: “Argi” eta “Yrgi” (luz) berbaren artean bezala, Bele (cuervo), Lepo (cuello), Gurdizka (carreta), Elur-lera edo Elur-narra´ren (trineo) artean adibidez.

Eta berarizkoen (especialistas) artean esaten dabe: Euskerea ta Urales´eko izkuntzarekin: Fines, Ungaro eta Siberia´ko Obi ibaiaren ibarrean bizi diran errien fino edo sendi-ugriara (Uraletako izkuntz ugarien artean adar nagusia dana), Suomiera (Finlandia´ko erriaren izkuntza), Laponiera, Ungariera eta abar Ostia´ren izkuntzakaz, kidetasuna dagoela.

Mitxel Morban, Timo Riiho eta Maria Teresa Etxenike´k ikertu eben ditekeen orreik eta zenbaketari-iztegi bidearen emonak beti izan ziran %´tik 5 baiño gitxiago.

A-ta guzti euren esana: “Euskerea, Uralo-Altaiko izkuntzakaz senidetuta dagoela” da.

7.10. Mikel Iriondo antropologo edo giza-iztilariak:

“Amerikan Journal Physikal Anthropology” aldizkarian esaten dau (2.003´an Urrilla´ren 13´an “Diaro Vasco”k batu ebana): “Euskaldunak Europeoakin, naiko berezitu egiten dirala”.

Bere eritzian, orube (asentamiento) edo lur-jabetasun orrean lenaldi edo antziñatasuna adierazten daualako. Eta azaldu leiken gauzea dala: “Europeoak, Euskaldunak baiño geiago naastu ziralako, orain 5.000 edo 7.000 urte Ekialde-Erdetik erri-aldean etorri ziran lur-lantzaille edo nekazari ta abelzaiñakin.

Euskalerrira, teknika edo trebetasun orreik, geiago eldu ziran “Jakintzazko trebetasunaren artu-emonetik, endak-nastu bidetik baiño”. Eta orren esan naia: “Euskaldunak jendekuntzazko jakitean eta izkuntzan, Europa´ren azkeneko bakarlekukoak garela, “Indoeuropeizatuta” ez gagozanak da.

Mikel´ek eritzi au nabarmentzeko (matizar): “Mundu oneitan, dana dala besterekiko edo besteganakoa (relativo), Ludi onen gizakumeari zeozer bereizgarritzen badautsoelako, artean nastutako trebetasun edo gaitasuna dalako”. Eta “EUSKALERRITIK, EUROPATIK BEZALA, DANAK ALDATU DIRALA” esaten dau.

7.11. Gandia´k idazle edo asmalari Arjentinarrak:

Geiago esaten dau: “Euskalerrria, Europa’ko erri zaarrena dala”. Bere izkuntza: “Kaukaso’tik Atlant-itsasoraiño eta Afrika’tik Europa’ren Iparralderaiño Paleolitiko ta Neolitiko garai artean berba egiten zala”. Eta Ario edo indoeuropeoak, Etrusko, Ibero eta antxiñako edo lenaldiko beste erri batzuk, Euskaldunak baiño geroagokoak dirala, baieztatzen dau.

7.12. Bigarren zatian, Europa’ren gizarte-auzi’ko (cuestiòn social) edestian sartu orduko, aurkeztu daigun: Europa, Asia eta Afrika’ren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta:

Pleistozeno aldia: 2.000.0000-1.800.0000 urtetan asi eta orain 11.000 urte amaitu zala.

Paleolitiko aroa: Iru alditan banatzen da: Be-Paleolitikoa K.a. 1.000.000 urte inguruan asi-ta, 150.000 urte ingururarte.

Erdi-Paleolitiko aroa: K.a. 150.000 urte ingurutik 40.000 urte ingururarte.

Eta Goi-Paleolitiko aldia: K.a. 40.000 urtetik 9.000 urte ingururarte.

Oso luzea izan zan aro-aldi au eta bitartean ainbat giza- seme bereziko-mota sortu eta galdu ziran, orain 30.000 urte Homo-Sapiens agertu arte.

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoa’ren aldi-artekoa da eta Europa’ren edesti aurreko-aroa, orain 10.000 urte ingururarte.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Homo-Sapiens giza, eizan egitez gaiñera, zitu, bii, ale edo Fruituak batzen asi zan.

Neolitiko aldia: Mesolitiko edo Epipaleolitiko eta Tupiki edo Brontzezko aldiaren artekoa da.

Homo-Sapiens aldi oneitan, arrapari-uts izatetik ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan eta orren ondorioz bizi-leku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen eta leen iriak sortu ebezan.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak-be asi ziran artzen eta batez-be arria lantzeko era-bide aipagarrienak.

Neolitiko aldia Ekialde-Urbillean, orain 9.000 urte asi zan eta Europa’n 6.000 urte inguru.

Homo-Sapiens: Afrika’n sortu zan eta leen euki eben izkuntz ta euren jakintza oituratzeko ekanduzko oiñarri-bidetik asi ziran Asia ta Europa’tik zabaltzen, Würm deritson izotz-aldian.

Kromañon giza eta euki eben leen-izkuntza: Frantzia’ren Dordoña’ko erri-inguruan (Tursac) Eyzies-de Tayac’en Madeleineko arpe edo aitzuloan (ortik dator Auriñaciense edo Magdaleniense Goiko-Paleolitiko aldian, Musteriense eta Soloutrense arteko denborak diranak eta Magdaleniense izena Madelein mendi’ko aitzuloaren izena ipini eutsoelako) aurkitu ziran orain 30.000 urteko Kromañon-giza’ren azurrari esaten jako.

Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egiten eta bera agertu zanean aurreko Neandertal’ak euren artean ezereztu egin ziran eta sortu zan giza-mota au izan zan Asia ta Europa’tik zabaldu zana gaur arte, bere leen-Euskerazko izkuntz-azturan.

8. Europa, Asia eta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko:

Ikusi dogu, zelan aize ta lurraren giroak epeltzen joan ziranetik, janari billa aurrerakuntza aundiak emon eutsoezala, zitu, bii, ale edo Fruituak ugari artzen asi ziralako.

Orregaz batera, euren denborak-be nasaitzen asi jakiezan, giza-legean aurreratzeko eta bear ebezan arri-landuak trebetasunean egokitzeko.

Dana dala, leiñuak auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, bakoitzaren batzarrarekin eta izkuntzan Atlant-Itsasotik Urruneko-Asia´raiño eta Europa´ren Iparraldetik Afrika´raiño orduan lurrak lar zabalak izan ziralako, leen-Euskerazko errotik sortutako mintzadar antzeko ezberdintasun baten.

Au-da aurkitu dodazan zeaztasunetatik, ulertzen dodan orduko Europa, Asia ta Afrika´ren auzotasunaren NORTASUNEZKO egokitasuna.

Eta gure edesti aurretik NORKERIETAN asi-ta, menperatzailleak Asia´tik xirriborrotzen asi zirana, gaur Bizkaia´ren ur-kolko inguruan ondo-murritzuta geratzen dan gure EUSKALERRI maite au izan ezik.

Españolak ta Frantzezak ezin-bestean ezereztuteko alegiñean dabizena, Paleolitiko-gizarteak oraiñarte JAINKOA´ren BEREZTASUN LEGEA´n lortutako ASKATASUNEZKO-DEMOKRAZIAK ezereztu gurean, Mundu onen gizarteetan BEREZITASUNEZKO SIKO-LEGE´rik GABE, EUREN GAI-NORKERIZKO ELBURUAK, ERREZTASUN GEIAGOREKIN GARAIPENDU DAGIAZAN.

Bai... ?. Bigarren eta Euskalerriko irugarren zatietan ikusiko dogu, ori ez dala izan ditekeena.

2 ZATIA:

1. Asia, Afrika eta Europa´ko jendekuntzak.
2. Gure edesti-aurretik, Asia, Ejipto, Grezia´ren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo eta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri-aldaren edesti laburra.
 - 2.1. Asia´ren edesti laburra.
 - 2.2. Ejipto´ren edesti laburra.
 - 2.3. Grezia´ren edesti laburra.
 - 2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta...Indoeuropeotarrak ?.
 - 2.5. Zergaitik euren erri-aldak ?.
3. Zer edo nortzuk izan ziran Etrusko´ak ?.
4. Zer edo nortzuk izan ziran Mauritarrek ?.
5. Bigarren zati onen ondorioa.
 - 5.1. Giza-leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki-izenak.
 - 5.2. Izkuntza ta toki-izenak.
 - 5.3. Jendekuntzazko garaiak.

- 5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etrusko´en agerkeraren edesti laburra.
- 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen-on.

1. Asia eta Afrika´ko gizartearen leen-jendekuntzak:

Leinuen auzotasunaren ardurazko antolamenduan eta leen-euskerazko izkuntzan egokituta egoteaz gain, egu-giroaren gozotasunagaitik, goian esan dogun-lez, Europa baiño iru-milla urteren aurrerakuntza artu eben eta bai-ta NORTASUNEZKO bidetik alde eginda K.a. 4000-3000 urte inguruan NORKERIETAN-be asi zirala.

2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Ario eta edo Indoeuropearen edesti laburra:

Mundu onen leen jendekuntzak (civilizaciones) egu-giro onak lagunduta, Ekialde-Urbil eta Ekialde-Erdi inguruan sortzen dira. Indo-ibai eta Nilo-ibaiaren bitartean eta apur-bat estutu ezker Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean Sumeria´ko erria orain K.a. 4.000-2.500 urte bitartean.

Oso aurreratuta egon bear ziran Sumerio oneik, arkeoloji-lanaren bitartez aurkitutako ondarrak, irudian (ideogràfica) ziri-antzeko (cuneiforme, en cuña) idazkera asmatu ebelako.

Burnigintzan, urre-lan edo eta zillar-lanean, obekuntzazko edertasun aundia erakusten dabe eta euren ortuak antzez edo egindako tresneriekin (artificialmente) ureztatu egiten ebezan, gero Babilonioak aukeratu ebena eta Sargon erregeak menperatuta ezereztuten joan ziran erri-lez, Babilonia ortik aurrera sendotzen joanda azturazko jakintzan.

2.1. Asia´ren edesti laburra:

Emen azten dira edestian Norkeriaren bide maltzurak. Sumer´tarrak euren auzotasunezko lurraldeetan bakez kokatuta, egitezko (mètodo empirico) jakintzan jendekuntz aundia artuta, baten baten aunditasunezko irudimenari egoak ipini eutsozanean. Ala...eurak izan ziran leenengotik maltzurrezko eritzi orreik bideratu ebezanak ?.

Dana dala, Sem´darren erri zaarretik, K.a. 4.000 urte inguru Mesopotamia´ren Ego´aldean sortutakoa, K.a. 2.600-2.300 urte inguruetan Sargon agertu zan "Akkad"eko (acadio) kaizertzaren sortzaillea izan gurean eta bere-ala asi zan Sumerio´tarren aurka oneik menperatzeko alegiñean.

K.a. 2.025-2.010 urte artean I Sargon´ek, Asiria´tik asi eta lurralde aundi baten sargonidaren kaizertza sendotu eban.

Gero, K.a. 722-705 urte bitartean II Sargon´ek, sargonidaren errege-leiñua ezarri edo irasita, Samaria, Isrrael, Ejipto, Armenia, Kaldea eta Babilonia´ko errialdeak menperatzeko alegiñetan ibilita, K.a. 710´ean Babilonia´ko errege egin zan, beren jauretxe edo gaztelua, Ninibe´ren (Khorsabad) Iparraldeko mendietan eraikita.

II Sargon'en ostean, K.a. 705-681'eko urte bitartean bere seme Senakerib izan zan errege edo kaizerra eta 689'an Babilonia ezereztu edo ondatu ondoren Ejipto'ren mugatara elduta, jauretxeak edo gaztelu batzuk eraiki ondoren, Akkab'eko urian Nesrok jainkoa'ren izenean egon zan eraikitako eleiza edo jauretxean, beren semeak il eben.

Urrengo errege, I Kanbises (Cambises) K.a. 600-559 urte bitartean errege izan zan.

Gero bere seme Ziro aundia (Ciro) K.a. 559-529 urte bitartean, onek gaur Irak dan Media erria (Medos) 553-550 (549) urteetan menperatu eban, 547-546 urte bitartean Kreso'ri irabazi eutson eta Lidia mendetu ondoren 540-539'an Babilonia eta Juduak askatu ta Palestina'ra joaten itzi ondoren, Kaspio-Itsasoren zelaietan Mesajeta'ren leiñuen aurka dagoela il eben.

K.a. 529-522 urte artean bere seme II Kanbises'ek igon eban erregetzara eta 525'ean Ejipto mendetu ta euren XXVII'ko errege leiñua ezarri ondoren bere kaizertza Nubia'raiño zabaldua Nilo-ibaiaren ibarragaz bat egin eban.

Baiña Ammon eta Etiopia'n porrot egin ondoren Ejipto'ra urten orduko bere anaia Smerdis il eban, bera gudan ibilita erregetza kendu eutsolakoan bildurragaitik eta bitartean Gautama-apaiza beren anaiak Smerdis izenean erregetza lapurtu eutson, bera K.a. 522'ean Persia'ra itzultzen egoala lapurketak zuzentzeko, il zan.

558-486 urte bitartean bizi zana, I Dario aundiak 522'an erregetzara igon ebanetik India'raiño elduta, kaizertzaren zabalkundezko asmoak aundiak ziran eta Europa menperatzeko be alegintzen asi ziran.

Europa'n sartzeko, Grezia'ren demokrazia ezereztu egin bear lenengo eta or !! agertu ziran aurka, jendekuntzaren oiturazko sinismenean, oso ezberdiñak ziran indarrak.

Persa'k: "morroitasunean batzangotzeko Menperatzaille gogokoak oso-osoa zirenak". Eta Griego'ak: "Azturazko giza-bidean ekanduzko mailla aundira elduta...., Askatasunezko Demokrazi aundi baten sinismenduta egin ziranak".

Dario persiatarrak 499-494'ko urte bitartean, Joniko erri batzuk bakeztuta, Maraton'en K.a. 490'ean, Grezia'ri emon eutson leenengo eraso-aldia. Grezia'ren gudalozteak baiña, Milziades'en aginduan 9.000 Espartar-gudariak babeserako prest egonda, Dario'k eroan ebazan 20.000 gudariai irabazi eutsen.

Eta bere seme I Jerjes (519-465) Ejipto'ko iraultza bakeztuta, 480'an Grezia'ri Termopilas'etan emon eutson bigarren eraso-aldian garaille agertu arren, 480'an bertan Salamina'ko itsasoan Temistokles'ek emoneko pasara ederra artuta, I Jerjes'ek gudalozteak Mardonio'ren agintzan itxita Ekialde-Txikerreko Susa'ra, euren kaizar-jauregira alde egin eban.

Mardonio'k, K.a. 479'an Platea'ko (Grezia'ren antziñako uri-bat izan zana eta Tebas'eko Ego-Mendebalean kokatuta egoana) borrokan-be galtzaille urten eban, Pausanias'ek bideratutako Espartarren Alkartasunezko gudaloztearen aurka eta Mikala'n egun berean, itsas-ontzidi edo guda-ontzidien itsas-borrokan Persa'k ondamenduta geratu ziran.

Eta emen bitxi-bat: Mardonio Jerjes'en lengusua zan eta borroka ori irabazi ba eben Grezia'k eukiko eban urrengo satrapa edo jaurlaria il-da, Griego'ak bere oialpe

edo oial-txabolara joanda eta an egon ziran diru ta urrezko-altxorrak ikusita, euren arritasunezko itauna: "Gizon onek baiña...., zertarako gura dau ainbesteko premiatusunagaz gure erriak menperatzea...., ainbesteko aberastasuna eukin da ? arrituta esan eben.

I Jerjes il eben eta bere seme II Jerjes asi zan Grezia'ren aurkako erasoan, baiña au-be alperrik, euren artean trebetasunezko nor-geiagoan asi ziralako eta au-be 424'an il eben, beren agintaritzza artu ondoren aste gitxi baiño ez.

Grezia'ren Demokraziari ezker, or !! geratu ziran, faziztak leenengo aldiz Europa menperatzeko euki eben asmakuntzak eta Eki-aldetik egoan morroitasunezko itxuran agertu gaitez an alegin guztiak.

2.2. Ejipto'ren edesti laburra:

Nilo-ibai inguruan, Kamitak Suez'eko lur-besotik (istmo) sartuta, an egon ziran baltzak basamorturaino alboratu ondoren eta K.a. 4.500-4.000 urte inguru, jaurkintza-legez erregetzazko giza-bide sendo baten antolamenduta, K.a. 3.300-3.200 urteetan Menes'ek erregetzara igon ebanean, Ejipto'ren goiko ta bealdeko lurrak alkartu ondoren, Faraoi en jendekuntzari bideak zabaldu eutsoezan eta oneik ogeita-amar errege-leiñutan iraun eben.

Ejipto, Asia'ren antzera, jendekuntzazko jakintzan azkera aundikoa izan zan.

Ikusi dogu, zelan Asia'tik agertuta Kamitak sartu ziralta bertakoak basamortura bialduta eta Menes erregetzara igon orduko K.a. 4.241 urtean lortuta euki eben 365 eguneko Eguzkia'ren egutegia eta irudizko-idazkera.

IVn. eta Vn. Faraon leiñuekin trebetasunean goraldu egin ziran ezin-obetasunean eta ainbat txuntxurrezko (piramides) etxegintz aundiak egin ebezan.

Faraoi en VI n. leiñutik onantza, erregeen jabetasunak berakada aundia emon ondoren, feudotza asi zan goratzen eta kaizertza'ren batasuna ezereztu eben.

Erakleopolis'eko printzeak agintaritzaren jabetasuna eskuratuta IX eta Xn. leiñuari emon eutsen iraunkortasuna, baiña Tebas'eko printze edo buruzagiak alkartuta Erakleopolis'ekoak bota ebezan eta K.a. 2.160-1.570 urte bitartean Erdiko-kaizertzari emon eutsen indarra XI n. leiñuetatik XVII'garreneraino.

XII n. leiñuak orokorrezko agintaritzza ostera berrezkuratu eben eta Nubia'ren bealdeko lurrak erritu ebezan.

XIII n. leiñu-agintaritzan, Asia'tik agertuta Ikso'en sarraldia (invasiòn) euki eben eta oneik Nilo'ren ibai-arte an (delta) ezarrita eta Uri-nagusia Abaris'en kokatuta, euren faraoi erregetzagaz aurrera egin eben, baiña XV eta XVI'garrengo leiñuak Ikso'enak izan ziran.

K.a. 1.600 urte ariñago XVII n. leiñu aldian, Faraoi a'k Ikso'ren aurka asi ziran eta Almes'ek Faraoi'en XVIII'garrengo leiñua'ren sortzailleak 1.570-1.075 urte bitartean kaizertza barriari irauteko indarra emon eutson eta Ikso'ak bota ebezan.

Ortik aurrera eta 1.570-1.304 urte bitartean Ejipto'ko jendekuntzari esaten dautsoen urrezko-aldian bizi ziralta.

Ejipzio'ak, beste sarraldi baten billur, Siria ta Palestina Eufrates ibairaino Iparraldetik mendetu eben eta Ego-aldetik Nubia'ko jabe kuntzak Napata'raino

zabalduta, Ejiptio'tarrak Lur-Arteko itsasoaren (mar Mediterraneo) errien-arteko antolatzaile edo artekari (arbitro) nagusienak izatera eldu ziran.

K.a. 1.375-1.358 urte bitartean, IVn. Amenhotep'ek euki ebazan indar guztiak, erlijioz, monoteista-gurketa baten alegiñean ibili zanean, Itita'k Siria kendu eutsen eta basamortuaren etxe-gabeko edo alderraiak (nòmadas) Palestina'n asi jakiezan sartzen.

XIX'garrengo leiñuen Faraioia'k IIn. Ramses'etik K.a. 1.290-1.223 urte bitartean asita, Siria ta Palestina berrezkuratu ebazan eta Libio ta Egeo'tarren sarraldiak geratzeko Ititakaz alkartu zan. Nai-ta Libio eta Egeo'tarrak, 1.190-1.158 IIIIn. Ramses urte denboran Siria ta Palestina ostera berrezkuratu. Faraioi'ai kanpoko lurralde orreik galduta, diru arloetan naasiak ekarri eutsezan eta euki eben aginpidea makaltzen joan jakien.

K.a. 1.075-940'ko XXIIn. leiñuen urte bitartean, Faraioiak Ejipto'ren bealdeko Tanis'etik jaurkintzen eben bitartean, Amon'en apaizak Tebas'etik asi-ta Ejipto'ren goialdian agintzen eben eta etsaigo edo zatiketa au, Iparraldean K.a. 940-730 XXIIIn. leiñu eta K.a. 725-710 urte bitartean XXIVn. leiñuagaz iraun, Ego-aldean K.a. 761-715 urte bitartean XXIII'n leiñuagaz iraun eban.

Areik eta Etiopi'tarrak Ejipto'ren jabetza artu eben arte XXV'n leiñu'akaz K.a. 657'rarte jaurkitu.

K.a. 670n. urtean, Asirio'ak asi ziran Ejipto menperatzen eta K.a. 654 urterarte egon ziran.

Faraioiak denbora gitxi baten barruan K.a. 664-525 urte artean jaurkintza berrezkuratu naian egonda, Persia'ko IIn. Kanbises agertu jakien eta Ejiptio'tarrak menderatu ta Satrapi-jaurleri baten azpian ipini ebazan.

K.a. 332'an Alejandro-Aundiak Persa'k bota ebazan eta Alejadria'ko Uri-Nagusia eraiki ondoren, bera, K.a. 323 urtean il zanean, Alejandro'ren gudal-nagusi izan zan Tolomeo'ren aginpean geratu ziran. Onek Faraioi izendatuta Tolomeo'tarren leiñuai asiera emon eutson.

Tolomeo'tar leiñuak, Elenika,ko jendekuntzaren eragipenean (influencia) indartu ta Siria ta Palestina'gaz jabetuta, euren agintaritzza, Kleopatra beren burua K.a. 30'an eraill eben arte iraun eban eta ortik aurrera Erromatarren kaizartzapean geratu ziran.

Ejipto ortik aurrera, Bizanzio'tik jaurkitu eben erromatarrek, areik eta K.o. 641'ean Mauritar'pean geratu arte.

Ortik aurrera, Ejipto'ren Islamizaziñoa asi zan eta arabiar-izkuntza geratu zan izkuntz-bakar lez.

K.o. 969-1.171 urte bitartean, mauritar Fatimita'ren leiñuak Uri-nagusi lez Kairo izendatuta eta K.o. 972'an Azhar-mauritar eleiza islami'tarren ikastetxe-naguzian biurtuta, esan leike Mundu'ko leen goi-ikastetxe edo Ikastetxe-Nagusia dala.

1.170-1.250 urte bitartean, Ayubita'ren mairu-errege leiñuak Siria berrezkuratu ondoren, mameluko gudariak baztertu ebezan, oneik gero, euren goraltasunean etorriko ziran mairu-erregearen (sultan) jagole izango ziranak lortuta.

1.517'an Ejipto Otomano'en (Turko'ak) menpean jauzi ziran eta oneik, euren jaurkintzarako Baja-jaurleri bat izendatu eben.

1.798'an Napoleon'ek Ejipto'ren menperatasuna asi eban, Ingeles'ak India'gaz euki eben sal-erosketaren gora-berak moztuteko. Baiña au-be, Ingeles'ak Otomanoa'kaz (Turko'akaz) bat eginda 1.801'ean bota eben.

1.805'ean, Mohamed Ali izendatu eben Ejipto'ren Baja-jaurleri lez eta mamelukoak ezereztu ondoren, leiñu-ondore bat irasi eben eta onek 1.952'ko urterarte Faruk-erregeagaz iraun eban.

1.820-22 urte bitartean, Sudan'en egoan Funji-erreñua menperatu eben.

1.866'an Ismail Baja-jaurleriak "Jedibe" Baja baiño izen aundiagoa artu eben eta bere jaurkintzapean 1.869'an Suez'eko itsas-xidor edo ugaska zabaldu zan.

Sudan'eko menpetasunari amaiera emon eutsoen, baiña ortik aurrera Ejipto'ren barneko jaurkintzan, Frantzia eta Ingeles'aren eragipena (influencia) asi zan garaipentzen.

1.882'an Ingeles'ak Ejipto'n, guda-legez eskua sartu eben iraultza-bat bakeztuteko eta ortik aurrera eurak izan ziran jaun eta jabe Ejipto'ren jaurkintzan.

1.898'an, Ejipto ta Ingalaterra'ren gudalozteak alkartuta, Sudan'ek 1.885'ean lortutako askatasunak ostera menperatu eben eta bien arteko medekua ezarri eutsen.

Mundu'ko leenengo guda-nagusian Turkia'k batzango-zale kaizertzakaz bat egin ebenean, Ingalaterra'k amaitutzat emon ebazan Turkia'k Ejipto'gaz euki ebazan artu-emon guztiak eta berak andik aurrera irasi eben Ejipto'n bere zaindaritza eta onek 1.922'ko urterarte iraun eban, nai-ta oraindiño Suez'eko Ugaska'ren (canal de Suez) kontrola eta Sudan'en bien-arteko mendekua eroan.

I Fuad (1.868-1.936) Ejipto'ko Sultan (1.917-1.922) egin eben eta errege-lez (1.922-1.936) izendatuta, 1.936'an oneri, bere seme I Faruk aldikatu eutsen.

1.936-1.952'ko urte bitartean I Faruk (1.920-1.965) errege egin ondoren, Ingeles'en aurkako politika eroan eban eta ez eutsen Europa'ko ardatzaren indarrari guda-aurkarik agertu 1.945'eko urterarte.

1.958'an eritik kanpora bialduta, 1.959'an lekaide sartu zan.

Ejipto, Palestina zatituaren aurkako agertu zan eta Israel'egaz borrokatu zan 1.948-1.949 urte bitartean.

1.952'ko Uztailla'n, Mohamed Naguib gudal-nagusiak bideratuta eta Gamal Abdel Nasser koronel ordezkariak antolatuta, I Faruk erregea kendu eben jaurkintzatic eta bere seme IIn. Fuad (1.952-1.953) izendatu, gero 1.953'an au-be erregetzatic kenduta, Naguid'ek errepublika irasi eben euren agindupean.

Ortik aurrera badakiguz zeinbat eztabaida euki dabezan Israel'ekin 1.979'ko Epailla'n bakezkoak egin arte.

Ejipto gaur, ONU, OUA eta Mauritarren Alkargoko kidea da.

2.3. Grezia'ren edesti laburra:

Asierako baten Lurrarteko-itsasoaren erri-leiñu guztiak lez, leiñuaren auzotasu-
nean laterritutako antolamenduan bizi ziran luzeroko denbora aundi baten, areik eta
norkerizko menperatzaille-asmakuntz lanak euren sariak irabazten asi ziran arte.

Mundu onen goi-maillako jakintza, Tupiki edo brontzezko Aro-Aldia'ri esaten
dautsoe, K.a. 3.500-1.400 urte bitarteko bizi-denborak bete ziranai.

Grezia'n, K.a. 2.800 urte brontzezko denbora orreitan asi-ta, Elenika'ko erdi-ugartean Laterritutako-Uria'k ezarri ziranen artean, erri-jakintza asko sortu ta gaienduta (sobresalir, resplandecer) desagertu ziran.

Garrantzidunak Kreta ugartean (kretense) eta geroago K.a. 1.700 urte inguru Mizenas'eko jendekuntza'tik sortu ziranak.

Lortu eben goi-maillako jakintza, ez zan izan eurengandik sorturikoa, Asia ta Ejipto'ko jakituriaren alkartasunezko eragipenetik, eurak artu ta edertu egin ebana baiño.

Lur nagusi onetan Europa erditik joan ziran Akeo ta Eleno'tarrak, Kreta'k euki eban jendekuntzazko jakintzaren eragipeneko (influencia, impulso) mende egon ziran aintziñako denboretatik eta Iparraldeko erri-neolitikorena.

Kreta'k euki eben jakintzaren-jendekuntzazko bereketa'ren (asimilaciòn) ondorioz, K.a. 1.700 urte inguru: Tirinto, Korinto eta Tebas'eko Uri nagusiak eraiki ziran.

K.a. 1.400 urtean, Akeo'tarrak, Kreta'ko ugartean egon zan Knosos gaztelu edo jauretzea ezereztu egin ondoren, Mizenas'eko jakintza sartu zan bere ederrenetariko jendekuntz-garaian. Gizaldi-bi geroago, Peloponeso, Grezia'ren erdian, Asia-txikerraren itsas-bazterretan eta Txipre'ko ugartean zabaldu zana.

K.a. XIIIn. gizaldian, Iparraldeko Dorio'tarren eraso-aldi edo sarraldia euki eben eta oneik jakintzan Akeo'tarrak baiño atzeratuagoak izan ziralako, Grezia'ren jendekuntza berakada galanta emon-da, jakintsuak "Grezia'ren erdi-mendea" zala esan eben.

Dorio'ak Peloponeso'an kokatu ziran batez-ere, Esparta'ko Uriak orregaitik eldu zan guztiz, Akeo ta Dorio'en jendekuntzazko elkartzearen adierazpena.

Jonio'tarrak batera eta astiro, egunaren neurria artu-gabe, Atika'n asi ziran itsas-aldetik bakezko goxotasunean sartzen, Uri nagusietan eta batez-be Atenas'en.

Eleno, Akeo, Dorio, Eolio eta Jonio'tarrak, sekula ez eben lortu Grezia'ren erri-guztiarentzak agintza bakar-bat, politika'ko jaurkintzan guztiz, askatasunaren Laterritasunezko-Uri'etan oitura zar lez antolatuta egon ziralako, euren artean beste lotura'rik eukin gabe, enda, izkuntza, erlijioa eta euren jakintzak emoten eutsoena baiño.

Ardurak ondo zaintzeko....., geiago bear eben ?.

K.a. 800-600 urte bitartean, laterritutako Uri oneik Ejeo-itsasoaren ugarteetan, Asia-Txikerra'ren itsas-bazterretan, Joniko itsasoa'ren ugarteetan eta Lurrarteko-itsasoren izparterretan: (Italia'n) Napoles eta Tarento'n, (Frantzia'n) Marsella'n, (Erdi-ugarte onetan, Jerona'n Rosas'eko itsas-golkoan) Ampurias, Rosas eta (Afrika, Libia'ren Iparraldean Lurrarteko-itsaso'tik 15 kilometrura dagoena) Zirene'n koloniak edo sal-erosteko Uri'ak sortu ebezan.

K.a. 600-300 urte bitartean, Grezia'tarren jendekuntza (civilizaciòn), beren urrezko garaipenera eldu zan: "Etxagintza edo Eraikintza (arquitectura), Irudigintza edo zizelkaritzan (escultura), Olerki (poesia), Eraman-ona edo Jakin-zaletasunean (filosofia), Antzerkia'n (teatro), Matematiketan eta Natur-jakintzan".

Atenas bere jaurkintzarako Demokrazizko-legean antolatu zan. Esparta bestela, bikaintasunezko guda'ren antolamenduan eta beste Uri'batzuk: "Korinto, Kalzis,

Korzira (gaur Korfu dana), Mileto, Sardes, Fozea, Lesbos eta abar, goi-maillako goraldi edo aurrerapidea lortu eben.

Asia'ren arloan ikusi dogun lez, K.a. Vn. gizaldian Persa'k, Griego'ak menperatu gura ebezan, gero Europa'ren mendeko-bideak zabalik eukiteko, baiña Griego'en Uri'ak alkartuta eta Atenas ta Esparta'ren aginpean bideratuta: "Maraton, Salamina eta Platea'n (medikas'eko gudak) astiñaldi ederrak artuta, alde egin bear izan eben.

Persa eta Griego'en aurkako gudak K.a. 448'an amaitu ziran, Kalias'eko bakearekin. (Perikles'en denborak izan ziran oneik).

Esparta'rrak, euren indarrezko arrotasunean, Atenas'en nagusitasunezko jakintasunagaitik bekaitz eta jeloskor edo ixterbegituta, ez ziran egon pozik eta Uri guztietatik Atenas'en etsai guztiak asi ziran batzen, K.a. 431-404 urte bitartean, anai-artean Peloponeso'ko gudan asi-ta.

Esparta'k irabasle urten ebalako, beste alkartasun batzuk be egin ziran eta or asi ziran etenbako borrokak Grezia'ko Uri'en artean. Uri'ak guztiz indargabetu arte eta Grezia'ren Iparraldeko Mazedonia'tik In. Filipino (K.a. 382-336, Pausanias'ek il eban) erregea agertuta ez eben euki indarrik bere mendetik iges egiteko erdi-ugarte ta ugarte guztietatik.

Bere seme Alejandro aundia'k (K.a. 356-323'ra bizi eta 336'an erregetzara igon), Persa'k K.a. 334'an Graniko'n eta K.a. 333'an Issus'eko gudatan menperatu ebazan eta K.a. 326' bere agintaritza Grezia'tik India'raiño zabaldu eban.

Alejandro Aundia 323'an il zanean, Grezia, Alejandro'ren gudal-nagusiaren eskuetan geratu zan eta ostera lengo Uri'en jaurkintzazko antolamendua artu barik, aurkako alkartasunetan geratu zan bananduta.

Zori edo egoera orreik, Grezia'ko atea erromatar indartsuari, zabaldu baiño besterik ez eutson egin eta erromatarak K.a. 148'an Mazedonia menperatuta, Grezia osoa erromatarren lurralde lez geratu zan.

2.4. Nortzuk izan ziran Ario ta Indoeuropeo'tarrak ?:

Zazpi'garren orrialdian eta leenengo zatiaren sei'garren atalean adierazten dot nor eta zeintzuri esaten eutseen Ario edo eta Indoeuropeoak.

Nik, jakitunen artean ibilita sarritan entzun neban, Mundu'ko gizakia sei tximuta ezberdiñakaz osotzen dala eta gaur Theo Wennemann jermaniar ele-jakintzaren maixua eta Peter Foster, Kanbridges'ko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea eta beste jakitun askori esker dakigu, danok: "Makakus Rhesus"etik gatzela, euren azterketak alan emoten daualako eta euren artean ulermentzeko lortu eben leen-Euskerazko mintzoera bidetik.

Indoeuropeotarren Izkuntzazko arloan, ele-jakitunai buruko-miñ aundiak emon eutsezan, menperatzaille-maltzurak sekula ez dabelako gura-izan egirik argitu daiten edo euren azter-lanak Bereztasunezko Legera ez daitezcan urreratu, maltzurrezko-guzurrak argi-zabalean geratzen diralako. A-ta guzti, jakitunen izkuntzazko azter-lan bidetik, izkuntz-orreik daukien azpiko edo oiñarrizko bardintasunagaitik, izkuntz-bakar batetik sorturikoak dirala deritxe.

Goiko edesti laburretan ikusi dogu, menperatzailleak euren sasi-eritxiak aurrera eroateko, zelako erak edo arauak (Mundu oneitan beste biderik ez dagolako) erabilten dabezan bestien NORTASUNAREN ordezeko ardurak ezereztuteko.

Izkuntzalari batzuk (geienak aldi-luze baten) orregaitik, guzurraren mugara elduta eta adierazpen-gabe geratzen diranean alde-batetik eta bestetik, menperatzailleak goi-aldetik dindilizka Damokles'en ezpata eukielako prest, izkuntzaren zalantzazko gauza guzti orreik "Indoeuropear" zorroan sartutako erabakiagaz garbituta geratzen ziralaa gogoratzen ziran eta egitik urriñ dagoz ekintza orreik.

Adibides: "Zergaitik Gaztelera eta Katalan latin-kumeak indoeuropeoaren zorroan sartu...?. Ez ziran sortu biak latin eta Euskera'ren bitartez?. Edo..., latiña'ren-gaitik?.

Zorro orreitan danak naastuta sartzea baragarria da, gaiñera jakinda, Latiña, Etruskoak Griego'en izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatik sortu ebela eta Etrusko-izkuntza eta Sumerioa sustrai-batekoak dirala.

Orren gora-beran Felix Zubiaga'k ondo argitzen dau. Adibidez: "Berbea "esan/izan"eko elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zala beren oiturazko arau-zaletasunean, dana, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokituta egon daiten eta oroimenaren atzekadarik ez daiten egon, bere galduerak danoen oarkabeen atzerakada galanta egin ebalako, ele-jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir-jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

2.5. Zergaitik euren leiñuen edo erri-aldak?:

Jendekuntzazko jakiturian be-maillakoak izan... edo eta siko-neurri aundi baten Homo-Sapiens asieraren oiturari jarraituz askatasunezkoak izan ziralako eta euren oldozmeneko asmakizunetan ez ziralako eltzen besteak morroitasunera menperatzen, Asia, India eta Afrika'ko menperatzailletasunaren jarraibideak gogortzen asi ziralaa ikusiz eta eurak etxe-gabeko edo alderraiezkooak (nòmadas) izanda, errez iruditu leike zergaitik euren leiñuen erri-aldak.

3. Zer edo nortzuk izan ziran Etrusko'ak?:

Etruria, Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egoan (Tirreno itsas-bazterrean gaur Toskana dana) eta iñork ez daki nondik agertu ziran.

Herodoto'k, Tirreno'koakin antz emoten dautso eta Asia-Txikerratik Italian agertu ziralaa diño.

Beste batzuen esanetan Europa'ren erditik agertu ziralaa eta oraingo edestilarien gora-beran, Arno ta Tiber bitartean bizi ziranarekin apur-apurka sortu zala. VIIIIn. gizaldian amabi laterritasunezko Uri'etan jaurkintzazko antolamenduan kokatuta eta danak arremanduta erlijiozko alkartasun edo batasun,baten.

Euren jaurkintzazko agintaritzaa, Andi-Mandiak (aristocracia) bideratzen eben, sortzez, odolez edo ondorengo (hereditariamente) irazpenean egokituta euki ebana.

Eta mariñel-gintzan zentzun aundikoak izan ziralako, lurrarteko-itsasoaren erri-nagusi guztiakaz euki ebezan arreman sendoak. Eta ez euken lotsarik euren gizabidea (civilizaciòn) aberastuteko, Italian, Ekialdeko Sirio-Ejipto'tarren eta Griego'en jakintzazko aurrerakuntzatik bear ebena artzen.

Itsas-aldeko lurak ondo landuta eukinez-gaiñ, langintzan trebetasun aundiak artu ebezan eta merkataritzazko sal-erosketan maixutasun aundia.

VIn. gizaldi-erditik onantza, euren zabalkuntza erabagi eben eta Erroma, gizaldibateko agintaritzan zuzendu eben.

Adriatiko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzika'ko ugartea menderatuta euki arren, Uri nagusien bereiztasunak ez eutsen izten batasun batera eltzen. Eta euren maldabera, VIn. gizaldean Erromatarren aurka asi ziranetik onantza asi zan.

509'an, Griego'ak, Samnita'k eta galoa'k alkartuta, Etrusko'aren erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K. a. IVn. gizalditik onuntz, erromatarren'gandik babestu egin bear eben, euren Uri-nagusi guztiekaz geratu ziralako eta K.a. 295'an Erromatar'kaitik guztiz menderatuta, erromatar uritargo edo erritargoa (ciudadania) artu bear izan eben, K.a. 90 urtean, erritarteen gizarteko guda ostetik.

Etrusko'aren jendekuntza, inguruan Unbro'ak, Liguri'tarrak eta Sabino'ak egon ziran erri guztietatik bereizpendu (distinguir) zan eta maitasun geiago emoten eutsoen apainkeri (lujo) ta opor-aldeari (ocio), guda'ren zaletasunari baiño.

Etrusko'ak, erromatarren irakasleak izan ziran, Griego'en jendekuntzazko jakituriaren irakaskintzan.

4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarrak ?:

Antziñekoak dira eta Arabian sortutako Kamita-Semitiko'ren leiñu ondorengoak dirala esaten dabe.

Etxe-gabe edo alderrai'ezko artzain izanda, Mesopotamia (gaur Irak'eko errepublika dana eta Asia-Txikerrean Tigris ta Eufrates ibai-bitartean dagoena), Lurrarteko-itsasoaren Ekialdea eta Nilo ibaiaren ibarretan zabaldu ziran.

Arabiar'en osotasuna: Antziñako Babilonioak eta Asirio'ak, Kananeo'tarrak (amorruta'k, moabita'k, amonita'k eta fenizia'rrak); Arameo ta judu edo ebrau'tarrak eta Etiope geienak egiten dabe. Eta senitasun antzera taldekatu egiten dira, euren izkuntzak erro batekoak diralako.

K.a. 1.000 urte, Arabia'n bizi ziran gizarteak, erreifñuetan antolatuta egon ziran, eta orreitatik bi nagusienak: Ma'in eta Saba'koak izan ziran, K.a. 950 urtean azken erri onen erregiña Salomon ikustera joan zana.

K.a. VIn. gizaldian Arabia'ko Iparraldea Dario'k, satrapi (Persia'tarren jaurlari edo agintaria) baten biurtu eban. Eta K.a. 106n. urtean arrizko-Arabia (Arabia-Pètreea) sort-arazi eben erromatarrak.

K.o. IVn. gizaldian, itzuli ziran Abisinio'ak (Kristauak) eta berton egon ziran Himiaritarren (judutarrak) artean eztaibada gogorrek sortu ziran eta Ekialdeko erromatarren kaizertza sartu bear izan eben erdian bakeak lortzeko.

Mahoma, La Meka'n Koreitxitas'tar leiñu baten 580'an jaio zan eta 632'an Medina'n il.

Beren aita, Siria'kin Kameluakaz sal-erosten ibili zana il eta gero jaio zan Mahoma eta lenengo bere aitona eta gero bere osaba batek azi edo az-erazi eben.

24 urte euki ebazala, oso aberatza zan Kadidja alargunarekin ezkondu zan eta euki ebezan zortzi seme-alabetatik, Fatima bakarrik aipatzen da.

Urte asko borrokan ibilita ondoren, igarle (profeta) biurtuta, bere esanaren aldeko lagun asko euki arren, etsaiak be agertu jakozan eta K.o 622'an Uztailla'ren 16'an (au da "hejira" edo musulman erlijioaren asiera) Medina'ra iges egin eban eta bertan aurkitu ebazan bazkide gogotsuakin: Beren erkidegoa (comunidad) antolatu, mezkita eraiki, erlijiozko gurketaren era-arauak ezarri eta judu'ak erakarteko porrot eginda ondoren, ziñ-ustel'en (infiel) aurka guda-santua asi eben.

K.o. 630'ean La Meka'ra joanda, erlijio ta politikan nagusi izendatu eben. Beren irakaskintzak "Koran" liburuan batuta.

Beren ondorengoak, batasunezko teokrazi-jaurkintza orregaz gudarako sukartuta, Iparraldetik: Siria, Ejipto ta Persia'gaz jabetu ziran eta Afrika'ko Iparraldetik zabaldua, VIIIn. gizaldiaren amaieran Mauritania'ra joan (Iparraldetik mendebaleko Sahara eta Arjelia, Ekialde'tik Mali, Ego-aldetik Mali ta Senegal, Ipar-Mendebaletik Sahara eta Mendebaletik Atlant-itsasoa mugatzen dabena eta len erdi-ugarte onegaz muga egiten ebana) eta islandartu eban.

711'n urtean erdi-ugarte onetara Tarik-ben-Zeyad'en gudalozteak aldatu ta Rodrigo'ri Guadalete'n irabazi ondoren Auñamendi'etara joan ziran eta Frantzia'n Poitiers'eraiño sartuta, an Martel'tar Karlos'ek geratu ebazan.

756'an I Abderraman'ek Guadalkibir guda ostean, Kordoba'n Omeya'tar leiñua bir-ezarri eban.

762'ko urtean La Meka'ren ordezkua Kufa, Damasko eta Bagdad'eko Uri nagusiak izendatu ebezan eta musulman laterriak ugaritu ondoren, 1.258'an Bagdad'en Mongoliarrak sartu ziranean, moruen berakada oskatu edo marratu eban eta maldabera ori amaitu zan, 1.517'an Turko'ak Ejipto menderatu eta Islam osotasunaren menpekotasuna lortu ebanean.

929'ko urtean IIIIn. Abderraman'ek Kordoba kalif-erriaren Kalifa izendatu zan, aurrerakuntza aundiak politikan, diru-kontuan eta jakintzan artuta.

1.031'n kalif-erria ezereztu zan eta 1.086'an Almorabide'ak menperatuta geratu ziran. Moru onein denboran, Sebilla, Toledo, Kordoba eta Granada, jakintzazko erdi-gune garrantzizkoak izatera aldatu ebazan.

Moru'en jendekuntza, Grezia'k, Asia-txikerratik eta Ejipto'ko jendekuntzaren jakintza batu ta edertu ondoren Mundu'ko jakintzaren ardatz-nagusia izatea lortu ebenetik, ordezkua biurtuta geratu zan.

Eta ez eben txarto egin, ele-eder (letras), filosofia, medikutza, eder-lanak eta jakintzak ondo landu eta erdi-aroan, ibili ziran errietatik zabalkuntza aundia emon ebelako.

Etxe-gintzan (arquitectura) bereizitasun ederra artu eben, Kordoba'ko eleizan (mezquita) eta gazteluak (alcazar), Sebilla'ko dorrean (giralda), Zalduba'ko

(Zaragoza) jauretxean (aljaferia = palacio àrabe), Granada'ko jauretxean (alhambra = palacio àrabe) eta abar.

Edertasunezko mailla aundira-be eldu ziran, sar-lanen (taracea = trabajos de incrustaciòn) eradonkian (cosa incrustada) eta txilinki edo metaletan ta pikailadura edo esmailetan (ataujia = taracea de metales y esmaltes), zizel-iruditan (talla), idazkeran luma-ederrean (caligrafia) eta abar, lorazko marrazki (diseño) apainduran oso korapillotasunezko edertasunean edo eta jeometrikoak. Baiña, gauza bizien irudi barik, euren erlijioak debekatuta eukielako.

Soiñu, eresi edo musikaren arlorako be, gaillu askoren sortzailleak izan ziran, adibidez: Arrabit (laud), Rebab edo Rebik gaurko biboliñari bideak zabaldu eutsona, Zurna Zaramiola edo oboeren antzekoa dana eta abar.

Izar-jakintzan (astronomia) eta matematiketan aurrerakuntza aundiak egin ebezan eta Hindu'ari artuta Europa'ra ekarri eben amarkako zenbakintza (numeraciòn-decimal).

Sendakintza (medicina) eta kimika'ren (quimica) sortzailleak izan ziran.

Garrantzi aundiko ikastetxe'ak sortu ebezan Bagdad, Kordoba, Basora, Bokara ta Kufa'n eta liburutegi aundiak Alejandria, Bagdad eta El Kairo'n.

Jakin-zale (filosofos) aundiak euki ebazan Abizena (Avicena) ta Aberroes (Averroes) lakoak eta ainbeste olerkari ta itzlau-gille (prosista) bikain.

Mauritarren kaisal-erria, erromatarrena baiña askoz zabalagoa izan zan eta gaiendu, Mahoma 632'an il zanetik 660'ra, aukerazko kalifa'k euki ebazanean eta gero, 661-750 urte bitartean Omeya'tar ondorengo leiñuak, Uri-nagusia Damasko'ra eroanda, 750-1.055 urte bitartean Abasidas'en ondorengo leiñuak euren kalifatoa Bagdad'etik jaurkitu egiten eben.

XIn. gizaldian asi zan euren berakada. Baiña, Mundu'ari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

5. Leenengo ta Bigarren zati onein ondorioa:

Bigarren zati onetan ikusi dogu, zelan Neolitiko eta tupiki edo brontzezko aldi bitartean giza-leiñuak gai-oneitan zentzuz egokituarte, ikas-bide luzeak euki ebazala eta milla urteko ikaskuntzaren ekiñaldian ikasi gendula, gauza txarrak eta onak egiteko zeintzuk izan bear diran ekiñaldiak, ibili bear doguzan erazko eritziak, alde batera edo bestera urten dagiazan.

Mundu onetaiko ekiñaldietan, bereala agertzen jakulako nabaritasun guztiagaz, gure borondatearen erabakiak bakarrik dirala gai, ekanduzko gauzak egokirotasunean ezartzeko, bereala jakiten dogulako, zeintzuk diran gauza-on eta txarrak, JAUGOIKOA'k gure ARIMA'ri emoneko arrazoitasunaren "BAITA'k" ("ULERMENA") zain daukagulako, atsekabetuta edo pozkor agertu gaitazan.

Oiñarri oneik izan bear dira kontu aundian euki bear doguzenak, Mundu oneitan mirari'rik ez dagoelako, bizitza bera bakarrik izan ezik, konturatzen ba-gara.

Alan dala, BERE'n LEGEA'k bakarrik dira Ludi au BEREZTU edo IZATASUNDU (naturalizar) egiten dabezanak eta LEGE orreik dira bakarrik danok egokitu bear gaituenak.

Mundu oneitan orregaitik, ez dago gizatasunetik inor !! eskubidetuta, BEREZKO LEGE´tik kanpo (porque lejos de las leyes naturales), asmakisunezko legerik atarateko. Gauza orreik egiten diranean..., BETI !! NORKERIEN ALDEKOAK IZATEN DIRALAKO (entramos en el mundo de los egoismos).

Mundu FISIKO oneitan ez dau beste bide edo miraririk, zentzuz edo edozein apeta edo kasketaldi bidez, leku batetik zeozer kendu egiten-dogunean, leku ura gabetasunean geratzen dalako.

Berezitutako gizarte arloetan bardin sortzen da: “NORTASUNA edo erri-gizarte bateri nortasuna emon dautson EUSKERAZ´ko IZKUNTZAK, BATEN-BATEK NORKERIEN ASMAKUNTZAZKO BURU-ZALEKERIAN ezereztu nai-badau, ez dago beste biderik: GIZARTE-ORI “IL” edo erri-orreik, menperatzailetasunezko morroitasunean eukin-da, nortasunean aldatu, NORKERIZKO-ASMAKUNTZ ORREN SERBITZUAN GALAZOTZEKO.

Ainbat erri-alda, zigor, guda (erdi-ugarte oneitan askenekoa, Franko´rena) eta eten-bako espetxe erabili dira (gaur be erabilten diranak) edestian zear erri-gizarteak morroitasunean eukiteko.

Mundu onetan Babilonia´tik asi-ta, edesti guztian argi ikusten doguna: “Demokraziaren atea zabaltzen asten diranean, beti agertzen dala guda gogor-bat, menperatzaileak, Mundu onen ekanduzko-bide ta mozkin guztiak euren kontrolpean gura dabelako, bizitz-onen sasi-agintaritza orreik iraun dagiazan”.

Noiz arte ?.

Gure “BAITA”k ez dausku jazarraldirik (protesta, oposiciòn) egiten ?.

Olan bada..., Mundu onen giza, zentzuntasunezko zuzen bidegaberik, ezin-bestean galduta dago !!

Gero ikusiko dogun-lez, asmakuntz-ori da gaur arte etorten dana eta orregaitik gagoz gaurko XXIn. gizaldi onetan buru-belarri sartuta, NORTASUNEZKO GIZARTEEN-ESKUBIDEAK BEREZKO-EKANDUAREN ZENTZUAN EGOKITU DAITEZAN.

5.1. Giza-leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki-izenak:

Giza-leiñuen aurrera-bidean ikusi dogu, euren urrengo egunean bizitzeko, eizan eta zitu, bii, ale edo fruituaren arraparia bakarrik izatetik, izotzak urtzen asi ziranetik ekoizle, egille edo sortzaile izatera aldatu zala eta leen iri edo leiñuen leenengo orubeak (emplazamientos) mugatzen asi, nekazaritza eta abel zaintzara bideratu egin ziranean, jakintzaren azturazko bide orreitatik euren etxe-gabetasuna edo alderraiezko bizitza gaindu egin ebelako.

5.2. Izkuntza ta toki-izenak:

Homo-Sapiens edo Kromañoi-giza Afrika´tik urten eta zabaldu zanean, euren ulermenerako leen-izkuntza, adierazten eben abots edo leen itz-ots bakarretik asi bear eben eta azturazko jakintzan berbari gorputza emonagaz oituratzen, ulermeneko ezagutzaren oroipenean bakarrenetariko gaillu-bat izan zalako.

Ez zan egon naastetasunik gauza orreitan, milla urte askoren jakintzazko azturan, Europa, Afrika ta Asia'ko lurraldeak, izkuntz edo oiñarri bateko esabideakaz mugatuta izendatu ebelako.

Milla-urte asko leiñuen auzotasunean egonda antzeko-izkuntz bakar-baten ulermenpean, goian esan dodan lez, toki-izen orreik lurraren jabetasuna artu eben eta nai-ta gero Asia'ren ondorioan agertu ziran maltzurtasunezko menperatzaille-bideak gaur arte, ez dira izan gai Mundu'ko lurralde guzti orreitan, leenengo Euskal toki-izenak aldatu edo ezereztuteko.

Gaur gure izkuntz-edestilari ta ele-jakitunentzak urrezko'ak diranak, Mundu onen giza-bidea argituz, ia konturatuten ba-gara, JAUNGOIKOAK Gai-MUNDU onetara zertarako bialtzen dauskun.

5.3. Jendekuntzazko garaiak:

Mundu'ko giza, edestian zear nasaiago edo erreztasun geiagoreki, bizitzen joateko, jendekuntzaren-jakintzan garaipendu asi ziranetik gaur arte, ez dogu izan bear besterik, Gai'ak era ezberdiñetan emoten dauskuzan aukerak egokitu baiño eta ezagutzen joan giñan tresneriak, izakizun, al diranak edo izan ditekenak zentzuzko azturaren azter-lanean (investigaciòn empìrica) egokituta (enrraizar en el recuerdo), gaur daukagun erreztasunezko egokitasunera eldu gara.

Orregaitik leen, Mundu au BEREN OIÑARRIZKO LEGEAN erperatuta dagoela ikusi ondoren eta onen LEGE bidetik beste gauzarik egitea eziñezkoa biurtzen jakulako: "ASIERATIK GAUR ARTE, DENBORA GUZTIAK BARDIÑAK DIRALA" esan bearrean geratzen gara.

Gai'ak, BERE arrazoiaren bidez eskatzen dauskuna, daukazan legeakaz EKANDU edo zentzuzko OREKAN zaintzea dalako.

Eta giza'ren arloan bigarren: BETIKO LEGEAK eskatzen dauan lez "Danon-Eskubideak, ekanduaren ordezkko ardura bardiñean zaintzea da !!" zentzuzko oreka eder baten egokituta iraun dagigun.

Baiña, izan ez ditekeena da, ainbaten esan dodan lez: "Gure gizazko-eskubideak ordezkartazko zentzuan zaintzeak daukan antza" "Elefante bat leiargintza (cristaleria) baten sartuta, egin leiken triskantzaren antza emoten dogulako".

5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeo'tarren alderraitasunak eta Etrusko agerkeraren edesti laburrak:

Asia'n ikusi dogu, Sargon asi zala kaizertza'ren sortzailletasunean eta aurrera begira lortu be, antziñeko edo aurretiko erabagi txar-ori (precedente) garaipenduta, ez zala geratu, areik eta 1.800 urte beranduago Griego'ak medikas'eko gudakaz geratu arte.

Aurretiko erabaki-txar ori aundikien-bidez gurtza-maillara igonda, Afrika'n be bardin sortu zan eta Mundu-Fisiko oneitan nor-bera besteak menperatu gure dabezenean, sasi-norkerizko izkuntz ta oitura-txar orreitan ezartzeko alegiñean, ikusi dogu zer getatzen dan.

Orregaitik, egoera orreitan argi guztiagaz nabaritzen dana: “Sasi jainkotasunean bizi gura dabenentzat, sasi-asmakizun orreik jainkotzat-lez goraldu eta gurtu bear dabezala”.

Sasi-ekintza orreitan nai-ta nai-ez, elkarkizunak (compatibilidades) derriorrezkoak biurtzen diralako: “Gauza txarrean iraun gura dabenentzat” “Gauza txarrakin elikatzen joan bear dabelako”.

Ekintza orreik, izkuntz ta oiturazko siñismenetan naste aundiak sortzen dabez eta batez-be, nastezko (romances similares, cuando se trata de dos lenguas enfrentadas como en el caso del Euskera-Latin) izkutz-barriak sortu.

Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu ziran Demokrazizko oiturak, erri edo leiñu artean ardurazko lotsak bikain zaindu ziralako, sasi-asmu barri orreikaz Ekanduzko beko maillan geratuta, Erdi-Aro´aren goialdetik asita, belaunez belaun edesti guztian etorri gara, bakezko elburua eskuaren neurrian eukinda, eldu ezinik, bitartean, norkerizko batzangotasunaren asmo-txar ori ekarten dogulako.

Ez da gauza aundirik bear, bakarrik berezko LEGEA´ri baietza emotea baiño ez dalako.

Baiña, Mundu´ko jakitunak aurrekoi oinkada ori emoten ez dira ausartzen, antza lotsa emoten dautsielako, oraiñarteko irakaskintza BEREZKO LEGEAREN albotik etorri dala esaten eta naste orreikaz jarraitzen dogu.

Baiña...., noiz arte ?.

Gaiñera jakinda BEREZKO LEGEA Damokles´en ezpataren antzera, buru gaiñetan daukagula keiñatzaille (amenazador), gaur sortzen dan lez.

Gaurko Sozialistak esaten dabe “Mestizaje para una ciudadanía del Mundo”. Zertarako jaio ziran-be aaztu jakie, PP`ren-beste menperatzailleak biurtu diralako.

Enda´ren nortasunak nastutea NORTASUNAREN OITURAZKO SINISMENAK NASTUTEA DA eta ortik agertu leiken gauza bakarra “ONBEAR (indigencia, necesidad) edo TXIROTASUN GALANTAN EGOKITZEA DA”.

PP ta Sozialista menperatzailleentzat bai ondo, erreka loietan arraiñiak errez arrapatzen diralako eta orrein billa dabiz zalantzarik gabe, kloniko batzango baten bizi gaitezcan, euren sasi-agintaritzaren mesedean.

Asia´tik Ario ta Indoeuropeo alderrai`ak ez eben egingo alde ba ? nai-ta nai-ez !!.

Baiña.., Etruskoa`k egon ziran Arno ta Tiber ibai-bitartean (Asia-Txikerratik etorritakoak ?) eta eurak ipiniko ebezan ibiltan erromatarren asmakizunezko eritziak Asia´n ta Afrika´n egin zan-lez, Europa osoan JAINKOA`k Mundu oneri emoneko Bereztasunezko LEGEA´ren egia zirriborrotzeko. Baiña irugarren zatikoa dalako, bertan ikusiko dogu.

5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen-on :

Ezin dodaz aipatu barik itxi : Izkuntz, izen-toki, azur, margo, arri, giza-izti eta abarrezko billaketaren azterkuntzan ibili diranai, nai-ta egia´ren billa ibilita, menperatzaillearen berekoitasunarengandik oztopo aundiak euki, edestian zear ikaragarritzko lanak egin dabezelako.

Izadi onen Homo-Sapiens'en asierara toki-izen ta edesti lan onen bidez joanda eta Asia ta Afrika'n lenengoz, txandako menperatzaileak, pintzel, zudaki, edo ixipu aundi bat eskuetan artu eta baktzaren asmakizuneko siñezkintzaren eritziakaz (euren egiak bakarrik agertu daitezkan) txandako orreik dana zelan margoztu eben ikusita, eten-bako azterkuntz-lan ederrean eginda eta arrigarrizko egoarriz eroanda (paciencia), illuntasunak argitzen asi dira..

Ainbeste margo-esku emon eta gero, giza-izti (antropologo), izkuntzalari, edestilari, azur-izti (paleontologo) eta abar. Ebaketariak (cirujano) egiten daben antzera, margoaren esku-aldi baktza kontu aundiagaz zati-txikerretan erauzita (hacer saltar) azpikoa ez daiten ondatu, urte askoren ondorioz zelan agertuazo egiten dautsen egia'ri, gaur erd-ikusten baiño geiago asi dana eta emendik aurrera jakintzazko arlo guztietan dagozan almenakaz, gero ta errezago izango dana, eurei esker.

Goazan-ba, irugarren zatian ikustera, non eta noren norkerizko asmakuntzarekin asten diran bigarren aldiz, txandako menperatzaile orreik Europa'ko lurak eta erri-gizartearen NORTASUNAK, ixipuak (brochas) eskuetan artuta, zelan margotzen daben, Mundu onen erri-gizarteak klonezko batzango baten jaurkitu gurean.

3 ZATIA :

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak, latia'ren jaiotza eta Erromatarrak.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.
5. Godo'ak.
6. Erdi-Mende au, Mauritarrak artean dirala.
7. Erdi-Mende onetan, Eleiza-Katolikoa'ren nausitasuna.

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamenak:

Leenengo zatian ikusi dogu, menperatasun asmoak, nai-ta Asia'n eta Afrika'n, leen-izkuntzak ta toki-izenak naspildu eta leiñuak edo erri-gizarteakaz antzeko-bardin bat egin.

Asmakizun orreitan garaipenduta erri-gizarteak morroitzeko eta ize-tokiak aienatzeko (anular, revocar), ez dabela indar geiegirik euki, JAUNGOIKOA'k BEREN BEREZTASUNEZKO LEGE bidez bizitzari emon eutson "BAITA" (conciencia), nastatu bai, baiña ezereztu ezin dabelako.

Leen: Mundu oneitan jaioten dan guztia, oiñarrizko "BAITA" orreitan jaioten garalako. Eta aurrekotasun (precedencia) ori eukin da, errez oartu edo konturatu geinkelako, "NORTASUNEZKO-BAITA" orren aurka dirala norkeriaren asmakizuneko alegin guzti orreik, Izadi onek daukazan berezko eskubide guztiak zapaltzen dabelako, daukiezan sasi-asmakizunak indartzeko naian.

EUSKALERRIA da Homo-Sapiens sortu zanetik Paleolitiko-Neolitikoaren bitartean, ezin-beste lortu ziran jendekuntzazko Jakin-Demokratiko ederraren ikusbegi

edo "AURRE !!". Al izango ete-dira..., ezereztuteko ?. EZ DOT USTEN, JAINKOA LAGUN, EUSKALDUNAK GURA EZ BA-DOGU.

Emen bearrezkoa da aipatzea ARANA'tar SABINO'k, ARANTZADI'tar ENGARTZI'ri (KIZKITZA) 1.901'ean Urtarrilla'ren 5'eko eskutitzan esaten eutsona: "JAUNGOIKOA IZANGO ETEDA BA, GURA EZ DABENA....., GURE EUSKALERRI-MAITE AU SUNTSITU EZ DAITEN ?.

Bigarren: Mundu-fisiko oneitan, gizartearen belaun-aldiko etorkizunean, ekintzak jakintzazko azturan sendo oituratzen ba-dira eta sinismenean ikasitakoak berbeagaz mugatu, izendutako-toki eta erri-gizartearen ekanduzko gauzak, nekez aienatu egiten dira, Mundu'an Euskal toki-izenari eta Euskalerra'ri sortzen jakon lez.

Zentzuzko aztarna ugari orduan geratzen diranak, ez gaitezaz aztu milla urte askotan ikasitakoarekin eta non ebatzeko eldu-leku ugari, naaspiltzen garanean edo egiten gaitunean, argi zabalera agertu gaitezaz.

2. Erromatarren sarrera:

Bigarren zatian ikusi dogu, zelan jendekuntzazko-jakintza Sumerian sendotu zanetik, edozein kaizertzaren maldaberan, gora egiten eben kaizertza barriak, egoan jakintzazko jendekuntz ori bereganatu egiten ebala eta berakadarik ez daiten egon Grezia ta Mauritarak egin eben antzera, edertu egin ebela, aurreko Demokraziaren bide-zar oituran aleginduta, azturazko jakin-egarriak ordezkatzan joan ziralako.

Ez zan gertatu bardiñ Erromatarraz gero ikusiko dogun lez, oneik asierazko errepublika on-baten jaurkintzatik (nai-ta neurri aundi baten jaurkintzazko asmakuntz onekin eginda-be, menpekotasunezkoa izan zalako), oso-osoa, amaitu ezin dan sasi-norkeriaren leize-zuloan jausi ziralako.

Eta euren maldaberan beste batzuen erlijiozko eritziakin alkartuta indartzeko, gaur lokatzazko sasi-norkeri orreitan gagoz zikinduta urten ezinik.

3. Etruskoak, Latiña'ren jaiotza eta Erromatarak:

Etruskoak bideratuta, Erromatar asmakuntzaren sorraldia, K.a. 753'tik 510'era egin eben, Sabino ta Iszeres'akaz alkartuta.

Etrusko'en jakintza aundian, leen asmakizuna Latiña sortzeko, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibil-gaillua izan daiten egin ebela. Griego'aren laguntzagaz erindu ta argituz biribilduta, elerti-arauzko izkuntz-aundi bat biurtuta geratu zalako, gure gaurko egunerarte.

K.a. 715'an Ponpilio'tar Numa'gaz asi zan eta lenengo zazpi errege euki ebazan, azkenekoa 510'ean Tarkino'tar Luzio, arroputz deritxonarekin.

Lenengoetan oso jarduntsu (atareados) ibilita, mendeko asmakizun orrei zentzunezko itxura emon naian, Griego'en izkitegia artu eben eta euren arteko izkuntz bat eraberritzen ibili ziran Latiñezko iztegia lortu arte. Mundu guztirako egin ebena.

K.a. 509'an Errepublika sortu eben eta erregeen agintaritzak urtero aukeratzen eben, lege-gizon bien eskuetan ezarri ziran. Pretorak ziran auek, gero kontzul deituko ziranak.

Errepublikako leenengo denboretan, sendi aberatsen aundikiak edo gurasoak ziran Uri'aren jaurkintzan agindu eleikenak, senatore batzarretan batuta, Jabe-bide ori bizi guztirako izan da.

K.a. 240 urte inguruan asi ziran erromatarren arazoak, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk, erri-gurasoen (patricios) sendiakaz alkartu ziranean, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko.

Ekintza orren eredu jaurkintza guztia euren eskuetan egonda, andi-mandikeria, apainkeria eta kirkilleriak goralduraz ziran ezin besterarte, euren arbasoak goi-maillan lortu ebezan osotasunezko oiturak eta ekanduak neurri aundi baten galdua.

Orren ondorioa, berezko baseritarren zuntsitzea edo ezeztatzea beartu eben eta lur-zabalaren etxagunak agertu ziran menpetasunezko joputasunean (esclavismo).

K.a. 106'an Erroma Kaio'tar Mario eta K.a. 27'ko urtean Oktabio'tar Augusto'rekin, gudaloztearen indarrezko antolamenduan izen aundia artuta, kaizergotzan edo agin-zalekerizko jaurkintzan (imperialismo) ezarri zan.

K.o. 306'an I Konstatino'k kaizertzara igon ebanean eta euren asmakisunezko elburuak indarra galtzen asi zirala ikusi ondoren, orduko denboran EKANDU arloan berrikuntza ekarten eban eta eten-bako ekiñaldian gorantza joan ziran Kristau indarrak alkartu gura ebazan, Erromatar kaizertza indartuta iraun ei dagian.

Eta orduko denboran eriotzeraiño aizatuta (acosar, acorralar) egon ziran kristau eritzi ta gizarteak, Galeno'k 311'n Sardika'ko legearen bidez, Kristau jai-arauak askatzeko eskatuta, Konstantino'k 313'an Milan'eko agindua emonda, Balerio'k baieztuta askatu ebazan.

324'an, I Konstantino geratu zan erromatarren Mendebal eta Ekialdeko kaizergoetan agintari bakar-lez.

I Konstantino'ren eriotza 337'an gertatu zan eta ostean erritarren gudak sortu ziran.

II Konstantino (331-363) guda orreik irabazi-ta 351'an kaizar-aulkera igon eban eta Mendebal ta Ekialdeko kaizertzak bateratu ebazan.

363'an Flabio ta Klaudio'tar Juliano, ziñ-ukatzaille (apostata, renegado) deritxona ezarri zan kaizar-aulkian eta 364'an Persa'k menperatu eben.

Eta Mendebaleko Erromatarren kaizergotzan azken ezarri zana 384? 395-423'rarte Flabio'tar Onorio izan zan. Nai-ta Erroma'tar Ekialdeko kaizergotza, (Bizanzio'ko kaizertza deritxonak) 1.453'ko urterarte iraun, areik eta Turko'akaitik menperatuta geratu arte.

Emendik aurrera, 410'ean I Alariko'gaz asi-ta, Godo'ak sartzen dira kaizergotzaren jokoan, Erroma saskildu ondoren.

4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak:

Eta emen ezartzen dira okerrezko erabagi aundiak, edestian zear etenbako goraldian zifeskintza-arauz gogortzen joan zirenak eta oraindiño ezin doguzenak lepotik kendu, berezko erri-giza ta izkuntzaren eskubideai ainbeste kalte egiten dautsezan norkeriaren guzurrezko-arrazoikeri orreik, katolikotasuna alderdikidetu zanetik ona.

4.1. Konstantino´k 325´n urtean eta bere agindupean:

I San Silbestre (314-335) Aita Santuak Kordoba´ko Osio gotzaiña bere ordeztan joan daiten deituta eta beragaz Bito ta Bizente apaizak joan da, Nizea´ko I Eleiz-Batzar Nagusia batu eben.

(Osio Gotzaiña, 257´an ? Kodoba´n jaio eta 357´an Panonia´ko Sirmio´n il zana.

Kordoba´ko Gotzaiña eta Konstantino´ren aolkari zana Arrianismoa bastartu dagian eta Nizea´ra Aita Santu I San Silbestre ordeztan joan zana Bito ta Bizente apaizaren laguntzan).

Bertan Arriano´ren irakaspidetza baztartzuz eta Zesarea´ko (Cesarea) Eusebio´k siñesteko idatzi eban Kredoan on-artuta, katolikotasunezko eritzi barri au aukeratu zan.

Ekitaldi au, ez dogu galdu bear gure ikusmenetik, gero Godo´en VI´n gizaldian Toledo´ko Eleiz-Batzar nagusian eta XVI´garrenean errege-katolikoarekin zer gertatu zana jakiteko.

Konstantino´k urrengo urtean: "Izadi oneitan JAINKOA´gan eta Mundu onen giza-bitartean ordezkari-legeak zuzentasunezko bidean ezartzeko, solaskide (interlocutores) bakarrak, Kaizertza eta Eleiza´ren Aita-Santu´engan egoala jabetasuna" erabagitu eban eta ortik aurrera euren batzangotasunezko agindupean Munduko gizarte guztia eritzi orreitan sartu naian !! asi ziran ziñekintzazko ekintzakaz eta arrokeri aundiz, (batzangotu baiño, dana banandu ez dabena besterik egin) JAINKOA´k GAI´ari ipinitako BEREZKO LEGE guztiak naastuten.

Erabagi au artu zanean, erromatarrak asieratik eta Zesar Augusto´rekin batez be, Mundu onetan erregetza bakarra egon daiten asmakuntza indartu zan, Eleiza´ri eskubide aundiak emonda.

4.2. Erroma´tarrak Europa´ra ekarri ebena:

Erromatarrak, gudalari edo borrokalari aundiak izan ba-ziran be, sekula ez ziran izan erri-bat eskolatzeko gai.

Eginda egoten zana edo eta ibili ziran erri guztietatik egon zan baliozko mozkin guztia eurentzat artzen eben, erritarrak galazota.

Legedi arloetan ausartak izan ba-ziran be, euren menperatzaille-asmakizunezko eritzian eginda egon ziran danak. Eta ori izan zan Erromatar-Bakea ?.

Grezia, erromatarren bultzadagaitik menperatuta geratu zan gudalozte eta politika arloan.

Euskalerraren lurraldeko-batzar nagusien antzera, Grezia´tarrak sekula ez eben artu nazioa´ren izena, eurak gogoan euki ebalako, Ludi onen berezitasunezko LEGE-indarrak zelan jokutzen dabene giza´ren Berezko Nortasunetan eta mailla aundiko ulermena lortu eben jakintza orreitan.

Euki eben antolamenduzko-jaurkintza itzarmenekoa edo elkargokoa izan zalako, sekula Laterrizko Uri´tik gora ez ziran joan, danoren Nortasunezko ardurak zaintzeko.

Denbora aietan, berezko antolakuntzatik kanpo, ez Euskalerraren batzarrak, ez Griegoa´ren elkartasunak ez ebelako geiagorik bear.

Erromatarrak katolikotasunagaz indartuta, euren menperatzailletasunezko asmakisunakaz, danok JAINKOA´ri begira, banaka eta erritartuta euki genduzan Nortasunaren ordezkariartzako ardurak antolatuta, odolkeriz ezereztuteko alegiñean, zirriborrotu baiño ez egin eben.

Orregaitik Greziatarrak gai-lez menperatuta geratu ba ziran-be, erromatarrak euki eben be-maillako edo zentzungabeaun aundikerizko ulermena, beti egon bear izan eben Grezia´k bizi oneri emon eutson adierazpeneko ulermenaren mende, zentzun aundiko jakintzan kokatuta egon ziralako.

Erromatarren arrokerizko asmakuntz orreikaz, beti sortzen dira eztabaidak gauza bien artean aukeratu bear dogunean: “Gai onetan sasijainkotasunean aundiak izan, ala JAINKOA´k Ludi oneri erperatuteko LEGEA´n ondo adierazpendutako lotsagizunean bizi.

Leenengoa artu eben, eta asmakuntz orregaz, gudalozteak indar aundiko antolamenduan eraikita, Munduko lurak eta gizarte guztiak menperatzen asi ziran. Danok, euren errege ta eurak asmatutako jainkoen agindupean egon gaitazan.

Andik oraiñarte, bidean aurkitu eben indar guztia, nai berezko edo egindakua izan, indarrez eta amarrukerizko “VENI, VIDI, VICI” jokoagaz, katolikotasunezko alderdikeria sendotuta, euki eben asmoa betirako izango zala uste eben.

Baiña antza, Ludi onentzako EGILLEA´ren asmakuntzazko agindua ez dalako ori, lurraldeetan dan guztia batzangotu baiño, zati geiagotan bananduta iñork ez dauen aituten nora-bideko naaste-borraste baten agertu gara, nai-erri lez, bai izkuntz-lez.

Zergaitik?: Izkuntzak eta erriak euren Nortasunezko Berezkotasunean diralako tresneri ederrenak JAINKOA´ri ulertzeko eta beren agindua EKANDUZ ta OREKAN zaintzeko zentzunezko eta danon arduraren antolamenduzko ekintza on-baten.

Zertarako..., dan guztiaren erantzukizunezko ardurak asmatutako iraspen (institución) edo eta esku bateko agindupean batu. Danon ordezkari arduraren-lanak eurak beteteko?.

Ezinezkoa da ori. Danok !! ordezkari arduraren orreik gizartearen zentzunezko antolamendu on-baten ordezkartzeko jaiotzen garalako.

Asmakerizko ekintza orreik asken baten izan ziran, erromatarren eta katolikotasunaren amets ta indar guztiak suntsitu ebazanak, gizon-emakumeai olako eritzi-bidetik, gaitzberako-baitan (presos de un ostracismo vicioso) kokatzen gaitulako.

Gaur, Europa´n eta EUSKALERRIAN batez-be, oraindiño daukaguz gure artean fazista indar orreik, zentzunezko arrazoia ez dabena izten bere lekuan kokatu daiten, baiña uste dot denbora gitxirako izango dala: “JAINKOA´ren BEREZTASUNEZKO LEGE aurrean, euren maltzurreko guzurrak nabaritasun guztiagaz suntsitzen (desaparecer, disiparse) diralako”.

Ala..., Mundu´an beste irugarren odolkerizko sarraski aundi bat egin, antolakuntzak leen maltzurrezko asmakizunetara eroateko?. Ori zan, Mundu´ko bigarren guda nagusian sortu zana.

Aukera ori be ezinezkoa biurtu jaku, iñorentzako ez zalako egongo urten-biderik.

A ta guzti, gaur Mundu'ko gizartea artegatzeko daukien aukera bakarra, diruan dago, ostondu edo eta beren bideak moztuta, erri-gizarteari irauzi edo errotik atara (desencajar, desquiciar) egiten dautselako, guztiz noraezean urduri kokatuta.

Luzaro ?. Aukera erreik-be, epe laburra daukie, Mundu onen gizartearen BAITA, lenago beren bakezko-lekuan kokatzera joango zalako.

Ori da arrazoi aundiena, gaur iñork ez dagian izkillurik erabili eta askoz gutziago gure EUSKALERRIAN.

5. Godo'ak:

Godo'ak ez eben denborarik, erromatarren ereduako alegiñean euki ebezan kaizertzazko asmakizunak sendo ezartzeko, eta Europa osoan denbora guztia, borrokan baiño ez emon eben.

Ardura aundiz egin ebena, Ekialdeko erromatar Arkadio'ren seme II Teodosio kaizertzak (401-450) argitaratu eban "Teodosio'ren lege-bilduma" eta I Justiniano'k (483-565) beren "Corpus juri civilis" (Còdigo Justiniano) batu eben antzera, II Alariko'gandik asi-ta, 506'n urtean Romana-Bisigotorun legearen laburpena (breviario de Anniano) argitaratu egin ebelako Mendebaleko bisigodo guztientzat.

Leobijildo (568-586) konturatu zan, erromatarren antzera, katoliko Kristau alderdian egoala aukera bakarra euren sasi-mende asmakizunakaz aurrera irauteko eta beren seme Rekaredo limurtu eban Arrianismoa baztatu dagian eta katolikotasuna besarkatuta indartuz, euki ebazan elburuak garaitu daitezana.

I Rekaredo'k (516-601), 587'an Arrianismoa baztartuta eta 589'an katolikotasuna besarkatu ondoren, Toledo'ko III'garren Eleiz Batzar Nagusia batu eban bere agindupean eta ortze emon eutson indarra ostera be, erromatarrak, Mundu onentzako errege ta katolikotasunezko ekandu bakarra euki eben asmakuntzari.

Europa'ren Mendebaleko erdi-ugarte onetan ortik aurrera sortu edo eta egingo ziran jaurkintzazko antolamenduak, iru baldintza oneikaz beartuta geratu daitezana: "Grezia'ren jakituria, Erroma'tarren Legea eta Eleiza'ren Katolikotasuna".

Berez ezin leikezanak iñondik-iñora be eskondu, Grezia'ren jakiturizko Demokrazia ezin leikelako bateratu beste biekaz, oldozmeneko eritzian guztiz aurkakoak izan-da, Askatasunaren Demokrazia ezin dalako Menperatzailetasunaren asmakuntzazko ekintzakaz zorro edo zaku bardin baten sartu.

Euki ebezan erromatar asmakizunakaz, beti borrokan ibili ziran eta Euskaldunakaz batez-be.

Aukeratzen zan euren errege-barri bakotza jaur-alkian ezarri orduko, beti beartuta egon ziran esaten: "ET DOMUIT VASCONES". Guzurra utsa izan zana.

Esan oneri Aita Santiago Onaindia'k eta Olazar'tar Maritin'ek erantsunez, batera esango eben: "LUJURIA EXUBERANTE".

711'an Mauritarrak etorrira suntsitu egin ziran, baiña asmakizun erreik Pelayo'k Asturias'era eroanda (alan diñue), andik eta katolikotasun bidetik asiko zan ostera-be erdi-ugarte onetan beren berrezkuntza eta 800 urte geroago (1.453) ekiñaldi gogorrean asi mendetasun erreik lortzeko.

6. Erdi-Mende au, Mauritarrak artean dirala:

Erdi-Mendea danari esaten jako, erromatarren Mendebaleko kaizertza 476'an Godo'ak ezereztu ebenetik, Turko'ak 1.453'an, Konstatinopla menperatu eben arteko aldiari.

Edo eta erromatarrak suntsitu ziranetik, 1.440-1.450 urte bitartean, irarkola (imprensa), irrari'tzeko papera (papel para imprimir), bolbora edo lerrautsa (polvera), itsas-orratza (brujula), itsas-ontzi'entzako ontzi-oial mugikorra'ren asmaketak lortuta, Amerika agerketa'ren ondorioz lurralde nagusi bietan asi ziran itsas-billaketararte. Bai, pizkunde (renacimiento) edo eta Eleiza'k Lutero'tar Martin'ekin asi-ta euki ebazan berrizkuntzazko (reforma) arazo-aldiak deritson arte.

Goi'ko ta beko Mende-Aldietan banatzen da Erdi-Mende au, leenengo gizaldiak goikoarenak esaten jakozenak eta be-aldekoak askenekoari.

Goian ikusi dogun lez, esan leike Metal-aldi edo Aro'tik aurrerantzean Sargon'en (?) gandik asi-ta, jendekuntzazko jakiturian (civilizaciòn) garaipentzen zanak, eskubidea ta indarra eukala besteak menperatzeko eta alan sortu zan Siria, Ejipto, Grezia'tik zear, Mauritarren garai'eraiño.

Onen asiera K.a. 1.000 urte gitxi gora-beran sortu zan.

Onek-be, bardiñ gura eben egin, baiña artean Erroma'tarrak K.a. 753 urte ariñago jaio ziran eta K.o. 325'eant Konstantino I San Sibestre Aita-Santua'rekin batera Nizea'ko batzarrean beste zeaztasunezko eritzi-bat emon eutsen mugi-aldi oneri Mundu guztia kaizar eta Aita-Santu baten agindupean batzangotzeko.

Ortik aurrera gaur arte, ikaragarritzko lasterketa bat izan dana, JAUNGOIKOA'k Ludi oneri Berezitutako (leyes naturales) LEGEA'ren aurka.

Mauritarrak 711'n Europa'ra sartu ziranetik, euren asmakizuna garaitzeko guda-antolamenduzko indar aundiekin asi ziran, baiña ikusi dogun lez, Poitiers'era elduta Martel'tar Karlos'ek geratu ebazan.

Ortik gora ezin eben igon eta euren 781'eko urtetan gure artean egonda, XI.n. gizaldian berakadan asi-ta, 1.492 Granada'ko menperatasunezko itun'erarte iraun eben.

Baiña, Mundua'ri emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

Euren izkuntza ezarri naian, toki-izenak be alegindu ziran aldatzen, adibidez: Guadalajara ibai'aren leen edo Euskerazko izena ARRIAKA edo ARRIAGA izan zana, eurak GUAD-ILHIJIARAH esangura bardiña daukan izena ipini eutsoen (arriaren erreka esangura dauana) eta gaur bertatik datorren Guadalajara'gaz geratu ziran.

7. Erdi-Mende onetan, Eleiza-Katolikoa'ren nausitasuna:

Erromatarren menderatzeak amaitu ziranean, Europa'n, Aita-Santua'k Nizea'tik euki eben gogoaren eta aldizko uts-ezintasun siniskai-bidetik (infalibilidad), Eleiza-katolikua agertu zan erri-gizarteak alkar-ganatzeko eta jakintzan jendekuntzatzeko

danon gaiñetik agintaritzazko indar nagusienetarikoan, eta bereala bete ziran Europa'ko lurralde guztiak bas-eliza, eliza edo jauretxe ta Gotzai-eliza'rekin (catedral).

Gero, erlijioa-irakatsiz, Europa'ko lurralde zabala latín-jendekuntzan ezarri ebana eta orduan egoan erlijiozko Kristau sugar edo irakiñaldi erri ta errigizarteetan susmatu edo igarritzeko, ez dago bezterik, katolikotasun-jardueran (proceder, comportamiento), egin ziran gurutz-gudaldiak eta Eleiz-epaiketetan (autos de fe) banatzen ebazan zigorrak ikusi baiño.

Frantzia'ko lurraldean Klodobeo'k (481-511) Merobinjio leiñua sortu ebenetik eta Kristautasuna besarkatu ondoren, euren etxe-zain (mayordomo) eta gero errege izango zan Martel'tar Karlos'ek, 732'an Mauritarrak Tours eta Poitiers'en geratu ebazan, ekintza orregaz Europa'ko Katolikotasuna galbidetik gorde egin ebana.

Bere seme Pipino (715-768), edestirako "laburra" izendatuta geratuko zana eta Karlo Magno'ren aita, 751'an Karolinjioa'ren leiñua sortu ondoren 800n. urtean, III Leon Aita-Santuak Karlo-Magno'ri (742-814) Gabon egunerako Erroma'ko San Pedro eleizara deituta, Mendebaleko Erroma'tar Kaizar Sakratuaren Augusto-Kaizar jauna koroatu eban. Ortik asiera emonda osterabe, zoritzarreko erromatar menpekotasunaren asmakuntza orreri.

Alemania'n I Oton aundia (912-973), 962'an XII Juan Aita-Santua'k, Europa'ren erdiko-aldea, Italia'ko iru-zatitik bi eta Frantzia'ren Ekialde'ko Erromatar-Kaizar-Sakratua izendatu ondoren, 963'an euren arteko gora-beragaitik ez ziralako konpontzen, Oton'ek kendu eben beren jauralki'tik eta VIII Leon ezarri eban.

Txekoslovakia'ren errege I Boleslao'k (935-967) onartu egin bear izan eban Erroma'tar Kaizar Sakratua'ren naguzitasunezko menpetasuna eta abar.

Gero I Maximiliano (1.459-1.519) I Karlos'en aitite eta II Maximiliano (1.527-1.576), I Karlos'en (1.500-1.558) anaia Alemania'ko I Fernando'ren (1.503-1.564) semea be, Erroma'tar Kaizar Sakratuak koroatuak izan ziran.

Kontuan artu bear dira, 1.516'an I Karlos Espaina'ko errege izendatu ebenean eta 1.519'an Alemania'ko kaizar V Karlos'en izenarekin egin, Frantzia'ko I Franzisko'ren aurka euki ebazan Europa'ren lau-guda nagusiak, Aita-Santuak euren buru gaiñetan dindilizka euki eben Erroma'tar kaizar Sakratuzko domiña aundi ori nork eroan dagian Europa'ren Mendebal onetan:

1^a = 1.521-1.526. (1.525'an, Pabia'ko borrokan I Frantzisko Urbietta'tar Juan Bizkaitar-gudariak arrapatu eben eta I Karlos'ek atxilotu eban); 2^a = 1.526-1.529 eta urte onen bitartean I karlos'ek Erroma'ri eraso egin ta saskildu ondoren, VII Klemente Aita Santua I Frantzisko'rekin kidetuta egon zalako, beren atzetik arrapaka ibilita, onek Sant'Angelo'ko gazteluan ostondu bear izan eban. (1.530'ean VII Klemente'k, I'go eta Vn. Karlos Erroma'tar Kaizar Sakratua izendatu eben). 3^a = 1.535-1.538 eta 4^a = 1.542-1.544 Niza'ko bake-une edo gudu-arte eta Krespi'ren bakean amaitu ziranak, eta abar.

Eta kontu aundiagoan, Errusia'ren askeneko muga'tik Itsas-Atlant'eraíño eta Noruega'tik Afrika'raiño (bera kontuan artuta), Kristiñau'kide izan da, nai-ta batzuk beranduago egin arren, 325'ean katolikotasunaren indarrezko alderdikeria sortu

zanetik, 622'an lenengo banaketa Islam sortutakoan euki ebala eta Europa'ren errigizarte asko beartuta, Kristau egin zirala.

Gaiñera, ez zala JAUNGOIKOA'ren agindua, BEREN LEGEA'ren bereztasunean sortu ziran: Gizaren, leiñu edo erri eta errigizartearen Izkuntzazko Nortasunak suntsitzea, gure arbasoak bereztasun oneri, BERA ta BEREN LEGEA'ren aurrean, euken bereiztasunean, ondo zainduta adierazpendu egin ebelako bizitz-au.

Sargon'etik asi-ta, Erroma'tar Kaizar Sakratu asmakizunaren atzean ibili ziranak, ondo baiño obeto jakin eben ez zirala JAUNGOIKOA'ren gauzak, sasi-agintaritzarenak baizik. JESUKRISTO'k, beste gauza batzuk esan euskuzalako.

Eta ikusi dogun lez, euren artean, ondo baiño obeto jakin ebala, erabilten ebana norkeriaren gauzak zirala, sasi-garaipenaren atzean ibilita Aita-Santua'ren uts-ezintasuna-be, ez ebalako contuan artzen.

Begitu bestela erlijiozko sinismenean euki eben ulermena, Frantzia'ko erregetza gure Nafar'tar IIIen. Enrike'ren eskuetara aukeratu zanean.

Kontuan euki, Nafarroa'ko erregetza, 1.527'an II Enrike Frantzia'ko Angulema'ko Margarita'gaz (Frantzia'ko I Frantzizko'ren arreba zana) eskondu ziran ezkeroztik, katolikotasunezko erlijioaren aurka, ukalarien (protestantes) erlijiozkoak zirela. Eta legeztuta 1.560'an Nafarroa'ko III Juana erregiñagaz.

1.593'an, paregabeko aukera ori, baldintza onegaz agertu jakon: "Kalbino'ren ukalaritzatik (protestantismo) alde edo ukatu daiela eta katolikotasuna besarkatu".

Bere erantzuna: "PARIS'ek, MEZA BAT ONDO MEREZI DAUALA" esan ondoren, 1.594'an Otsailla'ren 27'an Frantzia'ko errege koroatu eben, IVn. Enrike izenagaz. (Nai-ta berak erantzun ori emon ez).

Orduko Munduan eta Europa'n batez-be, erri-gizarteak, ez orren gogorkeriaren griña'pean (preocupaciòn, desasosiego, inquietud) bakarrik bizi bear izan eben, batzangotasunaren asmakizun ori kontrolatzeko, aitor-sume andizki edo galdukerizko feudo-legepean (corrupto feudalismo valvasor), premiñan (indigencia, pobreza) eta uzurri edo elderri (entre epidemias y pestes) ugari artean bizi izan bear ebalako.

Negargarria da ikustea, zelan katolikotasunak kaizar-domiña aundi ori, errege guztien buru-gaiñean dindilizka ipinita indartsuenak artu dagian batzangotasunaren norkerizko asmakuntz-ori aurrera eroateko, Europa'n Kristiñau erlijioa eskuetan panpa-bitxi (marioneta, tìtere) edo panpa (muñeko de trapo) bat lez ibilita, egin ziran odolkerizko sarraski'ak.

Pozgarritasunezko egia da baiña, jakintzazko-jendekuntzagaitik leen lekaidetxetan babestu egin zana eta gero Bolonia, Padua, Paris eta abar'eko Ikastetxe-Nagusietan eskolastikazko eraman-onaren (filosofia-escolàstika, escolasticismo) zentzua sendotzen joan zalako.

Eta geien, Akino'tar Tomas Santua'k (1.225 Italia'ko Roccaseca'n, Kanpania'ko Akino'ren aldamenean dagoena, jaio eta 1.274'an, Fossanoba'ko zizter'en lekaidetxean il) Aristoteles'en eraman-onaren irizpide bereketagaz (asimilaciòn = "bereketa" critica = "irizpide" de la filosofia del Aristotelismo) maixutasun aundiz bat-egin ebana. Nai-ta berak, bere azkeneko denboratan zalantza asko euki, bere idazkietan zeruko izkutasunari ez ebalako jakin, bear eban lez, egokitasunik emon.

Orduko “eraman-oneko” (filosofia) zirriborro orren barruari, argitasun aundiak emon eutsoezelako.

4. ZATIA:

1. Gure Erdi-Mendeko Euskalerrian, errege jaun sorkuntzaren sarrera.
 1. 1. Euskalerrian errege jaun en sorkuntza.
 1. 2. Gure Nafar-erregetza.
 1. 3. Bizkaiko jauntza.
2. 1.540-50´en Erdi-Mendeko urtetik Oraingo-Aldira edo eta Berrizte-Alditik (desde la Reforma) eta Frantzia´n 1.789´an egin zan iraulketatik gaur arte.
3. EUSKERA´k Euskalerrian..., zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?.
4. **EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.**

1. Gure Erdi-Mendeko Euskalerrian, jaun eta erregetzaren, sarrera:

Sarrera:

Orañarteko edestilari geienak, etorkizuneko erri-gizarteak eurak gura (edo beartuta) daben argitan ezarri daitezkan, Europa eta Euskalerrian´ko arbasoen-ulermentak zelako zentzuagaz jokatu eben esateko: “Beti izan dira, edestian etorri dan erromatar batzangotasuneko-asmakizun mende orregaz zikinduta, berezko erri-gizarteak ezerezko kontuan euki gabe eta norkerietan dabizenai lagunduz, daukiezan sasi-garaipenaren egarriak iraun dagiezan”.

Espainolak adibidez, beti agertzen dabe, euren errege ta izkuntza (izkuntz-ori Espainol ez dana, Gaztelarazko latin-kumea baiña. Eta zer da Espainia ?) betikoak izan edo eta danok espainolak izan bagiañan balitz bezala. Egia baiña, ortik urrun dago !.

Orregaitik, Euskalerrian´ren edestia eta Euskal-izkuntza berezko nortasunaren zentzu aundia geienetan ! utzikeriz (lleno de omisiones) betean, “Mendekotasunean (subordinación) bizi izan garela beti” esaten dabe. Emen, Onaindia´tar Aita Santi ta Olazar´tar Martin´en “Lujuria Exuberante” agertuko zan zalantzarik gabe.

Zelan ulertu leike ori..., gu bizi-bizi gagozanean eta eurak “nortzuk diran jakin gabe ?”.

1.1. Euskalerrian, Errege jaun´en Sorkuntza:

Euskalerriko lurraldeak, euren batzarreko nagusitasunean antolatuz jaurkintzen ziran eta batzar-nagusi orrekin agintaritzak mugarik ez euki ebala adierazteko, Bizkaia´n zelako baldintzakaz aukeratzen ziran Jauna´k jaurkintzaren antolarazirako argituko dodaz.

Europa guztian, baiña Euskalerrian batez-be, errege-jauntzak aukeratzen ziranean, erriak iru gauzatarako artzen ebazan: A) gudal-buru izateko; B)

zuzenbidearen buru nagusia izateko eta D) Bizkaiko ondore aundiko lurraldeak zaintzeko.

Jauntza, ain zabaleko almen eta ondasun orrekaz jantzi ba-eben, bere buruzagitasuna lasaitasunezko jaurkintzan iraun dagian izaten zan.

Eta kontu aundian artuta, berea ez zala ezer !!, daukon guztia Bizkaitarrak emonekua zalako, beren antolarazian (arbitraje) babesteko.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarria errian egon zala erakusteko: "Erabagitasunean apur-bat"; Beste apur-bar "Egilletasunean" eta beste ataltxo bat "Legegilletasunean" bakarrik emoten eutsoen.

Alderantziz baiña, batzordea beartuta geratzen zan, jaun edo erregeak bere antolarazian bakeak lortzeko edo baten bat indarka sartzen zanean kanporatzeko, borrokatu bear ebenean, euki eben gudaloztea guda-mutillakaz bear eben neurrian indartu eta ordezeko-soldata orren diru-ordaintza barik, jaun edo erregetzaren antolarazi barruan bakeak lortzeko izaten zanean eta ariñautik ordainduta, etxetik kanpo izaten zanean.

Jaun edo erregearen baldintza au, nai Europa'n eta bai Euskalerrriaren askatasunerako, txeberazko sare-aundi bat biurtu jakun, Euskaldunak ortik aurrera anai-arteko borrokan ibili garalako beti.

Jaun erregeak, bategaz edo besteagaz borrokatzen ibiltzen zanean, bai beren maltzurkerizko aundikeriaren billa ibilita, adibidez: II Juan (Aragoi'ko erregea) eta beren seme Fernando katolikuak Nafarroagaz geratzeko ibili ziranean, anai arteko gudak izan diralako beti.

Zergaitik ?: Europa eta Euskalerrriaren askatasunarentzat batez-be, eleiza-katolikoaren alderdikeriak, itxura-gabetuan (camuflado) ekarte eban beste txeberazko sare aundi batekin, Munduko batzangotasunaren asmakuntzan, latinez eta kaizar ta Aita-Santu baten agindupeko jaurkintzak lortu daitezenez (nacional-katolicismo facista. Rouko Barela'k atzo....., nortzuri esan eutsoen faziztak zirela ?) bat egin ebalako: "GREZIA'tarren JAKINTZA", "Erroma'tar Kaizar-Sakratua'ren Katolikotasuna" eta "Erroma'tar Menperatzaille LEGEA'kaz" batera.

Aita Santuak "Erroma'tar kaizar-sakratuzko katolikotasunaren kaizar domiña aundi ori, errege-katoliko guztien buru gaiñean dangilizka ipinten ebalako indartsuenak artu dagian, errigizartearen gaiñetik, asmakuntz gaizto erreik lortzeko.

Grezia'tarren Jendekuntzazko-Jakintz Demokratikoa..., naastu leike erromatar menperatzaille kaizar-sakratuzko katolikotasunaren legeakaz ?. EZ !! guztiz aurkakoak (antagonikos) diralako.

Naste-ori egiñagaz, eurak emon euskuen aukera ederrena, euki eben menperatzailletasunezko asmakeri ori, Berezko egiagaz alkar-aurkezteko (cotejar).

Eta nai-ta egi-billaren azterkuntzak oso odoljariozko lazkartasunean (dureza, aspereza, bastedad) etorri izan ba-da be, Grezia'ren jendekuntzazko jakituri-demokratiko artean sartuteagaz, mesede aundiak egin dautsozelako Mundua'ri, Berezko egiaren zentzuak argitu daitezkan.

Baiña, Europa'n eta Euskalerrriaren batez-be, errege jaunak sortu ziranetik gaur-arteko edesti guztian, Europa'ko jakintza eta indarra, guzurrezko baldintza bi-orreitan ezarrita eta agintaritzazko nagusitasuna artean, maltzur-guzurkerizko joko orreitan

Bereztasunaren egi-guztia naspiltzeko alegiñean ibilita: “Berezko erri ta izkuntzak, irten-bide barik geratu ziran”.

Edestiko joko guztia, beti izan dalako berezko erri ta Izkuntzaren aurka, onein NORTASUNA´k desagertu aienatu edo suntsitu daitezcan, Mundu oneitan euren sasi-jainkotasunean ezarri gaitezcan. (Begitu zelan dabiz gaur be).

Gudaren buruzko alegiñean, nor ez da gogoratzen Zezar´en “VENI, VIDI, VICI”gaz, Godo´en “ET DOMUIT VASCONES” eta Katolikotasunak Nizea´tik aurrera Euskerea bastartzeko esaten dauskuenakaz “HABLE USTEN EN CRISTIANO”, euren beldurkerizko guzurra ostondu naian edo aiñ nabaritasunezkoa izan-da, indarkerian erakusteko.

Eta bai abar asko-be, menperatzaille-eritzi orren “LORAK” baiño ez diranak, Berezko Erri ta Izkuntzaren aurka.

Zergaitik ez dabe esaten “HABLE USTED EN KATOLIKO ?”. Bildur dira euren maltzur-menperatzaille jokoa argitan agertzea ? Argi dago, lotsabako oilo-bustiak dirala “JESUS”en irakaskintza olan zikintzen dabenak, sasijainkotasunaren asmoz.

Gaiñera, batu edo batzangotu baiño, nai NORTASUNEZKO erri ta izkuntzazko arloetan, milla zati geiagotan birrindu dauana.

Munduko eta Europa´ren edesti guztia, odolkerizko sarrazkintza baten ekarri dabe sasi-asmakizun ori dala eta ez dala. Nortzuk dira ikarabideen (terrorismo) izutzaille edo izu-arazleak ? (terroristas).

Ez ete da ordua zentzunezko aldakuntzan asteko..., gaiñera ikusita BEREZKO LEGEA´ren indarrak buruaren goi-aldian daukaguzela keiñalari, noz iruntsiko momorro aundi baten antzera ?.

1.2. Gure Nafar-erregetza eta Bizkaiko jauntza:

778-824´an Orreaga´n, Euskaldunak Karlo Magno´ren aurka euki gendun borrokak gerta-egun bi-orrein ostean, Banu Kasi sendiaren laguntzagaz, Aritza´tar Iñigo´rekin asi gendun Nafarroako-erregetza.

Eta 888´an, III.n. Alfonso´gaz Padura´n (borroka´ren ostetik Arrigorriaga deituko zana) euki gendun borroka odoltsuaren ostetik, Jaun Zuria´gaz Bizkai´ko jauntza.

Eta antolakuntzazko jaurkintz orreitan asi giñatetik, BEREZKO EUSKAL NORTASUNA´k aienatzeko sartzen gara gaur arte, edesti guztiko borroka orreitan.

Nortasunezko izatasunean, errege-jaun biak oso abertzale aundiak izan ziran, Bereztasunaren babeserako baiña, uko ezinezko txeberaren sare-artean nai-ta nai-ez inguratuta.

Nafarroa´ko erregetzan lenengoetatik asi-ta esan bear da: Batzangotasun orren asmakuntz-bidetik eta Europa´n Eleiz´tarrak euki eben aolkularitzazko jabetasunagaz, Latiña elburu-lez gaienduta, Nafar´tar-Jaurkintzan Euskeraz, sekula ez zala idatzi agiri bat eta latiñez ez ba-ziran egiten, naiago latin-kume baragarrian (romance). Nafar-erritarrak ezerean kontuan artu gabe.

Joko orreitan eurentzat gaur-lez: “ZER ziran Euskal-Nafar-erritarrak ?”.

III. Santso Garzez "Aundia" (999-1.035) 1.035'an kaizar-erregetza bere semeen artean banandu ebenetik, Gaztela eta Aragoi'tarrak edesti guztian ibili ziran zirikatzen, nork geratuko ete-zan Nafar'tar erregetzagaz.

Eta len, Frantzia ta katolikotasuna bakarrik euki ba-eben etsai, Gaztela ta Aragoi'tarrak asmakizunezko talde orreitan kidetuta, lau bider aundiagotu egin ziran, Nafartarrak aurre egin bear eutsoen zirikatuaeren eraso-aldiai, aztu gabe, gurutzada'ren gudak, ara-be joan bear zalako.

VI. Santso "Jakintsua"ren (1.128-1.194) jaurkintzan, III. Zelestino Aita-Santua'k beren berun-bulda edo idazkietan, beste benetako erregeari "REX" izenagaz bialtzen ba-eutsoen, VI. Santso'ri, 1.194'an Jorrailla'ren 13'ko berun-idazkian eta gero urrengo VII. Santso'ri (1.254-1.234) bardiñ, dukea'ren izenagaz idazten eutsela.

VII. Santso "Azkarra edo Indartsua" gurutze-gudatan ibili zan denboran, jaurkintzan geratu ziranak okerkeri galantak egin ebazalako eta VIII. Alfonso gaztelarrak Araba erasotzen ibilita, Euskalerriko lurralde naguziak Nafar-erregetzatik: Araba ta Gipuzkoa 1.200'e an eta Bizkaia 1.224'an banandu ziralako.

I Teobaldo'k (1.200-1.253), seigarren gurutz-gudaldian (1.228-1.229) eta zazpigarrenaren (1.248-1.254) bitartean, 1.238'an Lur Santua'aren gurutzeko-gudaldia bideratu ebela eta Tauro mendian betiko ospagarritasuna lortuta gero, 1.240'an itzuli zan.

I Teobaldo'k 1.246'an, Ximenez ta Gazolaz'tar Pedro gotzaiña'rekin, Fuero'ak dirala eta ez dirala, zalantzan ipini eban Nafar-erregetza, baiña IV. Inozensio Aita-Santua'k lege berezi-bat argituz: "Bere baimenik gabe, iñork ezin leikela Teobaldo eleizatik kanporatu" agertu eban.

Kontu aundian euki euki bear da, orduko denboratan errege baten-bat edozer gauza gaitik elizatik eskomunikatuta kanporatu egiten ba-ebela, erregetzako koro-ori aske geratzen zala edozein printze-katoliko artu dagian, Aita Santuaren baimen guztiak eukinda, guda-indarez sartzeko.

II. Karlos "TXAR" deritson erregetzan (1.349-1.387), 1.348'ko Irailla'n, izurri (peste) baltza agertu zan, Nafar'tarren gizarte-artean %'tik 70'e an murriztu ebana eta lurgintzaren lanerako besoaren ezean agertu ziralako, Nafartarrak gose aundian sartuta, askori lapurketara emon eutsoen.

II. Karlos'ek, neurri gogorrek artu bear izan eben ekintza orreik bakezteko eta Frantzi'ko erreinuaren edestilariak, nai-ta erriak oso maite euki arren, Nafar-erreinua zirikatze "TXAR" izen ori ipini eutsoen.

Nafarroa'ko erregetza ta erritarren nortasunak banatzeko, bere barnean legezko eta sasi-semeen artean, bekaiz (envidia) aundiaren bitartez beti borrokan ibiltzen ziralako, kanpotik euki ebazan zirikitutasunak, erritarraren artean estutasun geiagotan larritu daitezkan: Agramontes ta Beaumontes'en alderdikeriak sortu ziran. Nai Europa'n edo eta Euskalerrian bezala, baiña Nafar'tarrentzat batez-be, oso gaiztoak izan zirenak.

Emen konturatu bear gara, Europa'ko erregetza guztia, euren artean senituta egoala eta naigabezko borrokak edo asarre guztiak (geienak beintzat), bakoitzak gogoratzen ebazan erregetzaren eskubideetatik agertzen ziralako, erritarrak morroi bezela ara ta ona Foruen aipamenakaz ibilita, kontuan euki gabe.

1.423'an Urtarrilla'ren 20'an, IIIIn. Karlos "Biotz-Aundikoa" k Nafar-erregetza babesteko Biana'ko printzerria sortu eban, bere illoba IVn. Karlos izan-da lenengo printze edo errege-gaia.

1.441'an baiña, I Blanka Nafarroa'ko erregeña, Aragoi'ko Iin. Juan'egaz askonduta egon zana il zanean eta euren seme IVn. Karlos errege izendatu ondoren, IIn. Juan bere aitak eta Fernando katolikuaren aita izan zanak, erregetzatik bota eben.

IVn. Karlos'ek, gaztelatarren laguntza eskatu eban eta laguntza emon ondoren, kondestable'ak, Albaro de Luna'ri itandu eutson: "Baiña guk... zer lortzen dogu laguntza oneikaz Nafarroan ?" Eta Albaro de Luna'k erantzun: "Jauna !! 40 urteko anai-guda izten dautsaguna".

IIn. Juan'ek (1.397-1.479) : I Juan izenagaz 1.441-1.479 Nafarroa'ko errege-lapurra lez eta Aragoi eta Katalunia'ko IIn. Juan errege lez 1.458-1.479 Urtarrilla'ren 19'raiño il zan arte) , beren seme-alaba biak IVn. Karlos (Peñafiel'en 1.421'ean jaio eta 1.461'ean Irailla'ren 23'an Bartzelona'n, gaitzapel edo bularretako miñagaz Il zala esan eben, baiña ez zan egia) eta IIn. Blanka (1.424'an Olite'n jaio eta 1.464'an Otsaila'ren 12'an Euskalerrriaren Iparalde'an Biarno'ko Leskar'eko bizkonderrian il) pozoituta il ebazan.

Guda oneik, ez ziran amaitu 1.522'an Maya'n eta 1.524'an Ondarribian, Nafarroa'ren askatasunezko ikurriñak beratu arte.

Nafarroa'ko I Juan ta Aragoi'ko IIn. Juan'en izenagaz ezagutuko zan Fernando katolikuaren aita izan zanak, 1.441'ean asi zan, Nafarroa, Aragoi menpean ezartzeko eragozpeneko gudarekin.

Vn. Fernando "katoliko"aren (1.452-1.516) izenagaz ezagun izan zanak, 1.512'an Uztailla'ren 21'ean aurpegia erlijiozko mozerroaren estalpenagaz (ocultación, encubrimiento, disfraz) agertuta mendetu ebana.

Eta Espaina'ko I'goa eta Vn. Alemania'ko Karlos'ek (1.500-1.558), 1.522'an Maya'n eta 1.524'an Ondarribian, Nafarroa, Espaina'ren mendepean egon daiten amaitu ebana. IIn. Julio, Xn. Leon eta VIIn. Adriano eta VIIIn. Klemente Aita-Santu'ren laguntzagaz eta bedeinkapenarekin.

Or amaitu ziren Nafartarren askatasunak ? EZ !! Nafartarren askatasuna oraiñarte, indarkeriaren aurka ezin dalako besterik egin, estutasunezko larrialdi bat baiño besterik ez dalako igarotzen dabillena.

1.3. Bizkai'ko jauntza'n:

Gure jauntza, 888'an Padura'ko (Arrigorriaga) borroka-lazgarri ostetik Jaun Zuria'gaz asi-ta aurrerantzean gure aukeratuko jaunak oso abertzaleak izan ziran, areik eta gauzak naspiltzen asi arte, adibidez: 1.137'an IVn. Lope'k Gaztela'ko VIIIn. Alfonso'gaz batera, Nafarroa'ko VI'n Garsea edo Gartzia'ren aurka borrokan ibili zalako, bera kendu eta Nafarroa'ko erregegaz itzarmendu gintzazan.

1.454'an Gaztela'ko IVn. Enrike'k Bizkaiko jauntza artu ebanak eta 1.470'ean Epaila'ren 4'an Mungia'ko guda ostetik bota egin genduen, Isabel (katolikua) ipinita.

Eta ainbategaz bardin edo al-gendun eran, nai guda-keñuakin batzuetan IIn. Felipe Espaina'ko erregeari bezela.

Bizkai'ko jauntza, Europa ta Nafarroa'ko arazo bardiñakaz asieratik iraun bear izan eban, danen antzera guk-be leen, erromatar-katolikotasunezko sakratuaren txeberazko asmakuntz sare-orreitan sartuta asi bear gendulako eta Bizkaiko gizarte ta Batzarrak euren jabetasunean, indarrezko babes-ausarta aundiak eginda-be, gure jauntza, urte-bi eukazala Espaina'ko errege izango zan IIn. Juan'en (1.425-1.474) eskuetan jausi zanetik, txeberazko sare orreik zabaldu ta sendotu egin ziralako.

Ortik aurrera, Espaina'ko erregeen eskuetan egon dalako gure jauntza. 1.876'an Uztailla'ren 21'ean guztiz ertsi (clausurar, encerrar) edo giltzatu arte.

Europa, Euskalerrria eta Bizkaia'ren gaurko Menperatzaille oneik...., betiko ASKATASUNA galdu egin dogula esan-gura dau ?

EZ !! Bizitz oneitan Askatasuna galtzen dauenak, NORTASUNA galdu edo il-dagoela esan gura daualako. Eta EUSKALDUN-BIZKAITARRAK bizi-bizirik gagoz oraindiño.

Demokrazizko bideak artzea, JAINKOA'ren bideak artzea esangura dau, Bereztasunezko LEGEA'ren-bidera aokatuta gagozelako. Orregaitik buru-otzakin eta demokrazizko zentzu aundiz jokatuta, lortuko dogun gauza da !!. Maltzurkerizko guzurak Mundu'ko bizitz-au, amiltegitik (precipicio, despeñadero) ez ba-dabe botaten.

(Onen inguruko edesti osoa: "Askatasuna ta Menpea, Askatasuna Bizkaian" LII'ko Euskerazaintza aldizkarian; "Euskaldunak eta Europa'ren Batasuna" LIV'an; Euskalerrria ta Inguruko Erriak LVI'an; "III Juana de Albrit eta Nafarroa'ko erregetza" LIX'an eta "Euskalerrria'ren Askatasuna'ren Edestia" LXI'ean, lortuko dozue).

2.1. 1.540-50'en Erdi-Mendeko urtetik Oraigo-Aldira edo eta Berrizte-Alditik (desde la reforma) eta Frantzia'n 1.789'an egin zan iraulketatik gaur arte:

Agertu ziran aurrerakuntzakaz (irarkola, itsas-orratza, lerautsa –polvora- eta abar.), lengo erregetzak indarrean sendotzen joan ziran, nai-ta Europa'n eta batez-be Euskalerrriko Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia'n gure askatasuna euki, tresneri orreik indarrezko aukeran emoten eutsoezan neurri orreitan batzangotasunezko asmakuntzak gogortzen asi ziran.

Erregetza orreik baiña, XVIIIen. Mende'tik onantza makaltzen joan ziran lez eta Berezko erriak indarra artzen, batzangotasunaren asmakuntzazkoak Frantzian, erromatar kaizar-sakratuaren katolikotasun tresneri orrekin ez ziralako gai izan Mundu'ko dan guztia batzangotzeko.

1.789'ko iraultzagaz, beste saio barri-bat egin eben, bereztasunezko errigizartearen nortasunak eta izkuntzak, ia gero lurralde zati aundiko jende-biltzetan (agrupaciones) lotzeko izan-ditekeezan gai, Bereztasunaren Nortasunezko erri ta izkuntzak aienatzeko.

Frantzia'ko iraulketaren ondorio-bidetik katoliko-erregeak, ararte euki eben itzarmenaren antolabideko (arbitraje) arduratik, beragaz itzarmenduta egon ziran (edo

ez) berezko erriak izkuntz eta guzti laterrituta, Frantzez nortasunezkoak biurtu geratu ebazan.

Eta Europa osoa eredu ori artuta, ararte egon ziran itzarmen-bidetik antolaraziko erregeakaz lotuta, lurralde aundietan guda-indarrekin, guztiz Laterrituta garatu zan.

Baiña, Erromatar-katoliko-kaizar-sakratuan batzangotzeko asmatuta egoan zorro orren bealdea, josi-barik eukielako, areik eta Mundu guzti onen nortasunezko-giza barruan sartu arte, Napoleon´ek zabalik aurkitu ebazan menperatzailetasunezko ateak eta borroka ori JAINKOA´ren LEGE´en aurka dalako, betiko-lez, azken-gaiztotuta utsegille urten bear eban, ainbeste milloi-giza´ren eriotzagaz.

Asmakizun orrek, buru gogorra dauka eta Hitler´ek-be askeneko saioa egin eben, 60´milloi giza-seme il-da.

Noz-arteraiño...., burukaldi-gogor (cabezonadas) orreik ?.

Gaur ez dira ausartzen beste bat egiten, Mundu´ko bizitza berrogei bider aienatzeko atomozko-lerkai´ak dagozelako.

Eta erri-gizartearen nortasun eta nortasunezko izkuntzak gaur zer ?.

An Sumeria´n, Sargon menperatzailearen asieran-lez, JAUNGOIKUA´k Ludi-au BERE´n LEGEA´kaz Bereztu egin ebalako eta orreik ez dabelako esaten beste gauzarik: “BEREZTASUNA´rekin LOTSA aundia euki bear dogula baiño”. Gure arduraren kontu aundienean artu bear doguz, OR!! Ulertzen diralako Izadi onen gai-giza´ren eskubideak.

Asmakizun orreik nai edesti guztian Berezko LEGEA´ren aurka eten-bako odoljariozko sarraski baten ekarrita. Bereztasunak, Arnasaldi baten sartu ezkeru eta BERE´n LEGEA´ren ezinbesteko ardurak bete egin bear dabezelako, lotsagizun aundiz, berezko izatasunen egokitasunera doa.

Orregaitik, zergaitik barrero artu ez !! Bigarren Mundu´ko gudan zer gertatu zan ikusita, ostean damu aundiz eta garraxika aldarrikatu zan...., “GIZA eta Berezko erri ta erritar ESKUBIDEA´ren bideak artu bear zirala ?”.

Iñoz !! ez du igarriko..., JAUNGOIKUA´k ipinitako LEGEA´ren aurka ezin dogula egin ezer ?.

3. EUSKERA´k EUSKALERRIA´ri...., zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?:

Sortzezko izkuntz-bat Euskerea dan lez, ez da gure gogotik oldoztu egiten dan izkuntz-bat bezela.

Edo eta edestian ikusi dogun-lez, menperatzaileak euren sasi-garaipenak lortzeko, erri ezberdiñeko gizarteak menparatasunezko bearkuntzaren naastekatutik urten leiken izkuntz baragarri baten antzera.

Erromatarren norkerizko-bidetik urten eben latin-kumeen antzera. Euren ERRI-NORTASUNA´k, naastutasunen bidetik, euki eben ospea-kendu (desconceptar) eta naspillatu (desconcertar) egin ebalako.

JAINKOA´k Berezko bizitz oneitara bialdu ginduzanean, gai-oneri arrigarritasun aundiz adierazpen-bat emoten asi bear izan gendun, gosea´k, gure sabel-zorri onein larritasunezko doñuak ez ziralako egokienak; jaiotzak, eriotzak, gaxo-aldi, zauri eta

bizitzari erantsuna emoteko beste aukerarik ez zalako egon, baietza emon geuntson maitasunean egokituta.

Maitasuna..., nori baiña ?. Leen JAUNGOIKOA´ri, laster konturatu giñelako bizitz au ez zala edozeiñek egindakoa.

Bigarren sendia´ri, lagun bearrean babeserako guregandik ugaritzen giñelako. Eta irugarren gai-bizitzari, berak emoten euskuelako aukerea izateko.

Maitasunezko egarri (amar, querer, aspirar en definitiva) orren bidez, laster konturatu giñan, gauza guztien ekintzazko alegiñean, txar eta onezko aldiak eukazela eta egiten genduzan gauza guztietan lotsasko-neurriakaz arduratu bear giñela oker edo utsaldian jausi ez gindezan.

Bai-ta, antolakuntzazko beste uler-leku barri bat zabaldu bear gendula, ikasitakoak gure ezagueran erabidez (metodika o ordenadamente) oituratzeko eta ortik asi bear izan eben abots edo itz-ots´ai itxurazko eran amore-emoten (amoldar).

Homo-Sapiens, Afrika´tik mugi-aldian asi eta Europa, Asia ta India´tik zabaldu ziranean, leen-Euskerazko itz eta ekanduaren oiturazko oiñarriekin, zentzuzko oreka baten egokitu eben. Leñuen bizitzazko antolakuntza, auzotasunezko lurraldeetan laterrituta.

Atlant-itsaso´tik India´raiño dauan bitartearen eragozpenagaitik, ez eutsen itzi izkuntz-bateko azturan egokitu eta or, leiñu bakotzak nai oiñarri batekoak izan, sort-arazi (crear) eben izkuntzan egokitu ziran.

EUSKERA´k EUSKALERRIA´ri, ZELAKO IRUDIA´gaz ITXURATZEN DAUTZO ?:

Euskaldunak, JAINKOA´ri begira milla-urte askoren ikerpeneko atun-bidean (procedimiento empirico) edo eta aztura-bidetik (crecimiento del conocimiento), ondo erindu eta biribildutako lanean, itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu daitezcan, gure ARBASOAK, EUSKERAZ´ko gaztelu ederrena eraiki eben. Eta bizitz-oneri, beragaz emon eutsoen adierazpen ederrena.

Ez ziran txantxetan ibili, laztasun (severidad) eta zorroztasun (austeridad) aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko-esaerak, sorburuzko itz´ekin osotutako almenean (potencia, potestad) eginda dagoelako, esangura dan irudizko toki ber-beran kokatzen gaitu, ia izkuntz-gitxi baiño ez daukienak.

Gaztelera PLAYA itzak adibidez: Zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?. Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz (lisura, tersura) edo eta areatutako maskor-ondarrarekin ?.

Zelan ?: “Euskalerria´ren lur onetan agertzen diran aize, ur, itsaso ta mendiak daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta gai-bizi irudiak, zentzu aundienean izendu ebalako” **alde batetik**.

Bestetik, sendi-gizartean: “Lots aundi begirunezko (respeto, consideraciòn) itz´ekin oituratu ziralako senditasunaren bizitzazko eta sendi-gizarte arteko arremanak leiñu edo erri-maillan”.

Erri-arteko maillan: “Sekula ez giñelako joan bestea menperatzera edo daukana kentzera, lotsa aundian artuta euki bear ziran arremanakaz, paregabeko DEMOKRAZIA baten bizi ziran, gure arteraño etorri jakuzan LEGE-ZARRAK esaten dauan lez”.

Eta baktzaren eginkizunetan ?: “JAINKOA’ri begira, EGIA gure bizitzako ARDATZ-NAGUSI izan daitela, Euskalerrria’k beste amar-milla urte geiago iraun dagian”.

Gure ARBASO’ak, zentzunezko demokrazi-baten egian bizi ziralako, gaur-arte ezer galdu gabe ekarri euskulako daukaguzan DEMOKRAZIA’ren-ASKATASUNEZKO egarriak. Ekintza orreik izan ziran eta orreik izan bear dira gaur eta beti !! “EUSKALERRIA bizi-bizi agertu daiten MIRARIA”.

EUSKERA’k:

Daukan NORTASUNEZKO irudiagaz itxuratzen gaitu Euskaldunai. Maitetasun guztiagaz erkidetzeko egin gendun tresneri-eder au, ez dalako gatz-gabeko mezu-gailu uts-bat gure artu-emonetan ibilteko tresneria bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak: a).- JAINKOA’ri begira “BEREN LEGEA’rekin euki gendun oarmeneko (atenciòn, sentido de la observaciòn) samurtasuna”; b).- “Senitarte eta erri-maillan MAITASUNEZKO ulermena” eta d).- “Gure BAITA’ren bake edo oreka’gaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak zentzunezko ta zeatztasunaren lotsazko arduran egin genduzela”.

Euskal-bizitzarako edo eta erriaren babeserako EUSKERA’k daukan indarragaz, berez agertzen jakulako MAITETASUNEZKO GAITASUNA” (buenas dotes, talento), bere barneak daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako argitasuna emoten dauskuelako.

Gure arbasoak, gauzak eta arremanak egin ta zentzun aundiz eroanda, DEMOKRAZIA’ren ulermen aundi batera eldu eta bizi ziralako, sendimendu berberori sartu eutsoen Euskera’ri, orregaitik ez da edozelako tresneri uts-bat.

Bera da AMA !!, Euskal-izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Etorkizunean, bere MAITASUNEZKO ZENTZUTIK artzen doguz NORTASUNEZKO izatasunak, Mundu guztiko gizarteari erakutsiz EUSKALDUNEN NORTASUNEZKO EGI-BIDEA..

Menperatzaillak euren nagusitasuna erakusteko, gaurko bizitza, xautzailletasunezko argi-bideakaz ganoragabetu gura ba-dabe. Gu ez gara jausi bear txebera orreitan, bestela gudakin ez ebena lortu iñozokeriakaz lortuko dabelako.

Geiago bear ete dogu ?. Ba..., kontuan euki !! gure ARBASOAK egin eben lez, guk elikatu bear doguzela zentzu aundiz NORTASUNEZKO – DEMOKRAZIA ON BATEK bear dauazan eginkizunekaz, GURE ORDEZKARITZAZKO-ARDURA DALAKO, EUSKAL - IZATASUNEAN IRAUN GURA BA-DOGU.

Emen txantxaka ibilita, begitu zer esaten eban Oreja’tar Martzeliño’k: ETA’ren esanak edo eta mezuak sinismenean edo kontuan aundian artzeko, “orreik ez diralako gai, GUZUR-bat esateko eta”.

Eta Mundu’ko gizarte-ezagunak, irudi orregaz ikusten gaitue Euskaldunai ?.

Lur eta gizarteko aunditasunean, Erri txiker baten neurrian geratu gara, menperatzailletasunezko alegiñak edesti guztian, aundiak eta eten-bakoak izan diralako, baiña....., gure NORTASUNEZKO-DEMOKRAZIAK zabaltzen dauan dirdirazko argitasuna, Mundu´ko edozein lekutik ikusi leikena da.

4. EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA:

Edesti guztiko autueta edo kondaira onetan ikusi dogu, Mundu´ko gizartea gure on-ikuskitzunerako aldakuntza aundi baten bearrean dagoela, bestela gagozan lokatz-artetik urtetea gatz egingo jaku.

Alde-batetik: "Ikusten dogulako, norkeriaren asmakizunezkoak euren xautzailletasunezko aberastasunean bizitzeko, Mundu onek bere izatasun-fisikoan, JAINKOA´ren LEGEA´kaz, guk, gauzak txarto egiten noraiño eldu geinken mugatuta dagoena, daukazan dei-adar guztiak biztu egin dabezala, amiltegi baten ertzera ekarri gaituelako.

Bestetik: "Alderdikeri orreik sortu ziranetik eta nortasunean ta jakintzan, zentzunezkoak ez diran naastukerizko gauzatan sartzen gaituelako, bizitz onetan, egirik ikus-eziñik igarotzen dira gure nortasunak eta beren ondorioz, zentzun gabekeriaren ulermen bateko irautasunean aurrera egiten dogu.

Zer egin ?. Gure gogoaren baitan zikinduta daukaguzan zentzunezko irten-bideak garbitu eta danok geiago arduratu, giza, erri ta erri-gizartearen NORTASUNEZKO eskubideen ekintzan aleginduta.

Ekintza orreik bakarrik ekarri leikezelako askatasunezko orekak, Mundu onetan egiten diran norkeriaren bearkuntzatik.

Norkerietan dabizenak, oraingoan lar urrun joan dira batzangotasunezko alegiñean, danoen ardurak euren eskuetan artuta.

Orañarte, beti aurreratu dira, berez, Mundu´ko gizarteak alkartasunerako emon bear dabezan aurrerako oinkadak emon orduko, eurak, bizitzeko daukaguzan mozkin guztiaren kontrola bear dabelako.

Orregaitik oraingoan, urrun joan dira, gai onen oreka guztiak zalantzan ipini dabezalako.

Nora joango ete da erri-gizarte bat....., bere antolakuntzan ez bada gai, seme-alabak edo seme-alabarentzat etxe-bizi bat ezin bada-be lortu ?. Gaiñera, ez da edozein gauza, giza´ren iraunkortasuna ipini dabelako zalantzan.

Ori bai, dan guztia batzangotu gura dabe esku bakarretan, goiko agintaritzatik asi ta errigizartearen nortasunetik igarota, diru ta mozkin guztia, danoen ardurak ezereztuta ondoren.

Bai !! neska-mutil gazte guztiak lanean ipinita, iñora ez daitezcan elduko premiñan (sueños y necesidades que estan ahí, pero en ningun caso alcanzables para ellos).

Al izango ete dira..., giza, euren oparotasunaren zerbitzura ipinteko alegiñean, klonetan astea ?.

Astakerizko ergelkeri oneik..... noiz arte ?.

EUSKALERRIKO SEMEA´k:

Esan leike, edestitik zear aurkeztu doten egoera ondagarritik (catastrofico/a) ez dagoela urten biderik, eta ez da egia.

Danok garalako arduradunak ondameneko estutasun onetik urteteko antzezlarriak, aukera guztiak gure eskuetan egon-da.

Askotan esan leike, ibil-arazian ipinten diran asmakizun txarrak (eta onek, bi-milla urte baiño geiago daukaz, nai-ta gogortzen asi zanetik 1.683 urte euki), euren alegiñean indar geiegi daukazalako, ezin dirala geratu edo eta txarrak dirala adierazpendu, areik eta beren zentzun okerrak ormaren aurka burua apurtu arte.

Orain gagoz gure giza-barne edo baitan aukera orretan, edesti guztitik etorri dan giza ta erri-gizartearen berezko eskubide guztiak zapalduta, bizi onek daukazan Bereztasunezko Legea´kaz mugatuta topo egin dabelako.

Eldu garan mugazko egoera ontara, Mundu onetako goiko-agintaritzazko ulermenekoari be, euren giza-baitak txarto goazela esaten dautsielako.

JAINKOA´ren LEGEA´k egiten dauskun oarpidera (advertencia) eldu gara eta beragaz, gogarketaren aldira.

Ze gogapenekin baiña ? : “Edesti guztian meatxuzko indarrarekin etorri dan erromatar asmakizun ori, eskubide guztiak zapaldu eta daukagun Nortasunaren ardurazko giza-legetik kanpo itzita, Mundu´ko gizarte guztia garrasika ekarri ondoren, abarrakitu (estrellar, hacer trizas) edo azken-gaizto baten amaitu (?) dalako.

Beren aurka, beste ainbesteko indarrarekin jantzi zan komunismu´aren burutapenak, euren-beste kaizar zaleak biurtu ziranak-be ust egin ebalako.

Eta gaur, leen sasi-asmakizunezko datorzan diruaren batzangotasunezko burutapenai, ura, leku guztietatik sartzen jakola, beste ainbesteko uts egin daualako.

EUSKALDUNAK ZER EGIN ?:

Gure giza-barrenak edo “BAITA`k” (conciencias) itzartu eta oartu, Euskalerrria´k edesti guztian dakarren eten-bako borroka onetatik, gure izatasunezko nortasunean apurtu edo murriztu jakuzan gauza guztiak, berrezkuratu egin bear doguzela.

Eta ezinbesteko gogo-alegiñean, GURE ERRI-MIÑAN, AINBESTE ZOR-DAUTSAGUN MAITASUNEZKO EUSKAREA “NORTASUNDU”!! len berak, gugaz egin eben antzera. EUSKALDUNAK OR !! daukagulako NORTASUNA´ren IZATASUNEZKO ALTXOR AUNDIENA..

Baiña...., lerkai eta izkilluaren ILKETA BARIK !!. Zorionez, denbora orreik joan diralako eta orreik gauzakaz irauten ba-dogu, gure buruetara lerkai orreik botatea bezala dalako.

Mundua´ren gizarte aurrean, DAUKAGUN PAKEZKO eta ASKATASUNAREN DEMOKRAZIZKO IZAERA, IZUTZAILENA´gaitik (terrorismo) ALDATU edo ITZULI EGITEN DABELAKO.

GURE ETSIAK ORI GURE DABE-BA !! EURAK GUDAREN INDARRAGAZ AL EZ DIRANA EGITEKO IZAN, GUK, GURE IÑOZOKERIA´kaz (ingenuidad, necedad, simpleza) EGIN DAIGULA.

JAINKOA´k IPINI EUSKUN LEGEARI BEGIRA, NAI-TA NAI-EZ JOKATU BEAR DOGU. GURE EUSKAL-ASKATASUNEZKO ELBURUA LORTZEKO,

MUNDU ONETAN, BERA ta BEREN LEGEAK DIRALAKO ARDATZ NAGUSIENAK.

EUSKALERRIA MUNDU eta EUROPA´ren “IZAR” AUNDIENA DA, EZ DAU MEREZI BEREN SEME BATZUK ARROTASUNEZKO BEROTASUNEAN, BERAGAITIK EGITEN DABENA.

“IZADIAK DAUKAN LEGEA”, **ZAINDU BEAR DOGU**

ATUTXA`tar PAUL

Zornotza`n 2.008`an Urrilla`ren 22`an

-“EUSKEREA eta EUSKALDUNAK”-

EUSKALDUNAK:

JAINKOA´ri begira milla urte askoren ikerpeneko atun-bidean (experiencia, procedimiento empírico) edo eta aztura-bidetik (crecimiento del conocimiento), ondo erindu eta biribildutako lanean, itzak euren lekuetan ondo aokatuta betebetean egokituta geratu daitezcan, gure ARBASOAK, EUSKERAZKO gaztelu ederra egin eben. Eta BERAGAZ bizitz-oneri BEREZTASUNEZKO LEGEAN, al eben ADIERAZPEN ederrena emon eutsoen.

Ez ziran txantxetan ibili, zentzun aundiko Demokratak izanda, laztasun (severidad) eta zorroztasun (austeridad) aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko-esaerak, sorburuko itz´ekaz osotutako almenean eginda dagoelako, esangura dan irudizko toki ber-beran kokatzen gaitu, irudizko neurri ori, ia izkuntz gitxi baiño ez daukienak, Euskerea bakarra dala ez esateagaitik.

Gaztelerazko PLAYA itzak adibidez: “Zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu?”. Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz (lisura, tersura) edo eta areatutako maskor-ondarragaz?.

ONDARTZA Euskeraz: “MASKOR-ONDARRAREKIN AREATUTA dagoan tokian kokatzen gaitu eta Laida´ko itsas-bazterrean dagoela gaiñeratu egin ezkerero...., or ! non agertzen jakuzan irudizko neurri aundi baten Laida´ko erritxoan maskor-ondarrarekin areatuta dagoan itsas-bazter orren goragarritzko toki eder ori.

Zergaitik ?:

Alde batetik: Euskalerria, lenago askoz aundiagoa izan zanetik: Atlantitsaso´tik Alemania´raiño eta Britania´tik Kadiz´eraiño zabalatasunean, gure bizitzarako agertzen diran Zeru, laiño, euri, aize, lur, ur, itsaso, ibai ta mendiek daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta berton bizitzak agertzen eban landaretasunezko ezberdintasun guztia, bai aizetan, lur eta ur artean dabillen izaki bizitzak, gure arbasoek zentzu aundienean izendu ebazalako”.

Bestetik: Gure ARBASOAK, Euskal-leiñu edo gizarteko arremantetan antolatzeke “Lots andi ta begirunezko (respeto, consideraciòn) itz´ekaz oituratu ziralako” eta JAINKOAK BEREZTASUN oneri erperatutako LEGEA lots andiko kontuan artu ebalako, EKANDUAREN EGIZKO ARDATZ-NAGUSIENEAN kokatuta geratu ziran.

Egiaren azturazko ekintza orreik, berez bideratu ebazan gizadiaren eskubideak lots andiz zaintzera eta egokitasunezko bide eder orreititik BENETAKO DEMOKRAZI on-baten, danon ASKATASUNAK BEGIRUNEZ artzen diran JENDEKUNTZAZKO (civilizaciòn) ERRIA IZATERA gure LEGEZARRAK esaten dauskuen lez.

Eta Euskalerrria dalako Europa´n, oraindiño Indoeuropeozatuta-barik geratzen dan azken erria dalako.

Zer esan nai dau Indoeuropeotu gabe orrek ?:

Europa, Asia ta Afrika´k daukiezan izkuntzak ezaututen dabezala eta Euskerea eurak baiño zarragoa izanez gaiñ, ez dakiela non asten dan beren sorkuntza.

Gure arbasoak, Homo-Sapiens´en asieratik eraiki eben Euskerazko etxegintza oraiñ arte, zentzunezko izatasunean ezereen ikutu barik dagoela esan geinke.

Nai leiñu edo alderraiezko erri guztiak gure lurraldetatik igaro arren, guk, gure Askatasunezko Demokraziaren zentzunez beti jokatuta eta bestien oiñarrizko eskubideak adeitasun andiz artuta, ez giñela joan bestiek menperatzera, gure izatasun ta lurraldeak babestuz, edesti guztian menperatzaillaren etengabeko eraso-aldi bidez, gaur zazpi lurralde txiki oneitan geratuta.

Euskerea orregaitik da gaur, Munduak daukan jarraibideko (modelo, ejemplo) altxor aundiena, bere OITURAZKO EKANDUAREN izatasunean ETXEA nastu barik daukalako.

Gaurko Mundu onen jaurkintzak, edesti guztian sortu diran nastutasunezko ondoriotik (consecuencia, secuela) agertzen diranak dira eta ikusten dogu: "EKANDUZO-OREKAREN ANTOLAKUNTZAN" zelan gabiltzan, Mundu´ko giza ta erri-gizartearen eskubide guztiak zapalduta.

Kontu aundian euki bear dira Bereztasunezko LEGEA´n eginda, geratzen diran aztarnak eta "MUNDU´ko-GIZATASUNAREN ETORKIZUNEZKOAK (patrimonio Mundial) DIRALA IZENDATU", bestela, geratzen jakuzan zentzunezko ulerpide apurrak ezereztu egiten ba-dira, kai´an, itsas-gaitz aldi-baten, lotuta dagoan itsas-ontzi bateri sortuko jakon, orakarriak (amarras) apurtzen jakozanean bezala gertatuko da.

EUSKEREAK, ZELAKO IRUDIAGAZ ITXURATZEN DAU EUSKALERRIA ?:

Daukan NORTASUNEZKO irudiagaz zalantza barik.

Euskal-erkidetzan ulermentzeko, maitetasun guztiagaz egin gendun tresneri eder au, ez da gatz-gabeko mesu-gaillu uts-bat gure artu-emonetan ibilteko bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak: A) "JAINKOARI begira, BEREN LEGEA´rekin euki gendun oarmeneko (atención, sentido de la observación) samurtasuna" (frescura, ternura en su composición); B) "Senitarte eta erri-maillan MAITASUNEZKO ulermena": eta D) "Gure BAITA´ren (conciencia) bake edo

oreka gaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeaztasunaren begirun arduraz egin genduzela”.

Euskal-bizitzaren indar eta babeserako emoten dauskuzan oiñarrizko azpiegitura (infraestructura, subestructura) orreik, EUSKEREAK zentzunezko zeaztasunean daukan indarragaz osotuta, berez ! kokatzen gaitu “MAITASUNEZKO GAITASUNEAN” (buenas dotes, talento), bere barnean daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako argitasuna emoten dauskuelako.

Aita Santi eta Olazar'tar Martin'egaz Eibar'era joaten nintzanean Euskerazaintzaren batzarretara, kanpoan gengozala eta, gora begira, Baserriak aipatuz eskuagaz erakutsita, baten baiño sarriago esaten eban: “Jakintsu batzuk itandu egiten dabe, Eibar'era, nundik nora agertu ziran ainbeste injiñeru, maisu, ekonomilari etabar”. “Begitu non daukazuen lantegi-gintza guzti orrein sorkuntzaren ardatz-ikastetxea”.

Gure arbasoak, gauzak egin eta arremanak zentzun audiz eroanda, DEMOKRAZIAREN ulermen aundi bateko bizitzara eldu ziralako eta sendimendu ber-berori sartu eutsoelako euken izkuntzari, EUSKEREAK ez da edozelako tresneri uts-bat.

Bera da AMA !!, Euskal-Izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Eta etorkizunean, bere MAITASUNEZKO ZENTZUTIK artzen doguzan NORTASUNEZKO izatasunak, Mundu guztiko gizarteari, “EUSKALDUNEN NORTASUNEZKO EGI-BIDEAK ZELANGOAK DIRAN erakutsi”.

Mundu oneri eta BIZITZARI emon geuntsozan ZENTZUZKO ULERMEN-BIDEZ ADIERAZPENEKO ERANTZUERAK, EUSKAL-EKINTZAREN BEREZKOTASUNAK DIRALAKO”.

Gaur egunean, Mundua'ren erri-gizarteari erakutsi bear dautsagu: “EUSKALERRIA, Ludi onek daukan BEREZKO ERRI-BAT dala.

Eta ZAARRENA izanez gaiñ, bere JENDEKUNTZAZKO (civilizaciòn) JAKINTZA, DEMOKRAZIA eder baten oiñarrituta dagoelako, nai-ta Espainol ta Frantzez menperatasunak gure gorputzan urduritasun aundiak sartu, ez dogula leer-gaillurik ez izkillurik erakutsi bear eta gutziago erabili,

Leen: “Mundu onek gaur daukazan arazoakaz, Berezko legearen arrazoitasunera aokatuta dagoelako”.

Bigarren: Leer-gaillu orreik “Gure Demokrazizko-izatasunaren aurkakoak diralako eta eurak ibiltegaz, Munduko gizarteari, beste gauza-bat (ikarabidezkoak) garela erakusten dautsogulako”.

Irugarren: “Aldi baten, bearrezkoak izan ba-ziran be, gaur jokoz kanpo geratu dira, menperatzaillak edesti guztian erabilita, alperrezkoak eta gaurko Munduaren bizitzarentzat oso kaltegarriak dirala erakutsi dabelako.

Eta guk erabilita, eurak indar eta maltzurkeri geiago eukin da, Mundu'ko erri-gizartearen aurrean, euren menperatzailletasunezko maltzur joko ori arrazoitu baiño ez dogulako egiten.

Laugarren: “Ezinbesteko gogo alegiñaren indarragaz, GURE ERRI-MIÑAN, AINBESTE ZOR DAUTZAGUN MAITASUNEZKO EUSKEREAN NORTASUNDU !! Len berak, gugaz egin eben antzera.

EUSKALDUNAK OR !! daukagulako NORTASUNAREN IZATASUNEZKO ALTXOR AUNDIENA, ERRIAK, BEREN IZATEZKO NORTASUNEAN, DEMOKRAZIAREN ERANTZUN EDERRENAK EMON DAGIAZAN.

Gaur, badaukagu beste eragozpen aundi-bat be, betiko eta gaurko Menperatzailleak bizitzarako bear doguzan gai-mozkin guztiak euren kontrolpean eukinda, edesti guztian egin daben antzera, gaurko bizitza, xautzailletasun-argibideakaz ganoragabetu egin gura dabe, gizartea zoraldiko nastetasun baten sartuta, ia euren SASI-NORKERIZKO asmakuntzan aurrera egiteko al-diran.

Gu ez gara jausi bear lilluramen (fascinaciòn, alucinaciòn-ficticia) sarezkotxebera orreitan, bestela gure morroitasuna, gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabelako.

Gaurko bizitza, ez da erreza Euskaldunentzat.

Gure ETXEA garbi eta argitsu agertu daiten, egin bear dogun guztia, Bereztasun onek daukan LEGEA`ren argitasunean egin bear doguzelako eta danok dakigu, zelako erreztasuna daukien guzurrezko jokoan dabizenak, norkerizko zankarteko (zancadilla) bat ipintea, ekintzan ipini bear doguzan onzenezko azpiegiturak arazotzeko.

Euskaldunak baiña, eurak ez daukien iru gauza-eder daukaguz ELBURUA lortzeko: A) “EUSKAL EKINTZAN JAINKOA`ri BEGIRA, IZATASUNEZKO DEMOKRATIKOAREN SINISMENA”. B) “ARRAZOIA”. Eta d) “ARDURADUNAK IZAN DA, GOGAMEN (conceptos) BI ORREIK EMOTEN DAUSKUEN INDARRA”.

Euskal seme-alabak, aztarna orreik iñundik-iñora be ez doguz galdu bear gure ikusmenetik (visiòn, consideraciòn), kontu aundian artuta “EUSKEREAN DALA GURE IZAERAREN ARDATZ-NAGUSIA”.

ATUTXA`tar PAUL

Zornotza`n 2.008`an Azaroa`ren 16`an

“IZADIA ZAINDU”
“MUNDUAN, EUSKERAREN TOKI IZENAK”

eta
“EDESTIA”
(1'go ITSALDIA)

AURKEZPENA:

Arrastion, itsaldi onetara etorri zarien guztioi eta on-egin daigula danoi, beren mamitik ulertzen dogunak.

Munduan eta Europa onetan batez-be, asko dira maltzurrezko jokoan dabizenak, euren norkerizko asmakuntzak garaipendu daitezcan eta Bereztasunezko LEGEAREN aurka diran lez, or !! sartzen gaitue gu, EUSKALERRIA ezereztutea gure dabelako.

Erreza ez da izango, Euskaldunak, bizi egin gura dogulako eta geiago, gure ARBASOAK JAINKOA`ri begira, gai-bizi oneri emon eutsen adierazpen ederragaz, ZOR !! AUNDIAK daukaguzelako.

JAINKOAK, NOR izateko bialtzen gaitu gaitasun onetara eta gure arbasoai esker, gure NORTASUNEZKO sinismenak bereztasunean sustraituta dagozan-lez, gaitz izango da JAINKOA`ri ta ARBASOAI uko egitea.

Olazar eta Uribe`tar Martinèk agindu eustan lan onen mamia azaldu dagiala eta al dodazan alegiñak egingo dodaz, solas-itzaldi onetatik arrazoiz beteta, pozik urten daigun.

IZKUNTZ ARLOAN NOREN LAGUNTZA ARTZEN DOT:

Zubiaga ta Legarreta`tar Felix`ek, bere argitaratutako liburuan “Origen y desarrollo del lenguaje” (según el vascuence) 49n. orrialdian esaten dau: “Munduko gizarteetan, Mintzoeraren jaiocera eta beren azalkuntzaren azkerazko edestia, Munduko gizaren jendekuntzazko (civilizaciòn del mundo) edestia dala, bere neurri guztietan”.

Orregaitik, Euskerazko mintzoera bat bezala, Izadiak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu ta ipuin bezala adiarazita, dala, edesti ta edesti-aurre onena: “GIZATASUNAGAITIK iñoz azaldu, esan edo kontatu dana”.

Maixutasunezko lan ederra benetan egin dauana. Euskaldun guztiak eta batez-be jakintsuak irakurri bear leukiena, gure Euskal Askatasunezko Demokrazia sinismenean sendotu daiten eta European erakutsi, bera dala orain be, asieraren “IZAR”ezko argi-bide onena, Izadi onen giza, zentzutasunezko “ORUBEAN” eseri edo kokatu gaitezcan.

Bere “Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo” liburuan esaten dau: “Izkin-bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala”.

“Izkin bateraiño eltzea, eredu nagusiren (arquetipos) ozenezko (sonoro) iturria argitzea dalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

Eta Euskerea, al dalako izkin-bateraiño eldu, orain ezin da esan alderatzaileak (comparatistas) esaten daben antzera: “Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala”.

Mintzoeraren oguzpeneko (pronunciación artikulada) jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz, beren jaiokera argitzen dauan IZKUNTZ BAKARRA.

Euskereak, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartezko itzaren antolakuntzan eta entzutezko abotsetan irarrita daukazelako.

Zeruko (divino) eredu-nagusiaren (arquetipos) antzezko (analogias) zulentasunetan “Izadi-iztia” (cosmologia) dalako, gizadiaren jakintzan “Gogo-iztia” (alma, psicología) ta “Gizadi-iztia” (historia de la humanidad) da, bai dirdaitasunezko gogarketa (meditación refleja), gizartearen eredu nagusiaren antzezko zulentasunetan eta “Teolojia” da, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.

Euskereak, Sumerio´en, izen-jakintzazko irudimenaren eredu-nagusiko arlo aundietan eta gramatikan-be esku artzen dau, Ugarit ta Ejipto´ren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako.

Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna, ipuiezko asmamena (imaginación mítica) da, baiña eredu nagusian, berba barrien jaikunezko kokamenaren (engarce ritual) trebetasuna be bai, aiek ez dabelako galtzen abots´ik, antolamenduzko zentzurik, ez aintzintasunik, bieri oso-osoa aurreratuazota burutakizun barrien artu-emonetan.

Izkuntz edo mintzoera-gintza baten, lojikak, mitolojia beste balio dau, biak alkartu egiten diralako, gaiezko izadi onen antolakuntzan eta Arri Aro Barriko gizonen oldozmenean.

Berbea, “esan/izaneko” elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz, zaindu zan beren oiturazko arau-zaletasunean, dana, Izadi onen berezko-antolakuntzagaz egokituta egon daiten.

Oroimenaren atzekadarik ez daiten egon, bere galduerak danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako.

Ele-jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir-jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

Homo-Sapiens´en zabalkuntza:

Goi-Paleolitiko Aldia: 40.000-9.000 urte bitartean izan zanaren 35.000-30.000 urtetan Afrika´n sortu zan Homo-Sapiens giza.

Homo-Sapiens'en zabalkuntza: Kromañoen-giza, Asia ta Europa'ra zabaltzen asi zala, 20.000-10.000n. gorengo Paleolitikoaren asken denborak edo Arri Aro'ko aldiak zirenak, izotzaren urtzean asi ziran zabaltzen.

Asia ta Europa'n Homo-Sapiens edo kromañoien orubea (asentamiento): Asia'n Neolitiko Aldian orain 9.000 urte eta Europa'n 7.000 urte inguru egin zala, Tupiki (bronce) aldian amaituta.

Homo-Sapiens edo Kromañoiak, Paleolitiko-Neolitiko Tupiki-Aldi'raiño, zelako antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko ezetu egin ebezan Afrika, Asia eta Europa'ko lurraldeetan ?:

Lurraren giroak epeltzen joan ziranetik, janari billaketak erreztasun eta aurrerakuntza aundian sartzea balio izan eutsoen, euren denborak be nasaitzen joan da, giza-legean aurreratzeko eta bear ebezan arri-landuak trebetasunean egokitzeko.

Dana dala, leiñuak auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, leiñu baktzaren batzarrarekin eta izkuntzan, Atlant-itsasotik urruneko Asia'raiño eta Europa'ren Iparraldetik Afrika'raiño.

Eta orduan lurralde orreik lar zabalak izan ziralako, Afrika'tik urten eben Euskerazko mintzadar antzeko ezberdintasun baten.

Milla urte askotako aukera orreitan lortu eben orduko leiñuak, gaur oraindiño Euskalerriak daukan, euren Nortasunezko-Izkuntzak eta Oitua-Demokratikoak, gure Lege-Zaarretan daukaguzan'en antzera.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura-arloan, gaztelu-bat bakarrik ezin eben egin eta orko bidetik asi ziran, Euskal oiñarrizko izkinketa (silabeo) errotik berexkatzen antzeko izkuntz ezberdiñetan.

Alan da guzti, nai-ta gizarentzat Mundu zabal orren giro-aro ezberdintasunak eta bizi-ekintzaren bidez bereiztasun-bereziak emon, ekanduan eta oiturazko oiñarri batekoak izan da, aukera barri orreik, ez dau nai esan guztiz banakatu zirala, auzotasunaren leiñutasunezko urbiltasunak, arreman edo alkar-ikusteak zaindu egiten ebazalako.

Jakintsuen esanetan, ori da "Aurreko Jendekuntz-Galdua Dana ?:

Ori ezaten dabe. Egia baiña beste gauza-bat da, kontuan artu bear dalako, Asia'n, norkeri bidez menperatasunetan asi ziranetik, bereztasunaren-legezko gizabidean egokituta egon ziranen artean, menperatzaille baktzak, zelako margo zirriborrotasunak (crear confusiones) egin ebezan indarrezko sarraski

(destruccìon) eta erri-leiñuen alda-bidez, euki ebezan nortasunezko zentzuetan danak nastekatuta, euren norkerizko sasi-asmakizunetan bizitzeko.

Jauza ori jakiteko baiña, edesti labor-bat egingo dogu, gero Mundu zabalean geratu diran Euskal toki-izenak eta itzak argitzeko.

Asia aldeko edesti laborra:

Mundu onen leen jendekuntzak egu-giro onaren bidez, Ekialde-Urbil eta Ekialde-Erdi inguruan sortzen dira. Indo-ibai eta Nilo-ibaiaren bitartean eta apur bat estutu ezker Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean Sumeria'ko erria, orain 6.000 urtetik onuntz sortuta.

2.600-2.300 urte inguruetan Sargon agertu zan "Akkad"eko (acadio) kaizerra izan gurean sortzaille eta bere-ala asi zan Sumerio'tarren aurka menperatzeko alegiñean.

Bere ondorioz, menperatzaille asko ziran sarraskiko zirriborrotasun (margo) aundiak egin ebezanak I Dario'ren aldira agertu arte.

Onek K.a. 522'an erregetzara igon ebenetik India'raiño elduta, kaizertzaren zabalkundezko asmo aundiak euki ebazan eta Europa menperatzeko be alegintzen asi ziran.

Baiña, Griego'ren demokrazizko jendekuntzaren (civilizaciòn) gizabide (cultura) aundiagaz topo egin eben eta onek ezereztu egin ebazan asmo guzti orreik.

Ejipto, Asia'tik aldatuta, K.a. 4.500-4.000 urte inguetan asi ziran erregetzazko giza-bideetan eta K.a. 3.300-3.200 urte bitartean Menes'ek erregetzara igon ebanean, Ejipto'ren goiko ta bealdeko lurraldeak alkartu ondoren, faraoien jendekuntzari bidea emon eutson, ogeita amar errege-leiñutan iraun ebana.

Persa'k euki eban lez, oneik be edesti luzea euki eben, baiña menperatzaille nastekari asmo-bidez, jendekuntzan gaienduta, asi ziran gizabidetik, beti maldaberan, erri edo leiñuen ekanduzko oituran euki ebezan nortasun guztiak, dana zirriborrotu arte.

Indoeuropeo nortzuk ziran eta euren leiñu aldak, zergaitik ?: Paleolitiko-Neolitiko demokraziaren oiturazkoak izanda, errez ulertu leike zergaitik alde egin ebela zoralditasunezko egoera ortatik.

Alderraiak izan da, euren berezko jakin-gurea (curiosidad) eta janari billa egokitasunezko lekuetan kokatzeko alde-batetik. Eta bestetik, menpetasunetik alde egiteko Europa ta Arabia guztitik zabaldu ziran.

Baiña, ez !! Euren Nortasunezko izkuntzetan naste barik, menperatzailetasunezko zirriborro ekintzak indar asko euki ebalako, leen danak lortu eben Bereztasunaren oiturazko zentzuetatik osorik urteteko.

Grezia'tarrak, Tupiki edo Brontzezko (3.500-1.400) Aldi-Aroan sortuitakoak dira, Bereztasunaren Ekanduzko Oitura zarrean.

K.a. 2.800 urte inguruetan asi-ta eta laterritutako Uri´etan ezarri ziranen artean, erri-jakintza asko gaienduta desagertu ziran.

Garrantzidunak, Kreta eta Mizenas´eko jendekuntzatik sortu ziranak izan ziran.

Lortu eben goi-maillako jakintza, ez zan izan eurengandik sorturikoa, Asia ta Ejipto´ko jakituriaren alkartasunezko eragipenetik, eurak artu ta edertu egin ebena baiño.

Izadi onek daukazan Berezko LEGEA´ren ulermen Demokrazizko mailla aundira elduta, asken baten ezin eben aurre egin, euren-barnean sortu ziran bekaizkeriak (envidias), inguru orreitan egoan menperatzailetasunezko itzalkerien (influencia) eragipenetik (impulso, coacciòn).

Mauritarrak, antziñekoak dira eta Arabian sartutako Kamita-Semitiko´ren leiñu ondorengoak dirala esaten dabe.

K.a. 1.000 urte inguru, etxe-gabe edo alderraiezko artzain izanda, Mesopotamia (Asia-txikerrean, Tigris eta Eufrates ibai bitartean, gaur Irak´eko erreplika dana) Lurrarteko-itsasoaren Ekialdea eta Nilo-ibai ibarretatik zabaldu ziran.

Arabiar´en osotasuna, antziñako babilonia eta asirio´ak, Kananeo, arameo, judu edo ebrai´tarrak eta Etiope geienak egiten dabe. Eta senitasun antzera taldekatu egiten dira, euren izkuntzak erro batekoak diralako.

Euren gizabidean (cultura) artu eben goi-maillako jendekuntzazko jakintza, Asia-Txikerratik, Ejipto ta Grezia´tik batutakoa zan eta edertu ondoren, Mundu´ko jakintzaren ardatz-nagusia izatea lortu ebenetik, ordezeko biurtuta geratu zan (Mundu´ko jendekuntzaren ardatza).

Mauritarren kaizal-erria, erromatarrena baiño askoz zabalagoa izan zan eta gaiendu, Mahoma 632´an il zanetik 660´ra, aukerazko kalifak euki ebazanean.

XIn. Gizaldian asi zan euren maldabera. Baiña, Mundua´ri emon eutson jakintzazko eragipena (eficacia, influencia, impulso), ia gure denboretaraiño eldu da.

Zati onen ondorioa:

Emen ikusi dogu, kaizar bakotzaren asmoak indarrezko menpekotasu- nean garaiendu daitezcan eta beren eritzizko margoakin dana zirriborrotuta, zelan gizabideko jakintzan lortzen ziran aurrerakuntzak, euren maldaberan beste alde-baten kaizar barria agertzen zanean, jakituri orreikaz jabetu egiten zala eta al eben neurrian edertu.

Egikera orren bidez, gauza guztien gaiñetik gizabidearen (cultura) ondorioz ge- ratzen jakuna “jendekuntzaren jakintzazko aurrerakuntza”da, baiña Nortasunetan nastuta gagozelako, norkeri ustelaren bidez, Berezko LEGEA´ren urrun, erabilten doguna.

Bizitza, Nortasunaren ardurazkoa izanda, gaurko morroitasun lez, arduratik kanpo egonda, zentzunezko-uler egokitasunetik urriñ bizi gara.

Ikusi daigun oraiñ, zer geratzen dan gaur: Paleolitiko-Neolitiko bitartean oiturazko aztura bidez lortu ziran goi-maillako demokrazian eta giza ta errigizarteetan izkuntzazko Nortasunetik.

Homo-Sapiens edo Kromañoi giza zabaldua: Europa, Asia eta Afrika´n, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko:

Homo-Sapiens, Kromañoen edo Euskal leiñuak, auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, baktza beren Batzarrarekin eta izkuntzan Atlant-Itsasotik Urruneko Asia´raiño eta Europa´ren Iparraldetik Afrika´n bizi ziran lekuraiño, Demokrazi aundi-bat lortuta.

Eta orduan lurrak, zabaltasun aundiak eukin ebezelako, leen Euskerazko erroik sortutako mintzadar antzeko ezberdintasun baten.

Zer geratzen jaku aien jendekuntza eder eta Euskal itz ta toki-izenetatik ?:

Mundu zabalean, Euskal toki-izenak eta itzak:

Toki-izenaren (topònimos) zentzua azaltzeko, gogoko garrantzi andian euki bear dogu, asieratik gaur arte izen-jeografiko batek irauñ dagian, izen ori erroitsu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

Euskereak, Neolitikotik asi-ta gaur arte ikutu-bako berbak daukaz, Asia ta Afrika´ko leen gizarteak euren errekarari eta abar emon eutsezan izenak: Ibai/rio, Ibi/vado, Ibar/rio, valle eta abar. Eufrates ibaia, bera deitzen zan “Buranu” = “Ur-nammu”, zeru gutzia “URA” zala gogoratzen ziralako: “URA = UR+ANU = Agua del cielo”.

Afrika, Asia eta Europa´n, erreka, mendi, toki ta erri-izenetan ostonduta dagozan sorburuzko edo oiñarrizko Euskal-itz asko dira, jakintsuak orain dabizena argitzen eta azkar esan leike, lendik dagozan lanak sakonak diralako.

Europa´n, erreka askoren izenak itz bardiñakaz emoten dabez euren esangurak ezagutzera edo euren oiñarriaren sorburuko itz-bardiñakaz bai behintzat.

Susterrezko itz-bat “IS” adizkia (elemento verbal) da: “Noruega´tik asi-ta Italia´raiño, Espaina´tik Errusia´raiño eta Bretainia Aunditik Balkanes” eraiño 200 errekatan baiño geiagotan aurkitu diranak.

Adibides: Noruega´n “Iseljorden” edo “Isa” Italian. Errusia´n “Isainka” edo “Iesla” Lituania´n. Txekia´ko Errepublikan “Jizera” edo “Ijssel” Bee-E Errietan (Paises-Bajos). Euskeran “Iz” berbea “S” lez esanda URA edo UR-LASTERRA esangura dau.

Izen-itzak, era bardiñetan agertzen dira “UR (aur), “VAR (ver)”, “SAL (salm)” edo “AL (alm)”. “UR” itzak ur-geza (agua dulce) edo ur-gazi (agua salada) esangura dau eta ¡URA” ur-tira edo ur-lasterra (corriente de agua).

“AL” eta “SAL” itzentzako be esangura bardin antzekotan babestu edo zaindu dira, danak batera, Euskerazko izkuntza aldi-baten, oso-zabala izan zala erakusten dabela.

Izen onein esaerak beste ainbesteen artean, adibidez: Noruega´n “URULA”, Bretainia-Aundian “IRVELL”, Beljika´n “OURTHE”, Alemania´n “AUERBACH” “URBACH” “AURACH”, Austria´n “IRRSEE”, Frantzia´n lenago “UROFIA” izan zana eta gaur “AROFFE” eta “HURIEL”, Espainia´n “URURA” ta “UROLA”, Polonia´n “URWIS”, Errusia´n “URA” eta abar.

Alemania´n “VAR” adizkia daukien izenak: “Warne, Werre, Warmeno, Warmeaeue” dira.

“SAL” adizkia dauken izenak: “Saale, Sale, Selz (Salusia), Selke (Salika)”.

Eta “AL” adizkiagaz: “Aller, Alm, bi Alme, bata Almaná eta bestea Almara, Ahla, Elte (Alantia) eta Elz”.

Erdi-ugarte onetan, besteen artean izen oneik agertzen dira: “Alba, Alenza, Almar, Almanza, Almonte, Almantes eta abar.

Lenagoko izkuntzaren izenak-be, oiñarrizko itz oreiatik etorri leikez, orduko gizarteen leiñuak. Errekak edo lurraldeak euki eben alderdi eder baten berezitasunetik, izenak artzen ebazalako.

Erdi-Ugarte onen Iparaldean, Erromatarrak “IBERUS” esan eutsoen Ebro ibai´ari.

Ebro erreka onen luzera guztia, bere urak Lurrarteko-itsasoan bota-arte, danak Euskeraz berba egiten eben lurraldeak ziran. Eta izkuntzalariak ez eben bearko burutasun andirik egin, Euskeraz “IBAI” errekea dala esateko eta “IBARRA” errekeak bere urak itsasoan botaten dauazan “IBAR” zelaiari.

Guadalajara´ko erria, Segobia, Soria, Zaragoza (bere antziñako izena ZALDUBA zan), Teruel Juenka eta Madril erriengaitik mugatuta dagoena, euki eben antziñako izena “ARRIAKA” izan zan.

Erromatarrak etorrita, Toledo´tik aldatzen zan Zaragoza Merida´raiño egin eben bidea, Arriaka ibaiaren albotik igaroten eban eta Mauritarrak etorrita “Guad-ilgijjarah”ren (euren izkuntzan “arriaren-erreka” esangura dau) izena ipini eutsoen, gaur eurengandik datorren Guadalajara izenagaz ezagutzen doguna.

Ernst Försteman Alemana´k (1.822-1.906), Germaniar eta Amerikar izkuntzalariak XIXn. Gizaldi erdian toki-izenen azterketan ibili zala: “Errekaren auziñako izenak” “Leunkatu-bako (sin pulir) Bitxiak” zirala esaten eban.

Vennemann´tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedratiko)
Foster´tar Peter, Kanbriges´ko ikastetxe-nagusian genetikaren irakaslea
eta Hamel´tar Elisabeth berrien idazleak esaten dabena:

Ebersberg erria, Babiera´ren goi-aldian Ebrach-ibaiaren ondoan kokatuta dago, aurreratsua basalde zabal, abartsu edo eta oiantsua daukana eta Erdi-Aroan Eberesprch edo Eparesperc izena esaten eutsoen.

Uri orren izena esan laike, basarte orreitan eizarako egon zan ainbat abereen izenetik datorrela (Eber = basurde, bas-auntz edo orein eta Berg = mendi) eta euren armarrarian orregaitik ipinita daukiela basurdearen irudia.

Antza ez da olan baiña, Ebrach izena eredu-lez artuta, Ebersberg izena “ibai” esan gure daualako eta apur-bat estututa “ibai-ibai”, ipini eutsoen azkeneko “ach” ori, euren Egoaldean dagoan Aleman mintzadar edo izkelki baten “IBAI” esan gure daualako.

Frantzia´n izenak gaiñera ainbat “eber”egaz azten dira, nai-ta beste izkuntz-senditik etorrita doiñu ezberdiñak euki.

A-ta guzti, ainbat: “Ebreon, Ibarrolle, Evrune, Ivry, Ivors, Averdon, Avrikourt, Avrolle, Yvre eta ainbat izen, danak izkuntz baten erro bardiñetik datozenak.

Ez dago Frantzez bat, izen orregaz (nai-ta Aleman-izkuntzan “Eber” basurdea izan) alkartuko dauana, basurdea euren izkuntzan “Sanglier” esaten dalako.

Orregaitik “Eber” izen orrek berak bakarrik esaten dau: Erri biak bata besteengandik ain urbil egonda eta itza Euskerearen antziñako jendekuntzaren errotik artuta, erreka edo IBAIA´ren adi-muga (definición) daukala.

Lenagoko adizkai oneik ez diralako ondo adierazpenduta egon, Renfrew´tar Kolin Ingles arkeologuak, beren adierazpenagaz bidera urten da, esaten eban: “Indojermanoak edo erri guztien artean ezagutzen diran indoeuropeoaren izenakaz, berandu etorri zirala eta Europa´ra etorii ziranak, nekazarien bardiñ-antzekoak zirala, eurokin Europa´ren Neolitikoa egokituta”.

Emen aipatu bear dot, Satarain´tar Ambrosio´k egin eban “DUDEN” Euskara-Alema´n itzultzeko iztegia. Berak amaitu ezin ebalako, arrigarritzko lan eder-ori ametzeko bidean geratu dalako.

Berak, aurkeztu eustan itzeko zerrenda aundi bat: Aleman eta Euskeraz, idatz eta esan bardiñak euki ebezanak eta damu-naz aren bir-idazki bat orain ez eukitea.

Krutwig´tar Federiko´k esaten dauana:

Krutwig´tar Federiko´k esaten dau, Europa´ra indoeuropeoaren aurrekoak etorri orduko, Europa ta Asia´ren zati batean, jendekuntz-andi baten, oiñarri bateko izkuntz-ezberdiñakaz mintzatzen zirala eta naastu egingo zirala agertu ziran erri-lapur edo sartzailleakaz (invasores).

Krutwig´ek, alkar-ganatu (relacionar) egiten dauz Dordoña ta Altamirak euki eben jendekuntza (civilizaciòn). Gero agertu ziran Troya (euren ariñagoko izena “Ilion” izan zana eta Euskeraz “ili-iri, Uria esan gura dau), Sumeria edo Babilonia´k euki ebenak.

Italia´n Euskerazko toki-izen eta itzak:

Italia´n, Euskerazko toki-izenak: Liguria (Genoba inguruan, III.n. Gizaldian erromatarrak menperatu eben erria), Etruria (Arno ta Tiber bitartean egon zan Etrusko erria), Oscia (Erroma´ren Ego-Ekialdeko Kanpanian) egon zan kokatuta Osko-erria, (leen-Euskerazko orde-izenak erdi-ugarte onein tokietan dagozenak eta Astur-Galizia´n batez-be), guztiak Sizilia ta Alpes´etan dagozenak.

“Alpe” itza, Euskerazko “Arpe” (arpe, aizpe=cobijo bajo la roca, caverna, pie de la peña, concavidad de la roca) itzatic datorrena da.

Alpes´eko toki-izenak **AOSTA´n**: “Artavoz: arta=roca (arkaitz), naba=planicie, otz=fin” / “Ayas: aia=vertiente, as=de atrás” / “Arbelei: arbel=pizarra (arbel), ei=punta (egi)”. / “Arieta: Arrieta (arri-tokia)” / “Arroil: garganta montañosa (Euskeraz bardiñ)” / “Arrobi, Arpe, Aran, Arpeta: nido de aguilas (arrano abi), bajo la piedra, Valle y Valle bajo las piedras (Euskeraz Valle=Aran da)” / “Gane: cima (Euskeraz bardiñ esaten da)” / “Lesache, Lessona, Lezetta: sima (Euskeraz: Lezea, Lezona eta Lezeta dira)” / “Loy: loi (Euskeraz: barro, tierra hùmeda)” / Orio: Gipuzkoa´ko errekea bezala” / “Oyace: Oiane (selva)” / Oren: Orein (ciervo)” / Eta abar.

Lonbardia´n: Izen asko dira “ATE”n amaitzen diranak eta Euskeraz ainbat dagoz esangura bardiñakin: “puerta” “paso” esan gura dabe. / “Albizzate, Alzate, Lazate, Velate, Lurate, Lainate, Azzate” eta abar.

100 kilometrutan 200 izen baiño geiago dagoz.

Elexpuru´rentzat:

Iru lurralde dagoz Euskal-izen oneik argi erakusten dabezanak. Aundiena: **Piamonte´ren Iparralde** (italieraz PIAMONTE = ARPE = al pie de la montaña, Euskera´ren antzera Auñamendi´lez (al pie de la montaña) eta Oña-mendi Pirineos´en Euskerazko izena. **Lombardia eta Aosta** (Milan eta Milan´eko Iparraldean) eta **Suizan, Ticino edo Tesino´ko erri-aldean**.

Eta esan doguzenak baiño, geiago be badagoz: “Azasca, Andrate, Aranno, Artore, Arbedo, Arese, Arizzano, Arona, Arola, Arrobio, Arzo, Ascona, Balzola, Barasso, Bettola, Biasca, Gabiola, Gauna, Gazza, Gordola, Landarenca, Lesa, Oria, Ossola, Zubiena etabar.

Liguria lurraldean, batez-be Savona inguruan eta bere Iparraldean (Genoba´tik urbil):

“Aiona, Albissola, Ardola, Berri, Carcare, Olano, Orba, Ormea, Sabona, Varezze” etabar.

Ladinia´n (Tirol eta Trento´tik ur): “Agordo, Andraz, Arabba, Ardo, Arta, Gardena, Gares, Lasa (tirol), Maia, Mendola (Trentino), Padola” eta abar.

Milan´etik, erreka-bi aldatzen dira: “Lambro” (Euskeraz “niebla” esan gura dauana) eta “olona” (“avena”ren lurraldea ?)

Frantzia´gaz muga egiten dauan “UBAYE” errekea / Ladinia´n: “EGA” ibaia / Dolomitas´eko mendietan: “Bai de dones”eko aintzira edo ur-geldia. “Aiarnola, Arlas, Arblatsch (Tz doñuagaz), Atalanta, Cima de Gana-Bianca (Euskeraz bardin), Ormea eta abar Alpes´eko mendiak dira.

Aran edo Ibar asko dagoz “-asca”ren amaieragaz, Euskeraz bardin esan gura dauanak: “Val di Anzasca, Val di Verzasca” eta abar.

Lurralde orrean izkuntz ta mintzadar´en artean-be sortzen dira bateratasunak: “Asciola = acha (Euskeraz AIZKORA) / Astore = cernicalo (Euskeraz “aztore”) / Baita = borda (casa del pastor)”.

Txistuka esaten diran “TZ” eta “Z” geiago dira Euskerarenak orko izkuntz-latiñoarenak baiño.

Emen, derrigorrezkoa da aitatzea: Alpeetan, Aleman, Italiano ta Frantzes izkelki edo mintzadar´etan berba egiten dala eta bai beste bost edo sei izkuntz geiagotan.

Adibidez: “ROMANCE, (Suiza´n % 0´7 50.000 giza-seme/alaba). / LADINO (aurrekoen mintzadarra dana eta Dolomitas´en erdian 10.000 giza-seme/alabak berba egiten dabena. FRIULI (Austria, Eslovenia eta Italia´ren muga 500.000 giza-seme/alaba). / OCCITANO (Piamonte´ko lurraldean 200.000 giza-seme/alaba). / ESLOVENO (Piamonte´ren muga, Trieste eta Gorizia´n 80.000 giza-seme/alaba)”.

Alpes eta Kaukaso´ren gertakizunetan ikusten da, mendi aundien babesean izkuntz geiago bizitzen dirala eta euren nortasunak obeto zaindu.

Alpes eta Euskal-mitolojian-be, antzeko gauza asko daukiez artean.

Italia´n beste toki-izen batzuk:

Liguria´n: “VENASCA”. / Genova´n: “BENASCO” / Pavia´n: “BEASCHI”. / La Chapelle: “BENÊCHE”. / Vaucluse: “VENASQUE”. / Napoles eta Campania´n: “AUSONA ta LIBERI”. / Salerno´n: “ORRIA”. / Potenza´n: “ANZI”, “ABRIOLA”, “BANZI” eta abar.

Sizilia´ri buruz, garrantzizko gauza da, 25´etik 101´era bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana: “Sizilia´ko alor edo soro´ak (campo de cultivo) leenengo landu ebezanak Oña-mendi edo Pirineos´etik bera joan zirenak zirala eta euren lurraldearen erreka aipatzea bearrezkoa izanda ezagutzen ulertu dagien “Sicanos” dirala esan eben.

“Sikano” berbea, baleikete Oñamendian (Pirineos) dagon “ZINKA” ibaiaren izena izatea, antza baiña, ez dagoz ziurtasun guztiagaz.

Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalaterra´n Euskerazko toki-izenak: (Kromañoien ezurrezko-ondar asko dagozan tokiak direnak)

Zalantza aundiko berbak dira: “-barri” edo “Berri” adizki`etan amaitzen diranak.

“LANDA” berbea adibidez (nai-ta Keltiar berbea-be ba dala gogoratu) edo Irlandan “GARA” ibaia.

Eskozia eta Irlanda´ren mea-gune´ko lurretan: “CARRICK” berbea (Karr” = piedra) edo “SCOTH” (“-sk” doñuan, eusko, ausko edo basko-lez) eta “GLASGOW” (“gasko” doñuan).

KAUKASO´an:

Zalantzazko berbak eta sinis-gabekeria artu bear diranak dira Georgjia´n adibidez: “GORBEYA” (Bizkaia ta Araba bitartean dagon mendi ederra-lez). / Eta Armenian: “ARARAT” mendia (Araba, Gipuzkoa eta goi-aldeko Nafarroa´ren bitartean dagoan Aralar-mendi eta edo mendi-besanga lez). / Edo “GORA” (lurralde orrean izkuntzan “Montaña” esangura dauana eta Euskeraz “Arriba”).

BEREBER inguruan:

Zalantzazkoak dira: Magdalenien garai alditik datozen berbak “-barri” abots´ean amaitzen diranak, adibidez: “Sugabarri”, “Zuchabarri” (Ptolomeo) edo Succbar” (Plinio´k). Eta beste batzuk, Euskal toki-izenak osotzeko ekarten dauan adizkiakaz, adibidez: “-Gar)a (altura): “Garb, Garian, Gardaya eta abar”.

Karl Bouda Aleman (1.901´ean Anburgo´n jaioa eta 1.979´an Erlangen il) Euskalaria eta Errusia´ren izkuntzan berarizkoak (especialista) esaten eban:

Euskerea eta Siberia´ko izkuntz artean, urbilleko abotsak aurkitu edo argiratu (descubrir) egin ebazala: “Argi” eta “Yrgi” (luz) berbaren artean bezala, Bele (cuervo), Lepo (cuello), Gurdizka (carreta), Elur-lera edo Elurnarra´ren (trineo) artean adibidez.

Eta berarizkoen (especialistas) artean esaten dabe: Euskerea ta Urales'eko izkuntzarekin: Fines, Ungaro eta Siberia'ko Obi ibaiaren ibarrean bizi diran errien fino edo sendi-ugriara (Uraletako izkuntz ugarien artean adar nagusiena dana), Suomiera (Finlandia'ko erriaren izkuntza), Laponiera, Ungariera eta abar Ostia'ren izkuntzakaz, kidetasuna dagoela.

Mitxel Morban, Timo Riiho eta Maria Teresa Etxenike'k ikertu eben ditekeen orreik eta zenbaketari-iztegi bidearen emonak beti izan ziran %'tik 5 baiño gitxiago.

A-ta guzti euren esana: "Euskerea, Uralo-Altaiko izkuntzakaz senidetuta dagoela" da.

Mikel Iriondo antropologo edo giza-iztilariak:

"Amerikan Journal Physikal Anthropology" aldizkarian esaten dau (2.003'an Urrilla'ren 13'an "Diaro Vasco"k batu ebana): "Euskaldunak Europeoakin, naiko berezitu egiten dirala".

Bere eritzian, orube (asentamiento) edo lur-jabetasun orreien lenaldi edo antziñatasuna adierazten daualako. Eta azaldu leiken gauzea dala: "Europeoak, Euskaldunak baiño geiago naastu ziralako, orain 5.000 edo 7.000 urte Ekialde-Erdetik erri-aldan etorri ziran lur-lantzaille edo nekazari ta abelzaiñakin.

Euskalerrira, teknika edo trebetasun orreik, geiago eldu ziran "Jakintzazko trebetasunaren artu-emonetik, endak-nastu bidetik baiño". Eta orren esan naia: "Euskaldunak jendekuntzazko jakitean eta izkuntzan, Europa'ren azkeneko bakar-lekukoak garela, "Indoeuropeizatuta" ez gagozanak da.

Mikel'ek eritzi au nabarmentzeko (matizar): "Mundu oneitan, dana dala besterekiko edo besteganakoa (relativo), Ludi onen gizakumeari zeozer bereizgarritzen badautsoelako, artean nastutako trebetasun edo gaitasuna dalako". Eta "EUSKALERRITIK, EUROPATIK BEZALA, DANAK ALDATU DIRALA" esaten dau.

Gandia'k idazle edo asmalari Arjentinarrak:

Geiago esaten dau: "Euskalerrira, Europa'ko erri zaarrena dala". Bere izkuntza: "Kaukaso'tik Atlant-itsasoraiño eta Afrika'tik Europa'ren Iparralderaiño Paleolitiko ta Neolitiko garai artean berba egiten zala". Eta Ario edo indoeuropeoak, Etrusko, Ibero eta antxiñako edo lenaldiko beste erri batzuk, Euskaldunak baiño geroagokoak dirala, baieztatzen dau.

Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen-on :

Ezin dodaz aipatu barik itxi : Izkuntz, izen-toki, azur, margo, arri, giza-izti eta abarrezko billaketaren azterkuntzan ibili diranai, nai-ta egia´ren billa ibilita, menperatzaillaren berekoitasunarengandik oztopo aundiak euki, edestian zear ikaragarritzko lanak egin dabezelako.

Izadi onen Homo-Sapiens´en asierara toki-izen ta edesti lan onen bidez joanda eta Asia ta Afrika´n lenengoz, txandako menperatzaillak, pintzel, zudaki, edo ixipu aundi bat eskuetan artu eta bakoitzaren asmakisunezko siñezkintzaren eritziakaz (euren egia bakarrak agertu daitezkan) txandako orreik dana zelan margoztu eben ikusita, eten-bako azterkuntz-lan ederrean eginda eta arrigarritzko egoarritz eroanda (paciencia), illuntasunak argitzen asi dira..

Ainbeste margo-esku emon eta gero, giza-izti (antropologo), izkuntzalari, edestilari, azur-izti (paleontologo) eta abar. Ebaketariak (cirujano) egiten daben antzera, margoaren esku-aldi bakoitza kontu aundiagaz zati-txikerretan erauzita (hacer saltar) azpikoa ez daiten ondatu, urte askoren ondorioz zelan agertuazo egiten dautsen egia´ri, gaur erd-ikusten baiño geiago asi dana eta emendik aurrera jakintzazko arlo guztietan dagozan almenakaz, gero ta errezago izango dana, eurei esker.

Goazan-ba, irugarren zatian ikustera, non eta noren norkerizko asmakuntzarekin asten diran bigarren aldiz, txandako menperatzaillak orreik Europa´ko lurak eta erri-gizartearen NORTASUNAK, ixipuak (brochas) eskuetan artuta, zelan margotzen daben, Mundu onen erri-gizarteak klonezko batzango baten jaurkitu gurean.

ATUTXA´tar PAUL

Zornotza´n 2.008´an Azaroa´ren 24´an

“IZADIA ZAINDU”
“MUNDUAN, EUSKERAREN TOKI-IZENAK”
eta
“EDESTIA”
(2n. ITSALDIA)

Leenengo itsaldian ikusi dogu, zelan jendekuntzazko jakintza, Sumerian sendotu zanetik, edozein kaizertzaren maldaberan, gora egiten eben kaizertza barriak, nai-ta bakotzaren ekintzan menperatzaille margoakaz dana zirriborrotu, egoan jakintzazko jendekuntza, bereganatu egiten ebala eta jakintzazko aztura ez daiten geratu, Grezia eta Mauritarrek egin eben antzera, aurreko Demokraziaren bide zar oituran aleginduta, edertu egin ebela, azturazko jakin-egarriak ordezkutzen joan ziralako.

Ez zan gertatu bardin Erromatarrekaz, oneik sorkuntzazko errepublika on-bateko asieratik, oso-osoan, amaitu ezin dan, sasi-norkeriaren leizezuloan jausi ziralako.

Eta euren maldaberan, beste batzuekin alkartuta indartzeko, gaur lokatzazko sasi-norkeri orreitan gagoz zikinduta urten ezinik.

Etruskoa´k eta Latiña´ren jaiotza:

Etruskoak bideratuta, Erromatar asmakuntzaren sorraldia, K.a. 753´tik 510´era egin eben, Sabino eta Iszeres´akaz alkartuta.

Etrusko´en jakintza aundian, leen asmakuntza latiña sortzeko, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibil-gaillua izan daiten egin ebela.

Griego´en laguntzagaz erindu ta argituz biribilduta, arauzko-elerti izkuntz aundi bat biurtuta geratu zalako, gure gaurko egunerarte.

Lenengoetan oso jarduntsu (atareados) ibilita, mendeko asmakizun orrei zentzunezko itxura emon naian, Griego´en izkitegia artu eben eta euren arteko izkuntz bat eraberritzen ibili ziran Latiñezko iztegia lortu arte. Mundu guztirako egin ebena.

Erromatarren berakada:

K.a. 240´an, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk, erri-gurasoen sendiakaz alkartu ziranean, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko, egiten asi ziran legeakaz, ekanduzko arloetan, maldaberazko bidera eroa ebazan.

Ekintza orren eredu, jaurkintza guztia euren eskuetan egonda, andimandikeria, apainkeria eta kirkilleriak (faustosidad, ostentación) goralduegin ziralako ezin besterarte. Euren arbasoak, goi-maillako ekanduan lortuebezan oiturak, neurri aundi baten galdu ebezan.

Orren ondorioa, berezko baserritarren zuntsitzea edo ezereztatzeak lortu ebenan eta lur-zabalaren etxagunak agertu ziran menpetasunezko joputasunean (esclavismo).

K.o. 306'an I Konstantino kaizertzara igon ebanean eta euren asmakizunezko elburuak indarra galtzen asi ziralako ikusi ondoren, orduko denboran Ekandu arloan berrikuntza ekarten eban eta eten-bako ekiñaldian gorantz joan ziran Kristau indarrak, alkartu gura ebazan, Erromatar kaizertza indartuta iraun ei dagian.

324'an, I Konstantino geratu zan erromatarren Mendebal eta Ekialdeko kaizergoetan agintari bakar lez.

325'ean, I San Silbestre'gaz batera, Nizea'ko lenengo Eleiz Batzar Nagusia batu eben

Bertan, Arriano'ren irakaspidetza baztartuz eta Zezarea'ko Eusebio'k siñezteko idatzi eban kredoa on artuta, katolikotasunezko eritzi barri au aukeratu zan.

I Konstantino'k urrengo urtean: "Izadi oneitan JAINKOA'gan eta Mundu onen giza-bitartean, ordezkari-legeak zuzentasunezko bidean ezartzeko, solaskide bakarrak, kaizertza eta Eleiza'ren Aita Santuen'gan egoala jabetasuna" erabagitu eban eta ortik aurrera euren batzangotasunezko agindupean eta Mundu'ko gizarte guztia eritzi orreitan sartu naian, asi ziran ziñezkintzazko ekintzakaz eta arrokeri aundiz, JAINKOA'k GAI'ari ipinitako BEREZKO LEGE guztiak naastuten.

Erabagi au artu zanean, erromatarrak asieratik eta Zesar Augusto'gaz batez-be, Mundu onetan erregetza eta Aita Santu bakarra egon daiten asmakuntza indartu zan, Eleiza'ri eskubide aundiak emonda.

A ta guzti, porrot aundia egin eben erromatarrak.

Erromatarrak Europa'ra ekarri ebena:

Erromatarrak, gudalari edo borrokalari aundiak izan ba-ziran be, sekula ez ziran izan erri-bat eskolatzeko gai.

Eginda egoten zana edo eta ibili ziran erri guztietatik egoan baliozko mozkin guztia, eurentzat artzen ebalako, erritarrak galazota.

Legedi arloetan ausartak izan ba ziran be, euren menperatzaille asmakizunezko eritzian eginda egon ziran danak. Eta ori izan zan erromatar Bakea ?.

Grezia, erromatarren bultzadaitik menperatuta geratu zan gudalozte eta politikako arloan, baiña Euskalerrriaren lurraldeko batzar nagusiaren

antzera, sekula nazioa´ren izena artu ez, Demokrazizko ulermen aundia artu eben jakintzaren zabaltasunean.

Euki eben antolamenduzko-jaurkintza itzarmenekoa edo elkargokoa izan zalako, sekula Laterrizko Uri´tik gora ez ziran joan, danoren Nortasunezko ardurak zaintzeko.

Erromatarrak katolikotasunagaz indartuta, euren menperatzailletasunezko asmakizunean, danok banaka eta erritartuta JAINKOA´ri begira euki genduzan Nortasunaren ordezkartzazko ardurak antolatuta, odolkeriz ezereztuteko alegiñean, gaiñetik beste naastezko esku-aldi margo lodi-bat emonda, dan guztia zirriborrotu baiño ez egin eben.

Orregaitik, Greziatarrak gai-lez menperatuta geratu ba ziran-be, erromatarrak euki eben be-maillako edo zentzungabea aundikerizko ulermena, beti egon bear izan eben Grezia´k bizi oneri emon eutson adierazpeneko ulermenaren mende, zentzun aundiko jakintzan kokatuta egon ziralako.

Andik oraiñarte, bidean aurkitu eben indar guztia, nai berezko edo egindakua izan, indarrez eta amarrukerizko “VENI, VIDI, VICI” jokoagaz, katolikotasunezko alderdikerian sendotuta, euki eben asmoa betirako izango zala uste eben.

Antza baiña, Ludi onentzako EGILLEA´ren asmakuntzazko agindua ez dalako ori, luraldeetan dan guztia batzangotu baiño, zati geiagotan bananduta, iñork ez dauen aituten nora-bideko naaste-borraste baten agertu gara, nai erri-lez bai izkuntz-lez.

Zergaitik ?. Izkuntzak eta erriak, euren Nortasunezko berezkotasunean diralako tresneri ederreneak JAINKOA´ri ulertzeko eta BEREN agindua Ekanduz eta orekan zaintzeko, zentzunezko eta danon arduraren antolamenduzko ekintza on-baten.

Godoa´k:

Godoa´k, ez eben astirik euki, erromatarren ereduazko alegiñean euki ebezan kaizertzazko asmakizunak, sendo ezartzeko eta Europa osoan denbora guztian, borrokan baiño ez emon eben.

Ardura aundiz egin ebena, Ekialdeko erromatar II Teodosio kaizertzak argitaratu eban “Teodosio´ren lege-bilduma”, I Justniano´k “Corpus juri civilis” batu eben antzera. II Alariko´gandik asi-ta, 506n. urtean Romana Bisigotorun legearen laburpena argitaratu egin ebalako Mendebaleko bisigo guztientzat.

Eta I Rekaredo´k 587´an Arrianismoa baztartuta, 589´an Toledo´ko Eleiz Batzar Nagusian katolikotasuna besarkatu ondoren, erromatarrak Mundu onentzako errege ta katolikotasunezko ekandu bakarra euki dagian asmakuntzari, zori txarrez aurrerakuntza aundia emon eutsoelako.

Europa ta Mendebaleko erdi-ugarte oneitan ortik aurrera, sortu edo egingo ziran jaurkintzazko antolamenduak, iru baldintza oneikaz beartuta geratuko ziranak: “Grezia´ren jakituria, Erromatarren Legea eta Eleiza´ren katolikotasuna”.

Berez, ezin leikezanak iñondik-iñora-be eskondu, Grezia´ren jakiturizko Demokrazia ezin dalako menperatzailletasunaren asmakuntzazko ekintzakaz, zorro edo zaku bardin baten sartu.

711´n Mauritarrak etorrita, suntsitu egin ziran, baiña asmakizun orreik, Pelayo aitzaki bat izanda, eleizaren katolikotasunezko bidetik asiko zan osterabe, Europa´n eta erdi-ugarte oneitan beren berrezkuntza eta 800 urte geroago, 1.453´an ekiñaldi gogorragoetan asi mendetasun orreik lortzeko.

Mauritarrak:

Mauritarrak 711´n Europa´ra sartu ziranetik, euren asmakizuna garaitzeko, guda-antolamenduzko indar aundiekin asi ziran, baiña Karlos Martel´ek Frantzi-aldeko Turs eta Poitiers´en geratu ebazan.

Ortik gora ezin eben igon eta euren 781´eko urtetan gure artean egonda, XI.n. Gizaldian berakadan asi-ta, 1.492´an Granada´n egin zan, menpetasunezko itun´erarte iraun eben.

Baiña, Mundua´ri emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

Erdi-Mende onetan, Eleiza-katolikoaren nagusitasuna:

Erromatarren menderatzeak amaitu ziranean, Europa´n, Aita Santuak Nizea´tik ekarten eben “uts-ezintasun siniskai bidetik”, Eleiza katolikua agertu zan erri gizarteak alkar-ganatzeko eta jakintzan jendekuntzatzeko danon gaiñetik, agintaritzazko indar nagusienetariko baten eta bereala bete ziran Europa´ko lurralde guztiak bas-eliza, eleiza edo jauretze ta gotzai-eliza´rekaz (catedrales).

Erljioa-irakatsiz, Europa´ko lurralde zabala latin-jendekuntzan ezarri ebana eta orduan egoan erlijiozko Kristau sugar edo irikiñaldi erri ta errigizarteetan susmatu edo igarritzeko, ez dago bezterik, katolikotasun jardueran (proceder, comportamiento) egin ziran gurutz-gudaldiak eta Eleiz-epaiketetan (autos de fe) banatzen ebazan zigorrak, ikusi baiño.

Bai-ta, Aita santuak Europa´ko errege guztien buru gaiñetan dindilizka euki eben “Erroma´tar Kaizar Sakratuzko” domiña aundi ori, indartsuenak eroan dagian, Europa´ren Mendebal onetan.

Jesukristo´k beste gauza batzuk irakatsi euskulako, negargarrizkoa da ikustea, zelan katolikotasunak kaizar domiña aundi ori, errege guztien buru gaiñean dindilizka ipinita indartsuenak artu dagian eta batzangotasunaren norkerizko asmakuntz-orreik aurrera eroateko, Europa´n, Kristiñau erlijioa,

eskuetan panpa-bitxi (marioneta, tìtere) edo panpa (muñeko de trapo) bat lez ibilita, egin ziran odolkerizko sarraskiak.

Gaiñera, euren artean danak jakinda ez ziralta JAINKOA´ren aginduak, euren artean domiña orren atzean ibilita, Aita Santua´ren uts-ezintasun siniskai´a be ez ebalako kontuan artzen eta euren bizitzak gitziago.

Orduko Munduan eta Europa´ren erri-gizartetan batez-be, ez orren gogorkeriaren griña´pean (preocupaciòn, desasosiego) bakarrik bizi bear izan eben, batzangotasunezko asmakizun ori kontrolatzeko, aitor-seme andiki edo galdukeriaren feudo-legepeko (corrupto feudalismo valvasor) premiñan (indigencia, pobreza) eta izurri edo elderri (entre epidemias y pestes) ugari artean bizi izan bear ebalako.

Erdi-Mendea:

Erdi-Mendea danari esaten jako, Erromatarren Mendebaleko kaizertza 476´an Godo´ak ezereztu ebenetik, Turkoa´k, Konstantinopla menperatu eben arteko aldiari.

Edo eta erromatarrak suntsitu ziranetik, 1.440-1.450 urte bitartean, irarkola (imprensa), irrari´tzeko paper´a, bolbora edo lerrauts, itsas-orratza, itsas-ontzi´entzako ontzi-oial mugikorra´ren asmaketak lortuta, Amerika agerketaren ondorioz, Atlant-itsas lurralde bietan asi ziran itsas-billaketararte.

Bai, pizkunde (renacimiento) edo eta Eleiza´k, Martin luterok asi-ta euki ebazan berrikuntzazko arazo-aldiak deritson arte.

Euskalerrian, Errege Jaun´en sorkuntza:

Sarrera:

Oraifñarteko edestilari geienak, etorkizunezko erri-gizarteak eurak gura daben argitan ezarri daitezkan, Europa eta Euskalerriko arbasoen ulermenak zelako zentzuagaz jokatu eben esateko: “Beti izan dira, edestian etorri dan erromatar batzangotasunaren asmakizunezko mende orregaz zikinduta”, berezko erri-gizarteak ezereztu kontuan euki gabe eta norkerietan dabizenai lagunduz, daukiezan sasi-garaipenaren egarriak iraun dagiezan.

Espainolak adibidez: Beti agertzen dabe, euren errege ta izkuntza, betikoak izan edo eta danok espainolak izan bagiñan balitz bezala. Egia baiña, ortik urriñ dago !.

Orregaitik, Euskalerria´ren edestia eta Euskal-Izkuntza berezko nortasunaren zentzu andieneko geienetan, utzikeriz betean: “Mendekotasunean bizi izan garela bati” esaten dabe.

Zelan ulertu leike ori..., gu bizi-bizi gagozenean eta eurak “Nortzuk diran jakin gabe ?”.

Euskalerriko lurraldeak, euren batzarreko nagusitasunean antolatuz jaurkintzen ziran eta batzar-nagusi orrein agintaritzak mugarik ez euki ebala adierazteko, Bizkaia'n zelako baldintzakaz aukeratzen ziran Jauna'k jaurkintzaren antolarazirako argituko dodaz.

Europa guztian, baiña Euskalerrian batez-be, errege-jauntzak aukeratzen ziranean, erriak iru gauzatarako artzen ebazan: A) gudal-buru izateko; B) zuzenbidearen buru nagusia izateko eta D) Bizkaiko ondore aundiko lurraldeak zaintzeko.

Jauntza, ain zabaleko almen eta ondasun orrekaz jantzi ba-eben, bere buruzagitasuna lasaitasunezko jaurkintzan iraun dagian izaten zan.

Eta kontu aundian artuta, berea ez zala ezer !!, daukon guztia Bizkaitarrak emonekua zalako, beren antolarazian (arbitraje) babesteko.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko: "Erabagita- sunean apur-bat"; Beste apur-bar "Egilletasunean" eta beste ataltxo bat "Legegilletasunean" bakarrik emoten eutsoen.

Alderantziz baiña, batzordea beartuta geratzen zan, jaun edo erregeak bere antolarazian bakeak lortzeko edo baten bat indarka sartzen zanean kanporatzeko, borrokatu bear ebenean, euki eben gudaloztea guda-mutillakaz bear eben neurrian indartu eta ordezkosoldata diru-ordaintza barik, jaun edo erregetzaren antolarazi barruan bakeak lortzeko izaten zanean eta ariñautik ordainduta, etxetik kanpo zanean.

Jaun edo erregearen baldintza au, nai Europa'n eta bai Euskalerraren askatasunerako, txeberazko sare-aundi bat biurtu jakun, Euskaldunak ortik aurrera anai-arteko borrokan ibili garalako beti.

Jaun erregeak, bategaz edo besteagaz borrokatzen ibiltzen zanean, bai beren maltzurkerizko andikeriaren billa ibilita, adibidez: II Juan (Aragoi'ko erregea) eta beren seme Fernando katolikuak Nafarroagaz geratzeko ibili ziranean, anai arteko gudak izan diralako beti.

Zergaitik ?: Europa eta Euskalerraren askatasunarentzat batez-be, eleiza-katolikoaren alderdikeriak, itxura-gabetuan (camuflado) ekarte eban beste txeberazko sare aundi batekin, Munduko batzangotasunaren asmakuntzan, latiñez eta kaizar ta Aita-Santu baten agindupeko jaurkintzak lortu daitezenakaz (nacional-katolicismo facista. Rouko Barela'k atzo....., nortzuri esan eutsoen faziztak zirela ?) bat egin ebalako: "GREZIA'tarren JAKINTZA", "Erroma'tar Kaizar-Sakratua'ren Katolikotasuna" eta "Erroma'tar Menperatzaille LEGEA'kaz" batera.

Aita Santuak "Erroma'tar kaizar-sakratuzko katolikotasunaren kaizar domiña andi ori, errege-katoliko guztien buru gaiñean dangilizka ipinten ebalako indartsuenak artu dagian, errigizartearen gaiñetik, asmakuntz gaizto orreik lortzeko.

Grezia'tarren Jendekuntzazko-Jakintz Demokratikoa..., naastu leike erromatar menperatzaille kaizar-sakratuzko katolikotasunaren legeakaz ?. EZ !! guztiz aurkakoak (antagonikos) diralako.

Alderantziz, naste-ori egiñagaz, eurak emon euskuen aukera ederrena, euki eben menperatzailletasunezko asmakeri ori, Berezko egiagaz alkar-aurkezteko (cotejar).

Eta nai-ta egi-billaren azterkuntzak oso odoljariozko lazkartasunean (dureza, aspereza, bastedad) etorri izan ba-da be, Grezia'ren jendekuntzazko jakituri-demokratiko artean sartuteagaz, mesede aundiak egin dautsozelako Mundua'ri, Berezko egiaren zentzuak argitu daitezcan.

Baiña, Europa'n eta Euskalerrian batez-be, errege jaunak sortu ziranetik gaur-arteko edesti guztian, Europa'ko jakintza eta indarra, guzurrezko baldintza bi-orreitan ezarrita eta agintaritzazko nagusitasuna artean, maltzur-guzurkerizko joko orreitan Bereztasunaren egi-guztia naspiltzeko alegiñean ibilita: "Berezko erri ta izkuntzak, irten-bide barik geratu ziran".

Edestiko joko guztia, beti izan dalako berezko erri ta Izkuntzaren aurka, onein NORTASUNA'k desagertu aienatu edo suntsitu daitezcan, Mundu oneitan euren sasi-jainkotasunean ezarri gaitezcan. (Begitu zelan dabiz gaur be).

Gudaren buruzko alegiñean, nor ez da gogoratzen Zesar'en "VENI, VIDI, VICI"gaz, Godo'en "ET DOMUIT VASCONES" eta Katolikotasunak Nizea'tik aurrera Euskerea bastartzeko esaten dauskuenakaz "HABLE USTEN EN CRISTIANO", euren beldurkerizko guzurra ostondu naian edo aiñ nabaritasunezkoa izan-da, indarkerian erakusteko.

Eta bai abar asko-be, menperatzaille-eritzi orren "LORAK" baiño ez diranak, Berezko Erri ta Izkuntzaren aurka.

Zergaitik ez dabe esaten "HABLE USTED EN KATOLIKO ?". Bildur dira euren maltzur-menperatzaille jokoa argitan agertzea ? Argi dago, lotsabako oilo-bustiak dirala "JESUS"en irakaskintza olan zikintzen dabenak, sasi-jainkotasunaren asmoz.

Gaiñera, batu edo batzangotu baiño, nai NORTASUNEZKO erri ta izkuntzazko arloetan, milla zati geiagotan birrindu dauana.

Munduko eta Europa'ren edesti guztia, odolkerizko sarrazkintza baten ekarri dabe sasi-asmakizun ori dala eta ez dala. Nortzuk dira ikarabideen (terrorismo) izutzaille edo izu-arazleak ? (terroristas).

Ez ete da ordua zentzunezko aldakuntzan asteko..., gaiñera ikusita BEREZKO LEGEA'ren indarrak buruaren goi-aldian daukaguzela keiñalari, noz iruntsiko momorro aundi baten antzera ?.

Gure Napar-erregetza eta Bizkaiko jauntza:

778-824'an Orreaga'n, Euskaldunak Karlo Magno'ren aurka euki gendun borrokak gerta-egun bi-orrein ostean, Banu Kasi sendiaren laguntzagaz, Aritza'tar Iñigo'rekin asi gendun Nafarroako-erregetza.

Eta 888'an, IIIIn. Alfonso'gaz Padura'n (borroka'ren ostetik Arrigorriaga deituko zana) euki gendun borroka odoltsuaren ostetik, Jaun Zuria'gaz Bizkai'ko jauntza.

Eta antolakuntzazko jaurkintz orreitan asi giñatetik, BEREZKO EUSKAL NORTASUNA'k aienatzeko sartzen gara gaur arte, edesti guztiko borroka orreitan.

Nortasunezko izatasunean, errege-jaun biak oso abertzale aundiak izan ziran, Bereztasunaren babeserako baiña, uko ezinezko txeberaren sare-artean nai-ta nai-ez inguratuta.

Nafarroa'ko erregetzan lenengoetatik asi-ta esan bear da: Batzangotasun orren asmakuntz-bidetik eta Europa'n Eleiz'tarrak euki eben aolkularitzazko jabetasunagaz, Latiña elburu-lez gaienduta, Nafar'tar-Jaurkintzan Euskeraz, sekula ez zala idatzi agiri bat eta latiñez ez ba-ziran egiten, naiago latin-kume baragarrian (romance). Napar-erritarrak ezeren kontuan artu gabe.

Joko orreitan eurentzat gaur-lez: "ZER ziran Euskal-Nafar-erritarrak?"

IIIIn. Santso Garzez "Aundia"k (999-1.035) 1.035'an kaizar-erregetza bere semeen artean banandu ebenetik, Gaztela eta Aragoi'tarrak edesti guztian ibili ziran zirikatzen, nork geratuko ete-zan Nafar'tar erregetzagaz.

Eta len, Frantzia ta katolikotasuna bakarrik euki ba-eben etsai, Gaztela ta Aragoi'tarrakaz asmakizunezko talde orreitan kidetuta, lau bider aundiagotu egin ziran, Nafartarrak aurre egin bear eutsoen zirikatuaren eraso-aldiai, aztu gabe, gurutzada'ren gudak, ara-be joan bear zalako.

VIn. Santso "Jakintsua"ren (1.128-1.194) jaurkintzan, IIIIn. Zelestino Aita-Santua'k beren berun-bulda edo idazkietan, beste benetako erregeari "REX" izenagaz bialtzen ba-eutsoen, VIn. Santso'ri, 1.194'an Jorrailla'ren 13'ko berun-idazkian eta gero urrengo VIIIn. Santso'ri (1.254-1.234) bardiñ, dukea'ren izenagaz idazten eutsela.

VIIIn. Santso "Azkarra edo Indartsua" gurutze-gudatan ibili zan denboran, jaurkintzan geratu ziranak okerkeri galantak egin ebazalako eta VIIIn. Alfonso gaztelarrak Araba erasotzen ibilita, Euskalerriko lurralde naguziak Nafar-erregetzatik: Araba ta Gipuzkoa 1.200'ean eta Bizkaia 1.224'an banandu zirala.

I Teobaldo'k (1.200-1.253), seigarren gurutz-gudaldian (1.228-1.229) eta zazpigarrenaren (1.248-1.254) bitartean, 1.238'an Lur Santua'aren gurutzeko-gudaldia bideratu ebela eta Tauro mendian betiko ospagarritasuna lortuta gero, 1.240'an itzuli zan.

I Teobaldo'k 1.246'an, Ximenez ta Gazolaz'tar Pedro gotzaiña'rekin, Fuero'ak dirala eta ez dirala, zalantzan ipini eban Nafar-erregetza, baiña IVn. Inozensio Aita-Santua'k lege berezi-bat argituz: "Bere baimenik gabe, iñork ezin leikela Teobaldo eleizatik kanporatu" agertu eban.

Kontu aundian euki euki bear da, orduko denboratan errege baten-bat edozer gauza gaitik elizatik eskomunikatuta kanporatu egiten ba-ebela, erregetzako koro-ori aske geratzen zala edozein printze-katoliko artu dagian, Aita Santuaren baimen guztiak eukinda, guda-indarez sartzeko.

IIn. Karlos "TXAR" deritson erregetzan (1.349-1.387), 1.348'ko Irailla'n, izurri (peste) baltza agertu zan, Nafar'tarren gizarte-artean %'tik 70'ean muriztu ebana eta lurgintzaren lanerako besoaren ezean agertu ziralako, Nafartarrak gose aundian sartuta, askori lapurketara emon eutsoen.

IIn. Karlos'ek, neurri gogorrek artu bear izan eben ekintza orreik bakezteko eta Frantzi'ko erreñuaren edestilariak, nai-ta erriak oso maite euki arren, Nafar-erreñua zirikatze "TXAR" izen ori ipini eutsoen.

Nafarroa'ko erregetza ta erritarren nortasunak banatzeko, bere barnean legezko eta sasi-semeen artean, bekaiz (envidia) aundiaren bitartez beti borrokan ibiltzen ziralako, kanpotik euki ebazan zirikitazunak, erritarraren artean estutasun geiagotan larritu daitezana: Agramontes ta Beaumontes'en alderdikeriak sortu ziran. Nai Europa'n edo eta Euskalerra'n bezala, baiña Nafar'tarrentzat batez-be, oso gaitztoak izan zirenak.

Emen konturatu bear gara, Europa'ko erregetza guztia, euren artean senituta egoala eta naigabezko borrokak edo asarre guztiak (geienak beintzat), bakoitzak gogoratzen ebazan erregetzaren eskubideetatik agertzen zirala, erritarrak morroi bezela ara ta ona Foruen aipamenakaz ibilita, kontuan euki gabe.

1.423'an Urtarrilla'ren 20'an, IIn. Karlos "Biotz-Aundikoa"k Nafar-erregetza babesteko Biana'ko printzerria sortu eban, bere illoba IVn. Karlos izan-da lenengo printze edo errege-gaia.

1.441'an baiña, I Blanka Nafarroa'ko erregeña, Aragoi'ko IIn. Juan'egaz askonduta egon zana il zanean eta euren seme IVn. Karlos errege izendatu ondoren, IIn. Juan bere aitak eta Fernando katolikuaren aita izan zanak, erregetzatik bota eben.

IVn. Karlos'ek, gaztelatarren laguntza eskatu eban eta laguntza emon ondoren, kondestable'ak, Albaro de Luna'ri itandu eutson: "Baiña guk... zer lortzen dogu laguntza oneikaz Nafarroan?" Eta Albaro de Luna'k erantzun: "Jauna !! 40 urteko anai-guda izten dautsaguna".

IIn. Juan'ek (1.397-1.479) : I Juan izenagaz 1.441-1.479 Nafarroa'ko errege-lapurra lez eta Aragoi eta Katalunia'ko IIn. Juan errege lez 1.458-1.479 Urtarrilla'ren 19'raiño il zan arte) , beren seme-alaba biak IVn. Karlos (Peñafiel'en 1.421'ean jaio eta 1.461'ean Irailla'ren 23'an Bartzelona'n, gaitzapel edo bularretako miñagaz Il zala esan eben, baiña ez zan egia) eta IIn. Blanka (1.424'an Olite'n jaio eta 1.464'an Otsaila'ren

12'an Euskalerrriaren Iparalde'an Biarno'ko Leskar'eko bizkonderrian il) pozoituta il ebazan.

Guda oneik, ez ziran amaitu 1.522'an Maya'n eta 1.524'an Ondarribian, Nafarroa'ren askatasunezko ikurriñak beratu arte.

Nafarroa'ko I Juan ta Aragoi'ko IIn. Juan'en izenagaz ezagutuko zan Fernando katolikuaren aita izan zanak, 1.441'ean asi zan, Nafarroa, Aragoi menpean ezartzeko eragozpeneko gudarekin.

Vn. Fernando "katoliko"aren (1.452-1.516) izenagaz ezagun izan zanak, 1.512'an Uztailla'ren 21'ean aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz (ocultaciòn, encubrimiento, disfraz) agertuta mendetu ebana.

Eta Espaina'ko I'goa eta Vn. Alemania'ko Karlos'ek (1.500-1.558), 1.522'an Maya'n eta 1.524'an Ondarribian, Nafarroa, Espaina'ren mendepean egon daiten amaitu ebana. IIn. Julio, Xn. Leon eta VIIn. Adriano eta VIIIn. Klemente Aita-Santu'ren laguntzagaz eta bedeinkapenarekin.

Or amaitu ziren Nafartarren askatasunak ? EZ !! Nafartarren askatasuna oraiñarte, indarkeriaren aurka ezin dalako besterik egin, estutasunezko larrialdi bat baiño besterik ez dalako igarotzen dabillena.

1.3. Bizkai'ko jauntza'n:

Gure jauntza, 888'an Padura'ko (Arrigorriaga) borroka-lazgarri ostetik Jaun Zuria'gaz asi-ta aurrerantzean gure aukeratuko jaunak oso abertzaleak izan ziran, areik eta gauzak naspiltzen asi arte, adibidez: 1.137'an IVn. Lope'k Gaztela'ko VIIIn. Alfonso'gaz batera, Nafarroa'ko VI'n Garsea edo Gartzia'ren aurka borrokan ibili zalako, bera kendu eta Nafarroa'ko erregegaz itzarmendu gintzazan.

1.454'an Gaztela'ko IVn. Enrike'k Bizkaiko jauntza artu ebanak eta 1.470'ean Epaila'ren 4'an Mungia'ko guda ostetik bota egin genduen, Isabel (katolikua) ipinita.

Eta ainbategaz bardin edo al-gendun eran, nai guda-keñuakin batzuetan IIn. Felipe Espaina'ko erregeari bezela.

Bizkai'ko jauntza, Europa ta Nafarroa'ko arazo bardiñakaz asieratik iraun bear izan eban, danen antzera guk-be leen, erromatar-katolikotasunezko sakratuaren txeberazko asmakuntz sare-orreitan sartuta asi bear gendulako eta Bizkaiko gizarte ta Batzarrak euren jabetasunean, indarrezko babes-ausarta aundiak eginda-be, gure jauntza, urte-bi eukazala Espaina'ko errege izango zan IIn. Juan'en (1.425-1.474) eskuetan jausi zanetik, txeberazko sare orreik zabaldu ta sendotu egin ziralako.

Ortik aurrera, Espaina'ko erregeen eskuetan egon dalako gure jauntza. 1.876'an Uztailla'ren 21'ean guztiz ertsi (clausurar, encerrar) edo giltzatu arte.

Europa, Euskalerrria eta Bizkaia´ren gaurko Menperatzaille oneik...., betiko ASKATASUNA galdu egin dogula esan-gura dau ?.

EZ !! Bizitz oneitan Askatasuna galtzen dauenak, NORTASUNA galdu edo il-da dagoela esan gura daualako. Eta EUSKALDUN-BIZKAITARRAK bizi-bizirik gagoz oraindiño.

Demokrazizko bideak artzea, JAINKOA´ren bideak artzea esangura dau, Bereztasunezko LEGEA´ren-bidera aokatuta gagozelako. Orregaitik buru-otzakin eta demokrazizko zentzu aundiz jokatuta, lortuko dogun gauza da !!. Maltzurkerizko guzurak Mundu´ko bizitz-au, amiltegitik (precipicio, despeñadero) ez ba-dabe botaten.

(Onen inguruko edesti osoa: “Askatasuna ta Menpea, Askatasuna Bizkaian” LII´ko Euskerazaintza aldizkarian; “Euskaldunak eta Europa´ren Batasuna” LIV´an; Euskalerrria ta Inguruko Erriak LVI´an; “III Juana de Albrit eta Nafarroa´ko erregetza” LIX´an eta “Euskalerrria´ren Askatasuna´ren Edestia” LXI´ean, lortuko dozue).

2.1. 1.540-50´en Erdi-Mendeko urtetik Oraigo-Aldira edo eta Berrizte-Alditik (desde la reforma) eta Frantzia´n 1.789´an egin zan iraulketatik gaur arte:

Agertu ziran aurrerakuntzakaz (irarkola, itsas-orratza, lerautsa – polvora- eta abar.), lengo erregetzak indarrean sendotzen joan ziran, nai-ta Europa´n eta batez-be Euskalerrriko Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia´n gure askatasuna euki, tresneri orreik indarrezko aukeran emoten eutsoezan neurri orreitan batzangotasunezko asmakuntzak gogortzen asi ziran.

Erregetza orreik baiña, XVIIIen. Mende´tik onantza makaltzen joan ziran lez eta Berezko erriak indarra artzen, batzangotasunaren asmakuntzazkoak Frantzian, erromatar kaizar-sakratuaren katolikotasun tresneri orrekin ez ziralako gai izan Mundu´ko dan guztia batzangotzeko.

1.789´ko iraultzagaz, beste saio barri-bat egin eben, bereztasunezko errigizartearen nortasunak eta izkuntzak, ia gero lurralde zati aundiko jende-biltzetan (agrupaciones) lotzeko izan-ditekeezan gai, Bereztasunaren Nortasunezko erri ta izkuntzak aienatzeko.

Frantzia´ko iraulketaren ondorio-bidetik katoliko-erregeak, ararte euki eben itzarmenaren antolabideko (arbitraje) arduratik, beragaz itzarmenduta egon ziran (edo ez) berezko erriak izkuntz eta guzti laterrituta, Frantzez nortasunezkoak biurtu geratu ebazan.

Eta Europa osoa eredu ori artuta, ararte egon ziran itzarmen-bidetik antolaraziko erregeakaz lotuta, lurralde aundietan guda-indarrekin, guztiz Laterrituta garatu zan.

Baiña, Erromatar-katoliko-kaizar-sakratuan batzangotzeko asmatuta egoan zorro orren bealdea, josi-barik eukielako, areik eta Mundu guzti onen

nortasunezko-giza barruan sartu arte, Napoleon'ek zabalik aurkitu ebazan menperatzailetasunezko ateak eta borroka ori JAINKOA'ren LEGE'en aurka dalako, betiko-lez, azken-gaiztotuta utsegille urten bear eban, ainbeste milloi-giza'ren eriotzagaz.

Asmakizun orrek, buru gogorra dauka eta Hitler'ek-be askeneko saioa egin eben, 60'miloi giza-seme il-da.

Noz-arteraiño...., burukaldi-gogor (cabezonadas) orreik ?.

Gaur ez dira ausartzen beste bat egiten, Mundu'ko bizitza berrogei bider aienatzeko atomozko-lerkai'ak dagozelako.

Eta erri-gizartearen nortasun eta nortasunezko izkuntzak gaur zer ?.

An Sumeria'n, Sargon menperatzailearen asieran-lez, JAUNGOIKUA'k Ludi-au BERE'n LEGEA'kaz Bereztu egin ebalako eta orreik ez dabelako esaten beste gauzarik: "BEREZTASUNA'rekin LOTSA aundia euki bear dogula baiño". Gure arduraren kontu aundienean artu bear doguz, OR!! Ulertzen diralako Izadi onen gai-giza'ren eskubideak.

Asmakizun orreik nai edesti guztian Berezko LEGEA'ren aurka eten-bako odoljariozko sarraski baten ekarrita. Bereztasunak, Arnasaldi baten sartu ezkerro eta BERE'n LEGEA'ren ezinbesteko ardurak bete egin bear dabezelako, lotsagizun aundiz, berezko izatasunen egokitasunera doa.

Orregaitik, zergaitik barriro artu ez !! Bigarren Mundu'ko gudan zer gertatu zan ikusita, ostein damu aundiz eta garraxika aldarrikatu zan...., "GIZA eta Berezko erri ta erritar ESKUBIDEA'ren bideak artu bear ziralala ?".

Iñoz !! ez du igarriko...., JAUNGOIKUA'k ipinitako LEGEA'ren aurka ezin dogula egin ezer ?.

3. EUSKERA'k EUSKALERRIA'ri...., zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?:

Sortzezko izkuntz-bat Euskerea dan lez, ez da gure gogotik oldoztu egiten dan izkuntz-bat bezela.

Edo eta edestian ikusi dogun-lez, menperatzaileak euren sasi-garaipenak lortzeko, erri ezberdiñeko gizarteak menparatasunezko bearkuntzaren naastekatutik urten leiken izkuntz baragarri baten antzera.

Erromatarren norkerizko-bidetik urten eben latin-kumeen antzera. Euren ERRI-NORTASUNA'k, naastutasunen bidetik, euki eben ospea-kendu (desconceptar) eta naspillatu (desconcertar) egin ebalazako.

JAINKOA'k Berezko bizitz oneitara bialdu ginduzanean, gai-oneri arrigarritasun aundiz adierazpen-bat emoten asi bear izan gendun, gosea'k, gure sabel-zorri onein larritasunezko doñuak ez ziralako egokienak; jaiotzak, eriotzak, gaxo-aldi, zauri eta bizitzari erantsuna emoteko beste aukerarik ez zalako egon, baietza emon geuntson maitasunean egokituta.

Maitasuna..., nori baiña ?. Leen JAUNGOIKOA´ri, laster konturatu giñelako bizitz au ez zala edozeiñiek egindakoa.

Bigarren sendia´ri, lagun bearrean babeserako guregandik ugaritzen giñelako. Eta irugarren gai-bizitzari, berak emoten euskuelako aukerea izateko.

Maitasunezko egarri (amar, querer, aspirar en definitiva) orren bidez, laster konturatu giñan, gauza guztien ekintzazko alegiñean, txar eta onezko aldiak eukazela eta egiten genduzan gauza guztietan lotsasko-neurriakaz arduratu bear giñela oker edo utsaldian jausi ez gindezan.

Bai-ta, antolakuntzazko beste uler-leku barri bat zabaldu bear gendula, ikasitakoak gure ezagueran erabidez (metodika o ordenadamente) oituratzeko eta ortik asi bear izan eben abots edo itz-ots´ai itxurazko eran amore-emoten (amoldar).

Homo-Sapiens, Afrika´tik mugi-aldian asi eta Europa, Asia ta India´tik zabaldu ziranean, leen-Euskerazko itz eta ekanduaren oiturazko oiñarriekin, zentzuzko oreka baten egokitu eben. Leiñuen bizitzazko antolakuntza, auzotasunezko lurraldeetan laterrituta.

Atlant-itsaso´tik India´raiño dauan bitartearen eragozpenagaitik, ez eutsen itzi izkuntz-bateko azturan egokitu eta or, leiñu bakotzak nai oiñarri batekoak izan, sort-arazi (crear) eben izkuntzan egokitu ziran.

EUSKERA´k EUSKALERRIA´ri, ZELAKO IRUDIA´gaz ITXURATZEN DAUTZO ?:

Euskaldunak, JAINKOA´ri begira milla-urte askoren ikerpeneko atun-bidean (procedimiento empírico) edo eta aztura-bidetik (crecimiento del conocimiento), ondo erindu eta biribildutako lanean, itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu daitezcan, gure ARBASOAK, EUSKERAZ´ko gaztelu ederrena eraiki eben. Eta bizitz-oneri, beragaz emon eutsoen adierazpen ederrena.

Ez ziran txantxetan ibili, laztasun (severidad) eta zorrotzasun (austeridad) aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko-esaerak, sorburuzko itz´ekin osotutako almenean (potencia, potestad) eginda dagoelako, esangura dan irudizko toki ber-beran kokatzen gaitu, ia izkuntz-gitxi baiño ez daukienak.

Gazteleraz PLAYA itzak adibidez: Zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?. Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz (lisura, tersura) edo eta areatutako maskor-ondarrarekin ?.

Zergaitik ?: "Euskalerria´ren lur onetan agertzen diran aize, ur, itsaso ta mendiak daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta gai-bizi irudiak, zentzu aundienean izendu ebazalako" **alde batetik**.

Bestetik, sendi-gizartean: “Lots aundi begirunezko (respeto, consideraciòn) itz’ekin oituratu ziralako senditasunaren bizitzazko eta sendi-gizarte arteko arremanak leiñu edo erri-maillan”.

Erri-arteko maillan: “Sekula ez giñelako joan bestea menperatzera edo daukana kentzera, lotsa aundian artuta euki bear ziran arremanakaz, paregabeko DEMOKRAZIA baten bizi ziran, gure arteraiño etorri jakuzan LEGE-ZARRAK esaten dauan lez”.

Eta bakotzaren eginkizunetan ?: “JAINKOA’ri begira, EGIA gure bizitzako ARDATZ-NAGUSI izan daitela, Euskalerrria’k beste amar-milla urte geiago iraun dagian”.

Gure ARBASO’ak, zentzunezko demokrazi-baten egian bizi ziralako, gaur-arte ezer galdu gabe ekarri euskulako daukaguzan DEMOKRAZIA’ren-ASKATASUNEZKO egarriak. Ekintza orreik izan ziran eta orreik izan bear dira gaur eta beti !! “EUSKALERRIA bizi-bizi agertu daiten MIRARIA”.

EUSKEREAK:

Daukan NORTASUNEZKO irudiagaz itxuratzen gaitu Euskaldunai. Maitetasun guztiagaz erkidetzeko egin gendun tresneri-eder au, ez dalako gatz-gabeko mezu-gailu uts-bat gure artu-emonetan ibilteko tresneria bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak: a).- JAINKOA’ri begira “BEREN LEGEA’rekin euki gendun oarmeneko (atenciòn, sentido de la observaciòn) samurtasuna”; b).- “Senitarte eta erri-maillan MAITASUNEZKO ulermena” eta d).- “Gure BAITA’ren bake edo oreka’gaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak zentzunezko ta zeatztasunaren lotsazko arduran egin genduzela”.

Euskal-bizitzarako edo eta erriaren babeserako EUSKEREAK daukan indarragaz, berez agertzen jakulako MAITETASUNEZKO GAITASUNA” (buenas dotes, talento), bere barneak daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako argitasuna emoten dauskuelako.

Gure arbasoak, gauzak eta arremanak egin ta zentzun aundiz eroanda, DEMOKRAZIA’ren ulermen aundi batera eldu eta bizi ziralako, sendimendu ber-berori sartu eutsoen Euskera’ri, orregaitik ez da edozelako tresneri uts-bat.

Bera da AMA !!, Euskal-izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Etorkizunean, bere MAITASUNEZKO ZENTZUTIK artzen doguz NORTASUNEZKO izatasunak, Mundu guztiko gizarteari erakutsiz EUSKALDUNEN NORTASUNEZKO EGI-BIDEA..

Menperatzaillak euren nagusitasuna erakusteko, gaurko bizitza, xautzailletasu- nezko argi-bideakaz ganoragabetu gura ba-dabe. Gu ez gara

jausi bear txebera orreitan, bestela gudakin ez ebena lortu iñozokeriakaz lortuko dabelako.

Geiago bear ete dogu ?. Ba..., kontuan euki !! gure ARBASOAK egin eben lez, guk elikatu bear doguzela zentzu aundiz NORTASUNEZKO – DEMOKRAZIA ON BATEK bear dauazan eginkizunekaz, GURE ORDEZKARITZAZKO-ARDURA DALAKO, EUSKAL - IZATASUNEAN IRAUN GURA BA-DOGU.

Emen txantxaka ibilita, begitu zer esaten eban Oreja'tar Martzeliño'k: ETA'ren esanak edo eta mezuak sinismenean edo kontuan aundian artzeko, "orreik ez diralako gai, GUZUR-bat esateko eta".

Eta Mundu'ko gizarte-ezagunak, irudi orregaz ikusten gaitue Euskaldunai ?.

Lur eta gizarteko aunditasunean, Erri txiker baten neurrian geratu gara, menperatzailetasunezko alegiñak edesti guztian, aundiak eta eten-bakoak izan diralako, baiña....., gure NORTASUNEZKO-DEMOKRAZIAK zabaltzen dauan dirdirazko argitasuna, Mundu'ko edozein lekutik ikusi leikena da.

4. EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA:

Edesti guztiko autueta edo kondaira onetan ikusi dogu, Mundu'ko gizartea gure on-ikuskitzunerako aldakuntza aundi baten bearrean dagoela, bestela gagozan lokatz-artetik urtetea gatz egingo jaku.

Alde-batetik: "Ikusten dogulako, norkeriaren asmakizunezkoak euren xautzailetasunezko aberastasunean bizitzeko, Mundu onek bere izatasun-fisikoan, JAINKOA'ren LEGEA'kaz, guk, gauzak txarto egiten noraiño eldu geinken mugatuta dagoena, daukazan dei-adar guztiak biztu egin dabezala, amiltegi baten ertzera ekarri gaituelako.

Bestetik: "Alderdikeri orreik sortu ziranetik eta nortasunean ta jakintzan, zentzunezkoak ez diran naastukerizko gauzatan sartzen gaituelako, bizitz onetan, egirik ikus-eziñik igarotzen dira gure nortasunak eta beren ondorioz, zentzun gabekeriaren ulermen bateko irautasunean aurrera egiten dogu.

Zer egin ?. Gure gogoaren baitan zikinduta daukaguzan zentzunezko irten-bideak garbitu eta danok geiago arduratu, giza, erri ta erri-gizartearen NORTASUNEZKO eskubideen ekintzan aleginduta.

Ekintza orreik bakarrik ekarri leikezelako askatasunezko orekak, Mundu onetan egiten diran norkeriaren bearkuntzatik.

Norkerietan dabizenak, oraingoan lar urrun joan dira batzangotasunezko alegiñean, danoen ardurak euren eskuetan artuta.

Orañarte, beti aurreratu dira, berez, Mundu'ko gizarteak alkartasunerako emon bear dabezana aurrerako oinkadak emon orduko, eurak, bizitzeko daukaguzan mozkin guztiaren kontrola bear dabelako.

Orregaitik oraingoan, urrun joan dira, gai onen oreka guztiak zalantzan ipini dabezalako.

Nora joango ete da erri-gizarte bat....., bere antolakuntzan ez bada gai, seme-alabak edo seme-alabarentzat etxe-bizi bat ezin bada-be lortu ?. Gaiñera, ez da edozein gauza, giza'ren iraunkortasuna ipini dabelako zalantzan.

Ori bai, dan guztia batzangotu gura dabe esku bakarretan, goiko agintaritzatik asi ta errigizartearen nortasunetik igarota, diru ta mozkin guztia, danoen ardurak ezereztuta ondoren.

Bai !! neska-mutil gazte guztiak lanean ipinita, iñora ez daitezcan elduko premiñan (sueños y necesidades que estan ahí, pero en ningun caso alcanzables para ellos).

Al izango ete dira..., giza, euren oparotasunaren zerbitzura ipinteko alegiñean, klonetan astea ?.

Astakerizko ergelkeri oneik..... noiz arte ?.

EUSKALERRIKO SEMEA'k:

Esan leike, edestitik zear aurkeztu doten egoera ondagarritik (catastrofico/a) ez dagoela urten biderik, eta ez da egia.

Danok garalako arduradunak ondameneko estutasun onetik urteteko antzezlariak, aukera guztiak gure eskuetan egon-da.

Askotan esan leike, ibil-arazian ipinten diran asmakizun txarrak (eta onek, bi-milla urte baiño geiago daukaz, nai-ta gogortzen asi zanetik 1.683 urte euki), euren alegiñean indar geiegi daukazalako, ezin dirala geratu edo eta txarrak dirala adierazpendu, areik eta beren zentzun okerrak ormaren aurka burua apurtu arte.

Orain gagoz gure giza-barne edo baitan aukera orretan, edesti guztitik etorri dan giza ta erri-gizartearen berezko eskubide guztiak zapalduta, bizi onek daukazan Bereztasunezko Legea'kaz mugatuta topo egin dabelako.

Eldu garan mugazko egoera ontara, Mundu onetako goiko-agintaritzazko ulermenekoari be, euren giza-baitak txarto goazela esaten dautsielako.

JAINKOA'ren LEGEA'k egiten dauskun oarpidera (advertencia) eldu gara eta beragaz, gogarketaren aldira.

Ze gogapenekin baiña ? : "Edesti guztian meatxuzko indarrarekin etorri dan erromatar asmakizun ori, eskubide guztiak zapaldu eta daukagun Nortasunaren ardurazko giza-legetik kanpo itzita, Mundu'ko gizarte guztia garrasika ekarri ondoren, abarrakitu (estrellar, hacer trizas) edo azken-gaizto baten amaitu (?) dalako.

Beren aurka, beste ainbesteko indarrarekin jantzi zan komunismu'aren burutapenak, euren-beste kaizar zaleak biurtu ziranak-be ust egin ebalako.

Eta gaur, leen sasi-asmakizunezko datorzan diruaren batzangotasunezko burutapenai, ura, leku guztietatik sartzen jakola, beste ainbesteko uts egin daualako.

EUSKALDUNAK ZER EGIN ?:

Gure giza-barrenak edo "BAITA`k" (conciencias) itzartu eta oartu, Euskalerria`k edesti guztian dakarren eten-bako borroka onetatik, gure izatasunezko nortasunean apurtu edo murriztu jakuzan gauza guztiak, berrezkuratu egin bear doguzela.

Eta ezinbesteko gogo-alegiñean, GURE ERRI-MIÑAN, AINBESTE ZOR-DAUTSAGUN MAITASUNEZKO EUSKERA "NORTASUNDU"!! len berak, gugaz egin eben antzera. EUSKALDUNAK OR !! daukagulako NORTASUNA`ren IZATASUNEZKO ALTXOR AUNDIENA..

Baiña...., lerkai eta izkilluaren ILKETA BARIK !!. Zorionez, denbora orreik joan diralako eta orreik gauzakaz irauten ba-dogu, gure buruetara lerkai orreik botatea bezala dalako.

Mundua`ren gizarte aurrean, DAUKAGUN PAKEZKO eta ASKATASUNAREN DEMOKRAZIZKO IZAERA, IZUTZAILENA`gaitik (terrorismo) ALDATU edo ITZULI EGITEN DABELAKO.

GURE ETSIAK ORI GURE DABE-BA !! EURAK GUDAREN INDARRAGAZ AL EZ DIRANA EGITEKO IZAN, GUK, GURE IÑOZOKERIA`kaz (ingenuidad, necedad, simpleza) EGIN DAIGULA.

JAINKOA`k IPINI EUSKUN LEGEARI BEGIRA, NAI-TA NAI-EZ JOKATU BEAR DOGU. GURE EUSKAL-ASKATASUNEZKO ELBURUA LORTZEKO, MUNDU ONETAN, BERA ta BEREN LEGEAK DIRALAKO ARDATZ NAGUSIENAK.

EUSKALERRIA MUNDU eta EUROPA`ren "IZAR" AUNDIENA DA, EZ DAU MEREZI BEREN SEME BATZUK ARROTASUNEZKO BEROTASUNEAN, BERAGAITIK EGITEN DABENA.

"IZADIAK DAUKAN LEGEA", ZAINDU BEAR DOGU

ATUTXA`tar PAUL

Zornotza`n 2.008`an Azaroa`ren 26`an

“AGUR !!ETXENAGUSIA ta URIBE´tar ON-KARMELO”

Nere bizitzan, eneban ezagutu ospe andiko On-Karmelo agurgarria, areik eta Ama-Birjiña Zuria´ren senda-etxean Olazar eta Uribe´tar Martin, bere bizitzako azken egunetan zaintzen egon nintzala, bera gaisotegira etorrita osasunaren azterketa batzuk egin dagoitzezan, aurrez-aurre egoan gelatik Martin ikustera iru bider aldatuta, nigaz berba egin arte.

Eneban sekula gogoan izango, alango itxura ederreko gizon bi-aiek, JAINKOA´k deituta, ain denbora gitziko aldian, bizitz onetik joango jakuzela.

Martin, Irailla´en 20´an, gaueko ordu batak berrogeita-amairu minutu gitziago ziranean il zan eta on-Karmelo Azaroa´ren 6´an.

Egurrola´tar Iñaki´k esanda, jakin neban, beragaz batera Euskerazaleak Alkartearen batzordekoa be izan zala eta Martin´eri itandu neutsoenean, baietza emon ondoren literaturaren kondaira arloan eta elerti-arloan idazle ona izan zala eta Aita-Santi Onaindia´ren Euskal Literaturazko liburuagaitik itanduta, Karmelo izan zala lenengoz Euskeraz idatzi ebana Literaturazko liburua.

Beragaz denbora laburrak berba egin da gero eta Martin ta Iñaki´ren bidetik, JAINGOIKO´engan eta Euskerearen maitasunezko zaletasuna azaletik esagutu ondoren (balekite, Euskal-maitasunezko usai ori izatea errudun, Espainola´ren aolku bidez, Aita-Santuak, Bizkai´ko Gotzain tituludun ez izendatzeko), Iñaki´k eskatuta, Euskerazaleen berotasunezko agurra argitzeko idaz-lan labur onen bitartez arduratu naz. Berak egin eta berarengandik esaten dabezenakaz, al doten gogo guztiagaz egingo dotena.

1.980´an “ZER” aldizkariaren 32´ko zenbakian eta 13n. orrialdian, Olazar eta Uribe´tar Martin´ek, Etxenagusia´tar Karmelo´rengandik esaten ebana:

Jakingarriak:

Iurreta´n, 1.932´ko Jorraillaren 24´an jaioa dogu Karmelo.

Ikas-bidea:

Gordexola´n, Artea´n eta Gazteiz´en egin ebezan bere abade ikasketak eta 1.955´eko urtean egin zan abade.

Geroago, Komillas´en, Eleiz-Legediaren ikasketak egin ondoren “baimendun” agiria lortu eban.

1.961´eko urtean sartu zan Gotzain-Etxera lan egiteko eta or jarraitu eban il dan-arte.

BARRI POZGARRIA:

EUSKERAZALEAK taldearen barruan poz-giroa asmatzen da. Gure bazkide ta lankide dogun Etxenagusia´tar Karmelo Gotzaindegiko Ordezkarri nagusia izendatu dauskue, goterkiko abade ta laikoen artean auteskunde egokia izan ondoren.

Zorionak Karmelo´ri eta zorionak EUSKERAZALEAK taldeari.

EUSKERAZALEA:

Lan onetan ez doguz aitatuko bere eliz-lan ugariak (abade-gaietan etxean, lekaimen kapellau, III ordezkaritzako arduradun...) eta eleizea ta euskerea alkartzen dituen lanak pizka bat aitatuko doguz.

Eta lenengo, Gazteiz´ko abadegai-etxean: Guda ostean izan ziran lenengo ikas-aldietan an egoan Karmelo: Euskera ikasteko baimen barik, jolas-aldietan alkartuta, etxeko zuzendariak "ikusie-z" egingo ebala baiña baimenik ezin emon leikela esanda. Zaletasuna ba-egoan eta ikas-bearra be bai.

IDAZLEA:

Karmelo euskal idazlea dogu elerti-arloan, literatura kondaira-arloan. Bera izan zala uste dot euskeraz agertu zan lenengo literatura-liburua.

Baiña Karmelo´ren lenengo lana, eleiz-lana izan da beti eta ez dau izan asti larregirik idazle-arloan lan egiteko. Eta tamalgarria da, idazle argia, zeatza ta jatorra da-ta.

ITZULTZAILLEA:

Batikano´ko II Eleiz-Batzar Nagusia egin zanetik, Eleizan lana ugari izan da eleiz-liburuak euskeratzen, eta lan au egiteko talde on bat sortu zan.

Talde orren barruan lan aundia egin dau Karmelo´k, eta ez berak bakarrik, sarritan bezte batzui be, eleiz-liburuak zelan euskeratuta dagozan eta zelan euskeratu bear diran itandu dautse.

IRAKASLEA:

Esan dogun lez, Eleiz-lana ta euskera-lana egokiro alkartuz, Karmelo´k irakasle lez lan aundia egin dau euskerea bera Abadegaien Ikastegian irakasten, eta lan orrek Euskalerra guztian zelako garrantzia izan dauan ikusteko ez dago billaketa sakonik egin bearrik: Abade egin diran eta azkenera eldu barik urten daben asko ta askok izango dabez gogoan bere irakatsiak eta berak emondako trebetasuna gai oneitan.

IZLARIA:

Karmelo izlari ona da, batez be euskeraz jente-aurrean itz egiten dauanean.

Eta au ez da neure eritxia, beste barik. Mikel Zarate´ri egin jakon omenaldian izan zan batek, auxe esan eustan: Ederto egin dau berba Karmelo´k. Pozik egon naz berari entzuten. Euskera garbia, gozoa, erreza ta ugaria, benetan !

ORAIN ZER ?:

Labur-labur eta zeaztasun larregi barik egindako lantxu au amaitzeko eta esan bear diran gauza asko esan barik geratu dirala jakiñik, geroari begira, itaun au datort burura: Orain zer egingo dau eta egin bear leuke Karmelo´k ?.

Arlo baten beintzat, asitako lanari jarritu: Eleizea euskaldundu, Erria ta Fedea alkartu; bide orretan aurrera egokiro egin dagien, Gotzaiñai lagundu; Gotzaindegiaren benetako euskal-arpegia agertu.

Bilbo´ko Eleizeak ba-dauka, zalantza barik, euskal-zaletasuna, baiña argiago ta garbiago agertu bear da, eta ori lortzeko ba-dauka naikoa zeregin bere maillan Karmelo´k.

Eta zerbait zeatzagoa nai ba'dau, Karmelo'k ondo daki Bizkai'ko euskerea zelan dagon eta EUSKERAZALEAK zer eskatzen daben.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

Aita Santi'ren Literaturazko liburuetan:

Aita-Santi'ren Literaturazko liburuetara joan da, berak zer esaten dau: "BIBLIOGRAFIA" Ona emem literatura au osotzean esku artean erabili ditugun liburu batzuk.

Eta aipatzen dauazan 29 liburuetatik: **1'go liburuan 31'garren orrialdian.** Karmelo Etxenagusia: "Euskal Idazleen Lorategia (Donostia, 1.969)" da.

2'garren liburuan 57'garren orrialdian. K. Etxenagusia'k Aita Prai Bartolome (1.768-1.836) gaitik esaten dauana: "Bizkai'ko euskal idazle zaarren artean, Aita Prai Bartolome garainetakoa dogu; izan be, euskera berezkoa, etorri aundikoa, argia, indartsua, aberatsa darabil beti". **70'garren orrialdialdian:**K. Etxenagusia'ren, Lorategia, 127 orr. Aipatuz, Mogel eta Elegezabal'tar Juan Jose buruz esaten dana. "K. Etxegarai, Azkue, J. Garate, I. Omaetxebarria, L. Billasante, San Martin, K. Etxenagusia ta beste batzuk, ordea, debarrari txaloka dauzkagu. Errikoia da, joskera ona du; baita irudimena ere, Eskolia deritzan liburuaren orrietan bereziki". **Eta 275'garren orrian:** K. Etxenagusia'k, Frantzizko Inazio Lardizabal'i (1.806-1.855) buruz emoten dauan eritzian: "Euskera sakon daki: iztun ederra ta ugaria; bere lanak ondo landuak dira, argiak eta txukunak" esaten dau.

3'garren liburuan: 192'ko orrialdean: K.Etxenagusia'k Urruzuno'ren gaitik bere eritzian esaten dauana: "Izlari ona ez baiña, sermoi-idazle bikaiña ei zan. Idazle lez, Ipuin-asmatzaille joria, ugaria: orduko euskal aldizkaririk geienetan argitaratu zituzan ipuiñok, "Auspoa Liburutegiak" batu ta eskeiñi deuskuz barrero (nn. 5, 47, 51). Erriarentzat egiten eban, eta orregaitik bere euskera ta joskera oso errikoi, bizi, argi ta aberatsak dira". **386'ko orrialdian:** Emen K.Etxenagusia'k Menezauñdi'gaitik esaten dauana: "Manezauñdi'ren izkerea, Luzaide'koa izanik, baxe-naparroako euskalkikoa da; beti be oso errikoia, bizi bizia, esaeratan jatorra ta aberatsa. Atsegin aundiz irakurtzen dira aren artikulua polit eta umore onez orniduak".

4'garren liburuan: 28'garren orri-aldian, Karmelo'k, Eguzkitza ta Meabe 'tar Juan Bautista'rengandik, bere eritzi lekuan esaten dau: "Maixu batek lez idazten dau beti Eguzkitza'k: argi, otz, zuzen, kontuz... Bear bada, astunegitxua egiten jaku, luzarora, bere idazkerea, itzen garbitasunari ta gramatikako legeai lotuegi edo dalako" (Euskal Idazleen Lorategia, Donostia, 1.969, 231 orr.). Karmelo'k, **42'garren orrialdian Arriandiaga eta Gorozika'tar Imanol'engaitik esaten dau:** "Urrats-zur dabilkugu". Eta Orixe'ren esan ondoren: "Aranatar sutsua dogu A. Arriandiaga" "Maisuaren asmoak aurrera eroanik, euskeraren erreformatzaille guztien buru-edo dogu; gure

izkerearen lojikeak lilluratuta, erreforma sakonak egin nai izan zituan euskal gramatika osoan”(Lorategia, 236 orr.).

6'garren liburuan: 169'garren orrialdian, Karmelo'k, Ibinagabeitia ta Idoiaga'tar Sabin Andima'gaitik (1.906-1.967) esaten dauana: “Bizkaitar jakitun onek – jesuitarako ikasketarik geienak egiña zan – euskereari eskeiñi eutsan bere bizi osoa, urteokaz Ameriketako erbeste lantzean. Idaz lanik geienak gipuzkeraz egin ditu, izkera landu, txukun, aberats eta, bear bada, otzegian.... Kritikalari zorrotza (zuzena ta biguna, batera) ta itzultzaille aspertu-eziña.... Zaitiegi, “Orixe!, Ametzaga, T. Etxebarria ta beste asko ta asko: gure artetik urruti bizi bear izanarren, ez dabe euskera alde batera itxi; urrutiago ta laztanago... Euron artekoa dogu gure Andima txalogarria be !” (Lorategia, 282 orr.). Eta abar asko.

“Olazar eta Uribe'tar Martin'ek, Karmelo'gaitik esaten eban: “Euskerazko Eleiz-lan ugari euki ebalako, ez eبالa asti larregirik euki idazle-arloan lan egiteko. Eta tamalgaria zala, idazle argia, zeatza ta jatorra zala-ta”.

(Eta Karmelo'ren buruz idazten nagoen lan onen bitartean, Uriarte'tar Ana'k deituta, beste tamalgarrizko albiste (noticia) bat artu dot: 2.008'an Abenduaren 5'ean, arratsaldeko ordu biak dirala “San Sebastian ta Zubillaga'tar Jose Mari “LATXAGA” il jakula).

“DEIA” Bizkaiko eguneroko aldizkarian irakurrita, beste batzuen artean, beragaitik esaneko lora-eder oneik batu dodaz, adibidez Igone Etxebarriak esaten dauana: **“Izkeraz samurra zan, Karmelo, lagunarterako atsegiña eta aurrean daukanari edertasuna ikusten ekiana”**. Arejita'tar Adolfo'k: **“Bizkaiko euskara jatorra ezagutu nai duenak irakur beza “Euskerea nire bizitzan” liburuaren leen kapitulua”**. Unzueta'tar Anjel Mari'k: **“Oso maitatua zala, atsegin (afable), lagunarteko (accesible) eta solas-egille edo mintzaile aundia”**.

Begoña'n, Karmelo'ren buruz elizkizunak egin ziranean an egonda, nik eneban sekula esango, an esan ziran lez, Karmelo: “Gizon on-bat, Eleiza'ren maitale” izan zala eta gaiñera gazteleraz.

Karmelo'k, Euskal-Erri ta Mundu'ko Erritarrak maitatzen ebazan **“JAUNGOIKUA'ren Eleiza-lez”**. Eta gure **“Arbasoak bizitz-oneri emon eutsoen adierazpen ederragaz, gure izatasunezko Lege-Zarretan oituratuta daukaguzenak”**, Munduko **“Gizartearen Eskubide guztiak”**. Or !! eta era orreitan bakarrik zaintzen diralako **JAUNGOIKUA'k Gaiezko-Izadi oneri ipini EUTSEZAN LEGEAK**.

Gauza orreik ikusita, enintzen egon gogo-onenean eta nire burutik oldozmen asko joan-etorten zirala, bategaz oartuta geratu nintzan, nire buruari itaun au eginda: **“Zergaitik..., sorburuzko ez dan izkuntz-bat, sorburuzko izkuntza daukan erri bateri sartzeko..., ainbeste alegin egin ?”**.

EUSKERA: “Sorburuzko itzetatik asita, bere oguzpeneko (pronunciación articulada) osotasunean daukazan itzak, bizitzak daukan legearen eskaeran, itz-bakotza bere lekuetan ondo gardaiñatu edo egokituz (ajustar) osotuta dago.

Eta gure “NORTASUNEZKO-ERRIGIZARTEAREN IZAERA, BEREN AZTURAZKO IRAKASKINTZAN ONDO-EKANDUTA”.

GAZTELERA: “Erromatar-Menperatzaileak guda-lardarian (imposición) ekarri eben Latiña eta bertokoak mintzatzen ziran Berezko-Euskerearen bitartean sortutako mozkin (producto) edo naasteko izkuntz baragarri bat da”.

JENDEKUNTZAZKO IZKUNTZA: “Bietatik, zein da JENDEKUNTZAZKO IZKUNTZA ? (idioma de cultura, o de civilización ?).

Eta zergaitik ainbeste alegin gure zentzunezko Oituran edo Nortasunean berakada aundi orreik egin dagiguzan..., lokatzazko naaste bitartetik JAUNGOIKUA argitasun geigoagaz ikusten dogulako ?. Gai-Mundu oneitan eta BEREN FISIK-ARAUZKO LEGE oneikaz, eziñezkoa dala erakusten dausku.

Eta ainbeste larderi alboratuta..., Zergaitik ez dabe bezarkatzen: “Giza, Erri eta Mundu onen gizarte guztia etsipen (desesperanza) aundiagaz eskatzen dauazan ESKUBIDEAK ?

ZER OSTONDUTEN DABE ASMO ORREIK ?: Elburu onik ez beintzat, eta gure EUSKAL-EKANDUZKO zentzun ederrean atzerakada galanta egitea izango zalako, eutsi bear dautzagu, JAUNGOIKUA´ri begira milla urte askoren etorkizunean egin dan EUSKAL-EKINTZARI.

ETXENAGUSIA´tar ON-KARMELO´k: Beren askeneko arnasaldian “AURRERA EGITEKO” emon eban aolkuan, berak erria ondo ezagutzen ebalako, ziurtasun andiagaz esango neuke: Aolku ori, ERRIA´ri emon eutsoela, iñork baiño obeto jakin ebalako: “EUSKALERRIA, JAUNGOIKOAK BIZITZ ONERI IPINITAKO LEGEAREN LOTSEAN NORTASUNDU EGIN ZALA”.

EUSKALERRIAK, ZOR AUNDIAK DAUKAZ ON-KARMELO´GAZ

“EGUN AUNDIRARTE”

ATUTXA´tar PAUL
Zornotzan 2.008´an Abendua´ren 13´an



EUSKERAZKO IDATZ-LANAK

